

KARLOS SANTAMARIA.
EUSKARAZKO IDAZLANAK

Eskubide guztiak jabedunak dira. Galarazia dago liburu honen kopia egitea, osoa zein zatikakoa, argitaraldi honen jabeen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.

Edizio arduraduna: Jakin

Argazkiak ondorengoei esker lortu ditu Jakinek: Karlos Santamariaren senitartekoak (14 argazki), *Euskaldunon Egunkaria* (11 argazki), *El Diario Vasco* (2 argazki), Gipuzkoako Foru Aldundia (3 argazki), Koldo Mitxelena Kulturunea (5 argazki).

Argitalpen partekatua: Jakin eta UPV/EHU

Maketa: Lorea Uribe-Etxebarria

Azala: Markos Ansorena

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak S.L.

© Karlos Santamariaren ondorengoak

© Argitaraldi honena: Jakinberri S.L.

© Argitaraldi honena: UPV/EHU

I.S.B.N.: 978-84-95234-45-2

L.G.: SS 699-2013

AURKIBIDEA

Argitaratzailearen aurkezpena: JAKIN	9
Argitaratzailearen aurkezpena: UPV/EHU	13
Karlos Santamariaren obra: urteak eta gaiak. <i>Joan Mari Torrealdai</i>	15
Biografia-berriak	23
KARLOS SANTAMARIAREN IDAZLANAK	31
I. 1963-1969	33
Errusia ta Txina. Alkarren bildur?	35
Eguneko iru arazoak	37
Atomo-bonba dala ta Sartaldetarren arteko istillua	39
Jinebran, joku motela	41
Nasser prest, bide berri bati ekiteko	43
Europako merkatuaren iru jo-mugak	44
Lur-jabetasunaren eraberritzea	46
Gipuzkoaren... ..	47
Zenbat buru ainbat aburu. Ezta...! Baida...!	48
«Solas aurrearen gisa»	49
Philosophia zintzoa	51
Aresti eta Madalena	52
«Berezkoa»	53
Izpiritutik sortzen dana	54
Aurrerontz ala atzerontz?	56
Aingerukeria	57
Lau zoro	58
Zulo ta usguneak	59
Don Juan Zaragüeta'ri omenez	60
Bi adixkideei	62
Sartu ta entzun	64
Musika ixilla	66
Arrixku gorria	68
«Ahimsâ»	69

Martin Luther King	71
«Txakurraren gaberdiko ametsa»	73
Marmarraka	75
Maragall ta Unamuno	77
«Gauzak» esatea	79
Ettxekoandreaken zenbaketan	81
Adiskide on bat joan zait	83
Bixigu arrabak	84
Aundi itxurazko politika	86
Miñik gabeko gizona	88
Zurea gurea	90
Izenik gabeko katuak	91
Mastiaren biloba	93
Jacques Leclercq, kanonigoa	95
Liburua ta gizona	97
Jatorrizko mintzaerak	99
Mandatua	101
Letra bat dala-ta eztabaida	103
Bide bakarra	105
Gogo oneko gizona	107
Gaurko arazo ederra	109
Laño artean	112
Odol kolorezko planeta	114
Maritain	116
Zaldun ibilkor bat	118
Asmogintza	120
Egunetik egunera	122
Egunetik egunera	124
Egunetik egunera	126
Egunetik egunera	128
Egunetik egunera	130
Ez erori diru-tentazioan	132
Egunetik egunera	134
Egunetik egunera	136
Naboth ta erregea	138
Egunetik egunera	141
Egunetik egunera	143
Egunetik egunera	146
ONU'ren norakoa... zein?	148
Gure Herria, noruntz?	150
Demokrazia	152
Bide zabal-zabal bat	154
«Fedea»	156
Arimetika. Batzorde batek Euskal Akademiara aurkeztatu duen iztegia	158
Galdera zenbait «Che» Gevara ta kristau-konzienziaz	165
Irakurle adixkide bati	170

Nexka-mutil talde bati	172
Cardenal agurgarri bati	174
Marxista itxurazko intelektual bati	176
Aspaldiko sozialista eibartar bati	178
Ibon Sarasola olerkariari	180
«Snob» bati	182
Euskal idazle bati	184
Jesu-lagun bati	186
Gabriel Aresti, adiskide ta idazle ospatsuari	188
Gazte ezagutzeko bati	190
Liburu irakurtzekoa	192
Ikaslearen jornaia	194
Apaiz jaun bati	196
Estruturalismoa	198
Apaiza	200
Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka	202
Algebra berria	205
Zalaparta Elizan eta erlijioaren konzetua	214
Eliza ta biolentzia	216
Markuse'k diola-ta	218
Euskal kulturari buruz	220
Igeltseroa Batikanoan	222
Hitler'en espektroa	223
Indar moralaren botherea	224
Piperrada izugarri bat	225
Apaizen margoa	226
Sirenaren abestia	227
Negu-marrubiak	228
«Jauntxoa beti jauntxo»	229
«Gandhi-urtea» oraindik orain asi zaigu	230
Fedearen inguruko eztabaida	233
Gaurko gai bat	236
Dimensio bateko gizona	239
Sasi-fedearen inguruko alkarizketa	246
Euskaltzaindiko batasun hiztegia	249
«Token» ta «Tokenismoa»	252
Zezenkeriak eta Xiboleteak	254
Euskal-Herria ta Gaztel-Herria	256
Barri on bat	258
Gizona	260
Hiztegi modernoa	261
II. 1970-1979	263
Grecia, Europako kontseilutik kanpora	265
Biafraren ondarena	266
Guatemalako ilketa, zer egin?	268

Irakaskintzaren demokratizazioa	270
Garrantziko bi gertaera	272
Profeta baten itzaltzea	274
Gazteak umetzat ez har!	276
Inportantzia handiko ehun urteko bat	277
Chile komunismorantz?	279
Konformismoa	281
Rhodesiako Elizaren jokabidea	283
Heriotze Zigorra eta Haur Galeraztea	286
Kristogan sinestea	289
Marxismoa eta pertsona	292
Fedea eta ideologia (1)	294
Fedea eta ideologia (2)	297
Klase burruka dela eta	299
Euskal hiztegi analogikoari buruz	301
Informazioa neurritzen	307
Ahoz eta euskeraz irakurtzekotan, nola irakurri behar dira algebrako formulak? (I) ...	316
Ahoz eta euskeraz irakurtzekotan, nola irakurri behar dira algebrako formulak? (II) .	324
1876-1976 ehunurteko ilun bat	338
Euskal Unibertsitatea, buruaren kultura bat ala kultura baten burua?	340
Autonomia eta paktoa	342
Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez dira bat	343
Unibertsitateko kulturaz	346
«Eusko Ikaskuntza» eta matematika zientzia	350
Euskera eta prentsa	357
III. 1980tik aurrera	361
FELAPTON silogismoa dala eta	363
Hamar urte ANAITASUNAREkin. Gazteak umetzat ez har!	372
Erich Fromm pentsalari eklektiko bat	373
«ARGIA» etapa berri baten aurrean	375
Marx eta giza pertsonaren problematika	378
Marxismoaz mahaingurua	392
Gerra nuklearraren mehatsua eta Europako egoera	396
Euskadi Euskaldun bat	413
Urte berri bat munduko politikan	415
KARLOS SANTAMARIARI EGINDAKO ELKARRIZKETAK	419
Karlos Santamaria, Meteorologiaz mintzo	421
Karlos Santamaria. Intelektual bat politikan	427
Karlos Santamariarekin gerraz eta pazifismoaz. «Arriskua amerikarren defentsa planean dago»	433
Karlos Santamaria, pazifista aktibo bat bakea arrazionalki aurkitu nahian. «Bakearen gaian, batez ere arazoa zientifikoki eta sakonki aztertuko duen pertsona multzoa behar dugu»	441
Carlos Santamaria: «Gure herriak gaitasun politiko falta darakusa»	447

K. Santamaria: «Gerrak ezabatzearen aldeko burrukak denbora asko hartu dezake, baina ezin dugu etsi»	453
Karlos Santamaria. Zahartu ez den pentsalaria	458
«Herrien Europa sortu beharra dago». Karlos Santamariari Urrezko Domina ezarri zion atzo Gipuzkoako Foru Aldundiak	463
Carlos Santamaria: «Teknika ez da txarra; bai, ordea, teknikak agintzea»	466
Karlos Santamaria: zientzia eta kontzientzia bat eginik	470
ARGAZKIAK	475



ARGITARATZAILEAREN AURKEZPENA: JAKIN

Karlos Santamariaren obra eta pentsamendua bildu, sistematizatu eta aztertu zuen Jakin Taldeak 1991tik 1994ra bitartean. Karlos Santamariari Gipuzkoako Foru Aldundiak urrezko domina eman eta Gipuzkoako seme kutun izendatzearen kariaz, Imanol Murua Ahalduen Nagusiak eman zion Jakini haren obra bildu eta aztertzeko enkargua. Horren emaitza Koldo Mitxelena Kulturuneak kudeatzen duen www.karlossantamaria.com webgunean aurki daiteke.

Orain, Euskal Herriko Unibertsitateak euskal unibertsitatearen aitzindari izan zenaren lana biziberritu nahi du. Duela 21 urte, 1992an, Honoris Causa izendatu zuen Karlos Santamaria; gero, 2011n, Gipuzkoako Campuseko iker-gune enblematiko bati Carlos Santamariaren izena jarri zion. Eta orain bere obra birbaloratu eta ezagutzera eman nahi du, modu txalogarrian.

Eta hori egiteko Jakin Taldera jo du UPV/EHUK.

90eko hamarkadan egin genuenaren bertsio berria prestatu dugu, nola edizio digitalerako hala edizio analogikorako. Material osoari orraztapena eman diogu (azterlanetako euskararen gaurkotzea UPV/EHUKo Euskara Zerbitzuko zenbait kidek burutu dute), aurkibide tematikoa eta izen aurkibidea landu ditugu, eta batez ere materiala osatu eta gehitu dugu: 53 artikulua gehiago, 22 elkarrizketa berri eta material grafiko ugari ditu oraingo argitalpen berrituak.

Bi edizio mota antolatuta ditugu: edizio digitala eta edizio analogikoa.

Digitalean Karlos Santamariaren obra oso-osorik dago, erdaraz zein euskaraz idatzi zuen guztia, egunkaritan zein aldizkaritan edo liburutan eman zuena. Guztira 1.000 idazlan: zehazki, 966 lan periodistiko eta saio, 30 elkarrizketa eta 4 liburu. Berak idatzi zuenaz gainera, hainbat adituk Karlos Santamariaren obra eta pentsamenduari buruz idatzitakoak ere biltzen dira.

Paper edizioan, aldiz, euskaraz argitaratu zuena biltzen da lehen liburukian, eta beste bietan berari buruzko azterketak. Edizio analogiko hori

beste bi materialekin osatzen da, Karlosen biografiarekin eta berari egindako elkarrizketekin.

Karlos Santamariak idatzi zituen mila idazlan horietatik gehien-gehienak, arestian aipatu dugun bezala, laburrak dira, egunkarietako lankidetzak, 800 inguru. Gainerakoak saioak, komunikazioak eta elkarlanean egindakoak dira. Lanik ugariena egunkarietan eman bazuen ere, Karlos Santamaria ez zen kazetaria, pentsalaria baizik. Nahiz eta ez zuen pentsamendu sistema bat osatu, bere pentsaera sistematikoa da, koherentea, ardatz nagusi batzuen jiran landua. Dosi txikitik emana eta mila modutara barreiatua dagoen pentsaera hori sistematizatu eta aztertzea ezinbestekoa iruditu zitzaigun. Egin diren azterketek hori bilatzen dute, lehen mailako hurbilketa gisa, geroko lan sakonagoen atari edo aurrelan izatea.

Bitan banatu dugu azterketari dagokion atala.

Joxe Azurmendik Karlos Santamariaren pentsamendua bere osoan arakatu du, bi atal nagusitan partiturik. «Ideia» izeneko lehen zatian, Santamariaren autokontzientzia intelektuala aztertzen du, alegia, berak non kokatzen duen bere burua, bere pentsamendua, garaiko autore eta joera ezberdinen artean, hots, pertsonalismoan.

Bigarren zatiak «ekintza» du izena. Baina ez dira Santamariaren ekintzak edo jardura sozio-politiko-kulturalak zerrendatzen, baizik eta ekintza horiei buruz eta horietan garatu dituen gogoetak. Azurmendik aurkezten duen Santamaria ez da pentsalari platonikoa, justu kontrakoa baizik: gogoetalarari bidelaguna, pedagogoa eta adiskidea, bere herriaren peregrinazioan herriarekin doana.

Ikuspegi orohartzaile eta oso hau osatze edo aberaste aldera, egoki ikusi da Santamariaren pentsamenduan eta obran agertzen diren gai zentral batzuk arta monografikoz tratatzea. Ondoko bost gaiok adituek jorratu dituzte: Xabier Eizagirre eta Andoni Ibarrek landu dute «Zientzia, Teknika eta Gizartea, Santamaria matematikariaren pentsamoldean»; Paulo Agirrebaltzategik arakatu du Santamariak bakeaz eta gerraz idatzi duena: «Bakea eta gerra. Etikaren eta teknikaren artean»; Xabier Apaolazak, bere aldetik, estatuaz, nazioaz eta politikaz Santamariak idatzi duena aztertu du: «Karlos Santamariaren pentsamendu politiko-soziala». Joan Mari Torrealdaik Santamariak euskarari, kulturari eta euskal kulturari buruz landu zuena azaldu du: «Karlos Santamaria eta (euskal) kultura». Santamariak gidaturiko Donostiako Solasaldien dokumentazioan murgildu da Joseba Intxausti, eta, «Nazioartetik Donostiara» izenburuz, ekimen arrakastatsu haiek aztertu ditu.

Gure irudiko, modu honetan, Joxe Azurmendiren ikuspegi orokorra eta osoa beste bost monografia horien bidez aberasten da, eta, aldi berean, ondoko belaunaldiei bide berean sakontzeko abiapuntua eskaintzen zaie.

Nori berea emateko orduan, gure esker ona jende askori agertu beharko genioke. Guztiak ezin dira aipatu, baina aipatu gabe ezin dira utzi Euskal Herriko Unibertsitatea, eta ibaian gora joanez, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Santamariaren familia edo Karlos bera.

Jakinkideontzat ohorea eta Karlosekiko zorra kitatzeko modu bat ere bada lan hau. Izan ere, gauza asko izan da Karlos guretzat: pentsalaria, irakaslea, zientzialaria, euskaltzalea, abertzalea, politikaria, eta oroz gainetik: lagun eta maisu, kide eta lider.

Joan Mari Torrealdei
JAKINen kudeatzailea



ARGITARATZAILEAREN AURKEZPENA: UPV/EHU

Gipuzkoako Campusaren esker ona Karlos Santamaria aitzindariari

Euskal Herriko Unibertsitateak, eta bereziki Gipuzkoako Campusak, gogo onez onartzen du Karlos Santamariarekin duen zorraren handia; gainera, gure aitormen hori eta esker ona erakutsi eta zabaldu nahi dugu. 1992. urtean gure unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zuen, eta, euskal unibertsitatearen aitzindari ohoretsu izaki, 2011. urtean, Gipuzkoako Campuseko ikergune nagusietako bati *Carlos Santamaria Zentroa* izena eman genion.

Jakin Taldeak, 1991-1994 urteetan, haren obra guztia bildu eta aztertu zuen eta, orain, urrats bat gehiago emateko, obra hori bera biziberritu nahi genuke, UPV/EHUren webgunearen bidez zabalduz, berritua eta osatua, aurkibide egokiekin hornitua; bestalde, Karlos Santamariaren euskarazko lanak eta pentsamenduaren bilketa- eta azterketa-lan hori paperezko edizio mugatu batean argitaratu dugu.

Cristina Uriarte Toledo errektoreorde ohiak bultzatu eta sustaturiko proiektu honekin, uste dugu Karlos Santamariaren lana eta pentsamendua birbaloratu eginen dela, jende gehiagorengana iritsiko dela, eta zirkuitu intelektualetan integratuko dela.

Honekin ez dugu zorra kitatzen, baina esker ona agertzen dugu irakasle aitzindariaren aurrean.

Ana Arrieta Ayestaran anderea
UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko errektoreordea

Pentsamendua eta ekimena

Karlos Santamaria pentsamendua eta ekimena da.

Orain UPV/EHUren webgunean bildu eta, zati batean, paperean argitaratu diren haren idazlanetan ikusten denez, Karlos Santamariak hainbat gogoetagai erabili zuen: gizartea, politika, erlijioa, kultura, zientzia, herrigintza... Euskal Herrian gaur diharduen unibertsitate publiko nagusiko errektorea naizen heinean, unibertsitatea, Euskal Herria eta euskara trinomioaz hark eginiko gogoeta azpimarratu behar dut. Trinomio horretako hiru elementuak lotzea izan zen Karlos Santamariaren kezka nagusietako bat, eta gaur oraindik eztabaidagai ditugun hainbat arazori buruzko ideia interesgarriak aurkituko ditu irakurleak haren lanetan.

Pentsamenduarekin batera ekimena izan zuen Karlos Santamariak, bere intereseko arlo guztietan. Ez ditugu hemen banaka aletuko unibertsitatearen alorrean bultzatu zituen ekimenak; soilik lehenengoa aipatuko dugu, hogeita hiru urte zituela ekindakoa: Jose Oñaterekin batera, Donostiako *Centro de Estudios Científicos (CEC)* sortzea sustatu zuen, 1932an, zientzia eta zientzia aplikatua lotzeko asmoarekin, euskal unibertsitaterako bidean eta inguruko industriari laguntzeko gogoz; urte berean sortu, zuzendu eta garatu zuen ikasgune horri loturiko aldizkaria, matematikaren alorrekoa, batez ere ingeniarietako ikasleentzat.

Eta zer da unibertsitatea, pentsamendua eta ekimena ez bada? Gure Euskal Herriko Unibertsitatea ez da Karlos Santamariak nahiko zukeen euskal unibertsitate ideala, baina uste dugu azken urteetan urrats handiak eman ditugula hartara hurreratzeko.

Proiektu honetan Jakin Taldea izan dugu bidaide eta are bide-erakusle. Karlos Santamariarentzat hori ere pozgarri izango zatekeen, euskal kulturarentzat 50eko urteetatik hona hain garrantzitsua izan den talde honek hartu baitzuen, eremu askotan, haren lekukoa. Euskal Herriko Unibertsitatearentzat ohorea da Jakin Taldearekin batera jardun ahal izatea Karlos Santamaria irakaslearen omenez.

Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna
UPV/EHUko errektorea

KARLOS SANTAMARIAREN OBRA: URTEAK ETA GAIAK

Joan Mari Torrealdai

Ondoko orrialdeetan Karlos Santamariaren lanen azterketa labur bat eskaini nahi dugu, 60 urtetan zehar eta 970 lanetan barrena barreiaturik dagoen emaitzaren laburpen gisa.

Hamarkadaka eraturik, urtez urte azaltzen da bertan Santamariaren ekoizpena, alderdi kuantitatiboa, alegia. Eta, horren ondoan, alderdi kualitatiboa: bere jardun intelektualaren azterketatxoan zertaz idatzi duen ikusten da.

Urtealdiak





Santamariaren idazlanak oro har



Karlos Santamariak 1934an eman zuen argitara bere lehen lana: urte horretan bi lan eta hurrengoan bat. Eta gero isilaldia, Francoren altxamenduaren kausa eta ondorioz. Bederatzi urte luzeko isilaldiaren ondoren, 40ko hamarraldiaren erdian hasi zen pittinka idazten, baina ez da normalizatuko hamar urte geroago arte. Modu sistematikoan eta maiztasun dezentez 50eko hamarraldiaren erditik aurrera hasi zela esan dezakegu.

Hirurogei urte eman ditu idazten Karlos Santamariak, edo zehatzago esan, hamar urte gutxiago, frankismoaren lehen garaiari dagozkionak guztiak, 30eko hamarkadan lau eta 40koan sei. 1948tik aurrera ez du sekula huts egin, 1992an idazteari zeharo utzi zion arte. Guztiz utzi aurretik ere, asko apaldua zegoen bere emana: 80ko hamarkadaren erditik aurrera tantaka idatzi ohi zuen.

Aldirik oparo eta emankorrenak 50eko eta 60ko hamarkadak dira, eta gero 80koa. Lehen bi horietan biltzen da Santamariaren lan publikatuen %64,5. Aipaturiko hiru hamarkada horietan barrena, hamar urtetan astero idazlan bat baino gehiago argitaratu izan du. Askok da hain luze maila horretan maiztasun hori mantentzea idazle edo kazetari profesionala ez den batentzat, eta hedabide gutxiko eta zentsurapeko urte haietan are goresgarriagoa.


KARLOS SANTAMARIAREN OBRA: URTEAK ETA GAIAK





1990	4
1991	2
1992	2
Guztira	8

<i>Datarik gabe</i>	<i>31</i>
---------------------	-----------






Santamariaren euskarazko ekoizpena

Euskarazko ekoizpenaren grafikoa kopuru orokorrez osatutakoaren ondoan oso desberdina da, bai kopuru orokorretan noski eta baita ere denboraren sekuentzian. Ekoizpen osoaren %15 da euskarazkoa, hori bateko. Eta, besteko, urte gutxitako lana, orokorraren ondoan: 20 urtetan eman zuen lanen bat argitara, eta ez 50 urtetan, erdaraz egin zuen bezala.


Karlos Santamaria euskaldun berria zen, eta berandu ausartu zen idaztera, 60ko hamarkadan euskalgintzaren bizitasunak akuilatuta seguruenik. 1963koa da bere lehen artikulua. Urte horixe da gehien idatzi zuen urtea, hasierakoa. Hasierako hamarkada da, bestalde, oparoena, euskaraz idatzi zuen guztiaren %75 biltzen baita aurreneko zazpi urteotan. Hurrengo hamarkadetan urteko produkzioa bakana da oso.

Euskarazko artikulua periodistiko gehienak *Zeruko Argian* eman zituen eta saio gehienak *Jakin* aldizkarian. Idatzi zuen azken lana *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu zuen.





1990	0
1991	1
1992	1
Guztira	2



Gaiak

Hurrengo grafiko eta taulek Santamariak landutako gaiak adierazten dituzte, kopuru eta ehunekoen bidez. Grafikoan, gai bakoitzari dagokion ezker zutabeetan, Karlos Santamariak gai horri buruz hizkuntza guztietan idatzi zituen idazlan guztiak bildu dira; eskuinekoan, aldiz, euskaraz ekoizturikoak bakarrik.

Grafikoak ere argi islatzen du bien alde kuantitatiboa: %15 idatzi zuen euskaraz. 150 bat bakarrik dira euskaraz emandakoak erdarazko 800etik gorakoen ondoan. Santamaria euskaldun berria zen, eta berandu hasi zen euskaraz idazten, 60ko hamarraldian, hain zuzen.

Gai ugari jorratu zituela, grafikoari eta taulei begiratuta nabarmena da. Gehienak modu laburrean eman zituen, egunkarietako lankidetzan moduan. Baina hainbat gai sakonago ere landu ditu, saio moduan sarri eta lau aldiz liburu gisa.

Erabili izan dituen gai gehienak hiru alorretan koka daitezke, politikan, erlijioan eta filosofian.

Politikan arreta berezia jarri du atzerriko gorabeheretan, frankismoaren sistema itxiari leiho bat zabalduz. Atzerriko zein barneko gaietan maiz jorratu ditu bakea eta gerra, bakezaletasuna eta indarkeria, ideologia eta sistema politikoak, eta giza eskubideak, besteak beste.


Erljio eta kristautasunari buruzko gaietan arreta handia jarri du gizarte modernoak erlijioari egin dizkion desfioetan, edo pentsamendu kristau modernoaren azalpenetan edo Eliza katolikoaren gorabeheretan.

Filosofian pertsonalismoa aldarrikatu du, tradizio marxistako korronte eta autoreak aztertu ditu, eta gizakiaren eta gizartearen arteko loturaz arduratu da maiz.

Santamariaren arretaguneak ez dira gai eremu horietan agortu, ezta gutxiago ere: etengabe landu ditu kultura, zientzia, hizkuntza, hezkuntza, ekonomia eta hainbat gehiago.

Euskarazko lanetan ere alor horiek guztiak lantzen ditu, ez horren maiz, bistan da. Ezaugarri txiki batzuk baditu euskarazko bere produkzioak: sailen arteko aldeak txikiagoak dira, hizkuntzaren gaiak (bereziki euskarak eta horren berreskurapenak) hartzen du hirugarren lekua maiztasunean; eta bai hizkuntzaz edo literaturaz idatzi duen guztiaren erdia euskaraz idatzi izan du.

Karlos Santamaria, ez idazle profesionala ez ofizioko kazetaria dela kontuan hartuta, idazle oparoa da, aberatsa ikuspegi eta gaietan. Hitz batean, XX. mendeko humanista.



Idazlanak oro gaika

Gaia	Kopurua	%
Politika	267	27,5
Erljioa	214	22
Filosofia	172	18
Gizartea	84	8,5
Zientzia	69	7
Hizkuntza	46	4,5
Orotarik	32	3,5
Hezkuntza	31	3
Ekonomia	21	2
Literatura	18	2
Hedabideak	16	1,5
Guztira	970	100

Euskarazko idazlanak gaika

Gaia	Kopurua	%
Politika	37	25
Erljioa	21	14
Hizkuntza	20	13,5
Filosofia	17	11,5
Orotarik	13	9
Gizartea	10	7
Literatura	9	6
Zientzia	7	4,5
Hedabideak	6	4
Hezkuntza	5	3,5
Ekonomia	3	2
Guztira	148	100



BIOGRAFIA-BERRIAK

(Karlos Santamaria mintzo da):

Ni Easo kalean jaio nintzen, «Minoría vasco-navarra»ko Izeta gogoratzen duzu?, haren etxean, Izeta etxea esaten zioten, 1909 urtean.

Nire aita oso berandu ezkondu zen, eta seme-alaba asko izan zuen, ni nintzen txikiena. Zortzi edo bederatzi izan ginen anai-arrebak, ez dakit ondo. Bero, zaharrenak ez nituen ezagutu, batzuk, orduan haurren hilkortasuna handia zen eta batzuk txikitan hil egin ziren. Aita nik uste dut 1854 urtean jaio zela. Eta begira, Burgosko Seminarioan zegoen eta bera karlista zen, eta Seminarioa utzita edo ez dakit nola, hona etorri zen, Euskal Herrira, «a defender los derechos de Dios». Aizu!, orduan hola esaten zen. Jainkoa ez zen nahikoa bere defentsa berak egiteko eta besteek egin behar..., horrela etorri ziren Jainkoa defendatze-
ra. Nire aita, beraz, Burgostik etorri zen. Ez lanera edo, gerra egitera etorri zen Euskadira. Orduan, gerra egin zuten, galdu ere egin zuten, eta Frantziara joan behar izan zuten. Frantzian bizi izan zen, ez dakit noiz arte, oso gaizki, ze realisten edo monarkikoek lagundu laguntzen zituzten, baina halere oso gaizki. Eta nire aitaren ideiak, bera oso irakurzalea zen, piska bat aldatuz joan ziren orduan, piska bat liberala bihurtu zen. Eta utzi, eta etorri egin zen, Bizkai aldera, Balmasedara, eta Balmasedan prokuradore bezala hasi zen lanean. Eskribaua edo prokuradorea.

Bestaldetik nire ama. Historia oso konplikatua da nire familiakoa, interesantea baina konplikatua. Nire amaren familia euskalduna zen, euskaldun osoa. Nafarrak ziren, Aranokoak. Badakizu, Arano, Hernani gainean, han Ansa asko dago. Eta ez dakit zer gertatuko zen, nire aitona Jose Ansa eta bere familia osoa, orduan Altsasu guztiz euskalduna zen, Altsasura joan ziren bizitzera. Liberala zen Jose Ansa. Hemen aldrebes da kontua, nafarra eta liberala da amaren aita. Jakina, gero gerra etorri zen, eskapatu behar izan zuten, eta, hanka!, bera

Donostiara etorri zen. Badakizu nola zen, inguru hau, Orio, Donostia, liberalak ziren, eta denbora hori guztia nire ama hemen zegoen, gerra karlistan. Bonbardaketa eta kanpaia eta hori guztia, berak askotan kontatu zidan. Orduan, gero, nire amak maistra karrera egin zuen. Hiru ahizpa ziren eta hirurek maistra egin zuten. Iruñean egiten zuten, hemen ez zegoen maistra egiteko. Oposizioak Valladoliden egin, orduan Valladoliden egin behar ziren oposizioak, eta Balmasedan eman zioten plaza. Eta hortik etorri zen, kastellanoa, Burgostik etorria eta karlista, eta euskalduna, nafarra eta liberal baten alaba, nola elkar ezagutu zuten eta ezkondu ziren, eta hortik etorri da gure familia.

Ezkondu eta geroago Bilbora joan ziren bizitzera. Nire anaia batzuk Balmasedakoak ziren, beste batzuk Bilbokoak. Eta azkenik Donostiara etorri ziren, ze, nire amak beti Donostiara etorri nahi zuen berriz ere, eta Easo kalean jarri ziren bizitzen, eta horregatik bi anaia gazteenak donostiarrak gara.

Halaxe dira gerrak eta gauzak, nola familiak konpontzen eta deskonpontzen diren.

Beno, ni txikiena nintzelako, dena etxean ikasi nuen txikitan, irakurtzen, idazten, eta dena. Aita, ama, anai-arrebak, denak nituen maisuak eta maistrak. Frantsesa txikitan ikasi nuen, etxean. Arreba Maritxuk oso ondo zekien frantsesa eta berak irakasten zidan. Nire lehenengo irteera etxetik eskolara Batxilergoko bigarren kurtsoa egiteko izan zen, marianistetan, «Colegio Católico de Santa María». Badakizu zergatik duen izen xeblebre hori, «Católico»? Marianistak, hona etorri zirenean, «con sombrero de copa alta» ibiltzen ziren. Nire denboran ere oraindik marianistek bonbina eramaten zuten, oso elegantea, lebitarekin. «Los levitas» deitzen genien ni ikasle nintzela. Ba, esandakoa, «con sombrero de copa alta» etorri ziren marianistak, eta jendeak pentsatu zuen tipo arraro haiek protestanteak zirela, eta jendea esaten hasi zen protestanteak etorri zirela, eta hola. Orduan «Colegio Católico» ipini zioten izena. Eta nik hor egin nuen batxilergo dena. 1924 edo 25 bukatuko nuen. Nik berehalaxe matematika egin nahi nuela erabaki nuen, asko gustatzen zitzaidan, eta matematika estudiatzen hasi nintzen, Madrilen, Facultad de Ciencias Exactas. Orain asko dira, baina orduan holako gauzak oso jende gutxik estudiatzen zituen. Hemen inork ez, nik bakarrik, hori da egia. Baina ez nintzen denbora guztia Madrilen egoten. Niri Madril sekula ez zait gustatu. Orduan, denbora bat hemen, beste denboratxo bat han, horrela egin nuen karrera guztia, bost urte, eta gero doktoretza kurtsoa, eta tesia Rey Pastorrekin prestatu nuen, eta ari nintzen eta gero orduan gerra etorri zen eta dena nahastu zen. Rey Pastor hori izen handiko matematikaria zen. Oso sinpatikoa, errioxarra, eta benetan argia. Rey Pastor ez zegoen

Madriren, Argentinan zegoen irakasle, Facultad de Ciencias e Ingeniería-n. Han bazegoen, hemen ez zegoen Ingeniaritzako Fakultaterik, baina Buenos Airesen bai, eta Rey Pastor hara joan zen profesore. Beraz, Rey Pastor ez zegoen Madriren, baina urtero etortzen zen eta ni berarekin hasi nintzen lanean.

«Baina ez da posible», esaten zidan berak, «zu Donostian, ez duzue bibliotekarik, ez duzue ezer, ez da posible ezer egitea», esaten zidan. Beno, zer egingo dugu, ba? Nik proposatu nion orduan, hemen zerbait sortzea Eusko Ikaskuntzaren babespean. Eta hasi ginen, eta orduan eskutitz bat egin zion berak, Rey Pastorek, Eusko Ikaskuntzari, esanez nola hemen zientzialari batzuk bazekuden, eta ez zela posible horrela jarraitzea, eta proposatu zien Centro de Estudios Científicos bat sortzea. Horrela eratu genuen Eusko Ikaskuntzaren babespean Centro de Estudios Científicos hori eta hasi ginen ikastaroak ematen eta hori guztia, 32 edo 33 aldera izango zen, eta aldizkari bat ere egiten genuen, *Revista del Centro de Estudios Científicos*. Diputazioan badago. Erdaraz, jakina, ez orain *Elhuyar* eta bezala. Orduan ezer ez zegoen euskaraz. Badakizu zeinek kolaboratzen zuen? Orduan oso gaxtea zen, Ambrosi Zatarain. Eta ez duzu pentsatuko zer ezizenekin: «Basati»!

Euskara nik Toribio Alzagararekin ikasi nuen, Errepublikan, Maria Dolores Agirrek ematen zigun eskola. Pertsonalitate handi bat zen Toribio Alzaga, pertsona handi bat, eta Deklamazio Eskolan euskarako eskolak ipini zituen. Donostian ez zegoen beste euskal kulturako bizitzarik Eskola hori baino. Teatroa antolatzen zuen, etab. Baserritarren gauza bezala ikusita zegoen euskara. Mezak ere, goizeko seietan egoten ziren euskaraz, «para las muchachas», goiz-goiz, neskameak joateko. Beste euskal kulturarik ez zegoen Donostian.

Jende asko elkartu ginen, eta Doktore Oñate Jauna Donostiako Institutuan katedratikoa zen, hori izan zen gure aurreneko zuzendaria Estudio Zientifikoan Zentroan. Lokala behialako Palacio del Vino-n eman ziguten. Hori non zegoen? Nola dago orain Orly hotela? Orduan ardoaren duana edo errenteria zegoen hor, alondiga, hor egoten ziren upelak pila bat eta sekulako ardo usaina egoten zen etxe guztian. Hortxe eman zizkigun Diputazioak lokalak. Eta Usabiaga, *La Voz de Guipúzcoa*-ren jabea, Industriako Ministroa zen, eta etorri zen inauguratzera, eta tarari-tarara dena oso dotore, baina gero berehalaxe Mugimendua etorri zen eta denak kanpora.

Bizitzeko eta dirua irabazteko, karrera bukatu eta segidan matematikako kurtsoak ematen hasi nintzen, marianistetan, Institutuan, beste leku batzuetan, eta batez ere ikasle talde bat edukitzen nuen neure etxean, ingeniartzatza ikasi nahi zutenak matematikan prestatzeko. Prestatzen nituen, Bilbora lagun egiten

nien azterketetara, eta holakoak izaten ziren nire lanak. Ni ez nintzen pertsona ezagun bat, nire sinpatiak banituen bando bateko edo bestekoentzat, baina zientzialari bat besterik ez nintzen, ezezaguna, eta gerra etorri, eta ni hemen geratu nintzen. Bando bat eman zen edo ez dakit, ordena zegoen, mundu guztiak zerbait egin behar zuela, lekuren batean aritu behar zuela. Zer egingo dut, zer egingo dut?, joan nintzen Institutura, eta esan nion Don Francisco González Maisuari, orduan direktore zegoen, iruditzen bazitzaion, nik lagunduko nukeela profesore bezala, eta horrela hasi nintzen eskolak ematen, beno, «como interino gratuito», ez irabazpide batekin. Ni joan nintzen Institutura momentu hartan, gauza bat egitera, beste bat ez egitearren, jakina, hori da egia, eta ni gustura. Baina interino gratuito izendatu eta berehala, espediente bat egin zidaten, eta pliego de cargos bidali zidaten etxera esanez, erdaraz esango dizut: «Se le señala como simpatizante del nacionalismo y que cuando se le habla del Movimiento Nacional se expresa con bastante tibieza». Hemen eduki behar dut paper hori nonbait jasota, baina orain etxe dena paperez beteta dago, ez dakit non edukiko dudan. Klaro, denok kezkatuta, eta orduan, González oso gizon ona zen eta, «begira, badakizu zer izango den onena? —esan zidan—: zuk errenuntziatu karguari eta kito», eta hola egin nuen, eta bera bakean utzi zuten eta niretzat ez zuen jarraipenik izan istorioak. Orduan, zer egin? Norabait joan behar.

Beno, ni soldadu joan gabekoa nintzen, inutil nintzen zerbitzu militarreko. Hau da, nik ez nuen soldadu joan nahi, ez dakit kontu hauek esatea ba al dagoen, ezta?, baina nolabait konpondu nintzen, Iruñera joan eta piska bat inutil bistagatik izateko eta soldaduskatik libratzeko. Nire anaia Iruñean bizi zen, jende askorekin zuen harremana eta harekin konpondu nuen inutil izateko. Baina gerra etorri zen eta inutil denak errebisatzen hasi ziren. Ikusi nuen plaza batzuk eskaintzen zirela zerbitzu meteorologikoan lan egiteko, eta han sartu nintzen, eta meteorologoak nola behar zituzten, hartu ninduten, eta han egon naiz gero lanean erretiratu arte.

Uztailaren 18an gogoratzen naiz solas bat nola eduki genuen Eusko Pizkundeen Jose Maria Lasarterekin, EAJko Diputatua zen, eta egun horretan ni Javier Elosegirekin nengoen —Javierrek El Casino Eusko esaten zion, kafea hartu eta jostatu eta ezer ez egin, omen zelako han egiten zen guztia— eta Lasartek, «ez da ezer pasatzen, jeneral bat da, ez dago zertan kezkatu», esaten zuen. Baina nik, kalean tiroak entzuten zirela-eta, ikusi nuenean, hartu andrea eta umea, ordurako ezkondata nengoen, eta Aizarnara joan ginen. Azkeneko momentuan Eusko Pizkundeko bazkideen zerrendak-eta desegitea lortu genuen behintzat. Aizarnakoa ere luze kontatzekoa genuke, baina hobe uztea. Donostiatik hara

joan ziren Dunixi Azkue, Pako eta Pepe Villar nebak, Gipuzko Buru Batzarreko burua zen Villarren anaiak zirenak, eta jende asko, asko. Eta han egon ginen, ea zer ikusiko, halako batean erreketek heldu ziren arte. Mendian behera erreketek kolumna bat herrian sartu zen, eta kapitainak Udaletxean bere diskurtsoa euskaraz egin zuen, «Gora Euskal Herria!» hoska bukatuz, eta gu oso pozik mundu guztia, oso ondo. Egun batzuk geroago besteak etorri ziren eta dena izorratuta. Ni atzera Donostiara etorri nintzen eta benetan jendea izututa zegoen hemen. «Baina gizona, zer zabilta zu bandera ipini gabe!», ikusi orduko esan zidan Azkueren emazteak ikaratuta. «Ibili zaitetz kontuzago, ez dakizu-eta hau nola dagoen, edozer gauza pasa dakizuke!», eta halaxe zen, izan ere, baina hobe izango dugu hori uztea.

Nire lan guztia beti kulturala eta irakaskuntzakoa izan da. Gerra ostean, 1940 edo 41 aldera, Javier Elosegirekin, Centro de Estudios Superiores sortu genuen, Círculo de San Ignacio-n. Javier Elosegi hau, oso abertzalea, Joseba Elosegiren anaia zen, Francoren aurrean bere burua su emanda bota zuena. Gertatu den tragedia da, Javierrek gerra Francoren bandoan egin behar izan zuela, eta bere anaia Josu berriz frontean frankistek hil zutela. Gerrako gauzak. Bizikletako istripu batean hil zen gero Javier. Javierrek eta biok, bada, kontratu bat sinatu genuen jesuitekin. «Jesuitekin kontratu sinatuak eduki behar dira beti», esaten nuen nik, eta kontratua egin genuen, ez zait inoiz damutu. Irakaskuntza zientifikoaren ardura, kontratu horretan zegoenez, gurea izango zen, eta estudianteen arta morala eta erlijiosoa jesuitek izango zuten. Eskolak ez zeukan inolako ofizialtasunik hasieran. Bilboko Ingeniaritza Eskolarekin adostasunean, guk estudianteak diziplina zientifikoetan prestatzen genituen eta azterketak Bilbon egiten zituzten. Gero legeria bat etorri zen, holako eskolei anexoak izatea agintzen ziena, eta Ingeniaritza Eskolak oso pozik asoziatuaren aitortpen bat eman zigun, ofizialtasun horixe besterik ez zeukan. Mutil asko eta asko pasa da hortik, Gipuzkoako ingeniari gazte gehienek aurreneko ikasturteak hor egin zituzten. Eta horrela, krisi handia sortu arte, Aita Errandonearekin-eta, alegia, Iruñekoa fundatu den arte, eta orduan jesuitak iratzartu dira, Aita Errandonea-eta, zerbait egin beharra dago azkar, etab., etab. Orduan larri zen hemen jendea. ESTE orduan sortu da, Escuela Superior de Técnicos de Empresa, eta EUTG, izen hori neuk asmatu bainuen. Hasieran EUG zen, Estudios Universitarios de Guipúzcoa, T gero erantsi diote. EUGn ni Zientzia Saileko dekanoa izan nintzen zenbait urtetan, eta lehen Centro de Estudios Superiores-en egiten genuen lan bera egiten jarraitu genuen, plan garatuxeago batekin eta hobeto orain, hori bai. ESTE ez, ESTE eskola guztiz beregaina zen, ezagumen ofizialik gabekoa batere, eta bere jokoa egiten zuen. Urteak eta urteak hor jarraitu dut

nik lanean, Nafarroako Unibertsitatearen peko Ingeniaritza Eskola Donostian kokatu zen arte. Orduan, Ingeniaritza Eskola batekin Donostian bertan, gure Sailak eginkizunik ez zuela-eta, denon adostasunez, etetea erabaki genuen.

Donostian nik erabili dudan ekitaldi kultural garrantzizkoena, Elizarekin, Donostiako Solas Katolikoak izan da. Solas Katolikoekin 46an hasi ginen. Beno, lehenago, hau da, gerra aurrean, hemen Ikastaro Internazional batzuk eginak ziren, nahikoa interesgarriak. Amintore Fanfani eta etorri ziren, eta Mathieu Akizeko apezpikua, esaterako, besteak beste. Eta ondoren Solas Katoliko batzuk proiektatu ziren 36rako, marianistetan. Baina gerra etorri zen eta ezin izan ziren gauzatu. Berriro gerra ostean ideia berrartu denean, nik ez dakit komeni den kontatzea, historia konplikatu bat izan da hori. Nik esan egingo dizut eta gero zuk ikusi. Momentu horretan muga itxi-itxita zegoen, enbaxadak erretirata zeuden eta dakizun hori guztia, kinka zaila zen, atmosfera itogarria. Gobernuari, jakina, hemen askatasuna bazegoela, irudia ematea kanpora, interesatzen zitzaion; eta guri, kanpoko munduarekin harremanean sartzea barrukoak, interesatzen zitzaigun. Aho biko arma zen. Orduan Ikastaroen antolaketan ibilitako batzuk, eta zehazkiago nik neuk pertsonalki, nota bat aurkeztu genion Artajo ministroari, zein baldintzatan hasiko ginatekeen berriro. Eta baldintzak ziren, erabateko askatasuna egotea guk nahi genituenak gomitatzeke solasetara, eta erabateko askatasuna bakoitzak nahi zuena esateko biltzar aretoan. Baldintza horiekin, Gobernuak onerizten bazion, guk bultzatuko genituela Solasak. Eta horrela hasi ginen. Hau da, Solasak ofizialki Diozesiaren obra ziren, Gotzainak berak fundatuak eta kudeatuak. Jatorriz Donostiako Solasak Mateo Muxikak sortuak dira eta Diozesiko Buletinean hor egon behar du nonbait sorkuntzaren albisteak. Gero, han ibilitakoen hondartxook —ze, jende asko eta ezberdina ibili ginen hasieran, Luis Lojendio, etab., gero traiektoria oso diferenteak izan zituen jendea—, esango nuke gehienbat Herreraren inguruko jendea ginelaz izpirituan, Yarza apaiza eta, gazte katoliko kezkatuak mordo bat. Asociación Católica Nacional de Propagandistas-ek ikastaroak, irakurketak, konferentziak antolatzen zituen, eta horren inguruan ibiltzen ginenak. Donostian jendeak *El Pueblo Vasco* eta *La Voz de Guipúzcoa* irakurtzen zituen gehiena, nik *El Debate* irakurtzen nuen, baina oso jende gutxi irakurtzen zuen hemen. *El Debate*-k problemak planteatzen zituen. Jauntxo katolikoek *La Constancia*, egunkari integrista. «*La Constancia*, periódico sin sustancia» esaten genuen. Nik horrela hartu nuen nire formazio erlijioso: konferentziak, irakurketak, beti izan naiz irakurzale handia, eta nire aitaren bibliotekako liburuak irakurtzen egoten nintzen txikitatik aspergabe. Eta gazte katoliko kezkatuak ginen, zerbait egin nahi genuen —eta hemen geratzen ginen batzuk, bada, horrela hasi ginen berriro

lanean. 46an, beraz, Gobernuak argi berdea eman zuen eta ni atzerrira atera nintzen, eta hainbeste urte eta halakoxeen buruan aurreneko aldiz berriro ikusi nuen Jose Mari Lasarte. Pasaporte diplomatikoarekin atera nintzen, eh! Zeren eta, holako gauza bat antolatzeko ere, guztiz internazionala izan behar zuena, ez zegoen inora ateratzerik, ez zegoen hemen muga pasatzen zuen inor, normal esan nahi dut. Eta gertatu zen orduan, Secours Catholique-n Kongresu bat itzela antolatu zutela Parisen, eta poloniarrek, txekiarrak, Europa guztiko jendeak bildu ziren, Kongresu guztiz interesante bat izan zen benetan, eta, jakina, erabat-erabat irekia zen eta gomiatu egin behar izan zizuten Eliza espainola ere, ezta? Frantsesek nahi zuten Secours Catholique International-ak, hots, Caritas internazionalak Parisen edukitzea bere egoitza, eta helburu horrekin apailatu zuten Kongresua. Gobernuan MRP zegoen, etab. Baina gero Erroma tarteratu zen eta eragotzi egin zuen Caritas internazionala era horretan organizatzea. Erromak Erroman egongo zela erabaki zuen. Eta ni ilargitik erori den bat bezala joan nintzen, ideiarik ez neukan, batzuek susmoz begiratzen zidaten, zertara ote dator hau, zeinek bidali ote du, baina ezagupidea egin ahal izan nuen hainbat jenderena, hori zen nire egitekoa, benetan jende oso interesantea.

Gero Pax Christiko Idazkari Internazionala ere izan naiz. Pax Christi bakearen aldeko erakunde bat zen, eta kide batzuk nik Solasetara gomiatu nituen urte batean parte hartzera. Donostiako Solasak izugarria ziren informazio eta harreman sarea. Bake erakunde katoliko horren asmoa nolabait kontrapi-sua edo egitea zen, nik uste, Bakearen Mugimenduari, inspirazio komunistakoa —ezer ez zuen kontrapisatzen, jakina—, baina katoliko frantses batzuk ahalegi-nean ari ziren, testu batzuk ere argitaratu zituzten bakeaz eta gerraz, interesan-teak begitandu zitzaizkidan eta gomiatu egin nituen. Horrela, beraz, ezagutzen nituen. Eta erakunde hori ofizialtasun handikoa bihurtu zutenean, lehendakaria Parisko artzapezpiku Feltin kardinala izendatu zuten, 50ean izan zen hori, eta Idazkari Internazionala izatea eskaini zidaten niri. Pentsa, hilero joan-etorri bat Parisera! Egundoko mauka zen hori niretzat! Libre ibil nintekeen, edonora joaten nintzen, hamaika jende ikusten nuen, Irujo, Landaburu, Jose Antonio Agirre lehendakaria, jende asko ikusten nuen, gurea eta ez gurea.

Ni ez naiz politikaria, eta karguetan sartu banaiz, nire ideiekin kontsekuen-te ibiltzeko izan da. Nire ideietan benetan sinesten dudala erakusteko. Baina nire mundua batez ere kulturakoa izan da beti. Horregatik, ikastolak sortzen eta zabaltzen pozik lagundu dut. Badakizu, ez zegoen irakasle euskaldunik eta 64an «Andereñoen Erresidentzia» sortu genuen Donostian Jazinto Setien, Joxemiel Zumalabe eta hirurok, Manterola kalean, euskal irakasleak prestatzeko. Zortzi

andereñorekin bakarrik hasi zen, aurrenekoetan euskara lantzen zuten, laster, ordea, ikasle kopurua biziki goititu zen eta historia, geografia eta pedagogiako ikastaroak ere eskaini zituen. «Andereñoen Eskola» zeritzon orduan eta hainbat aldiz lokalez aldatu behar izan zuen, eskuartearen urriz, Aurrezki Kutxek ere ez zioten lagundu nahi izan-eta.

Enpeinuak eta burugogorkeriak atera du aurrera Santo Tomas Lizeoa ere. «Liceo Santo Tomás» izena nire emazteak asmatu zuen, «santu horren izenarekin ez dute pentsatuko eta begiratuko euskal gauzetan zabilatzatela», kontuz ibili beharra zegoen, inolako susmorik sortzea ez zegoen, eta Koldo Mitxelena, Joxemiel Zumalabe eta nik muntatu genuen dena, oroitarri bat ipini digute han orain. Lasartek ere bai, eta ez dago oroitarrian, ez da guztiz justiziazkoa hori. Egia da, bera Venezuelara joan zen eta geroxeago etorri zen berriro, baina berari eskerrak bideratu zen legezko parte dena, ezin burubidatzekoa zirudiena, berak lan handia egin zuen. Beno, guk formula hau hartu genuen, legeak Segunda Enseñanza-n ikuskapenik exijitzen ez zuelako. Akademia libre baten gisakoak ginen eta ikasleak Institutura joaten ziren azterketak egiteko. Era honetan ikuskapenik ez genuen, hori zen inportantea, hau da, nahi genuena egin genezakeen ordutegiarekin, metodoekin, etab. Baina zer ikara gurea, egun batez ikuskaria agertu zenean! Beno, lehenago, ikaragarri kosta zitzaigun abiatzea. Talde oso txiki batekin hasi ginen. Gainera, oso aipu handiko jendeak, abertzale aipuko familia sonatuak, alegia, umeeekin esperimenduak egiten ibiltzerik ez dagoela-eta, entzun ere ez zuten egin nahi holako konturik. Hutsune totala egin ziguten. Halere, Joanito Goiari eskerrak noizbait hasi ginenean, hasi baginen—beno, Joanitok izugarritzko entusiasmoarekin hartu zuen ideia eta, benga, autobusa organizatu eta han etorri zitzaigun bera Hernaniko ume talde batekin, eta Hernanikoei eskerrak hasi zen hau dena: bultzada honi eskerrak hasi, bada—, eta handik egun gutxira, hara non azaltzen den atarian ikuskari bat ikuskapena egitera. Hormak dena kartelez eta, pentsa, mundu guztia zalapartaka. Nondik demonio dator ikuskari hau?... Gertatu zen, guk «ingreso» ematen genuela, eta «ingreso» guk ez genekien Enseñanza Primaria zela eta ikuskapena zeukala. Joxemiel Zumalabek egin zion harrera. «Veo que tienen Uds. ahí unos textos en vascuence» eta hola hasi zen, etxea ikusi eta bazihoanean. «Sí, porque nosotros...», Zumalabek ez zekien nondik irten. «Me ha gustado muuicho!», besteak, «porque yo soy valenciano y en mi casa todos hablamos en valenciano». Alegia, gu dardara batean eta begira nondik, ikuskaria geure aldekoa suertatu.


Baina zertarako balio dizu honek guztiak? Huskeriak dira, ez du ezer balio. Zer atera behar duzu hemendik?

KARLOS SANTAMARIAREN IDAZLANAK

- I. 1963-1969
- II. 1970-1979
- III. 1980tik aurrera



I. 1963-1969



Errusia ta Txina. Alkarren bildur?

Zeruko Argia, 1 zk., 1963-03-03

XX. garren mendeko lenengo urtean asko itz egin oi zan «larru-orien arriskoaz».

Erabat aztuta zegoela zirudien, baiña orain berriro ortara jo omen da.

Errien arteko jokabidea internazionala laster baiño lasterrago aldatzen ari dala dirudi.

Baliteke urte gutzi barru ustegabeko aldaketak guk arkitzea.

Onek ez du esan nai bear bada txinotarrak errusotarrentzat etsai izugarriak orain bertan ditezkenik, baiñan nabari da arazoak esku-aldatzen asi dirala azkenengo illabete abetan.

Gaurko garaian Txinako agintariak ateka txarrean dira, eten gabe aunditzen ari diran gizatalde goseti larri oyek maneatu bearrean.

Joan dan mendean txinotarrak bi edo irureun milloi ziran. Orain ba dira seireun milloi baiño geiago. Igarotzen dan urte bakoitzean amabi milloi urgari-tzen omen dira ango biztanleak.

Txinako lur geienak basamortu ta landerrak dira. Baita ere klimaren gogortasuna eragospen aundia da erri aren baztar batzuetan.

Lur alperrak uzten ba ditugu alde batera, 581 txinotar dira kilometro laukiz.

Nola bada elikatu, jantzi eta aterpea eman gizatalde larri oni?

Janari kontuan maillik beekoena dauka Txinak: 2030 kalori buruzko.

Komunistak arpegi eman diote egoera ikaragarri oni, teñika ta koletibismoaren bidez, baiñan oraindik oso urruti daude beren aburuetatik.

Rusia ta Txina, bi Estadu erraldoi oyek, komunistak ba dira ere, itxurak oso ezberdiñak dituzte biak.

Errusotarrak beren artean korapillo naiko izan arren, ainbeste neke eta lan ondoren aurrerapenezko irabaziak gozartzen asi omen dira orain.

Gaur egunean Errusia da munduko erri guzien artean indartsu ta aberatsetako bat. Txina berriz beartsuenetako.

Erri erdi-aziak Txina begi obeagoz begiratzen dute Errusia baiño. Errusia aburgesatua, baiño Txina goseti ta proletaria, jo ta jo bere mixeriatik atera naiean dana, nayago izango dute artu beren buruzagiz eta mandataritzat.

Erri proletarioen buru Errusiaren orde z jarri naiko luke Txinak. Errusia'k arrisko au ondoto ikusten du eta orrengatik kontu aundiz dabil orain bere artu-eman internazionaletan.

Areago, erri bi oyen artean iñork erabiltzen ez dun lur une aundi bat dago, Siberia, jendez utsik baiñan berez aberatsunez betea erri ura.

Ez da zalantzik gaur edo biar txinotarrak Siberian barrena sartzeko alegiñak egingo dituztela.

Guda atomikoa sortu ezker tximutxak bezela jendea milloika illko litzake ta txinotarrak beren ugaritasunagatik uste dute irabazten aterako lirakela. Bost ajola zaie bi edo irureun milloi gizaki galtzea.

Esan degun guziagatik ikusten da urte asko baiño len Siberia, Rusia ta Txinaren artean «burruka-zakarra» izango dala.

Ona emen berriz aztuta genuen «larru orien-arrizkoa».

Eguneko iru arazoak

Zeruko Argia, 2 zk., 1963-03-10

Gaurko munduan iru eginkizun nagusi agertzen zaizkigu: Desarmatzea, ONU edo egitura internazionalen bat sendotzea eta erri guzieren arteko merkatuak antolatzea.

Iru kondizio aiek oso bearrezkoak ditugu ondorengo belaunaldientzat pakea eta lasaitasuna irixteko.

Jinebran armamentua gutxitzeko aspalditik eztabaida aundiak ari baldin bada ere, ezta oraindik batera aurrerapenik egin.

Izan ere, gure aroan iskilluak garesti baiño garestiago dira eta aien eskuratzeko gastu ikaragarri eta eraman eziñak dakartzki errien gain.

Frantziak, adibidez, iru «Q-252» deritzaion urpeko ontziengatik ogeita bost mila milloei peseta ordainduko ditu. Onelako zamak errietan bi edo iru aundienetakoak bakarrik eraman ditzake. Zer egingo dute gainetakoak? Nork eta nola jarraitu lezaketa orri?

Bigarren arazoa da errietako antolamendu sendoa indartsu bat lortzea.

Antziñako «Société des Nations» baiño gaurko ONU altsuago da noski. Azkeneko gertakarietan nabari izan da orri. Bañan ez dala naiko indartsu iruditzen zaigu, ala ere.

Guda arriskua baztertzeko legezko erabide bat, alegia, guzietaz jabetu ditzkeen Erri-Elkarte bat bearrezko da.

Azkenez, aberastu ta azi-gabeko errien arteko sal-erosketan gaurko merkaturaren eta prezioen politika baiño neurridun obegoa ezarri bearke da.

Orain erabiltzen dan jokabidean lurgintzako erriak ondatzen ari dira erri industriaren mesedean. Etzaie egoki aiei erri aberatsenak diru-laguntzak ematea, beste aldetik ez ba diete bere produziori bidezko preziorik ordaintzen. Orrelako tratuan kaltez aterako diralako ziurki.

Mundu guzian edo lurralde aundi batzuetan beintzat antolamendu kolektibak egin bear dira produzioa apaintzeko eta banatzeko.

Errien zuzenlariak, bide iru oyei jo ezkeru guztiak batean, etorkizuna ez litzake ain beltza izango.

Atomo-bomba dala ta Sartaldetarren arteko istillua

Zeruko Argia, 3 zk., 1963-03-17

Azkeneko 18'garren abenduaren azalketan Kennedy Jaunak erakutsi zuen bere gogoaren barnea, atomo armamentuari buruz: ezin ditekela Estadu guziak atomo bomba eukitzea eta Sartalde munduan Ipar-Amerikak baizik ez dula izkilla berria euki bear, bestela sartaldea argalduko dalako.

«Prantzesak bere 'arme de frappe' sortu nai badute, sortu dezatela —esan zuan Lendakariak—. Orrek ez digu ajolarik. Guretzako korapillua jakitea da Amerikatarrak bai Prantziari, bai Italiari, ta bai gero Alemaniari eta Beljikari eta beste guziei lagundu bear badiegu Atomo-Estaduak izan ditezen».

Azkeneko astetan eskeintza batzuk egin omen ditu —bereziki Estadu— asko tako indarra, «fuerza multilateral» erderaz deritzaiona. NATO'ren eskuetan izango zala bañan itz aitatuak bere egiazko ustea ondo-xamar azaltzen dutela dirudi.

Ameriketar eta bere lagunen arteko eztabaida guzi abek, atomo-izkillu be-rrieri buruz, garrantzi aundia bide dute gure aroaren ikurra, noruntzkoa ta etorkizuna ezagutzeko.

Aro berri batera sartuta edo sartu zorian gerala egia baldin bada —eta asko dira ontaz datozenak— aldakuntz orokar onen kausa aundienetako bat degu atomo-izkillu berri ori.

Sei-zazpi mende badira zizpa ta kañoi asmatu zirala ta asmaketa auek parte aundia izan zuten Aro modernuaren etorreran, danak dakiten bezela.

Orduan ere guda-izkillu barriak oso garestiak ziran eta aberatsenetako errege ta jaunak bakarrik erosi zitzaketen. Beste erri-buruzagi txikiagoak ezpata ta dar-daiaz beste gaberik konpondu bear zuten ta aien menpeko gelditu ziran bereala.

Onela aalmen politikua esku gutxi batzuetara eldu ta gaurdaño iritxi diran Europa'ko Estadu aundiak sortu ziran.

Gaurko nazio-arteko egoera onelako bidetatik dabil.

Atomo-bomba garesti baño garestiago da. Amerikak bederatzireun milla milloi pezta, aurtan bakarrik gastatuko ditu ontan, McNamarak, bere Ann Arbor'en itzaldian esan zuan bezela. Ingalaterra, Prantzia ta beste Sartaldeko Estatuak ezin jarraituko zaizkiote onelako lasterketan.

Emendik aurrera bi edo iru Estatu bakarrik armamentu berri ori iritxiko aldute. Eta atomo-bonbarik gabe ez da egiazko jabetasunik izango.

Izan ere, Atomo-Estadu oiek ez dira geldituko osoro munduko nagusiak. Indartsuenak badira ere, ezin egingo dute nai duten guztia, iñoiz baño gaur geiago erriak alkarganako bearra dutelako.

Ez dakigu nola izango dan ondorengo mundua. Gauza segur bat dakigu: soberanien joku zarrak ez dula emendik aurrera balio izango. Biarko munduak bestelako itxura beariko du eta beste moduz izango da plomatua.

Jinebran, joku motela

Zeruko Argia, 4 zk., 1963-03-24

Desarmeko alkar-izketa, «amazazpietako» deritzaiona, jarraitzen da Jinebran, arrastaka ta batere garrrik gabe.

Azken auetako egun batean, lendakari biak, amerikatarra, William Forster, eta errusitarra, Tsarapkin, batzarra utzirik beren etxetara joan dira, alkar-izketa au ezertarako izango ezta lakoan oraingo pauso ontan beintzat.

Joan baño len bi politiko-gizonak alkar jardun izan dute geroko jokabideari buruz. Solas onen ondoren len baño illunago gelditu dira biak.

Erabaki batera eltzeko itzaropena ez da ala ere osoro galduta, agian biar edo etzi egokera aldatu bailiteke.

Korapilluen iturburu nagusia eztao teñika-gaietan. Zeñek eta nola aztertu bearko dituzten Estaduen armamenduak, zenbat azterketa antolatu urteka, iru, errusitarrak ezkeñi bezela edo zortzi ameriketarrek eskatzen dituzten legez, eta beste onelako galdekizunak ondorengoak dira-ta.

Orain falta dana da egiazko borondatea, antolamenduren bat irixteko naia.

Joan diran egunetan tartekoak —neutralak edo «non alignés» orain esan oi dan bezela— aterabide batzuek asmatu arren, alperrik egin dute beren jokua. Egia esan bi aundiak ez dute oraindik alkar konpondu nai.

Inglaterran, laboristak, borondate guziak bateratu naiaz, iru kondizio jarri dituzte. Lenengoa izango zan emendik aurrera urtero bost armamendu-azterketa egitea. Areago sei urte barruan armamendua erdi batera gutxituko litzake eta atomo-iskillurik gabeko eskualde aundi batzuek antolatuko lirake.

Bere aldetik, otsaillaren azken egunetan, Errusiak asmoa bota zuen, OTAN eta Barsobia-Elkartasunaren arteko «oldargabeko» tratu bat egiteko. Asmo au onartu ezkeru iskillu berri guziak kendu eta ezta baidak ONU'n atondu litezke.

Bañan sartaldetarrak erantzun zuten ezetz, tratu onek ayei baño errusitarrei abantaila geiago ekarriko ziela.

Auzi ontan beste askotan bezala, alde bietakoak besteen errua dala diote alkarri.

Ainbeste aitzakiekin argi ta garbi egiztatu al izan da inork ez dula lardaska ontatik atera nai, ez amerikatarak ez errusitarak.

Tarteko erriak illun xamar gelditu dira beren bitarteko lana obe bearrez egin arren orain arte ezer ere erdetsi ez tutelako.

Bañan alare jo ta jo jarraituko dute Jinebran. Askotan arazo mota onetan, bat batean garbitu oi da odei ertzea.

Nasser prest, bide berri bati ekiteko

Zeruko Argia, 5 zk., 1963-03-31

Sortalde urbilleko erri arabetarrak une zail batean arkitzen dira dirudienez.

Aspalditik irakin izugarrian baziran eta makiñabat matxinada ta estadu-bul-kada jasan dute.

Israel Estadu txikiaren aurkako guda ezkerre batez ere, arabetarrak argi ta garbi konprenditu omen dute aurrerapenari jo nai badiote beren politika-egiturak aldakuntza sakon bat bear dula.

Ontan aldatzaille nagusiena degu Nasser jauna, gaurko Ejitoko buruzagia. Nai ta naiez sortalde urbilleko jokoak gizon aundinai onen inguruan ibilli bear.

1954'garren urtean Ejitoko gobernuaz jabetu zan eta geroztik jo ta jo ari izan da erri arabetarren batasunaren alde.

Siria-Ejitoren batasuna, neke aundiaz Nasserrek eraikia, 1961'garren agorrian ondatu zan zalaparta larriaz. Orduetik Nasser ixillik gelditu zan okerren egiteko bildurrez.

Orain badirudi prest dala bide berri bati ekiteko.

Jokabide berri bat saiatzen asi da lenengoa baño apalagoa. Erri arabetarrak bortxaz elkar lotzeko ustea alde batera utzi ta alkartasun federal bat asmatu du.

Baňan batasuna ez da guzia. Arabetarrak geienetan gizarte-molde feudalak iraun-azi dituzte aunarte. Beren oraingo egiturak ez dira gaurko arazoei egokitu dakizkiokenak. Nasser'ek aberats ta kapitalisten zuzengabekeriak salatu ditu arrazoi aundiz. Ez du komunismoarekin parterik izan nai, arabetarren etsaitzat dulako, baňan sozialismo bat sortu du, gero ta ariňago zabaltzen ari dana batez ere Ejiton eta Sirian.

Baliteke laster euren arteko lau edo bost Estadu alkartzea eta egitura sozia-la oso aurreratu ezartzea. Gertaera au garrantzi aundikoa izango litzake mundu guziarentzako baňan ez da erreza jakitea zeintzuk izango lirakean onelako aldakuntzaren ondorenak politika internazionalari buruz.

Europako merkatuaren iru jo-mugak

Zeruko Argia, 7 zk., 1963-04-14

Europako merkatu osotua ardura aundiko arazoa degu une ontan.

Ez da gauza samurra jakitea antolamendu ortan geu sartuko geranik ala ez, bañan, zor edo lor, ardura aundiaz begiratu bear degu.

Prantziak Ingalaterrari ezezkoa eman zion ezkeru Europako jokua motel xamar gelditu zala zirudien.

Bañan Bruselazko antolatzaileak itxaropenik galdu gabe euren lana ixilki ta sendoki jarraitu dute.

Egia esan, eginkizun ori ez da errezenetakoa, askotxo baitira gai ontan menderatu bear diran egitekoak.

Nolanai ere, merkatu osotuaren orpoa sal-eroste eta sartze-ateratzeko errez-tasuna izango da nai-ta naiez.

Beraz, merkatu orren lenengo elburua degu Europa guzian barrena eros-gaiak eta salgaiak libre ibiltzea.

Onelako mugimendua asiera emateko iñorrenzat kalterik gabe geldiro ibil-tzea bearra da, komertzioarekiko artu-emanak amaika arpegi baitituzte. Ekono-mizaileak olako aldakuntzak arrisku aundia dutela sobera badakite.

Orrengatik aduanako eskubideak begiramen aundiz kendu edo gutxitu bear dira.

Zuzenlariak diotenez, sail ontan eragozpen aundienak goitituak izan dira.

Laster ikusiko degu, agian, edozer tresna Beljikan edo Italian moldatuta, Prantzira edo Alemanira aduanetatik osoro libreki bialtzea eta an bertan batere zergarik gabe garbitzen. Eta nekazaritzaren emaitzekin eraberean.

Merkatu osatuaren bigarren xedea izango da langilleak trabarik gabe Euro-pa guzian an-emenka ibiltzea eta lan egitea. Ogi bide billa nora-nai joate-etor-tzea eta nai duten tokian kokatzea.

Jakiña, Europako baztarretan jornalak ezberdiñak dira ta baliteke nausi edo enpresa batzuek ezberdintasun oiek lana merkeagoa artzeko aprotxatu nai izatea. Ontan ere kontuz ibilli bear dute antolatzaileak.

Areago, erri bakoitzean langille kanpotarrei, segurantza sozialak eta beste eskubideak eta serbitzuak ezkeiñi bear zaizkie. Gauza asko ta guzia bat batean ezin apaindu diteke.

Azkenean, merkatu berriak beste eskukotasun mota bat ekarri nai du: kapitalak eragozpenik gabe, nunnai eta nolana jarri aal izatea.

Itz gutxitan esateko; Europako merkatua iru oñarri auen gañean eraiki bear da: jende, sal-erosgai eta diruen mugimendu askatasunaren gañean.

Iru jo-muga auek irixteko bidea lutzetxo agertzen zaigu.

Lur-jabetasunaren eraberritzea

Zeruko Argia, 9 zk., 1963-04-28

Egun batzuek dirala Arjeliako lendakari dan Benbelak azaldu du Arjeliatik kanporatu diran frantsesak utzitako basetxeak artu eta baituko ditula. Ortarako Ebian'go tratua autsi bear badu bost ajola zaiola ta autsitzeko prest dagola.

Alde batetik lendakari arabetarrak arrazoi pixka bat ba dauka ezpaita bidezkoa abandonuz bazka ta uztak galtzea eta bidebatez jendiak gose gorria igarotzea. Bestalde, zalapartan eta ilketan bizi eziñagatik nai ta naiez aldatu ziranak euren lurretako saria eskubide osoaz eskatzen dute.

Nolanai ere, bistan dago Argelian lur-gabetasunaren aldakuntza bat len bai len egin bear dala.

Argelian bezela beste erri askotan ere, giza-goseari arpegi emateko landagintzako moldeak aldatu bear dira.

Adibidez, Brasilen, laborantzako lurretatik bostetik lau, euneko bi biztanlen eskutan daude. Egoamerikan 2% lurak besterik ez dira erabiltzen eta badira gizon aberats aundi batzuk, 200.000 ektarea'ren jabe diranak, Gipuzkoa guziko lur-azala baño geiago alegia.

Areago, erri aietan nagusiak ez dute lurrari eman arazteko batere ardurik azaltzen.

Beste lurraldetan, Aprika Tropikalean adibidez, nekazariak badute lur ugartasuna, ango landak komunalak baitira, bañan tresnak, ongarriak eta lantzeko bear diran gañerako gauza guziak artzeko, diruz eskas dabilta, dirudienez, gizarajoak.

Datorren denboretan ezin besteko landagintza-berrikuntza ori munduko agintarientzat arazo larria izango da beintzat. Prolema onek erri bakoitzan arpegi ezberdiña agertzen du eta egokera bereziak bana-banaka aztertu ta antolatu bearko dira.

Ez da nolanaiko kezka, noski.

Gipuzkoaren...

Zeruko Argia, 13 zk., 1963-05-26

Gipuzkoa ez dute Diru-etxeak eta Industriak bakarrik osatzen, baita ere arrantzaleak eta baserritarrak. Baserriari laguntasuna eman bear zaio denborak eskatzen duten egokitasunean bizi dedin, bear-bearreko gaia baita, balorerik eta garrantzirik— inportantzirik —aundieneko instituziño bat. Baserriari eskerrak bakar-bakarrik bizirik iraun ahal izango dute gure baitan mendez-mende eta belanez-belaun gureganatu zaizkigun norgere baloreak.

Berriro ere esan dezagun baserria ez dela garrantsi gabeko parte edo folklore apaingarri soil bat, Gipuzkoar arimaren osagarririk bearrenetakoa baizik.

Beste ainbeste esan dezakegu arrantzaleez eta mariñelez. Bearrekoa da ogibide ontan ari direnen etorkizunari segurantzi bat ematea, gipuzkoar izpiritua ainbat zaildu duen itxasorako joera onek izan dezan iraupen eta obetuz joan dedin bere azibidean.

Esan dezagun bein eta berriro, materiazko aurrerapena ezpa'dijoa lagundurik izpirituzko aurrerapen anaitzakoaz, ongarri izan bearrean, kaltegarri izan ditekela benetan eta ondoren txarrenak ekarri ditzakela.

Gure iritzia da, beraz, Probintziaren geroko demografiaz, urbanismuaz eta ekonomiaz egiten ari diren estudioak alde batera utzi gabe, gure agintariak saiatu bear luketela ere egiazki Gipuzkoa'ren euskal-izpiritua salbatzen. Onela, Probintzia'ri azitzeko, umotzeko —zoritzeko— eta garatzeko egalak moztu gabe, bere kondairari fidel izaten jarraituko baitu eta asabengandik jasotako nortasun bereziari eztio ukapenik emango.

Zenbat buru ainbat aburu. Ezta...! Baida...!

Zeruko Argia, 15 zk., 1963-06-09

ZERUKO ARGIA'ren zuzendari jaunari:

Nere editoriala. «Gipuzkoa'ren oraiña ta geroa» izenburu zuena, ZERUKO ARGIA'ren amairugarren zenbakian argitaratu dezu, oker ez banago.

Egia esan, idazkai onek, nik erderaz idaztea ta Jon Etxaide'k adiskide jatorrak apainki euskeratuta, etzuen nere izena eraman izan bear, ni egillea erdizka baizik ez naizenezkero.

Ideiak bai, nereak ditu bañan bistan dago nere euskera eskas ta traketzak ez dula alderatzekorik ere Etxaide'n mintzaera liraiñarekin.

Astekari orren irakurleei nerekiko egia esan zenegaiela naiko nuke, besteen lumetaz bere burua apaintzea ondo ezpaitago.

Areago esan bear da ZERUKO ARGIA'ren Etxaide jauna langille ezkutatua degula eta bere egun eguneroko arretarik gabe ezin azaldu litzakela gure asteroko maitea.

«Solas aurrearen gisa»

Zeruko Argia, 19 zk., 1963-07-07

Urte batzuk dirala Madrileko «Ya» ta Donostiako «El Diario Vasco» deriztaten egunkarietan erderazko artikulo ta saiotoxoak azaldu oi nituan.

Egia esan, lan au ez da erreza. Astero astero irakurleei bazkatzeko gai ta arlo berriak etengabe asmatu bear dira. Inork ezluke sinistuko billaketa onek zenbat neke ta atsegabe ematen dizkien idazleei.

Artetxe buru-langille jatorra degun orri galdetu dezaiotela!

Periodismoa gauza ona da, ezin duda, bañan askotan ez du batere lan sarkon ta iraunkorrik egiten uzten. Paperetan idazten dana berealaxe eramaten du aizeak.

Ni, bada, egunkarietako lana utzita oso trankil nintzan eta ez nuen usterik joku berari berriz ekiteko. Bitartean, burutik oñetara euskera liraiñaz asteroko maitagarri au ustekabez ageri zitzaigun. Zuzenlaria, jakiña, batetik bestera laguntzaren eske ibilli bear eta zirikatzaera etorri zitzaidan ea nik ere artikulotxo bat edo beste egingo nion. Au ateka! Lenengo lana gaitza izan bazan oraingoa gaitz terdi.

Egiaz, euskal literaturari jotzeko usteak aspalditik lilluratzen ninduen eta saiatu naiean nintzan.

«Au da abiatzeko garaia, gizon», danok gure barruan eramaten degun etsaiak esan zidan.

Eta alperkeriaren soinuari jaramonik egin gabe, prailleari baietz erantzun eta egingo nituela esan nion.

Ongi edo gaizki egin nuen eztakit. Euskeraz izkiriatzeara neke gorria da netzako eta baliteke Aitorren izkuntza agurgarria nik gurutzefikatzea. Nolanai ere, euskerak «gurutzefikazaille» naiko baditu eta geiagoko bat eukitzeak ajolarik eztiola pentsatu det.

Euskeraz izkiriatzeara zertarako balio digun galdetuko du batek baño gehiagok.

Or bertan dezute gai ontako abantailla aundiena, bere ezereztasun agerian, alegia. Iñora eramaten ez duten bideak, ezer balio ez duten lanak, onenak eta ederrenak dira sarritan, batez ere maitasunez egiten badira.

Eztakit zeñek esana eta Salvatore Mitxelenak bere Unamunori buruzko liburuan berresana, 350'txo euskal irakurle besterik ez izatea egia izan diteke, eta apika zenbaki ori aundiegi iruditzen zait.

Bañan orrek zer ajola digu? Platon eta beste jakintsuak zenbat irakurlentzat idatzi zuten beren denboran?

Bizi osoan letore bakar batentzat maitasunez idaztea, etzan denbora galdurik izango beintzat.

Fedea, Fedea ta Mandatua bear dira eta irakurleak, ugarituko dira. Euskal iturburura edatera millaka etorriko dirala esaten dizutet.

Emen umil eta apal asiberritzat nauzute bada. Euskal-idazle guzien artean azken-azkenekoa izanakin ere ofizio berri ontan ez dakit nola konponduko naizen.

Zuek epaikari, irakurle maiteok.

Philosophia zintzoa

Zeruko Argia, 20 zk., 1963-07-14

Ea arkanjelen egak zenbat luma duten eta beste orrelako sasi-prolemak erabiltzen omen zituzten Kostantinoplan sasi-jakintsuak.

Ayek pulamenturik gabeko eztabaida azkengabeak!

Turkotarrak zemaika uriaren ateen aurrean eta jende gixarajo ura pikoa-
ren punttan.

Orain ere berriketarik naiko ba-dugu gaurko pentsazaille batzuen artean.

Urrunago joan bearrik gabe, artu dedan filosofiako errebista batean «Santo Tomas'en ideiak otz-beruaz» izenburutzat daukan artikulo bat irakurtzen ari nintzan arestian.

Oraindik ez det konprenitu gai orren garrantzia nun dagon.

Zeren, Atomo-Aroan gera ala ez?

Oker ez banago, gauza oyek izkiritzea «bizantinismo» utsa da.

Arrazoi aundia zeukan Juan San Martin deritzan jaunak azkeneko Egan'en bere saio argikorrean esanaz: «*Gaurko ari lotuta ez dagon filosofia ez da filosofia zintzoa*».

Bat nator oso pentsamendu zorrotz orrekin. Batzuen antziñatasun ura ez ote da euren burutik iges egiteko bide izkutu ta biurri bat?

Aresti eta Madalena

Zeruko Argia, 21 zk., 1963-07-21

«Zergatik etorri zatzaigu traba egitera? Sosegua kentzera zatozkigu eta eriotza merezi dezu».

Dostoieski'k asmatutako istori famatu batean, berriz lurrera etorri zan Kristo'ri solas ikaragarri ori egiten dio Inkisitore nagusiak.

Maixua, Sevilla'ko kaleetan illunabar batean agertzen da bapatean. Jendeak, ez dakigu nola, laister baiño laisterrago ezagutu eta: «gure Maixu ona da, bera berbera da» deadarka esaten asi dira. Jauna, itzik esan gabe, errukiturik, mirariak egiñaz abiatzen da berealaxe. Baiñan Inkisitorea, arrotz aren agertzeagatik guztiz asarre dago eta segidan Kristo preso artzen du, Erramu-egunean iltzeko asmoz. (Ametza emen bukatzen da. Dostoieski'k ez digu ezer esaten zer pasatu zan gerokoan, jakiña).

Au alegi sakona eta jakingarria! Ba'liteke, Kristo berriz lurrera ba'letor, gure kristautasun aburgesatuarentzat enbazu aundia izatea. Nere buruari galde-tzen diot, alegia, zein izango ote ziran Kristo'ren lagunak bigarren etortze on-tan. Lenbizikoan bezela ere, pobreak, gaixoak eta mota guzietako jende peka-taria eta mespreziatua noski. Baita gure munduak madarikatutako gizonak eta gaurko lizun-etxetako ema-galduak ere. Au eskandalua elizako jende eta «bea-ta» askorentzat!

Aresti jaunak «Egan»'en argitaratutako drama berri ori «Etxe aberatseko seme galdua ta Maria Madalena'ren seme santua» izenburua duena irakurtzen ari nintzanean, Dostoieski'ren eleberria (novela) gogora etorri zait.

Izan ere, antziñako denboretan eta urrutiko errialdetan, Madalen, andre gaiztoa izanarren, santutasunera etortzea baliteke aiek onartzea. Baiñan, gaurko egunean, gure inguruan, ori gertatzea ezin sartu dakieke buruan eta are gu-txiago biotzean.

Alkar konprenitzen degu eta bat gatoz, Aresti adiskidea!

«Berezkoa»

Zeruko Argia, 22 zk., 1963-07-28

Gure buruari beti iges-egin naiez ari gera gizonok. Unamuno'k esan bezala, au-ori-ura batean izan naiko genuke-ta gure naitasun biziena lojika-mugarik gabeko mundu batean gure gorputz-arima an-emenka libre ibilli aal izan.

Alaere ori guzia ezta benetako Philosophia, baizik sasi-mistika, ensaio edo olerki utsa.

Gure baitan asmo ta amets egitea, bai, atsegin zaigu, bañan «errealitatea» deritzan zer edo zer ori galopaka etortzen zaigu esnatzera. Gorputz eta arimazko samiñak esnatzaille gogorrek ditugu eta berak «or zio-k-ba errealitatea» esatera datozkigu noizean bein.

Errealitatea degu Philosophiaren oiñarri bakarra, eta arri orren gañean erai-ki bear da Philosophia guzia.

Zubiri jaunak bere «Sobre la esencia» izenburuko liburu berrian auxe esaten digu: Philosophiaren erro-mailla ta lenbiziko pausa errealitatea da ta Esenzia-Esistenzia dualismua bigarren une batean agertzen zaigu bakarrik.

Bañan, zer da errealitatea? Errealitatea da «berezkoa», «berez izaten dana» —erderaz dio Zubiri jaunak, nere euskal izkera oker ezpadago.

Badakigu ideia ori azi ta apaintzeko milla berezkunde ta xehetasun bear dirala. Zubiri jaunak oso zeatzki ta jakinduri aberatsez lan ori egin du, Philosophierako bide berri baten billa.

Bere liburuan Matematika tratadu batean bezela, ideiak garbi-garbi ta zuzen-zuzen lerrokatuak arkitzen dira. Au da egiazko Philosophia, ez ensaiotasun utsa beintzat!

Egilleak ogei urte bear izan omen ditu liburu au idazteko. Bere ideiak benetan barnatzeko ta egosteko bi edo iru urte beñepein beariko ditugu irakurle geienok.

Bañan, zein-en lur ugarikorra ta biguña!

Izpiritutik sortzen dana

Zeruko Argia, 23 zk., 1963-08-04

Aste batzuek dirala astekari beronen orrialdietan euskalzain ta sendagille dalako Apat Etxebarne jaunak gauza oso jakingarri bat esaten zigun: Gipuzkoan Unibersidade-izpirituaren bear bearren gerala. Bat nator osotoro adixkide jator orrekin.

Ortega y Gasset'ek bere «Misión de la Universidad» izeneko ensaioan zioenez, Unibersidadeak bi jo-mugei batean jarraitu bear die. Lenengo, gazteak ofizio-nagusietarako gaitzea ta irakastea. Bigarren, lenengoa bezain premiatsua, kultura ta jakinduriaren sukune ta iturburu bizia izatea.

Zoritxarrez gaurkoan gentetako ikasleak bigarren elburua alde batera utzirik unibersidadea titulu-fabrikatzat ikusi oi dute bakarrik. Antziñakoak ordea Jakintzaren bideari ekin zioten, ez sari-dirua irabazteko, baizik guziok barruan daramagun mixterioarekin burrukan ibiltzeko naitasun bizi orren indarrez bultzatuak.

Unibersidade izpiritua, zer da?

«Erbia baño erbi-eizatzea bera geiago estimatzea». Adi nai dezanak adi beza.

Ontaz Claude Bernard fisiolojista prantzesaren istorioa agertzen digu Eugenio d'Ors zeritzan gizon ospetsu arrek.

Dirudienez jakintsu ura ogei ta bostxo urteetan ia diru-tresnarik gabe bere laboratorio apal-apalean surma-billatze sakonetan aritu omen zan eta bai eun agerketa berri arrigarri egin ere.

Alako batean, norbaitek Napoleon irugarrenari Bernard profesorearen merituak jakin arazi zizkion.

Emperadorea ez ergela izan eta berak andik egun batzutara Claude Bernard jauregi-jai batera gomitatu zuen.

Festa artan jakintsua ta emperadorea txoko batean marmaraka alkar jardun ziran luzaroan.

— «Monsieur Bernard, zure Fisioloji-billatze miragarrien berria eldu zait-eta... esango al zenidake Fisioloji ori zer dan?».

Eztakigu galdera au erantzuteko nola konponduko zan Monsieur Bernard bañan solas onetik oso pozik atera zan dirudienez.

Emperadoreak, esku-zabal ta gailendu naia baitzan —benetako emperadoreari dagokion bezela— tresna guziz ornitutako beste laboratorio berri aundi bat Claude Bernard'i eraiki zezaioten bere sarbitzaleeri agindu zien. Esan ta egin. Laster baño lasterrago lantegi berri ederra antolatu ta bere liburu-tresna guziekin ara dijoa jakintsua.

Bañan, begira gauzak nola diran! Egun bertan etorria bukatu zitzaion eta agerketa berriak ere bai. Ez al da egia komodidade sobera ta neke-samiñaren arantza faltaz geranean jakintza-izpiritua bereala itzaltzen zaigula?

Alegia, arestian esan dedanak ez du esan nai jakintzaren gaian dirua bear eza izan bear dunik. Dirua oso bearra da, bai orixe, baño beste gauza bearra-go: izpiritua.

Trukatze au zillegi balitzaigu gai ontan Maixuaren itza onera erakarri genezake ere: «Aragitik sortzen dana aragia da ta izpiritutik sortzen dana izpiritua».

Aurrerontz ala atzerontz?

Zeruko Argia, 24 zk., 1963-08-11

Aita Intxausti'k «Egan» deritzan agerkarian azkeneko gudatetik sortu dan philosophiaz ederki mintzatzen zaigu bere betiko idaz-tankera liraiñean. «Gizona urduri altxa da trintxera zuloetatik». Zientzia-aurrerapenaren jauregia ondatutakoan etorkizun-bidea garbitu egin zaigu-ta gaurko garaian «ezarian ezarian bagoaz Jainkoaganaiño». Oraingo pentsamendua ori baiño askoz naasgarrikoa da, nere ustez.

Adibidez, positibismoa eztago ondatuta, ez il-zorian, batzuek jotzen duten bezela. Comte ta Spencer'en sistema zarren garra ezta itzali iñolaz ere, Marx'ek piztutakoa iñoiz baiño pizkorrago baitegu gaur. Marxismoaren kanpo arrazoi-pentsaera burgesak ere, Brunschwig ta Husserl'en antzo, makiña bat maixu ta segitzaille ospetsu badauka noski.

Zientizismoari buruz zein ausartuko litzake esatera bereak egin dula? Jende-samalda, naiz sartaldetarra naiz sortaldetarra, aurrerapenaren mirari berrietik zintzilika dago beintzat. Zozokeri galanta!

Erljio pentsaera aurrera badijoa ezetizismua ere sekula baiño indartsu ta zabalduagoa degu oraingoan.

Egia esan, gaurko munduak milla bideri batean ekin, eta guzietatik aurrerakada larriak egiten ditu. Gogo guzitarako predikak franko entzun ditzake eta predikazailleak nork bere ideia garai ateratzear dala esango dizute. Gure mende-an mundua gaiztotu edo ondu ote dan ezin jakin dezakegu bañan gauza bat badakigu segurrik: aunditu dala ikarakarriro alde guzietatik.

Gäetan Picon deritzan idazlari prantzesak dio arrazoi askoz «gaurko pentsamendua krisisen dagon mundu baten dizdira dala». Ondorena da guziak dakizuten naaspilla ederra.

Mozkor-lozorroan bezala aurrerontz edo atzerontz ote gabiltzan iñork ez-taki: baliteke biak batera izatea eta noiz ere dunba egitea gure mundu ero onek.

Aingerukeria

Zeruko Argia, 25 zk., 1963-08-18

«Jauna, gorde zuretzako zure aingeru oyek. Garbiegiak zaizkit-eta oyen bildurrez nauzu josia».

Onelako dio bere «Bildur» izenburuko poesian Ángela Figuera andre olerkari sakon ta zorrotzak. Ángela, Bilbo'n jaio zan 1902'gn. Liburu ta olerki baiditu gogorrenetakoak eta bi urte dirala «Egan» agerkarian aienetako bertso batzuek azaldu ziran, Aresti jaunak ederki euskeratuak. Orain ere «Esprit» dertiztan errebistak gazteleratik prantzesera itzulitako poetisa onen iru olerki galanta eskeñi dizkigu.

«Zure aingeruengatik goستن zaitut Jauna. Betiko txoriak antzo zure tronuaren aurrean etengabe hosana kantatzen dizutelako. Zoragarriak badira bañan... gorde itzazu, otoi, zure ondoan. Beren begi ikaragarriak negar-malkoen berririk ezta kite. Beren oiñak oñatzik ez. Beren ezpaiñak egarririk ez. Bildurra eman oi didate zure aingeru eder-ankerrak!»... Eta abar.

Zer esan nai dun andre-olerkari onek badakigu guziok. Inolaz ere ezta egiazko aingeruen kontra. Ez baizik giza-sasi-aingeruen aurka.

«Angelismo» besterik ez salatu nai du beintzat emakume gogor onek. Arrazoia dauka, zergatik zenbat kalte ekarri dio gure erriari baita gure erlijioari ere garbikeri onek!

Aingerukeriak badauzka milla misa ta molde. Beren segizaille sail ta mail guzitan arkituko dituzute, garbi-garbiak, arro-arroak, errugabeko soñeko zuriekin apainduak.

Sasi aingeru oyek odeien gañetik betirauteko prozesioan ibiltzea merezi luteke, mundu onetakoak ezpaitira, ez ta bestearenekoak ere. Ori izango litzake bere inpernua «sekula sekulorum».

Lau zoro

Zeruko Argia, 26 zk., 1963-08-25

Oi, zein dan ituna
Beera-bear au.
Nik ez nai eguna
Biurtzerik gau.

Olerkariak —lau bertsu oyetik Lizardi aundia ezagutu aal dezute— guziok gure baitan senditzen deguna ederki azaldu du.

Ezta bakarrik eriotz-bearra bera, baita ere danoi goibeltzen gaitun gure in-guruan gauza guzien eriotzaruntz jarraitze etengabeko ura.

Orain ere milla belaunen mihitan bizi ezkeru euskera gozoa azken-arnase-tan dago diotenez.

Euskeraren eriotzari buruz makiña bat poema negar ta sendimentutsu as-ma diteke.

Alere ez degu fede apurreko gizonak izan bear. Besteei indarra aoetik irten zaie: euskaldunok ez gera itzontzi oi izan, baizik egintzale ta setatsu. Or dago gure birtute nagusia: egin ta ekin, asi ta jarrai... eta euskera biziko da.

Ontaz Tolosa'ko idazle ezagutua dan Federico Zabala euskera liraiñaz min-tzatzen zaigu Z. ARGIAN. Egun arte bere gauzak erderaz bakarrik irakurri ge-nituen eta orain gure izkuntzari jotzen asi dala ikusteak euskaltzale geranoi po-za aundia eman digu. Ori da bidea; ez jeremiakada botatzea.

Lau zorok besterik eztute euskera gorde nai ta izkuntza ori amabost urte geienaz biziko dala esan digu jaun aundizki batek aspaldik eztanik. Barkatu, jauna; lau zoro ezta gutxi. Onelako taldetxo batekin mundu guzia aldatu diteke, zergatik nork egin ditu istoriaren gauza aundienetakoak? Geienetan, zoroak, «estrabaganteak», nik beste tokitan esan bezala.

Bañan... utzi dezagun illeek illeai lur eman detzaieten.

Nik bizienetako berpiztean sinisten det (eta illenetakoan ere bai, jakiña).

Zulo ta usguneak

Zeruko Argia, 27 zk., 1963-09-01

Eztira ugari azaltzen gaur egunean gauza arduratsuak eta ausartak esan oi dituzten idazleak.

Gauza berriak asmatzea ta batezere azaltzea ezta erreza eta areago, ondore txarrak ekarri bide ditu langilleei.

Batzuk diotenez lasaiena ta ziurrena burua makurtzea da eta danari baietza ematea. Bide ortik urruti eldu diteke dirudienez. Orrengatik jendeak, ardiak bezala, «ardi bat dijoan tokitik, guztiak». Bañan, Jainkoari esker, gure artean onargaitz eta ezkonpontzale taldetxo bat ba dago. Jorge Oteiza oietako txit famatu bat omen degu.

Bere amairu arriekin zalaparta ederra sortu zuen urte batzuk dira ta orduko ontan kasku-kaskuan eman zioten. Orain argiratu dun «Quosque tandem» latinez izenburuko liburu ortan ere makiña bat ideia arduratsuak bota du Oteiza aundiak.

Euskal-arimatza esan ditun gauzak zentzuzkoak ala zentzugabekoak diran etzaigu ajolik: oraingoz garrantzitsuena beren ideak arduratsu ta berriak izatea da. Oyen inguruan eztabaida galantak arrotuko dira noski asko baño lenago.

Dakizutenez eztabaidak oso komeni dira euskal-arima bizirik iraun dedin.

Orrengatik nai ta ez nere «Dizdiretan» Oteiza'n ideiei buruz askotan jarraitu bearko det. Gai batean arrek baietz esaten badu nik ezetz esango det agian.

Oteiza adizkideak eremu, usgune ta errealitatearen zuloetaz, gorputzen itxura, moldura eta azalaz eskultore danez mintzatzen zaigu. Ni ordea matematika naiz ta beste aldetik ikusten ditugu gauza guzi oyek.

Ez bakarrik iru-dimensio-eremua baita eremu topolojikoak eta n-dimensioenetakoak ikasi eta egunero erabilli ere egiten ditut nere gisa.

Neretzako gizona lau-dimensio-eremuko zulo bat da.

Au izkutua da, jakiña, eta zearzki egiztatu eta azaltzeko milla orri bearko genituke. Gañera jende gutxik ulertu dezake, iru edo lau ezkonpontzalek bakarrik.

Don Juan Zaragüeta'ri omenez

Zeruko Argia, 28 zk., 1963-09-08

Egun batzuk direla bere jaiotz erria dan Orio'n D. Juan Zaragueta akademi-ko ta profesore ospetsuari omen aldi bero bat egin diote bere errikideak.

Don Juan nere aspaldiko adixkide agurgarria dalarik nik ere gizon jakin ta zuzen oni ez burutik baizik biotzetik sortutako itz batzuk eskeiñi nai nizkioke «Dizdira» ontan.

Arrek egindako lan zeatzak —gutxienez 145 tratadu ta ensaio philosophia, soziolojia, pedagogia ta erlijiozkoak— nola «dizdiratu» ain une estu ontan? Gauza asko baño gauza bat bakarrik esatea trabatsuagoa izaten da sarritan. Sermoi luzea baño laburra asmatzea zallagoa izan oi da predikalari guziak dakiten bezela.

Irakurleen baimenarekin saiatuko gera nolanai ere.

Norbaitek esan du: «nola dan gizona ala da berak aukeratzen dun philosophiaren mota». Baliteke ori egia izatea, beñepein aldi ontan.

Nola da Don Juan Zaragueta'n philosophia?

Philosophiaren gañean milla definizio eman dira eta nork bere gogapen ezberdiña badu.

Oyen artean orra gure oriotarrak naiago izaten omen duna: «giza-biziaren prolema guzien ikuskuntza osoa». «La visión universalista de los problemas todos de la vida humana». Zaragueta jaunak dionez bere «Filosofía y Vida» izenburuko liburuan.

Beraz philosophiaren joku nagusiak giza-ezagutzak antolatzea eta lerrotzea izan bear du. Don Juan'ek orixe egin du beintzat eta jakintzale estimagarri au «pentsaera-antolazaletza» begiratu bear degu batez ere. Or dezute, nere iritzi apalaz, bere sail ixilla ta guziz onurakorraren muña.

Bere philosophia korapillorik eztu ez eta zulorik ere, zentzuonekoa da-ta.

Nolako gizona alako bere philosophia!

Gizon zentzuduna, plomatua ta prestua. Bai ta baketsua ere.

Gaurko munduan ez bakarrik politikan eta erlijioan, filosofiaren gaietan ere: bai franko eztabaida aundi badago.

Ainbeste pentsa-molde artean D. Juan bakezko-gizonatzat agertzen zaigu. «Ezkerretarrak» ta Eskubidetarrak adixkide ona ta leiala izaten degu guziok.

Beste gauza bat: euskera erdi-aaztuta badu ere —egun gutxi dira beronek onela aitortu zidan— bere jatorrizko izkuntza asko maitatzen du.

Orio'n txikitan besterik etzan mintzatu ta orain ere euskerari oso pozik jotzen dio egokiera agertzen danean.

Urte asko bizi dakigula gipuzkoraz aundi au!

Bi adixkideei

Zeruko Argia, 30 zk., 1963-09-22

Gauzak milla iduri eta arpegi ezberdin agertzen dituzte ta oietatik bat bakarrik begiratzten badegu, besteak alde batera utzita, gure ezagutza guztiz okerra izango da noski.

Errealitatea ez mazkaltzeko, ez desmoldatzeko, bere arpegiak bana banaka ikustea ezta aski, guziak batean atzeman bear ditugu.

Baita ere, gure pentsaera oso batzuna ta nastagarria da ta barnea azaltzeko amaika gauza batean esan beariko genituke. Ortarako, gutxienez iru edo lau ao izatea oso komeni izango litzaiguke. Zoritxarrez, mundu guziak dakin bezela, ao bat bakarrik degu gizonok. Ainbeste asmoerako aborik gutxiegi.

Pentsatu leguna esateko, au-ori-ura batean esan beariko genuke, bañan nola konpondu ortarako ao bakar batekin?

Orduan, badakizute gauzak nola gertatzen diran. Nik «au» esaten badet, «ori ez ta ura ez» esan nai dedala pentsatuko dute besteak. Zenbat eztabaida ta «desakordio» sortzen diran emendikan!

Nere adixkide aundi Intxausti'tar Aitak nik argitaratutako «Aurrerontz ala atzerontz» izenburuko artikuloari burua oarpen oso sentsudun batzuk egin dizkio. Bat nator osotoro berekin. Bi ideiak eztira alkar aurkez, bi alde ezberdiñetatik sortu baidira. Itz batean: ezta prolemik eta bion artean gudarik ezta izango noski.

Beste adixkide batek nere artikuloak oso intelektualak dirala esan dit eta ez dagozkiola astekari oni.

Adixkide au oso gizon xelebrea ta jatorra da eta au esan dit areago. «Utikan intelektualak! Emen ez degu jende ori bear, baizik langille onak ta 'efetibuak'. Ijituak baño intelektualak kaltegarriagoak dira. Mikeleterik balira oraindik, probintzi kanpora bialdu beariko zenituzteke intelektuala danak».

Bear bada arrazoi pixka bat badauka nere adixkideak.

Inteletuala itzala aundiko jende izan oi dira alde guzitan. Frantzian batez ere nun nai arkituko dituzute «saltxa guzitan perrexilla» erderaz esaten dan bezela. Larousse'n iztegiak dionez intelektualak «gogo-gauzak bereziki maite dituzten presonak» izaten dira. Zein dira orduan egiazko intelektualak? Auskallo.

Buru lanetan ari geranok liburu asko erabiltzen degu, bai. Bañan egia ezta-go idaztitan, baizik gauzen izatean. Batzutan liburuak ez digute eguzkiaren argia ikusten uzten.

Baserritarrak, berriz, liburu gutxi, geienetan batere ez, bañan... beren pentsaera, beren biziari buruzko ideiak, bai sakon ta zorrotzak!

«Kontuz ibilli liburu bakarra dun gizonarekin» esaten omen zuten erromatarrak ta oso ondo esana nere ustez.

Nik ere liburu bakarranduna izan nai nuke bañan bidez aldatzeko berandu xamar iruditzen zait. Barkatu, adixkide ta lagun maitea!

Sartu ta entzun

Zeruko Argia, 31 zk., 1963-09-29

Ume nintzan goizean
gauzak argi ziran
Begotan illuna
gero azaldu zan.

Gandiaga aitak Txillardegi jaunari eskeñitako bere poeman («gizon begi goritu, gizon jagizale, gizon griñen-katigu, gizon miñez-bete»... ta abar) bertso ori bezain sakon-ederrak amaika arkituko dituzte noski.

Ume giñan goizea! Biziaren arratsaldean goiz zorigarri orren oroigaia berri etortzen zaigu etengabe, deitze miragarri bezela. Ura argi-garbitasuna! Ura sinismen-itxaropena! Olerkaria aurtzaro-oroi-iturburu onera itzultzen da beti, naiz ustekabeen.

Ementxe dago arkaitza
Ume nintzanean
soin gabeko poema bat
usmatu neban, eziña,
arkaitz zurtz onen gañean.

Gandiaga Aita gaurko olerkari euskaldunen artean aundienetako bat degu, nere ustez.

Olerkariak oso bearrezko zaizkigu guzioi, bai, sendagille ta injinadorek baño geiago.

«Lojistik gabe bizi gintezke agian. Poesiarik gabe, ordea, ezin bizi gera gizonok». Ala esaten omen zuen Gandhi aundiak.

Benetan, olerkirik gabe bizitzea ezin eramanezkoa izango litzaiguke. Arnasa egitea bezain naitanaiezko degu olerkariaren maitantza, poesiaren laztana, ar-tzea. Eta akullu antzo poesiak zirikatzen gaitu noizean bein.

Ontaz esan nai det poesia ez-tala bakarrik olerkarien lana izaten. Gure lana, bakoitzaren lana, dala.

Gauza guzitan dago olerkia —eta soñua ere bai— gu oartzen ezgeralarik ere. Egi-egiz olerkariak eztu bere olerkia asmatu bear, arkitu besterik ez du egin bear.

Egin gaitun Arrek biziaren zama astuna arin dezaigun etorriaren iturria gure barnean jarri du.

Egiatzko olerkia ixillekoa da. Ez datza berbuan, ez itz-urgoldean, baizik gauza guzieren komunioan.

Orra olerkari, Done Frantzisko'n seme bikain ori. Orrek egingo du miraria, olerki mutu orri itz egin araziko dio, danok gure biotzetan entzuten ikasi dezagun.

Bañan nor bere buruarentzako olerkari onena nor bera izaten da. Ortarako gure baitan sartzea txit komeni zaigu.

Sartu ta entzun, bearra degu oso.

Musika ixilla

Zeruko Argia, 32 zk., 1963-10-06

Norbaitek esan du —ta ondo esana gero— musika ixilla dala. Au da beintzat idazti berri baten izenburua. «Gaztelu» jauna olerkari famatuak idatzi ta Auñamendi editorialak dotore-dotore argiratutako liburu ori euskal baratza ugartzera dator.

Ongi etorria izan dedilla idazti bikain au. Toki nagusia emango diot nere liburutegian. Noizean bein gogoazabaltzeko bere musika izkutua entzutera etorriko ere.

Fray Luis de León eta Donibane Gurutze'n olerki onenak ezin obeto euskeratuta arkituko dituzute orri-alde oietan. Orixe zanaren sarrera eder bat ta beste zati batzuk ere bai.

Egia esan, puntu batean ez nator bat Orixe agurgarriarekin... Nik ezin izan ditut beñere Fray Luis de León poesiak egosi. Astunak ta artifizialak beti irudi izan zaizkit eta egiazko izpiraziorik gabekoak. Berba asko, bai, bañan mami gutxi. Adibidez, bere denboraren gisa, Marte, Febo ta talde guzia beti gora ta bera erakarri oi du bere bertsoetan. Abek ez didate ezer esaten gaurko gizon naizen oni.

Nere aldetik «Qué descansada vida» asitzen dan poema ta beste onelakoak ez Kristau-kutsurik baizik zaarreen tankera dute. «Y dexas Pastor santo» asierakoa gaztearotik ezin eramanezkoa izan det. (Pentsatzen deguna noiztik noiz esan bear degu, ze demontre!).

Bestera da Donibane Gurutze. Onekin mundu mugaraño joango nintzake. Nere ustez Donibane Gurutze eguneko gizona da oso.

Gaurko giza-egokera ikusten lagun arazten digu. Bere soiltasuna gurea izan liteke mixtikoak ez izan arren. Benetan, Donibane Gurutze «barne muinetan» sartu zait betikoz.

Izan ere «Luis lirikuz geiago dala eta mistiku danez barrunago sartzen zaidala» esan du Orixe aundiak «Musika ixilla'ko» sarreran.

Nolanai ere «de gustibus et coloribus non disputandum». Gaztelu jaunaren lana euskerari oso komeni zaio ta txalo aundi merezi du euskaltzale jator onek. Au bai dala «el imposible vencido»!

Nola esan zezakean Ortega y Gasset'ek euskera eztala gauza barne biziaren jario igeskorra adierazteko? («completamente inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior»). Ontan jakintsuak ere zorokerien bat esan bear dutela argiro ikusten da. Bat besterik izango ezpazan ere!

Jario igeskorra —ta iraunkorra ere— adierazteko euskera gai da, ezin uka, ta proba onena orra or dezute, Gaztelu'n idazti eder ontan. Euskera izkuntz ona ta osoa da, bai noski; euskeldunak ez dute ordea bear bezela landu izan nai orañarte.

Gurasoen artutako saria leiotik bota ta umeei «gauza pratikuak» irakatsi.

Au erri fede apurrik gabekoa! Noiz ikasiko dezu gizona eztala ogiz bakarrik bizi!

Arrixku gorria

Zeruko Argia, 34 zk., 1963-10-20

Azken urte auetan amaika gertakari galanta ikusi ditugu munduan, baita ere beroiek sustraizko aldakuntza baten asiera besterik eztirala uste degu.

Batetik, azkenetako teñika-aurrerapen ikaragarriak, batez ere atomo-energeiari buruzko asmo-aurki berriak eta sateliten mentura aundi ori; bestetik, ideien saillean, munduko erlijio ta politika zuzendarien arteko artu-emanak.

Badegu noski gaurko gizonok aoa bete ortzekin gelditzeko naiko arrazoi. Egundano amets eziñatzat begiratu genituen orrelako gauzak, orain errealitatearen indar guziakin agertzen zaizkigu ta arpegia eman diegu nai ta naiez.

Or dituzute Konzilio-Aitak erlijio bidea gizon guzietan errezten eta Eliza bera berritzeko prestamenak egin naiean. Ez bakarrik berritzeko baita «erreformatzeko» esango nuke ere, ez baidiogu itz oni bildur izan bear, bear bezelako moduz erabilli ezker.

Eta zer esan ameriketar eta sobieten arteko tratuen gañean? Oiek ere munduko pakeari begiratzeko prest dira dirudienez. Zeñek esango zukean urte gutxi dirala!

Bañoan eztegu geiegi lilluratu bear. Gogor-zaleak or dira, marmaraz, erri guzitan, gure inguruan batez ere. Berak baldin lur osoari sua ematea balezate pozik egingo lukete noski. Gauzak orrela direla egiazko pake-zaleak kontu andiz ibilli bearrean dira.

Egia esan, Hitler bigarren bat agertzea ezta eziñezkoa. Txinan, Errusian baita Alemanian bertan ere, asko baño len ori gertatzea baliteke.

Illeak kixkurtzen ditu au pentsatzeak.

Bañoan badakizute zein dan geienetzat ontaz erreimeio errezena: ez pentsatzea.

«Ahimsâ»

Zeruko Argia, 39 zk., 1963-11-24

Guziok «no-violencia» deritzariona aipatzea amaika bider entzun degu bañan, nere ustez, gutxi dira jokabide orren mamia atzeman dutenak.

Bide berri oni Gandhi aundiak eman zion lenengo baita ere laster segizale millaka izan mundu guzian.

Gandhi jakintsuak, antziñakoak asmatutako «Ahimsâ» deitzen dutena, bere erlijioan bertan arkitu ta ideia ori ingelesez nola adiarazi ez zekielarik «no-violencia» itz traketz ta ezezko ori sortu bear izan zuen.

«Ahimsâ» badakizute zer dan: iñorri miñ edo kalterik ez egitea, ez iltzea, ez menperatzea.

Régamey aita dominikotar prantzesak «non nuisance», «innofensivité» ta beste onelako berba erabiltzen ditu asmo oiek azaltzeko.

Bañan «Ahimsâ» ta «no-violencia» eztira berdiñak. Bigarren oni etzaio urkoari gaitzik ez egitea, baizik berak gure munduko gaitzei eraso egin nai die. Gandhi indiotar izan arren bere eskolagatik erdi sartaldetarra zan, ta, jakiña danez, sartaldetarrok «efikazia» billatzen degu beti nai ta ez. Gandhi'k ere bai.

Nazioen arteko bidegabe ta zuzengabekeri asko badira baita ere erri bakoi-tzean eztabaida ta auzi makiña bat arkitzen dira. Zuzengabekeria ezta libre utzi bear, bestalde gogor ekin bear diogu. Ortik datozte gudate ta matxinadak.

Burruka ta gudaka ibiltzen gentalarik, nola konpondu etsaiei kalterik ez egiteko?

Or dezute «no-violencia», «*kalte gabeko eraso*».

Bear bada ori biribilla laukitzea dala esango bide dute batzuk.

Askok berriz Egia ta Zuzenbidea kalterik gabeko jokabiden bitartez defenditu ditekela sinisten badute.

Gure errian joko gogor zaleak Gandhi'n egiazko asmoa ulertu ta ezarriko balute ate zabalik irikiko litzaigu danoi.

Orain ere Martin Luther King ameriketar artzai protestanteak bere biziko artikulutxo batean sei puntuetan esan digu kalte gabeko ekiñaldia zertan dagon.

Oraingoan ez degu ez lekurik ez astirik sei puntu oyek azaltzeko. Bañan urrengoan bai, irakasle maitea, orri buruz jardungo natzaizu faltarik gabe.

Martin Luther King

Zeruko Argia, 40 zk., 1963-12-01

Azkeneko ostiralean Deusto'ko Unibersidadera konferentzi bat botatzera joan bear ta gaiatzat «Kalte gabeko jokabidearen efikazia» izeneko artu nuen.

«Gure anaien odolik ezin ixuri arazi degu kristauok, eztu gogortasuna izan bear gure politika jokuak, ta beste egipideak asmatu bear ditugu nai ta ez». Jende ona arri gutxi gora bera ori esan nien ta konferentzia bukatuta... jau berri izugarri ta negargarria eldu zitzaiguna! ¡Kennedy lendakaria ill zutela!

«Or degu —esan zuten entzule askok— nora eramaten dun gogor jokuak. Au bai garai egokia kalte gabeko jokabideari buruz mintzatzeko».

Martin Luther King izeneko Ipar-Amerikako beltzen burua danari agertzea ez da bearrezkoa.

Oraingoan Alabama'n beltzen eskubideak galde egiten ari da jotake ta azkeneko zalapartatik bere izena oso ezaguna da mundu guzian.

King jaunak beste «Dizdiran», «kalterik gabeko ekiñaldia» deitzen dedana biotzetik eragiten du.

Gizon bulartsu ta biotzekoa izan arren eztu iñolaz ere ez gogorrekorik ez gorrotokorik entzun nai. Bere aalmena eztago ez zizpa ez kañioen indarran bai-zik egia ta zuzenbidearen amorez bere burua opaltzeko gai izatean.

Buruzagi aundi onek esan oi dun lenengo gauza da bere langaia ez dala jende koldarrantzat. Ez bakarrik esan, egiñekin frogatu baitere, oraingo iskanbilletan bere lagun eta segizailleen arteko askok zauritu ta ill izan baitira, beste asko gartzelera eraman eta isun ta multa ordaindu izan bear gixarajoak.

Kalte gabeko eraso ezta ez bular makaleko gizonentzat, kementsu ta egikorrentzat baiño.

Bestalde, eraso paketsu orrek eztu xedetzat etsaiak menpetzea ta bere adixkidetasuna bereganatzea. «No-violencia-ren» segizaleak eztute bere etsaien gorputzei jotzen baizik bere izpirituari, bere kontzienziari.

Gogortasun zaleak ori lillura ta amets utsa dala esan oi dute. «Guk, efikazia billatzen degu, politikuak gera ta politikan indarra ta gogorra bearra da, esku-bidea zaintzeko ta errien askatasuna lortzeko. Niccolo Machiaveli italianarrak berak aspaldian esan zuen istillu gabeko igarleak beti galtzaille ta igarle armadunak beti garaille. Guk ere profeta armadunak izan bear degu».

Ala ere Martin Luther King ziur dago bere gogor gabeko jokabideak eskubide-berdintasunara eramango ditula beltzak azkenean.

Nork arrazoi? Neretzako ezta zalantzik. Kristaua izanik baidakit gorrotorik baño maitasun bidetik lasai ta urrutiago joan oi dala beti.

«Txakurraren gaberdiko ametsa»

Zeruko Argia, 41 zk., 1963-12-08

Kaikutzat jotzen gaituzte batzuek euskera bizi ta ugari dedin alegiñak egiten ditugulako.

— «Orain, mundu guzia batasunaren billa dijoalarik zuek euskera berpiztu naiean asi al zerate? —esan oi dute beroiek—. Gure munduan ainbat izkuntza erabiltzea eziñezkoa da ta oietatik lau edo bost bakarrik, geienez, jarraituko bide dira ondorengo urteetan. Euskal mintzaera, Euskalerrian bertan ia ez-ezaguna izanik gaurko egunez, nola nai dezute bada gorde ta zaindu?».

Sasi igarle oiei euskal baratza txikiegia iruditzen zaie. Berak mundutarrak, kosmopolitak, orotako-zaleak dira diotenez. Gu, berriz, leize-zulotarrak, jende mizkiña ta adimen-eskasakoa gera. «Cortos de inteligencia», erderaz esan degunez.

«Cortos de inteligencia» edo «largos de vista» eztakit, bañan ontan egiazko basatiak zein diran zeatz ta zearo analizatu ta azterkatu bearko genuke agian.

Danak dakizuten bezela, azkenetako urte abetan gizon mota asko sortu digute, adibidez «homo sapiens» eta «homo faber» izenekoak, baita «homo kinensis»-ekoa ere, naiz ta kinensis au gizon ala tximiñ dan ziur ez gentalarik jakintsuok.

Beste giza-mota ba dago ere, nik «homo standard» —barkatu, barkatu, «barbarismus horridus» onengatik— deituko nukena molde bakar batez fabrikatua bai dago.

Gizon standard'ek eztu kolorerik ez kutsurik, mundu guzia antzo, izkuntza soñeko, gozo ta jolas orobatekoak izan bear ditu. Nortasuna —nortasuna deitzen degun ori—, «porruak landatzera», jakiña da.

Onelako jendea erruz arkitzen da gure egunetan. Simone Weil emakume argi ta biotz berokoa izan zanak «L'ennracinement» izeneko liburu eder bat idatzi zuen. Frantzia'n naiko ezaguna da liburu ori, gure artean ez det uste, bañan orren berririk ez badakizute oraindik, nere kontsejua da len bai len billa ta irakurri dezazutela.

Dana dala, liburu ontan Simone Weil'ek argi ta garbi azaltzen du gizonak nunit bait erroak ogia baiño bearragoa dutela. «L'enracinement est peut-être le besoin le plus important et le plus méconnu de l'âme humaine» —dio idazle jator onek.

Gure errietara lan egitera etortzen diran gizon ta emakume gizarajo oiek, ori beste gauzarik ez dute eskatzen: lurra berri batean berriz erroztatzea.

Or dezute jarraibidez Paco Tejados, eztakit nungo bertsolari famatu dan ori. Euskal lurrean, onek bai sustrai sakona ta azkarra sartu!

Neretzako, euskerak ikur berezi bat agertzen digu euskeldanoi: erroa, sustraia. Ori galdu ezkeru gure etorkizuna zein izango dan badakigu: betiko, arpegirik gabeko gizon standardekoak izatea.

Euskeran dago euskal erroztapenaren bide bakarra. Ori kanpora beste guzia, kronletxekin edo kronletxerik gabe, «txakurraren gaberdiko ametsa» da. «Castillos en el aire»: des chateaux en Espagne.

Marmarraka

Zeruko Argia, 42 zk., 1963-12-15

Bizi luzea ta lasaia, naiz ta argigabekoa ala bizi laburra ta sonatua bietatik zein naiago zuen galdetu omen zioten sasi-jakintsuak Akiles gudari grekotar famatuari.

Akiles'ek bigarren bidea autatu ta milla arrigarrizko lan eginda gero, oraindik gizon gaztea zala, gloriuz josita ill zan Troia'ko iri-muruen aurrean. Gertari arren nolakoa berririk badakizute guziak: Akiles'ek orpoa ez izanik gorputz osoa ezin zauritukoa zuen, bañan Paris izeneko gudari troiatarrak dardai pozoinatu bat bota ta orpoan bertan eman zion. Ala il zan antziñako helenotarren arteko buruzagi famatuena. Garaipena etzuen ikusi berak, bañan Troia helenotarren eskutan erori zan ta Akiles'en egite andiak etziran iñoiz ere aaztu eguneraño.

Orain ere bi bala dun-dun faltsuak Kennedy lendakari aundiari arnasa kendu diote bizi laburra ta ospetsu baten ondoren. Etsai iskutu batek galburu eldu antzo bere egunak itzundu ditu bañan bere izena ate zabal zabaletik sartu da Giza-Edestian ta «letra aundiekin» idatziko da emendik aurrera liburuetan.

Egia esan ango ta emengo guda zaleak ez diote iñoiz barkatuko sortalde-tarrekin onartuaz jokatu ta Krutxef bereganatzen saiatzea. Kuba'n, Berlin'en, Asia'n ta alde guzitan Kennedy'k bere pakezko politika baño beste txit gogorragoko bat egin zedin naiago izan zutekean. Mundu guzia ankaz gora lotatzea bost ajola zaie bere naikeria egitekotz.

Orrengatik Kennedy komunistatzat salatzen dute beren kolkorako ta gerta liteke ere —iñork ez jakin arren— bere eriotzaren erdikide izatea.

Oraingo jende oiek marmarraka dabilzate pentsatzen dutena esatera auzartu gabe. Bañan nere ustez laster suspertuko dira ta bere egiazko pentsaerak argi ta garbi azalduko dute bai Kennedy bai Joan XXIII'ri buruz.

Ez gaitezen lilluratu. Gudazale, errazista ta oietakoak ugari dira munduan. Etorkizunean Kennedy'n segizaleak estropo asko arkituko dute noski bere bidean.

Dana dala joku berorri ekin bear diogu borondate oneko gizon guziok beste biderik ezбайдago guretzako.

Maragall ta Unamuno

Zeruko Argia, 43 zk., 1963-12-22

Maragall ta Unamuno'ren alkarririkiko artu-emanak ez dira bear ainbat eza-gunak gure artean.

Erderaz bai, idazki asko argitaratu dira, batez ere Cataluñan, Maragall'aren jaiotz-eunurtebetetzean, baita artikulu auetako batzuek Maragall ta Unamuno'ren arteko korrespondenziaz jardun ziran ere.

Euskeraz ez det ezer irakurri gai ontaz, naizta nik ez jakin arren zer edo zer egotea baliteke.

Bi gizon auen gogo-moldeak arras ezberdiñak ziran, noski: bata, baketsu ta tolesgabea, bestea, berriz, urduri ta erasozalea. Bañan ain aurrezko izan arren gauza sakon batean bat zatozten. Maragall berak onela esaten zion Unamuno'ri bere eskutitz batean.

«Ain urrungo bidei jarraitu gatzazkiolarik, zergatik elkar urreratu gera ta nola maite izan dezakegu zuk ta biok? Dudarik gabe, gure barne-muiñetan dagon zerbaitegatik».

Zerbait ori mundu onen miñ guzia aurrez-aurre ikusi nai izatean dago, nere iritziaz.

Gizon geieneri egiaren azala ezagutzea aski zaie munduan zear ibiltzeko. Beste batzuek ordea, gure eriotz ostekoari buruz egiaren betea jakin nai izango luteke, jakintza onek miñ zorrotz ematen baldin badie ere.

Giza-miñari begira Unamuno'k bere deadar ta karraxiekin esnatu nai gaitu danoi. Jainkoari oiuka ari zitzaion jo ta ke, ta milla birau bota ere gure zorraitzagatik. «Jainkoari dei egin zaiozute. Arrek entzun bai, entzungo baidizute azkenean».

Maragall, berriz, gure arrazaren gaitzaz errukitzen da ta bere biotzak negar egiten bide du, negar neurri gabezkoa.

«Adimena, au bai gaitz ikaragarria! —esaten omen zion Unamuno aundiak bere adixkideari. Baita katalandarrak, gaixtokeri pixka batez, Unamuno'ri erantzun ere: «Naiko adimenik eztaukat oraindik ez pentsatzea lortzeko».

Esan ori zorrotza bai benetan, jakindariaren maillarik goiena ez baidago pentsamenduan, baizik eta egia bera, ez nekerik eta batera bitartekorik gabe, ikustatzean.

Gure adimena oso traketza da noski ta gauza guziak milla puxketan autsi bear ditu beren azterketa egiteko. Bañan eriotzak ez dio bere buruari puxkatzen uzten. Eriotza ta miña iges egiten dute gure azterketatik.

Egunen batean Maragall ta Unamunoren arteko komparazioak euskal-idazlearen batek egitea mereziko luke.

«Gauzak» esatea

Zeruko Argia, 45 zk., 1964-01-05

«Ezta, Jaunari ezkerrek, euskera lantzeko idatzia izan, euskaldunen fedea sendotzeko baizik» esaten zuen, «Egan» errebistan, Mitxelena jaunak Aita Villasante'ren «Kristau fedearen sustraiak» izeneko liburuari buruz.

Bai, ezkerrek eman bear dizkiogu Jainkoari, oraindik euskera, ain zaar izan arren, giza-gertaerak ta ideiak bultzatzeko gauza dalako.

Bañan, bear bada, itz oiek gaiztokeri pixka batez autatu ditu egilleak.

Badaki, Mitxelena adixkideak, sukaldari trebeen gisara, gatza ta piperra erabiltzen bere idaz lanetan.

Bere idatziak oso estimagarriak dira beti, ez bakarrik bere euskal mintzaera joriaz baita bere gogo-ugaritasun eta bere pentsa-aberastasunagatik ere.

Gauzak esateko erabiltzen dun esakera dotorea baño, esaten ditun gauzak berak garrantzi aundiagokoak dira noski.

Or datza, bai euskeraz bai erderaz, literatura baten neurri nagusia: gauza mamitsuak ta garrantzidunak esateko nor izatean.

Idazlariak bi eratakoak dira, nere ustez: zerbait esateko dutenak eta gañerakoak, alegia, zer esanik ez dutenak.

Bigarren mota ontako, «euskera lantzeko» bakarrik lumari jotzen diotenak, asko dira euskal idazletan.

Beren buztanari kosk-egiten dioten arrai oiekin gertatzen dan bezela, idaz-gai bakarria izkuntza bera izan oi da zenbait euskal idazlentzat.

Ontaz prantzesak ba dute esaera polit bat, onela diona: «qui peut, peut; qui ne peut, enseigne». «Aal dunak, aal; ezin dunak, irakatsi».

Irakasle, bai, naiko ditugu gure errian dirudienez, eta ainbeste maixukin, ikasleok bizi ere ezin.

Badakit zenbait aiek obe bearrez egiten dutela, bañan au euskera bizitu arazteko ezta bidea.

Mitxelena jaunak berak argi ta garbi esan zigun beste «Egan'eko» idazki batean. «Lotsagarri da, sarri esan degun legez, beti izkuntzaz mintzatzen aritzea, izkuntza orren bitartez beste sakonago zerbait adierazi bearrean».

Naiz euskeraz naiz txinaeraz, auxe izan bear du idazlearen jokabidea: «*gauzak*» esatea.

Etxekoandrearen zenbaketan

Zeruko Argia, 47 zk., 1964-01-19

Matematikari buruz iritzi oker asko ibilli oi dira. Matematikari naizen aldetik zientzia ontaz zerbait esan nai nizuteke noizean bein nere DIZDIRETAN.

Ontan eztago politikarik, ez erlijio-gaiarik, ezta ere «gaiztoa» izateko tentamenturik. Bat eta bat bi dirala, beste gauzarik ezbadiogu, etzaigu noski batere gaitzik gertatuko. (Aupa libertadea!).

Badakit geienetan matematiketak legor ta ikasgaitzak iruditzen zaizkiola ikasleari. Bañan, beren mamia benetan atzeman dutenak, matematiketan, musikan bezela, olerki izkutu ta miragarri bat arkitzera iristen dira.

Matematiketak ezin aldatuzkoak dirala sinisten dute batzuek. Ezta egia ori. Gañerako zientzia guzien antzera, berak ere Giza-edestiaren mugimenduari jarraitzen zaizkio beti. Ortarako aldaketa asko egin bear izan dira mendetan zear beren jokabidetan baita beren oñarrietan ere.

Zenbaki gaietan makiña bat asmaketa arrigarri egin da aspaldi ontan. Joan dan mendeko matematika ez baizik beste bat oso ezberdiña sortu zaigu azkenetako amabost urte ontan.

Nundik etorri da zientzia berri au? Nere ustez, batez ere «buru-elektronikoa» esaten duten tresna berri ori dalata.

Gezurra badirudi ere makiña-pentsakiñ famatu orrek eragintasun aundia eman dio zenbakien zientziari bide berriak zabaltzeko.

Bagenekien gauza bat orain berriro arkitu degu, alegia, matematika-jokabide ta algoritmo guziak bakar batera mugatu ditezkelat: «kondatzea» izena dunera.

Batuketatik ekuazione liferentzialetaraño, Zenbakisti, aljebra ta Analisis infinitesimalaren operazio guziak, ortxen, «etxekoandrearen zenbaketan», sartuak daude. Esan nai deguna badakizute: bat eta bat, bi, eta bat, iru, eta bat, lau, eta bat bost... neurri egokira eldu arte.

— «Bai asmaketa arrigarria!» esango du agian norbaitek.

Bai, bañan bereizte txiki bat badago ontan, makiña-pentsakiñak etxekoandre baño billoi bat aldiz ariñago kontatzen dulako. Gertaera onek matematika guziaren itxura aldatzen ari du oraingo egunetan.

Lenago eziñezkoak zeruditen operazioak orain erreztasun larriaz egin ditezke. Berreun ez-ezagunen ekuazio-sistemak erabiltzen dira gaurko egunean bati ere eragospentik gabe.

Bañan, batez ere, orain «Monte Carlo» izena dun egipide berria degu, kontatu operazioa beste gauzarik ezta. Buru-elektronikan prolema bat sartzen badezute, makiña-pentsakiñ berak, ariñ baño ariñagoa, millaka ta milloika bearezko saio ta billaketak egingo dituzute erantzunera eldu arte.

Jokabide ortarako ekuazio liferentzialak ta beste onelako giza-adimenaren aldamiok erabilli bearrik ez da.

Gauza bakar bat, «Kondatzea», jakin bear du buru-elektronikak. Begira nundik, zientiaren aurrerapenak, gauza bakun ta errezetara berriz eramaten gaitun.

Adiskide on bat joan zait

Zeruko Argia, 51 zk., 1964-02-16

Zergatik jo nau beste eriotz batek baño adiskide urduri onen iltzeak indar aundiagoz?

Luis Martín Santos'en bizitzea zoritxarrez josia izan zuen ta orain, idazlearen asmotan goienetako mallak iritxi zorian zala, bere eriotzaren berri ustegabekoa bat batez eltzen zaigu.

Bein baño geiagotan, bera ta biok, giza-izatea ta bizi-eriotz gaiaz mintzatu giñan luzearo, baita jardun mamitsu abetan bere adimen-leialtasuna, bere fedea ona, ederretsi bear ere izan nuen amaika bidez.

Etziran, ez, gure solasak, itz uts ta zirtzill antzokoak, betiko gizonaren zergatiak maizetan sortzen ziran eztabaida aietan.

Nere adiskidea izan zanak fededun etzala esan oi zidan, baita ere nik ez sinistu bere esana.

Egia esan, fedearen bideak izkutuak dira bertan zear ibiltzen diran berentzat ere. Inork eztaki benetan egiazko fededunak zein diran, eta baliteke kristau zintzotzat bere burua jotzen dutenak baño beste urrutiko jendea naiago izatea Jainkoak.

Fededun batzuen sasi-pakea baño fedearen billa, ez jakiñik ere, dabillen gizonaren ezin-egona baliteke Arrek begi ederragoaz begiratzea.

Billatzen zabillena arkitu du onezkero nere adiskide bikañak. Bai, guziok jakin nai deguna, badaki.

Bañan, zergatik, maiteok, bere oroimenak Jainkoarengana oldar aundiagoz urrerazten nau?

Bixigu arrabak

Zeruko Argia, 58 zk., 1964-04-05

Unamuno maixuak bere «Vida de Don Quijote y Sancho» deritzan entsaioan kondatze zorrotz au jarri zigun. Gertatua ala asmatua dan eztaikit... bañan sarritan auxe irakurtzean parragure —edo negargure— aundia etorri oi zait, gure artean olakoxe gauzak ikustean.

Dirudienez, Salamanca'ko probintzian «El Mosco» deitzen zioten alor-gizon dirudun bat bizi zan garai artan. Bere errikideak gizon aundizkitzat zeukaten, bere trebetasun ta adimenagatik, baita ere bere diruagatik, gertatzen oi dan bezela.

Urte askotan txit pobre izan zan, bañan, azkenean, zorion aldia iritxi omen zitzaion ta zenbait milloi erreal bildu zituen lanaren lanez.

Ordutik errege antzo, bere baserri ederran bizi zan beti asmaketa berriak arkitu nairik.

Bein batean «proeza quijotesca» bat —ala dio On Mikel'ek bere oiturazko geiegikeriarekin— egiteko ustea bururatu zitzaion: kantabriko itxasotik bixigu arraba moltzo bat arrantzale ezagun bati ekarri arazi ta bere landarean zegoen urtzulo batean bota zuen, bixigu-kume «txitaldi» eder bat sortuko zitzaiolakoan.

Nola izan zitekean legor-legorretako ur geza ta motel aietan bixiguak sortzea? Ur geldi oiek baño beste oso lasterragoak, bear dira ortarako, noski. Bañan —dio Unamuno'k— gizon arrek bixiguak ugaritzea merezi zuen bere sinismena ta itxaropen miragarriagatik.

Bai parabola bere-bizikoa, fedegabeko egun auetan. Amaika ondorengo ta ezarpen jakingarri atera litezke artik, sail mota askotan, baita nork bere kolporako ere nai badu. Nik gauza bat bakarrik esango nizuteke.

Ontan bixiguak edo elerti-lanak azitzea berdintxo degula klima ta ura egokirik gabe, bixigurik eztago. Ez ta literatura orozko sonaturik ere.

Ezin-egotasuna, urduritasuna, egiazko jakin-miñarik ez badago, nola nai degu izpiritu-bixigu ederrak, Cervantes, Dostoiewski, Victor Hugo, Ibsen ta milla onelakoak, euskal aintziran sortzea?

Moises-i gertatu zitzaion bezela, guk ez degu ori ikusiko, bañan «El Mosco»'ren itxaropena izango bagenu baliteke geroako egun urruneko batean putzua itxas aundi aldatu ta euskal literaturaren jeinuren bat agertzea. Ori baño mirari aundiagoak egin ditu sinismenak.

Aundi itxurazko politika

Zeruko Argia, 61 zk., 1964-04-26

Egun batzuek direla, Mejiko uriaren plaza nagusian, jendetza baten aurrean De Gaulle lendakaria ikusi degu, baita entzun ere, Prantziko telebisioren bitartez.

De Gaulle gaztelera jatorraz mintza irmo ta izkorraz jardun zitzaien mejikotarrei, bi erriak eskuz esku jo bear dutela ta beste onelako gauza ederrak esanaz. Napoleon irugarrena ta Maximiliano emperadorearen il-itzalak inguruan ibiltzea baditeke, ta pozik gero, beren aspaldiko asmo berak De Gaulle'n mintzearan berriro arkitzean.

Batzuek eta besteak buruz-buru onetik zer atarramendu aterako duten ez dakigu, mintza eder guzi ori itz utsetan bakarrik gelditzea bai liteke. Dana dala europatar geran aldetik «politique de grandeur» orri buruz zer esanik badegu ere.

De Gaulle'ek guziok dakigun eragospen larriak kendu ezker —Arjelia, OAS ta gañerakoa— Prantziko kanpoko politikari eman dion abiadura arrigarritzkoa da. Bañan guk ikusten deguna da, joku ori oso kaltegarria ditekela Europaren batasunerako.

Emeretzigarren mendean Bonapartetarren politikak gaitz aundiak ekarri zitu. Gañera ezker orain emeretzigarren mendean, ogei ta bat garrenean sartu zorian baizik. Kondairak ez du inoiz atzeraka jotzen, ta gaurko egunean askok, bonapartismo berriren bati susmoa artzen dioten aundi itxurazko politika orrek, ez luke batere funtsik izango.

«Politique de grandeur», bai, ederra dezute, jostallu galanta bat antzekoa, prantzetiko aberzalekeria adoratzeko, bañan zertan geldituko dira, «egi-orduan» ospe ta goraldi guzi oiek? Benetako oñarririk gabeko lanak berealaxe ezeresten dira.

Bestalde, guk nai degun Europa ez da indarbidez eratutakoa, erri guzien anaitasunaren frutua baizik.

Santa Alianza'ko Europak, Napoleon edo Hitler'en Europak, ez ditugu guk eredutzat.

Federalismoa da bidea. De Gaullek berriz beste bideari jo nai dio ta Europa-ren etorkizuna oso arrisku aundian jarri du.

«Après moi le déluge» esatea ta berekiko aintzari bakarrik begiratzea gizon politikoen bekatu aundienetako izaten da.

«Gizon indartsuenen betiko arazoa bere egiña iraunarazteko modua asmatzea izaten da» —idazle prantzes batek oraindik-orain esan du.

De Gaulle'n oraingo kanpoko politika zertan geldituko da? Kondairak itza.

Miñik gabeko gizona

Zeruko Argia, 62 zk., 1964-05-03

Gandhi handiak «Hind-Swarâdj» izeneko liburuan, Sartaldeko Sendakintzari buruz oso gauza estimagarriak esaten ditu. Bere esan ta pentsaera zorrotzak burura etortzen zaizkit egun abetan, Beljika'ko sendagilleen oporra dala-ta.

Zer esango luke Hipokrates antziñakoak berpiztuko balitz! Baliteke zenbait birau botatzea, gaurko Medikuntzaren egokera ikustean. Berak Jakinduri ta Apaizlan bezela jotzen zuena, teñika ta agibide aldatu zaigu noski.

Opor onek esames askori bide-eman dio azkeneko asteetan. Geienak oporra gaiztetsi oi dute, jendearen ontasunari kalte egiten diolako, bañan badira ere beste iritzi batekoak, Beljika'ko Estaduak ez ote ditu mirikuak jornalari biurtu nai izan? Ortaz, beste langilleak bezela, beren eskubideak opor bitartez zaintzeko nor dira sendagilleak.

Dana dala, eztabaida onen mamian sartu gabe, gure aldetik zer esana badegu: egia esan, gaxo kezkatientzat osagilleen oporra oso konbeni dala uste degu. Or dago gaxo irudikor edo irudipentsuentzako —ta millaka dituzute onelakoak gaurko egunean, herri zibilizatueta— erremediorik onena: sendagillerik gabe arkitzea.

Gaizki-esaleak diote baitaere iskanbilla au hasi ezkeroztik heriotz-kopurua gutxitu egin dala Beljika'n.

Gaurko gizonak uste dute zientzia-aurrerapenak Herioaren atzaparretik libratu ditzakela, ta miñ ta heritasun guziak kendu ahal dizkiela.

Ondoez-alditxo bat datorkienean, «sendagillea datorrela» diote bereala batez ere, ortarako pagatzea ez bada bearrik, oraingoan gertatzen dan bezela.

«Betor sendaillea» ta zulatze edo iyezioak, bitaminak, sulfamidak, ta eztaikit zenbat sendagai gañerakoak, agindu ditzaion, geiago baño hobeto.

Zer bada, gizon zibilizatuak miñ-gabeko ta hillezkorra izan nai du, edo?

«Egiazko osagilleak, gorputza baño arima geiago sendotu bear» —esaten zuen Jakinduri zarrak. Gaurko jendeak berriz aldrebes jotzen diola dirudi.

«Sendagaiak geiegikeriz ta gaizki erabiltzeak borondatea xamurtu egiten du. Oitura kaltegarria izan ezker, mirikuak miña kenduko dizu, bañan miñaren iturri dan biziorik, ez. Baldin miña kenduko ezbalizu, bizioa uzteko prest izango ziñake. Bañan sendagillari esker, bizioan jarraituko ta gorputz-arimak ondatuko dituzu».

Egia beti erdian dago, jakiña da. Bañan, ezin uka diteke Gandhi'k esan abetan, egiaren zati on bat dagola.

Zurea gurea

Zeruko Argia, 63 zk., 1964-05-10

«Deabrua zahartu, ez ordea ondu» esaten zigun lagun batek, egun gutxi dala, komunismoa ta beste onelako «ismo» batzuetaz elkar mintzaten giñalarik. Etzekien gizarajoak deabrua ez tala iñoiz aguretzen. Aingeruak adiñik ez izan. Beti gazte ta pizkor dirau noski gizadiaren etsai izkutuak.

Komunismoa, berriz, zahartu, bai, zahartzen da, mundu onen partidu ta ideoloji guziak bezela, ta horixe bera argi ta argi ikusten da oraingo gertaeretan.

Ziur nago, Krutxef jauna txerrena ber bera dala elizako jende askorentzat, baita elizagabekoentzat ere. Egia esan, URSS'ko lendakariak oraindik orain irurogeitamar urte bete ditu ta agure begikotzat artzen degu une ontan.

Amaika omen-aldi egin dizkiote bere aldekoak oroigarritzko urte-mugan. Baita berrorek mugona protxatu ta zenbait itzaldi eder bota ere egin ditu, ori dala-ta. Batez ere txinotarrei bota dizkie bereak eta bi.

«Badakizute —esan du Krutxef jaunak— baserritar edo laborari txinotarrak nola entenditzen duten komunismoa? Begira, hoietako laborari batek praka pare bat izan ezker, bada-ezpada-ere ixil ixillik gorde ta «au badaukat gutxienez, herriko batzarrak beste bat ematea baliteke gero» pentsatuko du. Ollasko baten jabe bada bere kolkorako esango du: «ollasko au jan dezagun beintzat ta gero herriko-batzarrak ekarritako beste ollaskoak jango ditugu apika». Ondo ikusia, motel.

Or ikusten da, irakurle maiteok, herri ta denbora guzietako jendeak berdiñak direla. Gizona beti gizon, hemen eta Txina'n.

Guk ere badegu euskal atsotiz bat hau diona: «nerea nere ta zurea gure».

Bai, komunismo txinotarra ezagutu bearrik gabe, sermoi hori ondo ikasia degu aspalditik kristauok. Ta horixe da gure betiko arazoa: nola aldatu gizonon berekoitasuna.

Izenik gabeko katuak

Zeruko Argia, 67 zk., 1964-06-07

Euskal-teatroz asko mintzatzen da gure jendea aspalditxo ontan, Zer-nola egin euskal antzertia ugaldtu ta pizteko, gaurko arazorik handienetako bat dezute hor-hemenka euskaltzaletan. Bide berriak asmatu naiean dabilzkizute pentsalariek baita lanari eki diote ere egilleek eta taldeek, ardurik handienez.

Euskal-teatro berri bat ia ezer-ezetik sortzea, ezta neke zirtzilla, noski.

Egia esan, arazo ori eztagokio soilki euskal-yakintzari. Mundu guzian ari diralako antzerkilariak bide ta era berriren baten billa, eta oztopo askotxo agertu ere sail ontan.

Ez bakarrik antzertiak. Gaur egunean, ederti bakoitzak berekiko korapilloa badu ta nola lajatu eztaikin ezkeru, itsumanduka ibilli bear.

Ainbeste gizalditan ari ondoan, kristau-kultura agortu al da, bada? Goethe handiak esaten zuen: «garrantzidun guzia onezkero pentsatua izan da-ta aurre-rantzian, bera berpentsatzen saiatzea gure egiteko bakarra izango da».

Etzaio biderik itxi etorkizunari, ez. Gauza arrigarriak ta jeiñu berriak sortu-ko dira oraindik munduan batere dudarik gabe.

Euskal-errian ere, euskaldunek teatro berri bat nai badute, bai, izango du-te, noski. Bañan, euskal iduriko ta jatorriko izan bear du beintzat. Hortarako bear-bearrezkoa da, batez ere, azkarregi ibilli ez nai izatea. Oso kaltegarria izan-go litzaioke, nere ustez, prantzesek «bruler les étapes» esaten duten ori.

Arira datorkio, ain zuzen ere, Henry de Montherlant'en katuen kondatzea.

Andereño bat oso katu-zale omen zan ta makiña bat pitxitxi zeukan bere etxean. Ainbeste katu inguruka ikustean «ia, bakoitzak nola dun izena» ande-reñoari galde egin zion Montherlant'ek.

— «Izenik ezta iñork» erantzun katu-zaleak.

— «Orduan, deitzeko, nola konpontzen?».

— «Deitzeko? Ez diot iñori deitzen. Bearrik ez, berok nai dutenean etortzen zaizkit-eta».

Orrelaxe gertatzen da jeinuen gaietan. Alperrik da ederti-lan nagusiaren bila ibiltzea. Pentsaturik gabe ageriko da, noiz edo noiz. Berak nai dunean, ipuiko katuak bezela.

«Zer egin bear degu, bada» —galdetuko du agian euskaltzale baten batek. Jo ta ke lan egin, fedez eta garrez, artifizialkerik gabe, euskal-sustraietatik egiñala guzia ateratzen.

Obeto dezute antzerki apal eta bazkun batzuek sortzea —jator eta egiazkoak izatekotan— euskal sustrairik gabeko amaika baño.

Ori da nere kontsejua, naiz ta badakidan sail orren arriskoan enaizela nor kontsejuak emateko.

Mastiaren billoba

Zeruko Argia, 69 zk., 1964-06-21

Badago Azkue'k bildutako igarkizun bat gutxi gora bera hau diona: «Amona, zango-makurra. Alaba, ederra. Billoba, dantzari». Igarri bezate irakurle igarzialeak izkutuko sendi honen izena.

Besteei —ikarketan ibilli nai eztutenei— neronek emango diet giltza. Gorputz oker-makurdun atsoa, mastia da. Bere alaba, emakume yayoa dalakoa, matsa. Ta azkeneko gazte lai-ederra, oso gure laguna izanik, bere izena esan bearrik ez. Laguna ez-ezik, etxean muturgorri hori, familiako bezela jotzen degu, bazkal-apal ordutan beti maian agertzen zaigu gure pozerako.

«Igo dala» esaten dute noizean bein etxekoandreek eta txikituzaleek. Nik, ordea, toki berean ikusten det beti.

Victor Hugo zeritzan idazlariak hau esaten omen zuen: «Ura, Jainkoak egin zuen noski. Ardoa, berriz, gizonak». Bañan ontan oker xamar zebillen prantzesa, nere ustez, urik gabe ardorik izango ez bailegoke. Bestela, galdetu dezaietela tabernariei.

Quevedo handiaren denboran ere, ardoa garestitu egin omen zan «Los Sueños» izena dun liburuan onela mintzatzen baizan: «Ezta egi bakarria ardolariek ardoa odeitaraño jaso dutena, odeiak ardotaraño jetxi arazi baizik, ainbesteraño berrori 'euritzen baidioté'. Baserritarra baño eurizalegoa izaten da tabernaria». Bai xelebrea benetan «bertsolari» sonatu hura!

Batzuek ardoa gauza herioa dala esaten dute, arrazoi handiz gero, eta hori erakusteko Bibliak ardoaren alde bein baño geiagotan itz egiten dula diote.

Egia da Liburu Sainduak irurogei ta amalau bider «ardoa» itza erabiltzen dutela. «Concordatiarum Manuale'n» egiztatua dedanez. Bañan beroiek ahazten dutena da Testamentuak hori baño geiagotan berreun da zazpi bider ura aipatzen dula. Hori ere kantatua daukat liburu hortan bertan.

Orain debalde aidea degu. Ezta gutxi, gizonok! Ardoa ere utsean izango bagenu, a zer poza kristaumentzat!

— «Zer da libertadea?» —galdetu omen zioten bein ardozale bati.

— «Libertadea?... Ardoa debalde izatea!».

Satelite artifizialak baditugu gaurko jendeok. Bañan giza aurrerapena mirari hori egitea eztirudi oraindik posible.

Jacques Leclercq, kanonigoa

Zeruko Argia, 77 zk., 1964-08-23

Aspaldiko adixkide agurgarria dedan Jacques Leclercq kanonigoak bere «La liberté d'opinion et les catholiques» izeneko liburu berria bialdu dit aste batzuek direla.

Liburu onen lenengo orrian, egille berak bere eskuz idatzitako itz hauek agertzen dira: «En souvenir du temps ou on discutait ces problèmes à Saint Sebastien».

Oroipen hau oso egokia irudi zait, katolikoan iritzi-libertatea ta beste onelako «gai izugarriak» bein baño geiagotan erabilli genituen, batere enbazorik gabe, gure «Donostiko Solasetan».

Bai argi ta garbi esaten zirala gauzak batzar haietan!

1947 urtean asi giñan, gudate mundiala bukatu berria zala «Conversacioak» antolatzen. Europa erdi ondatua arkitzen zan oraindik eta europarrak bildurrez beterik, errusitarak lur legor guzia menperatuko zutelakoan.

Garai hartan lenengo aldiz etorri zitzaigun Jacques Leclercq jauna Donostira ta orduan egin nuen ere nik bere ezagutza.

Orain bezela, jakiña, oso gizon argia zan, beti irribera, zorrotza ta egiak esateko bildurrik gabekoa.

Solasetan jende oso jakite handikoa izaten zan eta, denak katolikoak izan arren, oso pentsaera ezberdiñekoak ziran. Zenbat iritzi ta asmo diferente artu ditezken Eliza barrenean lenengotik ikusi nezaken. Gerokoan, ori atzematea ikasgai oso ona izan zitzaidan.

Asi ziran bada «Conversacioak» ta, onelako batzarretan gertatzen dan bezela, izlari bakoitzak bere jokuari jo, besteei entzun ez nairik. Orri, ez dialogo, baizik «sucesión de monólogos» esan oi nion nik. Eztakizute zenbat lan bear dan egin egiazko solas batera jendea eramateko. «Dialogue de sourds», bai, erruz arkituko dituzute munduan.

Beraz, gure Solasetan geienetan irugarren edo laugarren egunarte etzan benetako dialogorik asten. Ordun ere amaika «monologo» entzunda gero, alako batean, solas-kideak logale xamar zirela, «propuesta» batekin etorri zitzaigun Leclercq jauna, guziak bere onetik atera zituena.

Jacques Leclercq asi zan esaten hainbeste beartsu ta lander Europa ta mundu guzian ordukoan ziralarik, elizaren joia ta edergailluak saldu bearako lirakela ta haietatik bildutako diruarekin len bai len pobre ta beartsuei laguntza eman. Elizetako irudiak hainbeste urre ta zillarrezko bitxiekin jantziak agertzea, gizakumeak millaka goserik iltzen ziran bitartean, oso pekatu handia zala. Eta Elizari eskari hori egin bear geniokela. Ala mintzatu zan, gutxi gora bera, gure kanonigoa.

Etzenuteke sinistuko han arrotu zana!

Guziak asi ziran mintza-txanda eskatzen, teoloji aldetik, moral aldetik, lege-jakin aldetik ta eztaikit zenbat ikusi aldetatik beren iritziak azaldu nairik. Prantzes geienak propuestaren alde zeuden. Españolak, berriz, oso kontra. Ura zan zurrunbilloa!

Azkenean, Douglas Woodruff, «The Tablet» zuzendaria danak, ateraldi guztiz ederra izan zuen, esanaz, maltzurkeri pixka batekin, hainbeste bitxi ta sari baliotsu batean salgai jartzea oso tratu txarra izango litzakela, prezioak berea-la jexkiko baiziran ta diru asko galduko zala.

Ustegabeko erantzun hura entzutean solas-kideak aoa bete ortzekin gelditu ziran. Merkatari-arrazoi hoiek pixka bat «joku-kanpokoak» irudi zitzaizkien noski gizon agurgarri haiei.

Woodruff hura, bai erreminta ona!

Gai honek erremate ona izan zuen. Tartetxo batean, «Conversacioen» nagusiak, Gazteizko obispua izan zan Mons. Ballester'ek Leclercq jaunari bere propuesta erretiratu zezala eskatu zion, arren, ta honek, baietz erantzun, kristauen gogo ta biotzak esnatzeko bakarrik egin zuela ta oso pozik erretiratuko zuela.

Orduan ere, gaurko Konzilioan atarian giñan noski, guk ez jakin arren.

Liburua ta gizona

Zeruko Argia, 82 zk., 1964-09-20

«Gaitzetsi ditut liburu antzo itz egiten duten gizonak. Gizonak bezela itz egiten duten liburuak berriz, maite izan». Ala esaten zuen nunbait Unamuno maixuak.

Eta beste nunbait, «pozik nago ezer irakurri ondoan esan dezakedanean: au idatzi zuen gizona izpiritu garbi ta noblea duna dirudi».

«Neronek tirako nizkin» izeneko Auspoaren liburu berria irakurri ondoren, orixe esango nuke nik. Gizona ta liburua, biak batera, xarmantak irudi zaizkit benetan.

Idazti onen egillea herriko gizon jatorra dan Sebastian Salaberria, txikitatik milla neke ta su sufrimendu eraman eta gero Oriamendi'ko ur-depositoan gaur zaitzaille dezutena.

Bere lana nobelatzat ageria izan bada ere eta aurtengo Agora-saria merezi izan arren, noblea ezin deitu dezakegu.

Kontatze bakuna da soilki, bañan zein zoragarria ta bizia!

Bere egiazko bizia zabaltzen digu egilleak batere idurizko edergallurik gabe. Nola jaio zan baserri arlotean eta oraindik mutil koskorra zala gurasoak galdu-ta besteren serbitzari jarri bear izan zuen. Hori ta beste amaika gauza mamitsu, gudate denbora eldu arte, batere handi-mandikeririk gabe, gizon zintzo ta tolesgabekoa dan aldetik adierazten dizkigu Sebastian Salaberria'k.

Liburutxo au sail batean irakurri det, eskuetatik laja eziñik, igandeko arratsalde osoan.

«Pello Errotaren bizitza» beronen alabak kontatutakoa irakurri nuenean berdintsu gertatu zitzaidan. Au ere, bai kontatze zoragarri, jator ta bizia!

Badakit abska horrek intelektualak diralako batzuen gosea asetzeko ez duala balioko. Bañan onelako liburuetan, Axular'en baño segurantza geiagoz euskal arimaren erroak arkitu ditezke. Bai, esan dedana batzuei heregi handia iruditzen baldin bazaie nere iritziari eusteko prest nago.

Ainbeste latín eta eskolastika ikasi ezkeru, apaiz geienek adimena erromanizatua izan bear dute nai ta nai ez. Ikasketan eta Unibersidadetan ibilli diranei berdin gertatzen zaie, naiz ta euskeldun jatorrizkoak izan, dana erderaz ikasi ta ia dana erderaz pentsatu bear.

Orrengatik esan det Axular baño gure Sebastian, gure Mikela Elizegi ta beste amaika horrelakoak, euskaltasunez maixu obeak ditugu.

Ontaz ni enaiz nor, jakiña. Ni, zoritxarrez, euskera zartzaroan ikasten asi naiz ta badakit euskal kutsua ta izpiritua atzematen sekula ez dedala lortuko. Nolanai ere, Sebastian Salaberria'ren idaztia irakurri ondoren nere burua pixka bat geiago «euskeratua» sentitzen det. Liburu au idatzi dun gizonak, izpiritu garbi ta noblea duna dirudi, esango degu Unamuno'rekin batera.

Eskerrik asko zuri, Sebastian. Baita Aita Zavala'ri ere, orren aize garbia bota digulako bere auspo eder orrekin.

Jatorrizko mintzaerak

Zeruko Argia, 83 zk., 1964-09-27

Herrietako izkuntzak, alegia. Edonun ofizialatzat onartuta ez diranak, beñere baño estima handiagoa merezi dute gaurko egunean dirudienez.

Gai oni buruz bederetzi lerrotalde argiratu ditu «Le Monde» egunkariak. (Bederetzi, bai!) Michel Legris beren egillea. Hori bezain izendatua egunkari batek arazo hori erabiltzeak txit asko esan nai du nere ustez. Bederetzi artikuloko hoiek izkuntza herritakoen gaurkotasuna erakusten digu argi ta garbi. Eta hori egiztatzeak, euskaltzale porrokatuak geran aldetik, poza handia ematen digu ere.

Sail ontan makiña bat arrazoi ta berri baliotsu ematen digu egilleak. Zoritarrez ez degu emen naiko tokirik, bañan aietatik jasotako bi edo iru gauza esan nai genituzke beñepein.

Prantzi'n sei izkuntza bizi dira oraindik eta Legris jaunak esaten digunez, biziak jarraituko omen dira aurrerantzean. Orra zein diran: alsaziera, ok-mintzaera, katalanera, korsoera, bretonera ta —esan bearrik ez— euskera.

Izkuntza guzi hoiei buruzko iritziak franko aldatu dira aspalditxotik. Orañarte herriko jende apala bakarrik, ahal izan duten bezela, bere mintzaerak gorde dituzte. Pentsalariak ta agintariak ez tute jatorrizko izkuntzei batere inportantziarik eman, nagusi geienek mintzaera hoiek erabiltzea jakingabeko ikurratzat begiratu bai dute.

Adibidez, beste gertaera askoren artean au kontatzen du Legris jaunak «Le Monde» egunkarian. Baiona'ko prefetuak, andre aundizki bati, ia euskera erabiltzen zuen galdetu zion. Eta andreak: «neskamekin itz egiteko, bai» erantzun. Olakoak amaika kontatu genitzake guk ere.

Frantzi'ko matxinadak «une seule nation, une seule langue» dogma ipiñi nai izan zuen. Mintzaera zaharrak erreboluzioaren kontrazkoak ziraneko aitzakiarekin, frantzesera edo «langue d'oil» izkuntza bakarra ipiñi ere. Europa guzian liberalismoak orixe egin omen zuen herri-aurrerapenaren izenean.

Orain, berriz —esaten digu egilleak— intelektualak eta itzal handiko jendeak, jatorrizko izkuntzak begi onez begiratzen asi dira eta berak gordetzeko eta pizteko lan ederra egiten ari dira ere.

Badago, jakiña da, jende asko oraindik iritzi-aldatze hortaz konturatu ez diranak —«Herrietako izkuntzak? Ara! Oiek oraindik bizi?» amaika bider entzun bear zuen egilleak bere «encuesta» edo inkesta egiten zuen bitartean.

Batez ere paristarrak, jende ikasiak izan arren, ontaz itsutuak dirala dirudi. Gai horren aurrean alerjia antz bat azaltzen dutela, dio Andres Chamson, Frantzi'ko akademiko famatua eta «Mouvement de défense des langues et des cultures regionales» lendakariak. Bañan «probintzialetan» beste soñu-kanpaia entzuten da dirudienez eta izkuntza zaharrak «modaz» jartzen ari dira oraingoan.

Bieletako-jokuaren alde mugimentu handi bat asi da, bi mintzaera —jatorrizkoa ta ofiziala—batean ondo erabiltzeak abantail asko dualako.

Onenetako maixu batzuek asmo horri jarraitzen diote eta baliteke Frantzi'n izkuntza zaharrak eskoletan ohore guziekin laster sartuko dirala.

Bear bada «Le Monde'n» artikuloak sasoi hori urreratzen ari dala erakusten dute.

Mandatua

Zeruko Argia, 84 zk., 1964-10-04

Itzal handiko gizon batek esan zidan bein Erromako agirienetako «dikasterio» batean; «Zuek, laikoak, idatzi ta argitaratu zazute ugari. Ezer okerrik baldin badiozute guk gero kondenatuko degu ta kitto».

Orrelako kontseju onari jarraituko diot orain nik ere, ta kristau libertade sainduarekin Unamuno'ren erlijiotasunez pentsatzen dedana esango dizutet, naiz ta ontaz nere iritzia euskeraz azaltzea zail xamarra iruditzen bazait ere.

Gure Unamuno gazteleraz oso ederki mintzatzen zan, bere gisara, bere mintzaera bereziarekin, eta bere itzak euskeratzeko ni baño beste maixu jakintsuago bat beariko litzake. Bañan, nola konpondu Unamuno'ren ideiak erakusteko bere itz berak autatu gabe?

Dana dala bizpairu gauza esango dizkizutet beñepein.

Lenengoa guziek dakizutena da: Unamuno'ren pentsaera ta sentikera etzira-la katolikoak. Bere lanari ikustaldi bat ezartzea naikoa da hori argiro egiztatzeko.

Bai, au aitortu bear izatea mingarria da, bañan gizon jator ura Elizatik joan zitzaigun eta ez degu katolikotzat agertzeko eskubiderik.

Zein errudun? Galera hori, bere erru bakarragatik ala besterengatik ere bai?

Hori iñork eztaki, Jainkoak izan ezik. Guk eztegu eskurik iñoren kontzienziarik epaitzeko. Eliza bera ezta sail ontan sartzen eta errespeto handia agertzen dio persona-barneari. Berak eztu iñor inpernura bialtzen, ezta arimarik kondenatzen. Jainkoa epaikari bakarra da, gizonen barnea ezagutzen dun bakarra.

Nere iritziz au esatea ta berresatea oso bearrezkoa da. Idurimena oso irriskorra da ta batzuek «Unamuno kondenatua dagola» entzuten dutenean bereala gure On Mikel gar bizi az inguratua iduritzen zaie.

Jainkoari esker, bere pentsaera Elizarekin bat ez etorri arren, zenbait erlijio-balore estimagarriak bazituen gure bizkaitarrak. Au ere guziok aitortu bear degu zuzen ta leial jokatzearren.

Gaurko egunean beste sinismenetakoak euki ditzaketela esatea ezta arrigarria iñorentzat. Eta baliteke noiz edo noiz berea duten hori, katoliko geienenak baño sendo ta sakonagoa beste hoienek izatea.

Gure Unamuno gixarajoak Don Quijotek bezela, zaldun bakarra nai izan zuen, ez katolikoa, ez luteranoa, ez batere konfesioaren aldekoa. Basa-gudari gisa, beti mundu guziaren kontra, burrukan ibilli bear zuen. «Jainkoa nerekin ta aurrera, egiaren billa».

Bere xedea, bere nai handiena, hori izan zan, Jainkoa ta gure geroaren arazoa etengabe erabiltzea, arazo horren askabidea arkitzeko batere itxaropenik ez izan arren.

Txikitatik bere izpiritu-giroa oso erlijioakoa ta mistikara griñatua izan zan. Fedea galdu ezkeren uts-zulo handi bat gelditu zitzaion biotz erdian eta bere bizitza guzian deadar ta negarrez Jainkoari deika jarraitu zion.

Munduko aizekeriak eta ergelkeriak beti ezetsi zituen.

«— Jendearen txaloak zertako nai ditut? —esaten zuen—. Zuri eskeintzen dizkizut, Jauna, bai txaloak bai iraiñak, nora eramaten nauzun ez bai dakit».

Jainkoaren oroimenak eusten zion. «Ezaitz nitaz ahaztu, Jauna! Inpernua hori besterik ez bai da, Jainkoa gutaz ahaztea».

Bañan noizean bein bere sinismenak uzten zuen eta bere barnean guda ikaragarriak arrotzen ziran. «Aiek zurrunbilloak, aiek! Ene Jauna! Jeiki ta erori, olatuak bezela, berriro jeikitzeke leize ondolik».

Jainkoaren bearra, betikotasunaren gose-egarria. Hori da Unamuno'ren mandatua.

Letra bat dala-ta eztabaida

Zeruko Argia, 86 zk., 1964-10-18

Etzaitetze bildur, ez daukat «h» izki famatuari buruzko eztabaidan sartzeko asmorik. (Esan dezagun, bidez, euskaltzaleen arteko onelako «aserredurak» kalterik besterik ezin ekarri dezaioketela euskerari. «Apaizen lixkarrak, deabruren jaiak»).

Ez noski. Beste letra baten inguruko auzi batekin natorkizute ontan.

Frantzi'ko kristau langille artean «c» zirtzilla batengatik zalaparta ikaragarria arrotu da aspalditxo ontan.

Jakiña dezuten bezela, Frantzian oso sindikato eder bat badago C.F.T.C. (Confédération française de Travailleurs chrétiens) izena duna. Langille-lagunarte au sortu zenean, 1920'n urtean, sortzailleak oso inki-manka ibilli ziran atzeneko «c» horri buruz.

Zer esanaia eman bear zitzaion «c» horri? «Chrétiens» ala «catholiques»? Kristauak ala katolikoak? Orduko koxka hortan zegoen. Sortzailleak «Kristau» izena jarri zioten azkenez sindikatorri eta oraiñarte horrela gelditu da. Beraz, atek ahal geiena zabaldu ziran garai artan.

Orain ere, berriro sindikatuen atek geiago zabaldu nai izango lituzteke langille askok. Izenetik «c» hori kendu eta «Confédération française de travailleurs» soillik utziaz. Batean, sindikatuaren ideologia aldatuko bear litzake. Egunarte sindikatuak «sozial kristau dotriña» izan du oñarri. Aurrerantzean «personalismoa», alegia, giza-personaren libertadea ta eskubideak, oñarritzat artuko lituzteke.

Bi bideak oso ezberdiñak dira, jakiña. Lenengoak oñarri tinko eta ziurragoak ditu. Bide berritik, berriz, sindikatoak langille guziak, erlijio ezberdintasunik gabe, bereganatzen saiatuko lirake.

Eztabaida ontan, bi aldekoak ba dute arrazoi pixka bat. Bi aldetatik abantail ta eragospenak agertzen dira dudarik gabe.

«Mutatis mutandis», alegia, «aldatu bear dana, aldatuaz», au da konzilioaren koxkarik handiena ere. Gaurko munduaren aurrean zer egin bear du Elizak? Ateak zabaldu edo atek atalagatu?

Geienek bigarrena pentsatzen dutela dirudi. Begira letratxo zirtzill bat jar-tzeak edo kentzeak noraño eraman gaitzaken.

Bide bakarra

Zeruko Argia, 87 zk., 1964-10-25

Liburu berri batean irakurria dedanez, 2796 izkuntza daude bizirik gaurko munduan, mintzakiak alde batera utzita. Kontu zeatz hori egitea zail xamar iruditzen bazait ere hor nunbait izango dira, dudarik gabe.

Bieletadunak, alegia, beren artu-emanetan, bai etxean bai agirian, erreztasun berdiñarekin bi izkuntza erabili oi dituztenak, mundu biztanle artean bitatik bat dira, dirudienez.

Au ezta arrigarria. Adibidez, Aprika eta Ameriketako txit ugari dira jatorrizko izkuntzak itz egiten dutenek eta españolera, inglesa edo prantseraz batean mintzatzen direnak. Batez ere, orañarte menperatuta izan diran herritan, jendeek beren mintza zaharrei griña handia diete eta eskola ta alde guzitan berak enplegatzen dituzte. Izan ere, beren orañarteko nagusien izkuntzak (prantzea eta inglesa geienetan) erabiltzen jarraitzea oso komeni zaiela nabaitzen dute ta eskoletan bietaz, bereneraz ta besterenaz, balio oi dira. Hortan eztute batere eragospentik arkitzen, areago, bi izkeraz jabetze horrek, argi ta trebeagoak egiten omen ditu.

Europako bertan uste baño ugariagoak dira bimintzetako gizon-emakumeak. Baita ere herri batzutan, Suiza bezela, askok iru izkuntzetaz mintzatzen dira aisetasun izugarriaz, neronek ikusia daukadanez.

Hortan jokurik nagusiena eskolak egiten du, zalantzarik gabe. Gaurko eskolak eztu mintza bakarrakoa izan bear, baizik bimintzetakoa gutxienez. Hori maixu askok esango dizute mundu guzian.

Jakintsu onek merezi dun errespeto guziaz, ez nator bat oraindik orain Donosti'ko egunkari batean Menéndez Pidal jaunak esan dunarekin, alegia, euskera gordetzeko ta salbatzeko eskolak balio eztula. Nere ustez, aldrebez esan bear da, euskera eriotzaren atzaparretatik askatzeko biderik onena edo, egia esateko, bide bakarra, eskola, dala, «Basati» adiskideak arrazoi askoz esan duan bezala.

Nere Europa zearreko ibilketan aprikatar askotxo ezagutu ditut, apaizak naiz laikoak, batez ere Dahomey, Côte d'Ivoire eta Kongokoak, prantsez ederki mintzatzen ziranak. Galde egin diet bein beren jatorrizko izkuntzak ia erreztasun horrekin itz egin izan oi zuten ere. Baietzeko erantzuna egin didate guziek eta bere izkerari dagokion bezela lantzeko ia nola konpondu diran nik orduan berriz ere galdetu.

Nere adixkide beltzak esan didatenez, beren eskoletan gauzak oso ondo prestatuak daude hortarako ta, Kongo'n batez ere, gaur ikasi bear diran gai guziak ikasteko jokabide ta idazti bearrezkoak aspalditik eratuak izan dira baita erabilli ere. Aoa beteta utzi naute guk oraindik ezin asmatuaz ari gerana, aiek aspalditik antolatua dutela jakitean.

Aientzat bielatako jokua munduko gauzarik naturalena da, txikitatik ikasketan bi mintzaeraz ari izan dira-ta.

Estadoak benetan euskera salbatu ta sendotu baldin nai badu —eta nai bear luke, hori politika ona ta zuzena izango bailitzake nere iritziz— beste biderik ezta: merezi dun ohore guziekin, euskera eskolan sartzeko alegiñak egitea, ikasleak gaztelera ta euskera batean ondo landu ta sakondu ditzaken gisaz.

Gogo oneko gizona

Zeruko Argia, 88 zk., 1964-11-01

«Deliramentum» edo erokeri gorria deitzen zion Pio IX'gnak kontzientziaren libertadeari, bere «Quanta Cura» izeneko enziklikan, emeretzigarren gizaldiko azken aldian.

Oraingo Konzilioa, berriz, libertade horrexen aldeko ageri handi bat agertzen ari da, Erromatik datozen albisteeek diotenez.

Batzuek, asmo hoiien berri jakitean onelako aldaketak ezin ulerturik gelditu dira.

«Atzoko okerra gaurko zuzena» nola izango litzaken? bere buruari galdeztzen diote batzu oiek.

Ontan, beste askotan bezela, izkuntza-iskanbilia galantik badago noski. Gaurko munduan itz handiak —eskubidea, libertadea, zuzenbidea eta beste onelakoak— amaika esanai ezberdiñak dituzte. Hortik nahas-mahas ikaragarria sortzen da. Itz onelakoak nork bere gisara erabilli nai ditu. Alde batean libertadetzat artzen dutena, bestetan menpekeria iruditzen zaie alduantziz.

Elizak izkuntza ezberdintasun ta aldakuntza hoietaz konturatzen da eta mintzaera berria erabilli bearrean arkitzen da.

Dana dala erlijioko libertade gaiari bear bezela begiratzen bazaio ezagutu bear da eztala batere aldrebezkeria gaurko gorabera ontan.

Gai ontaz Bea Kardenalak lan argitsu baiño argitsuago bat argitaratu du, zenbait illabete direla «Erljio libertadea eta gizartearen aldakuntzak» izena duna.

Nere ustez aurrerakada izugarria eragin dio prolemari lan nagusi onek.

Aita Bea jakitsuak argi ta garbi erakusten du Pio IX'gnak gaiztutako libertadeak eztu zer ikusirik gaurko teologoak aipatzen dutenarekin.

Pio IX'gnak kontzientzi libertadearen deitzen zuen dotriñak, gizona erlijioaren gauzak bere gisara, bere gogora ta oldara artu ditzakela esaten zuen. Alegia, dotriña horren ustez ezta erlijio bide bakar bat. Nork bere fedea nai dun

moduz asmatu ta maneatzeko eskubidea dauka. Jainkoaren egia bost ajola zaio gizonari. Egia ta zuzenbidea billatzea alperrik dabil, bakoitzak bere iritzia lege bakartzat ezarri baidu.

Hori Elizak eztu iñoiz onetsiko. Gizonak egia billatzea bearrezkoa dauka. Egiazko legea ezagutzeko alegiñak egin bear ditu Jainkoaren aurrean gizona ezta libre.

Baiñan beste aldetik —eta or dago beintzat gaurko teologien lan berria— esan bearra da ere, lege berezkoa ta gizon arteko ongiaren gontraz ez ba dabil beintzat, gogo oneko gizona, alegia, bere erlijioan uste onez dagona, errespeto osoa merezi dula. Bere kontzientziaren aginduei jarrai bear die ta modu horrez Jainkoari goretsi ta ospetu. Bere eginbidea, bere zuzenbidea, or dago, onatzat dun erlijioaren manamentuak jarraitzean.

Iñork ez du hori debekatzeko ta eragozteko eskubiderik.

Onen aldetik gizona gizonen aurrean libre da bere ustez oneko kontzientziari jarraitzeko.

Baiñan okerrikan dagonaren libertadeak nun ote du bere oñarria?

Bea Kardenalak erantzuna ematen digu ere. Gizonaren eskubideak bere Jaunari serbitzeko gogoan eta bere borondate ta uste on beran dauka zimendua.

Jainkoaren bidea atzemateko al egin guziak egin duten edozein erlijioakoari gizonei Jainkoak begi onez begiratuko die noski, bere bideari zintzo ta leial ba-zaio. Or dago erlijioako libertadearen oñarrien bat.

Itz labur batzutan or dezute erlijioako prolema nola ipintzen dan gaurko egunetan.

Gaurko arazo ederra

Jakin, 19 zk., 1965

Gregorio XVI'ak «Mirari vos» izeneko enziklikan; Pio IX'ak «Quipluribus» ta «Quanta cura» famatueta eta, batez ere, «Syllabus» izena dun agerian; Leon XIII'ak «Diuturnum», «Inmortale Dei» eta «Libertas»-en; Pio X'ak, «Lamentabilis sane exitu», «Pascendi» ta «Dominici gregis» enzikliketan —beste idazki asko aitatu gabe— gai berari buruzko Elizaren pentsaera ao batez zabaldu ta erakutsi dute.

Baditugu gero Pio XI eta Pio XII'ren irakasketa ugari ta argaiak beren aurrekoen dotriñak egietsi ta indartu egiten dituztenak.

Urteak zear emandako idazki guzi oietan Elizaren pentsaera argi ta garbi ikusten da. Laizismoa, liberalismoa, konzientzi ta kultoen askatasuna ta beste orrelako jokabide ta irakaskintza, katoliko pentsaerak ezin egosi ta kondenatu bear ditu nai ta naiez. Ontaz, guziak bat datozte, bestela egunari gaua deitzea izango litzakela-ta.

Bañan kondaira ez da ontaz bukatzen, eta gauzak ez dira orren simple ta errezak ere.

Naiz ta iraunkorra ta betikoa izan, Elizak, Edestian egon bear duan ezkerro, mundu aldakor ta mugikor ontatik aterako ekaiekin, alegia, ludi ontatikako jende, izkuntza, era ta ideiekin egin bear du bere eginkizuna. Errietako gogoak ta ideolojiak, oiturak ta arazoak aldatu egiten diran aranaz, Elizak ere Edestiari jo bear dio, bere mixioari ez utsegitearren.

XIX'garren mende ezkerro ere gauzak asko aldatu dira munduan. Gaurko gizadiaren arriskorik andiena liberalismoa ez da, ez baizik materialismoa ta totalitarismoa.

Badaude ahal ta indar larriak personaren eskurik ezagutu nai ez dutenak, ezta ere izpiritu ta erlijioaren egipideak. Baliteke biar edo etzi Hitler berri bat sortzea giza ta mundu guzia menperatu nairik. Noraño eldu ahal litzaken, bide

ortatik, giza-libertadearen etsaiak, ez dakigu, gaurko teknikaren ahalak izugarri andiak bai dira.

Gaurko demokraziak arrisku orri gogor-egin nai diote-ta agerian dago oraingo demokrazi oiek, ez antziñako liberalismoari baizik beste joku berriari ekiten diotela.

Politiko-iztegi bera guziz aldatu da-ta ezin aspaldiko itz berak erabiltzen jarraitu diteke. Gure jende geienak ezin ulertu lezake Pio IX'ak ospatutako dotriñaren esanai egiazkoa, 1840^{garren} urteko itzak sentsurik ere ez dutelako gaurko gizon-emakumentzat.

Lenengo liberalen ustez erlijio libertadeak indiferentismo, siniste-ajolaga-betasun ta sinisgabekotasunean zeukan oñarri nagusia. Ori egiazko ereji bat izan-ta Elizak kondenatu bear zuen, nai ta naiez. Eguneon berriz, gaiari beste aldetik begiratzen zaio. Gizona, nai duna sinisteko edo ez sinisteko Jainkoaren aurrean libre ez badago ere (Egia bakarra dala-ta) iñork ez du eskubiderik giza barreneko itzaldi ta artu-eman ontan sartzeko. Au ez daukagu erejitzat, ez baizik itxasoa bezain andiko egitzat.

Gaurko arazoa au da. Bi aldetako ideolojiak —gauzak errazteko «espiritualismoa» ta «materialismoa» izendatu ditzakegunak— buruz buru arkitzen dira-ta batek edo besteak garaille ateratzeak, biarko munduari oso ezberdiñeko abiadura eman lezaioke.

Elizak egokera oni arpegi eman bear dio eta ontarako beste erlijioekin batasun andi osatu bear du len bai len. Onelako jokuaren arau ta lege nagusia elkarrekiko leialtasuna ta erlijio pluralismoaren jokabidea izan bear du. Ezin lezateke ordu ontan jende erlijiodunak elkarri burruka egin.

Mugimendu ta aurrerapen bear ori bi iturburuetatik datorkio Elizari.

Lenbizi, Edestiarengandik, arestian ikusi degunez. Eliza bere muiñean beti berbera dala ere, Edestiko leku-denbora igeskorran barrena bizi da ta inguruetako elementoak artu ta erabilli bear.

Bañan bear orrek beste jatorri nagusi bat badu, bere barnean bertan dartzan indarra dana. Barneko indar ta abiadura onek ez dio Elizari beñere egonaldirik laketzen.

Aro guzietan, Jainkoak maixu ta santu berriak, bakoitza bere jatorrizko berritasunarekin, sortu arazi ditu Eliza barruan, bere sasoian. Kristau

espiritualidadeak orrelako bideen bitartez amaika arpegi berri azaldu ditu, ge-roago baño ugariagoak, Kristo-etorkiaren aberastasuna erakusten digutenak.

«Eliza ezta sekula arriztuta gelditzen —esaten zuen Pio XII'ak, 1946'en ur-tean— Aro eta mendekotako bideari jotzen dio etengabe, baita aldi ta ordu ba-koitzari egokitu ere. Au da bere egokierazko lege sakona, batzuek oportunisto-tzat jotzen dutena, ain asmo ederra susmatzeko gai ez diralako».

Egokierazki lege au oso gauza garrantziduna da, Eliza biziaren gaurko ger-taerak ulertzeko.

Oraingo ordua ekumenismoaren ordua degu. Makiña bat teologo asi da gu-re munduko baloreak saiets guzietatik begiratzen, naiz ta balore oien arteko ba-tzuek katolikoak ez izan ere, estima andia merezi dutelakoan.

Lan orri jarraitzeko bearra baño bearrago da erlijioeko libertadearen proble-ma argiratzea.

Gizon-Egia elkarrekiko artu-emanen Teolojia, osatu ta sakondu bear da oraingoan. Ori da gaurko arazo ederra; ta ziur gaude Batzar nagusiak ez diola ontan biotz oneko jendeen usteari utsik egingo.

Laño artean

Zeruko Argia, 97 zk., 1965-01-03

Lotsagarria da, irakurle maiteok, mundu goibela ta alaitasunik gabeko ontan, olertia ta olerkariak ain gutxi estimatuak izatea.

Ni ez naiz poeta, matematikoa baizik, bañan gaurko jendeek olertiari baño zientziari estima handiagoz begiratzen diotela esan bear dut.

«Poetak, besterik ez, poetak zerate zuek» esaten zigun, apalondo eder batean, euskal lanetan ibiltzen geranoi, oso nere adixkide dan injinadore batek. Eta «poetak» hori erabiltzean, berak bere erdeñua ta mezpresa ezin eskutatu zezaken. Gero, bere pentsaera osatzeko, «oñak lurrean ondo ezarriak izan bear ditugu gizonok» jarraitzen zan.

Bai noski! Ez estutu, oñak ez ezik, gorputz osoa lurpean ezarriko digute beintzat ustegabe batean!

Bañan olertia ta olerkarien gañean zer iritzia dauka gaurko jendeak?

Askorentzat poesia lillura ta amets utsa da. Gure bizimodu ontan garaitzeko, alegia, dirua irabazteko, munduko atsegiñak gozatzeko, gizon-emakumeak bereganatzeko ta ahalmena irixteko, poesiak balio ez dula esan oi dute geienak. Joku alpertzat jotzen dute.

Giza eginkizunak alde batean ipintzen baditugu, poesia beste aldean jarri bear dala diote, tresna edo ume-jostallu izango balitzakean bezela. Irudimenezko usteak, zoroen asmaketak eta txakurraren ametsak besterik ez dira olerkarien etsaiek diotenez.

Askok olertia ta bertsoa nahasten dute. Beste askok olertia eta sentimentalismoa bat direlako ustean daude.

Noiz adieraziko diegu poesia gauza serioa ta benetakoa dala eta gure Gandiaga, Aresti ta amaika orrelakoak, lan ederra ta baliotsua egiten dutela? Errealitatearen egitura ezta, batzuek pensatzen duten bezela, jeometri tankerazkoa, baizik, nik sinisten dudanez, olerti itxurazkoa.

Bai jaunak, poesiak egiazko ezagutza bat —batzutan ere garrantzirik handienetakoa— ematen digu errealitatearen gañean, beste inñunbaitetik ezin atera dezakeguna.

Arrazoa gauza handia da, zalantzarik gabe, bañan, jaun oiek, Hegel'en mundua, arrazoiak guziz maniatutakoa, ezta gure mundua, diabru guzien mundu bat baizik.

Olertia biziaren muiña da.

Olertia da, miñak eta atsegiñak eta dana itzaltzen zaigunean, gauza bakarra gelditzen zaiguna laño artean.

Odol kolorezko planeta

Zeruko Argia, 100 zk., 1965-01-24

Omen txarra izan du, bai, astrologoen artean, Marte izarbel gorriak. Berari ezarri zaizkio antziñatik Lurrean sortzen diran zorigaitz, guda ta diabrukeri guzien errua, gure eguneon atomo-bonbaz gertatzen dan bezelaxe.

Oraindik orain «Almanaque Hachette'k» Paris'etik esaten digu aurten ere kontuz ibilli bear degula, batez ere loreilleko sasoian, orduetzkeru Marte ta Uranok gure kontraz beren indarrak bildu egingo dituztelako.

Begi zorrotz, gero!!

Bai, jende sinplearentzat edozein gisako arazoetan, erruduna arkitzea bere lenengo lanbidea izan oi da. Arkitzea, madarikatzea... ta kito! Ala da munduko martxa!

Dana dala, astrologokeri guzi oiek alde batera utzita baliteke urte berri ontan, Marte planeta gutiz nabaria izatea mundu-iritziaren aurrean.

Uztaillaren 5'en inguruan Mariner IV satelitea Marte'ri alboratuko zaiola badakizute. Azaroaren azkeneko egunetan Cap-Kennedy'n tresnatu ta abiatuta izanik, oker xamar ibilli zan asieran, bañan orain, dirudienez, injinadorek bere dagokion noruntzkora biurtu dute eta Marte'n zazpi milla kilometru urren igaroko da bere sasoian.

Marte'ko izkutuak baliteke garai ontan argi ta garbi azaltzea.

Gure mutil denboran Marte urbideen korapilloak naiko zer esanik ematen zigun noski. Zenbaitek urbide oiek biztanle argiek egiñakoak zirela siñestutzen zuten.

Ni bezelakoa, alegia, Jules Verne ta Flammarion'en irakurle porrokatuak giñan ikasle gazteoi, lillura ta amets miragarrietaz betetzen ziguten idurimena horrelako buruausteak.

Ez dut sekula ahaztuko, ez noski, «La pluralité des mondes habités» eskuetara etorri zitzaidan lenengo aldia, Liburutegi munizipala zaharrean. D. Praxedes

Diego Altuna Liburutegiaren zuzendaria geneukan, denbora artan, beintzat, errepublikano zintzo ta jatorra, eta gurentzat, orduan ikasle mutiltxo giñanok, gizon bakarra ta jakintsuenetakoa.

Orain «egia» jakingo dugu, apika, izarbel ortaz. Urbide famatu oiek zenbat kilometru izan ta zer otz-berotan egoten diran, Mariñel laugarrenak esango digu bear bada datorren udan.

Bañan hori jakiteak gure gaztearoko mixterioaren gozorik ez digu senditu araziko. Orain baidakigu, planeta bat, odol kolorezko izan arren, planeta besterik ez dala.

Maritain

Zeruko Argia, 103 zk., 1965-02-14

Jacques Maritain, filosofo ospetsua dana, kardenal laster ikusiko omen dugun berria, arrigarria benetan zaie batzuei.

— «Maritain Kardenal? Ondo jaiok gaude —esan omen du gure errikide batek— ez dalarik aspaldi fedeaule ta erdi-herejetzat jotzen genuena orain Eliza goiko maillan ikusi bear? Onelako aldaketak nola ulertu? Orain ere, or ibilliko da diabrua, buruak berotzen!». Alaz ere, ez dirudi asmo hori ain ikaragarria danik, Maritain jaunak sumatutako bideari jarraitzen bai dio Elizak aspalditxo ontan. Eta gañera, zeñek esan du Maritain erdi-herejea danik erri ontan ezagunak ditugun madarikazailleak baizik? Dana dala, paperek diotena gezurra ala egia danik ez ba dakigu ere, Maritain'ekin pentsakide ta lagunik handiena dan Journet teologo sonatua, or dezute «Elizako prinzipe», ta aukera onek agiri azaltzen du gai horri buruzko Aita Santuaren pentsaera nolakoa dan.

Egia esan, Kristau pentsaerak zor handia dauka Maritain jakintsuarekin, onen azterketa sakonek Eliza ta munduaren arteko elkarritz gaurkoa posible egin bai dute.

Gero etorri dira besteak, Mounier, De Montcheuil, Pribilla, Congar, Leclercq, Murray ta horrelakoak, bañan errez ikusten da iturburua nun dagon.

Aurreko mendearen «progreso», sozial-ideiak eta demokrazi jokabidea kondenatutzat jotzen zituzten Kristau geienak, denbora apur bat dala. Berrizalekeri guziak sutzar handi batean erre eta lenengo jokuari len-bai-len itzuli bear zala pentsatzen zuten askok eta berrizale berak sutzarrean kixkali ezkeron ondo baño obeto.

A, mundu modernu madarikatua!

Bañan Maritain filosofoak mundu berri hortan ondasun ta balore egiazkoak ta oso estimagarriak zeudela erakutsi zuen eta Elizak joku garbia egin zezala ontaz eskatu zuen, Edestiak eskatzen dunaren arauz.

Egia esan oi duten gezurrak eta gezurra esan oi duten egiak badaude ugari mundu nahastu ontan».

Beraz, Jainkoaren asmo ta garaiak errespetatu bear ditugu gizonok eta azkeneko epaikundea iñork ez dauka aurreratzerik.

Badakizute iraka-berdintzan, nola, nagusia lo zegoela, etsaiek ederra egin zioten, bere landan iraka edo zalko ereiñik. Bañan nagusiak «iraka ebakirik gabe azkeneraño utzi zezatela» mintzatu zitzaaien morroiei.

Iraka ta garia batean erabiltzea ez da arazo makala noski. Orra erlijio ta politika gaian koskarik handiena. Ontaz Maritain jaunak demokraziaren aldekoa da-ta bere teori bereziak ba dauzka, guziei atsegin etzaizkienak.

Norbaitek berak esana jakin nai badu, bere liburuetan —ez bere etsaien liburuetan— irakur beza, geiago esateko ZERUKO ARGIAN tokirik ez dago-ta.

Zaldun ibilkor bat

Zeruko Argia, 105 zk., 1965-02-28

Nere irakurleek dakiten bezela Luther King eliz-artziaia osteria itzalpetua izan da egun gutxi dala. «Lider» beltzak baldintzako askatasunari uko egin dio-ta datorren astian egingo dan auzi-ikustaldiarte ezta kanpora aterako.

Egia esan, gizon onen jokabiderik nagusia ortan dago. Pakearen serbitzariak beste istillurik ezin erabili dezateke, beren buruko opa ta maitasunezko joku garbia ez bada. Beren pake-naia mundu guziari azaltzeko, egiten zaizkien zigorkada ta kalte guziak biotz onez eraman bear dituzte, baita, noizean bein, presondegira ikustalditxo bat egitera joateko gerturik egon bear dute, bere indarra ortan bertan baidago.

Ondo dakizutenez, Kijote guzien zoria hori da, munduan galtzen diran makilkada danak bere bizkarretan jasan bear izatea.

Luther King jauna odol-garbitasunezko gaian zuritxoegi ez izan arren eta aitonen semea ez bada ere, Don Kijote galanta da, nere iritziz. Eta «cervantista» garbizaleek barkatu nazatela beltz «zikiñ» bat bere zaldun ibilkor orbangabe-koarekin nahasten badut.

«Parfois Don Quichotte porte aussi la soutane» idazten zuen oraindik orain Frantzian, beste gaiari jotzen ziolarik, izkiribitzaille ezagun batek. Artzai protestanteek sotanarik jazten ez badute ere gure Martiñ bere gisarako apaiza da ta lenengo hitzak berari ezarri ditzaiokegu egiari kalterik egin gabe.

Bañan Kijoteak bi motakoak dira ta berezkunde au egitea guziz derrigorrezkoa iruditzen zaigu.

Bai, bi motakoak dira: zentzudunak eta bestelakoak, kazkoa galdu dutenak. Egiatzko Kijotea, alegia, Cervantes handiak mundu ontara ekarri zuena ta Mantxako erri ezjakiñ batean bizi ta hill zana, lenengoetakoa zan. Orain Ameriketan iskanbilletan ibiltzen dan beste hori, bigarren motakoa dugu berriz.

Zentzugabeko Kijoteak arrotzen dituzten gudak, hiltzen dituzten errota-jiganteak eta austen dituzten etsaiak idurizkoak dira-ta aien lanak inorenzako protxu gabe egiten dira.

Bestelako Kijoteak egiazko munduaren gaitzen kontra jo ta ke ari dira beti ta bere lanak oso protxugarriak dira munduari bere bide onean jarraitu arazteko. Egia da, dana esateko, idurizko Kijoteak eredutzat erabilli ditezkeela, mundu guziari bere zabaltasunezko ikasgaia erakusteko.

Zenbat auzi on mundu ontan bere Kijotearen billa dabilzanak!

Asmogintza

Zeruko Argia, 111 zk., 1965-04-11

Gaurko egunean «planificación» deitzen duten jokabide berriak ots andiak jotzen ditu mundu guzian.

Ondo begiratzen bazaio berria dalakoan egikera ori, antziñatik ezaguna da. Ekonomiari buruzko arazoak bear bezela eraztea besterik ez da. Ontaz ez degu batere moda berririk ikusten.

Alabaña, gaurko gizonak antziñetakoak baño bide ta teñika txit eragillea-goak izaten ditu lurraren ondasunak maneatu ta antolatzeko.

Ori dala-ta organizazioren zienziak gure aroan garrantzi andia artu du ta «asmogintza» oso teñika bearrezkoa biurtu zaigu mota guzietako gaietan. Euskaltzaleak bere asmoak egiztatu nai ba dituzte, jokubide ta teñika berriei jo bear die nai ta naiez.

Artu dezagun, adibidez, euskeraren irakaskintza. Ortarako jokabide ego-kiak ez dira oraindik agertu, nere iritzi apalan.

Makiña bat jende badago eguneon euskera ikasi nairik, baiña askotan ikas-bideak zallegiak izaten dira-ta ikasleak illabete gutxien buru aspertu ta lajatu.

Euskera ikastea eziñezkoa ote da oraindik?

Ez det uste. Prolema au batetik eta bestetik aztertu ondoan, amaika erabaki artu bearke lirake. «Métodos audiovisuales» deritzanak euskeraren irakaskintzari ezartzea, beste izkuntzetan egin dan bezela, oso komeni izango litzaioke euskerari, baita euskera erreztu bat asmatzea ere «ad usum Delphini».

Izan ere, onelako jokuari ekiteko, gaurko garaiak eskatzen dun eran, amaika gauza asmatu ta pentsatu bear dira aurrenetik. Diruaren kontuzko gauzak ondo begiratu, joku berri ontako berezilariak arkitu, zabaldundea bear bezela banatu, irakasleak prestatu ta beste orrelako gauza asko derrigorrezkoa izango da noski.

Ortan dago Asmogintza.

Bańan aitatu dedana adibide bat besterik ez da. Ori bezelako beste arazoak badaude ugari.

Euskera galdu zorian dagon errietan kontramartxa egiteko erak zear-zearo ta bana-banaka ezagutzea lanbide egikorra da-ta berari jo bearko genioke asmoz eta jakitez.

Or dezute beraz esaten degun planifikazioa.

Kijoteak, bai, bańan Kijoteak errealistagoak izan bear dira, ińor baino.

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 125 zk., 1965-07-18

Uztailak, 1

«Idazkera simple ta xume bat ikusten degunean arritu ta lilluraturik gelditu oi gera, idazle bat topatu zai geundela gizon bat arkitu degulako».

Blas Pascal aundiak ala esaten du zorrozki.

Egia da euskeraz, gañerako izkuntza guzietaz bezela, korapillo ta nahasik gabe idaztea oso zalla dala. Baita idazle famatua baño gizon eldu uts bat arkitzea zallagoa oi dala ere. Xumetasuna, simplizidadea, ez da landare ugaria mundu ontan. Zenbat eta gehiago begiratzen zaion, ainbat eta geiago eskutatzen da. Nai dana esatea, eta argiro ta itz gutxitan, abilidadarik nagusia da.

Uztailak, 4

Euskera galduko al da ala ez? Berrogei urte edo berrogei milla urte biziko al da?... Auntzaren ametsak!... Bide alper eta zabaletik saiestuak gabiltzala dirudi. Ez da ainbeste euskeratzaz mintzatu bear, batez ere euskeraz mintzatu. Biarko egunean mundu bera izango dan ere ez dakigu.

Uztailak, 6

Gauza bat sekula gertatu ez dana beñere gertatuko ez dala esatea aski ez da. Ba zan ere Tandil'en, Ameriketan, arri izugarri bat, puntu txiki baten gañean soilki ttente irauten zana amaika sekuletatik. Egun batean arren erori zan eta Tandil'eko arkaitzaren miraria sekuletarako bukatu zan. Oitura lege biurtu oi degu ta batzutan egi aunditzat artzen ditugunak, oitura utsak besterik ez dira izaten. Oitura bat aldatu nai ta zerua lurrera erori zaigula dirudi. Alabaña, Erioa etorri ta oitura guziak porruak landatzera joan bear.

Uztaillak, 7

(San Permin naparra). Gaitzaren problema izugarrizko problema da. Erren bat Iruñara joan zan, San Permiñetara, bere lagun batekin. Asi zan besteak bezela zezenen aurretik korri naiean, bañan, jakiña, ezin, eta gelditu bear izan zuen, zuzen ta mutillak igarotzen ikusirik. Oso trixte ta goibel gelditu zan, besteak ain ederki bere bi zankoekin saltoka ta dantzaka zabiltzala ikustean, bera berriz geldirik egon bear zuelarik. Gerokoan zezentxo batek bere laguna arrapatu, bi zanku ondatu ta erdi illa utzi zuen. Noizean bein errena izateak ere bere abantaillak ba ditu.

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 127 zk., 1965-08-01

Uztailla'k 14. Mikeltxo ta planeta

Gaurko berria: Mariner IV deritzaten arrigarrizko tramankulua Marte inguruetan dabillega, ez dakit zenbat milloi kilometro eginda gero, eta berealakoan asiko dala «tip-tap», ango argazkiak botatzen gure mundura. Nun zelai ta nun baso, legor ta itxaso, dana argi ta garbi ikusiko dala, bear bezela gauzak ateratzen ba dira beintzat. «Pausu bat egin baño len, begira ondo lurrera». Orain ere, urrengo bidajera abiatu baño zeatzkiro aztertu bear Marte planeta gorri orren lur azala.

(Billobatxoa datorrit ttaka-ttaka, «koipe eriola», Bizkaian esaten duten legez).

— «Bai semetxoa, zarregia nauzu bidaje-orri ekiteko. A, Billoba! zer gauzak ez dituzte ikusiko zure begiak, Jainkoak nai badu».

Uztailla'k 19. Txinotarren miraria

Satelite bat mugarik gabeko espaziotara bialtzeko bi gauza bear dira, nai ta naiez. Bata satelitea, jakiña. Bigarren lekuan, cohetea. Au ere bearrezkoa, satelitea alperrikako tresna izan ez dedin. Amerikanoak satelite-maldaketan mutillak dira, dirudienez. Errusitarrek, berriz, cohete fabricacioan paregabekoak ditugu. Oso komeni izango litzaieke guziei, batzuen sateliteak besteen coheteen bidez botatzea. Bañan, mundu trixte ontan, gauzak gisa ontaz gertatu oi dira. Bakoi-tza bere aldetik ibilli nai ta iñor ezin bizi. Ia txinotarrak cohete ta satelite elkar-ganatzeko miraria egiten duten.

Uztailla'k 21. Don Quijote ta santidadea

Ona Don Quijote zaldun ibilkorrek esandako gauzak, pralle ta laikoen santi-dadeari buruz (Bere gertakarien liburuan, bigarren zatia, bederatzigarren burua).

— «Ezin guziak pralleak izan. Amaika dira, zerura eramateko, Jainkoak bere jarraitzalleentzat asmatu ditun bideak. Zalduntza erlijio bat da, doatsuak ere ba daude goian».

— «Bai —erantzun Sancho jatorrak— bañan, entzuna daukadanez, zaldun ibilkorrek baña pralleak ugariago zeruetan».

— «Zaldunak baño Eliza-jendeak geiago dira-ta».

— «Ibilkorrek asko dira» —dio Sancho'k.

Eta Don Quijotek:

— «Asko. Bañan zaldun izena merezi dutenak, eskas».

Betiko liburuak, beti egunekoak!

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 128 zk., 1965-08-08

Uztailla'k 28. Martetarrak Donostia'n

Oso pozik ikus det gaur, Frantziko Telebisioan, Evaristo Galois'en istorioa, apaiñ baño apaiñago jantzia. Nere ustez, Evaristo Galois denbora guzietako matematiko aundienetako bat izan da. Ogei ta bat urte bakarrik zituela il zan, 1832 urtean, desapio batean; bañan bere bizitzaren azkeneko gaua, bere grupo-teoria eta beste onelako aurki-berriak idazten igaro zuen. Galois'en ideiak izugarritzko mamia dute. Algebra berria ortik sortua degu gaur. Orren gaztea izanik, orrelako agerpen miragarria egitea, gauza ezin sinetsizkoa da. Gizon apartekoa izan zan. Baita gizon zori-gaiztokoa ere.

Uztailla'k 27. Evaristo Galois

Gaur illunabarrean, mundu guzia zerura begira asi jetxi zirala Concha'n ta guzia goi ta be ondo aztertu da Donosti'an. Puntu argitsu bat doi doi ikusten zan. Globo sonda bat izango zan ziurki. Batzuek satelite bat zala uste izan ta, jakina, miragarri ori ikustearren, lepoa biurtzen asi ziran bereala (Irurogei urte direla aeroplanoa ageri zanean orrelaxe ibiltzen ziran gure aurrekoak, Graziano Anduaga andiak esaten digun bezela. Garai artan, ta gero ere, ni txikia nintzanean, ba ziran gure baserrietan askok, pilotoa, aeroplanoa erori ezker, inpernura joan bear zuela sinisten dutenak. Neronek ezagutu ditut, onelako sinestia zutenak). Espazioan ainbeste tramankulu ibilkorra dabiltzan ezker batetik bestera, an-emen orrelakoren bat agertzea ez litzake arrigarri izango. Batzuek esaten zuten bale itxura zeukala eta oso ondo ikusten zitzaizkiola egatsak. Besteak berriz, ez balea, baizik tetraedro tankera zuela. Bi partido osatu ziran bereala ikusleetan, balezaleak ta tetraedrozaleak. Azken orduan izugarritzko berria eman didate: bi martetar satelite artifiziala batetik ezker, tramankuluan sartu dirala ta Marte'runtz abiatu berriro!

Uztaila'k 29. San Pantaleon'en odola

Amaika gauza arrigarri, baita paragarri ere, arkitzen dira egunkarietan, arretaz irakurri ezker. Ona bi «perlak», gaurko periodikoan jasoak. Lenengoa zirtzila da; bigarrenak, berriz, bere mamia badu. Andre aundizki batzuek azaltzen diran argazki baten oñean, au irakurtzen da: «Mesa petitoria pro-Cancer».

Ni, oker ez banago, «pro Cancer» itz orrek «minbiziaren alde» esan nai du. Oiek bezain andre apain ta dotoreak, minbiziaren alde jardutzea, oso gaizki iduritzen zait.

Bigarren albistea: «Atzo, Madrid'en, arratsaldeko seiak laurden gutxitik aurrera, ogei ta zortzi urte direla egun ontan bertan urtero gertatzen dan bezela, San Pantaleon'en odola urtu egin da. Jendea erruz etorri da miraria ikustera, eta poza ta debozio aundiz ikusi dezake aurten ere». Eta nik esaten dedana au da: mirari au Madrid'en urtero izaten degun ezker, zergatik ez ditugu ateo guziak au ikustera ekartzen, ta kitto! Or degu ateismorentzako soluzio eder bat.

Uztaila'k 30

Zergatik egin du Jainkoak itxasoia beti igikorra ta mugikorra? «Bertzela —esaten digu Axular aundiak— usain liteke, kirats liteke, eta are, apoz, sugez, ihelez eta likiskeriaz bete liteke, lakuak, aintziñak eta bertze ur geldiak betetzen diren bezela». Antziñako jakintza oso poetiko, oso olertiztia, izaten zala eman bear degu. Zientzia ta olertia gauza ezberdiñak izanik, bakoitza bere aldetik naiago erabilli ditu gaurko gizonak. Ala ere, noizean bein, ainbeste calculo ta lumero artean, antz-iduri polit bat, Axular'enak bezelakoa, sartzeak ez lioke gaitz egingo gure zientziari.

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 137 zk., 1965-10-10

Agorrak'27. Satygraha, nun zaude?

India agintariak len bai len atomo-izkillua bereganatzeko erabakia artu dute. Zer esango luke Gandhi aundiak au ikustean! Batzuek «no-violencia» edo «satygraha» esaten dioten dotriña oso ederra da. Ni ere amaika bider mintzatu naiz be-roen alde. Bañan gaurko mundua irakaskintza ori onartzeko ez dagola prest eza-gutu bear degu. Gure gobernuen egiazko maixua ez da Gandhi, Makiabelo baizik. Eman dezagun, naiz ta oso penagarria izan: «Igarle armadunak beti garaille».

Agorrak'28. «Ludicra certamini»

«Le Monde» egunkariak dionez, orain, amairugarren eskema jardun ari da-la, «garbi-mordollo» eztabaida sortu da Konzilioan latiniari buruz, gure artean euskerari buruz gertatu oi dan bezelaxe. Dirudienez, eskeman Ciceron'en latini-a erabilli nai izan dute egilleak, oso garbia ta dotorea. Eta, jakiña, Batzar Nagusia-ko Aitak ezin ulerturik gelditu dira geienak. Adibidez, deporte esateko, «ludicra certamini» itza sartu dute eta beste orrelako ingurumari asko asmatu dituzte. Ortik izkuntza guztiz adikaitza sortu zaie. Zergatik ez dituzute erabilli «cultura», «responsabilitas», «civilisatio», «structura», «socialisatio» ta beste itzak, gaurko izkuntzatik ateratzekoak, garbirakada oien orde? —galdetzen dute aita batzuek... Pentsa!

Agorrak'30. «Oraindik ez»'ko jokabidea

Adiskide batek idazten dit amairugarren eskemako pakeari dagokion zatia etzaiela oso atsegin izan pazifista batzuei. Eta au, eraso atomikoaren kontrazko zainbidetzat erabilli ezker ez baidu kondenatzen atomo-bomba. Elizak oñak ondo tinkatuak izan bear ditu lur-rean, jakiña da. Argi dago sail ontan zazpi be-giekin ibilli bear dala, gobernuak ez geiegi lotzeko ta beren erriak etsaien es-kuetan ez uzteko. Gauzak eta iritziak ainbesteraño atzeratuak diralarik, beste

bideari Konzilioaren aitak ezin jarraitu diote oraindik. Beraz, atomo-bombak entsegutzea, moldatzea ta gordetzea zillegia izango zaie Estaduei, Batzar nagusiaren dotriñaren aldetik. Batzuek diote au urrengo Konzilioaren gaia izango dala. Ala ere baliteke ori beranduegi xamar izatea. Emendik ordurako zenbat milloi giza-bizi kostako da atomo-izkillu ori? «Oraindik ez» ko politika oso eza-guna degu Elizan. Alabaña ez da beti onena izan, uste dedanez.

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 142 zk., 1965-11-14

Urrilla'k, 25. «Zarra naiz»

«Gazte naiz» deritzan orri ederra irakurtzen ari nintzalarik, astekari ontan bertan, au pentsatzen nuen: «Nork esan du gaurko gazteak burua utsa dutela?». Amaika problema kartsu ba dute buruan gure gazteak eta batetik bestera dabil-tza bere galderai erantzuna ezin arkiturik. Zarrak, gorrak. Entzun ere ez dute nai. Gure gaztearoan gazteak ez zuten ainbeste arazo, ainbeste kezka. «Juventud sin problemas, buenos chicos». Alabaña, lengo baño oraingo gaztedia obea iru-ditzen zait. Gaztedi bat problemarik gabe? Gauza onik ez.

Urrilla'k, 26. *Aita lurra*

Aspalditxo da, jaun agurgarri ta argia dan On Martin Arrizubieta jaunak esaten zuen ez dala «ama lurra» itza erabilli bear, «aita lurra» baizik. Au izkun-tza-animaren aldetik egia izatea ba liteke. Bañan olertiaren aldetik ez. Nik ama zabal ta ugarikorra antzo ikusten det lurra. Batzutan gramatika ta olertia ez dira etortzen bat. Barkatu, On Martin!

Urrilla'k, 28. «*Homo teologalis*»

Bi milloi urte direla, milloi gora milloi bera, jakiña, agertzen omen dira Lu-rraan lenengo giza-itxurazko bizidunak. Ziminoak ez dira, zutik egoten bai da-kite («homo erectus») eta nolabaiteko adimena erakusten dutelako, adibidez, arri ta arkaskarrak erabiltzean («homo habilis»). Bañan, egiazko gizonak («ho-mo sapiens») al dira? Gizona, noiz asten da gizona izaten? Noiz agertzen da «Génesis» liburuak aipatutako gizona, Jaungoikoarekin artu-emanetan dabille-na («homo teologalis»)? Or dek koxka.

Urrilla'k, 31. *Dirua ta jakintza*

«Munibe» deritzaion aldizkariaren azkeneko lumeroa arreta handiz ikusia daukat. Arretaz eta pozez. Lan ederra ta, gañera, oso dotore ageria. Ixil-ixillik,

«bombo» ta «platillorik» gabe, egiten du bere jokua talde jator onek. Bere bideari jarraitzeko laguntza handiagoa bearke luke, alare. Mecenasa' en bat arkitzea. Zoritxarrez dirudunak ez dira beti jakintza-zaleak izaten. Aste batzuk direla, laguntza eskatzen joan zitzaizkion gizon aundizki batek, eskaleei erantzun zien, gutxi gora bera, ia zertako nai zuten antziñako gizonen gertaerak ezagutu, gizon oiek ekonomiari ta negozioari batere probetxorik ekartzen ez dietelata, guztiz «improductivos» diralako. «La ayuda a la cultura no es rentable. Para eso están las corporaciones públicas». Ala mintzatu zitzairen aberats porrokatua, ta besteak... zer esanik ez.

Ez erori diru-tentazioan

Zeruko Argia, 143 zk., 1965-11-21

Simone Weil «L'enracinement» izeneko liburua berriro irakurtzeko asmoa nuen aspaldi ontan. Atsegin da, noski, noizean bein bide ezagunen barrena berriz ibiltzea. Idazti zaharra, lagun jatorra.

Liburu argitsu au eskuetan artu ta neronek ipiñitako makiña bat oarketa ta azpi-marra arkitzen det bere orrietan:

«Gaurko gizonak erroztapena du premiarik nagusiena» —dio Simone Weil'ek.

Eta beste tokian: «Lurraren berotasuna galtzea gaxotasunik andiena da, oraingo jendetan».

«Déracinement» deritzaion politika Europa'ko gobernuen politika izan da luzaro. «Zuri kolorezko gizonak sustraiak iltzen eta joandako atzak ezeztatzen jardun dira, zozoki, itsutuki, beren errietan bezela bestetan ere».

Gure errian, ere bai, badira asko giza-erroztapenari garrantzi andirik ematen ez diotenak.

Beren ustez, gaurko egunean arazorik nagusiena ekonomi-aurrerapena da.

Industria jasotzeko, jendeak beren jatorrizko lurretatik atera ta gizakiak molekulen antzera maneatu bear ba dira ere, bost ajola zaie. Biziera-mailla geitu ezkerok ez diote errien nortasunari begiratzen.

Ekonomi-zale oiek gure jakintzaren alde ezer egiten saiatu oi geranok, kijo-te edo zozotzat artzen gaituzte.

Beren ustez, euskera galtzea ez da kaltegarri, oso oneratsua baizik. Euskera piztutzeko lan egitea ez da zentzu-lana, izkuntza zarra illa dagolako, ta ondo illa gañera.

Euskaldunok unibersalak izan bear degu. «Ciudadanos del mundo tenemos que ser». Ortarako euskera eragozpen andia da. Gaztelera ondo erabiltzeko euskera ahaztu ta baztertzea degu jokabiderik onena.

Gero, bear bada, gaztelera utzi ta ingelera, esperantoa, txinoera edo egokiena irudiko zaigun izkera artuko degu. Zein da izkuntzarik egokiena? Diru geiago irabazteko balio duana.

Izkuntza bakoitzak bere arima berezia daukala ez dakite-ta, bata edo bestea aukeratzea berdin zaie gizajoei.

Izkuntza, oiturak, erri baten baloreak, ta guzi ori, «folk-lore» edo «política» besterik ez dala pentsatzen dute. Eta badakizute orrelako jendek «politika» itza erabiltzen dutenean gauza txarra ta iguingarria esan nai dutela.

Berak esaten dutenez, ekonomia'k bere legeak izan eta lege auek nai ta naiez bete bear dira. «Sentimentalismo» guziak alde batera utzita, dagokion neurriak artu bear dira, planifikazio-teñikak agintzen dun bezela, gure erria geroago baño geiago aurrerapenari jarraitu dakion.

Adibidez, Euskal-erriaren nekazaritza orain baño produtiboagoa egiteko, bost baserrietatik lau kendu ta gañerako geienetan beste lurretatik ekarritako sendiak jarri bear dirala esaten dute. Au, baserriaren salbazioa deitzen dute jakintsu auek. Nik ez nuke ori salbazioa deituko, betiko madarikazio ta kondena-zioa baño.

Onela pentsatzen dutenak ez dira, ez, materialistak, ez marxistak, ezta ere kapitalista porrokatuak, baño gidari kooperatibista diralako kristau zintzo batzuek.

Errorik gabeko gizona, «l'homme déraciné», oso txoragarriko gizona dala-ta erroitik ateratzean kalte izugarri bat egiten zaio gizonari. Nik esaten dizutena au da, ideiekin marxistak erortzen diran tentazioan bertan erortzeko arriskuan zeratela.

Ekonomiak oso garrantzi andia dauka, ezin duda. Fabrika ta kooperatiba sortzea ederki iduritzen zait. Bañan biziaren mamia erroztapena ta nortasuna dana, lenengoa zaindu bear degu. Erriaren baloreak gorde ta ugaldtu bear ditugu, dirurik ematen ez badute ere. Eta gizon ikasiarentzat au da, nere uztez, lenengoetako eginkizun bat, emen eta Pekiñen.

Ez zaitezte izan marxistak eta kapitalista porrokatuak bezelakoak, diru ta ekonomiaren morroiak; baizik izpirituaeren serbitzari azkatuak.

«L'argent détruit les racines partout où il pénètre», dio Simone Weil'ek.

Kontu gero, adixkideok!

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 144 zk., 1965-11-28

Azaroak'13. Uria illunpetan

Zuek eta guztiok dakigun bezala, New-York'ko uri izugarrian argirik gabe eta indarrik gabe gelditu dira gau oso batean. Jendea bat batean, josita gelditu da, eginkizun guziak ezin egiñik, lanak eta atsegiñak guztiz urratuak utzirik. Nora jo jakin gabe beren etxeen bidea ere ezin topa. Ikusten degunez gizon zibilizatua, ain arroxko izan arren, basatarra baño kiskillagoa izaten da. Ez daki illunpetan ibiltzen, gizon basatiaren antzera. Ontan, baita beste gauza askotan ere berezko usnak galdu-ta oitura artifizialak artu bear izan ditu. Au da Ortega y Gasset'ek «hombre masa» deitzen duna. «Multsuko-gizon» au, ederki erakusten digu. New York'en orain gertatu danak. «El hombre masa cree que la civilización en que ha nacido es tan espontánea y primigenia como la Naturaleza». Bañan, ustegabezko egun batean zibilizazioaren tramankuloak potu egin ezkerro, gizarajoa guztiz galdua degu. Ez artifiziala, ez naturala, erdiko bidean gelditu bear. Au Komeria!

Azaroak'15. Txina ta Rusia

Aspalditik usmatua genuen, oraindik orain urrutiko sortaldean gertatzen dana. Gaurko egunkariek esaten dutenez, beintzat, Rusia ta Txina bitarteko mugan burruka batzuek sortu omen dira egun abetan. Z.A.'ren lenengo zenbakian, «Errusia ta Txina» izen-burupuan ain zuzen ere, artikulua bat argitaratu genuen. Ni orduan «Basaka» izenpetzen nintzan eta idazki ontan, nere ustez urte batzuen buruan bi erriak burrukaz asiko zirela esaten nuen. Alere, garai artan ez nuen sinisten, gauzak orren azkar joango ziranik. Ontan ere, beste gaietan bezala, Edestia ariñago ibiltzen da, gure pentsaera baño. «Hoy las ciencias adelantan que es una barbaridad». Au mundu aldakorra! Atzoko adiskideak, gaurko etsaiak, zenbat aldiz ez ditugu ikusi? Naiz ta zaharregiak ez izan amai-ka orrelako aldaketa ikusia daukagu. Eta ikusiko ditugunak, Jainkoak nai badu!

Azaroak'16. Pentsabidezko gertaera

Au gertakari tamalgarria, aspalditxoan gertatu dana! Bere buruak erre dituztelarik Jainkoari eskua kendu diote bi gazte amerikatarrek. Biak kristau ziran, bata katolikoa, bestea kuakero deritzan erlijiokoa. Biak pake aldekoak, «pazifistak», esaten dieten oienetakoak. Beren bizia oparitzat pakearen alde eskeñi nai omen diote Gizarteari. Pentsabidezkoa da gertaera ikaragarri au. Gauzari dagokion aldetik zoritxarrezko gazteak egin dutena ezin onetsi dezakegu, iñolaz ere, gizonaren biziaz jabe bakarra Goikoa baida. Berak bere eskuetan eltzen gaitu. Alabaña, ez gaitezen sartu kontzienziak epaitzera! Ez dezagun barnetako neurtzailleak izan nai, besteak neurtzen ditugun neurri beraz neurtuko gaituzte gerokoan. Eta, gazte oien barrunpean gertatu danari buruz, zer dakit gizontxo naizen onek? Guda, gorrotoa ta odolak menperatuta daukate mundua. Nor errugabekoa? Nor orrek bota beza lenengo arria.

Azaroak'18. Margoak eta lumeroak

Arimetika berri bat ikasi degu egun abetan. Zenbakizti berri ontan bi lumero mota daude margo ezberdiñekoak, alegia, zenbaki zuriak eta zenbaki beltzak. Zurizko bateko batek, irurogei bateko beltz balio ditu, dirudienez. Oso erreza da arimetika margodun ori, batez ere zurientzat, jakiña. Begira. Rodesia erri famatuaren konstituzio berriak agintzen denez, ango Parlamentoak irurogei ta bost diputadu izango ditu aurrerantzian. Zuriak, berrogei ta amar diputadu aukeratuko dituzte. Beltzek, «libertade ta askatasun guziakin», gaiñerako amabost autatu. Gisa ontaz, zuriak aukeratutako berrogei ta amar diputaduek, berreun ta ogei milla uritar zurien ordezkari izango dira. Beste amabost esku dutenak, alegia, beltzek autatukoak, iru milloi bederatzireun ta irurogei milla beltzen ordezkari ditugu. «Regla conjunta» dalako bat ezartzen ba diozute problemari, argi ta garbi ikusiko dezute zuri bakarraren ordaiña, irurogei beltz dituzutela. Barkatu, ainbeste zenbaketa egin arazten dizutedalako, bañan nik esaten dedana au da: oraiñarte, jatorrizko zenbakiztian, bat eta bat, bi izaten ziran. Rodesia'ko zenbakiztian, ez. Rodesian bat eta bat, irurogei ta bat egiten omen dira. A, Smith, Smith! Ederra egin diguzu Pitagoras'en segitzailleoi!

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 145 zk., 1965-12-05

Azaroa'k, 19. *Neurri bakar bat*

Amaika gora-bera ondoan erlijio-libertadea onetsi berri du Batzar Nagusiak. Orañarte teologo geienak bi egokera berezkatu oi zituen. Lenengoa erri katolietakoa, alegia, erdaraz «tesis» deritzaiona. Bigarrena, berriz, osterontzeko erritakoa, hipotesis izena duna. Ori dala-ta Elizak bi pixu ta bi neurri ditula esan oi zuten askok. Adibidez, España'n protestanteei ukatzen zitzaiona, Eliza berak eskatzen zuen katolikoentzat beste erritan. «Juego doble» egiten zuela esaten zuten asko aiek. Dotriña berriak kritika oiei arpegi ematen die. Konzilioak orain agintzen duna au da: Estaduak, batere ezberdintasunik gabe uritar guziei «inmudadea» ezagutu bear dio, erlijio-saillan, gizon bakoitzak bere sinismenari jarraitu ahal dakion, naiz ta sinismen au egiazko fedea ez izan ere, estaduaren aurrez gizona libre izan bear da. (Jaingoikoaren aurrean ez, jakiña). Beraz, aurrerantzian ez dira bi egipide izango, orañarte bezela, ez baño jokera bakar bat. Ontaz, gizonak, gizona dan aldetik, egiazko eskubideak ditu, mundu ontako ahaldun guzien aurrez. Oraingo garaian, Elizak, katolikoek eskubideak ez ezik, baita ere gizon guzien eskubideak zaindu nai ditu. Tesis-hipotesis teoria ez diraun zutik geiago. Bereak egin du. Etorkizunean bi pixu ta bi neurritz ez, baizik, joku-garbi bakar batez baliatuko dira katolikoak. «Hoc erat in votis».

Azaroa'k, 22. «*Els nous mossens*»

Burutik burura katalandar izkuntza dotorez idatzitako «Criterion» aldizkariak, «El nous mossens», au da, «Apaiz berriak», zeritzon liburuari gogor ekiten dio, bere azkeneko lumeroan. Michel de Saint-Pierre liburutzaz mintzatu ez det nai, onen «azpi-jana» iguingarri xamar iruditzen bait-zait. Ez-buru-ez-oñeko eztabaidetan sartu ere atsegiten ez zait. Bañan zenbaki aipatuan Josep Piñol jaunak «Campanya anti-conciliar» izeneko, artikulua garrantzidun bat, argitaratzen du, Konzilioa galerazteko oraingo azpi-joko zikiña salatzen danean argi ta garbi, ikaraturik gelditzen zera, fededun andienak diralakoen borondate gaizto

au ikustean. Orañarte, ezker aldetik edo «gaiztoen» aldetik etortzen omen ziran herexiak. Gaurko egunean, ordez, «Papa baño papistagoak» ugari dira kristaue-tan. Askok Elizaren berriztea begi onez ikusten ez dute. Nik uste nuen siñis-ga-bekeria zala Fedearantzako arriskurik andiena. Orain ikusten dedanez ori baño sinis-geiegekeria arrisku aundiago izan diteke gaurko gora-beraetan. Ori da, neretzako, «Les nouveaux prêtres» liburuaren eta literatura guzi orren ikas-gai nagusia.

Azaroa'k, 25. Olerkari baten negarra

Aspalditxoan astekari ontan bertan, «gazte dan» J. Lete idazleak argiratu-tako idazkia arretarik handienaz irakurri det, baita bi edo iru aldiz berrirakurri ere egin det. Artikulu horrek oso garrantzi handia dauka nere ustez. Amazazpi urteko ametsa ta berotasuna galduta, atzeneko oportunitadearen aurrean zau-dela diozu. Aurrerantzian, munduko illunpeen zear ibilli bearke zerala. Bai ori-xe, gizona zera-ta gizona izatea zein gauza ikaragarria dan berri jakiten asi zera orain. Ulertzen dizut. Ni ere gaztearoan amaika tristura izaten nituen; orain, berriz, zaharra izaten asi naizela, geinetan alai egoten naiz, barnetik gutxienez. Zure oraingo gaixotasuna urteak bakarrik sendatuko dute. Bañan, ez izan pre-sarik, gaxotasun berori sendatzeko. Gazteen illuntasuna, talant ta iaioa izan oi da, baita oso estimagarria ere. Nolanai ere, utzi nazazu kontseju batzuek ema-ten, zaharrok kontsejuak ematea opiziorik nagusiena degu-ta. Tristura, ia mun-do ontako gauza guzien antzera, bi motakoa izan oi da. Tristura samiña ez da lagun onik izaten gizonarentzat. Egia esateko, zure gaurko goibeltasuna, egokia, gozoa, samurra, irudi zait. Eta olertiduna, asko. Gazte argiak, zu bezelako ja-torrizko poetak diranak batez ere, triste xamar izan bear dira «arratsaldea gau biurtzen dan orduan» (Bizia bera goxo-goxo arratsa biurtzen zaigu gizon guzioi ere bai). Ala ere, ez utzi mugarik gabeko tristura biotzera sartu. Besteei ere bai amazpi urte ez ezik, baita berrogei ta amar urte joan zaigu ere. Bañan tristura txarrari, tristura madarikatuari, beti atzera! esaten diogu. Ez zaitetz orain gaz-te-zaharra, gerokoan zahar-gaztea izan zaitetzen!

Naboth ta erregea

Zeruko Argia, 148 zk., 1965-12-26

Naboth izeneko gizon zintzo bat bizi zan, aspaldi, Samaria erresuman.

Naboth onek, bere gurasoen ondoren bidez, mahasti bat zeukan.

Uda arratsetan, batez ere, bere antziñako oroipen ederrak gogoan arturik, mahastiaren bakardadean egurastea asko atsegin zitzaion.

Gure gizona jakintsu ta olerkari sakona izan omen zan, bañan politika ta diru gaietan itxuraz gutxi ulertzen zuen.

Ez zitzaion gertatuko, bestela, gertatu zitzaiona.

Ustegabeko egun batean, erregea etorri zitzaion etxera.

Akab zeukan izena errege onek. Berak, aberatsu ta ahaldun geienak bezela, gero baño aberatsuago ta ahaldunago izateko moduaz, besterik ez zuen pentsatzen.

Akab erregea, Naboth gizon zintzoari onela mintzatu zitzaion:

— «Gizona, nere uda-jauregia zabaltzeko ta handitzeko ire mahastia bear diat. Ez diat batere kalterik egingo, alabaña. Ire mahastia neri eman ezkerro, nai dukan tokian, beste mahasti bat, irea baño askoz handiagoa ta ederragoa, ezkeiñiko diat».

Izan ere, Naboth mahastia erregearen uda-jauregia ondoan zeuden ta, erregearen liliturgia ederragotzeko, nai ta naiez mahastia errautsi bear zan.

Orain ere orrelako tratuak egiten dira sarritan. Banku edo fabrika batek, inguruko etxeak eta lurak bear izan ezkerro, ango jatorrizko jendei peseta pillo bat ezkeiñi ta berak, antziñako etxea utzita, pozik joaten dira beste aldera.

Bañan Naboth ez zan orrelakoa. oso jatorra izan ta ez zuen onela pentsatzen.

Ez zekien, gizarajoak, nolako munduan bizitzen geran ta negozioak zein importantzi handia daukan zoriona eskuratzeko.

Ala bada, onela erantzun zion erregeari:

— «Errege jauna. Asko sentitzen det, bañan ezin dezaket nere gurasoen mahastia laga. Neretzako lur hori sakratua da-ta nai ta naiez gorde bear det, nere antziñakoen oroitzat».

(Au zorakeria! Orren negozio ederra eskutan izan ta galdu eraztea! Egia esateko, gizon arrek bururik ez zuen).

Nolanai ere, erri artan, legeak ba zeuden eta errege berak errespetatu ziotuen —korrientea izaten ez dana erregetan—. Nabothen naiaren kontra ezin ezer egin zezakeala jakiñik, etxeratu zan, oso asarre, erregea.

Ortzak karrakatuz jauregira iritxitakoan, apaltzeke eta txintik atera gabe, oiera sartu zan, guztiz zapuztuta.

Bere emaztea... zeñek ez du ezagutzen? Jezabel famatua zan. Erregea baño gaiztoagoa bera omen.

Jezabelek bada, bere senarrari ia zer zuen orren asarre galdetu zion.

Erregeak dana kontatu ta nolako atsekabe izugarria zeukan esan zion emazteari. Eta onek:

— «Bañan, ume hori alako hori! Errege ederra augu, ire borondatea egitea jakin ere ez dakikena! Neronek emango diat Naboth mahastia».

Sorgiñ arrek esaten zuena jakin bezekien. Bere prestamenak berealaxe egin zituen.

Naboten errian bizi ziran erregearen zerbitzarietara eskutitz izkutu bat bialdu ta bi gauza abek agindu zizkien.

Lenengoa, erri-batzar handi bat antolatu ta Naboth batzarreko toki nagusian jarri zezatela.

Bigarren agindua au zan: bi erritar faltsu ta maltzur arkitu, populu guziaren aurrean gezur-aitorra eman zezaten.

Batzar-eguna etorri zanean, jende guzia bildu zan erriko plazan. Apaizak otoitzak egiten ari zirala, bi zitalak agertu ziran.

Deadarka, Nabotheri salatzen asi ziran, Jainkoa ta erregearen kontra itz egin zuela esanik.

Iskanbilla galanta arrotu zan.

Lelitu larria zan, gezurrezko aitorleak salatutakoa.

Orrengatik, erri guziak, ao betez, Naboth gizajoaren lepoa eskatu zuen.

Eta uritik atera zuten.

Eta inguruko leku batean arrika il zuten.

Eta bere ondasun guziak konfiskatu ziran.

Eta Jezabelek bere senarrari nai zuen mahastia eskeindu zion bere lilitegia jartzeko.

Eta Akabek kontent gelditu zan, bere lore politak Nabothan antziñako mahastian azi zezakelako.

Emen bukatzen da «istoria triste» au, erregen liburutik ateratakoa.

Bañan, ez da oraindik bukatu, ta ez da beiñere bukatuko, lur illun ontan.

Naboth zoro bat zan, dudarik ez.

Bere mahastia erregeari saldu nai izan balio beste kuku batek kantatuko zion.

Bañan ez zekien nolako munduan bizi zan, esana degun legez.

Guk berriz, buru antziñako mahastia saldu, gure zuhurtasunak ta gure zuhurkeriak agintzen diguten bezela.

Mahastia saldu, ta Kitto!

Ze antzin ta ze danboliñ!

Ulertzen dunak ulertzen du.

Eguberri onak, andre ta Kaballeruak!!

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 151 zk., 1966-01-16

Abenduak, 27. Aita Salvatore

Beste adiskide bat joan zaigu muga lainotsuan barrena. Ainbeste maitatu zuen lurra amodioz utzita, urrutiko erri otz batean il bear! Bere barneak gauza handiak eskatzen zizkion, gizon urduria bait zan. Jende apal eta beartsuen serbitzuan bizia eman nai izan zuen baita eman zuen ere. Zorionekoa, bere burua maitasunez eskeintzen duna! Guk berriz galdua degu mundu ontan. Negu-bio-tzean, arratsean, Erioak ostu digu. Zergaitik, Jauna, ainbeste miñ ta nekez tolea-zen gaituzu gizonei, Zugana joan ahal gaitezen?

Ilbeltzak, 7. Euskaltzaindia

Nere adixkide bikain dan Antonio Maria Labayen jauna, Euskaltzaindia'ri buruz ederki mintzatzen zaigu, oraindik orain berak argitaratutako «Nere txanda» artikuluan. Gai au aotan dabil, zoritxarrez, aspaldi ontan. Tamalgarria da, izan ere, Euskaltzaindiaren egoera. Batzuek esaten dute Akademiak bide horri jarraitzen baldin badio, laster egingo dula bereak. Eta beste batzuek, Euskaltzaindia iltzat ematen dute orain-ezkero. Ez da hori, nere ustez, geienetako euskaltzale zintzoen iritzia. Gure izkuntza zaintzeko ta zabaltzeko ez degu Euskalerrian instituzio geiegi, alajaña! Ondatzea errezagoa da eraikitzea baño. Euskaltzaindiak iraun bear du, nai ta naiez, personalismo ta lelokeri guzien gañetik. Neretzako axioma bat da esate au eta hau (h'kin eta h'gabe esaten dizutet, guziak ulertzen nazazuten). Areago, nik, Quijote ta zoroa naizen aldetik, onela irixten ez dutenak euskaltzale zitalzat artzen ditut. Euskaltzaindiak bi gauza onak eta baliotsuak ditu. Alde batetik euskera-gaiak erabiltzeko ta sakontzeko gizon prestu ta jakintsuak. Bestetik, euskeraren alde lan egiteko ta euskal baratza landutzeko gura ta borondate ona, egon ba dago euskalzaiñetan. Ortaz, nun du bere utsunea gure Euskaltzaindiak? Kontu handizko gauza batean: *organizazioan, antolamenduan*. Dagokion lan-antolamendua, ta planifikazioa, gure denboraren arabera. Nere ustez, Euskaltzaindian bost edo sei atal eratu

bearko lirake len bai len eta atal bakoitzean eraginzaile gazte bat jarri ere. Eraginzaile au lendakari edo jakintsu bat izatea ez da bearrezko, baizik taldearen lanak banatzeko eta eragiteko, «cheville ouvrière» uts bat. Gazteleraz «animador» deitzen zaiona. Hori da, nere ustez, atal bakoitzak bearko lukena, besterik baño len. Egiteko lanak bixtan daude. Iztegi saillean, adibidez, «dictionnaire de difficultés», Larousse'k argitaratu dun gisakoa; «diccionario de frases»; analogiko iztegia; modismo edo esaera-iztegia eta beste orrelakoak egin bearko lirake, bakoitzaren jerarkiari begiratu utzi gabe, bost urteko plan baten neurripean. Irakaskintza saillean, eskolak an-emen sortzea ta begiratzea. Euskerazko irakaskintza ta euskeraren irakaskintzaerako liburu, ikasbide, ta bear diran tresna guziak gertatzea. Euskal jakintza saillean, handienetako euskal idazleen antolajiak aukeratu, baita beste izkuntzetakoak euskeratzea ere. Batasuna saillean, euskalkiak alderatzeko edo gutxienez ez aldentzeko bidea, ikusi ta aztertzea. Eta abar, eta abar. Or dezute atalen eginkizuna zein izango liteken. Euskaltzaindiaren laguntzaile uts bat naizen ezkeru, ni ez naiz nor kontseilluak emateko besteei. Bañan uste det bidea au dala. Euskeraren alde lan egiteko jakinduria ta borondatea dituzutelako, ezarri orain falta dezutena, antolabide ta lanaren banatasun egokia.

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 153 zk., 1966-01-30

Ilbeltzak'19. Aldizkariak eta demokrazia

Ez nator bat nere adixkide gaztea dan Rikardo Arregi'k esandakoan, «Aldizkariak eta Demokrazia» izeneko artikuloan. Bere adierakizun nagusian —aldizkariak kapitalisten eskuetan dauden bitartean, egiazko demokrazia ezin egon ditekela, alegia— ni ere bai natorkio. Tesis au ontzat ematen dut nik ere. Eta au da, izan ere, garrantzi handienekoa. Bañan artikulo ontan bertan, buru batzuek ez ditut orrenbeste ongi ikusi eta Z. ARGIA'n danok lankide geran ezkerro, nere desakort argi ta garbi onera ekarri ta, esango dizutet. Badakit au dala-ta aserretuko ez dala Arregi bikaiña. «*Gaurko gizarteak —esaten du berak, artikulo aipatuan— gutxi batzuen interesak defenditzen dituzte ta geienen interesak menperatzen. Gaurko ori defenditzen dutenak konserbadoreak eta eskuindarrak dira ta ori onartzen ez dutenak, ezkertiarak eta progresistak*». Ala esaten du nere adixkideak, bañan nik, konserbadorea ez izan arren (gaitz orretik begira nazazu, Jauna) ez dut begi onez ikusten Rikardo'k konserbadoreen iduri orren ximpleki agertzea. Gauza bera esango nezake ezkertiar eta progresisteei buruz. Nere iritiz, gauzak ez dira orren ximple ta errezak. Konserbadorea izatea, zertan dago? Ez da aisa orrelako galdeari erantzutea, «konserbadurismo» deritzana fenomeno oso konplejoa bait da. Gure adixkide gazteak dionez «geienen interesak menperatu ta gutxi batzuen interesak defenditzean» omen dago konserbadoreen jokera. Iritzi au ez zait zuzena iruditzen. Orrelako definizioa aurretik ezartzen baldin badiogu eskuindar ideolojiari, berau nardagarri ta gaiztotzat ikusi bearke degu, nai ta naiez. Ala ere, konserbadore-pentsaera dalako horrek, batzuen interesak ez ezik, baita egiazko ta bearrezko baloreak begiratzen ditu ere, dudarik ez. Saiets egoki ta onesgarri asko ba dauzka, nere ustez. Eta ezkertiarrek uts ta oker handietan erori nai ez badute, politika saillean, orixe bear dute jakin. Igarotako aldietan galpen ta kalte izugarriak ekarri dizkie ezkertiarrei konserbadore-ideologiaren indarra ta sustraia gutxiesteak. Rikardo Arregi'k esaten du konserbadoreek «*dirua ta gaurko gizartearen agintea*» dituztela; progresistek, berriz, «*jendea, erria ta arrazoia*». Hori esatea ez al da geiegitxoa? Dotriña

horren arauaz, eskuindarrak, gaiztoak, ezkertiarrek onak ditugu. Onelako pentsaera manikeismoa ez bada, ez dabilkio urruti. Gauzak ain argi ez direla esan bear dut, berriz ere. Baliteke, zuk, bizi baldin bazera, ni bezain zahar izanen zeranean, errealitate hori baño guztiz nahasiago bat ikustea. Marxismoak manikeismo berri bat sartu digu guziori. Eta, jakiña, manikeismo baten kontra, beste kontrako koloreko manikeismo bat sortu bear da beti. Zuretzako, gaurko gazteentzat, libertade eskaseko aro onen gazteentzat, arriskorik handiena da, nere iritziz, manikeismo batean erortzea. Au eskuñekoa edo ezkerrekoa izatea, berdin zait neri, bata bezain gaiztoa, bestea bait da. Ez gaitezen manikeok izan, otoi!

Ilbeltzak'23. Erderakadak

Bein baño geiagotan erderakada batzuek erabilli bear ditugu, nai ta naiez, euskal idatzi-lanetan ibiltzen geranok. Izkuntzaren garbitasuna gordetzeagatik, esan nai duguna osorik ez esatea, alegia, euskeraz esateko zallak diran gaiak alde batera utzi ta, euskeraz errezi erakutsi ditzakegunak soillik aipatzea, ez zait ondo iduritzen. Bide hortaz kalte handia egiten zaio izkuntzari, azkenean, gai geiena erderaz bukatu bear bait da. Au da euskeraren eriotza. Bakoitzak bere aldetik asmatutako itz-berriak erabiltzea, nahaste-marraste izugarria da da. Idatzi, bai, idatziko dugu, bañan nork ulertu? Nik, idazten dudana, neronek bakarrik ulertzen baldin badut, idaztean alperrik nabil, naikoa dut pensatzearekin. «Euskaltzaindiak» itz egokiak eman arte itxo-egitea, txakurraren gauerdiko ametsa da, oraingo. Laugarren bidea da, noizean bein, gure usteak adieraztearren bearra danean, erderakada polit batzuek sartzea. Au da, izan ere, Z. ARGIA'n geienok egiten duguna. Nolanai ere, ontaz, zerbait esan naiko nuke nik ere. Axular handiak giarrean jotzen zuen au esatean: «*Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, zeren erresumak baititutze diferent*». Erderakadaei buruz, gauza bera esan bear dugu. Euskera idatziaren batasun arazoa oso atzeratua da, jakiña. Bañan euskalkiak alde-ratu ezin baditzakegu, gutxienez, elkarrengandik geiago ez bereixteko alegiñak egin bear ditugu... Ikaragarria da, gaurko egunean gertatzen dana. Erderakadak muga alde bietatik sartzen zaizkio euskerari. Batzuek prantzesez, besteak gaztelaz artutakoak.

Euskaldun batzuek «negozioa», «tenedoria» ta «estazioa» esaten, besteek, berriz, «afera», «furxeta» ta «gara», du français «affaire», «fourchette» eta «gare»... Esaera eta modismo saillean, orixe egiten baldin bada... ondo jaiok gaudede! Adibidez, «ez zait dudarik kabitzen» esatea («no me cabe duda», «je ne doute pas que», esateko) izugarritzako erderakada da, batez ere, muga alde batetik

bakarrik ateratakoa bait da eta beste aldean batere itxurarik ez dulako. Zer esango luke nere adixkide handia dan Gabriel Aresti'k, norbaitek esango balu «labur kupatu» (couper court) «eztabaida bat bukatzea» esan nai izan ezkerok? Izkuntza batasunaren kaltezko diran erderakadak erabiltzea, pekatu larria da ta betiko zigorra merezi izango luke. Apika, nik ere, orixe egin dut batzutan.

Egunetik egunera

Zeruko Argia, 156 zk., 1966-02-20

Otsaillak' 1. Europa ta gu

De Gaulle lendakariari aserre-aldia igarota gero, badirudi berriro Europa bakuntzagana dijoala. Ez da gaur goizekoa bereganako amets hori, ordea, batasunaren bidea luzetxoa da oraindik, itxura duanez. Europa bakuntzatik zer uste dugu euskaldunok? Euskaldun geran aldetik begiratu bear dugu Europa arazoa, nai ta naiez. Orixe saiatu dira egiten amar euskal idazle, Jakin taldekoak, oraindik orain argitaratutako liburu batean. Gutun onek «Europa» du izena, ta oso dotore agertzen zaigu, gañera, azalaz ta guztiz. Tamala da, ordea, berandu xamar sortua izatea, egilleek idatzi zuten ezkeroztik aldatze asko izan bait dira Europa saillean. Nolanai ere, Jakin-tarren lana uts bat betetzera dator. Baita espero degu ere, gaurkoa asiera besterik ez dala izango ta, Europari buruzko, beste saio geiago emango dizkigutela, ugari ta laster. Beste gaurko eginkizun ta arazoei baño bost aldiz geiago begiratuko nioke nik Europa batasunari, gure auziak erabakitzeko ta korapillatzeko bide oberik ez bait dago noski. Nai bezain astiro, bañan bide horri jarrai bear diogu, gure nortasuna salbatu nai badugu beintzat.

Otsaillak' 5. Korapilloa

Ederra da, baita sakona ere, Lachelier filosofoak esandako solas au: «Le monde est une pensée qui ne se pense pas, suspendue à une pensée qui se pense». Edo, euskeraz nolabait esateko: «Izadia da, bere baita gogoratzen ez dun gogo bat, beste gogotik, bere baita gogoratzen dunatik, zinzilik dagona». Ulertu al duzu, irakurle adixkidea? Aokorapillo bat dirudi, bai erderaz, bai euskeraz. Bañan, mundu au izugarritzko korapillo bat dalako, ortaz mintzatzeko, aokorapilloak erabilli bear izatea, ez da arritzekoa. Gauza ikaragarria da, benetan, ta guztiz neketsua, gizonontzat, jaiotzetik eriotzera, bizi guziaren zear, ainbeste korapillo desegin bearrak!

Otsailak' 11. Politika ta matematiketak

Kalkulari talde bat eratu omen da Paris'en, politikarekiko matematiketaz jardutzeko. Aita Dubarle jakintsua gai ontaz mintzatu zait oraintsu, baita neroni ere asmo hori oso garrantziduna irudi. Gerla ondoan sortu dan aljebra berriaren bitartez, kalkulo arrigarriak egin ditezke politika saillean. Adibidez, erri-iritzi, aukeratu-bosketa, diputaduen jokera ta agintasun antolamenduari buruz, «grafos» deritzan teoriak, amaika ondoren interesdun atera dezake. Bestaldetik «Estadistika matematika» izendako jakintzak, ezin sinistu ahal aurre-rapen egin ditu ere, sail ortan bertan. Gallup ameriketar zientifikoa zalakoak, lenengo entseguak egin zituen, urte batzuek direla, Roosevelt orduko lendakari-gaia zanak, zenbat boza aterako zuen, alderatze handiakin sumaturik. Nola-bait esaten duguna erakusteko, esango dugu ere, milloi batzuek biztanle ditun herri batean, jendearen bai-ala-ezko iritzia, gai jakin bati buruz, zero ezagutu nai izan ezkeru, milla terdi persona soilki dala bearrezko galdekatzea. Ortarako nolako moduz erantzuleak aukeratu bear diran jakitea ez da zallegia. Zoritxarrez politika maneatzan dutenak ez dituzte geienetan erriaren gura egiazkoak ezagutu nai izaten, ezaguntza horrek makiña bat buru-auste ekarriko liekelako. Matematiketak prest daude, ez baño borondateak.

ONU'ren norakoa... zein?

Zeruko Argia, 159 zk., 1966-03-13

Nazio-batuen organizazioa ateka txar batean arkitzen da une ontan.

Alde batetik, erriak eskatzen diote, nazio-arteko auzi ta zalapartada guziak baketu ta antolatzea. Bestaldetik, ordea, Estadu geienak, handiak naiz txikiak, beren soberania gerizatu nairik, dagokion lana egiteko bideak ukatzen dizkiote ONU'ri.

Olako egoeran, ONU'ren erabakiek indar gutxi euki dezakete. Armada baten jabe ez izanik, Nazio-batuak ez daukate benetako ahalmena, batez ere, ortzetaraño armaturik dauden nazioen aurrean.

Ondorena da, ONU'ren omen ta entzutea gero ta geiago beratzen dala errietan.

Nazio-batuak, nai ta naiez, atzera ala aurrera jo bear dute, zalantza hortatik ateratzeko.

«To be or not to be» esan bearoko orain ere.

ONU'k bere eraikidura berritzea du bear-bearra, berandu izan baiño lenago.

Batasun aundiago batera joango al da urrengo urtetan?

Amets hau antziñakoa da. Jakintsu askok zin-ziñez pentsatu dute ontaz, alegia, mundu guziko antolamendu egoki bat eratzeko bide ta modutzaz.

Oien artean, Dante dugu lenengoa, bere ikusbidea txikia ta eskasa bazan ere oraindik. Saint-Pierre apaizak, Suárez jesu-lagunak, Bentham ta Kant filosofoak eta beste horrelako gizon famatuak, nork bere erara, gai horri jo zioten mendeen zear.

Bañan hoiek guztiak esandakoa, teoriak, utopiak, ametsak, besterik ez ziran. Gaur egun, berriz, bearrezkoa da koesistenza deritzan bideari jarraitzea. Gaurko munduak nai ta naiezkoa du lan hau.

Eliza'k ere pentsaera bera darabilki.

1944'urtean Pio XII'k, gaurko egunean gerrate zillegirik ez dala esan zuen, arma berriak ikaragarri ta neurri-gabezko indarra dutela-ta. Beraz gerrateri

buruzko antziñako dotriña ezin ezarri diteke, aurrerantzean. Gauza bera tinkatu ta erakutsi du Konzilioak.

(gerrate defensiva ez izanik), nazio arteko estabaida, auzi, despita, eskatima ta zalapartadetan, nor izango dugu konpontzaille?

Gaur, iñoiz baño geiago nazio-arteko organizazio indartsu bat eraikitzea ezin-bestezkoa da.

Ez da arritzekoa, beraz, Joan XXIII izan zanak, bere «Pacem in Terris» Enziklikan, argi ta garbi esandakoa: «Gure egunetan nazio-arteko guzien gaiñeko agintarintza bat bearrezkoa da, baita morala berak auxe eskatzen du ere sail ontan».

Dana dala, kontseillu abek betetzea ez da erreza.

Mundu guziko agintarintza hori, Estadu izugarrizkoa, Estadu zigante bat legez, ez degu iduritu bear, jakiña.

Iñork ez daki, benetan, zer itxura izango luken agintarintza horrek.

Baliteke ONU elburu horri urbiltzea. Bañan ONU'k poto egin ezkeru, baliteke ere bai, totalitarismoak berriro mundua menperatzea.

Zoritxarrez, erriak eta gizonak, aldaketak burrukaz egiten dute geienetan. Miñ ta odolik gabe gauza gutxi egin da Edestian.

Gure Herria, noruntz?

Zeruko Argia, 167 zk., 1966-05-08

Hau da, une ontan, emengo zentsuzko jendeek, bere buruari egiten dioten galdea.

Zer bideari ekin bear diogu, zalantzako ordu ontan, gure herriaren nortasuna, izkuntza ta jakintza iraun ditzaten naia dugunok? España guzian, zensura kendu duten ezkeroztik, beren politikarekiko iritziak azaltzen asi dira idazle batzuek.

Naiz ta orañarte, beste kanpai soiñuak ez dira entzun, ezkerretakoak alegia, Prensako lege berriak ekarri onak izan ditu eta ateak pixka bat irikitzen asi dira dirudienez.

Guk ere, euskaltzale geran aldetik, orrelako askatasunez baliatu bearke genuke, gure problemak aurkeztu ta adiarazteko.

Idazle batzu aiek «problema sucesorio» dalako gaiari jotzen diote, bakoitzak gatza bere opillari bota nai diolarik. Hau da gaurko eztabaida: erregetza ekarri bear dan ala ez, eta ekarri ezker, zer motako erregetza izan bearke litzaken.

Gure artean amaika iritzi ba da, problema horri buruz. Ontaz, ez zait iruditzen euskaldun guziek pentsaera bakarra izatea.

Bañan gauza batean, bai, bat gatoz euskaldun geienak edo guziak, zentralismoa atsegin ez zaigunean.

Bere burua baneatu ta gobernatzea gure herriaren antziñako oitura da. Hori zan antziñako ta horixe naiko genuke etorkizunarena izan zedilla. Ortarako, makiña bat arrazoi ba dugu eta, iñor ofenditu gabe, arrazoi oiek azaltzeko eskubidea izan bai izaten dugu, ere.

Euskaldunen borondatea bereganatu nai izango dunak, bide berorri jarraitu bearke dio, derrigorrez. Eta komeni da, nere aburuz, hauxe esatea ta berresatea, politikarekiko eginkizun abetan dabiltzanak oker egon ez ditezen.

Gure aro ontan, Euskal-Herriak pixu ta indarra artu du, bere handitze ta aurrerapenagatik.

Mende onen asieran, herri pobrea zana, gaurko egunean ekonomi ta industri goienetako maillan jarri da.

Bide batez, bere erresponsabilidadea geiagotu da.

Gaurko garaiari dagokion jokaera jakingo al dugu jokatu?

Demokrazia

Zeruko Argia, 173 zk., 1966-06-19

Gazte euskeldun batzuek etorri zaizkit, demokrazia dalako hori, zertan dartzan galdezka.

Egia esateko demokrazia nolakoa dan jakitea ez da erreza, gaurko egunean mota guzietako gobernuak bere buruak demokrazizat agertzen bait dituzte. Hor daude, esate baterako, «demokrazi gidatua» ta «demokrazi herrikoa» deritzatenak.

Gobernu-molde hoiek, demokrazi izena erabilli arren, bestelako iduria dute.

Napoleon enperadorea izugarritzko demokrata zala esan dute batzuek. Herriak sortuta, herrian ezartzen zuen bere itxaropen ta maitasun guzia. Baita herriak ere, berari jarraitzen zion, gogo beroz, Prantziren handitasunez zoraturik zeudelako. Matxinada handiaren dotriña bereganatu zuen ta Europa guzian sartu nai ere. Bere burua jarri zuen giza-eskubideen zaiñ.

Bañan nik ez det uste, gizon hura egiazko demokrata izan zedilla.

Hitler'ek eta Mussolini'k sortutako gobernu-moldeak, demokratizat agertzen ziran beti, bañan nik ezin sinistu dezaket jaun aiek benetako demokratik ziranik.

Gaurko Nasser ta Bumedien'en gobernuak, demokratizat artu bear al ditugu? Eta De Gaulle'n jeneralena? Eta Tito'rena? Eta Castro'rena? Auskalo!

Komeni zaigu arau batzuek ematea, benetako demokraziak ezagutzeko.

Lincoln Amerikako lendakariak, gobernu-molde bat demokrazi dan ala ez jakiteko, bi gauzei begiratu bear zaiela esaten zuen: agintariek, noren alde jokatuta ta gobernu bera zeñen eskuetan dagonari.

«Demokrazia da, herria, herriaren onez, herriak berak maneatzea». Olakoa zan Lincoln'ek esandakoa.

Ba daude antziñako ta gaurko gobernuak, herri guziaren alde jokatzen ez dutenak. Agintariek bere xede ta aburu bereziei jotzen diete. Herriaren onura

lortzen saiatu bearrean, klase, talde edo «klan» bereziaren alde bakarrik egi-ten dute bere lana. Honelako gobernuak tirania dirudite ta agiri dago demo-kraziak ez direla.

Beste gobernuek, herriaren onura billatzen dute benetan, bañan herriak be-rak ez du agintaritzan parterik izaten. Hori da «despotismo ilustrado» zeritzaio-na. Jauntxokeri argitsua, gure egunetan «aitakeria» deitzen dana da. Teknokra-ta deritzanek ala esan oi dute sarritan, berriz: «herritarrei baldin eskuratzen ba diegu zoriontasuna, zer eskatuko dute geiagokorik?». Hau sofisma izugarritzkoa da; gizonari dagokion libertatea kentzen baldin ba zaio, ezin ditzaioke eman egiazko zoriontasunik.

Egia da, herri askok berekautz beren arazoei arpegi emateko, naiko kul-tura ta indarrik ez dutela ta, umeei gertatzen zaien bezela, gurasoen laguntza bear dutela. Hortik datozte «paternalismo» ta «proteccionismo» diralako hoiak. Bañan honelako gobernu-moldeak, igarokorrak ez izanik, argarritzat ezin euki ditzazkegu.

Nik ez dakit Nasser, Castro ta beste horrelakoen asmoak zein diran. Bañan, zillegiak izateko, kondizio bat bete bearko luteke: herria, demokrazi jokuerako prestatzeko ta azitzeko al-egin guziak egitea.

Hontaz aita Calvez'ek, bere «Démocratie et Participation» ensaioan, argi ta garbi esaten du herria bere etorkizunaren jabea izatea dala demokrazi baten zergatia ta oñarririk nagusiena.

Eta Lincoln'ek berak: «Nola neri esklaboa izatea ez litzaidake atsegin izango, ala neroni esklabuen nagusia izatea ez nuke naiko iñolaz ere».

Ori da, ustez, demokraziaren mamia.

Bide zabal-zabal bat

Zeruko Argia, 174 zk., 1966-06-26

Politakarekiko gaiek gero ta garrantzi handiagoa artuko dute ondorengo urtetan. Erlijioa, jakintza, oiturak, social-zuzenbidea, baita «folklore» deritzana ere, politikarekin nahastuak agertzen dira, nai ta naiez. Orrengatik guk ere, derrigorrezkoa dugu politika gaietan sartzea.

Euskal-herriko nortasun berezia gordetzeko, edo berpizteko, euskaldunen naia agirian dago. Aurrerantzian agiriago egongo da, ezpairik gabe.

Or dituzute, urrutiago joan bearrik ez, Tolosako Ayuntamentuak artutako erabakia, legezarren itzulpena eskatzen duna, eta Gipuzkoa'ko Diputazioak jasotako galdea. Baliteke eske hau, naiz ta antziñako eskubidetan ondo tinkaturik egon, ezerezean gelditzea, orain baiño len amaika bider gertatu dan bezala.

Dana dala, galde hori onuragarria izan diteke, alde batetik gutxienez. España guzian, egunkarietan ta beste tokietan, politikako etorkizunez mintzatzen asi danean, gure problema agertzea oso bearra da une ontan.

Egia esanaz, Madrid'en jendeari zentralismoa berez datorchio. Ango mentalidadean, gogoera hori txit errothurik dago. Bera aldatzea zail xamar iruditzen zait, ez guztiz eziña ordea. Euskaldunek aiek baiño buru gogorrakoak dira, alajaña. Orainarte amaika burruka izan ditugu ta beti porrokatu atera. Berriz ere gorroto bideari jarraitzea ez litzake zillegia izango. Izan ere, beste bide bat ba dago, zabal-zabalik gure aurrean, alegia, maitasunaren bidea.

Ontan Gandhi famatua dugu maixu ta gidari ederra. Berak, problema ta korapillo guziak, pazientzia ta maitasunez garbitu bear direla erakutsi zigun. Naiz ta gaitza neketsua izan, hori da pakearen bide bakarra.

Nere iritziz, ango ta emengo borondate oneko jendeekin elkar-izketa zabal batzuek antolatu bearko lirake, euskal problema erabiltzeko.

Hortarako sasoi eldu da, gero beranduegi izan liteke.

Europaren batasuna sortu zorian dalarik, euskal nortasunari begiratu nai izatea, «aldeanismo» ta zorokeria dala esan oi dute batzuek.

Bañan, nere ustez, España'k baldin Europa aldetik leioak zabaltzen asten bada, errezagoa izango du bere barreneko pluridatea bear bezela ezagutzea ta onartzea. Gauza egiztatua da, Estatu batek kanpoko munduari zabaltzen zaion arauan, neurri berean bere barrungo errealidadeari zabaltzen zaiola. Bi egoera oiek batean agertzen dira geienetan.

Gaurko erresponsabilitatea oso handia da gure jendearentzat. Nola jokatu bear gure problema adierazteko ta onar arazteko?

Horra hor gaurko korapilloa.

Nik, berriz ere, kezka josirik nagola, galdetzen dizutet: ordu kritiku ontan, jakingo al dugu euskaldunok dagokigun bidez jotzen?

«Fedea»

Zeruko Argia, 200 zk., 1966-12-25

Gezurra dirudi, baiño ezta gezurra. Eskuetan degu gure berreungarreneko zenbakia, moldetegitik atera berria.

Nork sinistuko zuen, urte gutxi dala, euskal-astekari bat sortzeko posibilitatean?

Berreuneko muga au, gauza arrigarritzat artuko dute batzuek noski. Emen ezta batere mirarik, alajaña, fedez eta maitasunez egindako lanaren ondorea baizik.

Orain bai, orain guztiok ikusten degu, orduan amets bat zirudiena, guttiz eginkorra zala. Baiñan asieran ikusi baiño len sinistu, gutxi izan ziran sinistu zutenak.

Baziran orduan, erri batzutan, euskaltzale jator zarrak begiratze ta irripar errukitsu batekin artzen ginduztenak, gure asmoz mintzatzera joan gintzaizkielarik.

— «Gizarajoak, alperrik zabiltzate —esaten ziguten—. Dana galdua dago, euskera salbatzeko ez da ezer egitegorik».

Besteek berriz, itxaropen gutxi ematen ziguten, etorkizunaren aldetik.

— «Asi bai, asiko zerate, baiña aitu ere, bereala egingo zerate, muturrekoa ezarriko dizuete-ta».

Fede gutxiko gizon aiek amaika eragozpen ikusi arazten ziguten. Ia nola konponduko giñan diru, ta izkuntza ta politikaren aldetik; eta idazleak eta gaiak, astekari batean bear diran neurrian, nundik aterako genituen galdezka zebilzkigun bein ta berriz.

Burutik-burura euskeraz egindako berri-paper bat astero astero ateratzeko «ez gera kapabliak» esaten zidan adixkide jakintsu ta jator dedan batek.

«Obe izango litzake artikuloren bat erderaz egin, edo illean bein baka-rrik ateratzea».

Bañan guk —«audaces fortuna juvat»— itsuak bezelako, fededun porrokatuak izanik, aurrera jo genion gure asmakizunari, eta orren ondoreaz, lenengo berreuneko mugan gaude orain.

(Badakigu, esan bearrik ez, amaika uts ta akats dauzkala gure periodikoak; ori besteek baiño obe dakigu eginkizun ontan sartuta gaudenok, bañan guztien laguntzarekin pixkanaka utsune guzti oiek zuzentzen joango dira, datozen urtetan, Jainkoa lagun).

Eta badakizute zergatik ekin genuen aurrera?

Badakizute zergatik taldetxo onek, eta batez ere bere sortzaille jatorra dan Aita Agustinek, aurrera jarraitu zuten, ain beltza horizontea jartzen zieten arren?

Fedea, fede pixka bat, zeukatelako.

Utzi aitzakiak, utzi sasi-prudenziaren kontseju txarrak. Utzi, baitere, bakar-keria eta integristoa, eta lanari ekin, bildurrik eta alperkerik gabe.

Saiatu, beintzat, zure biotzak eskatzen dizutena egiten. Eta ikusiko dezute, biotzak, garbi danean beti arrazoia daukala.

Arimetika. Batzorde batek Euskal Akademiara aurkeztatu duen iztegia

Euskera, 12 zk., 1967

- | | | | |
|----|---------------------|-------------------|--|
| 1 | Matemática | Mathématique | Matematika |
| 2 | Aritmética | Arithmétique | Zenbakizti, Arimetika
(«t» kentzea orthographia alperrik sinplikatzea da. Zenbat antz aundiago hizkuntz jakitunekin hainbat apainago. Ez da onartzen) |
| 3 | Cantidad | Quantité | Zenbateko, Kopuru |
| 4 | Unidad | Unité | Bateko
(«banako» ere aitatu da) |
| 5 | Contar | Compter | Zenbatu
(«kontatu» eta «kontaketa» ere aitatu dira) |
| 6 | Operación de contar | Comptage | Zenbaketa |
| 7 | Número | Nombre | Zenbaki |
| 8 | Número entero | Nombre entier | Zenbaki oso |
| 9 | Numeración | Numération | Zenbakintza
(Sistema o arte de nombrar y representar los números) |
| 10 | Numeración | Numérotage | Zenbakiketa |
| 11 | Numeración hablada | Numération parlée | Aozko zenbakintza
Ahozko zenbakintza
(«mintzo-zenbakintza» ere aitatu da) |
| 12 | Numeración escrita | Numération écrite | Idatzizko zenbakintza
(«zenbakintza idatzia» ere aitatu da) |

- | | | | |
|----|---|---|---|
| 13 | Numeración decimal | Numération décimale | Amarkako zenbakintza
Hamarkako zenbakintza
(«Amarreko zenbakintza» ere aitatu da, baiña «numeración decimal» ori «amarka» (amar, eun, milla...) dijoana da) |
| 14 | Decena, centena... | Dizaine, centaine... | Amarreko, euneko...
Hamarreko, ehuneko... |
| 15 | Número romano | Nombre écrit avec des chiffres romaines | Erromar-zenbaki
(«Erroma-zenbaki», «erromerazko-zenbaki» ta «Erromeraz idatzitako zenbaki» ere aitatu dira. Lehen esana artu da ontzat) |
| 16 | Numeración romana
(Ikusi 15'an esana) | Numération romaine | Erromar zenbakintza |
| 17 | Numerar | Numérer | Zenbakitu |
| 18 | Calcular
(«kalkulatu» ere eskatu da) | Calculer | Ainbatu, hainbatu |
| 19 | Cálculo
(«Kalkulatze» ere eskatu da) | Calcule | Ainbaketa, hainbaketa |
| 20 | Operación matemática
(«Erabilketa», «Operazioa», «Ainbaketa», «Ariketa» eta «kalkulatze» ere aitatzten dira) | Opération mathématique | Eragiketa |
| 21 | Resultado de una operación
(«Ekarria» ere eskatu da) | Résultat d'une opération | Emaitza |
| 22 | 3 y 5 dan 8
(3 ta 5'ek, 8 dakarzkite) | 3 et 5 sont 8 | 3 ta 5, 8 dira |
| 23 | Ejercicio | Exercice | Ariketa |
| 24 | Resultado exacto
(«Emaitz ondargabea» ta «Emaitz zeatza» ere aitatu dira) | Résultat exact | Emaitz ondarge |

- 36 Sustraendo 2° terme d'une soustr. Kenkari
(«kengai», «kentzekoa», «kentzaille», «kenketa-jabe» ta «kenkari» erabili dira) (-gai eta -ari eztabaida sortzailleak izan dira)
- 37 5 menos 3 5 moins 3 5'i 3 ken, 5'i ken 3
(emen bi eratara jartzen da; lenengoa euskeraren joskeraz jatorrago; bigarrena matematikak idazten diran bezela irakurtzeko errezago)
- 38 Multiplicar Multiplier Bidertu
(«Bidartu», «Koiztu» -koitz atzizkitik, «Batuketa laburra» ikastoletan esaten duten bezela, «Tolestatu», «Zenbakoiztu» eta «Auniztu» askotan esaten den bezela, aitatu dira. «Bidertu» artu da ontzat. Oñarri onek darama berekin beste itz askoren (multiplicando, multiplicador, múltiplo, multiplicación, factor, producto, etc.) joera). («Ugaritu» ere aitatu da)
- 39 Multiplicación Multiplication Biderketa
(Ikusi 38'an esana)
- 40 Multiplicar 3 por 5 Multiplier 3 et 5 3 bosteko, 3 bider 5
(Ikusi 38'an esana)
- 41 Factor Facteur Biderkari
(Ikusi 38'an esana. «Koizki» ere aitatu da)
- 42 Producto Produit Biderketa emaitza
(«Biderketaren emaitza», «Biderketaren ekarria», «Aunizketa emaitza» etb. Ikusi 38'an esana)
- 43 Múltiplo Multiple Zenbakoitz
(«Koitz» ere esan da)
- 44 Duplo, triple... Double, triple... Bikoitz, irukoitz...
- 45 Duplicar, triplicar... Doubler, tripler... Bikoiztu, irukoiztu...
(«Bi-bidartu», «Bitu», «Birritu» etb. ere aitatu dira)

- 46 Número par Nombre pair Bikoizki
(«Bikoiki», «Bikotxi», «Bikotz», «Biritxi» ere aitatu dira)
- 47 Número impar Nombre impair Bakoizki
(«Bakoiki», «Bakotxi», «Bakotz» «Bakun» ere aitatu dira)
- 48 Dividir Diviser Zatitu
(«Banatu» ere aitatu da, baiña onek «distribuir» dirudi)
- 49 División Division Zatiketa
(«Banaketa». Ikusi 48'an esana)
- 50 División entera Division entière Ondargabeko zatiketa
(«Zatiketa ondarge», «Zatiketa ondargabea» ere esan dira)
- 51 División inexacta Division inexacte Ondardun zatiketa
(«Ondar-zatiketa», «Zatiketa ondardun» ere bai)
- 52 Dividendo Dividende Zatigaia
(«Banagaia», «Banatzekoa», «Banaketa-gai» eta «Zatikizun» ere aitatu dira) (Ikusi «-gai» ontaz 36'an esana)
- 53 Divisor Diviseur Zatikari
(«Banaketa-jabe», «Banatzallea», «Zatitzaille» ere aitatu dira. Ikusi «-ari» ontaz 36'an esana)
- 54 Cociente Quotient Zati. Zatiketa emaitza
(«Banaketa emaitza», «Zatiketaren ekarria», «Banakia», «Zatiketaren emaitza» ere aitatu dira)
- 55 Resto Reste Ondar
- 56 8 dividido por 5 8 divisé par 5 8 bost zati
8 entre 5
(«8'ren 5 zati», «8, 5 zati egin», «8'an zenbat bosteko», «8'k bostekotan» ere aitatu dira)

57	Submúltiplo o divisor (Ikusi «-ari» ontaz 36'an esana)	Sous-multiple o diviseur	Zatikari
58	2 es divisor de 4	2 est diviseur de 4	2, 4'ren zatikari da
59	Divisores comunes	Diviseurs communs	Oro-zatikariak
60	Máximo común divisor	Plus grand commun div.	Oro-zatikari aundiena
61	Mínimo común múltiplo	Plus petite commun div.	Oro-zenbakoitz txikiena
62	Número mixto («Oso-zatiki» ere aitatu da. Batzuen iritziz ez da «número mixto»-rik, bukatu gabeko batketa baizik)	Nombre mixte	Zenbaki zatiduna
63	Número primo («Ezin zatitua», «Zenbaki zatiezina» ere aitatu dira. Egi-egiz «número primo» ez da zatitu eziña)	Nombre premier	Zenbaki zatigaitz
64	Número compuesto («Zenbaki zatiduna» ere aitatu da)	Nombre composé	Zenbaki zatikor
65	Quebrado o fracción	Fraction Nombre fractionnaire	Zatiki
66	Numerador («Gañeko», «Gaineko», «Zatigai», «Goi-aldeko» ere aitatu dira)	Numérateur	Goiko
67	Denominador («Azpiko», «Zatikari», «Be-aldeko», «Behe-aldeko» ere aitatu dira)	Denominateur	Beko, beheko
68	Reducir a común denominador («Azpikoak berdindu»; itsusia)	Reduire a un commun denominateur	Bekoak berdindu Behekoak berdindu
69	Medio, tercio, cuarto, quinto («lauren»)	Demi, tiers, quart, cinquième	Erdi, eren, laurden, bosten... (heren)

70	Décima, centésima milésima...	Dixième, centième, millième...	Amarren (hamarren), eunen, millen
71	Número decimal	Nombre décimale	Amarki

Galdera zenbait «Che» Gevara ta kristau-konzienziaz

Jakin, 27/28 zk., 1967

Urrillak zortzi egun zituela, igande eder baten goizeko seiretan, latitude haietan argia zabaltzen hasten den orduan, gaizto sakaildutako gerrillero bat boliviano «rangers» talde baten eskuetan erortzen zan. Zauritutakoaren egiazko nortasuna berehala jakin zan eta Camiri herriko etxe ta kale guztietan zehar zabaldu, berria, Ander Gevara, miriku arjentindarra ta matxinzale famatua zan, gudari arrapatua! (Urrengo egunean hil omen zan gizarajoa nahiz ta batzuek esan bolivianoak garbitu zutela, korapillo ta istillu guztietatik itzuritzeko).

Estraiña, mundua harrituta gelditu zan, berria ezin siñisturik. Ordurako Che Gevara'ri buruz, hainbat gezur entzuna baizan, ezen bere heriotza zalan-tzan jarri zuten aldizkari gehienek.

Baiñan handik egun gutxitara, alegia, emezortzi egunean, jendetza izugarri baten aurrean La Habana'ko «Revolución'eko» plazan, Fidel Castro'k berak egia osoa jakin arazi zion herriari.

Malkorrak begietan, bere adixkide maitetsuaren heriotza aize guztietara barreiatu zuen.

«Gure Che maitea eredu bat izango da aurrerantzean —esan zuen Fidel Castro jauna— gure herriarentzat ez ezik baita ere Amerika Latino-ko herri guztientzat. Hamar urteko edo hogeitau urteko gudate baterako, gerla baterako, bere bizia bera bezain luzea, prest zegoen, Che Gevara. Aurrera jarraituko dugu eta bere heriotzagaitik erronka jotzen hasi diran inperialistak oker dabiltzala laister ikusiko da».

Berehala miñezko telegrama ta gutunak alde guztietatik heltzen hasi ziran Cuba'ko Herri-burura.

«Martiri bat izan da, Luzaro izango degu gure gogoan» —zion «L'Unitá» Errroma'ko aldizkari komunistak.

«Herri guztien askatasunagatik hil da Che Gevara» —azaltzen zuen URSS'ko Partidu Komunistaren idazkaritzak.

Bumedian koronelak, Arjelia'tik mensaje eder bat bialdu zuen Gevara'ren oroipenez. Ta alde hartan bertan egoten zan Amerika'ko Stokely Carmichael estudiante beltzak, azalpen hauek egin zizkion hango eguneroko baten idazleari: «Che Gevara'ren odola herri askoren askatasunerako elikamendu izango da».

Régis Debray idazleak, ere bai, oraindik kondenatuta ez zegoena, Guayaquil'eko «Vistazo» aldizkariari agerpen garrantzidun batzuek egin zizkion, beste gauzaen artean hau ziotenak: «Ba liteke Che Gevara ta biok oker egotea, eta guk egindako hutsak nozitu beharko ditugula, eginkizun hauetan sartzen diran guztiak bezala. Gevara hil da. Ni zigor astun bat hartzeko zorian nago, baiñan, goiz edo berandu, beste burrukariak sortuko dira eta inperialismoa azken ondameneraino gudukatuko dute berak».

Eman dezagun esakizun guztiak aldekoak izan ez dirala.

Alde batetik, eskubiko jendeak, batez ere yanki'en alde jokutzen dutenak, Che Gevara bandido bat besterik ez zala esaten dute. Bestaldetik Venezuela ta Bolivia'ko Partidu Komunistak Gevara abenturista ta Kijotetzat dute ta bere gerrillako lana ez dute aspalditik onartzen. Hauek diotenez, hango herriak ez daude prestatu horrelako matxinada egiteko ta Che Gevara'ren entpresak potu egin behar du nahi ta nahi ez.

Ez ote du ba, beraz, meriturik batere izango gizon honek bertako eskubi-koak eta ezkertiarak —Castristak kanpo— batera salatzen duten ezkerro?

Gizatasun saietsetik, politika alde batera, ba du Che Gevara'k zerbait merezi, bere adiskideen alde ta ona zeritzaion kausaren alde bizia eman baidu, baita gogoz eman ere, Bolivia aldera joan zanean, ba zekielako zer sasitar-tean sartzen zan ta nola bukatu behar zuen bere abenturak. Honelako konportamendu ta bi-zikerari begi onez begiratu behar zaiola ez du iñork ukatuko.

Bestela izango da, jakiña, Che Gevara'ren burruka politikako efikaziaren aldetik neurtu ta aztertu nahi zaionean.

Amerikako gaitzak sendatzeko edo gehitzeko izan ote da Ernesto Gevara'ren lana? Guztiz zalla da galdera honi erantzuna ematea. Ondorenak erakutsiko du, noski, eta seguruena izango da Amerika latinaren arazoak, orain baiño nahastuagoak izan ditezela datozten urtetan.

Beste saietsetik nahiago nioke nik Che Gevara'ren gaiari jo.

Nik galdera bat egingo nieke nere irakurleei, kristau diranei batez ere.

Zer esaten dio gaur kristau konzienziari Gevara'ren heriotza gertaera negar-garri honek? Zer esaten diote kristau konzienziari Camilo Torres apaiz zanaren

eta beste gerrillero kristauen eta ez kristauen heriotzak? Reboluzionarioak eta bandidoak zirela esanaz kitatuko al gera kristauok?

Horrelako galderak ez dizkiet egingo, jakiña, kristau aburgesatu ta ondo instalatueri, ezta ere nere gaztearoan «bien pensant» deitzen zitzaiereri.

Bañan ba daude, Jainkoari esker, bere kristautasuna gaurko egunaren arauaz bizi nahi duten egiazko kristauak.

Gevara'ren lanak, beste ekarririk izan ez badu ere, kristauok Amerika latinaren naigabe ta miseriaz konzienzia hartu dezagun balio izan balu, bulartsu horren odola etzan alperrik ixuriko. Ez bere odola, ez bere lagunen odola, ezta ere gudate hontan erori diran Boliviako soldaduen odola, guretzat odola guztiak sari ta errespeto berdiña merezi bait dute.

«Gure herrien bidegabeak zuzendu ditezen, inorren odola ixuri behar da» esaten zuen, aspaldirik ez, nere adixkideen batek. Bañan zer odola? Noren odola? Martirien odola edo gudarien odola?

Nik ez det uste kañoiak ta bonbak herrien zuzentasuna ta zoriontasuna ekarriko dituztenik.

Kañoiak ta bonbakitsuak dira ta, nork esan du hoiak berak kausa onera lagunduko diotela? Hau pentsatzea guztiz zentzugabekoa iruditzen zait, nahiz kristautentzat nahiz komunistentzat. Herri pobreak, proletarioak, galtzaille aterazen dira gerla guzietatik. Aberatsak berriz beti garaille.

Reboluziozaleak gudaren bideari jotzen badiote, nork bermatuko die garai-pena? Halabeharrak? Kasualidadeak?

Biolentzia, gogortasuna, beharrezkoa da, bai, gure mundua zuzentzeko. Bañan zer nolako gogortasuna? Hori da ta hori izango da, gaur eta biar, problema izugarria. Batez ere ebanjelioko politika edo kristau-politika baterako.

Izugarriak ta ugariak dira Amerika latinaren gaitzak: politikazko kazikismoa edo, han esaten duten bezela, «hejemonismoa»; jankien inperialismoa; gosea ta jakin-eza; latifundioa ta lurraren lantze bakarra edo monokultiboa; egiazko klaseen konzienziaren eskastasuna; siniskeria ta sasi-erlijiotasuna, aberats ta jauntxoeri beti lotuak daudenak...

Reformismoaz, «konformismo» izena hobe izan zitekean orainarteko reformismoaz, asperturik dago Amerika latinako jendea. «Alianza para el progreso» zeritzana progresorik gabeko alianza soilla gelditu dala diote hango herri askotan.

Yankien politikak ez du jokatzeko Amerika herrietako interesen alde, jakiña, beraien interesaren alde baizik. Eta hau ikusten dutenak gero ta ugariagoak dira ameriketarren artean.

Zer egin? Nundik hasi? Hoiiek ziran, izan ere, Lenin'en galdera famatuak, hirurogei ta bost urte direla. Bañan orduko Rusia ez da gaurko Amerika, eta gaurko URSS'a ez da Marx eta Lenin'ek asmatutako Estado komunista.

Nundik hasi? Zer egin?

Che Gevara ta Fidel Castro'k beren erantzuna bai eman dute, ez bakarrik hitzez, baita egilez eta odolez ere. Iñork ez du ukatuko gizon hauen kurajea¹.

Hala ere, efikaziaren aldetik ez da garbi ikusten Cuba'ren aventuratik sortuko dana.

Galdera hoiiek zerbait esaten diote, noski, kristau konzienziari.

Amerika egoeraren aurrez, antziñako moralaren, moral indibidualistaren ikuskerak ez dira nahikoa. Ez gertatu buruz, ezta ere matxinadari buruz.

Aita Congar'ek esan du, Munduko laikoan batzarrean, rebozazioari buruzko teologi bat behar-beharrezkoa degula. Bere hitzak hauek izan ziran, gutxi gora bera:

«Rebozazio berbak esanahi ezberdin asko dauzka. Ezargia ta nahaspillatsua, eta, batean, explosiboa da. Bañan horrexegatik komeni da bera aztertzea, teologiaren aldetik. Izan ere, gaurko egunean moralaren zati batzuek sail koletiboari ezartzea nahi-ta-nahiezkoa degu. Esate baterako: aspaldiko tesis ezaguna da gizon goseak-hil batek mantentzeko behar dun janaria hartu dezakela, iñork lapurtza ezin salatzen. Tesis honek, zer emango luke gaurko populu gosetien egoerari ezarriko bagenio?».

Eta aita Congar'ek jarraitzen du: —frantzesez emango det labur egiteko— «Le Saint-Père ne cesse de nous dire que le nom même de la paix est, aujourd'hui, développement. Mais qu'en est-il en fait? Il serait très injuste de dire qu'il n'en est rien, mais dans combien de cas, dans combien de régions, ceux qui prendraient vraiment aux sérieux ces enseignements ne seraient ils pas taxés de communisme et pratiquement obligés, même par l'autorité ecclésiastique, de s'arrêter ou de se mettre en situation irrégulière?».

Nik ez det uste ebanjelioaren erantzuna fusilla artu ta mendira ateratzea izan ditekianik.

Nik —berriz ere esan— ez det uste kañoiak ta bonbak herriari zuzentasuna ta zorientasuna ekarriko dietenik, baizik gaitz ta nahigabe izugarri asko.

Bañan, ziur nago, imperialismo ekonomikoaren gorputzila igarotzen ikusteko elizako atarian eseritza ebanjelioko postura ez dala.

Eta moralista ta teologoeri egiten diet galdera: kristauen bidea, nundik?

-
1. «Le Monde» egunkariak dionez, gotzai brasildarra dan Batista agurgarriak —emezortzi gozaien idazkiaren idazleetakoa bat— hau esan du, oraindik orain: «Le courage de la petite Cuba face à l'impérialisme international peut constituer un exemple pour l'Amérique latine». «Presque tous les pays ont peur d'affronter l'impérialisme international et en particulier celui des Etats-Unis».

Irakurle adixkide bati

Zeruko Argia, 201 zk., 1967-01-01

Nere «Dizdirak» aspaldidanik ez dituzula irakurtzen esaten didazu. Baita oso ondo esana ere, nik idatzi ez ditudanak zail xamar zenuelako zuk irakurtzea.

Gizon oso «lanpetua» naizen aldetik, amaika aitzaki agertu nezaizkizuke ontaz. Bañan kezkatu egin naiz zuk esandakoaren ondorez, eta batere aitzakirik ez dizut azalduko.

Zuk esaten didazunez, bederik irakurle bat daukadala ziur nago orain, zerau zerana, alegia. Au ezta mespreziaztekoa, gauza andia izaten bait da idazlari barentzat, irakurle bat arkitzea.

Egiztatua dago, izan ere, euskal irakurleak baiño euskal-idazleok ugaria-
goak generala. Guztiz tamalgarria oi da idazle batek bere buruari irakurri bear iza-
tea, beste irakurlerik ez arkitu-ta. Ori dala-ta euskal-idazle geienok beti ari gera
irakurle baten billa.

Eskatasun onek gogarazten dit «‘Buscón’ en Bizian» Quevedo’k kondatuta-
koa, Dómine Cabra etxean gertatzen zana eta onen ikasle goseti gizarajoak nola
ibilli bear ziran burrukaz, txitxiro soil bat arrapatzen saiatu-
rik.

«Noté la ansia con que los macilentos dedos se echaron a nado tras un gar-
bazo huérfano y solo que estaba en el suelo».

(Ingurukeri au barkatu. Goazen arira).

Zure gutuna irakurtzen nintzalarik, pentsatu det zu zerala nere gaurko
txitxiro-irakurlea.

Itzetik arrapatu ta euki zaitut, adixkide!

Zuk esandakoak kezkatu utzi nau benetan. Eta uste det nere euskal-lan apa-
lak ez dutela uts-egin bear aurrerantzian «ZERUKO ARGIA’n».

Jakin arazten dizut, ordea, «Dizdirak» ez direla jarraituko ateratzen. Gure
egunak ain illunak dirala-ta dizdikeriatarako prest ez gaudela esan dit gaz-
te-naiz-tar batek. Au ere ganbiatu bear degu beraz.

Nere idazti-mota berriak «EZKUTITZAK» artuko du izentzat. Eta ez bakarrik izena, egiazko gutunak izango dira ere nere emendik aurreko idazki oiek.

Zer esateko badegu guztiok, eta gañera, beti edo besteari, adiskideari naiz etsaiari, noizean bein ezkutitz bat izkiribatzea komeni da barnea zabaltzeko.

Gisa ontan, beintzat, ezkutitz bakoitzaren «destinatarioa» —artzeduna dio Aita Mujika'k bere iztegi yayoan— izango det irakurle, gaur zu izan zaitudan bezela.

Gipuzkoa'ko erri koxko batetik deitu didaten nexka-mutil batzuentzako izango da nere urrengo ezkutitza, Jainkoa lagun.

Millaesker zure irakurtzeagatik. Urrengo arte.

Nexka-mutil talde bati

Zeruko Argia, 202 zk., 1967-01-08

Ajologabekeria ta ez-jakiña dira gure erriaren gaitzik andienak. Zer edo zer egin bear da, zuen iritzian, baita nerean ere, egoera tamalgarri orri arpegi emateko.

Erri baten neska-mutil talde bat zaudetenez, zuen jokaerak ospe ta omen andia ezin izan dezakela, esaten didazute. Bañan borondate ta gogoaren aldetik, su ta gar zaudete prolemari ekin nairik. Egoera onen aurrean, ez dezute besoak uztarturik egon nai. Zuen barneko eztenak etzaituzte pakean uzten.

Ondo esana, nexka mutil oiek! Neri ere, ezten berorrek beti ari nau zirikatzen, eta nere eriotz ordurarteraiño ala dedilla Jaingoikoari beti eskatzen diot.

Esku artean darabilkizuten eginkizunetan, bat dezute lenengoa, oraingo ontan beintzat, erri jakintzaren aldeko itzaldi lerro eder bat prestatu eta antolatzeke, alegia.

Bañan zuen asmoari buru emateko, irakasle ta idazle batzuen laguntza bear dezute, nai ta naiez, eta neri ere deitzen didazute zuen errian «predikatzer» joan nadin. Izlariak arkitzea oso zaila dezute-ta.

Zuen prolema ezta bakarrik zuena. Beste erri askotan eragozpen ber-berak topatzen omen dituzte sail ontan. Ah, zein uzta ederra eta zenbat langille eskasa!

Oraindik orain, zure gutuna irakurtzen ari nintzalarik, burura etorri zait besteek eta guztiok sarritan esandakoa, alegia, gaurko gazteak zozokeriak besterik ez dutela pentsatzen.

Bai noski, buru-ariñ asko daude nexka-mutilletan. Bañan orrek ez digu ezer erakusten. Zuek bezelako gazte prest ta errikoiak erruz agertzen dira ere errietan, eta bearko zutekean laguntza ez dute artzen, zaharren aldetik.

Gazteak txoruak zeratela? Zaharron baiten txakurrak oñutsik ibiltzen dabilzate ere! Zenbat eta zenbat itzali-andiko gizon aburgesatua, erriaren ondame-na bost ajola zaiona! Gaurko «sociedad opulenta» dalako ontan erosotasuna ta seguridadea omen dira abururik andienak.

Gauza guzti abek oso ezagunak dira eta ezta ontaz insistitu bear. Bañan utzi nazazute oartxo bat egin dezaizuedala, zorotasun gai oni buruz. Zure kultura-ren aleko lanetan asiko zeratenean, arrazoia neukala ikusiko dezute.

Umekerietan eta lelokerietan ibilli ziñaten artean, txoriburuak deitzen zizueten. Orain, benetako lanetan, jakintza ta erriaren aldeko lanak egiten asiko zeratenean, txoriburuak ez ezik, baita eroak, egiazko eroak, ero gaizkarriak, deituko dizuete.

Erriaren nagusiak, erotzat artuta, erotegian sartuko zaituzte azkenean. Chesterton'ek «Billa ta Gurutzeta» izeneko nobelan bezela. Nolanai ere, etzaitzte bildur. Gaurko egunean erotegietan ere, «konfort» eta erosotasun ederra egoten bide da, asko dakin adixkide batek esan didanez.

Agur adixkideok. Laster joango natzaizute.

Cardenal agurgarri bati

Zeruko Argia, 203 zk., 1967-01-15

Berorrek Gabon-eguneko itzaldian berri esandako itzak, ez bide dira ondo erori.

Nik baiño berorrek obe dakionez: Metz'ko apezpikua arriturik gelditu da berorrek esan duana jakitean, alegia, Vietnam'go gerlaren atera-bide bakarra ameriketarren garaipena dala.

Au dala-ta, beste Europa'ko apezpiku batzuek, naiz ta berorren izena aipaturik gabe, gai ontaz Elizaren egiazko pentsaera gogoraztu nai izan dute.

Egunkari katoliku askok, beren naigabea azaldu dute, zorigaitzeko itz oiengatik.

«Osservatore Romano'n» zuzendaria dan Manzini jaunak, idatzi du —ingurumari asko erabilliz, au ere egia da— gerlaren goraberataz mintzatzeko ta arengak botatzeko, Gabon-eguna aldirik ez-egokiena zala.

Berorren errian bertan, «New York Times» berak, eztu begi onez ikusi, Elizako agintari batek, Paulo VI'n irakaspen argitsuetatik urrutiko egoera bat artzea.

Guzti au soberaz daki berorrek.

Barkatu, baiñan, Kristau utsa, Kristau batere elizmaillarik gabeko naizen aldetik, ezer esan naiko nuke nik ere ontaz (ZERUKO ARGIA'k New York Times'ekin alderatzerik eztula jakin, ba dakit, baiñan bakoitzak bere jokia, naiz andia naiz txikia, egin bear du mundu ontan).

Izan ere, oraindik orain txunditurik gelditu naiz, beste berri bat irakurtzean. Dirudienez, Manila'ko San Cristobal'en elizan elizkizun batean, berorrek esan du Jaungoikoari komunisten kontzientziarentzako argia eskatzen diola. Bai «beren» kontzientziengana goiko argia etorri dedilla, eta len-bai-len pakea eskatu dezatela.

Komunistentzat argia eskatzea, ondo dago, noski, argia, guztientzat gauza ona dalako, bañan ameriketarren kontzientziak nun uzten dizkit, berorrek, otoitz ortan.

Baliteke ango gobernuak goiko argia artzeko «hilo directo» bat zeruakin izatea. Nik eztakit, gaurko egunean ainbeste gauza miragarria ikusten da-ta!

Bañan nundik ateratzen dute katoliku ameriketarrek ziurtasun ori? Nola dakite Jaungoikoa berekin dagola eta etsaiak erru guztia dutela?

Egia esanaz, au gaurko prolema ezta bakarrik, Elizako gizon geienak, gerla guztietan eta aro guztietan, gauza berdiña egin dutelako. Beti beren errien armadaekien izan dira. Au «naturala» da, oso, ez ordea «sobrenaturala».

Urte gutxi dala «Zibilizazio kristauaren defentsaz» asko mintzatzen zen. Eta geiegi daki berorrek Hitler zala ordu artan zibilizazioaren zaiñarik nagusiena.

Bera zan, gende askoren iritziz, liberalismo, marxismo ta gaurko lizunkeri guztien kontrako zigorra ta defengillerik andiena.

Orduan ere, asieran beintzat, Alemani guztiaren apezpikuek, orixe esaten zuten. «Komunismo aurkako gudatean, Hitler da kristautasunaren salbazioa bakarra. Zuek ere, kristau zeratenez gogorra egin, Alemani'ren garaipena lortzeko». Eta apezpiku geienak izan ziran luzaro Hitler'en serbitzari zintzoak.

Eta gero, zer gertatu zan? Ez oroitzea, obe.

Orain, batzar-nagusiaren ondoan, ez genituke berriro apezpikoak ikusi nai, «gure gudarien alde» ekiten, baizikan «gizon guztien alde, zorigaiztoko jende guztien alde», Elizak berak erakutsi digun bezala.

Barkatu, jaun agurgarri ori. Uste det berorren errian euskaldunaren bat izango dala gutun au ingelesaz biurtzeko.

Marxista itxurazko intelektual bati

Zeruko Argia, 204 zk., 1967-01-22

Zure artikuloa, Madrileko aldizkari batean atera dezuna, etzait guztiz ondo erori. Barka zaidazu orrelako kirtenkeria, baiñan eskutitz au irakurtzen jarraitzen badezu, ez ondo erortze onen zergatia laster jakingo dezu.

Idazlearen legerik nagusienetako bat argitasuna izan bear dalakoan nago. Idazle batek, irakurleak ulertu dezan gisaz iskribatu bear du beti. Ez ikusi-makusitan ibilli.

Badakit, sail ta mail asko direla idazkietan, eta, nik esan bear berria dedana, kasu bakoitzari dagokion neurrian, ezarri bear zaio.

Zure pentsaera-egitura, zure arrazoiak erabiltzeko era, marxista da, agiriz. Bestalde, zure burua marxistatzat artzen dezun ala ez, nik jakin eztakit; orrek eztu ajolik, ordea. Marxista izateko eskubide osoa dezu. «Zuk zure lekuan egizu lo, nik neure lekuan egingo det-eta». Ontan ez datza nere koxka.

Egia esan, zure izkerak aljebra berria dirudi; erdia, gutxienez, ulerturik gabe gelditu naiz, zure artikuloan. Zu ere teologua biurtu al zaitugu, edo?

Zure idazkia irakurtzean, Elizaren izkerari buruz nik amaika bidez esandakoa bururatu zait. Baldin, gaurko munduari mintzatzeko ezin-ulertuzko izkuntz bat erabiltzen jarraitzen badu, zer egiñik bat ere eztu Elizak.

Beste izkuntza, eskolastikakoa baiño ulergarriagoa, adi-errezagoa, erabilli bear dute Eliza-jendeak, oraingo guda ez badute galdu nai. Alaxe pentsatu det, aspaldidanik, eta, amabost urte da, ori esan nuala, «Centre Catholique des Intellectuels Français» agiriko batzar batean, «La Mutualité» «salle» dalakoan.

Gero batzuek «batzar-nagusia», eta besteek «konzilioa» deitzen dutena, etorri zan, ta bai zorionez etorri ere. Eta, begira nun, batzar onen jo-mugarik andienetako bat orixe izan da, ain zuzen ere: Elizaren izkuntza aldatzea, moldatzea, egokitzea, gaurko munduak Elizaren irakaskintzak ulertu ahal dezan. (Siniistu edo ez sinistu, ori beste lelo bat da).

Zuek, marxista itxurazko intelektualak, erabiltzen dezuten izkuntza, gero ta ulertzaillagoa da, berriz, eta au oso señaletxarra da, nere iritzi apalean, egiazko erriaren gero ta urruñagoak zeratela adierazten dulako. «Círculo de iniciados» batentzat bakarrik idazten al dezute?

Zenbat eta argiagoo izkuntza, ainbat eta garbiagoak marxista-kristauon arteko artu-emanak.

Eta ez naiz ni bakarra ori pentsatzen duna.

Marxista teorikoen izkuntzari buruz, au esaten zuen, izan ere, oraindik orain, Georges Lavau idazlariak, «Esprit» aldizkarian: «C'est un idiome très rigoureux, difficile, logique, qui place très vite le non-marxiste, essayant de dialoguer avec le communiste, dans une situation presque sans issue».

Orregatik, esan dizudan guzti orregatik, etzait ondo erori zure artikuloo. Utzi zazu, otoi, aljebra berri ori eta mintza zaitetz... «kristaueraz».

Espero det, eztezula nik esandakoo alde txarretik artukoo, ni obe bearrez bait nabilkizu ta. Agur.

Aspaldiko sozialista eibartar bati

Zeruko Argia, 205 zk., 1967-01-29

Atera berria dezun «Metafísica a Urcola» liburua, burutik burura irakurri det, eskuetatik utzi gabe, erderaz esaten dan bezela.

Etzindudan ezagutzen, enaiz zurekin mintzatu, iñoiz ere; baiñan idazti au leitu ondoan, antziñako adixkide zaitudala deritzait. (Barkatu ateraldia).

Zure ta nere gogaketak, sail berean omen dabilta. Gauza bat ipintzen dezu filosofiaren erdian, gizona, alegia. Personalista zera zu, ni bezela, oker ez banago.

Izan ere, Emmanuel Mounier idazleak, au idatzi zuen, 1946 urtean: «On peut être chrétien et personaliste, socialiste et personaliste, et, pourquoi pas? communiste et personaliste, si l'on est communiste d'une façon qui ne contredise pas aux valeurs fondamentales de la personne».

Eta, beste toki batean («Qu'est-ce que le personalisme?» liburuan) au ere iskiribatu du berak: «Personalisme n'est pas opposé à socialisme ou à communisme. Tout depend de quel personalisme, de quel socialisme, ou de quel communisme il est question».

Arrezkero, naiko euri egin du, eta nik ez det oso ondo ulertzen, gaurko egunean, egiazko komunista eta benetako personalista batera izan ditekenik. Dana dala, Mounier'ek esan zuelako, bere arrazoiak izango zituen ortarako.

Zure gizonari buruzko ideiak zabalak dira. Errealitate guztietara —naiz ikusgarri, naiz ikusgaitz— zabaltzen da zure pentsaera.

Derrigorrezkoa da, izan ere, orrelako zabaltasuna, egiazko personalismo guztian.

Bestaldetik, zurentzat, persona ezta astrazio bat, zerbait guztiz konkretua baizik.

Batez ere, liburu orren, irugarren ta laugarren atzalburuetan, au da «El mundo visto desde dentro» eta «Cuando el hombre es el sujeto de la experiencia» izenekoetan, argiro ikusten da zure personalismoa.

Gizon unibersalaren aldetik bizia ikusi ondoren, zure baitan sartzen zera berriro, eta gizonaren barneko prolemak, berriz ere aztertzen dituzu. «El hombre que ahora discurre en esto que va a seguir, soy yo, yo mismo, vestido de carne y hueso, que vivo aquí en este lugar en que sufro» diozu deblauki.

Zuk egindako beste liburuan, «La experiencia socialista en España» deritzan idazkian, tituloari itz abek ezarri dizkiozunez oartu naiz: «vista desde mi pueblo». Bat natorkizu: gauza guztiak, baita ere sozialismoa, gure erriaren aldetik ikusi bear ditugu, nai ta naiez.

Zure Eibarreko «euskera internazionalaz» egindako liburua ikusi nairik nago. Agur adixkidea. Espero det zure ezagutza laster egingo dedala, personalki.

Ibon Sarasola olerkariari

Zeruko Argia, 206 zk., 1967-02-05

Itzaldi entzutekoa egin dezuna, euskal olertia dala-ta.

Solas ontan, antziñako ta gaurko euskal poesiari begikada bat egin diozu, eta benetako entzungarriak eta pentsagarriak irudi zaizkit zure iritziak, naiz ta «puritano» batzuek nabarmentzat artuko dituzte, noski.

Ala ere, nabarmenkeria bearrezkoa da nunbait, gure egunetan. Beste toki batean, idatzi berri dedan bezela, «gaurko egunean gauzak diran egoeran, txerrenak berak euskal baratzean, pixka bat anka sartzea, komeni izango litzake, apika, gure sekulako lozorrotik esnatu gaitezen».

Igaroa da, zure ustez, Lizardi, Orixe ta Lauaxeta'ren belauna. Guztiz aitua degu, onezkero bear zuen guztia eman bait du berak. Gure aroak olerti berri bat eskatzen du, ta alperrik dabiltz aspaldiko olerkarien antzarleak, imitadoreak.

Olatu berriak, Gabriel Aresti du, buru ta sortzaille, Lete ta Mikel Lasa dira, beste batzuen artean, Aresti'ren segitzaillerik argienak, eta bide berorri ekin bear diote gazteagoak, nai ta naiez, etorkizunari arpegi emateko.

Are geiago: norbaitek galdetzen baldin badizu, bien artean, Aresti ala Lizardi, olerkaririk onena dezunki, erantzuna batere zalantzik gabe egingo diozu: zure poeta, gaurko poeta, gazteen poeta, Gabriel Aresti da, alajaña.

Nere erara esan ditut gauzak, baiñan au da, oker ezpanabil, zuk esandakoaren mamia.

«Bai ausarkeri izugarria! Ezin eramanekoa da gazte orren itza!» —deadar egingo du baten-batek.

Nolanai ere, ezagutu bear degu guztiok, igaroa igaro dala, eta sekula itzuliko ezjala.

Ikusten dedanez, zuretzako, neretzako bezela, poesia ezta denbora pasatzeko jostallu polit bat. Zuek, euskal poetak, erriaren akullu izan bear zerate, antziñako profetak izan ziran bezela, ala izan bait da beti erri zorigaiztoko guztietan.

Zuen zama, zuen responsabilidadea, izugarria da, eginkizuna ziñez artzen dezuten ezker.

Zure itzaldia entzun ondoan, «Biotz begietan» eta «Harri ta Herri» idaztiak, nere liburutegian artu, ta biak batean irakurtzen ari naiz, arratsean, ia argi urratzearte.

Au alde izugarria!

Batzuek ez omen dute ulertu nai, berrogei urte ontan, dana aldatu dela. Aldakuntz larri au eztute onartu nai. Bañan «errealitatea» gure ametsak baiño indartsuagoa da; begiz begi jartzen zaigu eta guk ez ikusi egin!

Eta nola izango zitzakean denbora berri ontan, poesia ez aldatzea? Gaurko gizonari atzoko berbakin, nola mintzatu?

Bi belaun oietan, nik enuke esango «au da onena», «ori da txarrena», baizik «au gaurkoa da», «ori atzokoa». Edo «Historia, ortik igaro zan» eta «Historia, emendik igarotzen ari da, andik igaroko bide da».

Zergatik gure jendea joku-kanpoan, offsiden, beti izatea?

Au da nere pentsaera gai orri buruz. Uste dedanez zurekin bat nator, mian beintzat. Bildurrez nago orain, ni ere herejetzat artuko nautela.

Agur adixkide, zorionak ta jarrai.

«Snob» bati

Zeruko Argia, 208 zk., 1967-02-19

Lengo egunean zu oso «snob» zerala esan didate. Oso pozik nago berri au dala-ta! Gaurko egunean, merezi dun gizon batentzat bearrezkoa omen dalako, izan ere, adixkide «snob» bat, bat gutxienez, izatea. Egia aurretik, adixkide ori! Nere «snobetasuna» eskasa da.

Ez esan iñori, bañan, Simone de Beauvoir'en «Bigarren Sexoa» liburua ez-tet oraindik irakurri. Eta estrukturalismoari buruz, izena entzun doi doi egin det. Oteiza'ren hiperboloidea dana, jakin ba nekien, baiñan ahaztu zait. Zure snobetasuna ziurragoa iruditzen zait, nerea baiño.

Egia esan, «sasi-snob» asko dabil gaurko munduan eta kontu andiz ibilli bear da gai ontan, ez okerrrik egoteko. Lengo astean ere, gezurrezko «snob» bat etorri zitzaidan etxera, eta «snob» zala, esan ta esan, ari zitzaidan. Baiñan nik «The book of snobs» izeneko liburuan begiratu ta gizon iguingarri ura snoba etzala laster gerri nuen. Eskalletik bota nuen bereala.

Sasi-snobak alde batera utzita, snobetasuna oso zabalduarik omen dago gaurko egunean. Baita snob motak amaika dira ere. Ba daude lenengo klasekoak ta bigarren klasekoak. Goiko maillakoak ta beeko maillakoak. Itxasokoak, aidekoak, lurrekoak eta lurpekoak, Apaizak eta zibillak. Erregistruan iskriturik daudenak eta iskriturik gabekoak. Galgarriak eta kaltegabekoak. Snoben soiñekoa duten eta ez dutenak.

Oso zalla da jakitea gizon bat snoba danik ala ez!

Ba dago jaun bat, *Ionezku* duna izena (*Ionesco* izendunarekin ez nahastu, otoi) snobarekiko definizio eder bat eman duana. Bañan, tamalez, adiera au «sardanapalo» izkuntzan dago, ta nik sardanapaloera eztakit, «serdonopolo» deitzen duten izkelki bat, besterik ez, egiazko sardanapaloarekin batere antzerik eztuena.

Dirudienez sardanapalo au asko atsegin zaie «snob» guziei. Baldin sardanapaloa oraindik ez badakizu, ikasi utzezin gabe, oso «snob» dala-ta. Nere

adixkideen batek, egunero itz bat ikasten du, (bestela lan geiegi litzake-ta). Iurreun berrogei ta amabost urten barru, erreza izango du sardanapaloa jarritea.

«Apomitron» Apomitron! (Serdonopoloz esan nai duna: «Agur! Agur! Urren arte ta ondo bizi»).

Euskal idazle bati

Zeruko Argia, 209 zk., 1967-02-26

Dana gezurra izango dala uste det.

Marmartzale batek esan dit, euskal ortografi berri bat aterako dezula zure urrengo liburuan. Dirudienez, «c», «tc», ta «ch» izkiekin asiko zera idazten, antziñako idazteen antzera. Urrengoan «atcera», «guciac», «maitatcen», «etcitza-yon» ta orrela egingo dituzu beraz.

(Dana gezurra, noski).

Au erderaz esan oi da: «éramos pocos y parió abuela». Orainarte «h» izkia genuen prolema. Iskanbilla berri bat sortu nai diguzu?

Gure idaz-produzioa apala baiño apalagoa izaten da; izkuntzaren egoera, anarkikoa; idazleak, bakoitza bere aldetik, amaika euskalkiz idazten; irakurleak, eskribatzen dan apurra, ezin ulerturik... ta beste korapillo berri bat sartu nai de-zu euskal literaturan? Eztet ezer konprenitzen!

(Gezurra, dana gezurra, jakiña).

Oroitzen naiz, izan ere, lengo egun batean Rikardo Arregi adixkideak esan-dakoaz. «Guretzako bizitza dana, 'hobby-tzat' artzen dute beste batzuek!».

Neretzako, zuretzako bezela, euskera ezta «hobby» bat, arimaren barnetika-ko dei bat, ots izugarri bat, baizik.

(Egia esan, dei ori nundik datorren eztakit, bañan inundik etorriko da, noski).

Nik, gauza bera esaten nion, gutxi dala, poesiari buruz, Ibon Sarasola oler-kariari: poesia ezta denbora pasatzeko jostallu polita responsabilidade andiko eginbear bat, besterik ez.

Bañan nik «snobistatzat» ez al zaitut artzen. Zure idazlanak, olerti ta jos-taldi saillean batez ere, asko ederretsi ditut euskal baratzari, aize berriak dakazkitelako.

Beraz, pentsatzen aritu naiz: gizon ori «c» ta «ch» izkiak erabiltzen asi dan ezkerro (bear bada guztia gezurra), bere arrazoiak izango ditu berak ortarako.

Gure euskaltzaleak batasunaren bideari jarraitu nai eztiotelako, desbatusunaren bideari jarrai dezaioten, alajaña!

Agur, adixkidea. Uste det dana gezurra izango dala.

Jesu-lagun bati

Zeruko Argia, 210 zk., 1967-03-05

[...] Gañerako gaiak alde batera utzita (oietaz aritzeko aukera izango degu, noski) Arrupe'k jesulagun ameriketarren egindako idazkiak aipamen berezi bat merezi du, nere ustez.

Jesus'en Konpañian gauza arrigarriak gertatzen ari dira aspaldi ontan, nik baiño zuk obe dakizunez. Baldin, antziñako aita zorrotz agurgarriak, guk eza-gutu ditugunak, esnatu balitez, beren familia guztiz aldatua arkitu ta arriturik geldituko ziran!

Aize berriak nundik ematen duten jakiteko, aizeorraz ederra izan zerate beti jesulagunak. Habilidade ori guztiok ematen dizutegu, ta ala izan da, beti ere, Iñazio'k Lagundia sortu ezkeroz. Orrengatik, zuen gaurko aldakuntzak arretarik andienaz ikusten dute, mundu guztian, fededunak naiz siñezgaitzak.

Aita Arrupe'k gauza oso garrantzidunak esan ditu bere idazkian. Oiek berak Amerikako probintzi-aitaentzat esanak dira, jakiña, baiña beste errien jesulaguneri ere bai ezarri al dizkiegu, noski, besteak beste... Neri, jakingarrienak irudi zaizkidanak esango dizkizut bereala.

Idazki onen ateratzen det, Konpañiaren goiko mailletan buru batzuek direla, prolema sozialaren inportantzi izugarria oraindik aditu ez tutenak eta ori oso tamalgarria dala, Aita Arrupe'n iritzi az. Bestalde, klasismoa ta andiki-mentalidadea, oso sartuta direla oraindik zuen eskoletan, batzutan beintzat, eta ori len-bailen bukatu bear dala. Azkenean, jesulagunak nai-ta-naiezkoa dezutela zuen eginbideak berriz pentsatzea, abek, zuzentasunak eskatzen dunari erantzuten dioten ala ez, jakin dezazuten.

Egia esan, kalte ta kezka oiek konpañian ez ezik, Eliza guztian arkitzen ditugu.

Klaseko mentalidadeak galera ikaragarria egin dio Elizari, eta egiten jarraitzen dio ere, gure egunetan.

Nere gaztearoan «minorías selectas» ziralako oietaz asko mintzatzen zan katolikuen barrutian. Jesulagunak, batez ere, jokaera ori oso zale ziran.

Politika orren ondore txarrak gero agertu ziran. Gaurko gazteak elizatik aldegiten dira, gero ta geiago. Erlijiozko sendimenduak eztieta ezer esaten. Zuzenbidea ta aurrerapena, beste bidetatik iritxi nai dituzte. Materialismoak bereganatzen ditu. Batzuek, intelektualak batez ere, materialismo dialetikoari eta enpirismoari jotzen diote. Besteek, «dolce vita» ta atsegiñaren materialismoa-rengana aiertzen dira.

Kristau askok eztute au sinistu nai. Lo daude edo ez ikusi egiten dute. Begiak zabaltzeko, oso komeni litzaieke Aita Arrupe'n idazkia irakurtzea. Baldin kristau oiek nai duten bidetik jarraitzen bagera, bost atso eliz-zulo, besterik ez dira geldituko elizetan, urte gutxi barru.

Gaurko prolemeri arpegi emateko ideoloji modernu ta sendo bat bear degu. Naiz politikan, naiz pentsaera saillean lan izugarria degu kristauok, gure aurrean, egitekoa.

Pesimista enaiz ni inõlaz ere. Gaurko materialismoak aterik eztu. Andienaz aurrera dijoa, gainbera dijoa, nere ustez. Gaurko olatuari, beste olatu berriak jarraituko diote. Ispiritu ta Misterioak, beren lekua berriz ere artuko dute gizonen artean. Bañan ortarako aldatze izugarri bat egin bear da.

Nerekin bat etorriko zerala uste det. Agur aundi batekin.

Gabriel Aresti, adixkide ta idazle ospatsuari

Zeruko Argia, 216 zk., 1967-04-16

Adixkidea, berandu xamar natorkizu zure eskutitz agiriari erantzuna ematen. «Surmenage» dalako orrekin oporretan izan nauzu zenbait astetan. Aldi ortan gauza bat ikasi det, izpirituaren miñetarako lana baiño alperraldia txarrragoa dala, alegia. Ez pentsa, ez sendi, ez oroi... nola gerta diteke ori, bizi baldin bagera?

Dana dala zure gutunak lozorrotik atera nau.

«C» izkiari buruz diozuna bidezkoa irudi zait. Idatzi-joera berria ekartia izango dala diozu, euskerarentzat. Ala izan dedilla! Zure esan onek pixka bat baketu nau. Orixe esaten nuen neronek, ain zuzen ere, nere lengo eskutitzan: «gizon orrek onela jokatzen dan ezker, bere arrazoiak izango ditu ortarako».

Gañera, zuk, zure liburuetan, nai dezun moduz izkiriatzeko ezkoa dezu, jakiña.

Idazleari «margen de confianza» andi bat eman bear zaio, nere ustez, eta ez juzgatu bere obra ezagutu baiño len. Gero, berari lepo egin bear bazaio, lepo egiten zaio ta kitto.

Arrazoi dezu. H ta K ta C, ta kixkilkeri guzti oiek ez dute merezi gure denbora galtzea.

Baiñan, beste gai bat ba daukat ori baiño garrantzidunagoa, zurekin mintzatzekoa.

Adixkide jator ori: gizonetan argi ta garbi jardun bear da beti. Zure azkeneko idazkia «Bilbaoko erdal herritik» izenekoa, Egiguren gazteari jarria, etzait gustatu. Nere ustez, sofisma batzuek sartu dituzu, sail ortan bertan. (Barkatu, adixkidea, obe bearrez nabilkizu). Enaiz sartuko idazki onen buru-buztan guztietan, jakiña. Gauza bat besterik ez dizut aitatuko nere desakortea jakin arazteko.

Zure erderazko sonettoa ederra baiño ederragoa iduri zait. Bere ritmoa, bere soiñua, oso pollita da, benetan. Ez, berria, bere argumentoa. Zuk au diozu zure sonetan:

La voz no dice nada, sólo chilla.
 Es el pueblo de Uribe empobrecido;
 acá y allá nacido.
 Más allá de portales ve la villa.
 Desarrapada Miravilla.
 Neguri embrutecido.
 Deusto adormecido,
 Esto ya no es Vasconia; ya es Castilla.

Ez gizona, ez. Erri bat txiratua, lotua, zarpailla, astotua gorria dalako, Castilla izango da? Nundik atera dezu Castilla'ren iduri ori? Barkatu, baiñan zure silojismoa ezin onartu det. Castilla'ren aldetik nik protestatu bear det agerpen orren kontra.

Nik, erdi gaztelar naizen aldetik —nere aita zana alde ontara Burgos-etik etorri zan, ogei urte zituela, 1874 urtean ezin permititu dizut orrela mintzatzen.

Begira, Gabriel adixkidea, zuk soberaz dakizun bezela, zu bizi zeran erria ezta Castilla, iñolaz ere, euskal kapitalismoak Euskalerra biotzean sortutako mostruo bat baizik.

Nahaste-borraste izugarri bat, arimarik gabeko gorputz bat da, zuk diozun erria.

An-emendik etorri diran jendeak bere lurra laja dute, betirako utzi, eta beste lurra baten billa etorri dira. Biarko egunean, beren seme-alabak euskaldunak sentituko dira, zortzi izenak euskaldunak dituzten askok baiño geiago. Eta guk, Euskalerra ontan orain bizi geranok, zer eskeintzen diegu, zer eskeiñi ahal diegu? Nai ta naiez lur berri bat, txoko berri bat, berotasun berri bat.

Nundik atera dezu, Aresti adixkidea, iñork jende orri euskera bertaz eta indarrez erakutsi nai dionik? Orrelako gauza pentsatu ere, zeñek egin du?

Nik au esaten dizut. Kanpotar oien seme-alabak eunaka etorriko dira, eunaka, euskera ikastera, naiko euskal eskolak izango diran egunean.

Gizonak, gizon guztiak, lur baten amoreta bear dute, zugaitzak ta plantak bezela. Lurrik gabe ezta egiazko bizirik. Biarko edo etziko egunean, jende orren seme-alabak, ojuka eskatuko dute euskal kutsua.

Baldin jatorrizko euskaldunak ortaz ezpazitzaien mintzatzen, arriak ta odeiak mintzatuko zaizkie. Eta euskaltasun berri bat sortuko da bere biotzetan.

Nere ustez, Egiguren gaztea ain okerra etzebillen.

Luzeatu naiz, gutun au bukatu bear det.

Agur, adixkidea. Ni gizon paketsua naiz, etzait gustatzen burrukaz ibiltzea. Esan dizudana ez txarreysi, faborez.

Agur. Beste bat arte.

Gazte ezagutzeko bati

Zeruko Argia, 219 zk., 1967-05-07

Etzaitut ezagutzen. Zure izena ere eztaikit, bañan zure iskribatu modutik gaztea zerala ateratzen det ta gaztetzat jardungo natzaizu.

Zure izengabeko eskutitza, erderaz au esaten didazu, itz bat gora bera: «Nerezako aberria, lurra, izkuntzaren zaletasuna, oiturak eta tradiziñoak, danak gauerdiko ametsak, burgesiak asmatutako gezurrak, proletarioa menperatzekoak». Eta azkenekoan, au diozu: «Ni marxista naiz, ta alde ortik ikusten ditut gauzak».

Arriturik eta guztiz nasturik utzi nauzu azkeneko esan onekin. Nik sail ontan asko ezpadakit ere, ziur nago marxisten aburua ez tala «sabela ta sakela betetze» ori. Barkatu bañan zu etzera marxista, aldrebezko kapitalista baizik.

Zure pentsaera nik galdetu gabe, esaten didazun ezkeron nerea ere esango dizut, naiz ta nere iritzia amaika bider azaldu det, toki ontan bertan.

Nerezako, gizona, egiazko gizona izateko, «erroduna» izan bear da, alegia, zuaitz ta landare guztiak bezela, lur batean, erri batean, sartu bear ditu bere sustriak, etsimen gorrian erori ez dedin.

Emaiozu nai dezuna, dirua, aurrerapena, gizarte desalienatua sozial estrukturak ta ekonomiaren aldetik. Baldin famili baten eta erri baten, ta tradiziño baten berotasuna ta goxotasuna ezpadu, etsimenean eroriko da gizona ezinbestez ta alabearrez. Ori da gizon legea beti ta nunai. Emen, Errusian eta Txinan bertan ori da gure legea.

Baliteke zuk ideia abek atzerakoi ta konserbadoretzat artzea. Bañan nere pentsaera beste bidetik dijoa.

Izan ere, adibide bat bakarrik aitzateko, erro ta sustraien bearra ongi baiño obeto azaldu du idazle frantzes ospetsu batek, Simone Weil andreak, mundu guztian ezaguna dana bere gertaera ta liburuegatik.

Simone Weil andrea marxistekin artueman asko izan zitun, Frantziako «résistance» zalako garaian, baita emengo gerlan, alde ortatik parte artu zuen ere.

Proletario-zale izugarria zan eta froga andiak eman zitun bere maitasunez. Simone Weil andre burgesa zala iñork eztizu esango.

Berak, errotasuna, sustraitasuna, naitanaiezko gizonaren bear bat dala frogatu du, argi ta garbi, bere «L'enracinement» izeneko liburuan. Diruak, kapitalismoak, egiazko errotasunaren kontra jokutzen dula esaten du, Simone Weil'ek. «L'argent détruit les racines partout où il pénètre en remplaçant tous les mobiles par le désir de gagner». Kapitalismoak, lurraren mamia ta amorea galdu arazten die proletarioei, eta orrekin kalterik ikaragarriena egin ere.

Nunnaiko erritan, sozial matxinadak sustrai gabeko gizon mota berri bat sortzen baldin badu, gizonaren kontra jokutzen du ta lengoan baiño lotuagoa arkituko da jendea matxinada orren ondoan.

Irakurri zazu, arren, Simone Weil'ek idatzi ditun berrogei orriak «le déracinement ouvrier» gaiari buruz eta proletarioen naigaberik andiena deserrotasuna dala ikusiko dezu. Leitu ere «La condition ouvrière» liburua ta uste bera artuko dezu.

Adixkide ez-ezagun ori. Zure gutunak oso goibela utzi nau. Bañan ala da munduko martxa. Beti illunpetan ibilli bear gizona. Zuk nik bezela egiaren billa arrastaka ibilli bear dezu. Agur, adiskide izkutua.

Liburu irakurtzekoa

Zeruko Argia, 220 zk., 1967-05-14

«Les socialistes» izeneko liburuak on asko ekarriko die, nere iritziz, gure gazte urduri ta politikazaleri. André Philip'ek idatzi ta «Le Seuil» editorialak argitaratu berri du.

Frantziko ezker berrian intelektual entzuna ta itzali andikoa degu André Philip. Alderdi gabeko edo bere nagusiko sozialista.

Liburu ontan Frantziko sozialismoaren kondaira agertzen du berak, asieratik gure egunetaraño. Zenbat eta zenbat burruka, zenbat miñ eta oiñaze! Au meritu izugarria!

1.880 urtean, gora bera, sortu zan ango gizarte-alderdia.

J. Guesde izan zan bere sortzaillerik nagusiena. Gizon onek, London'en Marx ta Engels'ekin artu-emanetan ibilli ondoren, aien dotriñak sartu zituen Frantzian. Lengo sozial joerak, anarkistak ta sindikalistak alegia, luzaro iraun zuten ta ortik atera ziran amaika eztabaida ta inkimako. Benetako kondaira jakingarria.

Baiñan, nere ustez, azkenekoa da liburu onen zatirik interesgarriena. Egi-leak biarko sozialismoari ematen dion zatia. Mundu arazoan aurrean, sozialismo berriak nola jokatu?

André Philip'ek «quelques principes» edo iñarriak jartzen dizkio sozialismo berri orri. Lenengoa da, sozialismoa autatze bat dala, aukera libre bat, eta ez alabearrezko lege baten ondorena.

Marxistak, historiaren mugimenduak sozial matxinada ekarri bear dula nai ta naiez, esan oi dute. Eta nai-ta-naiezko mugimendu orren kontra egiten dan guztia, alperrik eta kaltez egiña dagola.

Ontaz oso bestelakoa da André Philip'en iritzia. Gauzak orren simple eztira.

Klase arteko burruka fedek edo ametsak langileen alde jokatu zuen sozialismo asieran, itxaropen bat eman ziolako menpeko jendeari. Mesianismotzat jokatu, lenengo urtetan. Baiñan gaurko erri aurreratuenetan, alako ametsa «un

facteur d'embourgeoisement» baizik ezta. Historiako sasi-mugimendu ontako esperanzak, langilleen indarra moteldu ta argaldu besterik ez bait du arazten, André Philip'ek dionez.

«Moralaren aldetik zuzen ta okerra dan kezka baztertuta, historiaren poerrari ekin dioten ala ez bakarrik pentsatzen dutenak, egiazko askatasun sentsua laster galduko dute. Libertadea salbatzeko, libertadez sinisten dutenak baiño gauza eztira».

Beste mito bat ezeztatu nai du Philipe jaunak, alegia, proletariadoa dala, ain zuzen ere, mundua salbatu bear dunik.

«Ontaz ez bait dago sorpen errugabea —'inmaculée conception' esaten du— ez langille klasea ezta ere beste nolanaiko klase probidenziala. *Egiazko sozialistak* menpeko ta beartsuen alde ekiten du beti, naiz ta abek langilleak propiki ta osoki ez izan».

Esanak eztio kentzen sozialismoari bere indarra, bestela, indar berri bat ematen dio. Ala ere, gaia luzegia da bear diran erakuspenak emen emateko.

Liburu au leitu ta egosi komeni da, dogma ta mito alperrikakoak bere tokian jarri ditzagun, batzuen dogmatismoan dagolako gaurko okerririk andiena.

Ikaslearen jorna

Zeruko Argia, 222 zk., 1967-05-28

Ba dago lege-oñarri bat guztiak onartzen dutena, teoriak beintzat. «Aukera berdiñetako legea» alegia.

Erreztasun berdiñak izan bear dituzten, mundura etortzen diran aur guztiak.

Naiz pobreak, naiz aberatsak, jakintzaren ateak zabaldu bear zaizkie gazte daneri.

Gazte bakoitzak, bere adimenaren eta bere arduraren arauaz, merezi dun lekua arkitu bear du Gizartean.

Au da teoria. Patrikan beste zakur batek zaunka egiten digu.

Gazte batek, berez argia ta ikasgura izan arren, baldin familia pobre batean jai bada, ezta karrera egiteko aukerarik izango.

Goiko irakaskintzaren gastuak nola pagatu?

Eta, bestaldetik, nola bizi, bear dan jorna etxera eraman gabe? Unibersidadean ibiltzen diran eun gaztetik bat bakarrik izan oi da langille-familiaren seme edo alaba. Au ezta arritzekoa, goi mallako irakaskintza «lujo» bat dalako gure artean.

Beka ta laguntza asko zabaltzen dira, bai, baiñan eskas ta ez-naikoak gurasoen gastu ta kalteak benaz ordaintzeko.

Gizarte ondo antolatu batean, gazte argienak eta arduratsuenak jarri bear dira ikasle, eta ez diruduenak orain gertatzen dan bezela.

Egunero ikusten ditugu gazte bikaiñ asko, lenengo mallako eskola besterik ez dutenak, diru edo ondasun faltagatik.

Eta, orde, beste gazteak, ikasteko batere gaitasunik eztutenak, amaika urte jarraitu ikasketan, bere familia ahalak dalako, geienetan batere protxurik gabe.

Langilleen seme alabak ikasi ahal izateko soluzio bakarra da idazlearen alogera edo jorna.

Ikasle beartsua, beste nolanaiko profesionala bezela, bere lan-saria artu bear du eta Gizartea, Estadia da, izan ere, alogera ori eman bear diona.

Ikasleak, bere eginkizuna benetan egiten baldin badu, Gizartearen alde jotzen du, eta ez bakarrik bere buruaren alde. Bere jakintza Soziedade guztiak gozatuko du biarko egunean.

Asmo au, ikaslearen alogera, oso zalla da oraingoz, jakiña. Gauzak osotoro aldatu bear dira joku ori lortzeko. Eta batez ere jendearen mentalidadea, aldatu bear.

Bañan len-bai-len, besterik itxaron gabe, saio batzuek egingo bear lirake orrelakoak.

Unibersidade bakoitzean ikasle pagadu, alogeradun, batzuek, berreun edo irureun, izango bear lirake.

Berak, Unibersidadearen enpleadotzat artuko zaizkie, ta bere eginkizuna ikas-tea izango zan. Ikaskuntza izango zan, gazte oien bizibide ta irabazpide guztia.

Estadu sozialista batzutan ikasleari langilletzat begiratzen zaio, baita arrazoi andiz ere. Baldin alegiñak egiten ezpaditu, fabrikara edo Siberiara bialtzen zaio lan egitera, ta kitto.

Bidegabekeri izugarria da emen gertatzen dana. Nai ta naiez, saiatu bear da egoera ori zuzentzen.

Apaiz jaun bati

Zeruko Argia, 224 zk., 1967-06-11

Lengo egunean zure errira joan nintzan, itzaldi bat egitera.

Nerea botaz gero, zuk, itza arturik, ia imigrante edo kanpotarren problema nola ikusten nuen galdetu zenidan.

Erantzuna etzan erreza, arazo orrek amaika arpegi ditulako, eta guztiak batean ikutu bear dira, gezurrezko agerketa bat ez egiteko.

Nolanai ere, nere iritzia argi ta garbi jakin arazi nizun.

Baiñan zu etzectorren bat nerekin, osotoro beintzat.

Beste lagun batzuek sartu ziran orduan eztabaidan eta, gertatzen dan bezela, iñork etzekien azkenekoan nundik zebillen.

Esan ziran gauzetan, bat ezaugarria iduri zitzaidan, au da, Andaluzi ta beste España'ko aldetan, jendeak, bere etxea utzita, kanpora atera bear dula, naita-naiez, bizi ahal egiteko, «lur aiek jateko eman ezpaidute». Itz batean, erri aietako seme-alabak erraldara kondenatuak direla.

Eziña uste au onatzat artzea. Ango lurra emengoa baiño emakorragoa izango da, noski. Baiñan, gai au alde batera utzi bear zaio, arazoa ez bait dago lurrean gizonarengan baizik.

Erri baten soluzioa erraldan ez datza, noski. Gizona da berriz aurrerapenaren faktor nagusia.

Orain arabetarrak ta israeldarrak burrukaz asi direla, alde artan gertatzen dan guztiak dakite. Naiz arabetarren eskuetan dauden lurak gorri ta soillak agertu, Israel'ko paisajeak lorategi bat dirudi. Eta lur berdiña da!

Arrazioa du Ortega y Gasset jaunak: paisajea gizonak egiten du, ez berriz paisajeak gizona egin.

Andaluzi ta beste España'ko lurretan lan izugarri bat egin bear da, batez ere irakaskintza saillean eta gizarte oiturak aldakuntzean.

Ezta egia nere konferentzi ondoan batek esan zuena, alegia, alabearrak lur aiek kondenatu dituztela. Asko egin diteke eta egingo da, Jainkoak lagun. Or degu iberiko erriok gure «Populorum progressio» lana.

Emen daukat, ain zuzen ere, begiaurrean, O.C.D.E.'k egindako plana, «Las necesidades de educación y el desarrollo económico social de España». Au egin-kizun ederra!

Informe orrek dionez, milla aurretik lareun bat besterik ez dira joaten eskoletara ego aldeko alderri batzuetan. Planak eskatzen du 1975 urterako milla aurretik bederatzireun eskoletara joatea lortu dedilla.

Liburu ontan amaika gauza garrantzidun arkitu ditut. Gure artean ere egoki izango litzake berak eragutzea.

Ontaz bat zatozkidala badakit. Baiñan esan dedana besteentzat esan det, gure errian ere astokillo asko bait dabil dirudienez.

Adixkide agurgarria, agur. Beste aldiz berriro elkar ikusiko degu, espero det. Benetan, lana ezta bukatzen eta ezta bukatuko mundu ontan, «sekula seculorum». Amen.

Estruturalismoa

Zeruko Argia, 226 zk., 1967-06-25

Estruturalismo dalako dotriña berri ortaz asko mintzaten asi da orain, Frantzia'n batez ere.

Sistema orretaz ezertxo jakitea komeni da, gaur eguneko pentsaerari bear dan bezela jarraitzeko.

Gai berori buruz «Esprit» illerokoak berri sortutako alea irakurtzeko gauza da. «Les Temps modernes» aldizkariak, illabete batzuek direla, argitaratutakoa baiño ornituagoa irudi zait «Esprit'en» azkeneko lumero au.

Gaurko filosofi positibistak matematikaren antza artzera jotzen du, sujetibismo ta historizismoaren arriskuetatik eskapatzeko biderik onena ikusten bait du joera ortan.

Bestaldetik Matematiketarak berak, arrisku berorretik iges egin naiean, «axiomatika» deritzan moldea artu du, azkeneko berrogeitamar urtean.

Axiomatika jokabidea «formalista» da, alegia, tankera ta antola besterik ez-tu ikusi nai gauzetako errealidadean.

Axiomatikazaleak eztituzte lenengo konzetuen definizioak, ematen. Sail ori tajugabekoa dala uste dute. Lenengo konzetuak, izan ere, nola adiarazi gauerdiko amets baratzean erorik gabe? Nola mugatu, esate baterako, «puntu» ta «zabaldia» konzetuak?

Orregatik, axiomatikazaleak, itzen esanaia alde batera utzi ta itzen arteko artu-emanak besterik ez dute azaltzen, jokatzeko ortan bertan dagolako, diotenez, konzetuen mami guztia ta bakarra.

Itz, sinbolo ta iduriak maneatu ta oiekin estrukturak tajutzen ta eraikitzen dituzte.

Bañan ez ezaiezute galde sinbolo ta iduri oiek esan nai duten, eztizuetelako erantzunik emango.

Beste jakintza bada ere eragipen aundia izan duna, sail ontan, linguistika, alegia.

Aspaldi ontan izkel-jakintzak bultzada izugarri bat egin du, au da, egiazko zientzia biurtu da, batez ere Saussure eta Hjelmslev'aren asmo-billaketeri esker. Beren iritziz izkuntza estrutura bat da ta linguistikan itz arteko artu-emanak besterik eztira azterkatu bear. Alde ontatik izkel-jakintza matematikatzat agertzen zaigu, aljebra berriaren itxura bera bait dauka gaurko linguistikak.

Bi eragipen oiekin, filosofia formalista biurtzen da, gero ta geiago. Sinbolo ta itzen arteko joku bat billakatu da, Viena'ko deritzan Eskolak marratu duan bideari jarraitzen.

Eta filosofi orrentzat, gizona, zer da? Itz bat, edo itz talde bat, besterik ez. Egiazko gizona ezta agertzen gaurko estruturalismoan.

Soziologian ta politikan estruturalismo jokabidea erabiltzen dutenak arrisku andian daude, gizonik gabeko Gizarte bat eraiki nai izatean.

Bukatu dezagun artikulu astun au. Esan degun guztia argitu, sakondu ta azalkatu bearko litzake, estruturalismoari buruzko ideei motza bat emateko. Irakurleak barkatuko nau.

Apaiza

Zeruko Argia, 317 zk., 1967-08-03

On Manuel Lekuona apaiza, lendabizi ta aurrenik, apaiz on-ona ta arima-za-lea degu, On Manuel agurgarria.

Ori dala-ta bere apaiztasunatzaz idatzi dezadala eskatu didate omenaldi onen antolatzaileak.

Gaurko apaizak zerbait konplejoak izan oi dituzte laikoekin artu emanetan, ta idazkizun ontarako beste apaiza baiño laiko bat obe eroriko zala pentsatu dute noski.

Eta nik, sail ontan gauza ez izan arren, baietz esan diet, egiazko anticlericalista naizen aldetik, apaizak beti atsegin izan zaizkidalako.

Apaizak eliz-gelan, au da, kristauaz itz egiteko, sakristian gelditu bear direla esan oi dute askok. Beste askok, berriz, apaizak langille jarri ta sozial matxinadaren gidariak izan bear direla uste dute.

Agure euskaldun zintzo batek au esaten zidan, izan ere, lengo egunean:

«Apaizak ainbeste gauza ikasi ta ainbeste saltsan sartu eztute bear. Meza eman, dotriña erakutsi, bataiatu ta konfesatu, beartsuei lagundu, illak obiratu... oiek dira apaizaren eginkizunik nagusienak. Lan oiek egiteko, jakintsuak izan ezta bear, gizon zintzo ta paketsuak besterik ez».

Baiñan gauza orren simple ezta, Jaungoikoari eskerrak.

Beste egun batean, batzar batean giñalarik, apaiz batek galdetu zidan ia apaiz geienak intelektualak ala profesionalak izaten diran. «Ortarako, nik esana nuen batzarrean, erriak gidatzen dituztenak profesional utsak eztira izaten, egiazko intelektualak baizik, bi gizon mota oiek oso ezberdiñekoak diralako... ta ortik sortu zan eztabaida».

Nik, apaizak intelektualatzat artzen ditudala erantzun nion ta batzuek arriturik gelditu ziran nere erantzunagatik, beren ustez, apaizak profesionalak bezela jokutzen dute geienetan. Baiñan ni nerean nago oraindik.

Dana dala, nere pentsaera argi ta garbi esan nai det ontan, alegia, gaurko munduaren naiak, asmoak, gogoak ta aspirazioak ezagutu ez ezik, senditu bear dituztela baitere apaizak, egiazko intelektualak senditzen dituzten bezela.

Batez ere, apaizak erri kultura senditzea ta maitatzea oso komeni dute.

Naiz Europa, naiz beste lurraldetan, apaizak ta mixiolariak izan dira askotan errien kondaira, oiturak ta izkuntzak landu ta lagundu dituztenak.

Eliza'k gizona maitatzen du, ez ordea gizon bakartia, astratua, gizon esistenzialistaren antzekoa, gizona gizarteduna baizik.

Lurra, familia, aberria, gizartea, bearrezkoak ditu gizonak, baita ere erlijioaren aldetik.

Orrengatik ezta gauza arritzekoa apaiz askok erri jakintzaren alde jo dutenik.

Gure errian ba ditugu eredu eder batzuek, euskeraren, Euskalerra-Edestiaren ta euskal oituraren alde jokatu diran apaizak.

Orrelakoak amaika aitatuko genituke nai izan ezkeru. Bere apaiztasunak ez-tu orrengatik ezer galdu, bestela, edertu ta anditu egin da.

Gaur omen ta ohore guztiak eman bear dizkiogu apaiz oien bati, apaiz on-ona, jakintsu errikoia ta langille arrastakaria.

Santidadea da, esan bearrik ez, apaizaren lengo nolakotasuna, baiñan santidadearen koroarik ederrena jakinduria da.

Gizonok esan dezakegun neurrian, On Manuel bi nolakotasun oien jabea da. Orrengatik ederra baiño ederragoa iduritzen zaigu bere aguretasuna.

«Erranen» liburuan, Testamentu zaharra Duvoisin kapitañak euskeratuta koan, irakurri ditudan itz abek, On Manuel'en omenean aitatu utzi nazazute.

«Dohatsu gizona zuhurtzia aurkhitu duena, eta umotasunez nasai dena. Haren biltzea hobe da asko diruz jabe egitea baino, eta urhe ederrenak eta garbienak ez ditu haren fruituak balio» (ERR 3.13-17).

Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka

Euskera, 13 zk., 1968

Antziñako euskal-hitzen arteko batasunerako Euskaltzaindiaren eginkizun batzuek

1. Euskal-hitz batzuek euskalki guztietan erabiltzen dira. Horrelako hitzak *orotarrak* edo *orotariko hitzak* deituko ditugu. Honezaz gainera, era edo forma berean erabiltzen baldin badira euskalki guztietan *erabatekoak* esango ditugu. Zenbait erabateko hitz grafia berakin idatzi oi dira euskalkietan, adibidez, *ama*, *adar*, *adin*, *aldatu*, *egin*, *errege*, *izar*. Hitz orotar, erabateko eta grafia bateko hauek, ez dute batere problemik sortzen, batasunaren aldetik beintzat, berak hizkuntzaren altxorrean aurkitu eta antolatzea ez izanik. Hontaz Euskaltzaindiari dagokion lana hitz hauen lista bat antolatzea izango litzake, besterik ez.

2. Beste batzuetan hitz erabatekoak ortografia desberdiñekoaz idazten dira euskalkietan, adibidez, *ikusi* ta *ikhusi*; *bei* eta *behi*; *bainan* eta *bañan*; *merezi* ta *merexi*; *kozka* ta *koxka*; *oilo* ta *ollo*. Esan dezagun, bidenabar, desberdintasunik usuenak *h* letratik datoztela. horrelako hitzak bi lan eskatzen dizkiote Euskaltzaindiari. Lenengoa, ortografia legeak ondo fitsatzea. Bigarrena, horrelako hitzen lista eratzea, hitz bakoitza ortografia bakar batekin idatzirik.

3. Beste motako hitzak aurkitzen ditugu oraindik, alegia, *era-askotariko hitzak*. Orotartzat artzen ditugu, euskalki guztietan erabiltzen diralako, nahiz ta era edo forma desberdiña izan. Izan ere, aldaketa bereziak izan ditulako edo beste nolanaiko kausagatik, euskalki batzuetan itxura desberdiñak artu dituzte. Bañan, desberdintasun hori izan arren, hitz bakoitza, hitz bakartzat begiratuko dugu, batasunaren aldetik, ez ordean hitz senide talde bat bezelako. Adibidez, *aho*, *au*, *ao*, *aho*, *hau*, *ago*, *abo*, *agu*, *abu*, hitz bakartzat artuko dugu, ainbeste forma desberdiñ euki arren. Zenbait adibide emango ditugu hortaz, hitz bakoitzaren formak geografiako ordenan emanaz, Bizkaietatik Zuberorano, Erronkari kanpora utzirik (tamalez, batasunerako garrantzi handirik honek ez du-ta). Horra hor exemploak.

angeru	aingeru	aingiru	ainguru	ainguria					
B	BG AN L BN	AN L	BN S	BN S					
enara	inara	iñara	einbara	ainbara	aiñari	aiñera	inhara	ainhera	añhera
B G AN	AN	AN	L	L	BN	BN	BN	BN S	S
marasma	armearma	armiarma	amama	amarama	armamoi	arminau	armiarmora		
B	G	G	G AN	AN	AN	AN	AN		
armirimao	armauma	armarma	armiarmo	armamio	arbiama	armiarma	amiama	ainharba	
AN	AN	L	L	BN	BN	BN	BN	S	

Sail hontaz Euskaltzaindiak iru egiteko izanen ditu, uste dudanez. Lenengoa, era askotariko hitz orotarren lista egitea, hitz bakoitza bere forma guztiekin lagunduaz eta forma bakoitza bere tokian, geografiako ordenan, jarrita. Gero, hitz bakoitzerako forma bakar bat, edo geienez bi forma, autatzea bigarren lana izango da. Aukeratze hau egiteko kriterioak hauek izan litezke:

- Erreztasuna
- Jatortasuna
- Edertasuna
- Euskalkien arteko antza
- Erdikotasuna
- Arrera edo zabalera (populuan)
- Modak (gaurko modak)

Esandako kriterioak «souplesse» pixka batekin ezarri bearko lirake. Ezartze hontan gidaririk handiena *zentzua* izanen da, oso kontuzko lana da-ta. Irugarren eginkizuna hitz-forma autatuen lista antolatzea izan ditekete, idazle guztiok bera ezagutu ahal dezagun.

4. Askotan konzetu jakin bat adierazteko hitz orotarik ezta aurkitzen euskalki bakoitzak edo euskalki talde bakoitzak, hitz bereziak moldatu bait dituzte. Adibidez, *etorri*, *ethorri* aldebatetik eta *jin* bestaldetik; *aurrean* eta *aitzinean*, *aintzinean*, *aizinean*, *altzinean*; *atze*, *beratz* edo *berats* eta *mardo*; *bilo*, *bilho*, *bilho* eta *ille*, *ule*, *ile*, *irre*. Hontaz Euskaltzaindiari eskatuko litzaiokena hau da. Lenengoa, bereziko hitzen lista egitea, esan-nai berdiñekoak, edo gutxienez oso antzekoak (zenbait «nuances» ba daude euskalkietan hitz desberdiñen artean), elkaturik. Lista hortan hitz bakoitza bere forma guztiekin jarri bearko litzake, noski. Bigarren lana, hitz bakoitzerako forma bakar bat aukeratzea izango litzake, adibidez, *ille*, *ile*, *ule* ta *irre* eraen artean, *ile* bakarrik aukeratu, esate baterako. Eta irugarren lana, euskalkien arteko egin ditezken «prestamuak» erabakitzea, eta prestamu hoiei buruz kontsejuak ematea idazleri. Oso komeni izango

litzake, nere iritzi apalaz, prestamu-politika horri jotzea. Adibidez, alde hontako idazleek *etorri* hitza pixka bat geiago usatu, noizetik noiz. Hortarako, berriz ere esango dugu, Euskaltzaindiak bear diran kontseilluak eman litzake.

5. Honeraño esandakoa pixka-bat bildurik, antziñako hitz batasunaren saillean, Euskaltzaindiaren eginkizunik handienak hauek dira:

- I. Hitz orotar, era-bateko, eta gañera grafia-bateko diranen lista egitea.
- II. Grafia desberdiñeko hitz erabatekoen lista egitea.
- III. Lista hortan bertan hitz bakoitzari grafia bakar bat ezarri ta lista berri bat egitea. Agiri da, lan hau egiteko, euskal ortografia fintsatzea nai -ta-naiezkoa dala, aurren aldetik.
- IV. Era-askotariko hitzen lista egitea.
- V. Lista hortan, forma bat edo geienez bi forma artzea, hitz bakoitzerako.
- VI. Lista berri bat antolatu, forma batuekikoa.
- VII. Bereziko hitzen lista prestatzea.
- VIII. Bereziko hitz bakoitzerako forma bat aukeratzea.
- IX. Bereziko hitzen saillean prestamu-politika bat eragitzea.

Esan ditugun eginkizunak ez dira sail hontan Euskaltzaindiak egin bear ditun guztiak. Alere, asteko naikoa dirudi eta esandakoa, abiatzen bada, antziñako hitzen batasuna lortuko da zalantzik gabe. Esan dezagun areago, proposatutako lanak diruditen bezain zaillak ez dirala.

Algebra berria

Jakin, 29 zk., 1968

Algebra berria dalakoak jainko andia du gaurko egunean. Zenbait sailletan, Zibernetikan adibidez, bear bearrezkoa da, eta bestetan, Fisico-Kimikan bezela, pauso bat ere ezin egin diteke berri orren laguntzarik gabe.

Areago, naiz ta matematikatik urrun irudi, giza-zientzia batzuek, soziologia ta politikologiak, esate baterako, matematika erreminta gero ta geiago erabiltzen dute. Linguistikan ere bai, algebra berriaren jokabideak erabiltzen asi dira dirudienez azpalditxo ontan.

Zenbait pedagogo ospatsuak matematika berriaren ikuskerak sartu nai dituzte irakaskintzan, joera onek erreztasun andia emango dielakoan ikasleei, gaurko zienti ta tenika ondo egosteko.

Orixo uste det nik. Nere iritiz jokabide berriak ikasleei zail xamar iruditzen bazaizkie ere lenengo unean, gerokoan oso onurazkoak izango dituzte, Matematika saillean arkitzen diran eragospenak garaitu ahal ditzaten.

Matematika berria euskal ikastoletan asi bear da irakasten, nere ustez. Orain, euskerazko liburuak gertatzen ari direla —orañarte guztiz urriak izan ditugu zoritxarrez— errezagoa izango degu jakintza berriari jotzea. (Azkenekoak lenengoak izango dira).

Ortarako, alde guzietan bezela, eragospenik andiena irakasleen eskastasuna da, oraindik gaurko matematikaren berririk ez dakiten irakasleak geienak diralako.

Bañan, arira joanik, galdera bat egingo digu bateon batek. Algebra berri famatua zer da edo zertan datza bere mamia?

Galde oni dagokion erantzuna ematerik, ez degu ontan, jakiña. Nolanai ere zer edo zer esango diogu irakurle jakinaia.

Gauza bat argitzea komeni da alde aurretik, ots, algebra berria zenbakietan bakarrik aritzen ezjala, beste gauza askotan baizik.

Bere mugak lojika formalakin eztira oso ondo xedatuak eta Matematika deitzen deguna Matematika edo Lojika Matematika deitu bearke genuke batzutan.

Orañarte matematikaren eginkizunik andienak zenbatzea ta neurritzea ziran. Irugarren aburu bat ezartzen zaio orain Matematikari, au da, gauzetako barruko organizaziñoa edo estrutura agertzea ta aztertzea.

Errelitatea nun nai eta beti eratuta agertzen zaigu. Izan guztiak beren egitura dute, bakoitzaren elementoak lotu ta elkartzen dituana.

Edozein izkuntzetan, adibidez, itzak eztira agertzen batere loturarik gabe, zurtz ta bakarrak. Badituzte ordea beren arteko ariak, eta ari abek egitura bat josten diote iztegiari. Izkuntza bat ezta bakarrik itz moltzo bat, iztegi soil bat, iztegia bere egiturakin baizik. Itzak ta beren arteko sarea.

Moltzo batek bere elementoak ditu. Elementoen arteko *elkarbideak* garrantzi andia dute, moltzoa antolatzen, tajutzen, moldatzen ta eratzen dutelako¹. Elkarbideari esker moltzoa ezta bakarrik moltzo soil bat, *egitura* bat baizik.

Egitura izango da beraz, elkarbide-sare bat daukan moltzoa.

Derrigorrezkoa degu une ontan adibide bat ematea.

Baldin mai gañean oñetako bat, lore bat ta ogi puska bat jartzen baditugu, iru gauza oiek moltzo bat osatuko dute, ezin uka, ez berriz *egitura* bat, moltzo aitatuak ez bait du batere antolarik.

Senide diran iru persona ikusten baditugu berriz, irurak egitura bat osatzen dutela esango degu, eta ondo esan, bere elementoen artean dauden elkarbideak, egituratasuna ematen bait diote moltzo orri. (Begira iduriak).

Eman dezagun iru persona oiek Mikel, Koxme ta Peru dituztela izenak. Lau egoera ezberdiñak agertuko ditugu. Lenengo idurian irurak anai diranik ematen degu. Ikusten danez, beren artean elkarbide bat dago, «anaitasuna» deituko deguna, alegia. Elkarbide ori T izkiakin itxuratuko degu. Era berean, iru anaiak Mikel, Koxme ta Peru, *m*, *k* ta *p* izkiekin itxuratuko ditugu, bakoitzari buruz. Eta onela idatziko degu.

mTk au da, «Mikel, Koxme'n anai da»

kTm au da, «Koxme, Mikelen anai da»

eta abar, onelako formulak sei bait dira guztian.

Sei elkarki oiek, egoera ontako artu-eman guztiak azaltzen dituzte, anaitasunari buruz beintzat.

Anaitasun-elkarbideak bi propiedade ditu. Lenengoa da *simetría* deitzen deguna (4). Bigarren egokitasuna da erderaz «transitividad» deitzen zaiona eta nik emen «aldakoitasuna» esango diodana.

Simetria onela azaltzen da


$$x T y \rightarrow y T x$$

eta irakurri: «Baldin x, y 'ren anai bada, y, x 'ren anai dala esan dezakegu».

Aldakoitasuna onela azaltzen da.

$$x T y \text{ eta } y T z \rightarrow x T z$$

eta irakurri: «Baldin x, y 'ren anai bada eta y, z 'ren anai bada, x, z 'ren anai dala esan dezakegu».



Anaitasunak ez du betetzen, berriz, beste propiedadea, oso garrantzi andikoa dana. Erderaz «reflexividad» deitzen zaio eta emen «*bereburukotasuna*» deituko degu, naiz ta itz ori oso egokia ez izan ote.

«E» elkarbide jakin batean, bere burukotasuna onela azaltzen da,

$$x E x$$

au da, nolanaiko elementoak bere buruakin betetzen du elkarbidea.

Iñork bere buruaren anai ez dan ezkerro, «T» elkarbideak bereburukotasuna deritzan propiedadea ez dauka.

Aitatu ditugun iru propiedadeak, alegia, simetria, aldakoitasuna eta bereburukotasuna dituzten elkarbideak erderaz «relaciones de equivalencia» deitzen zaie. Emen «*bezelakotasun-elkarbideak*» izena ezarriko diegu.

Argi da, beraz, anaitasuna bezelakotasuna-elkarbide bat ez dala.

Goazen orain bigarren egoerara. Kasu ontan Mikel, Koxme ta Peruren aita da. Elkarbide berri bat agertzen zaigu, beraz, *aitatasuna* deitu dezakeguna.

D izkiaren bitartez idatziko degu. Bigarren idurian, alde bakar bateko dirdai baten bitartez azaldu. Anaitasunaren dardaia bi alderuntzkoa zan lenengo idurian. Zergatik aldakuntz au?

Anaitasun elkarbidea simetrika izan, ikusi genuenez, eta aitatasuna, berriz simetrika ezta. Legezkoa elitzake izango au idaztea:

$$x D y \rightarrow y D x$$

(«*x*, *y*'ren aita baldin bada, *y*, *x*'ren aita izango da»).

Aitatasun elkarbideak simetria-egokitasuna ez dauka. Ezta ere aldakoitasuna deritzana. Okerra da urrengo elkarketa

$$x D y \quad \text{eta} \quad y D z \rightarrow x D z$$

ots, «*x*, *y*'ren aita baldin bada, eta *y*, *z*'ren aita baldin bada, *x*, *z*'ren aita dala esango ahal degu». Au esatea astokeri izugarria izango litzake. Itz batean, anaitasun simetrika eta aldakoa ezta, ezta ere bereburukoa.

Irugarren ta laugarren egoeretan ez degu geiago ekingo, iduriak begiratzea berak ulertzeko naikoa da.

Oar dezagun adibide ontan agertu ditugun egoera guzietan egilleak iru persona zirala, eta moltzoak irukoak danak. Berdiñak ziran, beraz, zenbakiaren

aldetik, ez berriz bere egituragatik, oso ezberdiñak baizik. Ori da, besteak beste, Aljebra berriaren ikuskera.

Oneraño aitatu ditugun egiturak, bere egituratasuna itur bakar batetik artzen zuten, au da elkarbidetatik.

Bañan beste iturririk badago, operazioak, ariketak, alegia, moltzoari egitura ezartzen diotenak.

Zenbakistian, ariketa batzuek ikasten dira. Batuketa eta bere itzulizkoa dana, kenduketa. Gero, bidarketa, «multiplicación» erderaz esaten diotena, eta zatiketa, naiz ondargabea naiz ondarduna.

Bañan aljebra berrian ariketak oso zabalagoak dira, ez bakarrik zenbakiekin, baizik mota guzietako gauzaekin egiten diralako.

Multzo baten bi elemento bakoitzetik beste elemento bat, nolanaiko jokabidez, sorrerazi ahal degunean, multzo ortan ariketa bat definitu degula esaten degu.

Ariketa bat, * ikurraren bitartez itxuratzen badegu, au idatziko degu

$$a * b = c$$

Eta esan «a eta b arikariak, c ematen dute emaitzatat».

Ariketak aztertzean propiedade asko aintzat artzen dira. Badaude ariketan simetrikak diren eta ez direnak. Ariketa bat *simetrika* izatea au da: bi nolanaiko elemento emanda, *a* ta *b* deitzen ditugunak, au gertatzen da

$$a * b = b * a$$

Batuketa arruntak, adibidez, egokitasun au dauka. Ez, berriz, izkuntza batean, itz-batuketan.

$$\text{era} + \text{ibilli} = \text{erabilli}$$

$$\text{ibilli} + \text{era} = \text{ibillera}.$$

Bi emaitzak ezberdiñak dira, agiri.

Amaika batuketa dira simetrikak ez direnak.

Elkargaitasuna edo «asociatividad» da beste propiedade garrantzikoa. Bera onela azaltzen da. Iru nolanaiko elemento *a*, *b*, *c* emanda, au gertatzen da

$$(a * b) * c = a * (b * c)$$

Batuketa arruntak, esate baterako, gaitasun au dauka, adibide ontan ikusten denez:

$$(3 + 5) + 4 = 3 + (5 + 4)$$

Ez berriz itzen arteko esan degun batuketan, ondoko ikasbideak adiarazten duan bezela:

$$\begin{aligned} (\text{ibilli} + \text{era}) + \text{egin} &= \text{ibillera egin} \\ \text{Ibilli} + (\text{era} + \text{egin}) &= \text{ibilli eragin.} \end{aligned}$$

Moltzo batean ariketa bat edo batzuek xedatuak diranean, moltzoari egitura bat ezartzen diote. Baita baliteke ere moltzo baten egitura elkarbide batzuetatik, eta batera, ariketa batzuetatik etorri zekizkiola. Adibidez, zenbaki osoen moltzo-egitura oñarri oietatikakoa da.

Bi ariketa dauzka (batuketa ta bidarketa) baita «orden»-eko, deitzen zaion elkarbidea.

Arimetika arruntan bertan ariketa klasikoak ez dira bakarrak. Batuketa arrunta ezta bakarra, beste modu asko bai dago ere zenbakiak batutzeko.

«Zer? Bi eta iru eztira beti bost izango?» —norbaitek galdetuko du izan oi dan ezker—. Ez, bi eta iru bat egitea bai gertatzen da noizean bein.

Adibide errez bat emango degu.


Erderaz «llave o interruptor de varios tiempos» esaten diotena guztiak eza gutzen dute. (Beg. 5 garren iduria).

Maratilla lenengo egoeran (au da uts-egoeran) dagonean ezta ezer gertatzen, eta argirik ez.

Mugimendu bat, ots, bultz txiki bat jotzen badiozute, bigarren egoerara igaroko da maratilla, ta argi talde bat (idurian A izkiz agertzen dana, izan ere) pixtuko da. Beste jokadatxo ta irugarren egoeran izango da etengailua. Lenengo argi-taldea itzali ta beste bat, B izenekoa, pixtuko da orain.

Urrengo mugimenduan argi guztiak pixtuko dira batean, jakiña. Beste pauso bat oraindik egiten badegu, azkeneko egoeran, edo obe esan, lenengo egoeran, uts-egoeran, berriz izango gera: dana itzali ta ibiltzea bukatuta.

5'gn. iduria



Galdetu dezaiegun orain gure buruei, egoera batzuetako etengailu onen *arimetika* nolakoa da? Nolakoa da ontako batuketa? Ez oiturazkoa.

Arimetika «berri» ontan ondorengo berdintzak idatziko ditugu:

$$1 + 1 = 2$$

$$2 + 1 = 3$$

$$3 + 1 = 0$$

Azkeneko berdintza argia da. Iru pauso egin dituzuten ezkerre beste bat egi-ten badezute uts-egoerara itzuliko zerate berriro.

Lau egoerako etengailuren arimetikan, batuketako-tabla au da

BATUKETAKOA

	0	1	2	3
0	0	1	2	3
1	1	2	3	0
2	2	3	0	1
3	3	0	1	2

Eta bidartukoa au izango da

BIDARKETAKOA

	1	2	2
1	1	2	3
2	2	0	2
3	3	2	1

irakurleak berak egiztatuko duan bezela.

Ikusten dezutenez orrelako batuketaren bitartez, 0, 1, 2, 3 zenbakiak ematen dituzten emaitzak, beti oien arteko zenbakiak dira, ots, emaitza ezta moltzo kanpora ateratzen. Taldean bertan gelditzen da beti emaitza.

Beraz {0, 1, 2, 3,} moltzoa *talde* bat dala esango degu alegia, erderaz *grupo* esaten zaiona.

Baldin moltzo bat ariketa bat badu eta ariketa onen emaitzak ez badira iñoiz moltzo bertatik ateratzen, moltzoari, *taldea* esaten zaio. Besteak beste —gai onek ingurumari asko beariko luke ta— ori da *taldea*.

Oar zazute moltzo berori {0, 1, 2, 3} zenbakisti arrontzen aldetik ezta talde bat, ontan $2 + 3 = 5$ dalako, eta beraz emaitza (5 dana) moltzo kanpotik ateratzen dalako.

Beste adibide aitatzeko, urrengo itzak

$$\{ \text{NAI} ; \text{ERA} ; \text{IBILLI} ; \text{A} \}$$

moltzo bat osatzen dute eta moltzo ontan badago ariketa bat + ikurrakin itxuratu ditekera (naiz ta osotoro xeatua ez izan)

$$\begin{aligned} \text{NAI} + \text{A} &= \text{NAIA} \\ \text{NAI} + \text{ERA} &= \text{NAIERA} \\ \text{IBILLI} + \text{ERA} &= \text{IBILLERA} \\ \text{IBILLI} + \text{A} &= \text{IBILLIA} \\ \text{ERA} + \text{IBILLI} &= \text{ERABILLI} \end{aligned}$$

Moltzo ori ez da talde bat, emaitzak moltzotik ateratzen diralako, eta, gañera, beste arrazoi batzuetagatik, emen esango ez ditugunak.

Etengaillurena bezelako arimetika asko izaten dira edo izan ditezke. Matematika berria ikuspegi oso zabal batean jartzen da ta izan ditezken arimetika ta

algebra guztien oñarriak ematen dizkigu. Gero jakintza bakoitzak bere saillean dagokion zenbakistia ezartzerik izango du.

Idazki trakets au bukatzeko, zerbait bibliografia ematea komeni izango da, emen esandako asi-ideiak irakurle batzuei sail au obe ezagutzeko jakin-naia er-narazi zezaietela bait liteke.

Uste det irakurle geienak gai au soziolojiaren ta politikolojiaren aldetik begiratuko dutela. Abek oso liburu erreza ta oso ondo egiña dute «L'Algèbre Moderne» izenekoan, «Que sais-je?» sortan ageria dana. Matematika zaleak beste liburuak ori baiño sakonagoak arkituko dituzte, adibidez, «Arithmétique et Algèbre modernes» Albert Châtelet'ek egin ta «Presses Universitaires» argitaratutakoa.

Irakaskintzan daudenak oso onurazkoak izango dituzte «Chantiers Mathématiques» izeneko liburuak (Ministère de l'Education Nationale Français argitaratzaile). Oietan bertan Télévision Scolaire dalakoan matematika berriari buruz emandako itzaldiak arki ditzakete.

Azkenean, politika ta soziologian lan egiten dutenak, bi liburu ikusi bear-ko lituzkete. Biak «Dunod» argiratzailleak sortutakoak. Bere izena, «Les Mathématiques modernes dans la pratique des affaires» eta «Algèbre moderne et activités humaines».

1. «Elkarbide» izenarekin Matematikan «relación» deritzana esan nai degu.

Zalaparta Elizan eta erlijioaren konzetua

Jakin, 29 zk., 1968

Madrileko Ikastola nagusian, iskanbilla une batean, leio batetik gurutze bat egotzi omen dute, beste tresna askoen artean. Zorigaitzeko gertaera honen berria nork nai daki honezkero, eta ez gera sartuko bere zehetasun guztietan. Zeñek eta zer asmorekin botatzea egin dun ez jakin arren, bere intenzioa ona etzala ageri da-ta zitalkeritzat kondenatu bear dugu horrelako egintza. Bera onartzerik ez dugu batere zuriadirik ez bait du.

Au esanda, gaia beste saietsetik ikusi nai genuke, izan ere, estrañazko berri bat eldu zaigu oraindik orain.

«Arriba» ta «Nuevo Diario» deritzaten egunkarietan irakurri berri degunez, D. Francisco Pérez apaiza, Santander'ko eliz batean predikatzen ari zala, gertaera aitatuari buruz mintzatzen asi zan gurutze bat leiotik egotzea baiño, langillea, zuzenbiderik gabe, fabrikatik botatzea, pamili-guraso bati ogibiderik gabe utzirik, txarragoa dala esan zuen.

Nola Don Francisco'k iritzi hau azaldu, entzule batek itza artu zuen eta oiuka asi zan, sermoia ezin eramanezkoa zala esanik. Zalaparta handi bat arrotu zan eta jende batzuek, erasotzaille buru, elizatik atera ziran asarre baiño asarreagoak.

Beste tartekoak alde batera utzita, apaizak azaldutako iritzia garrantziduna iduritzen zaigu. Pentsa arazten gaitu, gutxienez.

Apaizaren galdera ikaragarria au da: Kristoren iduririk egokiena eta egiazkoena, nun dago? Zu puxka batean, naiz gurutze tankera izan, ala gure anaia dan gizonarengan?

Gezurra badirudi ere, kristau erlijioaren mami guztia galdera ontan sarturik dago. Orañarte iduri ta debozio askok erabiltzen zituzten kristauak; gizarteko zuzenbideari, berriz, belarri gutxi egin. Zorionez, gauzak asko aldatu dira, edo aldatzen asi dira gure denboran. Oraingoan askok ikusten dute kultoaren egin-tzak baiño gizonaren aldeko obrak bearrezkoagoak ditugula kristauok.

Eta batez ere, baldin Kristo arkitu nai badugu, ez degula billatu bear azaleko debozioetan, baizikan gizonarengan, gure anaia dan gizonarengan bertan.

Nere iritziz hor dago gaurko kristautasunaren mamia. Nai-ta-naiez horrelakoa izan bear du gure joerak.

Eliza ta biolentzia

Jakin, 30 zk., 1968

Peguy famatuak «ordena» dalakoaren gogorkeria, desordenakoarena baiño bildurgarriagoa ta txarragoa dala esan ohi zuen.

Biolentzia zera da, alegia, gizon bati edo gizarte bati, zuzenbidearen, borondatearen, arrazoiaren, moralaren ta eskubidearen bitartez eskatu beharko litzaiokena, bortxaz, gogorkeriz, bildurraren ta gezurraren bitartez bertatik ateratzea. Pertsona bat edo komunitate bat gauzatzat edo animalitzat erabilli eta hartaz baliatzea da biolentzia.

Gure gizartetan biolentzirik handiena ta astunena, herriari goitik behe-
ra egiten zaiona izan ohi da gehienetan. Alegia, zuzengabeko legeak, estrutu-
ra okerrak eta ahal-gehiegikeriak eragiten diotena. Opresioa eta bildur-araztea
edo intimidazioa, esate baterako, izugarrizko gogorkeriak dira, berauek ixuri-
tako odola askotan ikusten ez bada ere. Kaleetako biolentzia ez da txarrena,
baizik politika ta sozial egiturak jende apal ta pobreari, edo menpeko arrazari,
egiten dietena.

Hau ikusi, ez da garbi ikusten, edo hobe esateko, askok ez dute ikusi nahi.
Menpekoek egindako gogorkeria besterik ez dute ikusi nahi.

Elizak gogortasun guztiak batean salatzea, gizarte bakoitzean gogorkeri na-
gusia nundik datorren azaldu gabe, askatze erreza, areago errezegia, dirudi. Jo-
kaera honek «status quo» dalakoaren alde jokutzen du, pobreak eta mirabeak
ahaldunen eskuetan jartzen ditu-ta.

Elizak gizonaren errealitatea ezagutzen du. Horregatik gogortasuna bio-
tzez iguindu arren, ateak ez dizkio ixten biolentziari. Guztiok dakigunez, kris-
tau-moralistak guda zuzena ta matxinada zuzena haintzat artzen dituzte, baita
gogorrezko bide hauek noiz ta nola erabilli behar diran esan ere.

Ez da egia, beraz, Elizak beti ta nunai gogortasuna kondenatzen duanik.

Hortaz oso jakinduri handia erakusten du, gogorkeri batetik iges egiten saiatzen, beste biolentzi handiago batean erori ditekealako. Zazpi begiekin ibilli behar da, izan ere, sail hontan; gauza bakoitzari bere egiazko izena ezarri behar zaio.

Bestela, ahaldunak Elizaren hitzetaz baliatuko dira beren azpiko lana egiteko. «Zuek, menpekuok, geldi zaitetze, Elizak biolentzi guztiak gaiztoak direla diolako».

Markuse'k diola-ta

Jakin, 31 zk., 1968

«*Humanae vitae*» enziklikak naiko eztabaida arrotu du aspalditxo hontan. Gu ez gera sartuko idazki horren mamian —libera nos Domine— ziur gaudelako, Elizak emandako dotrinari, osagarri ta argitasun asko *Elizak berak* ezarriko dizkiola aurrerantzean, batez ere, «artifiziala» ta «naturala» konzetuen saillean. Ateak, zabalak dira hortarako.

Dana dala, beste gai bat erabili nahiko genuke, aitaturia izan danetik oso urrutira ez dagoana.

«*Dimensio bateko gizona*» deritzan liburuan, Markuse jaunak «desublimizaziñoari» buruz diona garrantzirik handienekoa iruditzen zaigu.

Eta zer da desublimizatze hori? Bi hitzetan saiatuko gera erakusten jakitun ez diran irakurleeri.

«Eros» instintoak, biziaren instintoak, zanpaturik egon behar du, nahi-ta-nahi-ez, gizarte zibilizatuan.

Hortaz, bi lege edo printzipio jartzen ditu Freud jakintsuak. Lehenengoa, *plazer ta atsegiñaren legea* da. Inkonziente saillean lege hori, lege bakarra da: atsegiña ta miña dira inkonzientearen gidari bakarrak.

Bigarren printzipioa, *errealitatearen legea* da, alegia, gizarteko gizonak Eros'en instintoa zanpatzea ta ezabatzea beharrezkoa dala. Hortan datza, hain zuzen, gizonaren zibilizaziñoa.

Eta gizonak bere lehenengo instintoa honela zanpatzen duanean, beste fenomeno berri bat agertzen da, Freud'ek «*sublimizaziñoa*» izendatzen duana.

Gizonak Eros'en instintoak menperatzen dituean, bertan sarturik dagon indarra, beste bideetatik zabaltzen da, eta, etorri ere, hortik datoz jakinduria, artea, erlijioa, politika eta bizi hontako eginkizun ederrak oro. Eros'en instinto reprimituak egin ohi dute Historia, Freud'en iritiz.

Sublimizaziñoa, gauza ezaguna da, Freud jakitsuak berak asmatu bait zuen. Baiñan Markuse'k beste gertaera bat ikusten du gaurko zibilizaziñoan. «Aberats-gizartean», hots, «ugaritasunaren soziedadean», Eros'en plazerrak gozatze-ko erretasun handia dauka gizonak. Plazer hoiek, handiak eta txikiak, erostea erreza da zibilizaziño hontako gizonarentzat. Baiezen honen froga asko ematen digu Markuse jaunak, Eros'en instintoa ez bait da bakarrik sex-instintoa.

«On a souvent noté —dio Markuse'k bere frantzeseko argitalpenean— que la société industrielle avancée opère avec un plus grand degré de liberté sexuelle [...] Les employées de bureau-sexy, les vendeurs sexy, les 'managers' jeunes et virils, sont de marchandises qui ont une très grande valeur commerciale [...] Le sexe s'est intégré aux relations publiques [...] On utilise l'énergie instinctuelle libérée pour protéger le statu quo» (hau da, sistima eta gizarte industrialaren estruktura).

Bai, Eros'en indarra, ugaritasun-sistima hau indartzeko erabiltzen da eta joera horrek ondore izugarri baiño izugarriagoak ekartzen dizkio gizarteari.

Fenomenu horri «*desublimizaziñoa*» deitzen dio Markuse jaunak. Desublimizaziñoari eskerrak instintoa, zanpatu beharrean, sistimaren saltsan sartzen da.

Baiñan hori egitean, nundik sortuko da aurrerapenaren alde jokatu behar duan indarra? Nehundik ere ez.

Bigarren printzipioa, errealitatearen printzipioa, gure gizarteetan ez dala operatzen dio Markuse'k, eta esan nahi du, zibilizaziño industrialean, biziaren plazerrak eskutan jartzen zaizkiela gizonari. Ondorea da Historiaren eginkizun ta asmokizun handienak hil zorian daudela.

Desublimizaziñoak zibilizaziño-aurrerapenaren alde ez du jokatzen, bere kontra baizik.

Eta nik, nere buruari galdera hau egiten diot: maitasun askatutakoak, «amor libre» ta Eros'en milla plazerrak, progresoaren alde ala progresoaren kontra jokatzen al dute? Ezagutzen dugun sistiman printzipio nagusia, plazer ta atsegiñarena da, dudarik ez.

Berriz ere inkonzientearen legera biurtzen da gizarte.

Euskal kulturari buruz

Jakin, 33 zk., 1968

Ortega y Gasset jaunak kultura ziurtasun-xistima bat dala esaten du, alegia, «un sistema de seguridades frente a la vida». Gizonaren zailtasunaren ta gogortasunaren galdera larrienei kulturak ematen dizkie erantzunak.

Biziaren aurka erreztasuna bilatzen du gizonak, ta hortik dator kulturaren beharra. «Frente a las dificultades el hombre inventa instrumentos espirituales y corporales que facilitan su lucha contra aquella. La suma de estas facilidades que el hombre se crea es la cultura». Hori da Ortega jaunaren iritzia.

Bainan teoria hori euskal kulturari ezartzen badiogu ez gera konforme Ortegaren ideiarekin.

Nun daukagu euskal kulturaren erreztasuna? Nun berak emandako segurantza?

Nere ustez Ortegaren iritzia «burgesa» da ta bere ideiak gure egoerarako ez du balio.

Kulturarekiko Ortegaren iritzia haintzakotzat hartzerik ez dugu.

Beste konzetu bat arkitzen dugu, gure egunean inportantzirik handiena izaten duana ta kontuan izan behar duguna. Batez ere euskal kultura sailean nahi-ta-nahi-ezkoa dugu ikustea, bestela gure kultura sasi-kultura bat besterik ez litzake izanen. (Eta zer nahiko lukete beraren etsaiek, hori baino gehiago?).

Horainarte, kultura, segurantza xistima bat bezela begiratu izan da, batez ere euskaldunen artean. Gozo-gozo izateko bidea da kultura. Enplegu, kargu ta ogibiderik onenak eskuratzeko bidea da. Kultura da jendeen artean itzala emango dizuna.

Beren seme-alabak kultura erdietsi dezatela nahi dute guraso gehienek, beraz.

Bainan egiazko kultura ez da, Ortegak dion bezela, segurantza bide bat, ez-segurantza edo ziurtasun-ezaren kausa baizik. Egiazko kultura duen gizonak, besteek baino korapilotsuagoa ta nahastuagoa du bizia.

Besteek beren gezurrezko «trankilitatean» bizi ahalko dute; ez, ordea, kulturaren sasiartean sartu dan gizonak. Euskal kultura segurtasunen xistimarik ez da, kontrakoa baizik. Sail hortan hasten danak ez du ezer irabaziko, eragozpenik handienak bere kontra izanen ditu baizik.

Euskal kultura, erroak aizetara dituan kultura bat da. Euskal kultura eginkizunekoa da, hau da, dana egiteko duan kultura bat.

Euskal kultura ez da besteak bezelakoa, estal-gabekoa da. Benetako kultura proletarioa. Mezpreziatutakoa ta bide guztietan desornitutakoa.

Erderaz, nahiz gazteleraz, nahiz prantzezez, esate baterako, idazten hasten danak erreztasunak oro ditu: mota guzietako hiztegiak ta enziklopediak esku eskuan ditu. Klasikoan laguntza beti arkitzen du.

Euskal kulturari «sistema de seguridades» ez, baizikan «sistema de inseguridades» deitu behar diogu.

Eta esaten duguna da euskal kulturaren meriturik handiena, gure egunetan historiaren indarra desornitutako jendeen artean arkitzean dagoelako.

Hontaz, Markusekin bat nator. Filisteiko jendearekin ez dugu deus egingo. Hoiek gure kulturari folkloriko jostailuaren balorea besterik ez diote emango.

Ezeztasunarena ta ukatasunarena da jakintzaren ta politikaren oldarra.

Zientzia sailean nundik etorri oi da aurrerapena? Ukatzetik. Geometria ez-euklidianagatik. Fisika ez-neutoninagatik. Epistemologia ezkartesianagatik, ta honela.

Gaston Bachelard filosofoak bere «Le nouvel esprit scientifique» honela adierazten digu. Ukatasunaren ahalmenean ikusten du baliorik handienetako bat.

Hitz baten: euskal kulturak, bere mamian, erreboluziogile izan behar du bortsaz, zeren esistitu nahi badu, aurrean duan errealtatea ukatu egin behar dualako.

Txoraturik gaudela? Horixe esan oi dute filisteoak. Bainan hauek hil ta lurperatuak izanen dira laster, kultura sailean batere eginkizunik ez dutenez gero.

Hau da nere pentsaera, argi ta garbi esana. Nik euskal kultura haintzakotzat hartzea hortik dator, besteak beste, hortan bertan histori-older izugarri bat ikusten dudalako.

Igeltseroa Batikanoan

Zeruko Argia, 271 zk., 1968-05-12

Batikanoko «Ligge di Raffaello» ospatsuak, nork eztitu ezagutzen, mundu zabal hontan?

Izan ere, batzuen ustez, miragarrizko sala haiek garbitze on batez bearrean daude ta igeltsero baten prezencia eskatzen dute batzu hoiek lan fiñ hori egiteko.

Monseñore Tomasek Erroma aldera abiatuko omen da urrengo egunetako batean. Erromatik deitu diote ta bere bandatua Txekoeslobakiaren Eliza ta Estaduaaren arteko artu-emanak antolatzea izango da, ixilpekoen zaleak diotenez. Ez ta ezerezko eginkizuna!

Eta —begira mundu hontako gauzak nola diran— Tomasek apezpikoa ta igeltseroa da batean. Aitarenka geldituko dira zenbait; baiñan hala da gure berri-iturriek gezurra ez badiote beintzat.

Gartzelarik ateraz gero, zenbait ogibide izan zituen apezpiku honek, ia beste mundutar guztiak bezela, bere bizia irabazteko. Azkeneko aspaldi hontan igeltsero ta zaharki-konpontzaille jarri zan ta pozik bide dago bere oraingo lan ta bizibidez.

«Baldin giltza-zarrago bat edo nolanaiko tramankulo aberiatuak konpon-tzen bear badira, komeni iruditzen zait apezpiku bat sail ontan ere ikasia izatea». —Esan zion Monseñore Tomasek (barkatu!) berrikari bati, Praga'n oraindik zegoela.

Bear bada, Batikanoren tresnak ez ezik, baita Eliza Unibersalaren bideak zabaltzeko ere oso egokiak dira apezpiku-konpontzaille-umoreonzale honen Erromarako bisitatze hau.

Denbora berriak datozte, zalantzarik ez, erlijioaren bidetan.

Igeltsero bat Raffaello'ren gelaetan!

«Nunc est bibendum»! Zelebra dezagun besta handi bat!

Hitler'en espektroa

Zeruko Argia, 272 zk., 1968-05-19

Helena erregiña ema lilitxo bat besterik etzan ta oso kritikatuia izan da, arrazoi horregatik, Homero opatsuaren urrutiko denboretarik.

Gu ez gera sartuko marmara hauetan. Ordea, Menelao erregea ain epel, ain kaltz-handi ta ain gibel-handi izan ez balitz emaztekin, eta honi orduz eta garaiz lepoa egin izan balio, Troia gudatea etzitzakean izango. Priamo ta Hektor bezelako ainbeste gizon bulartsu ta famatu etzutekean bizia galduko gaztaro osoan. (Eman dezagun Iliada paregabeko poema egundaiño etzala idatziko ere).

Dana dala, baldin Menelao'k Ulises maltzurari konseillu eskatuko bazion, honnek bada-ez-badako eriotz bat egiteko konseillua emango litzaioke zalantzik gabe.

Askok il ez ditezen, batzuek erailtzea da gerla «preventivoaren» teoria deitzen dana.

Orain ere, Alemanian berpizteko zorian omen dagon nazismoaren kontra «aurrezko gudate» bat egin bearko litzakela uste dute batek baiño geiago.

Gustave Thibon idazle prantzesak galdera hau egin zuen aspaldirik ez: 1934 edo urtean, Hitler'en aurkako gerlatxo bat antolatzea ez ote zan soluziorik egokiena izango? Hitler oraindik etsai zirtzilla zan ta erreza desmontatuko litzaioke.

Bañan, gerlatxo hori etzan egin eta berrogeitamar milloi il ziran gudatean, soldaru ta zibilletan. Esan ere erreza esaten da beintzat.

Bañan ez gaitezen bildurtu. Gertaerak aurreratzea ezta iñoiz komeni izaten. Berpiztutako Furher'en aztarnarik ezta oraindikan ikusten eta bear bada ezta iñoiz ikusiko.

Lo izan zaitezte lasai! Historia ezta iñoiz errepikatzen!

(Errepikatu ez, baiñan txarratik txarragoara joan, bai egiten du noizean bein).

Indar moralaren botherea

Zeruko Argia, 273 zk., 1968-05-26

«Igo danak, jautsi bear» —esaten omen zuen Txuang-Tse'k, Kristo'ren lau mende aurreko txinotar ospatsuak. Eta Peru Abarka'k (Txuang-Tse baiño filosofo txikiagoa etzana) hau esan ere: «Aldats gorea, aldats berea».

Gizartean, beheko jendea altxatzeko modua (promozioa dalakoa) ezagutzen dugu, ez ordea goiko mailletan daudeneri beren leku gozori egotzeko manera.

Amerikatarrek maillakada zalakoa egin zuten ta nolako moduz desmaillakadatu jakiñik gabe ditugu orain.

Ikastekoa dan trataduan berenarekin eztirela aterako dirudi eta nonbait «quia nominor leo» esaterik eztute izanen. Benetan ikusgarria, atomo-bondadunak burua makurtu bear izate hau berri txiki baten aurrean!

Gertatzen dana ulertzea ain zailla ez dirudi. Amerikatarreak eskuko zuten Viet-Nam herritxoa deuseztea, itxidiki batean gañera, baiñan ez dute deuseztu. Zergatik? Bildurragatik? Ez derizkiogu.

Sail hontan ia mundu guztia zuten beren kontra. Aita Santuarengandik, jakintsu, idazle ta politikolari sonatuenenganaiño, jende itzalgarrri guztiak beren iritzi aurkakoa emana zuen aspaldi hontan. Horrengatik hain zuzen ere amerikatarrek ez dira aurrerago jarraitu maillakada bidean.

«Indar-Moralaren» botherea argi ikusten da. Txalo dezagun!

Zeren «mens agitat molem».

Piperrada izugarri bat

Zeruko Argia, 274 zk., 1968-06-02

Leoiki jateak ez du ondore ona ekartzen. Asarre ta amorratu arazten omen du. Kokordilloa ere oso egosgaitza bide da janaritzat, gauza guztiak odol-beltz kolorez ikusi arazten ditulako. Bañan bardin biak batean sukaldu eta ta piperrakin jaten badira, iñork eztaki gerta ditekeana, horrelako entseioa sekula eztalako oraindik egin.

USA'n bizi dan Herbert Marcuse filosofo ta irakasle alemandarraz entzun al duzute mintzatzen?

Iru M'koen berri ba dakizute?

Marcuse da Alemaniako ta Italiako idazle amorratuen maixu handienetako bat, iru M'koen bat. Iru hauen izenak, Marx, Mao ta Marcuse direnak, edozein manifestazioan ikasleen ikurriñetan eta pankartetan irakurri ditzakezute.

«Akrazia» dalakoa edo aristokrazi mota guztien kontrako mugimenduaren eta nihilismo berria dalakoaren aita ta apaiza dugu Herbert Marcuse.

Ikasleek idolotzat ta igarletzat hartu dute ta bere dotriñari itsutuki jarraitzen diote.

Eta, zer egin du Marcuse jaunak, Marx ta Mao'en pareko honek, horren ohore handia merezi dezan?

Beste liburu mamitsu batzuek argitaratu baditu ere, bere «idazti deuna», edo liburu santua, «Eros ta Zibilizazioa» izena duana da.

Eta, zer dio Marcuse jaunak idazti hontan? Marx ta Freud batean erabiltzen ditu ta bi hoiekin filosofia berri bat osatu.

Bi janariak, marxismo ta psikoanalisa lapiko berean ondo egosi, apur bat pipergorri gañeratu ta bero-beroa ikasle gazteen maian serbitu... horra hor Marcuse sukaldariaren errezeta.

Kokordillo ta leioa besterik izango ez ba zan...! Bañan piperra pisutu egin zaie ikasleri, dirudienez, urdail ta buru barnean.

Apaizen margoa

Zeruko Argia, 275 zk., 1968-06-09

Lengo egunean, apaiz batzuek Madrileko San Gines elizatik ateratzen zirela, gizatalde bat deadarka asi omen zan esaten: «Beera apaiz hoiek! Kuku apaiz gorri hoiek! Kanpora fedea kendu arazten diguten apaiz hoiek!». Eta joka aritu ziran apaizekin, Europa Press ajenziak adiarazten duanez.

Horrelako gauza ezta inoiz ikusi gure egunetan: madrildarrak gauza guztiak baiño fedea geiago maitatzen zutela ba genekien, ez ordea ainbesteraño!

Beltza zan oraiñarteko apaizen margoa. Bañan, zenbaitek, kolore horrek pentsaera illun besterik etzuela burura ekartzen eta aldatu bear zala esan oi zuten.

(Esan dezagun bidenabar beltza dalako kolorea ez dala kolore, argirik gabeko ta ezezkoa baizik. Hain zuzen ere margolariak etziran sekula beltza margorik erabiltzen ausartu, Velázquez ta besteak etorri artio).

Batzuek diote halaber apaizak aingeru-parekoak izan bear direla-ta beren margoa zuri-zuria izan beariko litzakela.

Baiñan holako aingerukeriak etzaizkigu atsegiten gaurko gizonoi. Odeietan dauden apaizak etzaizkigu gustatzen.

Ez beltza, ez gorria, ezta zuria ere izan ez diteke ezkeroko apaizen margoa, nolakoa ezarriko diegu?

Arrosa kolorea polita da. Konponketa-kolorea.

Ordea, hori aukeratu ezkeroko, apaizak erakusten duten guztia arrosa kolorezko ipuia besterik ez dala, berriz ere esango du jendeak.

Sirenaren abestia

Zeruko Argia, 276 zk., 1968-06-16

Euskera «harri beneragarria, urre gordetua, España pre-romanaren aitorlerik handiena ta zaharrena» dala esan zuen, ez aspaldi, Areiza jaun ospetsuak, Bergaran itzaldi batean. Euskera harri bat, edo bizidun fosilizatu bat izango al dugu beraz? Euskera, linguistikaren «*Elephas primigenius*» edo mamutha dala esan oi dute askok. Izan ere, euskerari ohore handia egiten diotela uste dute gañera, hori esatean.

Ordea, *Elephas* dan ala ez, bost ajola zaigu gaurko euskaltzaleoi. Egia esateko, mamuthkeri hoiek beti errepikaturik entzutean nardagarri zaigu, gero ta geiago.

Beti horrelako sirenaren abestia entzun ta asper-asper eginda gaude.

Sirena esan dugu, baiñan harri-sirena esan bear genuen, arkeologia horixe bait da, bere sailletik ateratzen zaionean.

Arkeolojiaren koblak zenbat herri ez al ditu arioaren illunpetara eraman? Kontu! Kontu harri sirenaz!

Euskeraren meriturik handiena, bizirik egotea da, hain zuzen ere. Eta bizirik ikusi nai dugu, sekula santa guztietan. Alegia, gure billobak eta gure billoben billobak eta gure berrebilloben tokilabillobek euskera bizirik ikusi dezatela nai dugu.

Hori, besterik ez da gure nai gartsua. Entzuten ahal duena, entzun dezala.

Negu-marrubiak

Zeruko Argia, 277 zk., 1968-06-23

Antziñako errege persa batek marrubiak jan nai zituela esan omen zion bere ministro nagusiari, negu bizian zeudelarik.

Ministroak marrubi sasoiak etzala, erantzun zion, bañan erregea bein eta berri leiatu zitzaion marrubiak nai zituela.

Orduan ziotsan ministroak: «Jauna, jauregi bat bi astebetean eraiki nai baduzu, jauregirik ederrena eraikiko dizute zure etxegilleak. Eta koro bat armatu nai baduzu, koroirik ederrena ta joriena antolatuko dizute zure pitxigilleak. Inork ez dauka, ordea, marrubi bakar bat egiteko ahalmenik naiz ta neurritz kanpoko ahaldun ta aberatsa izan. Izadian bizidun bakoitzak bere sasoiak ta bere epea bait du. Nork ez daki giza- seme bat fabrikatzeko bederatzi illabete bear direla, gauzak oker ez badatozte beintzat?».

Euskal-unibersidadeaz, euskerazko unibersidadeaz, alegia, asko mintzaten da gaurkoan. Zakurraren gauerdiko ametsak! Naiz ta milla billoi libera izan eta libertade osoa izan, horrelako Unibersidade egiterik inork ez du oraindikan, hizkuntza eldurik ez bait dago.

Euskera aurtxo bat bezelakoa da ta apal-apal lenengo maillako eskolatara joan bear. Sail hontan ere bere lana izango du, izan, aurrera ateratzeko.

Asiera horri humil-humil ekin badiogu, ba liteke biarko egunean, urrutiko udaberri batean, marrubiak euskal baratzean agertzea.

«Jauntxoak beti jauntxo»

Zeruko Argia, 278 zk., 1968-06-30

Pasolini idazle ta zine-zuzendari komunistak katilinarria izugarri bat bota omen die ikasle italiar amorratuari.

«Figli di papá» deitu die gazteeri. Eta burgesak direla arpegira egotzi.

«Salbazioaren bidean abiatzen dan burgesari ahalmen-gogoa eta bothere-nai guztia betirako kendu bear zaio burutik» —esan du Pasolini jaunak.

Hontaz arrazoi pixka bat ba du, jauntxoak beti jauntxo izan nai du-ta.

Ikasleek ordea, Alderdiko komunistak aburgesatuak direla uste dute eta erreboluzioa eztutela iñoiz egingo diñoen.

Nork arrazoi? Auskalo!

Frantziaren matxinada kulturala nola bukatuko dan iñork eztaki. Udaberriko abentura bat besterik ez al da izanen?

«Jatean eta atz-egitean dana dago astean» esan oi zuen Quevedo famatuak.

Politika eginkizunean berriz, dana amaitzean datza.

Bizi ta ikusi!

«Gandhi-urtea» oraindik orain asi zaigu

Zeruko Argia, 298 zk., 1968-11-17

Mahatma Gandhi pakezale handia 1868 urtean jaio zan, Urrilak 2, Indiako Por-dabar izena dun urian. Urrengo urtean izanen da beraz bere lenengo eunurtekoa.

Hori dalata urte osoa, 1968-ko Urrilaren bitatik 1969-ko Urrilaren bitara, Gandhin izena eramango du. «Gandhi-urtea» mundu guzian ospatuko da.

Euskal-Herrian ere bai zerbait egin beharko genuke, gizon orotar honen oroipena aipatzeko. Uste dudanez, emengo aldizkariak ez dute oraindik deus esan, eunurteko honetzaz. Orain erderaz idazten ez dudanez gero, Z. A.-n gaia atera nahiko nuke, nere euskera moldakaitzaz bada ere.

Egia da batzuek uste dutela Gandhi erabat desmodatuta dagola, eta, bestal-detik, bere jokabideak Mendabaleko herrietan ezin erabiltzekoak direla.

Bainan, gogortasun gabeko erreboluzioaren prolema bazterretan eztabaidatzen ari da oraingoan. Sail hontan klasikorik handiena Gandhi daukagu ta hortik pasa behar da, nahi ta nahiez, nolana hiko jakinkizunean itsu itsuan ez ibiltzearren klasikoetatik igaro behar dalako beti.

Gandhi ez zan idealista uts bat, sasi mistiku bat, oso gizon praktikoa baizik. Bere politika jokoak, bere ekinaldiak, zeatz meatz pentsa ta prestatu oi zituen.

Gandhik asmatutako izkiluak, «desobedientzia zibila» ta «ez-lankidetasuna», alegia, ez ziran nolana hiko jostailuak. Gandhin oldarren aurrean ingelesak estuturik arkitu ziran askotan, atekarik nola atera ez zekitela.

Britanikoak ez ziran zenbaitek uste dituzten etsai «kabailerotsuak», gogorrek eta desleialak baizik. Beren zigorra izugarria izaten omen zan noiz nahi eta maiz.

Gatzaren istilua arrotu zanean, esate baterako, ingelesek eun milla indiotar sartu zituzten gartzelan. Gandhi bera bost aldiz itzalpetua izan zan, 1919, 1922, 1930, 1932, eta 1942 urtetan, alegia, eta giltzapean luzaro egon behar.

Badaude erreboluziogile batzuek Gandhin jokabideak kopiatu nahi dituztenak, bainan azalez soilik, Satyagraha-ren izpiritu ta mamia onartzen ez

dituzte-ta. Gandhin indarrrik handiena leialtasuna zala jakitea komeni izanen litzaieke horrelakoeri.

Aipatutako erreboluziogileak uste dute ez-biolentzia, indarrezko eta odolezko izkiluak bezela erabili ditekela. Bainan hau ez da egia. «Egiaren oldarra» dalako Satyagraha-k dagokion efikazia izan dezan, barneko konbersio batetik asi behar omen da. Autentikoa, egiazkoa, barnekoa, izan behar da, ez bakarrik azalezkoa.

Gandhik beti zintzo ta garbi jokatu zuen: hortik eldu zitzaion, izan ere, bere itzal izugarri guztia. Gizon maltzur bat izan ezkeru, laster ikusiko zitzaiokean.

Inglaterran orixe esaten zuen askok, hau da, Gandhi zimarkun bat zala eta bere gogortasun gabeko ekitea azpikeria izan, besterik ez. Gandhik bere leialtasunez eta zintzotasunez ainbeste prueba eman zuen, ordea, azkenean iritzi hori azaltzen inor ausartzen ez zala.

Exenpluak milaka eman genitzake. Bat gutxienez emateko, oroi dezagun, azkeneko gudate handia asi zanean, Gandhik bereala indiotarren erasoak suspenditu eta gerazi zituela, horrelako egoeraz protxatu nahi ez zuelako. «Hitler gudakidetzat euki ez dut nahi» esan omen zuen.

Batzuek uste izango dute jokaera hori lilurakeria zala besterik ez. «Gudatea gudate da ta horrelako bideak batere efikaziarik izan ezin dezakete» esango dute batzu hoiak. Barneko autentizidadeak, barneko egiazkotasunak, ez bakarrik moralaren aldetik, baita ere efikaziaren sailean, ahal izugarriarik daukala ikusi nahi ez dute.

Esan dezagun, puntu hortaz, Gandhi koldarraren bat ez zala. Bere iritzi, biolentzian sinesten dutenek biolentzia erabiltzea obe dute desohorean erortzea baino. «Iñork biolentzi ta koldarkeriaren artean aukeratu behar izan ezkeru, biolentzia kontseilatuko nioke nik iñor horri... Biolentzian sinesten dutenek izkiluak erabili ditzaten, biolentzia ohea dalako, laidoa baino» —esaten zuen Gandhi Mahatmak. Bainan gero, hau gaineratzen zuen: «Nik, berriz, Satyagraha, odolezko bideak baino, amaika bider obeagoa dala uste dut».

Eta nik uste dudanez, abantaila hori ez da bakarrik moralaren saietsatik, baita ere efikaziaren aldetik.

Bide jakin baten efikazia ezagutzeko beraren elburua ezagutu behar da lehenik. Gandhin elburua ez zan besteen elburua. Berak esan oi zuen: «Ez izan uste ingelesak joango diranean zuek libre izanen zeratela. baliteke lehen baino menpetuagoak izan, indiotar eskuetan. Herri bat libre izateko lenengoa da bere nortasuna gora dedila. Nortasunik ez dun herri bat, nola izanen ahal da libre?».

Hori zan Gandhin elbururik nagusiena, alegia, lurrean etzanik zeuden herria, zutik jarri ta egiazko herria biurtu. Hortarako, bide pakezkoak iruditzen zitzaizkion egokienak. Bere efikazia ez zan nunbait besteen efikazia.

Fedearen inguruko eztabaida

Zeruko Argia, 300 zk., 1968-12-01

Gaurko egunean, euskal idazle gaztetan, Rikardo Arregi dugu, dudarik gabe, argienetako bat. Idazle ez ezik, baita hizlari ta irakasletzat arras ezaguna da ere. Langile arrastaria, beti, euskal lanetan.

Arregi adizkideak «Jakín» aldizkarian artíkulu bat argitaratu zuen, «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu» zeritzaiona.

Titulu benetan nabarmena, ta zaratatsua, Unamunori atsegin zitzaizkionen antzekoa. Arregin tituloak «La agonía del cristianismo» izenburua oroi arazi zidan, ageri zanean.

Hitz-truke, besterik ez? Ez dut uste, ideia ta gertaera berriak hitz berriak ta estrainak eskatzen bai dituzte. Gure kinkazko egunetan, tituloak zenbat eta nabarmenagoak izan, ainbat obeak.

Horaindik horain Lasa kalonje jakintsuak astekari hontan bertan, erantzuna eman dio Arregi jaunari, gogor xamarra irudi zaidana.

Pozik nago, elkarrizketa hau euskeraz izateko, horrelakoak, erderaz ere, noizean-behin bakarrik ikusten ditugun ezkerero.

Arregik dio: «Gizatasun aldetik eta kristautasunen aldetik ere bai, komeni da, fede batzuek galtzea». Eta Lasa jaunak: «Fedea galtzea gaitza da, beti, noiz eta nun nahi».

Hau egia da, zeren Jainkoak emandako doia gal ta ondatzea ona dala esan, nola esan litekelako?

Bainan, bestaldetik, Agustín Sainduak berak ez ahal zuen esan: «Komeni da herejeak egotea»?

Agiriz, Hiponako gotzaiak ez zuen esan nahi hereje izatea berez onuragarria izan zedila baizikan Jainkoak lerro okerrekin zuzen idazten duala eta Kristautasuna irabazirik ateratzen dala maiz herejeen bultzadagatik.

Jainkoaren izkutuko bideak inork ez ditu ezagutzen.

Nere iritzi apalaz, Rikardok egindako afirmazioa ain urrun ez dago Agustín sainduarengandik. Besteak beste, bi esanen artean ezberdintasun handia ez dago: «Gizarte ta Kristautasun aldetik komeni ta egoki da, gaurko egunean ere bai, herejeak izatea».

Eman dezagun, nolainai ere, Lasa kalonje jaunak beste saietsetik jotzen dula gaia.

Historiaren interpretazioa ez, baizik moral indibidualaren joera begiratzen du Lasa Jaunak, uste dudanez. Bildurrik dago, fedea nolannahiko jostailutzat hartzen dugula, eta arrazoiz.

Oroi arazi dezagun Lenengo Vatikanok esan zuena, hau da, fedearen uztea beti erruduna dala, erabaki hortarako egiazko motiborik inork ezin izan dezaken geroz.

Bainan, dana esateko, teologoak argi pixka bat gehiago ezarri diote puntu horri, batez ere, mende hasieratik.

Lenengo Vatikanok berak, fedea galtzea berez eta materialki obena bada ere, gizaki batek, egoera batzuetan, bere aldetikako erru formalarik gabe fedea gal dezakela adiarazten du.

Apostatak gaiztoak ta jende «perversa» zirela erakutsi ohi zitzaigun lehengo aroan, eta horaindik bustana ikusten zaio, behin baino gehiagotan, iritzi horri.

Oraingo egunetan horrelako iritzia gezurrezkotzat salatu behar da, nahiz ta honek ez du esan nahi —«vade retro»— fedea galtzen dutenak beti jenderik onena izan dezatela.

Eta zer esango genuke, baldin galdutako sinismena egiazko federik ez, baizikan sasi-fede bat, idoloikeri bat besterik izan ez balitz?

Baliteke persona bat itxurazko fede bat utzita gero, Jainkoaren urbilago izan zitzakeala!

Gizonok adi-oro idolo-sortzaile izan ohi gera. Egiazko fedean gabiltzala sinistuarren, askotan egiazko fedean ez, «gure» fedean bizi gera, guk asmatutako fedean besterik.

Bainan, inoiz edo berriz, gure idoloikeria —handia nahiz txikia— egiztatzen dugunean, Jainko izkutuari berriro jo behar diogu. Utsatik hasi behar gera ta nekez eta lanaz, misteriozko bidean berriz ere abiatu behar gera.

Antzinako fedea kondizionatuta zegoela dio Arregi adixkideak. Eta Lasa Kalonjeak gizon guztiok kondizionatuak gerala Rikardori oroi arazten dio. Nik, beste gauza bat gaineratu nahi nuke hontaz.

Gizon guztiak, baita gizarte guztiak ere, kondizionatuta egon ohi dira beti. Bainan beren loturak bi motakoak izan ditezke, ezagunak eta ez-ezagunak, alegia. Bigarrenak, ezagutu ez ditugunez gero, gure ondorekoak juzgatuko dituzte. Lenengoak, berriz, ezagutzen asi geranetik, nahi ta nahiez kontuan izan behar ditugu.

Aldakuntza garai hontan, antziñako gizarteen loturak susmatzen ditugu-ta, nola jarraituko giñake lehen bezela bizitzen? Fedearen prolema beste modu berri batean agertzen zaigu. Gaurko gizon ikasidun baten fedea, antzinakoaz oso ezberdina izan behar dala nork ukatuko du? Nola beraz jokabide berdinekin jokatu nahi?

Nere aurtzaroan, inguru batzuetan behintzat, Vatikanoko Estaduen galderaz asko mintzatzen zan horaindik eta Aita Saindua giltzapean zala amaika bider entzuna dut. Liberalismoa ta progresoa ziran fedearen etsairik handienak. Tronu ta aldarearen teoria jaiki haundia zuen katolikueta. Debozioak ta erlijio teoriak mitoloji itxura izaten zuten. Jainkoaren iduriaz, zer esan? Orduko apolojetikak ezertako ez dute gehiago balio, guztiz joko-kanpoan gelditu bai dira. Orduko problematika erabat desfasatuta da.

Ikonoklastak izan behar gera, beraz, beste fede berri bat sor dedin. Eta hontaz Rikardok irikitako bidea ona iruditzen zait. Test bat egitea erreza da. Gaurko erlijio kinka gaitz bat bezela soilik ikusten dute batzuek.

Beste batzuek erdiko posizio epel bat artzen dute, amaika ingurumari egini, zezena adarretatik ez artzeko. Auek gure denbora zaila dala ta antzinako fede ta erlijio oiturak galtzea penagarria dala diote. Aldakuntza, jaso ta eraman egiten dute, besterik ez.

Besteok ba gaude, gaurko erlijio kinka ederra baino ederragoa iruditzen zaigunok ta antzinako fedearen batere itzul-miñarik ez dugunok. Uste dudanez Lasa kalonjea bera, hauen artean bertan arkitzen da.

Dana dala, esana dudanez, ni hor nauzute. Izan ere, apur bat fede horaindik gordetzen dudalako, gure gazte batzuek «fede» galtzea egiazko kristautasunaren alde azkenik jokatuko duala sinisten dut.

Gaurko gai bat

Jakin, 34 zk., 1969

Jesukristo ez zan politikan sartzen. Apolitikoa zan. «Indiferentista» zan, politika sailean.

Horixe esan zaigu amaika bider.

Baina ez da egia. Iritzi hori oso okerra dala uste dut, eta kalte handia egiten diola Kristoren mandatuari.

Israel teokrazia bat zan, mundu guziak dakianez. Teokrazia batean ezina da erlijio postura ausart bat hartzea, politika sailean ondore astunak erakarri gabe.

Gure egunetan, esate baterako, Rusia teokrazia bat da, nahiz ta Jainko gabeko teokrazia izan. Hori dala-ta ezina da gaurko Rusian filosofia, zientzia, kultura edo erlijio sailean postura ausart bat hartzea politika sailean ondorioa sorre-razi gabe. Arrazoia dute, beraz, beren aldetik, hango agintariek, intelektualak es-tu hartzen dituztenean. Oroi dezagun Lysenko biologozailearen afera famatua. Lysenko bera, bere biologiako teoriak gatik kondenatua izan zan, Estaduaren erlijioaren kontrako ziralako.

Eta, nork ukatuko du Kristoren postura ausarta zanik?

Garai hartan erromarrek Israel guzia okupatuta zeukaten, Judea ta Samaria zuzenki, Galilea ta Perea berriz, Herodes Antipas erregearen manuz. Judeota-rrentzat erromarrak ez ziran bakarrik politikako etsai, baizik Jainkoaren etsai, erlijioeko etsai. Bata eta bestea gauza bera zan, hain zuzen, beren errealitatean.

Pilatosen gobernuari buruz pasadizo batzuk kondatzen dizkigute Flavius Josefus eta Filon historizaileak. Kasu guzietan —nahiz Kaisaren idurien aferan; nahiz «Korbanas» zeritzan tesoro sakratuaren lapurtzean, Pilatosek berak har-tutako, «acueducto» bat eraikitzeko; nahiz Garizim zalako mendian konzentra-zioaren kontrako zigor izugarrian, edota galileotarren masakratzen bertan— kaso guzietan, politika ta erlijio arazoak guztiz nahastuta zeudela ikusten dugu.

Gauza bera gertatzen zan alderdi edo partiduetan. Politikako alderdiek er-lijioko sekta itxura zuten, bata eta bestea berdinak ziralako. Alderdi bakoitzak

erromarren alde edo erromarren kontrako postura hartzen zuen, eta hartze honek bi arpegi zituen batean, erlijio aldetikakoa eta politika aldetikakoa, guztiz berezigaitzak.

Saduzeoak, esate baterako, erromarren adiskideak izan ohi ziran, Israel he- rriaren personalitateak bost axoi zien, Bibliako fedea galdua zuten eta helenis- mo-zaleak ziralako.

Herodetarrek ere, erromarren joku politikoa egiten zuten, abantaila, oho- re eta ogibide onenak lortzeko. Ez praktikatu, baina erlijioaz baliatu, bai, beren xede ta helburuak lortzeko. Azeriak bezala ibiltzen ziran beti, deus ateratzeko modua bilatzen.

Saduzeoak eta herodetarrek kolaborazionistatzat har ditzakegu.

Fariseoek, berriz, erromarrak ezin zituzten ikusi. Hauen kontra azpi jokoa egiten zuten gehienetan. Baina beti legezko bideetatik, arpegirik eman gabe, eta arriskurik ez. Reformistak ziran eta garbizaleak.

Azkenik, zeloteak, aberatsen eta erromarren etsai amorratuak izan ohi zi- ran. Aberri-zale amorratuak, eta iraultzegileak. Erromarren kontraz istilu ika- ragarriak antolatzen zituzten, biolentzia ta harmak erabiliaz.

Ikusten dezutenez, sasitarte hartan, politika gabeko erlijio-ko postura uts bat hartzea ez zan posible. Nola izan liteke Jesukristo ertzean gelditzea? Nola izan liteke Berak: «Erromarrak? Ni ez naiz sartzen prolema hortan, neri ez zait beatzen...» esatea? Beraren irakaspenak ondore politikoak izan behar zituen, nahi-ta-nahiez. Berak ondo zekien, baina momentu guzietan postura hartzen zuen, zuzenbidearen alde, batere beldurrik gabe.

Gaurko esejetak «Kaisari Kaisarena eman eta Jainkoari Jainkoarena» esan famatuari interpretazino berri bat eman beharko liokete. Baldin, Frantziko okupazio garaiean alemanek moneta kuinatu izan balute, eta Maixu bati nor- baitek «alemaneri zerga pagatu behar al zaie?» galdera egin izan balio, zer eran- tzungo zion Maixuak? «Diru hori alemanek berek egin dute, ez da gurea, naska egiten digu. Emaiezute beraz ekarri duten bereri».

Agiria da pasadizo hori bi botereen arteko har-emanerako eredutzat har- tzea zuzenik ez dala, Kaisera okupantea zalako eta judeotarrak arrotza bezala nahi-ta-nahiez ikusi behar bait zuten.

Jesukristo hitz guziek politikako oiartzun bat izan behar zuten, bortzaz. Adi- bidez, Berak «zoritzarrekoak zuek aberatsak!» esaten zuenean, ez zan aberats abstratu batzuetaz mintzatzen. Berak salatutako aberatsak bere aurrean zeuden,

herodetarrak, saduzeoak eta, batzuetan, fariseoak ziran. Jende konkretu ta jakin bat eta ondo instalatua gainera. Hori esatea ez ote zan politikarik izango? Madarikazio hoiek botatzea ez ote zan politikatzat hartuko?

Argi berri batez begira behar da Jesukristoren ekitea. Ez zan, ez, estratosferan. Eta horregatik il zuten.

Jesukristo politika gatik salatua izan zan eta kondenatua, judeotarren erregea izan nahi zuen salaketagatik. Egia zan gainera, garai batean, gutxienez, errege egin nahi zutela. Orduko politikalariek Jesukristoren hitzak eta obrak zentzu politikoa zutela soberaz zekiten. Zeren Jesukristo ez bait zan «neutralistaren bat», hainbeste bider esan diguten bezala. Politika sailean postura garbi bat hartzen zuen, nahiz ta askok, «distingo» ta ezberdin asko sartuaz, ezagutu nahi ez izan gure egunetan.

Dimensio bateko gizona

Jakin, 35 zk., 1969

M.-ren gizartea, alegia, dimensio bateko gizartea, utopiatzat hartu behar dugu, asieratik bertatik, horrelako gizarterik ez baida oraingoz esistitzen, ez sortaldean, ez mendebalean.

Hau esatean ez diogu M.-ren eskemari batere inportantzirik kendu nahi. Are gehiago, filosofo honen analisa, gaurko egoera azaltzeko egokia baino ego-kiagoa iruditzen zaigu. Hauxe erakusten saiatuko gera idazki hontan bertan.

Stalinismoaren aroan eskema sinple bat erabiltzen zan, sartaldeko aldetik behintzat. Antikomunismoa zan politika bakarra, eta antikomunismo horren izenean, benedizio guziak ematen zitzaizkien bidegabekeririk handieneri¹.

Gero, guziek dakitenez, makartismoa bukatu-ta «koesistenzia» zalakoaren aroa asi zan. Munduaren eskema pixka bat korapilatu zan orduan, alde bate-
tik irugarren munduaren prolemak agertu baiziran, herri hauen gosea ta mise-
ria, guzien aurrean azaldurik; eta, bestaldetik, herri nagusien teknikak progre-
so izugarriak egin zituztelako, nahiz mendebalean, nahiz sortaldean. «Sociedad
opulenta» dalakoaz mintzatzen asi zan garai hortan, eta batzuk pobreen askata-
suna eta zoriontasuna, teknikak ekarriko zituela sinetsi zuten orduan.

Baina arazo berriak sortu ziran batean eta teknika-gizartea honen ederra ez zala berehala ikusi zan.

Han eta hemen, gazteak, intelektualak batez ere, gizarte aberatsaren kontra jotzen asi ziran zartadan, Greziako antzinako zinikoen antzera².

M. gaztedi biurriaren pontifizerik handienetako bat dala uste dute batzuk. Ikustekoa litzake iritzi hau, baina, dana dala, gaurko eboluzioaren ezagutzaile handi bat dugu M. filosofoa. Berak gizarte modelu berri bat erakusten digu, ale-
gia, teknikako razionalismotik sor zorian dagoan gizarte berria.

Erabatekoa ez bada ere, M. marxista omen da³. Gaurko gizartearen bilaka-
tzea bere gisako marxismoaren arauaz ikusten bide du berak.

M.-ren analisa ez da, nolana ere, asmakari uts bat, gure errealitatearen modelu baliotsu bat baizik. Analisa horren garrantzia agirian da, nere ustez, gaurko egoeraren neurria ematen digulako, saiets batzuetatik behintzat.

Gogor egiten diote batzuk M.-ri, utopista besterik ez dala eta gaurko proletarikaz deus ulertu ez duala, esanaz.

Utopista dala? Hori egia da, alajaina, bere lana, alde batez behintzat, utopia sailean ezarri dualako. Ideia hau, ordea, puntualizatu beharko genuke, aurrerago joan baino lehen.

François Chipaz jaunak bere M.-ri buruzko «Aliénation et Utopie» artikuluan, hau dio hain zuzen, ta zentzuz esana da, gainera: «L'analyse de M. renvoie bien à une utopie. Mais la question qu'il faut poser à son endroit n'est pas de savoir si cette pensée débouche seulement sur une utopie (ce qui serait le récuser d'une façon bien médiocre) mais bien plutôt si cette utopie marxiste est en mesure d'ouvrir à l'histoire qui se fait, de la rendre intelligible et de la rendre possible»⁴.

Utopistatzat zuritu behar dugu M. jauna, utopia jenero oso garrantzikoak izan ditekealako.

Utopien historia erabat aztertu duan Desroche soziologoak, une hontan oso egoki dakiguen hitz berri bat sartzen du, bere terminologian⁵.

Izan ere, bereizkuntza argi bat egiten du egile honek, utopietan. Utopia batzuk, denbora-pasa ta txakur-amets batzuk besterik ez dira. Beste batzuk, berriz, Desroche-k «ukoopiak» deitzen dituanak, alegia, historia ulertzeko ez-egiazkoak, baita ere historia bideak zuzentzeko ta aldatzeko balio dutenak dira. Beraz ukooi-egileak ez dira bakarrik amets-asmatzaileak, egiazko eragileak baizik. M.-ren analisa utopia ez-baino «ukoopia» deitu beharko genuke, bera historia martxa aldatzeko gauza baiditeke, besteak beste.

Bestaldetik, M.-ren ukooia hau, «self-defeating» deitzen diran igarpen hoietako bat dala esan beharko genuke.

«Self-defeating» eta «self-fulfilling» hitzak aita Merton zanak asmatuak dira eta Aranguren jaunak ere bere «El marxismo como moral» liburuan erabiltzen ditu. (Self-defeating: «profecía que, en parte, no se ha cumplido *precisamente* porque ha sido formulada»). M.-k igarpen bat egin du, gizarterik aurreratuetan dialektika hilko dala esanaz. Eta *hain zuzen ere*, igarpen hori egina danegero, dialektika ez da hilko ote. «Contestation» mugimendu dalakoak olatu berri bat sor-arazi du, gazteen artean, eta dialektika berriz ere agertu. Hori dala-ta,

M.-ren ukoopia «self-defeating» dala diogu. M.-k ateka gorri batean gaudela esaten digu, dialektika gabeko Historiorik ez baiditeke izan. Eta esan horrekin protesta mugimenduari bultz handi bat egiten dio, egin ere.

Baina horrelako atekatik zein moduz aterako geran ez dakiala aitortzen du berak. Hau da, noski M.-ren teoriaren akatsik handiena.

Azterketa asko egin dira, aspaldi hontan, gizarte teknologikoaz.

Hoiien artean M.-na da, behar bada, sakonena eta zorrotzena.

Gizarte teknologikoa ez da bakarrik gizarte kapitalista edo konsumoko gizartea. Nahiz eta gehienetan M.-ren kritika USA-ko gizarte kapitalistaren aurkakoa izan, bi aldetikako herri industrializatueri ezar ahal dakieke, bi gizarte hauek teknikaren antzaz eta itxuraz ukazinoa dalako.

«One dimensional man» iduria oso egokia dirudi gizarte teknikako dalakoaren fenomenua azaltzeko.

Gizarte industrializatueta, nahiz eta sozialistak izan, alienazio berri bat agertzen da, M. jaunaren ustez, antzinakoak baino gogorragoa dana. Gaurko gizonaren zorientasuna alienaziotzat ikusi behar dugu, nahi ta nahi ez, zibilizazio aurreratua gizon konkretuaren ukazinoa dalako.

André Gorz jaunak argi ta garbi esan du: «La société d'accumulation socialiste a reproduit le divorce entre l'individu concret et l'individu social» Eta handia da marxista batek honako hau esatea. Baina nun arkitzen da ondamen horren zergatia? Dialektikaren heriotzean, erantzun genezake M.-ren ideari jarraituaz.

Mahatma Gandhi zanak, honako hau esan ohi zuen, bere herriaz mintzatzekoan: «Nagusikeriari 'ez' esateko indarra galdu dugu». Eta berak, Genève'-ko interview famatu batean, beste hau esan zuan: «Kapitalismoak fusilak, ametrailak eta pozoineko gasak eskuetan izateak ez du batere axolik, langileek 'ez' esateko bortzari eutsi ezker». Izan ere, horixe da gizarte industrializatueta gertatzen dana: dimensio bateko gizonak «ez» esateko kemena galdu. Galtze hau, ordea, ez da indarka, gogorka, bortxaz eta zigorrez egiten, baizik, atseginez, plazeraz, eta aisetasunez.

Teknokrazia, Kalipso ninfaren antzekoa da, eta gaurko gizona beraren sareetan lotuta dagoan Ulises bat.

Lotuta esan dugu, eta ondo esan gainera, zeren «feliz coincidencia» dalako bategatik, euskeraz «lotu» adjetiboak, «ensorcelé» eta «enchainé», biak batera, esan nahi ditualako. Eta hori da, hain zuzen ere, dimensio bateko gizonari gertatzen zaiona.

Historiaren indarra, ukazinoa ukatzean dagoala esan ohi digute marxistek.

Bortzaz eta zigorrez lotuta dagoan herri edo klase bat zapaltze horren kontra altzaten da.

Baina gaurko teknokrazia —utopia sailean irauten dugu beti— gizonaren behar guziak asetzeko eta kontradizino guziak integratzeko gauza omen da. Hortik dator, M.-ren iritziz, dialektikaren akabantza eta Historioaren fina.

Nahi ta nahi ezkoa dugu, beraz, une hontan dialektikarik gabeko eta ukatzerik gabeko gizartea. Eskapatzerik gabeko gizartea.

Dimensio bateko gizarteak, gizonaren beharrak maneatzan ditu, bere itxurara ta gisara. Hoietako behar batzuk betetzen ditu. Beste batzuk, berriz, baztertu eta ahantzi arazi.

Gizona, beharrez jositako izaki bat da, alegia, «un ser de necesidades». Marx-ek argi ikusi zuen hau, eta «beharraren dialektikaz» mintzatu zan. «Le besoin est à la base de l'histoire et de la société. Supprimer les besoins de l'homme, ce serait corrélativement supprimer sa culture, à la fois comme culture de lui-même et comme monde cultivé et humanisé par lui»⁶.

Baina beharra ez da bakarrik fisikaren aldetik ikusi behar. Simone Weil andre idazleak, agirian ipini zuen bere «L'enracinement» liburuaren asieran, beharraren dialektikaz mintzatzean: «Parmi ces besoins —Weil andreak zion— certains sont physiques, comme la faim elle même [...] D'autres n'ont pas rapport avec la vie physique, mais avec la vie morale [...] Ce sont, comme les besoins physiques, des nécessités de la vie d'ici bas. C'est à dire que, s'ils ne sont pas satisfaits, l'homme tombe peu à peu dans un état plus ou moins analogue à la mort, plus ou moins proche à la vie végétative».

Benetan, gizonak, gizon danez, eta gizartean dagoanez, behar asko ditu, fisikoak ez direnak: erresponsabilidatea, askatasuna, ohorea, partizipazioa, kultura... Behar hauek ez bazaizkio asebetetzen, heriotzaren antzeko egoera batean erortzen da gizona. Ez da gehiago gizonik, gauza edo animalia baizik.

Beharra da, beraz, kontradizino ta ukazino guzien iturburua. Beharraren dialektika garbi ta naturalki jokatzen baldin bada, gizartea gizarteko da, eta gizona gizartetu. Historia aurrera egiteko, nahi ta nahi ezkoa da beharraren dialektika. Hori dala-ta Marx-en beraren iritzian, gizarte komunistetan ere jarraitu behar litzake joku hori.

Baina zer gertatu da, eta zer gertatzen?

Lehenago kapitalismoa, gizonaren premiak bete ordean, premia hauetaz baliatu egiten zan gizona maneatu ta menderatzeko⁷. Lehenago gizarte industrialean, langileek bere behar premiatsuenak ere, ezin bete zitzaketen, eta hortik miseria ta zapaltzea.

Gaurko egunean, berriz, teknika aurreratuari esker, gizarte aberatsak erreztasun ta aietasun guziak eskeintzen omen dizkio jendeari. (Ukooiaren erreinuan gaudela ez ahantzi).

Baina gizarterik aurreratuenek behar batzuk betetzen badituzte ere, beste batzuk, batez ere sistemaren kontra izan ditezkeanak, ito arazten dituzte.

M.-k dionez⁸ fenomenu hau, alegia, «askatzea» eskatzen duten beharrak itotzea ta gordetzea, guztiz berezikoa da gizarte teknolojikoan. «C'est caractéristique de la société industrielle avancée la façon dont elle étouffe ces besoins qui demandent libération, y compris le besoin de se libérer de ce qui est supportable, avantageux et confortable».

Azkeneko oharpen honek oso inportantzi handia du, M.-ren ideiak ulertzeko.

Gaurko gizarteak bere atsegin ta erreztasunak harrarazi nahi dizkigu. Ez digu lajatzten abantail hoiien loturaz libra gaitzela.

Berriz ere Ojijia ugartearen izena gogoratzen zaigu, Kalypso ninfak lotutako Ulises gozo ta atsegin ez jositik zegoan ugarte⁹.

Askatasuna da, hain zuzen ere, gizonaren behar handienetako bat, baita zapaltzeak gozo-itxura hartzen duanean ere.

Askatasun beharra ito eta gordetzeko beste gezurrezko oharra asmatzen ditu dimensio bateko gizarteak. Gezurreko libertadeak. Adibidez, USA-n gertatzen omen dan bezala, «la liberté d'une presse qui se censure elle même», «la liberté de concurrence de prix preablement arrangés», etab.

Esandako hau ez da oraindik handiena. Handiena da, M.-ren iritiz, dimensio bateko gizartean askatasun ideia bera falsifikaturik egoten, benetako zapaltzea dana jendeak libertadetzat hartzen dualako.

Aipatutako falsifikatzea lan fina izan ohi da. Zearo egiztatua, teknika ta zientziatzko legeen aldetik. Nor ausartuko da aurrerapenak emandako abantail eta atseginak salatzen?

Antzinako gizarteetan, premia ta behar gorriak ageri ziran, eta hortik etortzen zan kontradizinoa ta ukazinoa. Baina orain, M.-ren ukooiaren, ez da deus ikusten, mundu onen-onenean bidezkoa iduritzen baizaio gaurko gizonari.

Ikusi dugunez dimensio gabeko gizartea eta dialektika gabeko gizartea gauza bera dira M.-ren pentsaeran.

Idea hau zearo eta sakonki erakusten du M. jaunak bere «One dimensional man» liburuan. Adibide batzuk besterik ez ditugu emango entsaio hontan.

Lehenengoa, trajeria. Trajeria zan, antzinakoan, dialektikaren forma bat, nahiz ta idealista izan. Giza-errealitatearen kontradizinoak azaltzen zituen. Ukatze-indar bat zan. Lurreko botereen kontra jokatzen zuelako, misteriozko trazendencia baten izenez.

Erljio-itxura zuen, benetan, eta erlijioak berak bezala dialektika bat sar-arazten zuen giza-munduan. Eta gaur zer gertatzen da?

Psikiatria ta trunkilizanteak asmatu ziranez geroztik, trajerian nork sinistuko du? Gizarte hunek —dio M.-k—¹⁰ trazendenzien irudipenik maiteenak ezeztatzen ditu. Aterik gabeko zorigaitzak arrunteko eginkizun biurtzen ditu. Kontradizino guziak maneagarriak direla erakusten du. «La tragedie, le roman, les anxiétés et les rêves primitifs sont susceptibles d'une solution technique ou d'une 'disolution'. Le psyquiatre prend soin des Don Juan, des Roméo, des Hamlet, des Faust, comme il prend soin d'Oedipe. Il les soigne!».

Ez dago, beraz, gehiago trajeriarik, ez pekaturik, ez halabeharrik. Mirikuntza besterik ez.

Ez gaitezen mintza arimaren ixilpeko trajeriaz. Inkesta ta estadistika-makina bat berehala egingo ligukete teknologoek, eta izkutua guziz suntsituko litzake.

Trajeriari buruz esan duguna poesiari ere ezar lekiok. Poesiak trazendencia behar du, nahi ta nahi ez. Danaren eta ez danaren artean dialektika bat sor-arazten du. M.-k berak, Paul Valéry olerkariaren esanbide bat ekartzen du arira, «la langage poétique ne parle jamais que de choses ahentes» esaten duana.

Olertiak, egiazkoa izateko, «la marca de lo insólito» ezarri behar du gauza guzietan, Bertold Brecht-ek esaten zuen bezala. Baina, nun izango ote da, gure gizarte mekanizatuan «insólito» hori?

«Insólito» konzetua publizitaterako hitz bat biurtu da.

Kontradizino ta trazendencia gabeko poesia sistimaren morroia da, besterik ez. Izen soila bilakatu da, izen utsa, batere kontenidurik gabe gelditu dan.

Antzinako gizarteetan, poesia eta trajeria errealitatearen ukoa ta erreusa ziran. Orain berriz «le refus est refusé», M.-k dionez. Eta bi horieri buruz esan duguna beste erti guzietaz esan diteke. Eta filosofiari, eta erlijioari buruz. Are gehiago politika integratuari buruz, Amerikako sindikato integratuari buruz, etab.

Analisa hau zearo egiten du M. jaunak. Oso interesgarria izango litzake bere pausuak jarraitzea, batez ere filosofia alorrean. Baina irakurleak berez egingo du, M.-ren obra, behar dan arretaz, aztertuz ta egiztatuz gero.

-
1. Orain ere, kristau asko asmo simple hortan bertan daude setaturik.
 2. Paralelismoren bat ba dago, dudarik gabe, gaurko protestako ekitearen eta ziniko mugimenduaren artean. Antistenes eta Diojenes-en filosofia errebisatu eta ber-baliorazi beharko litzake gizon modernuaren aldetik.
 3. M. burges txikia dala irakurria dugu, aspaldi ez dala, prosa-paper batean. Hala izanen da jakintsu hoiek diotelako. Dana dala, bera marxistatzat askok hartzen dute, nahiz eta bere marxismoa mekanizista ez izan.
 4. François Chirpaz. «Aliénation et Utopie», «Esprit», 1969-1-ean.
 5. Henri Desroche «Viajes por ucoopías». Rev. «Comunidades», Madrid. Mayo-Agosto 1966.
 6. Ik. J. Y. Calvez «La pensée de Marx», 388, 389 horrietan.
 7. «On se sert des besoins de l'homme pour l'asservir». J. Y. Calvez, aipatutako liburua, 387-an.
 8. «L'homme unidimensionel». Ed. de Minuit, 32 hor.
 9. Antzinako «Nouveau Dictionnaire historique» (Caen 1786) liburuan, honako hau irakurtzen dut: «Elle (Kalipso) habitoit l'isle d'Ogygie, que l'on presume être l'isle Goxo». Azkeneko hitz hau, berriz ere euskera Paradisuan mintzatzen zanaren froga irrekusablea da.
 10. Liburu aipatua, 95-ean.

Sasi-fedearen inguruko alkarizketa

Zeruko Argia, 305 zk., 1969-01-05

Artikulu hau Lasa kalonjeak Z. A. 302-n egindakoari ihardespena da.

Irakurleak, berri horren gura bada beintzat, hemengo eztabaidaren aurrekoa Z. A. 301-n eta 302-n arkituko du, José Lasa jaunak, Rikardo Arregik eta neronek argitaratutako idazkietan.

Nun datza idolokeria? Nun egiazko fedea?

Uste dudanez, fedea Jainkoaren doai bat da, guztiz izkutua ta mixteriozkoa.

Teologoak astratu sailean gauza asko esan ahal digute fedeari buruz, nahiz beti ados ez izan.

Bainan fede kontzetuaz ta izkutuzkoaz oso gutxi dakite teologorik jakintsuenak, zeren Aitak gauza hauek eskoladuneri eta burutsueri gorde dizkielako eta humil eta txikitxoeri azaldu. «Revelasti parvulis».

Neri, egia esan, Jainko-geometria itxura duan Fedearen Teologia bat ez zait batere utsegiten.

Utzi dezagun, beraz, alde batera, bigarreneko galdera, ia egiazko fedea nun datzanik. Sasi-fedea gizonen obra danez gero, errezagoa izanen dugu hontaz mintzatzea, egiazkoaz baino.

Aro guzietako gizonak mito eraikitzaile izugarriak izan dira.

Errealitateak ematen ez digun segurantza irudimenari eta sinismenari eskatzen diogu. Hortik dator, hain zuzen ere, sasi-fedea deitu deguna, mota askotariko izan ditekeana.

Hala izan zan antzinako legean, Testamento zaharra irakurtzean ikusten danez.

Hala da, baita ere, Testamentu berrian. Eta halakoa izango da, aro guzietan, gizonak iraunen duan bitartean. Gizona beti mito fabrikatzaile.

Neronen oroipenak erabiltzea zilegi bazait, urte asko direla jaun «bien pensant» talde bati eman nion hitzaldi bat arira ekarriko dut. Hitzaldi harrek

«Cristianismos falsificados» zuen izena eta sasi-fedeeri buruz, argi ta garbi mintzatu nintzan muga hartan. (Iskanbilla izugarri bat arrotu zan, esan beharrik ez, entzule gehiena oso konserbadorea zalako).

Urteak igarota pentsaera berari jarraitzen diot oraindik, alegia kristauok, fedea ta jainkomoldekeria elkar nahastera makurtzen gerala. Benetako mitolojiak sortzen dira hortik, beti eta nun-nahi, kristauetan.

Hitzaldi hartan bertan adibide asko eman nituen. Hemen, ordea, bat bakarrik azalduko dut, «sasi-fede soziologikoa» dalakoa, alegia. Geiegi luzaturik gabe, ideia hau erakusten saiatuko naiz.

Gizarteko gertaera bat da erlijioa. Haurrak, beste ezagutza askokin batean ikasten du erlijioa. Gizarte-konbenzionalismoak eta erlijioak sistema bat osatzen dute, segurantza-sistema bat, gizonari nahita-nahiezko bidea ezartzen diotena. Bizi onetarako eta besterako zorientasun itxurako bat eskeintzen zaio zitudadano zintzo eta esanekoari.

Etika naturala eta fedezko moralak, ohiturak eta automatismoak, Jainko-manuak eta gizonen aginduak, dana nahastuta agertzen da hortan.

Gizarte guzietan, nahiz laikotuak izan, erlijioa integratuta egoten du. Askotan erlijioa arrazoi-dotrina bat bezela agertzen da, eta misterioz, eta giza trajeriaz, ia ez da mintzatzen, erlijio agertzean.

(Misterioa eta trajeria dira, ordea, fedearen ataurretaraino eraman behar gaituztenak, ez baizik silojismoak eta formulak).

Esan dugun bezala, nahastapil honen erdian azitzen da haurra, gizarteak emandako legeak, ohiturak eta egiak (edo sasi-egiak) onartuaz.

Bainan haurra gizon bilakatzen danean, gizartetik hartutako gauza-mundu guzti horren aurrean zalantzan arkitzen da. Gaztea pixka bat sinets-gogorra biurtzen da nahi-ta-nahiez (eta arrazoiz).

Izpiritu kritikoa sortzen da, beren barnean, zurrunbilloa bezala, dana ondartzeko prest.

Ba diteke haurrak aintzakotzat onartu zuen gehiena, gazteak ere onartzea. (Hortik gizon esaneko eta «fededun» asko). Bainan batzuetan, beste bidetik joango dira gauzak. Kasu ontan gizarte-etorkia mesfidantza handiakin ikusten asten da gaztea.

Etorki hortan maltzurkeri batzuek arkitu ditulako, dana gezurra ta maltzurkeritzat hartuko du. Karta-gaztelu bat bezelako sinismena ondatuko zaizkio, ondapen ikaragarri hortan.

Bainan nik nere buruari galdera bat egiten diot.

Gazte horrek galdu duana egiazko federik ote zan edo sasi-fede bat besterik?

Besteak beste, horrelako kinka igarotzea bearrezkoa da, uste dudanez, fede sendo ta azkarra irixteko. Bestela, baldin fedea beste nolanaiko konbenzionalismo bezala gordetzen bada, «fede» horrek egiazko fedearen izena ez dula merezi uste dut.

Nere adiskide on eta argia zan gazte batek, berak fedea galdua zeukala esaten zidan eta, gainera, galera hori gertatu zitzaion momentua ziur-ziurrik zekiela.

Pena handiak esaten zidan, eta nik, nere baitan, bear bada gazte hura bere sasi-fedean galdu ondoan Jainkoaren urbilago zala, lehen baino, pentsatu ohi nuen.

Nik bere biziaren berri nekien eta zenbat prejuizioen kontra burruka egin behar izan zuenik gizarajoak. Poza ematen zidan hura pentsatzeak. Jainkoak bakarrik daki, ordea, arima harren barnean gertatua.

«Persona bat, itxurazko fede bat utzita gero, lehen baino Jainkoaren urbilago izan litekela» iskribatu nuen nere lehengo artikuluan.

Eta hortan nago oraindik, naiz eta iritzi hori nabarmen xamar ahal izan irakurle timorato batzuentzat.

Euskaltzaindiko batasun hiztegia

Zeruko Argia, 309 zk., 1969-02-02

«Ba da garaia —idazten zuen, orain, Hirureta jaunak— euskeraren batasunari oztopoak ezartzen diozkatena, euskeraren etsai kontsideratzeko».

Egia esan, oso gutxi dira, gaurko egunean batasunaren kontra agirian daudenak. Hala ere, Hirureta berak dionez, «aixago da esaten obratzen baino».

Ia guziak, batasuna gura dutela esaten dute. Baina zenbat dira beraren aldeko ezer egiten dutenak?

Idazle askoren idazketan ez da batere batasun seinalerik ikusten. Bere gisara ta modura, beti bezala idazten jarraitzen dira, batasun izenik entzun ere egingo ez bazuten bezala.

Nere buruari galdetzen diot nik, zer motako batasuna bilatuko dute horrelako hoiek.

Batasuna zaila dala? Egun bakar bat ez dala egingo? Hori soberaz dakigu guziok. Bainan ez hitzez, obraz ta egitez baino, probatu behar da borondate ona.

Batasuna lortzeko lana ixil-ixilik egiten asi da, Euskaltzaindiak Arantzazu batzar oroigarria izan zuenetik.

Euskal alorrean maixu ta jeneral asko daudela uste dut. Infanteriako solda-ruak, egunoroko lana egiteko jendea, aldiz, oso gutxi. Ala ere, nahiz ta atomo-bonba izan, infanteriarik gabe ez da batere gerlarik irabazten.

Euskaltzaindiko talde bat egiten ari dan lana, bi hitzetan esango dizutet, ezkutua ez dalako, baita exenplotzat ere guzien aurrean erakustea komeni bait da.

Euskal batasun hiztegia egiten saiatzen ari da talde hau. Bospasei maila izango ditu lanak. Lenengoaz bakarrik mintzatuko gera oraingoz.

Lenengo maila honek hitz rotarrak, euskalki guzietan edo ia guzietan erabiltzen direnak, alegia, agertuko ditu.

Uste dugu baino ugariagoak dira hitz erotar hoiek. Bi mila, gora bera, aterako dira, baldin, deribadoak kanpoan utzita, hitz nagusiak bakarrik jartzen

badira. Adibide batzuk jartzea komeni da hontaz. «Aber» hitza, esate baterako, erotarra da, nahiz ta forma desberdinak izan, eta «abel» da deribado batzutan agertzen dan erroa. «Aber» ta «abel-» sartuko dira, beraz, hitz orotarren errenkadan. «Aberats», «aberastasuna», «abeletxe», «abelzain» ta amaika horrelakoak, berriz, ez dira sartuko, ondoriokoak direlako. Alaber, «ema» hitza jarriko da, ez aldiz beretik sortutako «emazte», «emakume», «emazurtz» ta beste horrelako.

Mundu guziak dakienez, ordea, hitz bakoitzak forma desberdin asko izan ditzake, eta, batzutan, oso ugariak izan ohi dira, forma hauek. Adibidez, «enara» hitzak, forma honako hau ditu, gutxienez, mendebaletik sortaldera ordenaturik: «enara»; «inara»; «einbara»; «ainbara»; «ainara»; «inbara»; «ainhera»; «anhera»; «anuri». Forma hoietan bat edo bi hartu beharra da, batasunerako. Aukera hau oso kontu handikoa da, eta inork ez du aukeratzetik, euskal linguista trebe ta jakintsua ez izanik.

Begira zazute lana nola egiten dan. Lenengo pausua da hitz erotarrak bilatzea eta hoietako hitz bakoitzaren formak txarteletan idaztea. Hitz bakoitzaren formak txartel batean jartzen dira. Lan hau egiteko taldearen lankideek alde aurretik beren artean banatzen dituzte hiztegi letrak, bakoitzak bizpahiru hartzen. Gainera, langile bakoitzak egokiena iruditzen zaion forma markatzen du, txarteletan eta, batzutan, hitz bakarra baterako bi forma markatu. Gero, txartelak euskal linguista famatu jakin bati bialtzen zaizkio. Honek, lan guzia egizatzen eta berrikusten du, beharrezko aldakuntzak egiten, nahiz forma aukeratuak ongi ez izan, nahiz batzuk kendu edo sartu behar izatea. Bereala txartelak taldeari biurtzen dizkio eta honek beraren agindueri jarraituz, hitz errenkada bat egiten du letra bakoitzerako. Lista hau hiru euskaltzainei bialtzen zazaizkie orduan, beren iritziak eman ditzaten. Azkenean iritziak linguista aipatutari gastigatzen zaizkio, honek letra horren erabateko errenkada eman dezan. Honekin, letra horren zatia argitaratzeko prest dago. Azkeneko hitza, jakina, Euskaltzaindiko batzarre nagusiak izanen du.

Esandakoa batasun hiztegiaren lenengo maila da, esan dugunez. Iru ilabete barru, gehienez, bukatua izango da.

Beste pausuak bereala egingo dira eta uste dugunez aurtan bertan hiztegi osoa (hau da, hitz erotarrak; hitz orotargaiak, euskalki batzuetatik euskera orokarrara pasatu behar direnak, alegia, eta hitz modernoak) agertuko da.

Langileek ez dute berenez ezer asmatuko, hiztegi ta idazle onenetatik dana hartuko dutelako. Lanak garantia guzia izanen du beraz, ikusten dezutenez.

Betiko eztabaidak, eskatima guziak, alde batera utzita, marmartzalleak talde horrekin lan egitera etor ditezela, eta laster egingo da miraria: euskera idatzi bateratua.

«Token» ta «Tokenismoa»

Zeruko Argia, 314 zk., 1969-03-09

«Tokenismo» hitza, Luther King ospetsuaren «Why we can't wait» liburuan arkitu nuen, lehenbiziko aldiz.

Marka edo kiñu esan nahi dun «token» berba ingelesatik dator «tokenismo» hitza. Eta «token» honek zer esan nahi du? Baten batek, jokoan adibidez, «token» bat ematen baldin badizu, eta, geroztik, «token» horri dagokion konpromisoa ez badu betetzen, hitza jan eta ziria sartu egin dizula esan dezakezu egiaren egiaz. Jokabide hau askotan erabili omen da, Ipar-Amerikan beltzeen eskubideak zabaltzeko, eta hitz bera, «tokenismoa», oso arrunta dala dirudi, bereiztasun —segregazio— prolemaz jardukitzeen diranen artean.

Tokenismo eta gezurrezko reformismoa maiz elkarrekin joaten bide dira. Berekin topatuko noski, gauzak nun nahi eta nolanhiko barrutian pixka bat obetu nahiaz asi bazerate.

Komeni da, beraz, gaitz horri izen berezi bat ezartzea, merezi duan bezala salatu dezagun, jende askoren iritiz, izenik gabeko gauzarik ez bait da esistitzen.

Agintariak, berek emandako legea obratu beharrean, legearen betetzea luzatzen eta berandutzen hasi diranean, tokenismo kasu baten aurrean gaudela esango dugu.

Beltzeen aldeko lege, ugari ta ederrak dituzute Ipar-Amerikan. Baina, noiz edo behin, haietako bat obraz jarri nahi baldin baduzu, amaika oztopo ta eragozpenekin topatuko zera, nagusi ta agintarien aldetik.

Beltzuri «tokena» eman zaio, legearen berme kiñu egin zaio alegia, baina ondorioa eskuratzeko garaia datorkionean, ezertarako ez dio balio agintariak berek legea «paper bustitzat» artzen dutelako.

U.S.A.-ko Auzitegi Nagusiak erabaki bat hartu zuen, 1963 urtean, eskola guzietan, nolanhiko maila izan, ikasle beltzak sartzeko eskubidea izango zutela agintzen zuena.

Hala ere, berehala asi ziran luzamenduak eta aitzakiak, eta, Estadu batzutan, eskubide hori auntzaren gauerdiko eztula bezela gelditu zan azkenik.

Teoriaz, arrazoina ematen zitzaion beltzari, izaitez eta egitez berriz, enganoa zan.

Gauza bera gertatu zan Justizia administrazioaren sailean. Beltzari, juez, epaikari edo jujea izateko eskubidea ezagutzen zion lege bat agertu zan. Agertu bai, baina ondore praktikorik ez. U.S.A.-n guzian juje beltz bakar bat, ez besterik, izendatu zanez gero. «Legea bete dugu» esan zezaketen nagusiek. Baina, benaz mintzaturik, betetze zalako hura, izugarriko gezur ta azpikeri handia zan. Azpiko lan hau oso arrunta omen da, Ameriketean, eta Ameriketa ez dan tokian ere, eta bera, demokrazia itxura dualarik, egiazko tirania biurtzen da.

Agintariak beste trikimailua ere ba zuten, beltzeen eskubideak austeko. Beltza, legearen arauaz, eskubide bat obratu nahirik asi zanean, agintariak dilindan uzten zuten, hau da, egitea debekatuta, «mandato de suspension» bat ematen zuten probisionalki, Auzitegi Nagusiak iritzia azaldu arte. Gisa hontaz, beltza, auzi izugarri batean sartu beharra zan, eta iru edo lau urten buru, arrazoina ematen zitzaion, diru asko ondatuz gero. Baina, gehienetan, azken hau ez zan gertatzen, eskubidea obratzeko garaia igarotzen zalako edota beltzak auzia jarraitzeko naiko dirurik ez zuelako.

Hau da «tokenismoa». Baldin zuen inguruan begiratzen baduzute, berdintzu arkituko duzute, behar bada, zuen herrian bertan.

Zezenkeriak eta Xiboleteak

Zeruko Argia, 319 zk., 1969-04-13

Z.A.-n berri agertutako «Betiko zezena toreatzen» artikulua ez zait batere gustatu. Herri libro batean gaudenez gero —mundu guziak dakianez— nere iritzia ere azaldu nahi dut, artikulua horren kontra jotzen.

Zezen bakar bat zezenketatzeko hainbeste torero juntatu, ez zan beharrik. Adiskideok, zuen paperak manifesto itxura du, ospe ta ots horrekin agertzen duzutelako, amar personak firmatuta.

Nahi-ta-nahiez manifestotzat hartu behar dugu. Baina manifesto bezala, oso munta gutxikoa iduri zait, egia esateko. Oso ideia ikusiak eta mastrakatuak erabiltzen dituzute hor, eta betiko eztabaidak berriz ere jotzen dituzute, batere protxurik gabe. Atzerontz egiten duzute, ez aurrerontz.

Horren seguru zaudetenok, utzi itzazute ilak, beren ilak eortzen.

Obra berria sortu gura duzute zuek, arrazoiz. Baina zuen manifestoan, biderik errezenari jarraitzen diozute, ez onenari.

Zuen burua jenerazio berri batentzat bataiatzen duzutelako, 1964-koa, alegia, lan hori baino gauza oberik hartzeko ba genuen derecho, lehenengo agertze hontan.

Zuen poemak, zuen entsaioak, zuen ideia berriak, egiazko berriak, desiratzten nago. Ez berriz, umore txarrezko kritikak eta esabruptoak.

Barka idazute, poeta ta idazle maiteok, gogor xamar jotzen baldin badut. Baina zuen kontradizioko artikulua-manifestoak kezka handia eman dit.

Bera irakurtzen nintzalarik, Unamunon konparazio bat, xiboleteen konparazioa, alegia, burutatu zait.

Jujeen liburutik atera zuen berak, Israeleko gerlaen pasadizo famatu hau. Efraim eta Gallaad tribuen arteko gudu bat izan zan, eta azkenean Gallaadekoak gelditu ziran garaile. Efraimdarrak, berriz, desarmatuak, eta igesi egin gabe, gallaadetarren eskuetan milaka erori ziran. Bainan gallaadetarrak eta efraimtarrak oso berdinak ziran, eta zaila zan, guda nahasiaren erdian, batzuek ta besteak

berdintzea. Hori dalata, nahas-mahas hartan, gallaadetar batek, efracimtarra zalako gizon desarmatu baten aurrean arkitzen zanean, galdera hau egiten zioten: «Hi, efracimtarra ahal haiz?». Eta besteak «ezetz» erantzun baldin bazion, agindu hau ematen zion: «Esak xibolet».

Zeren, efracimtarrek «xibolet» hitz hau ezina bait zuten ongi pronunziatzea, eta beti «sibolet» esan ohi zuten, xibolet-en lekuan.

Beraz, beste gizarajoak, «sibolet» esaten baldin bazuen, zintzurra egiten zioten berehala gallaadetarrek.

Zenbat eta zenbat xibolet, gure artean ere! H letrak, edo gabe, idazten duzula? Xibolet! Lizardi lirikako poesiak atsegiten zaizkizula? Xibolet! Erosotasunaren maitasuna duzula? Xibolet!

Nahiko xiboletekeria ba dugu gure artean, idazle eta poeta andre-jaunok! Ez insistitu, faborez.

Euskal-Herria ta Gaztel-Herria

Zeruko Argia, 327 zk., 1969-06-08

Gaztel-Herriaren izenak inperialismoaren iduria gogoarazten omen digu euskaldunori. Agertu berri dan liburu bateen, ordea, hipotesi hori gezurrezkoa dala erakusten saiatzen da egilea.

Egile hau Anselmo Carretero jauna da, federalista ezaguna. Eta bere idaztia, adiskidea dudan Francisco Sabaté jaunak argitaratu du Valenzian. Liburu benetakoa harrigarria ta irakurgarria. Z.A.k, «Herriak eta Gizonak» izeneko horrian, notatxo bat jarri zuen, liburu honi buruz, Rikardo Arregi lagunak idatzitakoa. Baina nik zerbait gehiago esan nahiko nuke, uste dudanez merezi dualako.

Carretero jaunak dionez, Gaztel-Herria, Euskal-Herria bezalako, libertadezalea izan da beti. Baina gero gauzak okertu dira, Gaztel-Herria errudunik ez. Ondamen honekin lehenengo kaltiarra Gaztela bera izan da. Hau onartzeko Leoia ta Gaztela herrien tradizioak oso desberdinak direla jakin behar da. Baina gure egilearen iritziz iskribatzaile askok, Ortega y Gasset, Unamuno ta Azorín hauen artean, herri biak nahasten dituzte eta nahaste hau oso kaltegarria da, Espainia ondo ulertzeko.

Tesi hau interesgarria ta paradojiakoa iduri zait eta horrengatik ekartzen dut astekari hontara.

Gaztel-Herriak euskaldunetatik hartu du bere libertadearen aldeko tradizioa. Burgos kortean euskeraz mintzatzen omen zan. Lehenengo Gaztelaren kondeak jatorrizko euskaldunak ziran eta beren askatasun-zaletasuna transmititu zioten Gaztel herri berriari.

Asturiasetik sortutako errokonkista, berriz, noble godoek egin zuten eta hauen gogorrezko izpiritua, Leoia erresumara eraman.

Bi mentalitate hoiek burrukaz ibili ziran luzaro. Alde batetik askatasun-mentalitatea. Antzinako herri librean mentalitatea. Numanziako mentalitatea. Bestaldetik Fuero Juzgoa, godoen mentalitatea ta gudarikeria. Gure egunetaraino iraun du burruka horrek. Baina zesarismoak, pixkanaka pixkanaka, libertadeak

ondu zituen. Eta bere lehenengo bitima Gaztela bera izan zan, Carretero jaunak dionez.

Asieran demokraziako kutsua zuen Gaztelak. Hala agertzen da Historian. Eta izaera hori Euskal-Herriak etortzen zitzaion.

Gaztel-Herria komunitate berejabe multzo bat zan lehendabizi. Federalista zan bere egitura. «Behetriak» ziralakoak osatzen zuten, orain Gaztela zaharra deitzen duguna. Gipuzkoa bera hoietako errepublika edo behetria bat zan.

Nahiz ta gudari euskaldunen laguntza izan, Gaztelak askatasuna laster galdu zuen, Leoiaren kontra gudaratan. Euskal-herriko jendeak berriz, luzaro gorde zuen, bere libertatea.

Egileak dionez, Espainiko herri gehienek ez dute sekula libertaterik ezagutu. Ez da beraz harritzekoa beren bizakera oso desberdina izan, Euskal-Herriaren aldean.

Carretero jaunaren aldetik, Euskal-Herria Espainiko herri guzientzako eredu ta exenplu izan behar da.

Nere irakurleek ez dute ezer galduko liburu hau arretaz irakurtzen eta sakontzen. Bere titulua «La personalidad de Castilla en el conjunto de los pueblos hispánicos» duzute.

Artikulu hau egilearen ohorez eta omenez egin nahi dut. Seguru nago poza handia emango diola bere ideiak euskera zaharraz azaltzen berriz ere arkitzeak.

Barri on bat

Zeruko Argia, 330 zk., 1969-06-29

Xabier Gereño jaunak artikulu bat idatzi berri du astekari hontan bertan, «Idazle baten buruausteak» izena duana. (Buruauste hoietzaz asko dakigu, zoritarrez, euskera kultura bidetzat hartu nahi dugun idazleok).

Euskaltzale erne honen guziak bezalako, mamitsua eta garrantziduna.

Berriz ere, batasuna gaia maiaren gainean.

«Euskal Ikastolak fracaso bat izan ez daitezkan, gure umeak alperrik ikasi ez dagien, euskera Euskal-herriko hizkuntza ahal dan arinen izan daiten, edozein lurraldetako euskaldunak ahal dan arinen errez ulertu gaitezkan euskeraz eginez: EUSKERA BATUA BEHAR DOGU» —idazten du Gereño idazle argiak. «ZAHAR ETA GAZTEAK euskera batua zabaltzen ahalegindu behar gara».

Anarkia lehen-bai-lehen buka dedila eskatzen dugu Gereño eta guziok.

Anarkia esaten du eta ondo esan. Mila exenplu jarri genitzake hortaz. Bat bakarrik emango dut, une hontan begien aurrean daukadana. Maiaren gainean gure bi astekari «Herria» eta «Z. ARGIA» dauzkat. Astero irakurtzen ditugu euskaltzale guziok, lehengoa noizean behin bidean gelditzen bada ere. Bata Baionan agertzen da, bestea Donostian. Berrogei ta bost kilometro dira besterik ez hiri batetik bestera. Baina, hizkuntzaren aldetik, zenbat kilometro dira astekari hauen bitartean? Portugesera eta espaineraren bitartean baino handiagoa iruditzen zait. Eta gero Euskal-Unibersitateaz mintzatuko zaigu!

Galdera bat egiten du Gereño adiskideak, guziok gure burueri egiten diegun bera: «Euskal Akademiak euskera batuaren oinarriak zabaltzera doa... NOIZ?» (letra handi hoiek nik jarritakoak dira).

Hontaz berri on bat eman ahal dizut, Gereño adiskidea: lehengo Euskaltzaindiaren hiztegi bateratua bukatuta dago. Hortarako eratu zan batzordeak bere lana amaitu du, eta laster agertuko da, dirudienez, Akademiaren «Eusker» aldizkarian. (Hori uste dugu behintzat).

Bi mila berba nagusiak ekartzen ditu, Herri osoan hedatuenetakoak, —ez bakarrik Gipuzkoan— danak bateratuak, nahiz formaren aldetik, nahiz ortografiaren aldetik, eredu ta kriterio ojetibo baten arauaz.

Zer arrera izanen du, hiztegi honek? Berriz ere, denbora galdu besterik ez ahal da izango? Ez dut uste. Jende letraduna leporaino dago hainbeste zalantzaren aurrean. Gazteak batez ere, benaz hartuko dutela uste dut.

Eta nere Gallup partikularrak dionez gazteak ez ezik, idazle «zahar» asko ere bai (68,35% alajaina!) hiztegi hau erabiltzen saiatuko dira borondate onenakin.

NOIZ hori atarian daukagu beraz. Bihotz on! Gereño adiskidea ta adiskide guzi hoiek! Kulturazko euskera biziko da eta herriko euskera ez da galduko. Ez gera betiko anarkian akitzen jarraituko.

Gizona

Zeruko Argia, 334 zk., 1969-07-27

Gure Rikardo zana gazte urdurizat hartzen zuten batzuek, besterik ez. Baina Rikardo gizon osoa eta heldua zan, benetako. Areago, egiaz esan dezakegu herriren batean holako gizonak ez direla agertzen, behin edo behin besterik.

Laburra izan bada ere, bere biziak ekarri onak eta sasoiak izan zituen ta, Rikardoren izena urte askotan maitasunez oroituko da Euskalerrian.

Adimen indartsua ta argia zan Rikardorena, eta argidura hau, sail askotan azaltzen zan. Aspaldi hontan, izan ere, matematika ikaskintzan laguntzen nion nik. Batzutan harriturik gelditzen nintzan bere «poder de síntesis» egiztatzean. Teoria bat agertzen zuenean, oinarriak eta elburuak erakusten zituen asieratik, argi izugarrikin. Oso gutxi daude, matematika ikasleen artean, horrela egin ahal dutenak. Matematikazaile handia izan ahal zitekean, izan nahi ezkerro. Baina berak, lumeroak ez, gizonak eta gizarteak maitatzen zituen batez ere.

Bi kualidade zituen, guztiz maitagarri egiten zutenak, garbitasuna eta pres-tutasuna edo eskuzabaltasuna alegia.

Garbia zan gure Rikardo. Poza eman zuen berekin har-emanak izateak. Beraren atsegin eta irabaziak ez ziran inoiz sartzen bere asmoetan. Bestaldetik lan-gile izugarria genuen, ezin sinistekoa. Herriaren alde ekiteko beti prest.

Arazo berri bat agertzen zanean bere buruaz ahazten zan eta berehala la-nean zenuten.

Erljio sailean oso gizon serioa zan, uste dudanez. Bere kezkek, egiazkoak eta sakonak ziran. Azaleko erlijioa, mitoak eta sasi irudipenak iguin zitzaizkion.

Benetan, egiazko Jainkoaren bila zebilen beti, begi ta bihotz garbikin.

Jainkoak berak, misteriozko Jainko Horrek, hartu digu. Gurea baino zo-rioritsuagoa da orain gure Rikardo laztanaren izpiritua.

Hiztegi modernoa

Zeruko Argia, 335 zk., 1969-08-03

Gauza jakina denez, barneko etsaiak beti txarragoak izan ohi dira kanpoak baino. Gazteluak ez dira gehienetan etsaien oldarragatik galtzen, baizik zaindarien etsiagatik eta salkeriagatik.

Gerla psikolojikoaren espezialistek maiz aipatzen duten Jeriko zalakoaren ondamena dugu hontaz exenplorik onena, besteak beste.

Euskeraren galeraz ere, eta bere ondamenaz, euskaldunak izaten dira errudunik nagusienak. Euskerak, dakigunez, gure hizkuntza errotik suntsitu nahiko luketen etsai handiak ditu, noski. Baina nahi izate hori ez zan deus izaneren, euskaldun askoren etsi, ezkonzientzia eta saldukeririk gabe.

Euskera bere atsegin eta solaserako megaterio ikusgarritzat hartzen dutenak kalte handia egiten diote euskerari. Folkloristak, puristak, eta beste horrelakoak, barneko etsai dira, besteen artean, nahiz ta berak ez jakin.

Bestaldetik gaurko garaian, «kaletar fenomeno» dalakoa, mundu guziko fenomeno izugarri hori, edo «dimensio bakarra gizartea», hizkuntza txikien kontrakoa da, Euskal Herrian beste herrietan bezala.

Egoera horren aurrean hizkuntza fijatze eta bateratzeko zerbait praktikorik egiten ez badugu, ondoreak laster agertuko dira. Batez ere, gaurko ideiak eta arazoak erakusteko hitz egokiak arkitzea beharrezkoa dugu.

Euskera sail guzietan sartu nahirik ari geran «inteletualok» begi txarrez ikusten gaituzte euskalzale batzuek. Beren euskera gozo-gozo ta jator-jator gorde nahi dute. Baina beren euskera eme ta gozoarekin besterik ez badira jarraitzen, egunen batean euskera besoetan il zaiela arkituko dira.

«Inteletualak» sasi maixuak direla eta euskera motela eta erdi erderatua erabiltzen dutela esaten dute. Baina, nola Marcuseri buruz eta Aljebra berriari buruz idatzi hitz jatorrekin besterik?

«Gaurko hiztegi» bat nahi ta nahiezkoa dugu. Ez da posible orainarte bezala jokatzeko jarraitzea.

Hiztegi modernoak amaika egin dira, izan ere, lehengo urtetan, nahiz zientzia sailean, nahiz politikaz, filosofiaz, edertiaz eta abar. Baina guziak ezberdinak. Nork bere hiztegia egin du, eta erabili, bere gisara eta gustora. Zoritxarrez, bakoitzak bere hiztegia ulertzen du, besterik ez, eta besteena entenditzeko, inguru-muruka ibili behar da. Horrelako moduz ez da irakurtzerik, ez ulertzerik.

Beraz, berbak ez dira faltatzen, euskeraz, ugariegiak izan baino.

Lan hontaz Euskaltzaindiak du lehengo hitza. Bera da une hontan eta egoera hontan, anarkia horrekin buka dezaken bakarra.

Lehen bai lehen hiztegi moderno bat, laburra bada ere, atera dezala eskatzen diogu berriz ere, Euskaltzaindia beneragarriari.

II. 1970-1979



Grecia, Europako kontseilutik kanpora

Anaitasuna, 180 zk., 1970-01-15

Giza-eskubide zale guztientzat, barri on bat izan da kanporatze hau. Bildur ginan, nazino arteko ohiturazko hipokrisia barriro be garaile izango ote zan. Uste genduan, Grezia menperatzailearen aurka ez zala ezer egingo. Baina, zorionez, ez da honelan izan aldi honetan.

Hain zuzen bere, Europako Kontseilua giza-eskubideak jaurri eta zaintzeko sortu zan, 1949 gn. urtean. Europa guztia ikaratuta egoan Hitlerek egindako gaiztakerietaz. Beste horrelako tiraniarik ezelan bere agertu ez eiten, alkartu egin ziran Europako Estatu demokratak.

Euren lehenengo urratsa, Erroman giza-eskubideen Kartea eratzea izan zan, 1950-ko abenduan. Lehenengo sortzaileetako bat Grezia izan zan.

Urte batzuekarrenean, Grezian bertan aldeketak aundiak gertatu ziran, guztiok dakigunez. Egoera barri honen aurrean, zelan izan leiteke Estatu zapaltzaile batek Europako Kontseiluan irautea? Halan bere, horrelako gauzak eta baita aundiakoak bere ikusiak ditugu ta, Kontseilua tutik esan barik gelditzea ez jakun bapere estrainagarri izango.

Frantziak batez bere, ez eban Greziako gobernuaren kontra ezer egin. Azkenean, isiltasun hau nabarmena zala oharturik, Europako ministroen Biltzarrak zeredozer egin behar zala ikusi eban. Amazortzi Estaduetatik amaikak, Grezia kanpora botatzeko boza emon eben. Pipinelis ministroak, muturrekoa artu baino lehen, Kontseilutik kanpora urten eban bere kabuz.

Aspalditik lehenengo aldiz, joko garbia egin da Europako Alkartean. Exemplo ona izan da. Beti honelan izan baldin balitz!

Biafraren ondamena

Anaitasuna, 181 zk., 1970-01-30

Benetan barri penagarria, Biafraren ondamendi tristea. Hainbeste neke, hainbeste min eta eriotze, alferrik izan dira Biafratar gizaixoentzat.

Soegile batzuek dinoenez, gerra ikaragarri honek eriotze gehiago egin ditu urte bitan, zortzi urteko Vietnameko guduak baino.

Gosez eta midiku laguntzarik ezaz, aurrak milaka il dira Biafra zoritxarrezkoan.

Ibotarrak, argiak eta bulartsuak izan arren, ezin ahaurpegi emon izan deuse Nigerialako armadeari, Afrikako indartsuenetariko bat berau baita. Biafrakoak, kanpokoen laguntzarik bage, ondatu egin behar ziran, ezinbestez, burruka desbardin honetan. Orain ez dabe eskapatzerik. Euren etsaien eskuetan gelditu dira; eta honeek ilketa gorri bat egingo ote daben bildurrez dago mundu guztia.

Arrazoia nok? Oso barri gutxi jakin dogu, gudu honen zegaitiari buruz. Ibotarrak euren burua maneatzeko eskua lortu nahi eben, Nigeria Estaduaren aurka. Baina honek, hareen kontra, gogor egin eban. Nigerialakoak, 1967 gn. urtean, ilketa aundi bat egin eben, Assaba uriko gizona guztiak il zituenean.

Biafrako gobernuak (1968-ko otsailean) laguntza eske jo eban ONU-gana, ezer bere ez jaritxi barik. Harrezkero Biafratarrak bakar bakarrik gelditu ziran, Tanzania Gabon, Marfileko Kosta eta Zambia apartatuta, beste Estadu batek bere onartu ez ebalako. Mendebaleko Estaduak ikusi eta itsu egin eben, euren interesak bakarrik begiratuaz. Beti bezala, iskilo fabrikanteak euren mauka egin eben, alderdi bie armak salduaz.

Orain, dana dago bukatu. Garai ilun honetan, «Le Monde» egunkarian agertutako editorial batek izenburu samin hauxe ekarten eban: «Une grande solitude» (bakartasun aundi bat). Egia da. Gertaera honen ikusgarriena, Biafraren bakartasuna da. Baita nazinoen burukoikeria bere.

Zelan itxi dabe alferrikako triskantza hori egiten? Ba dago horretarako nazino arteko dotrina bat, «ez sartzeko» izena dauana: «Estadu bat beste Estadu baten barru-arazoetan ez da sartu behar».

Dotrina honen izenean, zenbat eta zenbat gogorkeria egiten itxi dan, azken urte honeetan! Nire ustez, gauza bat ikasi geinke gertakari honetan: horrelako burrukak lehen bai lehen amaitu eragiteko indarra nahikoa daukan nazino arteko armada bat laster beharrezkoa dala.

Bestela, «ez sartzeko» dotrinea astakeria aundia da, besterik ez.

Guatemalako ilketa, zer egin?

Anaitasuna, 187 zk., 1970-04-30

Guatemalan egindako alemaniar enbajadorearen iltzeak, makina bat protesta ta kondenazino jaso dau mundu guztian. Von Spreti kondearen ilketa gaiztakeria iguingarri bat izan dala ezin leike inok uka.

Honelako zitalkeria kondenatu daben egunkariak, nahiz eskoialdekoak nahiz ezkerrekoak, «Libre Belgique»-tik «L'Humanité»-raino, arrazoia dabe, dudarik ez. Gizatasunaren izenean mintzatu baitira.

Ezkertiar batzuek ilketa hori kondenatzen ez badabe, eurak euren buruak kondenatzen ditue. Hau esanda gero, ezin geintekenez horretan bakarrik gelditu. Biolentziazko inguru edo kontextu guztia salatu behar dogu, nahi ta nahi ez.

Latino Amerikako erririk gehienetan, bitariko terrorismoa dago, bata bestearen kontrakoa. Terrorismo gorriaren aurka, terrorismo zuria agertu da, gorria baino bihotz bakoagoa. «Escuadrones del Amanecer» deritxoena eta beste horrelakoak, iltzaile taldeak bezala osotzen dira. Antzinako «Esku Baltza» eta «Ku-klux-klan»-en metodoak eredutzat artu ditue. Baina txarrena da, iltzailerik aundienak hango Gobernu batzuetan dagozala.

Erri batzuetan, egiazko «gangsterrak» bezala jokutzen dabe agintariak eurak. Zer esan, esate baterako, Santo Domingoko Errepublikan Trujillok egindako eriotzetaz?

Arrapatzaileak aspalditik operatzen dabe Ameriketan. 1958-an, Castristak Juan Fangio arrapatu eben Cuban; eta 1963-an, Venezuelako erreboluzinogileak bardin egin eben Di Stéfano; kasu bietan, deportista famatu horreen bitartez propaganda egiteko. Gero, politika eta erlejinoko andikiak erooten asi ziran. (1964-an, Smolen koronela, Ipar Amerikako misinoaren burua; 1968-an, Casariego monseinorea, Guadalupeko gotzaina; 1969-an, Burke Elbrick jauna, Brasilen Ipar Amerikako enbajadorea, eta abar eta abar, oso ugariak izan baitira urte honeetako arrapatzeak, ordainez preso politikoen askatasuna lortzeko).

Colombian, 1966-an, Harold Herder, azukre industriaren nagusia zana, arrapatua izan zan, eta egun gutxi ondoan ilda agertu zan. Halan bere, gehienetan, arrapatzaileak ez deuseee kalterik egin euren biktimei eta honeek gaitz barik libratuak izan dira.

Baina, gizon ezagun batzuek aparte, zenbat eta zenbat ez dira ilak izan? Ezezagunak diranez, munduko eritxia ez da mugidu, ezer gertatu ez balitz bezala. Von Spreti konderearen eriotzea, bai, kondenatu egin dabe egunkariak; baina mila ta mila pobreraren aurrean tutik bere ez.

Hor dago, esate baterako, Brasileko indioen genozidioa. Jende zorigabeko hau abioietatik tiroka garbitzen ari izan ei dira zapaltzaileak; ehunka il dira, animaliak balira bezala. Ikusi honetaz «Sprit» aldizkariaren azkenengo zenbakia, aurtengo irugarrena.

Guzti hori egoeraren azala da, besterik ez. Barreneko problemea, ekonomiararen inperialismoa da. Gaurko kristinauok, inperialismo hori, Pio XI-garrenak «diruaren inperialismoa» deitu ebana, salatu egin behar dogu, itzez ezezik baita egitez bere.

Baina zer egin, Amerika egoera gorri horretatik ateratzeko? Hor dago un-tzea. «Le Monde» egunkariak, Guatemalari buruzko editorialari izenburu hau jarri eutson: «Quoi faire»? zer egin?

Irakaskintzaren demokratizazioa

Anaitasuna, 189 zk., 1970-05-30

Gobernuak Cortes-etan agertutako Irakaskintza Legegaiaren elburuen artean, irakaskintzaren demokratizazioa da, nire ustez, garrantzitsuenetarikoa.

Gobernuaren asmoak lortzen baldin badira, Espainiako ume guztiak bardinak izanen dira aurrerantzean, irakaskintza sailean. Aberatsak eta pobreak oportunitate benetan bardinak izanen ditue, hemendik aurrera lehen mailako ikaskintzak ez baitira ordainduak izango. Estatuak bere pentzutan artuko dau ikasle guztien kontuak pagatzea.

«Colegio» izen dotorea daben eskolarik onenetara, dirudunen umeak baino ez euken joaterik. Besteak «escuela pública» deritxonera joan behar. Orain eskola guztiak «erriko eskolak» izanen dira, diru maila guztietako ikasleei atek zabalduko jakez eta.

Zelan ez txalotu Gobernuaren asmoak? Pobreen seme-alabak, aberatsenak baizen argiak dira, eta batzuetan gehiago, behartasunak adimena zorrotzu ohi dau ta. Ondo dago, alajaina, irakaskintza saileko diskriminazioa kentzea!

Halan bere, lan honek oztopo batzuek aurkituko ditu nonbait; eta komeni da hau jakitea, jendea kikildu ez daiten, gauzak nahiko geunken baizen azkar ibilten ez badira.

Lehenengo oztopoa, diruaren aldetik izanen da. Lehen mailako irakaskintza guztia ordaintzeko, diru asko behar da; eta Gobernuak bere presupostuetan elburu hori sartzea, gauza gatxa izanen da oraingo. Dirudunak pobreen irakaskintza ordaindu daien, zerga barriak ipini beharko dira; eta hau ez da egun bateko arazoa izango.

Baina, nire ustez, irakaskintzaren demokratizaziorako eragozpenik aundiena ez da alde horretatik etorriko, klase prejuizioetatik baino.

Aundikiak eta aundiki ametsak dituenak ez dabe euren seme-alabarik eroango pobreekin nahastatzera.

Lantegitxo bat zabaldu dauan gizonaren andreak, edo enpresa batean enplegu on bat lortu dauanarenak, holango zerbait esango dabe asarraturik, legegaiaren barria jakiten dabenean: «Zer uste dabe, gero? Gure alabatxoa atezainaren alabarekin eskolara joango da ala? Pentsatu be. Eziera makala emongo geunskio gizaixoari! Berba txarrak esaten etorriko litzakigu etxera! Eta gero, zeintzuk izanen dira bere adiskideak, zeintzuk bere errelazinoak? Ez, umea, ez. Komunistak sartu ote dira Gobernu barruan?».

Horixe da, tamalez, jende askoren mentalidadea, orainarte eskoletan klase mentalidadea eratu baita, eta oso gatxa izanen da dana gauetik egunera aldatzea. Amaika atrikulu asmatuko dira, legea burlatzeko!

Dana dala, lehenengo pausua egin dau Villar Palasí ministruak; eta zeredozer egingo da bide on honetatik. Nire eritxiz, demokratizazinozko asmo honeek txalo bero bat merezi dabe.

Garrantziko bi gertaera

Anaitasuna, 192 zk., 1970-07-30

(Euskera batuan)

Bi gertaera harrigarri izan dira aspalditxo honetan, Europako demokrazia sailean. Alde batetik, Jean Jacques Servan-Schreiber-en garaipena; eta bestetik, Harold Wilsonen erorpena.

Bi gertaera hoiek oso desberdinak izan arren, zerbait elkar ikusirik ba dute, ustegabekoak izatea, alegia.

Ofiziozko politiko eta teknokratikoei gehienetan ez zaie atsegin ustegabe-koa. Berria, bai, asko maitatzen dute, baina baldintza batekin: berri hori antzi-nakoaren arras antzekoa izan dadila.

«Le Soulier de Satin» antzerkiaren personaje batek horixe esaten du: «Berria, bai, berria eman diezadatela. Asko maitatzen dut..., baina lehengoaren berdin antzekoa izatekotan».

Jean Jacques Servan-Schreiber-en Nancy uriko garaipena sorpresa bat izan da Frantzia, bai gobernuaren aldekoentzat, bai ezkerreko oposizio dela-koarentzat.

Nor da izar berri hau, sortaldetik agertzen zaiguna? Batzuek eta besteek be-rehala ikusi dituzte mehatxaturik beren buruak. Eta arrazoiz.

Ba liteke, Jean Jacques Servan-Schreiber-en garaipenak ondoreak izatea Eu-ropako politikan. Baina ondore onak izango direnik ez nuke nik esango.

Nere ustez, Jean Jacques Servan-Schreiber hau amerikanismoaren iduria be-rra da; eta bere jokabidea neo-kapitalismo porrokatua izanen dela iduritzen zait.

Berria, berria..., baina antzinakoa lakoxea izatekotan!

Federik gabeko zibilizazio honetatik ez gaitu aterako Jean Jacques Servan-Schreiber-en politikak, bera ere helburu materialetan leporaino sartuta dagoelako.

Gaurko egunean justiziaren aldeko politika behar dugu mundu guzian, eta ez diru-atsegin politika edo ugaritasun politika.

Harold Wilson gizaixoaren hutsa, beste gauza bat da. Nere ustez, Merton fraile famatuak «self-defeating» deitutakoaren exenplo berezi bat da huts hau, besterik ez.

Mertonek sortutako hitzok —«self-defeating prophecy» eta «self-fulfilling prophecy»— oso egokiak iduritzen zaizkit, gaurko gertaera batzuk erakusteko.

«Self-fulfilling prophecy» betetzen den profezia bat da. «Self-defeating prophecy», berriz, betetzen ez dena; eta ez da betetzen, hain zuzen ere lehen aurretik iragarria izan delako.

Hurbil dugun exenplo bat emango dugu. Ba liteke, Unamunok egindako profezia ez betetzea, hau da, euskera ez hiltzea, hain zuzen ere Unamunok berak, nahi ta nahi ez, euskerak laster hil behar zuela iragarri zuelako. Beraz, Unamunoren iragarpena «self-defeating» profezia bat izango lizateke. Ala Jainkoa!

Inkesta neutralik ez dago. Inkestak, gehien gehienetan, alde batera edo bestera makurrarazten dute errealitatea.

Hala izan da kasu honetan. Wilsonen aldeko profeziek bera hil dute.

Guretzako ondore handirik ez du izango hiltze honek.

Laboristak nahiz kontserbadoreak, guretzat berdinak.

Profeta baten itzaltzea

Anaitasuna, 193 zk., 1970-08-15

Oraindik ez duela bi urte, JAKIN aldizkari famatuan, Marcuse filosofoari buruz artikulu batzuk argitaratu genituen, Rikardo Arregi zenak, Azurmendi frantziskotarrak eta hirurok.

Marcuseren itzala handia zen oraindik, garai hartan, ikasle ezkertiarren artean. Maiatzeko matxinadan, hiru M —Marx, Mao eta Marcuse— hartu zituzten ikurrintzat Pariseko zalapartariak.

Orain, berriz, goitik behera omen doa Marcuseren itzala. Erdi ahazturik omen dago haren izena ikasle inguru haietan.

«*Sic transit gloria mundi!*» esan beharko genuke, beharbada latinezko esarak aipatzea kursikeria bat badirudi ere.

Nolanahi ere, Marcuse irakurri dutenen artean (oso gutxi omen dira), inork ez duke ukatuko Marcuseren lanetan garrantzizko zenbait uste aurkitzen direnik.

Beraz, zergatik eklipse hau, honen supitu eta ustegabeko?

Freud eta Marxen izenean, gaurko gizarteak gizona zapaldu eta hertsitu egiten duela salatzen zuen Marcusek bere idazlanetan. Hori dela ta, munduko hippy, yippy ta arlote guziek «guru» edo maisutzat hartu zuten, ez-aspaldiko memento jakin batean. Esan dezagun, «guru» hitz hori hindu dela; zeren, hinduen artean, «guru» bat, izpirituzko direttore bat hartzea, oso ohiturazko baita.

Marcuse zaharra, protesta delakoaren profeta bihurtu zen, beraz, hirurogei ta hamar urte zituela.

Baina protesta hau utopia bat da, itxuraz behintzat. Nik ez dut uste, hippiek teknokraziaren aurrean behar dugun libertatea ekarriko daukutenik.

Maiatzeko matxinadak batere emaitzarik ez zuen eman, dirudienez. Utopis-moa gaurko gaitz handi bat dela iruditzen zait, batez ere gazteengan.

Askotan, hobetzerik ez duten gauzak amets bideetan abiatzen dira. Maisu, asko. Egile, gutxi. «*Oui peut, peut; qui ne peut, enseigne*».

Alde honetatik, Marcuseren «dotrinak» ez zuen irauterik. Utopiaren profetak eten gaberik aldatu behar dira. Gaurko idoloa, biharko zakarra.

Eta nik galdera bat egiten diot ene buruari. Nolakoak izanen dira gazte olatu berrien profetak?

Erreazionario ta mistiko izugarriak izatea ba liteke. Gure bilobak, nahi ta nahi ez, gure seme-alaben kontra izan behar direlako. Lege bat da.

Gazteak umetzat ez har!

Anaitasuna, 195 zk., 1970-09-15

Gazteak dira gure euskalduntasunerako arriskurik haundiena, «sorgin ihiztari» batzuen iritziz behintzat. Gure gaitzik haundiena eta periltsuena.

Nik ez dut uste, berriz, gaurko kinka «conflicto generacional» delako bat datekeenik. Gazte ta zaharren arteko burrukaz kanpo, ba daude, gaurko egoeran, beste istilu-kausa asko, zibilizazioaren salto edo mutazio batean garez gero.

Gazte izatea bekatu izango ote da? Ba dirudi, astakeria hori ez duela inork esaten; baina jansenista batzuek baldintza bat jarri nahi omen diete «zintzo» dirrelako gazteei: alegia, gazteen pentsaera, izaera ta egiera, zaharren pentsaera, izaera ta egiera berbera izan daitezela.

Libiako esaera zahar batek honako hau dio: «Putzu-iturritik edan, eta zure tokia besteei utz».

Gazteak umetzat hartuko ditugu? Ez al dugu ikusten, gizaki helduak direla, eta beren xanda aspaldidanik ailegatu dela?

Matematikaren historian famatua den «Essai sur les coniques» liburua, hamazazpi urte zituela argitaratu zuen Pascal jakintsuak. Hamazazpi urte, laster esaten da gero!

Hogei ta bi urte zituen Alexandro Haundiak, Dario erregearen gaineko garaitzapen izugarria lortu zuenean. Bonaparte Jeneralak, Italiako gerran, 28 urte zituen, Rivoli, Arcole ta beste toki askotako bataila oroigarriak irabazi zituen.

Eta hain urrutira joan beharrik gabe, nahiz eta beste maila batekoa izan, hor dugu Sabinoren exenplua, hogei ta bi urteko zelarik idatzi baitzuen bere «Gramática elemental del euskera vizcaíno» famatu hura. «Ume bat» zen eta gainera euskaldun berria, Lasa Kalonjearen terminologian bigarren mailako euskaldun zela esan nahi duena.

Ez gaitezen izan Cervantesen baratzainaren zakurra bezalako. Zakur hark, ez zion beste inori jaten uzten berak jaten ez zuena.

Inportantzia handiko ehun urteko bat

Anaitasuna, 198 zk., 1970-10-30

Victor Manuel eta Garibaldiren tropak Erromara sartu zirenetik lehen ehun urtekoa izan da oraindik orain.

Izan ere, 1870. urtean, urriak hogeiei egun zituela, italiarrek bretxa ireki zuten «Porta Pia» delakoan; eta Aita Sainduak, «Quirinale» jauregia utzita, Vatikanon sartu behar zuen, bere burua gatibutzat jarriarik.

Ehun urteko hau kasik ohargabe iragan da, hainbeste gudu eta gertakariren artean; baina bere inportantzia ba du, dudarik ez, gaurko Elizaren kenkarekin zerbait —bai eta asko ere— zer ikusirik duelako.

Esan dezagun bidenabar, Elizaren kenka garrantziduna dela, ez bakarrik kristautentzat, bai eta munduko hiritar guztientzat ere. Modu berean, komunisten aldaketak eta gorabeherak guztioi interesatzen zaizkigu, eta are gehiago kristau garenoi.

Eliz krisien aurrean bildurrik daude kristau asko. Fedearen sailean dena galdurik dagoela uste dute, zeren Elizaz eratu zuten irudia hautsita baita.

Agustin Sainduaren eskutitz batzuetan irakurtzen denez, holako zerbait gertatu zen bostgarren mendean, Erromako inperioaren galtzapena eta hondamendia kristautasunaren bukaera iruditzen zitzaielako kristau askori. Eliza eta Erromako inperioa bat zirela uste zuten, orain Eliza eta zibilizazio burgesa gauza bera direla kristau askok uste duten bezalaxe. Bata bestea gabe iraunkor izatea ezin uler dezakete.

Gaurko egunean Eliza pobre bat eskatzen dugunok, hainbeste bidegabe, maltzurkeria eta konpromisotatik libre izan dadin Eliza bat eskatzen dugu. Baina eskari honek ohitura txar eta aurreritzi askorekin egiten du topo. Honelako aldakuntza hau oso gaizki ikusia da, munduko boterea maneatzen dutenen aldetik batez ere. Beren makinaren errota edo engranaje bat gehiago izan dadin Eliza bat oso pozez onartzen dute. Baina injustizia eta opresioa argi eta garbi kondenatzen duen benetako Eliza libre bat ikusi ere ez dute gura.

Hortik omen dator kontserbadore batzuen bildurra. Berauek uste dute, fede guztia galduko dela, erlijioak forma berriak hartzen baldin baditu, eta, batez ere munduko boteretsuen faborea edo laguntza Elizak galtzen baldin badu.

Lehen mintzatu gara Erromaren ehun urtekoaz. Gaurko egunean ez gara konturatzen, sakrilegio hark kristauen artean orduan egin zuen zarrastadaz. Orduko eliztarrek uste zuten, Vatikanoko Estaduak beharrezkoak zirela, kristautasunak iraun zezan.

Urte askogarrenean ere, beti esaten zitzairen umeei eskoletan, Aita Saindua giltzapean zegoela; eta haren liberazio eta askatasunaren alde otoitz egiten zen elizetan. Baina, orain, ehun urteko honetan, Erromaren galtzea «probidentziaren xede eta diseinu bat» izan zela esan berri du, Paulo VI.aren izenean, Dell'Acqua kardinalak, eta gertakari horrek Elizari «gaurkotasunaren kontzientzia hartzera lagundu ziola» esan ere.

Orduko deihadarrak eta madarikazioak bukatu daude. Gure egunotan, Aita Saindua Mediterraneoko Estatu baten errege izatea gauza zentzu gabeko bat izanen lizateke.

Garbi ikusten da orain, Aita Sainduaren Estatu denboralak guztiz kaltegarriak zirela Elizaren egiazko misiorako. 2000. urteko kristauek ere guk baino hobeki ulertuko dute, Elizak denborako aparatu guztia alde batera uztea komeni zela.

Bide horretatik, Eliza garbituta, sendotuta eta askatuta aterako da gaurko kenkatik, nahiz eta denbora honetako botereen aldetik guztiz gabetuta gelditu.

Chile komunismorantz?

Anaitasuna, 199 zk., 1970-11-15

Chileko lehendakartzarako Allende jaunaren izendapena ez da harritzekoa izan, gertaera hau segurtzat genuelako, aspalditxo honetan handik etorritako albiristek jakinda gero.

Nola nahi ere, Allenderen garaipena garrantzirik handienetakoa irudi zaigu, ez bakarrik Chile beraren etorkizunerako, bai eta mundu guztiaren politikarako ere. Hemendik aurrera arretarik handienaz begiratu beharko dira Chileko gorabeherak.

Gobernu komunistek parte hartzen dutelarik, Estatu sozialista bat antolatzeara posible izango ote da, burrukarik eta giza libertateak ezeztatu gabe? Hau da, hain zuzen ere, Chileko gertaeraren aurrean batzuek beren buruei egiten dieten galdera.

Azkeneko urte hauetan, gerratea bukatu zenetik, antikomunismoa izan da Ipar Amerikaren banderarik nagusiena. Atxakia honekin bere betiko politikari jarraiki izan zaio USA Latin Amerikan, bertako herriak bere probetxurako maneiatuz, bestela komunismoa sartuko zela ta. Zer gertatuko da orain, Allenderen promesak betetzen badira, eta Chile bide berri batean abiatzen baldin bada?

Allenderen gobernuak aldakuntza haundiak egingen ditu herrian, zalantzarik ez. Honen joera, Freik hasieran saiatu zuena baino gogorragoa izango da noski, nahiz lur-legea aurrera azken ondorioetaraino eramaten, nahiz yankien eskuetan dagoen produzioa nazionalizatzen, nahiz Chileren kanpoko politikan askatasun gehiagorekin jokutzen. Frei jaunak 1966. urtean egin ahal ez zuen politika, Allende presidenteak egingo du orain, bai eta indar eta kemen haundiagoaz ere.

Ipar Amerikak oso begi txarrez ikusten du Herriko Frentearen garaipena. Azken mementorarte bere betiko azpi jokoa egiten saiatu da, kolpeari itzuri nahirik, baina alferrik, hala ere. Dena legez eta zuzenik egingo izan da. Allende jaunaren garaipena garbi garbia izan da, ezin gehiagokorik. Yankiek ez dute batere atxakiarik muturra sartzeko, agirian behintzat. Chileko aldaketa hau

Latin Amerikako herri guztientzat eredu txarra ez ote den izango bildurrez daude orain.

Gaurko ezkerreko nazionalismo olatu hau, Ipar Amerikaren politika hankaz gora botatzeko zorian dago. Cubaz mintzatu gabe, Chile, Bolivia eta Peru dira oraingo puntu neuralgikoak. Beste herrietako iraultzaileak adi adi daude, Allende bere programa betetzeko nola konpontzen den jakin nahirik.

Kristauen aldetik esperientzia hori oso onguraz ikusten dute askok, nahiz eta arrisku batzuk ukan. Chilen bertan katoliko asko prest dago Allenderen alde ekiteko, behar diren aldaketa eta iraulteta sakonak lortu arte.

Baina, guztia esateko, Allenderen bidea luzea eta harritsuak izango dela esan behar da. Ipar Amerikarrek eta Chileko kontserbadoreek beren betiko jokoak egingo dute gaurko bitarte honetan, alegia, «kaos ekonomiko» bat sorrarazten saiatuko dira. Kapitalak Chiletik ateratzen hasi dira, orain aste batzuk direla. Ezkutuak (bertako dirua) milioika kanbiatzen dira muga aldeko hirietan; eta Ipar Amerikako kredituak laster bukatuko dira, gauzak yankien gustura egiten ez bada behintzat. Zurrumurrua jasotzean, bildurra bera ere ereiten hasi dira nagusien lagunak. Bihar edo etzi, ez ote da harmada bera saiatuko kolpe bat ematen?

Hala ere, Allende jaunak garantia osoak eman ditu. Aldaketak bakeaz eta tankeraz eginen direla eta kapitalistei beharrezko eta zuzenezko indenizazioak ordainduko zaizkiela seguratu du. Batez ere demokraziazko libertateak ez direla kenduko esan du, eta 1948. urtean Pragan gertatu zena ez zela jazoko, alegia, komunistek, gobernuan sartutakoan, demokrazia guztiz hautsi eta zapaldu zutela.

Batzuek ez deritzote horri posible, komunisten politikak, nahi ta nahi ez, prolertagoaren diktadurara jo behar duelakoan. Etorkizunak esango du Chilen gertatzeko dagoena.

Baina saiakera honen ondorea ona baldin bada, eta komunistek biolentzia ez badarabilate, «Populorum Progressio» entziklikak proposatuko bidetik oso urruti ez da ibiliko Chilen hartutako bidea. Erljioa orain arte bezala libre baldin bada, eta, Estatu sozialista bat antolatzen, beharrezko aldaketak egiten baldin badira, Eliza ez da Allenderen politikaren kontra joanen. Eliza ez baita, ezin daiteke izan inolaz ere, kapitalismoaren zerbitzari bat.

Konformismoa

Anaitasuna, 200 zk., 1970-11-30

Gaurko zibilizazioaren gaitzik haundienetako bat «konformismoa» dela esango nuke nik, hemen ez ezik, esan beharrik ez, bai eta mundu zabalaren bazter eta herri askotan ere.

Uste dudanez, honako hau da oraingo historia-mementoaren ikurra, seinale ta marka nagusia: «maioria isilaren» gibelaundikeria, menpekeria, eta serbilismoa.

Agiriko sailean, gizarte sailean, besteek sufritzen dituzten bidegabe ta zuzengabeak isil isilik ikustea, egoera zuzentzeko ezer egin gabe. Nork bere interesak besterik ez begiratzea, zuzengabeen kaltearrak besteak dira ta. Horixe da hemen «konformismoa» deitzen duguna. Maltzurkeriaren aurrean, ez entzun eta ez ikus egitea, «ni nahaspilan sar ez nazaten».

Norbait honela mintzatzen da: «Nik ba dakit, zenbait okerkeria han hemen egiten direla; baina hoik zuzentzea ez dagokit niri, niri kalterik egiten ez dautatenez gero. Beraz, zertarako sartuko naiz istilutan? Nik ba dakit, horrelako egoera edo legea ez dela zuzena, herriaren ona haintzat hartzen ez duelako. Baina herriaren jagolea izanen naiz ni ala?».

Gaitz hau herri guztietan aurkitzen da, batez ere kidezeko elkar libertaderik ez daukaten herrietan. Konformismoa etsipenaren semea izaten da batzuetan. «Beste herrikideen laguntzarik gabe —dio norbaitek— nola ihardukiko dut nik, soil soilik, maltzurkeriaren kontra? Ez dago ezer egiterik. Bakoitzak berea begiratzea da onena. Ni ta neure etxeakoak ondo bizi gara orain: telebista ta dena daukagu etxean. Sekula ez gara bizi izan honelako komodidadeekin. Utz ditzagun besteen problemak, berek konpon ditzaten».

Penagarria da horrelako elerik entzutea, baina halakoxea da gehienentzen pentsa moldea.

«Konformismoaren» kausa ez da bakarrik kidezeko libertadearen falta. Beste motiborik ere ba dago, bai; eta hauen artean ez da txikiena teknikaren aurrerapena, nahiz eta itxurarik ez izan.

Teknikaren aurrerapenak teknokrazia ekartzen du berez, eta honek eskatzen du, hain zuzen, gizarte eginkizunak teknikalarien eskuetan uzteko.

Bestalde, teknikak, nahiko familiarentzat behintzat, «confort» delakoa ekarri du. Honek abantail asko ditu, dudarik ez; baina kalte batzuk ere ekarri ditu. «Confort»ak bizi gozoaren guraria sartzen dio gizonari barnean. Eta gozo hori ez galtzeko, prest gaude maizetan, bidegabeen aurrean begiak ixteka.

Ipuinik, exenplotzat, hona ekartzen uzten bazait, oroitarazi egingen daukizuet, dakizkezen gazta barreneko saguaren egiatzko historia eta oilategiko oilo baten tragedia.

Sagu hura gazta barrenean bizi zen, goxo goxo. Kanpoko burrukak, lanak eta nekeak ez ziren bereganaino ailegutzen, eta bost axola zitzaizkion. «Hau bai bizi ederra, gazta barrenekoa!», esaten omen zuen sagutxoak. Baina, egun batean, jan eta jan, gazta amaitu egin zen, eta, koitadua agirian gelditurik, katuak harrapatu eta jan egin zuen.

Beste ipuina honako hau duzue. Oilategi batean oilo gazte harroxko bat hala mintzatzen omen zen: «Oilategi honetan ondo baino hobeto bizitzen da. Ugazabak janari-edaria egunero prestatzen du. Dena daukagu txukun txukun, gelak ere ondo atonduak eta garbituak. Zer nahiago nahi duzue, umetxook? Batzuk marmar ari direla ba dakit, ugazabak noizean behin oiloren bat hartu eta jan egiten duela esanez. Zer egingo dugu, bada? Heriotze ordua danoi heldu behar zaiku. Jainkoari gomenda, eta kitto. Besteren zoritxarraz oroitu gabe bizi gaitezen alai eta pozik, jauregitxo polit honetan». Baina arratsalde hartan, bertan ugazaba etorri zen, berritsua harrapatu eta sutegira eraman zuen, egosteko. Alferrikakoak izan ziren haren kakarakak, heriotze ordua heldu zitzaion eta.

Eta nik gauza bat pentsatzen dut, alegia: baldin norbaitek nahi badu, mundu honetan, Jainkoaren irudiak garen gizasemeok sagua nahiz oiloa bezala bizi gaitezen, ni ez nagoela konforme.

Rhodesiako Elizaren jokabidea

Anaitasuna, 213 zk., 1971-06-15

Ahoa bete hortzekin gelditu gara, Londreseko Tablet astekari katolikoak Rhodesiari buruz emanberri duen informazioa irakurtzean.

Tablet-ek dioenez, hango Eliza «split down the middle» hots, oso alderdikaturik omen dago, egungo egunean, gobernuarekiko Gotzainen politikagatik.

Kristauen arteko alderdikitze hau nonnahi aurki daiteke. Beraz, ez da hori, Tablet-eko txostenean harritu gaituena. Hierarkiaren postura da, ezin-sinetsizkotzat hartzen duguna.

Dirudienez, Estadu arrazistari makurtu zaio Eliza, justizia eta moralaren aruka dagoen *apartheid* egoera bat onartzuz. Bildurra? Prudentzia? Zuhurkeria? Konponkeria? Jakin ez dakigu, baina honako hauk dira gertaerak.

Guztiek dakite, Ian Smith jaunak egindako lur banatze higuingarriaren berri. «Land Tenure Act» legearen bitartez, bi zatitan erdibitu zituen Smith-en gobernuak Rhodesiako lurrak: bata populu beltzarentzat, bestea populu zuriarentzat.

Bi zatiok berdintsuak dira: 50 milioi bat akre laborantza Iurretan. Legearen arauera, populu biek banatan bizi behar dute, bakoitza bere lur zatian.

Hau Salomonen epaia!

Gauza pixka bat hurbilagotik begiratzen badugu, ordea, berehala konturatzen gara Smith-en makurkeriaz, bi populuen neurriak oso desberdinak baitira. Beltzak bost milioi dira; zuriak, berriz, milioi laurden bat, gehiagorik ez.

Elizak horrelako bidegaberik ezin zezakeen onar, eta ez zuen onartu. Orain urte bete, «Land Tenure Act» delakoaren kontra protesta handi bat egin zuen, lege hori salatuz.

Bestalde, Gotzainek gobernuari ultimatum bidali zioten, esanez, eskolako *apartheid* politikak iraunez gero, Elizak bere eskola, gaixotegi eta umezurtz etxe guztiak hitxiko zituela.

Orain arte, dena ondo. Printzipioek eta egiteek bat izan behar dutela, argi eta garbi erakusten zuten Gotzainek.

Baina bat batean, inork usterik ez zuelarik, konpromiso bat egin omen da, eta, hain zuzen ere, beltzen bizkarretik.

Tablet-ek dioenez, Gotzainek, eskolako diskriminazioa onartuz, erabaki bat hartu dute: hemendik aurrera, zuriertzako Elizaren eskoletan, ikasle beltzak ez, dira sartuko, ehunetik bost izan ezik.

Beren desenkusak eman dituzte Gotzainek, jakina, «caso de fuerza mayor» dela esanez. Episkopaduaeren sekretario den Aita Randolph jesuitak beste atxakia bat eman du, benetan eskandaluzkoa iruditzen zaikuna: «Printzipioak azaltzea errazago dela, hoik praktikan jartzeko modua jakitea baino» esan du Randolphek.

Elizak hamaika bider kondenatu du arrazismoa. Oraindik orain, memorandum bat bidali du ONUra arrazismoaren kontra. Baina, Rhodesian, diskriminazioa Elizak berak erabiliko duela dirudi.

Gaurko mundua aldatu egin behar dela diogu kristauok, bidegabekeriaz jositako dagoelako. Baina Elizak, iraultza, gogorkeria eta odol isuraztea ez dela bide ona esaten du; aldakuntzak, bakez, pixkaka eta erreformen bitartez egin behar direla.

Arrazoi handia du Elizak. Baina, beraren jokaera ikusita, txunditurik gelditzen gara batzuetan, «aurreku» ez baita haren dantza, «atzesku» baizik, Gabriel-en terminologia erabiliz.

Ni ez naiz iraultzazale. Erreformazale naizela bildurrik gabe aitortuko nuke. Baina, erreforma hitzari, zer esannahia ezarri behar zaio?

Baldin erreformazale izatea, luzakor, pazifista eta konpontzaile izatea bada, nik ez dut uste, Kristo Jauna erreformazale zenik!

Ba daiteke, Rhodesiako Gotzainek egindakoa, zenbait saihetsetatik, ondo eginga izatea. Nik ez dakit. Baina arrazismoa mundu guztirako problema bat da, eta oraingo erabakia oso eredu txarra izanen da mundu guztiaren aurrean. Noiz arte jarraituko gara, hitza eta egitea ados jarri gabe? Eta nork sinetsiko du Elizaren sintzeridatea?

Beste gauza bat izan da, oso desberdina, Mozanbiken Aita Zuriak hartutako postura.

Berrogei Aita Zuri atera dira Mozanbiketarik. Zergatik? Zeren —beraien hitzekin esanen dugu— «nous pensons qu'il y a des situations où, comme saint

Paul, il nous faut répudier les silences, ne nous conduisant pas avec astuce et ne falsifiant pas la parole de Dieu» (II Kor. 4,2).

«Nola gaitzke gu maliarrak izan maliarrekin, kongotarrak kongotarrekin, tanzaniarrak tanzaniarrekin... eta aitzitik... portugesak mozanbiketarrekin?».

Honelakoak dira Aita Zurien nagusi jeneralaren hitzak. Berak argitaratu idazkiak burutik burura irakurtzea merezi du.

Hau da, justiziaren alde garbi jokatzeari! Eta ez Rhodesiako Gotzainen joera. Edo, egia osoa esan, hango Gotzainen maioriaren joera; haietako batzuk, zorionez, ez baitaude ados hartutako erabakiaz.

Heriotze Zigorra eta Haur Galeraztea

Anaitasuna, 215 zk., 1971-07-15

Eztabaida handia dago gaur egunean, Frantzian batez ere, abortoa dela ta. Haur galeraztea debekatu beharrean, Estaduak emakumeei beren sabeleko frutua erauzteko erraztasun guztiak eman dietzela eskatzen dute batzuek, amore libertatearen izenean.

Bestaldetik, heriotze zigorra ere eztabaidan dago bazter guztietan. Munduko kontzientziak gero eta gehiago gorrotatzen eta gaitzesten du horrelako pena, aspaldi ez dela, egiaztu ahal izan genuen bezala.

Beren eritzia oinarritzeko, arrazoi bat ematen dute heriotze penaren aldekoek, Estaduaren seguritatea alegia. Desenkusa horrekin zenbat hiltze egin diren Historian zehar!

Marc Oraison abate famatuak artikulu bat eginberri du, bere ohiturazko argitasunarekin, bi problema hoik batean erabiliz. Bere planteamenduan, honako hau dio Oraison jaunak: «Certaines personnes s'engagent passionnément, à la fois, dans les deux campagnes. On peut se demander si elles ne se donnent pas bonne conscience en vitupérant la peine de mort après avoir réclamé la liberté de l'avortement. Car il s'agit toujours de tuer, finalement. Je sais bien que ce n'est pas *exactement* la même chose de guillotiner un criminel et de tuer un embryon. Mais c'est toujours tuer un organisme vivant de race humaine, bien qu'à des degrés d'évolution apparemment très différents».

Nik ikusten dudanez, bi postura agertzen dira gure artean, problema hoiien aurrean: bata eskuinekoa, bestea ezkerrekoa, honela mintzatzea zilegi bazaiku.

Handia da gertatu ohi dena. Norbait, bi gai hoietako batean biziaren alde izanez gero, heriotzearen alde izanen da bestean, ia batere dudarik gabe.

Ba dago jende asko, heriotze zigorra gaitzetsi egiten duena, eta, aldi berean, haur galeraztea txalotu eta ederretsi, abbé Oraisonek dioen bezala. Baina ba ditugu ere beste batzuk, abortoa indar guztiakin kondenatzen dutenak, eta, era batera, beren Estaduaren etsaizentzat heriotze pena eskatzen dutenak.

Heriotze penaren aldeko direlakoak, abortoarean aurka daude gehien gehienetan. Eta, aitzitik, abortorako libertate osoa defendatzen dutenak, heriotze zigorraren kontra izaten dira, ehun kasutatik laurogeitemeretzitan.

Besteak beste, nik ez nituzke bi postura hoik onartuko, ez bata ez bestea. Ni libertatearen alde nagoelako. ¡Libertad de vivir! Liberté de vivre! Hori da giza izaren eskubide eta libertaterik nagusiena, nahiz kriminala izan, nahiz amaren sa-belean gizagaia izan (zu, irakurle, eta biok aldi batean izan ginen bezalako).

Egiazko libertatea ez delako pribilejiatu batzuen libertatea, guztien libertatea baizik.

Abortorako askatasun osoa eskatzen dutenek, libertatea defendatzen dutela dirudi. Baina beren libertatea eskatzen dute, biziaren gozotasuna eta atsegina gozatzen dutenen libertatea, besterik ez. Eta, bat batera, bizira etorri nahi duten gizagaiei heriotzea eman!

Halaber, besteek, autoritatea, ordena eta bakea, hitz handiok, beti ahotan dituztenek, «herritar ondraduen» libertatea defendatzen dutela dirudi; baina, benetan, batzuen askatasuna besterik ez dute mantentzen, beste batzuen bizkarretik.

Horixe da (urrutiko exenplo bat hartuz) Rhodesian gertatzen dena: zuriaren bakea eta libertatea sostengatzeko, beltza heriotzera kondena bait daiteke nolanhiko zirtzilariagatik.

Egia da, abortoa kasu batzuetan zilegi izan litekeela, Elizaren beraren dotri-naz. Gure ustez, urte batzuk barru, biziarekiko dotrina guzti hau, zientziaren progresuen arauera. zehaztu, mailatu eta osatu egingo da, orain pentsatu ere ezin dugun moduan.

Izan ere, «Etudes» itzal handiko aldizkariaren zuzendari den Bruno Ribes jesuitaren artikulua bat irakurriberri dugu, «Etika, zientzia eta bizia» titulu duena. Zarata handia aterako duela dirudi, gauza oso argiak eta ausartak esaten bait ditu.

Frase bat bakarrik aipatuko dugu, besterako tokirik ez dagoelako.

«Hiru urte dela, kontrazepzioari buruz sortu ziren eztabaidek, eta, abortoa dela ta, orain sortu direnek, argiro erakusten dute, gizonak biziaren alo-rean eskua sartzan duenean, sartze horrek oinarrizko 'dissentiments' berehala ekartzen dituela. Datozen urteetan, beste problema izugarri batzuk agertuko dira, dudarik gabe, nahiz borondatezko ortogenesis delakoa, nahiz inseminazio

artifiziala, nahiz giza tejiduen landatzea. Teknikak gaintitzen gaitu (la technique nous precede)».

Eta honela jarraitzen du Aita Bruno Ribes-ek: «Reconnaissons que nous n'avons pas, aujourd'hui, de doctrine politique, philosophique, théologique cohérente. Cessons de nous berner à ce sujet et de pétitionner et de jeter des anathèmes».

Gero gerokoa!

Kristogan sinestea

Anaitasuna, 219 zk., 1971-09-30

ANAITASUNAren zuzendari jaunak galdetegi bat bidaldu zeutan, bizpahiru hilabete direla, benetan garrantziduna eta interesgarria.

Galdera guziek giharrean jotzen zuten, zuzen zuzen. Eskoletan erlijioa erakatsi behar da? Euskal apaizen jokabideari zer deritzazu? Apaizek burgesia eta sinesmena ez ote dute batean defenditu nahi? Kristau demokraziari buruz zer uste duzu? Baldin, egunen batez, Aita Santu hautatua bazina, zer egingo zenuke, teoriarik behintzat? Eta abar.

Hamazazpi galdera ziren. Eta zer galderak? Erantzunak emanez gero, bakoitzeko liburu oso bat beharko litzateke. Esate baterako, honako hau zen lehenengoa: «Zer esan nahi du zuretzat ‘Kristogan sinesten dut’ esaerak?»

Aldizkari honen artikuluko bakoitzak batez beste mila hitz baditu, hirurogei hitzetan eman behar zitzaion erantzuna galdera bakoitzari. Baina nola egin, Kristogan fedea hirurogei hitzetan erakusteko, neure pentsaera bera trahitu gabe? Eta ia gauza bera zen beste erantzunetaz.

Zuzendariak proposatutako lehenengo gaiak nahiko garrantzia duela pentsatu dut, artikuluko oso bat berari ezartzeko. Gainerako galderak bana banaka erantzungo ditugu gero, Jainkoak eta zuzendariak nahi badute.

Eta goazen orain harira. «Kristogan sinesten dut» esanbidea erabiltzen dudanean, zer esan nahi dut?

Agiri da, norbaitek horrelako hitzak esan dituelarik, sinesmen sailean jar-tzen dela, ez zientzi sailean. Sinesmodu asko dira munduan, erlijioetakoak nahiz erlijiogabekoak, eta guziek —zenbait saihetsetatik behintzat— dinamika bera dute.

Sinestea biziaren azkeneko hitza da. Apostu antzekoa da, sinestean geure bizi osoa bahitzen dugulako. Fede batek bereganatu egiten gaitu sinestean.

Baina bereganatze hori ez ote da desarrazoizkorik izango? Ez dut uste. Bate-re sinesterik gabe bizitzea, berriz, absurduan bizitzea delakoan nago.

Sinestea, absurdua ezeztatzea da, Jean Lacroix pentsalariak dioen bezala. Zorionekoak, beren bizirako, helburu erabateko bat aurkitzen dutenak!

Nik esandakoa alde zabal zabal batetik har ezazue, mesedez; lehen esan du dan bezala, sinesmolde asko bait dago munduan.

Adibide bat emateko, egiazko marxistak fede bat daduka, burrukara deitzen diona, eta haren biziari esannahiren bat ematen diona. Erabateko burrukalaria bat den aldetik, sinesle bat da marxista hori. Ez da munduan zehar jomugarik gabe ibiltzen. Beretzat marxismoa ez da bakarrik historiaren zientzia bat, historiako sineste bat baizik. Zientzi itxura baino zerbait gehiago ba du marxismoak, jendeak milioika bereganatzen dituelako. Zerbait hau, *sineste* bat dela esan dezakegu.

Besteak, hots, batere federik gabe bizi direnak, helbururik gabe bizi omen dira, nahiz eta ahaldunak izan eta aberatsak. Pascal-en «divertissement» delakoan bizi dira.

Nik ez dut esango —inolaz ere— nire ustez fede edo sineste guziak berdinak direnik, gizonaren aldetik zerbait analogia dutela baizik.

Ikus dezagun orain, nire Kristogan sinestea nolakoa den.

Niretzat Kristogan sinestea, Kristogan beragan biziaren esannahi azkenekoa aurkitzea da. Heriotzearen absurdua ukatzea, berarekin. Beragan azkeneko apostua egitea.

Ba dakit, teologoen makina bat gauza idatzi dutela fedeari buruz. Ni, ordea, teologo edo «teometra» ez naizen aldetik, ez naiz sartuko sasitarte horretan. Neronen kristau esperientziaz mintzatzen naiz, besterik ez.

Izan ere, Kristogan fedea gauza guziz pertsonala da, Kristorekin berarekin topatze pertsonal bat delako. Hau ere hamaika bider esan da. Baina egia da. Nire ustez, kristau bakoitzaren fedea «*species*» *bakarra* da. Besteak ez dira ibili, nire ibili naizen bidetatik. Ez dituzte nozitu, nik nozitu ditudan minak. Ez dituzte ikusi, nik ikusi ditudan argiak. Ez dira bizi izan, ni bizi naizen ilunpetan. Nola jarriko nuke, beraz, neure fedea jenero edo kontzeptu baten pean, gauza guziz objetiboa balitz bezala?

Unamuno handiak, «ni, Miguel de Unamuno, espezie bakarra naiz» esan ohi zuen. «Thou art thyself, though not a Montagu». «Zu, zerori zara, eta ez Montesco bat», esaten dio Julietak Romeori, Shakespeare-ren antzerkian.

Eta marxista batek, Adam Schaff jaunak, honako hau idatzi du, bere «Marxismoa eta indibidua» liburuan: «Indibidua, estructures osoa eta bakarra den

aldetik, beregango mundu bat da, 'un monde en soi', heriotzearekin ezereztatzen dena».

Nik, biziaren ilunpe honetan murgildurik nagoen honek, Kristorekin espero dut neronen baitako mundu hau ez dela ezereztatuko heriotzean. Nik, neuregango mundu bat naizen aldetik, neure apostua egina dut, eta beste sinesterik, Kristogan dudanaren orde, ez dut aurkitu, eta ez dut uste aurkituko dudarik.

Nire Kristogan fedea nirea da, eta ez diot utziko batere teometrari nire barnean, nire barneko eremuan sartzen. Baina honek ez du esan nahi, niretzat fedea zerbait guziz subjektiboa denik. Ni munduan bizi naiz eta nire fedea nirekin munduan dago. Nire besteekiko harremanak sakonagoak eta ugariagoak bihurtzen dira, fedeari esker. Niretzat fedeak ez du batere zerikusirik indibidualismoarekin. Neure lagunaren pertsonan sinesten laguntzen daut fedeak.

«Zeruetan dagoen» Aitaz oroitzeko agintzen daut Kristok, baina batean Zeruetako Erreina gure artean dagoela erakusten. Beste bizian sinesteak, bizi honetan sakonagoki tinkatzen nau. Nire fedea guziz soziala da.

Egia da, Kristogan sinestea hamaika mitoz eta formulaz jazten dugula. Egiazko fedea, ordea, berez gorria eta soila da, gau izugarri bat bezalakoa. Fedea burruka bat da. Niretzat ez da posible fedean instalaturik egotea.

Marxismoa eta pertsona

Anaitasuna, 224 zk., 1971-12-15

Bere «Manifeste au service du personnalisme» delakoan, honako hitzok idatzi zituen Emmanuel Mounier idazleak, 1936. urtean: «*La lacune essentielle du marxisme est d'avoir méconnu la réalité intime de l'homme, celle de la vie personnelle* (marxismoaren hutsik handiena, gizonaren barneko errealitatea, hots, pertsona biziaren errealitatea ez ezagutzea da)».

Eta pixka bat aurrerago: «*L'optimisme que le marxisme professe sur l'avenir de l'homme est un optimisme de l'homme collectif recouvrant un pessimisme radical de la personne* (marxismoak agertzen duen gizonaren etorkizunarekiko optimismoa, gizon kolektiboarekiko optimismoa da, pertsonari buruz erabateko pesimismoa estaltzen duena)».

Mounier-en hitzok idatzi zirenez geroztik, gertaera asko izan da, izan ere, munduan. Alferrik izango lizateke, hainbeste gudu, hainbeste matxinada eta iraultza oroitarazi nahi izatea. Stalinen heriotza, Hungriako matxinada eta Chinako iraultza, esate baterako. Baina guztion gogoan dago historio luze hau.

Mounier-en hitzok kontuan harturik, ni, azken bi urteotan, Marxen gizonarekiko pentsaera ezagutzen saiatu naiz, jo eta ke. Marxen beraren lan asko irakurri dut asmo honekin, eta batez ere, jakina, haren gaztaroko izkribuak.

Nire xedea, berriz ere esango dut, galdera hauei erantzuna bilatzea izan da: «Zer dio Marxek gizon konkretuari buruz, mami eta hezurrezko gizonari buruz? Zein da giza barnearekiko Marxen pentsaera? Zer da, biziaren, heriotzaren eta giza tragediaren gainean Marxek esan duena?»

Marxen liburuak ezezik, marxista handi batzuen eritziak ere aztertu ditut. Gai hau modan dagoela esan daiteke, asko sámar baitira, marxismoaren sailean, gai horretaz ihardukitzen duten idazleak.

Adam Schaff aipatuko dugu lehenengo. Poloniako idazlari honek, 1966. urtean, «*Marxismus und das menschliche Individuum* (marxismoa eta giza indibidua)» argitaratu zuen, eta, hori dela eta, istilurik nahikoa izan zen marxisten

artean. Hala ere, ez zuten Schaff kondenatu, «Nowe Orog» aldizkariak antolatutako eztabaida handi baten ondoren.

Schaff jaunak, marxismoaren sailean bertan, indibiduaren teoria bat eratzea posible dela dio.

Lucien Sève frantses komunistak ere horrelako posibilitatea defenditzen du, 1969. urtean argitaratu zuen «Marxisme et théorie de la personnalité» liburuan.

Althusser-ek, berriz, beste eritzi bat erakusten du. Haren ustez, teoriaren aldetik, marxismoa antihumanismo bat bezala hartu behar da, Marxen «Das Kapital» liburuan agertzen denez, Historiaren egilerik nagusia gizona ez delako, estrukturak, ekonomiaren indarrak eta gainerakoak baizik. Hori teoriaren aldetik. Baina, ideologiaren sailean, oraingo mementoan gizonaren gaia sartzeko posible eta egokia dela dio Althusser-ek.

Garaudy eta Sève ez datoz bat eritzi horrekin. Lehenengoa, guztiz humanismozale agertzen da. Bigarrena, antropologia marxista bat eraikitzen saiatzen da.

Arrazoia dute, ene ustez, Marxen gizonarekiko ideia, materialismo arrunta edo biologismo hutsa ez dela esaten dutenek.

Baina, bestaldetik, ni ez naiz akort, «marxismo pertsonalista» baten posibilitateaz mintzatzen direnekin, Jules Girardi-rekin, esate baterako. Niretzat, planteamendu hau «zirkuluaren kuadratura» berri bat da, «pertsona» eta «sujeto» kontzeptuak, kristauok erabiltzen ditugunak, Marxek ez baititu onartzen.

Indibidua eta pertsona bi gauza oso desberdinak dira, hain zuzen ere. Problema honen mamian sartzetik ez daukagu hemen, ageri denez. Ez da problema erraza, Marxen egiazko pentsaera errespetatu nahi badugu. Baina ba liteke, egunen batean, gai gori gori honi buruz liburu bat egitea.

Fedea eta ideologia (1)

Anaitasuna, 230 zk., 1972-03-15

Sinestea, gure biziaren azken hitza eta erabateko apostua da. Beraz, kristau fedea, Kristogan beragan biziaren esannahirik sakonena aurkitzea izango da, ANAITASUNAREN 219. zenbakian esaten genuenez.

Definizio hau, Tillich teologoak emandakoa da. Haren «Fedearen Dinamika» liburutik hartua dugu. Beste liburu batzuetan ere ideia berari ekiten dio Tillich jaunak, behin eta berriz.

Ingelesez fedea «ultimate concerne» dela dio, hau da, «ukitzen gaituen azken axola». Eta alemanez, «was uns unbedingt angeht», hots, «erabat kezkarazten gaituen zerbait».

Baina, Tillichen definizio hau aurrerago eramaten ez badugu, oker batean eror gaitzke, fedea zerbait subjektibo besterik ez dela susmatuz.

Fedea ez da bakarrik norbaiten barneko gertaera edo jarrera, zerbait objektibo baizik, errealitateari benetan heltzen diona. Are gehiago, fedea, pertsonaren kontzientzian badago ere, gizarteko gertaera bat da, beste aldetik. Fededuna, aitorle eta burrukalari bat da.

Izan ere, Eliza, fede komunitate bat dugu; eta Kristorengan sinesteak, Elizan daduka bere agerpenik handiena.

Baina fedearen gizartekotasun honetatik dator, hain zuzen ere, istilurik nagusiena. Gizon bakoitzaren barne muinetan baino ez balego, fedea ez luke batera problemarik sortuko.

Ordea, fedearen gizarteko problemak hamaika aurpegi du, zein baino zein zailagoa.

Erraza da, adibidez, fedea kristau bakoitzaren Kristorekin berarekin aurkitze esistentzial bat dela esatea. Baina, orduan, sinestun bakoitzaren fedea nola egokitzen da beste sinestunen fedearekin?

Kristau bakoitzarengan obratzen den Kristoren aurkitze horrek esannahi berbera izanen ote du? Kredoa esaten dugunean, hitzak modu bereberean ulertzen ditugu kristau guztiok?

Ez dut uste. Bakoitzak, bere kultura eta bere barne giroaren arauera, irudipen berezi bat moldatzen du bere baitan. Bakoitzarentzat fede irudipenak desberdinak dira, nahi eta nahiez, eta erlijio esperientziak ere. Kontzientzi pluralismo hau ez du inork ukatuko.

Bestalde, sinestuna sinesgabekoen artean bizi da, gaurko egunotan batez ere, aintzinako «gizarte kristaua» ez baitago gehiago. Kristau fedea nola egokituko da kultura eta zibilizazio mugimendurekin? Zientzia, politika eta ideologien aldakuntzak nola ikusiko ditu fededunak? Mugimendu horretatik kanpo geldituko ote da? Edo Elizaren irakaskintza eta aginduen zain egongo?

Sail honetan arrisku handia dugu, fedea ideologia bat bezala erabiltzea, alegia. Zeren fedea ez baita, inolaz ere, kristau ideologia bat. Sinestunak ez dira «kristianista» partidu baten osatzaileak!

Gai hau —fede/ideologia— garbitzeko, beharrezkoa dugu lehenik, galdera bat geure buruei egitea. Hauxe da: ideologia hitzari zer esannahi ezarri diogu artikulu honetan?

Ideologia hitzak esannahi asko izan dezake, eta izan du, XIX eta XX. mendeetan. Hemen, Louis Althusser-ek emandakoa erabiliko dugu, Marxenarekin oso loturik dagoena: «Irupiden, mito, ideia, kontzeptu, balore eta errepresentazioen sistema, gizarte determinatu batean funtzionatzen duena».

Kristau naizen aldetik, nik ez dut batere eragozpenik, definizio hau onartzeko. Gizarte guztiek mentalitate bat, filosofia bat, kultura eta zibilizazio bat sortzen dute nahi eta nahiez. Nork ukatuko du, morala eta erlijioa oso loturik daudela ideologiarekin?

Baina marxistek, edo marxista gehienek behintzat, erlijioa eta morala ideologia burgesaren zati bat direla diote, besterik ez. Haientzat, klase gizarte batean, ideologia, klase dominantearen sorkari bat da. Gizarte burgesak sortutako ideologiak, estali egiten ditu egiazko problemak, produzio harremanetan daudenak. Erlijioa eta fedea, alde honetatik, alienaziotzat hartzen dituzte marxistek.

Gure hemengo problema ez da marxismoa eztabaidatzea; eta ez gara orain honelako sasitarrean sartuko. Baina, interpretazio hori alde batera utzita, ez dugu batere eragozpenik, berriz ere diogu, Althusser-en definizioa onarturik, «fede eta ideologia» gaia aztertzeko.

Gizarte baten ideologiak eta kristau fedeak ba ote dute zerikusirik? Esan daiteke, Elizak berak, gizarte denez gero, ideologia bat duela? Eta, horrela baldin bada, ideologia horrek nola jokutzen du fedearen aldetik?

Beste batzuen artean, hauk dira hurrengo artikuluko batean erabiliko ditugun problemak.

Fedea eta ideologia (2)

Anaitasuna, 233 zk., 1972-04-30

Kristau fedea eta ideologiazko fedea gauza guztiz desberdinak dira, noski.

Ideologia, definizioz, zerbait erlatiboa da eta iheskorra. Gizarte konkretu bati loturik dagoena.

Kristau fedea, berriz, absolutoaren eskaintza da eta agintza. Nahiz eta misteriozko eta izkutuzko moduz izan, kristau fedeak esannahi absoluto bat ezartzen dio gure biziari.

Kristogan sinesteak, ideologi sailetik kanpoan jartzen nau, hasieratik. «Nire erregetza ez da mundu honetakoa» esanez, historia eta ideologiaren erreinua baino beste erreinu sakonago eta iraunkorrago bat erakusten dauku Kristoren hitzak.

Honek ez du esan nahi, hala eta guztiz ere, kristau fedeak ideologiaren balorea ezeztatzen duenik. Zorakeria izanen litzateke, kristauak ideologi gabeko mundu batean bizi nahi izatea, gorputz gabeko fantasma bat bezala.

Gizon bezala esistitzeko, ideologia bat (hau da, hizkuntza bat, irudipen, ideia, balore eta errepresentazioen sistema bat) behar du gizonak. Ideologiarik gabe ez dago egiazko giza bizitzerik. Althusser-ek berak, klase gabeko gizarteak ere ideologia bat izango duela uste du.

Gorputza da gizonaren lehen kondizionamendua. Neure gorputzetik ez dut eskapatzerik, heriotzearen bidez ez bada behintzat. Baina gure bigarren kondizionamendua, ideologia da. Eta hemendik ere ez omen dut eskapatzerik.

Egia osoa, hau izango ote da? Ez dut uste. Kristau fedea arauera, ba dago *zerbait*, gaurko eta betiko gizonaren barnean, ideologia guztien gain dagoena. Gizona ez dago, beraz, ideologiaren sailean guztiz murgildurik.

Kristauok, zerbait horri «izpiritu» izena ezarriko genioke.

Gauzak asko —bai eta gehiegi ere— sinplifikatzen uzten bazaiku, bi formula emango genituzke gizonarekikoak: bata marxista eta bestea kristaua.

Formula hauetan, *gorputz* hitza esannahi zabal batez erabiltzen dugu, jakina.

Biologiako eta fisikako mugatze guztiak, behar materialak, subkontzientziaren jokoa eta abar, *gorputz* izenpean jartzen ditugu.

Gauza bera esango dugu *ideologia* hitzari buruz. Ideologiaren izenpean, arrazoia, zientzia, teknika eta gizarteko harremanetatik datozen jakintza eta asmazio guztiak ipintzen ditugu.

Konbenio hauekin nire bi formulak honako hauk izanen lirateke:

Gizona = Gorputza + Ideologia

Gizona = Gorputza + Ideologia + Izpiritua

Lehen terminoak, gorputzak alegia, beharraren munduan jartzen gaitu, izaki materialak garelako. Bigarren terminoak, ideologiak alegia, zientzia, deretxo, Estatu eta gizarteko munduan jartzen gaitu; eta hau ondo dago, izaki sozialak garelako.

Hirugarren terminoak, izpirituak alegia, beste mundu batean jartzen gaitu; eta hau ere ondo dago, beste bi termino haiekin gizona ez baitago oraindik osaturik. Egiazko libertatea, fedea eta itxaropena eta biziaren azken esannahia ez baitira agertzen ideologi sailean.

Sobera dakit, ideologoen izpiritua, pertsona, misterioa, absolutoa eta abar mitologiatzat hartzen dituztela, zientzia eta ideologia besterik ez baitute onartzen.

Izpiriturik gabe, ordea, egiazko libertaterik ez da esistitzen, gizona gizartearen zati bat besterik ez denez gero.

Fedea ez da, beraz, ideologiaren elemento bat. Fedea ez da ideologia bat. Ez eta zientzia bat ere. Alde honetatik, fedearen erreinua ez dela mundu hoietakoa esan dezakegu.

Izpiritu deitu dugun hirugarren maila ukatzen badugu eta geure biziaren erabateko esannahia guztiz ukatzen badugu, gizonaren bizia absurdo bat bihurtzen da. Eta gizonok «una procesión de fantasmas que van de la nada a la nada» besterik ez gara, Unamunok esaten zuen bezala.

Giza biziaren helburutzat gizarte burruka ematea, ez zait iruditzen posible. Zertarako izanen litzateke gizarte burruka, gizonik, egiazko gizonik ez bada esistitzen? Zertarako hainbeste min, hainbeste sufrimendu? Dena alferrik! Eta gizonaren bizia absurdorik haundiena!

Absurdoaren aurrean bi jarrera har daitezke. Bata esistentzialista, bestea kristau fedearena. Edo absurdoan bertan bizi eta hil, edo absurdoaren kontra burrukatzea.

Bigarren hau da fedearen jarrera. Sinestea, absurdoa ukatzea da. Absurdoaren ukazioa.

Klase burruka dela eta

Anaitasuna, 246 zk., 1972-12-30

Frantziako apezpikuek idazki harrigarri bat argitaratu berria dute. Idazki horretan, gai asko haintzakotzat hartzekoak dira noski. Klase burrukari dagokiona ez da txikiena, ordea.

Gertaera berri baten aurrean gaudela diote apezpikuek, zenbait kristauek —langile, baserritar, intelektualek—, beren problemak azaltzeko, klase burrukaren hizkuntza erabiltzen dutelako. «Klase burruka» hitza, beren egoera adierazteko oso egokia dela uste dute kristau hauek. Are gehiago, klase burruka delakoaren bitartez egindako analisia, gizarteko zuzengabekerien mekanika ulertzeko bide on bat izan daiteke.

Batere dudarik geldirik ez dadin, honako hau ere diote apezpikuek: «Aipatutako kristauek, analisi hau egitean, Marxen esannahia ezartzen diote, besteak beste, klase burrukari».

Guzti honek ez du esan nahi, jakina, apezpikuek Marx eta Engelsen dialektika materialista delakoa onhartzen dutenik, idazkia zehatz irakurtzean ikusten denez. Baina zabaltasunak bukaerara irauten du.

Gaur egun, Marxen analisiaren utilitatea ezin dezake inork uka. Marxen aurkiberrien aurrean ikusi eta itsu egitea, sinplekeria besterik ez litzateke izanen. Baina sinplekeria gauza bat da, eta sinplifikaziokeria beste gauza desberdin bat.

Funtsik gabekoa da, gaurko munduan gertatzen den guztia klase burrukaren arabera esplikatzen saiatzea. Horrez gainera, ba daude beste indar batzuk ere, historiaren lapiko handian jokatzen dutenak. Nazioak, arrazak, ideologiak, erlijioak, ez dira guztiak ekonomiaren ondorea, marxista batzuek sinesten omen duten bezala.

Hau ematea ere, zientziazko jarrera bat da. Dirudienez. Engelsek berak ere ba zekien zerbait horretaz, 1872. urteko maiatzean Bloch jaunari bidali zion eskutitzean ikusten denez: «Marx eta biok errudunak gara, batzuetan gazteek ekonomiazko kausari garrantzi gehiegia ematen diotelako. Geure orduko

eztabaidetan ez genuen astirik izaten, ez eta lekurik eta garairik ere, beste faktoreei dagokien tokia emateko. Zoritxarrez, teoria berri bat ongi ulertutzat ematen da batzuetan; baina haren printzipio nagusiak ez dira ondo ulertzen».

Sobera dakigu, eskutitz honek tinta franko isur erazi duela. Baina, dena dela, hor dago; eta inork ez du ukatuko, Marxek eta Engelsek gauzak pixka bat korapilotsuagoak ikusten zituztela, gazte askok baino.

Simplifikazioa da, beldurrik handiena ematen didan gauza. Arrazoia du Bachelard filosofoak zera dioenean, zientzi sailean sinplea ez dela esistitzen, sinplifikatua baizik. Hau ere jakin behar da; eta kontuz ibili behar da, zientzia erabili nahi izaten denean.

«Beldur zaitetz liburu bakarreko gizonaz» esan ohi zuten erromatarrek. Gure artean ere, nahiz eskuin nahiz ezker, sinplifikatzaile asko omen dabil. Eta «liburu bakarreko gizon» asko.

(Neure buruari galdera bat egiten diot: «Hau ere ez ote da 'euskal primitibismoaren' seinale bat izango?»).

Euskal hiztegi analogikoari buruz

Euskera, 18 zk., 1973

Arrunteko hiztegiak alfabetako antolamenduaz izan ohi dira moldatuta. Analogiko hiztegietan, ordea, azaltzen dituzten konzetoen arauaz ordenatzen dira hitzak.

Zailtasuna oso ezberdina da, noski, bi kasu hoietan. Ortografia, alde aurretik jarririk egonez gero, alfabetako antolamendua ezartzea oso erreza izaten da, hitz lerrokada, multzo mugatu eta ordenatu bat dalako. Alegia, hitz bakoitzak beste hitz urrengo bat dauka bakarrik, haren letraen ordenaren arauaz. Beraz ordena zerbait objetiboa da, eta guziz jakina.

Analogiko harremanak berriz, ez dira, ez mugatuak, ez ordenatuak. Ez eta ordenagarriak ez dira ere, konta ezinezko analogien munduan ez bait da posible moldatze bat egitea.

Hiztegi analogiko bat, nahiko konbenzionala ta subjeliboa izan behar da, ezin bestez.

Analogiko sailak

Analogiko hiztegi batean, hitzak, sailtan agertzen dira kidekatu-rik. Sail bakoitzean, konzeto edo idea baten inguruan dabilzan hitzak arkitzen dira.

Hitz buruak

Sail bat itxuratze-ko eta izendatzeko, sail bertan hitz bat hautatzen da. Hautatze hau konbenzionala da ere, eta subjeliboa. Hitz hauek, sailak itxuratze-ko hautatuak, *hitz buruak* deitzen ditugu. Letra handiekin idatziko ditugu gehi-entan. UTZI, AHAI-DETASUN, ETXEGINTZA... hitz buruak izango lirake gure analogiko hizte- gian, esatebaterako. Casares jaunaren hizte- gian honelako 2.400 hitz daude, inguru. Larousse Ideologikoan, lau mila. Sail bakoitzari hitz buru bat dagokiolako, eta hitz buru bakoitzari, sail bat, Casares Hizte- gian 2.400 sail

direla esan dezakegu, eta Larousse Analogikoan, 4.000. Hitz buruak lehenengo letra txikiekin itxuratzen ba ditugu, *a, b, c*, etabar, eta dagokien sailak, letra handiekin *A, B, C...* bi multzoen bitarteko bihiiekzio bat dala esan diteke. Hitz bat sail jakin bati dagokiola adiarazteko, ε sinboloa erabiliko dugu. Adibidez.

‘larga’ ε UTZI
 ‘odol’ ε GORPUTZ
 ‘odol’ ε AHAIDETASUNA
 ‘utzi’ ε UTZI

Ikusten danez hitz bat sail bati baino gehiagori ahal dagokio (‘odol’ hitza bi sailei dagokie, esenploan). Bestaldetik $a \varepsilon A$ egokiera beti betetzen da (hau da, *a* guzitarako).

Analogia

Bi hitz analogikoak direla esango dugu, biak sail batean bertan agertzen diranean. Erlazio hau, \sim sinbolok in azalduko dugu. Batzutan parentesisen artean sail honen izena jartzen da, beste batzutan ez. Adibidez

‘ezpain’ \sim ‘hortz’ (AHO)
 ‘lore’ \sim ‘horri’ (BELARKI)
 ‘esku’ \sim ‘menpeko’ (GIZARREMAN)
 ‘ardo’ \sim ‘meza’ (LITURGIA)
 ‘idatzi’ \sim ‘ikasle’ (IKASTOLA)
 ‘aditz’ \sim ‘izen’ (GRAMATIKA)
 ‘laketu’ \sim ‘gozo’ (ATSEGIN)
 ‘apaiz’ \sim ‘ordenak hartu’ (APAIZTASUN)
 ‘aita’ \sim ‘apaiz’ (APAIZTASUN)

Ikusten ahal danez, analogi guzi hoietan, letra handiekin, saila idatzi dugu. Kasu hauetan sailari modulo edo molde izena eman ahal zaio. Adibidez

‘ezpai’ \sim ‘hortz’ (mol. AHO)

Beste askotan moldea ez dugu jarriko. Adibidez

‘azkar’ \sim ‘trebe’
 ‘sendotu’ \sim ‘gaitz’
 ‘izar’ \sim ‘dizdiratu’

Erlazio hauetan, nahiz ta moldea ez agertu, bera esistitzen dala ematen da beti.

Notazio eta sinbolo batzuk

Nere ustez, analogiari, teoria izena ezartzen ahal zaio, teoria hitza Bourbaki-k esandako esanahiaz harturik.

Teoria honen *terminoak* honoko hauek dira:

Hitzak: Edozein letra txikiakin itxuratuko ditugu. Hitzzen multzoa \mathcal{H} letra-kin azalduko dugu.

$$\mathcal{H} = \{a, b, c \dots h, i \dots x, y, z\}$$

Hitz buruak: alfabetako lehenengo letra txikiakin azalduko ditugu. Hitz bu-ruen multzoa \mathcal{B} letrakin azaldu.

$$\mathcal{B} = \{a, b, c \dots, h\}$$

Sailak: lehenengo letra handiekin azalduko ditugu eta beren multzoa, \mathcal{J} letrakin

$$\mathcal{J} = \{A, B, C, \dots, H\}$$

Logika formalaren sinboloen gainera, analogiaren \sim sinboloa erabiltzen da teoria honetan. Hona hemen teoria honen erlazio batzuk

$$\mathcal{B} \leftrightarrow \mathcal{J} \quad \mathcal{B} \subset \mathcal{H} \quad (\forall a \in \mathcal{B}) a \in A$$

$$x \sim y \text{ (mol } A) \iff x \in A \wedge y \in A$$

$$x \sim y \iff (\exists A \in \mathcal{J}) x \in A \wedge y \in A$$

$$x \sim y \text{ (mol } A) \wedge y \sim z \text{ (mol } A) \implies x \sim z \text{ (mol } A)$$

$$x \sim y \wedge y \sim z \not\Rightarrow x \sim z \quad \text{Adibidez 'osaba' } \sim \text{'odol' eta 'odol' } \sim \text{'aho' baina 'osaba' } \not\sim \text{'aho'}$$

Hiztegi analogiko baten zatiak

Hiru dira, nere ustez, hiztegi ideologiko baten zatiak, baina bi lehenengoak, batean jar ditezke.

I Hitz guzien multzoa, \mathcal{H} deitu duguna, alfabetako antolamenduaz.

I *ℋ* multzoa *ℬ* multzoan ezartzeko era, hau da, hitz bakoitzari dagozkion hitz buruak ematen dituan korrespondenzia.

II Sailak: sail bakoitzerako, hitz burua eta honen menpeko diren hitz guziak.

Alfabetako zatia

Alfabetako zatiaren eredu bat ematen dugu exenplotzat... Ezkerreko aldean, bi aldiz azpimarratuak diren hitzak, alegia, honoko marra honekin —————, hitz buruak dira berez. Adibidez, *aberri* eta *abere*. Honelakoetan, a ε A erabiltzen da, jakina.

<i>-aba</i>	AHAIDETASUN
<i>abade</i>	APAIZTASUN, KOMENTU
<i>abaila</i>	ISKILU
<i>abanta</i>	ZELATA, ZAINDU, IHIZI
<i>abantaila</i>	IRABAZI
<i>abar</i>	ZUHAITZ, BELARKI
<i>abarka</i>	OINETAKO
<i>arrabots</i>	OTS
<i>abendu</i>	EGUTEGI, LITURGIA
<i>aberats</i>	ABERATS, UGARI, DIRU
<i>abere</i>	ABERE, ABEREA, BASERRI, ANIMALIA
<i>abereak</i>	ABEREA, BASERRI
<i>aberri</i>	ABERRI, HERRI, NAZIO, GIZARTE
<i>abertzale</i>	ABERRI
<i>abestu</i>	ABESTU, MUSIKA
<i>abiada</i>	MUGITU, ASIERA, BULTZA, JOAN
<i>abiadura</i>	MUGITU, ASIERA, BULTZA, JOAN
<i>abiatu</i>	MUGITU, ASIERA, BULTZA, JOAN
<i>abil</i>	ARGI, TREBE
<i>abisa</i>	OHAR, DEI
<i>abisu</i>	OHAR, DEI
<i>abots</i>	AHO, MINTZO, OTS
<i>aburu</i>	IRITZI
<i>abuztu</i>	EGUTEGI
<i>adarailu</i>	ETXEGINTZA

<i>adar</i>	ZUHAITZ, GORPUTZ, ORTZ, EGURALDI, ISEKA
<i>adardun</i>	ANIMALIA
<i>adats</i>	ILE, BURU
<i>adi-</i>	ENTZUN, ULERTU, ERAKUTSI, SENTSU
<i>adiarazi</i>	ERAKUTSI
<i>adiarazle</i>	HIZKUNTZA, ITZULI
<i>adiarazpen</i>	IGARRI
<i>adigaitz</i>	ULERTU
<i>adigarri</i>	ULERTU
<i>adigogor</i>	ULERTU
<i>adikintza</i>	ULERTU, SENTSU, ZENTZU
<i>adimen, adimendu</i>	ZENTZU
<i>aditu</i>	ULERTU; JAKIN, SENTSU, ZENTZU
<i>adin</i>	ADIN, GAZTERI, HAURZARO, GAZTARO, ZAHARARO
<i>adio</i>	AGURTU
<i>adiskide</i>	ADISKIDE, LEIALTASUN, ETXEKO, URKO
<i>aditu</i>	ULERTU, JAKIN, SENTSU, ZENTZU
<i>aditz</i>	ADITZ, GRAMATIKA, HIZKUNTZA

Bigarren zatiaren exenplo bat

Eredutzat AHAIDETASUN saila hartu dugu. Exenplo bat da, besterik ez. Osaturik ez dago, eta gauza batzuk gaizki izango dira, dudarik ez, baina exenplotzat balio du. Hitz marratuak, buruak dira beren alde.

AHAIDETASUN

ahaide	ahaide urko	gurasoak
senide	ahaide urbil	<i>aita</i>
urko	ahaidexka	<i>ama</i>
odol	ahaidekutsu	<i>asabak</i> (arbasoak)
jende	<i>odolezko ahaide</i>	aurrekoak
<i>etxe</i>	<i>ezkontz ahaide</i>	aitzinekoak
ahaideak	-orde	<i>osaba</i>
senideak	<i>gurasorde</i>	
etxe	semetzatu	<i>ondokoak</i>
ahaideri	alabatzatu	seme-alabak

<i>familia</i>	sasiko	<i>anai-arrebak</i>
egoki	<i>bort</i>	
jendaki	sasikotasun	<i>ezkontza</i>
ahaidetasun	bortasun	ezkondu
senidetasun	mail	ahaidetu
ahaidego	ahaide mail	senar
belaun	zuzen	emazte
leinu	zehar	
gizaldi	aitaren errotik	primantza
sorterro	amaren errotik	maiorazgo
iturri	sortzez	lehentasun
etorki	sorterri	lehen seme
enda	jaioterri	<i>ondore</i>
jendaia	jatorri-	
<i>tribu</i>	jatorriko	
<i>arraza</i>	jatorrizko	

Hiztegi analogikoa egitearen abantailak

- 1) Euskal idazle, izlari eta pentsazaileentzako oso tresna egokia izango da.
- 2) Analogiko hiztegiaren egitean, hitz askoren forma eta ortografia tinkatu-ko dira, bidenabar.
- 3) Lan hau egiteko, hitz bakoitza ondo aztertu beharko da. Beraz hiztegi analogikoa, euskerazko euskal hiztegi nagusia egiteko lehenengo pausoa izanen da.

Informazioa neurritzen

Egan, 34 zk., 1974

«Informazio» hitzak «mass media» direlakoak bururatzen dizkigu, alegia, egunkariak, aldizkariak, telebista, erratia, etabar. Hau ez da, ordea, artikulu honetan «*informazio*» hitzari ematen diogun esanahia.

Informazioa deitzen duguna, ez da bakarrik giza-munduan agertzen, fisikako munduan non nahi ere aurkitzen dugu. Non nahi ere, Natura guztian, ibiltzen dira, batetik bestera, *informazio eramale* diren ezin kontako eta izkutuzko *gaztiguak*.

Gaurko Zibernetikak frogatzen duanez, Naturaren mugimendu eta harreman guztiak, holako mandatuen bitartez egizatzen dira.

Alde honetik, eguneko zientzian, garrantzirik handienetako konzeptu bat da informazioa, Unibersoaren sail guztietan sartzen dalako.

Gaztigu batek eramandako informazioa hamaika motakoa izan daiteke. Bartzutan *agindu* bat izaten da, izan batek beste bati bialdutakoa¹. Bigarren honek, agindua hartzen duanean, bera betetzen abiatzen da, hortarako programaturik bait dago. Beste batzutan, galdera bat izan ohi da, erantzun bat eskatzen duena, edo *ohar* bat, hartzaileak kontuan izan behar duena, bere jokaera bera zuzentzeko. *Berri* bat izan daiteke ere, baten batek beste edonorri «hemen, hau gertatzen den» jakin arazi diona. *Deiezko* eta deadarrezko gaztiguak ba daude ere, zenbait espaziora zabaltzen dituanak laguntza eskatzeko, SOS bezalatsuak. Zenbait hori ez da beti pertsona bat, bizi gabeko bat izan daiteke ere (izar bat edo molekula bat, esate baterako) complementoko elementu bat eskatzen duena.

Ikusten dugunez, informazioa konzeptu guztiz orokarra da.

Gainera, *gaztigu* eta *informazio* konzeptuak guztiz loturik daude. Baina gaztigu batean dagoen informazioa neurri ahal daitekean zerbait da. Informazio *kantitate* bat da, magnitude neurrigarri bat, alegia.

Hartley injinadorearen hastapenen ondoan, Claude Elwood Shannon izan da informazioaren neurri eta kalkuloaren egiazko sortzailea. 1948 urtean, Zientzia Historiara igaroko diren bi artikulu argitaratu zuen, gai honi buruz. Biak

Iparramerikako «Bell Systema Journal» aldizkarian agertu ziren, eta hoietan, zientzia berri baten oinarriak jarri zituen Shannon jakintsuak.

Matematikalari fina zen —eta da, oraindik bizi bait da—. Nahiz eta konzeptu simple eta elementalak erabili, Matematika zienziari bide berri bat iriki dio.

Shannon jakintsuak asmatutako matematika berria «informazioaren teoria» deitzen zaio. Haren helbururik nagusia *informazio kantitatea* mugatu eta neurritzea da, eta kalkulatzeko honetik hamaika ondore garrantzizkoak sortzea dira, teknika eta zienziaren sailean.

Informazioaren neurria

«Baina nola izan daiteke informazioa neurritzea?» —galdetuko du bat edo batek.

Informazio baten garrantzia eta saria, gauza guztiz subjektiboa da. Alde honetik informazio neurritzerik ez dago. Askotan gertatzen da, balio handienetako informazio batek, informazio teoriaren aldetik oso gutxi baliotzea.

«Zer izan da, mutiko ala neskato?» —galdetzen dio emaginari erditu berri dan emakumeak.

«Analisaren emaitza, zer izan da, baiezkoa ala ezetzkoa?» galdetzen dio mihikuari mingaitza batez mehatxaturik dagoen gaisoak.

«Zigorra, zein izanen da, herioa ala presondegia?» —prozesatuak abokatari.

«Nixon lendakariak bere kargua utziko du, ala ez, 1974. urtean?». Hau jakitea kauka-mauka ederra izanen litzateke bat noski batzuentzat.

Holako galderak, galderatzailentzat ezin esanezko balioa izan arren, Informazio teoriaren aldetik baliorik txikiena dute, «*bit*» unitatea dalakoa, alegia.

Aipatutako kasu guztietan, *erantzun bakar bat* eskatzen du galderak: *Bai* ala *ez*. Berehala ikusiko dugunez, holako kasuetan behar den informazioaren neurria «bit» bat da, besterik ez. Hori baino txikiagoa ez dago praktikan.

Beraz, Informazioaren Teoriak, informazioaren mamia alde batera uzten du, eta kantitatea besterik ez du begiratzen. Zenbat «bai ala ez» behar da galdera honi erantzuteko? Zenbat baialaezko entsaio edo proba egin behar da, halako fenomeno garbitzeko? Zenbat sinbolo erabili behar da gertaera hau adiarazteko? Mintzaera jakin batean, zenbat da edozein letra batek eskuratutako

informazioa? Nola jokatu behar da, informazio bat ematekotan, energeiaren gastorik txikiena egiteko? Etabar...

Hona hemen Teoria honen helburuen exenplo simple batzuk. Zientzia honen aplikazio-alorra nolako zabala denez, irakurlea errez konturatuko da, duda gabe.

Baina mintza gaitezen, lehenengoa informazioko *entropia* delakoaz.

Zalantzazko egoera baten entropia

Eman dezagun zalantzazko egoera batean gaudela. Adibidez, bi bide dugula aurrean. Gure mugarat heltzeko nondik jo ez dakigu, ordea. Seguro gaude, bidea, bata ala bestea izan behar dela, baina ez dakigu zein den. Bestaldetik, aukera egiteko, arrazoin berdinak ditugu, bi aldetatik, guretzat bi bideek probabilitate berdina dutelako.

Kasu honetan probabilitateen banaketa (1/2; 1/2) dela esango dugu.

Zalantzazko egoera honetik ateratzeko, igarotzen den lehenengoari galdeztzen diogu. «Mezedez, jauna, halako herrira nondik joaten da?».

Baina galdera hau, Informazio Teoriaren aldetik, ez da ondo egina. Beste gisaz egin behar dugu. Adibidez: «Halako herrira joateko, ezkerretikako bidea izango al da, ote?». Besteak «bai» ala «ez» erantzungo digu, eta kito.

Baialaezko erantzun batekin garbiturik dugu, beraz, kasu honetan, zalantzazko egoera.

Egoera honen entropia, *bat* dala esango dugu. Baina zer motako *bat*? Hemen, neurritze guztian bezala, unitate bat behar da. Esan dugunez, *bit* delakoa da, unitate hori. Aipatutako egoeraren entropia, «bit» bat dela esan dezakegu. (BINIT edo BIT, «binary digit» ingeles esanbidetik dator.)

Entropia, zalantzazko egoera baten *zalantzaren neurria* da, eta zalantza zuzritzeko *behar diren erantzun zenbakiaren arauaz neurritzen da*.

Hau pixka bat hobe erakusteko, ipuitxo bat kontatuko dizuegu.

Erregina eta zortzi damatxoak

Erregina batek zortzi damatxo omen zituen, eta hauen artean bere lehenengo dama aukeratzea erabaki zuen. Haietako bat autatu zuen, beraz, baina

honen izena «in petto» gorde zuen, Aita Santuak, kardenalak izendatzean, egiten omen duen bezala.

Damatxoek gogokoaren izena jakin nahi zuten, jakina, eta galdezka hasi zintzaizkion.

Erreginak, galdera batzuk egin zitratela esan zien, eta berak erantzungo zuela, bi baldintzakin, ordea, alegia, «bai» ala «ez» baizik erantzungo zuela, eta galderaen zenbakia ahalik eta txikiena izan behar zela. Behar ziren galderak baino gehiago egiten baldin ba zuten, tutik ere ez zuela esango jakin arazi zien.

Damatxoak, orduan, nola jokatu asmatzen asi ziren.

Alfabetako ordenez Ainize, Dido, Eder, Erlea, Gabon, Krysis, Psykis eta Saffo ziren, damatxoen izenak.

Erlea izena zuenak, nahiko sinplea zena, galderak bana banaka egitea proposatu zuen. Hau da: «Majestadea, Ainize izanen da, ote, zure gogokoa?»... «Majestadea, Dido izanen ote da, zure gogokoa?» etabar, izena agerrarazi arte.

Ainizek proposatutako jokabidea ez zen oso ona. Zori ona baldin ba zen, bai, izena berehala agertuko zen. Baina damatxo berezia azkenetako bat izanez gero, Psykis adibidez, galdera asko beharko zen, eta galdera gehiegi izanaz, erregina galdeketaren erdian ixilik geldituko zen.

Orduan, Krysis zelakoa, oso argia zena, beste proposamendu bat egin zuen, benetan ona.

Lehenengo galdera, honoko hau izango litzateke: «Majestadea, zure autatua, lehenengo lauen artean izango al da, ote?» (Lehenengo lauak, alfabetako ordenez, Ainize, Dido, Eder eta Erlea ziren, dakigunez).

Baina ala ez erantzungo zuen erreginak. Eman dezagun «ezetz» izan zala haren jardespena.

Orduan, bigarren galdera honoko hau izanen litzateke: «Majestadea, Gabon eta Krysis-en artean izanen da, ote, «in petto» daukazuna?». Bai ala ez ihardetsiko zuen erreginak. Onar dezagun *bai* izan zela jardespena.

Azkeneko galdera honoko hau izango litzateke, erreza da hau jakitea: «Gabon da, ote, zure gogokoa?».

Erreginak, nahiz «bai», nahiz «ez», erantzun, galdeketa bukaturik zegoen, esan beharrik ez, hirugarren galdera honekin. Hiru baialaezko galdera nahikoa zen egia jakiteko.

Aipatutako egoeraren *entropia* hiru «bit» dela esan dezakegu, beraz.

Gauza garrantzi handiko bat gertatzen da hemen. Frogatzen ahal danez, kasu honetan egia zuritzea, *hiru galdera baino gutxiagoren bidez ezin daiteke*.

Egoera jakin batean, *galdera zenbakirik txikiena, entropiak erakusten digu hain zuzen ere*.

Kalkulutxo batzuk, entropiari buruz

Ikusi dugunez, hiru zatiketa egiten dira «Krysis-en metodoaz».

Lehenengoa, bi erdietan, bakoitza lau damatxoko.

Bigarrena, bi laurdenetan, bakoitza bi damatxoko.

Hirugarrena, eta azkena, bi sortzirenetan, bakoitza damatxo bakarrekoa.

Beraz $8/2 = 4$ $4/2 = 2$ $2/2 = 1$.

Eta horretatik $8 = 2 \times 2 \times 2$ egiztatzen da, $8 = 2^3$ alegia.

Zortzi aterabide ditu egoera honek, eta entropia 3 da. Erlazioa da, beraz,

$$2^{\text{entropia}} = \text{aterabide zenbakia.}$$

Edozein kasoan, entropia ematen duan erlazioa honoko hau da

$$2^x = n$$

(x entropia, n aterabide zenbakia)

Hemendik erreza da beste honoko formula hau ateratzea

$$x = \frac{\log n}{\log 2} \text{ «bit»}$$

Adibidez, egoera batek hamar atera baldin badu, haren entropia

$$\frac{\log 10}{\log 2} = 3 \text{ bit gutxi gora bera da.}$$

Beraz, egoera jakin batean, *aterabide guztiek probabilitate berdina baldin ba dute* (baldintza hau nahi ta nahiezkoa da hontaz) entropia, eman berri dugun formulaz kalkulatzen da.

Aterabide guztiek probabilitate berdina baldin ez ba dute, entropiaren kalkulua pixka bat zailagoa da.

Hau da, hain zuzen ere, Hartley eta Shannon-en teorien arteko desberdintasuna. Esan dugunez, Hartley izan zen zalantzaren neurria aztertzen hasi zen lehenengoa.

Baina Hartley, edozein egoeraz, aterabide guztiei probabilitate berdina ezartzen zien beti. Shannon, berriz, aterabide bakoitzaren probabilitate desberdina kontuan izaten hasi zen. probabilitate banaketa (p_1, p_2, \dots) baldin ba da, entropia neurritzeko honoko formula hau asmatu eta frogatu zuen Shannon jaunak:

$$\frac{p_1 \log 1/p_1 + p_2 \log 1/p_2 + \dots}{\log 2}$$

(besteak beste). Baina ez gera hemen sartuko holako kalkuluetan, irakurle matematikalariak beste tokian aurki ditzakelako.

Informazioaren kantitatea. Kriptografiarekiko exenplo bat

Hau ere, exenplo guztiz errezaren bitartez adiaraziko dugu.

Kriptolari bat gaztigu bat deskorapilatzen saiatzen da.

Gaztigu hortan, hitz bat agertzen da, kontestoaren guztiz berezia. Aginduzko hitz zifratu bat da, edo, garrantzi handia duana.

Zoritzarrez lehengo letra galdu da. Besteak, bai, heldu dira kriptolarien eskuetara.

Beste letra hauek a, r eta a dira. Hitza beraz, honela idazten da

A R A

eta toki utsan zenbait letra ezarri behar da.

Hitza, zer hizkuntzazkoa da? Occitanoa, portugesa, grekotarra, alemana, esperantoa...? Ez da jakiten. Gauza bat ba daki kriptolariak, alegia, falta den letra, latin alfabetako hogeitazortzi letraen artean aukeratua dela (eman dezagun 28 letra direla).

Lehen esan dugun arauaz, egoera honen entropia, 4^8 bit da, hau da, $\log 28/\log 2$.

Baina, zenbaitek *informazio* baliotsu bat ematen dio kriptolariari, azterketan zegoelarik.

Informazio honek, misteriozko hitza *euskal hitz bat dela dio*.

Agiri da, informazio hau hartzean, *zalantza gutxitu dela*. Zalantza edo entropia, guretzat gauza bera delako.

Lehenengo entropia, ondoko entropia baino handiagoa zen, duda gabe.

Azter dezagun, beraz, entropiaren balore berria, hau da, hartutako informazioaren ondoan zenbat balio du egoeraren entropiak.

Oker ez ba gaude, euskeraz, lau letrako *ara* bukaera duten hitzak, honoko hauek dira: *bara, gara, hara, jara, kara, mara, para, zara, xara*.

Bederatzi aterabide daude, eta hauen artean egin behar du kriptolariak bere aukera.

Egoera berriaren entropia, edo ondoko entropia, $\log 9 / \log 2$ izanen da, alegia, 3^2 bit.

Ikusten dugunez entropia gutxitu da, informazioari esker.

Gutxitze hau $4^8 - 3^2 = 1^6$ bit da.

Eta *hori da*, hain zuzen ere, kriptolariak hartutako *informazioaren balioa*.

Egoera jakin batean, gaztigu batek emandako informazioaren balioa, *lehenengo entropia eta ondoko entropiaren arteko diferentzia da*.

Kinieletan

Igandero, espainol gehienak kiniela egitea du bere eginkizun nagusia.

Kiniela osoak 314 aterabide desberdinak ditu. Kiniela jokalariaren zalan-tzak 22 bit du, entropiatzat (gutxi gora bera): $\log 3^{14} / \log 2$

Eman dezagun orain, partidu batean ondorea ematen zaigula.

Zenbat da informazio honen balioa?

Partidu batek, 3 aterabide ditu. Beraz, partidu baten ondorea jakiteak $\log 3 / \log 2$, alegia, 1^6 bit informazio ematen digu. Partidu baten informazioa, 1^6 bit inguru da.

Informazio hori hartu ondoan entropia $22 - 1^6 = 20^4$ bit izango da.

Bi informazio izanez gero, 18^8 bit izango zen ondoko entropia.

Etabar.

Jakiña, 14 informazio hartzen ba ditugu, ondoko entropia ZERO izanen da, kiniela guztia ezagutzen dugulako.

Xuhurra eta diru faltsua

Xuhur batek mila urrezko diru gordeturik zituen, eltze handi baten ondoan. diruak onak ziran eta ederrak. Haien dirdirek, zikoitzaren atsegin eta zoriontasuna egiten zuten.

Baina itzalaren batek goibelarazten zuen gizonaren bizia.

Diruetako bat, faltsua zen, besteak baino pisu txikiagoa. Gainera, liferentzia oso txikia zen eta diru faltsua eskuz kausitzea ezina zen.

Hori zela eta, egunen batean, bera xuhur bezain lagun bati, balantzatxo bat eskatu zion.

Besteak, prestatu ez, alogeratuko ziola esan zion ordea. Alogera zenbat izango zen, galdetu zion, orduan, gure gizonak.

«Haztatze edo hazta bakoitza gaitik txanpon bat eman behar didazu —erantzun zion lagunak—. Bestaldetik, pisuak edo pisu neurriak ez dauzkat eta, nola konpondu, zuronek ikusiko duzu».

Gure zikoitza haztakinakin nola jokatu pentsatzen hasi zan, ahalik eta haztatzerik gutxiena egiteko.

Egoerak mila aterabide zituen. Beraz haren entropia 10 bit zan, zenbaki boroibilatuez ($\log 1.000/\log 3$).

Bestaldetik hazta bakoitzak hiru aterabide izanik, dagokion informazioa $1'6$ bit da.

Argia da $10/1'6$ hazta egin behar zala, gutxienez informazio osoa lortzeko. Sei hazta ez zan nahikoa. Zazpiak egin behar ziren, gutxienez, eta zazpi txanpon ordaindu.

Hona hemen xuhurrak nola jokatu zuen.

333 diru jarri zituen haztakinaren platera batean, eta beste 333, bestean. Haztakina plomuan gelditzen baldin ba zan, gainerako 334 diruen artean aurkitzen zen, duda gabe, diru faltsua. Platera bat gora egiten baldin ba zen, ordea, diru faltsua platera hortan bertan aurkitzen zen.

Ematen baldin ba dugu bi platerak pisu berdina zeukatela, zalantza oraindik 334 diruen artean dago (Beste kasuan 333, izanen litzateke besterik ez, eta arazoa errezagoa izan).

Zer egin orduan? 111 diru platera batean jarri eta beste 111, bestean. Lehen bezala, kasorik txarrenaz, 112 kasoen artean gelditzen zan zalantza. Etabar.

Ez gara jarraituko. Irakurleak erreza du kalkulo hau bukatzea. Eta, kasurik txarrenean ere, zazpi hazta egin eta, diru faltsua agertzen dela ikusiko du.

Bukaera

Exemplo sinple ta errez batzuk erakutsi ditugu, besterik ez. Umekeria ba dirudi ere, teoria hau oso ederra da, eta garrantzi handikoa. Aldizkari honetan zerbait gehiago esatea ez da posible, ordea.

Irakasleek hortaz pixka bat ikasiko balute, ikastoletan oso ariketa politak egin litezke.

1. Nahasietatik itzuritzeko, *mandatu* eta *manu* alde batera utzita, *gaztigu* eta *agindu* hitzak erabiliko ditugu gehienetan: «*gaztigu*» («mensaje, message»); «*agindu*» («orden, ordre»).

Ahoz eta euskeraz irakurtzekotan, nola irakurri behar dira algebrako formulak? (I)

Elhuyar, 6 zk., 1976

Hau da, besteak beste, ELHUYAR taldeak arestian egindako galdera. Izan ere, kalkulu idatzia ahoz irakurtzea beharrezkoa izan ohi da maiz, batez bat irakaskintza sailean, ikasleei formulak diktatu eta erakusteko. Begien aurrean daukazuen lehenengo artikulu honetan, irakurtzeko eragozpenaren arrazoia ikusten saiatuko gara. Algebrako kalkulua ongi normalizaturik ez dagoela frogatuko dugu, kalkulu normalizatu baten modelo bat emanaz, ez ordea orain mundu guztian erabiltzen den kalkulua alda dezagun, astakeria izanen zatekeena, baizik exenplo bat izateko, bigarren artikuluan lagunduko diguena.

Nahiz eta matematikazko kalkulua hizkuntza orokor bat izan, bera ahoz irakurtzen hasi denean, hizkuntza arrunt bakoitzak, bai eta hizkuntza bakoitzaren barnean irakurle bakoitzak ere, bere gisa irakurri ohi du formula jakin bat.

Adibidez, baldin

$$m + \frac{n}{p}$$

$$m + n$$

formula, erderaz irakurtzen saiatzen bazarete, berehala ikusiko duzue, bakoitzak irakurtze desberdina egiten duela, bai eta —are txarragoa dena— irakurtzea ezosoa eta dudazkoa dela ere, gehienetan.

Formulen euskerazko irakurtzea, euskal joskera hautsi gabe egin behar dela uste dute batzuek. Baina kalkuluak bere joskera propioa duenez gero, astakeria dirudi hizkuntza bakoitzaren joskera bereziari haren irakurtzea lotu nahi izatea. Bestalde, hizkuntza formalizatu bat hizkuntza arruntera berriz ere bihurtu nahi izatea kontra-esanahi bat iduritzen zait. Ongi dago formula bat markaz marka ahoz irakurtzea, ez ordea bera hizkuntza arruntaz erakutsi nahi izatea. Hizkuntza arrunta, hizkuntza formalizatu baten meta-hizkuntza izanen da, ote?

Nere ustez kalkuluaren irakurtzea erregela jakin batzuen bidez egin behar da. Lan hau ez da sekula egin erderazko irakaskintzaz. Zergatik ez egin, ordea, euskerazko irakaskintzaz? Azkenekoak izateak zenbait abantaila izan behar du, noski, eta orain gu eskola antolatzen hasi garelako, besteek baino hobeki egin dezakegu euskaldunok.

Kalkulu izkiriatuaren anarkia

Algebrako kalkulua hizkuntza orokor bat dela esatea ez da guztiz bidegaldua izaten. Hizkuntza honen idazbidea oso gaizki antolaturik dela, esan behar da ere, ordea.

Jakina denez, hizkuntzalariek «linearidad» deitzen dutena garrantzi handiko propietate bat da, hizkuntza guztietan.

«Toute langue —dio André Martinet jaunak— se manifeste sous la forme linéaire d'énoncés qui représentent ce qu'on appelle souvent la chaîne parlée».

Kalkuluak ere badu bere «linearidad» delakoa, baina lerrotasun hau ez da guztiz ikusgarria. Formula baten lerrotasuna ez da begiratu bakar batean ikusten, erregela konbenzional batzuei jarraituz baizik. Hau ez da normalizazio on bati dagokiona.

Adibidez

$$C \begin{matrix} p \\ \frac{n}{m} \end{matrix} ; \frac{p}{\frac{n}{m}}$$


formuletan lerrotasuna ez da berdina. Lehenengoaz ($\rightarrow n \rightarrow m \rightarrow p$ da, haseran goitik behera eta gero behetik gora.

Bigarrenaz, berriz, $p \rightarrow n \rightarrow m$ dugu lerrotasuna, dena goitik behera.

Honoko formula honetan

$$\left(\frac{\sqrt[n]{m_h}}{p} \right)^r = \frac{K_h}{t}$$

lerrotasun delakoak bide honi jarraitzen dio



Honek ez du batere argirik izaten eta hortik dator, hain zuzen ere, ahoz irakurtzeko arazoaren eragozpena.

Halere, nahaskatze hau ez zaigu estraina izan behar. Erraz erakusten ahal da beraren kausa.

Aritmetikazko kalkulu idatzirik haseratik ez zegoen. Kalkuluak eta arrazoinetak hizkuntza arruntaren bidez egiten ziren, gaur egun zientzia gehienek egiten duten bezalaxe. Teorema bat frogatzeko edo problema bat planteatzeko hamaika inguru egin behar ziren, kalkulu idatzia eta formulak ez zeudelako. Kalkulua bazegoela esan daiteke, ez kalkulu idatzi bat ordea.

Diofanto matematikalarri grekotarra izan omen zen algebrakko kalkulua erabiltzen saiatu zen lehenengoa, Kristau Aroaren 500 urte inguruan. Baina hastapen bat besterik ez zen, guztiz hasiko-masiko eta eskasa, izan ere.

Haren ondoan aurrerapen txiki batzuk egin ziren, baina algebrakko kalkulu idatziaren egiazko asmatzailea François Vieta izan zen, jakin denez, XVI. mendearen azkenekoetan bizi zena.

Vieta famatuaren notazioak pixka bat erakusteko hona hemen exenplo batzuk.

Gaur eguneko kalkuluaz: x^2 x^3 x^6 xy $x=y$

Vieta-n kalkuluaz: xq xc xcc $x \text{ in } y$ $x \text{ xg } y$

Guk erabiltzen dugun « $a > b$ » formularen lekuan, « $a - b$ » formula erabiltzen zuen Vietak, eta honen notazioan « $a = b$ » idazten zuenak « $a < b$ » esan nahi zuen.

Beraz

$$2 z^2 < x^3 + x^2 y^2 + y^3 < 3 z^2$$

formula, Vietak honela idazten omen zuen:

$$2 \text{ in } zq = xc + xq \text{ in } yq + yc = 3 \text{ in } zq$$

Mendean zehar Vietaren notazioak aldatuak izan ziren eta, batzutan, osatuak. Leibnitz, Descartes, Widmann, Recorde jakintsuek, beste askoren artean, marka berriak sartu zituzten, bakoitzak bere erara, eta batere batasunik gabe. Nahasmendu izugarri bat egin zen eta hala heldu zen eguneko izkiriatzera.

Ez da beraz estraina izaten, orain erabiltzen dugun kalkulu idatzia normalizaturik gabe egotea.

Normalizazio falta honetatik dator, berriz ere esango dugu, algebrakko formulak ahoz irakurtzeko zailtasuna, ez bakarrik euskeraz, jakina, hizkuntza guzietan baizik.

Gure problema argitu nahi badugu, honetaz konturatu behar dugu, gaur egun erabiltzen den izkiriarena ezin alda badaiteke ere.

Saiozko kalkulu normalizatuaren exenplo bat

Nola izango litzateke kalkulu ongi normalizatu bat?

Oraingoz, eta luzaro, kalkulu ez normalizatu batekin jokatu beharko denez gero, kalkuluaren formulak nola irakurriko ditugu euskeraz?

Lehenengo galderari berehala erantzungo diogu, eta bigarrena, urrengo artikulurako utziko dugu.

Eman dezagun, beraz, kalkulu normalizatuaren exenplo bat, saiozko edo laborategizko modelo bat.

Segidan ikusiko denez, kalkulu honek abantaila batzuk ditu.

1. Kalkulu honetan ez da behar izaten, kalkulu arruntan gertatzen den bezala, marka handiak, txikiak eta tamaino guztietakoak erabiltzea. Erabiltze hau truku bat dela esan behar dugu, guztiz elkargaitza egiazko formalizazio batekin. Adibidez:

$$\sqrt{A + \sqrt{B + \sqrt{C}}}$$

$$a + \frac{1}{b + \frac{1}{c + \frac{1}{d}}}$$

formuletan ikusten denez, marken tamainoak aldatzen dira, eragiketen arteko ordena jakin arazteko.

Zatiketaren markari «zati» izena ezartzen badiogu, «zati handia» «zati txikiagoa» eta «zati txikiena» esan beharko genuke eskuiko formula «deskribitzeko». Eta gauza antzekoa ezkerrekoan. Guzti hau nahaskeria da, besterik ez.

2. Kalkulu honetan ez da behar izaten makoak erabiltzea. Izan ere, makoak eragozpen bat izan ohi dira formulak ahoz irakurtzean.

3. Hizkuntza izkirituaren lerrotasuna guztiz garbi agertzen da kalkulu normalizatuan. Hemen ez da gertatzen lehen ikusi duguna, kalkulu arruntaren lerrotasuna guztiz ikusgaitza izatea, alegia.

4. Kalkulu normalizatuan ahozko irakurtzea markaz marka egingo litzateke, marka bakoitzari dagokion izena emanaz. Honetaz ere ez da ez zalantzarik ez nahasmendurik izaten.

Hona hemen kalkulu normalizatu delako honen erregelak:

A) Kalkuluaren *elementuak* letrak eta zenbakiak dira. (Guk, artikulu honetan letrak bakarrik erabiliko ditugu garbiago egiteko).

B) Elementuez beste, marka batzuk erabiltzen dira, konektagailuak deitzen ditugunak. Honako hauk dira, bakoitza bere ahozko izenarekin:

~	« <i>minus</i> » deitzen duguna, signo aldaketaren eragiketarako
+	« <i>gehi</i> » deitzen duguna, batuketa eragiketarako
—	« <i>ken</i> » deitzen duguna, kenketa eragiketarako
X	« <i>bider</i> » deitzen duguna, biderkaketa eragiketarako
:	« <i>zati</i> » deitzen duguna, zatiketa eragiketarako
↑	« <i>ber</i> » deitzen duguna, berreketa eragiketarako
↓	« <i>erro</i> » deitzen duguna, erroketa eragiketarako

C) Elementu bakar bat formula ongi eratua dela esaten dugu. Adibidez: x formula bat da.

D) Baldin \mathcal{K} kalkuluaren formula ongi eratu bat bada. $\sim \mathcal{K}$ ere formula ongi eratu da.

E) Baldin \mathcal{K} eta \mathcal{G} kalkuluaren formula ongi eratuak bada, $+\mathcal{K}\mathcal{G}$; $-\mathcal{K}\mathcal{G}$; $\times \mathcal{K}\mathcal{G}$; $:\mathcal{K}\mathcal{G}$; $\uparrow \mathcal{K}\mathcal{G}$; $\downarrow \mathcal{K}\mathcal{G}$; ongi eratuak formulak dira orobat.

Segidan ikusiko dugunez bost asioma horiekin nahikoa dugu algebra elementalaren formula guztiak eraikitzeko.

Biderkaketa eragiketa *monadiko* bat dela konturatu behar dugu, alegia, konektagai bakar batekoa. Adibidez:

$$\sim X$$

idazten badugu « \sim » konektagailuak x konektagaiari dagokio, besterik ez. Beste konektagailuak, berriz, *diadikoak* dira, hau da, bi konektagaiari dagokiela kontuan izan behar dugu. Adibidez:

$$X \sim xy$$

formula idazten badugu, \sim konektagailua X konektagaiari dagokio bakarrik: X konektagailuak « $\sim X$ » eta « Y » formulei dagokie, ordez. Ohar hau oso kontuan euki behar da Kalkulu honen formula ulertzeko.

Esan dugun guztiagatik *sustituzio erregela* deitzen duguna ateratzen da: *Baldin formula ongi eratu batean letra jakin baten lekuan formula ongi eratu bat sartzen bada, formula ongi eratu bat osatzen da.*

Adibidez: « $+yz$ » eta « Xuv » formula ongi eratuak direlako, baldin lehenengo formula y letraren lekuan « Xuv » formula sartzen badugu, $+XuvZ$ ere formula ongi eratu bat dela esaten digu sustituzio erregelak.

Irakurleari kalkulu honen esannahia argi eta garbi erakusteko exenplo batzuk ematea da biderik onena.

Honoko taula honetan ematen da: lehengo zutalerroan, kalkulu normalizatuaren formula batzuk; bigarren zutalerroan formula horien esannahia, bana-banaka; eta hirugarren zutalerroan formula bakoitzaren ahozko irakurtzea.

<i>Kalkulu arruntaren formulak</i>	<i>Kalkulu normalizatuaren formulak</i>	<i>Ahozko irakurtzea</i>
$-x$	$\sim x$	«minus x»
$x+y$	$+ x y$	«gehi x y»
$x-y$	$- x y$	«ken x y»
x^y	$\uparrow x y$	«ber x y»
$\sqrt[y]{x}$	$\downarrow x y$	«erro x y»
$\frac{x+y}{z}$	$: + x y z$	«zati gehi x y z»
$x + \frac{y}{z}$	$+ x : y z$	«gehi x zati y z»
$\frac{x}{\frac{y}{z}}$	$: x : y z$	«zati x zati y z»
$\frac{x}{y^z}$	$: x \uparrow y z$	«zati x ber y z»
$\frac{\frac{x}{y}}{z}$	$:: x y z$	«zati zati x y z»
x^{-y}	$\uparrow x \sim y$	«ber x minus y»
$(-x)^y$	$\uparrow \sim x y$	«ber minus x y»
$-x^y$	$\sim \uparrow x y$	«minus ber x y»
$\frac{x+y}{t+u}$	$: + x y + t u$	«zati gehi x y gehi t u»

$x + \frac{y}{t+u}$	+ x : y + t u	«gehi x zati y gehi t u»
$\frac{x+y}{t} + u$	+ : + x y t u	«gehi zati gehi x y t u»
$x + \frac{y}{t} + u$	+ + x : y t u	«gehi gehi x zati y t u»
$(xy)^z$	↑ ↑ x y z	«ber ber x y z»
$x^{(y^z)}$	↑ x ↑ y z	«ber x ber y z»

Bukaera

Orain arte esandakotik ondore bat ateratzen dugu, kalkuluaren idazkuntza ongi eraturik dagoenean, erreza dela hura irakurtzea, alegia.

Konsiderazio honekin bukatzen dugu artikulu hau. Urrengoan proposatutako galderari gure erantzuna ematen saiatuko gara.

Ahoz eta euskeraz irakurtzekotan, nola irakurri behar dira algebrako formulak? (II)

Elhuyar, 8 zk., 1976

Algebrako kalkulua hizkuntza formalizatu bat da. Bere *elementuak*, letrak eta zenbakiak izaten dira.

Elementu horik, *konektagailuak* deituko ditugun ikur berezi batzuen bidez lotzen dira, *formulak* osatzeko.

Konektagailu bakoitzak eragiketa bat itxuratzen du. Ez ordea beste aldera, eragiketa batzuek ez bait dute ikurrik izaten. Adibidez, berreketa delakoak ikurrik ez du, jakina denez. Biderkaketa ere, kasu askotan, ikurrik gabe erabiltzen da.

Izan ere, konektagailuak guztiz konbentzional eta desberdinak dira, nahiz beren formak gatik, nahiz beren erabili moldeak gatik. Anarkia honen arrazoia historiatic dator, noski, gure lehengo artikuluan esan genuen bezala.

Hona hemen konektagailuen errenkada. Bakoitzerako *itxura*, *izena* eta berak itxuratzen duen *eragiketa*, ematen dira, errenkada honetan bertan

+	gehi	batuketa
-	ken	kenketa
x	bider	biderkaketa
.	»	»
—	zati	zatiketa
:	»	»
÷	»	»
$\sqrt{\quad}$	erro	erroketa

Baldin algebrako formula bat ezkerretatik eskuitara eta goitik behera, ikur-
rrez ikur aztertzen badugu, elementu eta konektagailuen segida bat agertzen da
(segida / sucesión).

Adibidez,

$$\frac{\sqrt[a]{5}}{10}$$

formula, prekauzio horiekin aztertzen baldin bada, honeko ikur segida hau arkitzen da:

$$a; \sqrt{\quad}; 5; \text{———}; 10$$

Eta, ikur bakoitzari bere izena emanaz, ikur segida hori irakurtzean, *hitz segida* bat agertzen da, alegia:

« *a ; erro ; bost ; zati ; hamar* »

hitz segida.

Erraz ikusten da segida honen estruktura aldizkakoa dela, alegia, elementuak eta konektagailuak txandaka agertzen direla, lehenengoa eta azkenekoa, hain zuzen ere, elementuak izanik.

Estruktura honen eskema honako hau da beraz:

ELEM KONEK ELEM KONEK ELEM KONEK... KONEK ELEM

Aipatutako hitz segidari *frase* izena emango diogu, formula baten azaldura delako. *Kalkulu idatziak formulak* erabiltzen ditu, *kalkulu mintzatuak fraseak erabiltzen* dituen modura.

Halere, ikur izkutu zenbait dagoelako, esan dugunez, zenbait oharpen egin behar dugu honi buruz.

Nahiz eta ageriko ikurrik ez izan, izen bat ezarri behar diogu berreketaren ikus izkutuari; «*ber*» izena alegia.

Adibidez

$$a^3$$

formula irakurtzean, «*a ber hiru*» irakurriko dugu.

Biderkaketari buruz gauza bera esango dugu, «*bider*» ikurra askotan izkurturik uzten bait da. Adibidez

$$a + b c$$

formula «*a gehi b bider c*» irakurtzea komeni da, batzutan behintzat.

Bigarren graduko erroketan ere, 2 indizea kendu ohi da kasu gehienetan. $\sqrt{5}$ idazten da, eta $\sqrt[2]{5}$. hala eta guztiz ere, formula horren egiazko irakurtza «*bi erro bost*» dela onartuko dugu.

Ezkermaoak eta eskumakoak

Aipatu ditugun elementu eta konektagailuez gainera, beste ikur konplementariak ere erabiltzen dira; *makoak* deitzen ditugunak alegia.

Makoak, bi motatakoak izan ohi dira.

« (» *ezkermako* deitzen duguna eta
«) » *eskumako* deitzen duguna

Badago zenbait erregela makoak ongi jartzeko; hemen ez ditugu emango, ordea, lan hau gehiegi ez luzatzeko.

Dena den, ezkermako bat formularen hasieran ez baldin badago, edo beste ezkermako baten ondoan ez badago, elementu bat eta konektagailu baten artean izan behar da, KONEK EZKERMAKO ELEM ordenean hain zuzen ere. Eta eskumako bat formularen bukaeran ez baldin badago, edo beste eskumakoaren ondoan ez badago, elementu bat eta konektagailu baten artean izan behar du, nahi eta nahi ez, ELEM ESKUMAKO KONEK ordenean hain zuzen ere.

Adibidez: «*eskermako hiru bider bost ber bi eskermako zati hiru eskumako eskumako*» frasa gaizki eraturik dago, «*bi eskermako zati*» ordenazioa egokia ez delako.

Ordea, *ezkermako hiru bider bost ber ezkermako bi zati hiru eskumako eskumako*» ongi eratua da, nahiz eta makoak beharrezko ez izan. Haren eskema EZK ELEM KONEK ELEM KONEK EZK ELEM KONEK EZK ELEM KONEK ELEM ESK ESK da.

Ezkermako bakoitzari eskumako bat dagokio, haren eskuialdean dagoena, eta biek *makopare* bat osatzen dutela esaten dugu. Halaber, eskumako bakoitzari ezkermako bat dagokio, eta bien artean makopare pare bat osatzen dute.

EXENPLOZ: Delako «*bi bider ezkermako hiru ken ezkermako bost ken ezkermako sei gehi zazpi eskumako eskumako*» frasa ongi osaturik dago eta, berehala ikusten denez,

$$2 \times (3 - (5 - (6 + 7)))$$

formulari dagokio.

Makoen eginkizuna, formularen zati bat azpiformula bat dela azaltzea da —azpiformula hitz honen esannahia gerokoan erakusten da— hau da, makopare baten barruan dagoen zatia egiazko formula bat dela berez eta honen lekuan bere balorea jartzen baldin bada, formula berria lehenengoarekin baliokidea dela.

Adibidez, idatzi berri dugun formulean

$$6 + 7$$

batuketaren lekuan, honen balorea jartzen badugu, 13 dena,

$$2 \times (3 - (5 - 13))$$

agertzen den formula berria, lehenengoaren baliokidea da.

Hau da, berriz ere diogu, makoen esannahia.

Azpi fraseak, azpi frase egokiak eta azpiformulak

Honeraino esandakoa erraza eta argia badirudi ere, eragozpenak eta anbiguetateak berehala agertzen dira formula batzuk irakurtzean. Guzti hau ongi garbitzeko eta gauzak beren lekuan jartzeko, beharrezkoa dugu orain zenbait definizio eta argipen ematea.

Orain esango duguna izanen da, apika, gure irakurleentzako artikulu honen punturik zailena. Irakurle gehienak, ordea, errigortasuna alde batera utzirik, nahikoa izanen du exenploak ulertzearekin.

Frase batetan, edo hitz segida huts batetan, bi nolana hiko hitz har dezagun, *mugak* bezala. Bi hitz muga hauen artean dauden hitz guztiak, batere utzi gabe eta dauden ordenean bertan, beste hitz segida bat osatzen dute. Hitz segida hau *irekia* ala *itxia* izan daiteke.

Mugak, berak mugatutako hitz segidan bertan sartzen direla onartzen denean, hitz segida *itxia* dela esaten da. Bestela, mugak ez ba dira hitz segidan sartzen alegia, hau *irekia* dela esaten da.

Adibidez,

«*a ber bost gehi hiru erro pe zati hiru erro e*»

frasean «bost» eta «zati» hitzak mugatzat hartzen ba ditugu,

«*gehi hiru erro pe*»

izanen da berak mugatutako hitz segida, *irekia* izatekotan, eta

«*bost gehi hiru erro pe zati*»

hitz segida *itxia* izanez gero.

Oharraraz dezagun ordea, hitz segida horik ez direla fraseak, ez bata ez bestea, beraiek ez bai dagozkio inolako formulari.

Ordea, «hiru» eta «pe» hitzak hartzen baditugu mugatzat,

«*hiru erro pe*»

hitz segida erdesten da egiazko frase bat dena, bera

$$\sqrt[3]{p}$$

formulari dagokionez gero. Hori dela eta, aipatutako hitz segida, frase osoaren azpifrase bat dela esango dugu, honako erregela honen arabera: *frase jakin batean, bi hitzek mugatutako hitz-segida, edozein formulari dagokionean, hitz segida horri «azpifrase» izena ematen diogu.*

Bi kasu desberdin ager daiteke azpifrasetan.

Har dezagun, esate baterako,

$$\frac{6 + 4}{2}$$

F delako formula guztiz erraza. Formula honi dagokion S frasea honako hau da:

«*sei gehi lau zati bi*»

Frase honetan

«*lau zati bi*»

azpifrase bat da,

$$\frac{4}{2}$$

formulari dagokionez gero. Formula honen balorea 2 da; alegia «bi».

Ordezka ditzagun beraz «lau zati bi» hitzak, «bi» hitzaz. S frasearen lekuan

«*sei gehi bi*»

S_1 frase berria izango dugu,

$$6 + 2$$

F_1 formulari dagokiona.

Baina F_1 formularen balorea, 8 da. Berehala ikusten da beraz kalkulua gaizki egina dela. Ondorea hau da: *egin dugun ordezkatzeta ez da zilegi*.

Beste gauza bat gertatzen da

«*sei gehi lau*»

S frasearen azpifraseari begiratzen badiogu. Kasu honetan zilegi da azpifrase hori «hamar» hitzaz ordezkatzeta, eta

«*hamar zati bi*»

S_1 frase berria onartzea. Gauza bera esaten dugu F formulari buruz. Zilegi da

$$\frac{6 + 4}{2}$$

F formulari

$$6 + 4$$

f zatia, hona 10 baloreaz ordezkatzeta. F_1 formula berria

$$\frac{10}{2}$$

izango da.

Gertaera hau azaltzeko «*azpifrase egoki*» kontzeptua sartzen dugu. Delako «*lau zati bi*», S frasearen azpifrase egoki bat ez dela esaten dugu, ordezkatzeta zilegi ez delako. Ordea, «*sei gehi bi*» delako frasea, S frasearen azpifrase egoki bat dela esaten dugu, ordezkatzeta zilegi denez gere.

DEFINIZIOA. Baldin F formularen S frasean s azpifrase bat bada, eta s azpifraseari dagokion formula f bada, f_1 deituko diogu f formularen baloreari; s_1 deituko diogu f_1 balorearen izenari; S_1 deituko diogu S frasean s azpifrasea s_1 izenaz ordezkatzetaren ondoreari eta F_1 deituko diogu S_1 fraseari dagokion formulari. Guzti hau honela izanik, F eta F_1 formulak baliokideak baldin badira, s delakoa S frasearen azpifrase egoki bat dela esaten dugu eta f delakoa, F formularen azpiformula bat dela esaten dugu.

EXENPLUZ:

$$\frac{3 + \sqrt{3^2 + 4^2}}{2}$$

«hiru gehi bi erro hiru ber bi gehi lau ber bi zati bi»	S	(F-ren frasea)
«hiru ber bi gehi lau ber bi»	s	(S-ren azpifrasea)
$3^2 + 4^2$	f	(s-ri dagokion formula)
25	f _I	(f-ren balorea)
«hogeitabost»	s _I	(f _I -ren izena)
«hiru gehi bi erro hogeitabost zati bi»	S _I	(ordezkatzearen ondorea)
$\frac{3 + \sqrt{25}}{2}$	F _I	(S _I -ri dagokion formula)

F eta F_I formulak baliokideak direlako, s delakoa S frasearen azpifrase egoki bat dela esan daiteke, eta f delakoa F formularen azpiformula bat dela esan daiteke ere.

Irakurtzearen anbiguetatea

Formula bat ikurrez ikur irakurri behar dela esan dugu. Erregela honen bidez nolana hiko F formula S frase bakar bati dagokio dudarik gabe.

Baina beste aldera ez da gauza bera gertatzen, zeren formula desberdin eta ez-baliokideei irakurtze berdina bait dagokieke.

Har dezagun, adibidez, lau formula hau

$$F_I \quad a + \frac{b}{c} + d$$

$$F_{II} \quad \frac{a+b}{c} + d$$

$$F_{III} \quad a + \frac{b}{c+d}$$

$$F_{IV} \quad \frac{a + b}{c + d}$$

Irakurketa ikurrez ikur egitekotan, frase bakar batera eramaten dute lau formula horiek, alegia,

«*a gehi be zati ze gehi de*»

frasera.

Hemen agertzen da anbiguetatea. Formula batetik frase batera pasatzea posible bada ere, frasetik formulara bihurtzerik ez dugu kaso askotan.

Berehala saiaturko gara nahasmen hau garbitzen.

Hitz disoziatzaileak

Direlako «gehi» eta «ken» hitzak, *disoziatzaileak* direla esaten dugu. Frase batean holako hitz batzu agertzen bada, *paremakoen barruan daudenak kendu eta*, hitz disoziatzaileen segida bat osatzen dugu. Adibidez:

«*hiru ber bi GEHI ezkermako bi gehi hiru eskumako ber hiru KEN hiru zati bi GEHI bi erro bost*»

SOILIK HITZ MARKATUAK, hartzen baldin baditugu, «gehi» ez-markatua alde batera utziz, *paremakoen artean dagoelako*, honako segida hau osatzen da

«GEHI KEN GEHI»

Egin ere, holako kasuetan *antolapen* hau egiten da beti: *hitz disoziatzaileek mugatutako hitz segidak, azpifrase egokitzen hartzen dira beti, besterik esaten ez bada.*

Adibidez, lehengo frasean,

«*hiru ber bi*»

«*ezkermako bi gehi hiru eskumako ber hiru*»

«*hiru zati bi*»

«*bi erro bost*»

azpifraseak, azpifrase egokiak direla esaten dugu aipatutako antolapenaren araber. Eta hortik

$$3^2$$

$$(2 + 3)^3$$

$$\frac{3}{2}$$

$$\sqrt[2]{3}$$

azpiformulak dira. Beraz, lehengo frasearen interpretazioaz ez da batere anbiguetaterik gelditzen, eta frase horri dagokion formula honako hau da

$$3^2 + (2 + 3)^3 - \frac{3}{2} + \sqrt[2]{3}$$

Orain lehengo parrafoan emandako esenplua, alegia F_1 , F_2 , F_3 , F_4 formulen esenplua, berriz ere aztertzen badugu, batere anbiguetaterik ez dagoela ikusten dugu egindako antolapenari esker. Izan ere

«a gehi be zati ze gehi de»

frasea, hiru azpifrase egokitan zatitzen da, eta, batere zalantzarik gabe, F_1 formulari dagokio. Beste problema bat agertzen zaigu beraz alegia F_{II} , F_{III} eta F_{IV} formulak nola irakurri behar diren jakiteko problema. Gerokoan emango diogu erantzuna.

Direlako «bider» eta «zati» hitzak ere disoziatzaileak dira, baina baldintza batekin, alegia, interpretatu behar den frasean «gehi» eta «ken» hitzak ez agertzea (makoen artean izan ezik). Antolapen hau egiten dugu beraz: *formula bate-tan; baldin «gehi» eta «ken» hitzak agertzen ez badira, makoen artean izan ezik, «bider» eta «zati» hitzak hitz disoziatzaileak dira; eta berak mugatutako azpifraseak azpifrase egokitzat hartzen dira, lehengoan «gehi» eta «ken» hitzei buruz esan ditugun kondizio berdinetan.*

EXENPLUZ

Delako «*b zati ze erro a ber pe bider te*» frasea interpretatzen saiatzen garenean, hiru azpifrase egokitan zatitzen zaigu bera alegia,

«be»
«ze erro a ber pe»
«te»

goiko horik azpifrase egokiak direlarik.

Beraz frase horren interpretazio zuzena honako hau da, batere anbiguetaterik gabe

$$\frac{b}{\sqrt[c]{a^p}} x^t$$

Beste interpretazioak $\sqrt[b/c]{a^{pxt}}$ eta abar bezalakoak, ez dira zuzenak, «bider» eta «zati» hitzak disoziatzaileak direlako. Baina problema berri bat dugu orain, lehen-goan esan dugun bezala, beste interpretazioak nola irakurri behar diren jakiteko.

Ahozko makoak

Kalkuluaren ikurrak epoka diferentetan sarturik izan dira matematika sailean, eta asmatzaile anitz izan da hortaz. Ez da beraz estraina izanen ikur horien artean desberdin asko ager dadin. Kalkulu idatziaren anarkia galanta!

Adibidez, berehala ikusten da horietako ikur batzuek makoen eginkizuna egiten dutela eta beste batzuek, berriz, holako abantailarik ez dutela.

Delako « $\sqrt{\quad}$ » erroketaren ikurrak makopare baten eginkizuna egiten du. Biderkaketaren ikurrak, «X»ek, ez du holako eginkizuni egiten, eta horregatik bazutan makoen erabiltzea eskatzen du.

Adibidez, batetik:

$$\sqrt[a]{b+c}$$

idazten da makorik gabe, eta bestetik ordea

$$a \times (b+c)$$

idatzi behar, makopare batekin.

Halaber, zatiketaren « $\frac{\quad}{\quad}$ » ikurrak makopare eginkizuna egiten du, baina « $:$ » zatiketaren ikurrak ez du horretarako balio.

Adibidez

$$\frac{a+b}{c+d}$$

makorik gabe idazten da baina

$$(a+b) : (c+d)$$

bi makoparez idatzi behar.

Irakurtzean ordea, alegia kalkulu idatzitik kalkulu mintzatura bihurtzen de-
nean, esan dugun *ikur batzuren abantaila hori galdu egiten da*; hau da, hain zu-
zen ere, anbiguetate askoren kausa.

Adibidez, baldin

$$\sqrt[p]{a + b}$$

formula ahoz irakurtzen badugu «*pe erro a gehi be*» frasea agertzen da. Baina
frase honen interpretazio zuzena $\sqrt{a + b}$

formula da, «gehi» hitza, disoziatzailea delako.

Gauza bera gertatzen da

$$\frac{p}{a + b}$$

formularekin, «*pe zati a gehi be*» frasearen bidez irakurtzen da; ba frase horren
egiazko esannahia

$$\frac{p}{a} + b$$

formula da, eman ditugun erregelen arabera.

Anbiguetatea, erdaraz ere agertzen da, jakina, baina pratikan, ingurumari,
pausu eta abots doinuaren aldaketen bidez kendu ohi da.

Asmakeria eta artikulu guzti horik ez zaizkigu zientifikoak iduritzen inolaz
ere, eta euskaraz beste moduz jokatu behar dugula uste dugu esandakoa baino
garbiagoa izan dadin.

Beraz, eragozpen hau gainditzeko, *ahozko makoak* edo erabiltzea proposa-
tzen dugu.

«Ahozko mako» direlakoak «*has*» eta «*buka*» hitzak izango dira gure jokabidean.

*Formula bat ahoz irakurtzean, «has» eta «buka» hitzen arteka artean da-
goen hitz segida azpifrase egoki bat dela onartuko dugu, makotarako erregela
berdinak errespetatuz gero.*

Ikus dezagun, adibidez, erregela honen arabera nola irakurri behar diren
lehengo F_{II}, F_{III} eta F_{IV} formulak.

F_{II} delako

$$\frac{a+b}{c} + d$$

formula, «*has a gehi be buka zati ze gehi de*» frasearen bidez irakurriko dugu. Erdaraz ere zenbait ingurumari egin behar da irakurtze honetan anbiguetatea kentzeko. Delako «*a más b partido por c más d*» esatea ez da nahiko, eta «*la suma a más b partida por c y todo ello más d*» edo holako zerbait irakurri behar da. Geuk proposatzen dugun irakurtzea hori baino hamaika bider garbiago da, noski.

Halaber, F_{III} delako

$$a + \frac{b}{c+d}$$

formula «*a gehi b zati has ze gehi de buka*» fraseaz irakurriko da, batere anbiguetaterik gabe.

Azkenean,

$$\frac{a+b}{c+d}$$

F_{IV} formulari dagokion frasea, «*has a gehi be buka zati has ze gehi de buka*» frasea izanen da.

Halaber, lehengoan aipatu dugun

$$\frac{b}{\sqrt[c]{a^p}} \times t$$

formula berriz ere aztertzen badugu, formula batzu agertzen dira eta formula bakoitzak bere frase gokia du, batere anbiguetaterik gabe. Adibidez

$$\frac{b}{\sqrt[c]{a^p}} \times t$$

G_I formula,

«*b zati ze erro a ber pe bider te*» irakurtzen da.

$$\sqrt[b/c]{a^p \times t}$$

G_{II} formula

«*has be zati ze buka erro has a ber pe buka bider te*» irakurtzen da.

$$\frac{b}{\sqrt[c]{a^p \times t}}$$

G_{III} formula

«*be zati has ze erro a ber pe bider te*» irakurtzen da.

$$\frac{b}{\sqrt[c]{a^p \times t}}$$

G_{IV} formula

«*be zati ze erro has a ber pe bider te buka*» irakurtzen da.

Etabar, zeren eragiketa beroriekin beste konbinaketa batzuk ere egin bait daitezke.

Beste aldera, baldin «*has be zati ze buka erro a ber has pe bider te buka*» fra-sea ematen bazaigu, berehala aurkitzen da berari dagokion formula. Azpifrase egokiak honako hauk dira, besteak beste.

«*be zati ze*», zeren «*has*» eta «*buka*» hitzen artean dagoelako.

«*pe bider te*», arrazoi berdinagatik.

Beraz, esandako formula honako hau da

$$\sqrt[b/c]{a^p \times t}$$

Ariketa erraz batzu

Formularik korapilotsuenetan sarturik gabe, hona hemen pratikan interes handia duten exenplu batzuk.

Formulak	Fraseak
$\frac{a/b}{c}$	« <i>has a zati be buka zati ze</i> »
$\frac{a}{b/c}$	« <i>has zati has be zati ze buka</i> »
$\frac{a/b}{c/d}$	« <i>has a zati be buka zati has ze zati de buka</i> »

$a^b + c$	«a ber be gehi ze»
a^{b+c}	«a ber has b gehi ze buka»
$a^b \times c$	«a ber be bider ze»
$a^{b \times c}$	«a ber has b bider ze buka»
$\sqrt[a]{b \times c}$	«a erro be bider ze»
$\sqrt[a]{b \times c}$	«a erro has be bider ze buka»
$\sqrt[a]{b + c}$	«a erro has b gehi ze buka»
$\sqrt[a]{b + c}$	«a erro be gehi ze»

Has eta buka dezagun geuk ere.

1876-1976 ehunurteko ilun bat

Anaitasuna, 310 zk., 1976-02-01

Hasi berri den urteon ehunurte triste bat gogoratu behar dugu euskaldunok. Izan ere, Cánovas del Castillo jaunaren gobernuak aintzinako euskal libertate politikoen azkeneko hondarrak 1876. urtean suntsitu zituen. Aitzakitzat edo arrazoitzat, espainol guztiek Estatuaren aurreko eginbehar berdinak izan behar dituztela eman zuen Cánovas-ek, eta, egia esan, espainol gehienak, neurri berdinzale hau, txalotu zutela.

Jakina denez, Foruen historiak hamaika gorabehera izan zuen XIX mendean zehar. Baina Cánovas-ena azkeneko eta erabateko kolpea izan zen.

Ordurarte, Euskal Herria erdi askatasun batean bizi izan zela esan daiteke; bideak, mendiak eta beste herriko lanak, irakaskuntza, herri-diruak, Eliza eta kultuaren arazoak, armada, polizia, etabar, bere eskuan izan zituen.

Gauza batez oharterazi behar dugu, halabaina: denbora hartan Euskal Herria ez zela herri aberats bat, herri pobre bat baizik, askotan, bizi ahal izateko atzerrira jo behar zuena.

Honen ordainez, euskal jendearen gizarte-birtutei esker, Euskal Herriaren gobernu eta administrazioa oso onak ziren, orduko lekuko guztiek —eta Cánovas-ek berak lehenengoa— ematen zuten bezala.

Gero, bere burujabetasuna galduz gero, denbora oso desberdinak ezagutu ditu Euskal Herriak. Ekonomiaren aldetik aurrerapen handiak egin dira. Euskal Herria herri aberats bat bihurtu omen da, eta aberaste honekin batean, arazo berri asko agertu da, hazkuntza modernoaren arazo bereziak, halegia: gizarte-ko estrukturak aldatzea; industrializapena antolatzea, demografi mugimendua mugatzea; hiriko egiturak berritzea; ohitura berriak onhartzea, etab.

Ez da kasu bakarra eta ez da harritzekoa. Beste herriak ere prozesu horretik igaro dira eta bizirik daude oraindik.

Baina Euskal Herriaren kasuan zoritzarrena honako hau da: aldakuntza hori egiteko eta problema pila horri aurpegi emateko, Euskal Herriak ez zituela,

ez esku, ez politikako pertsonalitatea, ez beharrezko medioak ere. Ez zuen bere gisara eta bere jeinu politikoaren arauera jokatzetik izaten. Oinharritzko erabakiak besteren eskuan zeuden eta.

Alienazioaren izena hemen erabiltzea zilegi izango al da?

Kondaira hau ezaguna baino ezagunagoa, jakina. Behin eta berriro bera kondatzea alferren leloa da, besterik ez. Gure gaurko arazoa ez da atzokoa. Bide berriak eta molde berriak aurkitu behar ditugu gaurko euskaldunok, gure denboraren arauera.

Foruen urtea ospatu behar dugu, ez arkeologiazko modu batez, aintzinako gauzak bakarrik aipatuz, baizik eta etorkizuna, gure herriaren etorkizuna, benetan prestatuz. Bi gauzak ez dira elkartezinak. Batak bestea eskatzen du, ordea.

Ona izango litzateke, nire ustez, aurtien irakasleek, idazleek, hizlariak eta beste horrelakoek, Euskal Herria osoan lege zaharren izana eta garrantzia euskaldunei erakustea, nahiz eskoletan, nahiz aldizkarietan, nahiz hitzalditegietan ari izan, jo eta ke.

Beste aldetik, jende ikasiak, politikariak eta lege-jakintsuak, halegia, saiatu beharko lirateke, ikastegi eta mintzategi egokietan, Foruen mamia gaurkotzeko moduak asmatzen.

«Foruen urtea» antola dezagun 1976. urte berri hontan!

Nire ustez garaia ona da euskal libertateen alde aldekoaldi handi bat antolatzeko. Hori da nire pentsaera. Beti bezala irakurleak dauka azken hitza, ordea.

Euskal Unibertsitatea, buruaren kultura bat ala kultura baten burua?

Zeruko Argia, 675 zk., 1976-02-15

Euskal Unibersitateari buruz asko mintzatzen da oraingo honetan. Mintzatu ez ezik, jakina, egin ere asko egin da hogeitaz urteotan. Hiru Unibersitate, Fakultate eta Kolejio batzuek gainera, baditugu Euskal Herrian, aspaldi honetan egindako lanaren ondorioz.

Heidelberg, Oxford eta Princeton unibersitateak bezain onak ez badira ere, hor dauzkagu, bakoitza bere merezi eta akatsekin, hamaikatzeko euskal ikasleri karrera emanaz.

Baina Euskal Unibersitatearen problema beste problema bat omen da. Han hemenka, Euskal Herrian barrena, Espainiako Unibersitatearen itxura bera duten zenbait unibersitate izatea ez da, inolaz ere, Euskal Unibersitatearen soluzioa.

Izanez gero Euskal Unibersitate batek euskalduna izan behar du, burutik burura, nahiz hizkuntzaren aldetik, nahiz mentalitatearen aldetik, izan ala ez izan. «To be or not to be».

Egiazko euskal unibersitate batean irakaskuntza guztia euskaraz egin behar da, ezin uka, eta euskarari berari leku handi bat eman behar zaio, euskara eta euskal literatura euskaraz irakatsiaz. Kultura unibersalaren gaiekin batera euskal kulturaren gai bereziak ere erabili behar dira, euskal mentalitatearen beraren arauera.

Ez esan guzti hori *utopia* bat denik. Eman dezagun asmo hau oraingoz guztiz ezinezkoa dela; honek ez du esan nahi, ordea, utopiakoa izan dadin. Lizeoan hasi ginenean utopia hutsa zela esaten zuten ukakor batzuek, eta gauza bera gertatu zen Z. A. ren haseretan. Gaur utopia dirudiena bihar errealitate bihurtuko da, hortarako behar diren langile argi eta trebeak arkitzen baldin badira. («Elhuyar» taldea lekuko).

Esan ere, beste gauza bat esan behar dugu gainera, Euskal Unibersitatearen problemari beste saihesta batetik begiratu.

Euskal Unibersitate batek, Euskal Herriak behar dituen gizarteko gidariak hazi behar ditu. Ez bakarrik abokatak, medikuak eta intelektualak, langille kulturadunak ere bai, lanaren zibilizazio batek eskatzen duen bezala.

Eskuzko kultura mespretxatzen zuen Unibersitate klasikoaren platonismo absurdua erabat kanporatuz, Euskal Herri guztiaren kultura iriki baten zerbitzutan izan beharko litzateke Euskal Unibersitatea, eta ez bakarrik aristokrazia intelektuala edo buruzko kultura baten zerbitzutan.

Hau da, jaun andreok, nere iritzi apalez, gaurko euskaltzaleok biharko egunerako prestatu behar duguna.

Ez buruaren kultura bat, baizik euskal kulturaren burua.

Autonomia eta paktoa

Zeruko Argia, 679 zk., 1976-03-14

Ni ez nintzen izan, ez Lintzirinen, ez Ibaetan, ez Eibarko Astelenan, ez Sarriko delakoan. Beraz han egin ziren perpausak ez nituen entzun, eta omenka dakit, besterik ez, horien berri.

Halere, hemengo astekari zerutar honetan bertan irakurri dudanez, aipatutako bileretan hizlariren batek deszentralizazio eta autodeterminazio konzeptuak nahastu egiten omen zituen.

Nahaste hau ez da gaurkoa. Lehengo mendearen azkenekotan eskatima bat izan zen, hain zuzen ere, orduko federalisten artean. Batzuek «autonomia eta paktoa» defendatzen zuten, federalismoaren mamitzat. Besteek, berriz, «autonomia» besterik ez zuten defendatu.

Zer esan nahi zuten alegizko hitz hauek? Autonomia zelakoak deszentralizazioa esan nahi zuten, besteak beste, eta pakto zelakoak, egun autodeterminazioa deitzen duguna adiarazten zuten.

Pi i Margall jaunak lehenengo jarrera hartzen zuen, jakina, eta besteei, hau da, paktorik gabeko federalistei «*débiles federales*» izena ezartzen zien, zeren, berak esan ohi zuenez, paktorik gabe ez baitago egiazko federalismorik.

«*Fuera del Pakto se puede ser descentralizador, pero no federal*» idazten zuten, idatzi ere, bere. «*Las Nacionalidades*» liburuan. Hitz hauk oso argiak iduritzen zaizkit eta oraindik gure egunotan balio dutela esan daiteke. Hori da Forua, *pakto bat* eta ez besterik.

Pi i Margallek egiazko federalismo eredutzat Euskal Herria jartzen zuen, hain zuzen ere, «*Las Provincias Vascongadas razonan mejor que esos débiles federales. Comprenden que si confiesan deber sus Fueros al Estado conceden al Estado el derecho de quitárselos*».

Gaur egunean federalismo hitza aho guztietan omen dago. Baina oraindik federalismoaren mamia ulertu ere ulertu ez duen federalista makal asko dagoela dirudi.

Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez dira bat

Zeruko Argia, 708 zk., 1976-10-17

Bi eginkizun diferente dago uste dudanez, gure Unibersitatearen alorrean. Batari «Euskal Unibersitatea» dei lekiok; besteari, berriz, «Euskal Herriko Unibersitatea» izena emango nioke nik, bion arteko desberdintasuna ongi azaltzeko.

Honekin ez dut esan nahi, inolaz ere, bi eginkizun horik elkarkontrakoak direnik. Bidea ez da, nere iritziz, bata *ala* bestea egitea, bata *eta* bestea egitea, baizik, biak erabat egin behar direlako.

Baldin «ez-euklideko» geometriaren hizkuntzaz baliatzen uzten bazait —non paralelak elkartzen baitira— nik bi bide horik *paralelak* direla esango nuke.

Halere, bi bideak, azken fina, helburu bakar batera jotzen badute ere, gure herriaren kultura hazi eta ugaritzea, alegia, bakoitzak bere eginkizun bereziari jarraitu behar dio, oraingoz behintzat.

Euskal Herrian dauden eta egongo diren unibersitate eta sasi-unibersitateen multzoari «Euskal Herriko Unibersitatea» izena emango diogu. Aldiz, uste honek utopia itxura badu ere, nere terminologiaz «Euskal Unibersitatea» euskal kultura eta hizkuntzaren «alma mater» izan beharko litzatekeen euskerazko unibersitatea da.

Bat nator, esan beharrik ez, Mitxelena jaunak «Punto y Hora» aldizkariaren 11. zenbakian esandakoaz. Zor zaigu, Unibertsitate ofiziala, berari dagozkion barrutiek, eta ez nolana hiko unibertsitatea gainera, baizik medio guztiez hornitutako unibertsitate modernu bat edo batzuk.

Estatuaren Unibertsitatea ez da gure herrirako gaitz bat izango, on handi bat baizik, eta *gurea* izanen da unibertsitate hau, geuretzakotzen jakingo dugun neurrian berean hain zuzen. Baina, geuretzakotze hori erdiesteko, beharrezkoa izango da, gure irakasle gazte askoren Estatuaren zerbitzurako gogotzarra eta eznahia lehenbizi gainditzea. Besteak beste, gure gazteriaren aspaldiko joera honek ez omen du ondore onik izan gure herriaren bizitzarako.

Unibertsitate pribatu batzuen interesak defendatzeko, gazteria Unibertsitate ofizialetik urrundu nahi izatea, ez dela joku garbia izaten ere garbia da.

Beste kontu bat da, ordea, «Euskal Unibertsitate» delakoari dagokiona.

Aipatutako artikuluan «gure gizartearen emasabelean jaioa eta gure gizarteari josia, ingurukoak eta ez hain ingurukoak ez bezala zikin mantxarik» gabeko iduripenezko unibersitate batez mintzatzen da. Antzinako jarrera jakin bat parragarritu nahi izatekotan ongi da, baina nik ez dut uste gaurko egunean inork holako izugarrikeria sostengatzen duenik. Dena den, nik artikulua honetan «Euskal Unibertsitate» deitu diodanari, deskripzio hori ez dagokiola esan behar dut.

Ordea aipatuko «alma mater» delakoa, euskal kultura eta hizkuntzaren burua izango litzatekeen euskerazko unibersitatea, alegia, utopia huts bat ez ote da?

Hau da, nonbait, guztiok sumatzen duguna, nahiko federik ez dugu eta.

Inork ez ahal daki, oraingoz, utopia den ala ez. Euskal Herrian orain gertatzen ari den gauza asko utopiatzat hartuko zukeen Unamuno handiak. Eta mundu honetan egin diren gauzarik gehienak utopiatzat hartuak izan dira aurretik.

Nik beste hitz bat erabiliko nuke kasu honetan, «ukoopia» hitza, Henri Desroche pentsalariak asmatutako. Ukoopia, erdizka bada ere behin edo behin eginkatzen hasi den utopia bat da. Fourierismo zelakoa eta Israel Legerria, orain errealitatea bihurtu dena, ukoopia exenplo klasikoak ditugu.

Beraz, Euskal Unibersitatea ukoopia bat dela esan dezakegu, bera, nolabait ere, eginkatzen hasi delako. Uztarizko kaos txikia, esate baterako, zer da Euskal Unibersitatearen entsaio edo hastapen bat baizik?

Holako lana ez omen da inolako instituzio ofizialen bidez abiatuko, oraingoz behintzat. Bide luze horri jarraitzeko euskaldun kulturadun berek euskal hizkuntza landu eta leundu behar dute, gero eta gehiago, bera unibersitateko mailara heldu arte. Hor duzue «Elhuyar» taldea egiten ari den lan izugarria. Hori eta hori bezalako amaika lan da, gaurko Euskal Unibersitatea edo honen hazia eta hastapena izan litekeena.

Ortega y Gasset jaunak bere «Misión de la Universidad» hitzaldi famatuan Unibertsitatearen lehengo egitekoa kultura iraun eta jarrai araztea dela esan zuen.

«Euskal Herriko Unibertsitatea» da, hain zuzen ere, kultura orokorraren aldetik, lan hori gure herrian egingo duena. Nonbait erderaz egingo du.

Euskal kultura eta euskerari dagokiona erderaz ere egin nahi izateari kontradizio bat deritzat. Euskera diglosiaren purgatoriotik libratu nahi badugu,

«Euskal Unibersitate» bat, edo zerbait holakorik, antolatu behar dugu nahi eta nahiez.

Noiz nola egingo da, zerbait hori? Hori da nere kezka. Benetan «Euskal Unibersitatea» lortzea zailagoa dirudi, «Euskal Herriko Unibersitatea» baino.

Bi lanak, bi bideak, paralelak direla esan dut lehen, eta berriz ere esaten dut. Baina komeni omen zen, hala eta guztiz ere, bi gauzak bereiztea, gero berriro elkartzeko. «Elkartzeko, berezi» Maritain jaunak esan ohi zuen bezala.

Unibertsitateko kulturaz

Jakin, 1 zk., 1977

Asko mintzaten da, egungo egunean, Euskal Unibertsitate delakoari buruz. Baina, zer da Euskal Unibertsitatea?

Euskaldun askorentzat, Euskal Unibertsitatea, Euskal Herrian dagoen unibertsitatea da.

Niretzat, berriz, Euskal Herrian egotea ez da nahikoa. Nire ustez, egote huts horrek ez du zilegi Euskal Unibertsitate izena erabiltzea. Terminologia egoki batetan, holako unibertsitateari «Euskal Herriko Unibertsitate» izena edo, nire adiskide batek txantxetan esan ohi duen bezala, «Euskal Herriango Unibertsitate» izena eman beharko litzaioke.

Nahiz eta «Euskal Herriko Unibertsitatea» gure herriaren etorkizunerako oso onuratsua izan (hau ez du inork ukatzen, gauzak alde praktikotik hartuz gero behintzat), hori Euskal Unibertsitatea ez dela *opportune et importune* esango dut nik, izen truke horretan arrisku handia ikusten bait du.

Bi kontzeptu horien arteko desberdintasuna azaltzen saiatuko naiz artikulutxo honetan.

Gaia behar den bezala erakusteko, nolannahiko unibertsitatearen xedeak zeintzu diren jakin behar da lehenik.

Hortaz, ordutik honera hamaika aldaketa izan bada ere, baliioduna omen da oraindik Ortega y Gasset jauna 1931. urtean egindako proposamendua. Proposamendu honen arauera, hiru dira unibertsitatearen helburuak.

Lehenengoa: kulturaren mandatua gizaldi berrietara helaraztea.

Bigarrena: gizarteak behar dituen goi mailako profesionalak eskolatu eta titulatzea.

Hirugarrena: zientzi bilakuntzarako ikertzaile berriak edukatu eta trebetzea.

Beraz, Euskal Unibertsitatearen helbururik nagusia, kulturaren mandatua euskal gizaldi berrietara helaraztea dela onartuko dugu. Baina zer nolako kultur mandatua? Hontaz da gure kezka.

Jakina denez, kulturaren definizio eta mugatze asko utzi digu Maisuak bere entsegu jorietan zehar.

«Cultura es labor; hacer cosas humanas»... «Cultura es creación de pasiones nuevas y de ideas nuevas»... «Cultura es pasión de sí mismo»... «Cultura es repertorio de convicciones íntimas». «Sistema de ideas vivas». «Catálogo de actitudes ante la vida»... «Cultura es ansia de permanecer»... «Cultura es resolución de contradicciones». «Cultura es aparato de facilidades frente a la existencia»... «Cultura es agitar los brazos ante la propia perdición»...

Eta abar, eta abar; aipatzen ez genuke sekula bukatuko.

Berehala ikusten denez, kulturari buruzko Ortegaren pentsaera guztiz gainditurik dago, gaurko egunean. Arras atzeraturik gelditu dela esan daiteke, haren kontzeptuak, gure gaurko sozial mentalitateetik urruti dagoen intelektual-individualismo batetara makurtzen bait dira.

Ortega liberal handi bat zen, eta haren pentsaera orduko Espainiako ideologia liberalari loturik zegoen. Pentsaera horren individualismoaz konturatzeko, nahikoa da aipatu ditugun fraseak berrirakurtzea. Gaurko egunean, ordea, kulturarekiko kontzeptuek sozialak izan behar dute, ala ez dira izan.

Dena den, Ortegak ez gaitu zalantzatik ateratzen; hau da, ez digu argi eta garbi esaten, unibertsitateak belaun berriei eraman behar dien kultur mandatu hori zertan datzan edo zertan etzan beharko lukeen.

Bi aldetatik ikusten dut nik unibertsitateko kultura. Alde batetik, kultura orokor bezala. Bestaldetik, kultura herritar bezala.

Humanitate osoak, mendez mende, belaunik belaun, bildu duen esperientzia eta jakintza guztia deitzen dugu kultura orokorra. Zientzia, ederti eta teknika guztien multzo hori ez da herri jakin baten etorkia, Gizadi osoarena baizik.

Kultura berezia, haatik, herri jakin baten kultura da. Haren hizkuntza, haren bizi-moldeak, haren ohiturak eta usteak. Herri honek munduaz eta biziaz duen interpretazio berezia.

Ez uste izan, ordea, kultura berezi bat kultura orokorraren zati bat denik. Gai honetaz, sujetu-objetu dialektika famatua sartzan da, nonbait, nolanhiko kultura bi aldeetatik ikus daiteke eta.

Kultura unibertsalak kanpotik ikusi behar du, nahi eta nahiez, herri jakin baten errealitatea: objektu bezala, alegia.

Haatik, herri horren kultura bereziak barnetik bezala ikusten du errealitate hori berori, hori ezagutzea bere burua ezagutzea duenez gero.

Har dezagun, esate baterako, edozein hizkuntzaren exenplua. Inork ez du ukatuko, hizkuntza hori kultura unibertsalaren ezagutza-objetua denik. Jakintza orokorrak hamaika gauza esango digu hizkuntza horri buruz, bai linguistikaren aldetik, bai soziologiaren aldetik, eta abar; baina beti kanpotik, azaletik, lekoretik.

Aldiz, hizkuntza horri dagokion kultura bereziaren aldean, oso beste gauza bat da, hizkuntza kultura horren osatzaile esentziala denez gero.

Nola hizkuntza pentsaeraren erreminta nagusia den, hizkuntza ez da ezagutzaren objektu huts bat; aitzitik ezagutzaren sujetua ere bada.

Adibidez, Salamanca edo Tokioko unibertsitateetan irakats daiteke euskarra, beste nolanhiko hizkuntza bat bezala, hots, kultura unibertsalaren ezagutza bat bezala. Baina ezagutza hau ez da sekula Amezketa bertsolariak duen euskararen ezagutza bera izango, zeren, bertsolari horren kasuan, ezagutzailea gutiz murgildurik bait dago bere ezagutzaren objektuan bertan.

(Oroitaraz dezagun Gabriel Marcel pentsalariak agertutako *problème* eta *mystère* kontzeptuen arteko berezitasuna. Terminologia honen arauera, misterioaren kasuan ezagutzailea misterioan bertan sarturik dago; ez, ordea, problemaren kasuan).

Beraz, kultura unibertsala eta herri baten kultura bereziaren arteko diferentzia ez datza kantitatean; zerbait esentziala da.

Kultura unibertsalak ez du inoiz kultura berezi bat ordainkatuko. Historiaren Erroma ez da sekula erromatarrek bizi izan zuten Erroma bera izango. Antropologoen deskribatzen duten kultura papua ez da sekula papua herriak bizi egiten duen kultura bera izango, indijenarentzat kultura hori biziaren muina bait da.

Espainiako intelektual gehienek ez dute honelako berezitasunen beharrik sentitzen —hau da, hain zuzen ere, Ortega y Gasset jaunari gertatzen zitzaiona—; horientzat bi gauzak —kultura unibertsala eta kultura espainola, alegia— bat bera dira eta. Horiek, espainolek, ez dute problemarik izaten, kultura unibertsala espainolez ikasten dutenez gero. Baina euskaldun jator batek euskal kultura, euskal literatura, euskal pentsaera espainolez ikasi behar izatea, *contradictio in terminis* iduritzen zaigu. Honelako gertaera, trajeria kultural bat dela esan daiteke, nahiz eta euskaldun asko hortaz konturatu ez.

Hau da gure diglosia delakoaren egiazko trajeria. Eta gure herria ez da horik aterako, egiazko euskal unibertsitate bat ukan arte.

Irakurle argi eta zorrotzak erraz ulertuko du zeinen diferentzia handia dagoen, Euskal Herriko unibertsitatea eta euskal unibertsitatea direlakoan artean.

Lehenengoak, kultura unibertsala emango dio gure herriari, erdaraz bada ere. Alde horretarik, guztiz beharrezkoa dugu gaurregun eta —euskara dagoeneko egoeran— luzaro ere ukanen dugu beharrezko. Etor bedi, beraz, lehenbaitlehen, Euskal Herriko Unibertsitatea, unibertsitate ona, modernua eta ongi antolatua izatekotan.

Baina, esan berri dugun bezala, euskal kultura diglosiazko egoeratik ateratzeko, euskal unibertsitate bat behar dugu, euskal kultura euskaraz irakats dezana eta haren *alma mater* izan dadina. Beste arazo bat da hau ere, eta garrantzi handikoa.

Ez dezagun ahantz, mesedez.

«Eusko Ikaskuntza» eta matematika zientzia

Eusko Ikaskuntza. Batzarre Nagusia 1978 / Sociedad de Estudios Vascos. Asamblea General 1978, 1979

Eusko Ikaskuntzak bere sortzetik hogeitamasei urteraino Matematikaren sailean egindako lana urri eta eskasa izan zela ezagutu behar dugu.

Euskalerrian bertan ere matematika zientzia ez da inoiz oso landurik izan, injenieritza eta arkitekturaren arloan izan ezik, matematika aplikatuen arloan, alegia.

Kontulari, ekonomista, injinadore eta etxegintzalari nahiko izan dugu, matematika utsaren ikasle eta ikertzaile oso gutxi, ordea.

Euskaldunok, matematika, alde praktikotik hartu dugu beraz, eta ez ikerkuntzarako alor bezala.

Zientziarekiko Eusko Ikaskuntzaren ikerpenak zientzia naturala eta etnologiaren sailean izan omen dira gehienez.

Hala eta guztiz ere, Eusko Ikaskuntzaren ekintza garrantzidun bat oroarazi nahi dizuet, alegia, Donostiako «Centro de Estudios Científicos» zelakoaren fundazioa, mila ta bederatzireun hogeitamahiru urtean egindakoa.

Aldi hartan, Joxe Oñate Katedratikoak ete biok, ikerketa matematiko batzutan sarturik geuden, lojika matematika, jeometria projektiba eta topolojiari buruzko.

Aleginak egiten genituen zenbait aurkitze lortzeko, baina bakardadetasun honetan matematikazko liburu eta aldizkari berezirik gabe etabar ez zen posible ezer egitea.

Halako batetan nere maisua zen Rey Pastor matematikari jakintsuak holako zerbait esan zidan: «bide horretik ez duzue ezer egingo, Mediterraneoak aurkitzea baizik».

Mediterraneoak, hau da, gauza jakinak eta ezagunak berriz ere aurkitu, ez egiatzko asmaketak egin. «Beste moduz jokatu behar duzue», esan zidan, eta segidan galdera hau egin zidan: «Euskalerrian zein da kultura eta irakaskuntzarako instituziorik nabarmenena?».

Eta nik, «zalantza gabe Eusko Ikaskuntza da alde horretik aurrena eta nabarmenean».

«Orduan neuk eskutitz bat egingo diot Eusko Ikaskuntzari elkarte horrek matematika ikerkuntzaren alde zerbait egin dezan».

Eta hala izan zen, karta eder bat egin zion Rey Pastor jakintsuak Eusko Ikaskuntzari, matematika ikerkuntzarako zentro berezi bat sortzeko eskatuz.

Eusko Ikaskuntzak Rey Pastor jaunaren ustea onartu zuen eta hala jaio zen Donostiako «Centro de Estudios Superiores» deitu zena.

Instituzio berri honek hiru sail izaten zituen: Matematika, Fisika eta Kimika, alegia.

Matematika sailak aldizkari berezi bat argitaratzen hasi zen berehala, goiko mailako eskoletan proposatzen ziren problemak agertu eta erabiltzen zituena.

Aldizkari hau, nahiz eta apala izan, Estatu guztian zabaltzen zen. Holako moduzkoa, hau da, matematikako problemak agertu eta erabiltzeko aldizkari berezia bezela, lehenengoa izan zen Espainako Estatu guztian.

Gero beste bi agertu ziren Madrilen bertan, baina urte batzuk buru biak hil ziren eta orain mota hontako batere publikaziorik ez dago Estatu guztian.

Ba liteke geuk orain antzinako lanari berari berriz ere ekitea, problemaren teknikak matematika ikertzaileen formaziorako bere garrantzia galdu ez duelako. *Gure aldizkariaren gaiatzat problemaren teknika zergatik hartu genuen gero erakutsiko dugu, hain zuzen ere, puntu horrek axola duelako.*

Aipatu ditugun garaiatik urte asko igaro da noski eta nahiko euri egin du matematikaren alorrean.

Are gehiago; ordutik matematika berri bat sortu den, esan ditekete. Matematika berri honen helburuak aintzinakoen aldean guztiz diferenteak direla esan daitekete ere.

Bachelard jaunak, zientzia, jauzika edo saltoka gehitzen den frogatu du.

Zientziaren arloan, edo zientziazko ezaguntzaren arloan, jauzi epistemologiakoak egiten diren dio Bachelardek, zientziaren horizontea guztiz aldatzen dutenak.

Ezaguntzaren horizonte bakoitzari «episteme» izena ematen zaio gaurko egunean eta episteme bakoitza ezaguntzaren agertoki berri bat den esan daitekete ere.

Beraz, benetako berriak dira jauzi hoi bakoitzean agertzen diren zientziak.

Esate baterako, gaurko Fisika ez da antzinako Fisikaren atal berri bat izaten, baizik egiazko zientzi berri bat helburu eta kontzeptu berriak erabiltzen dituena.

Jauzi epistemologico bat izan da, Fisika eta ezik, Fisikaren epistemea ere aldatu dela esan behar da. Eta gauza bera esan daiteke Matematikari buruz, gero ikusiko dugunez.

Bachelard jaunak «masa» kontzeptua hartzen du exenplotzat.

«Masa hitzak zer esan nahi du?».

Galdera honek ez du erantzun bakar bat onartzen, ez bait dago Fisika sailean masaren kontzeptu orokor bat. Fisika bakoitzak masaren kontzeptu berezi bat erabiltzen du hain zuzen ere.

Mekanikaren arloan, masa hitzak toki nabarmen daukanik inork ez du ukatuko, baina hitz hori mugatzea ez da posible esanahi bakar batez behintzat, episteme bakoitzean masaren definizio desberdin bat eman delako.

Izan ere, bost episteme berezi daiteke Fisika sailean.

Lehenengoa «réalisme naïf» edo errealismo arrunta da. Episteme honetan masa delakoa materia kopurua da, besterik ez. Meta, pila, mukuilu etabar da episteme honetaz masa hitzak hartzen duen esanahia.

Errealismo enpirikoak ordea, masa neurritzen du balantzaren bidez. Alde honetik masa pisuduna kontzeptua sartzen da. Kontzeptu hau grekoen epistemeari dagokio.

Galileo, Newton eta abarrak, masaren kontzeptua dinamika eta mugimendukin lotzen dute. Honen arauaz, gorputz bakoitzak masa fijo bat dauka, masa dinamikoa deitzen duguna, indar eta abiaduraren bidez definitzen dena.

Einstein eta errelatibismoaren epistemeaz gorputz baten masa ez da magnitude fijo bat izanen baizik magnitude mugikor bat. Episteme honetaz masa zer-bait erlatiboa da, beraz.

Azkenik, Dirac jaunaren kalkulu berriaz, masa negatiboak agertzen dira, berritasun izugarri bat dena orain arteko Fisikaren aldean. Masa, errealitate dialektiko bat bihurtzen da bostgarren episteme honetan, razionalismo dialektikoaren epistemea deitzen duguna.

Exemplo honek frogatzen duenez Dirac jaunaren Mekanika benetako berria da lehengo mekanikaren kontzeptu oinarritzkoen esanahia orokor aldatzen duelako.

Fisikatik Matematikara igarotzen bagara gauza bera esan dezakegu. Fisikaz esan duguna Matematikari buruz esan genezake ere.

Egon ere ez dago matematika bakar bat episteme matematikoen segida bat baizik.

Zenbakia zer da? Gezurra badirudi ere galdera honek ez du erantzunik izaten zeren zenbaki kontzeptu orokor bat ez dagolako.

Matematikari bilakatzean zenbaki mota berri bat sartu du episteme bakoitzak. Aldakuntza hau saltoka edo jauzika egin da.

Adibidez, zenbaki erreala berritasun oso bat da zenbaki arrazionalaren aldean, batetik bestera igarotzeko jauzi epistemologiko bat egin denez gero.

Grekoen zenbaki kontzeptua kontatze eta neurritzetik ateratzen zen. Errealitate absolutu eta erdisakratua zen zenbakia, grekoen pentsaeraz.

Guretat ordea, erreminta guztiz konbenzionala da gure kalkuluaren beharretara egokitu dezakeguna.

Adibidez, gaurko zenbaki hyperkonplexoek ez dute zer ikusirik zenbaki naturalaren kontzeptu primitiboakin.

Areago: gaurko matematika berriaren helbururik aurrena ez da zenbakia, ez kantitatea, ez kontatzea, ez neurritzea, baizik ezagutza zientifikoa formalizatzea eredu matematikoen bidez.

Hemen dago, nere ustez, gaurko matematikaren egiazko berritasuna.

Berrogei urte dela Matematikaren aplikazioak ekonomia eta injenieritza ziren, lehen esan degunez. Gaurko egunean berriz, soziologia, psikologia, logika, biologia, hizkuntzalaritza, politikologia, zuzenbidea eta abarretan sartu da matematika.

Gero ta gehiago ezagutzaren *matematikatze* baten aurrean gaudela esan daiteke.

Horizonte berri honetan egiazko matematika nun dagoen jakitea zail xamar dirudi. Esate baterako, logistika edo logika formala, matematika al da ala ez?

Logistikaren helburua arrazoinamenduaren egitura azaltzea da eta bide honetik arrazoinamendu bera formalizatzea edo matematikatzea.

Alde honetik logistika matematika bat den esan daiteke, zalantzarik gabe. Izatez, logistikaren asmatzaile eta *bultzazaile* gehiena matematikariak izan dira.

Gauza bera esango dugu agertu berri den matematikaren adar berriaz, norma edo arauen kalkulua deitzen dena, gai juridikoak ordenadorean sartzea uzten duena.

Normen kalkulua matematikaren zati bat da ala zientzi juridiko bat?

Hibrido bat dela esango nuke nik. Bere helburua juridikoa da baina bere helbidea matematikazkoa denik inork ez du ukatuko.

Matematika hizkuntza bat deneko ideia oso arrunta da gure egunotan. Orain arte C.O.U. delako ikastaroan bertan ere «Lenguaje matemático» deitzen zen ikasarlo bat ikasten zen, edo ikasi behar.

Matematika hizkuntzat hartzen da beraz.

Baina hizkuntza honek gauza asko gehiago esaten du gaur, berrogei urte den baino.

Burutasun hauetatik abiatuz, bihur gaitezen orain Eusko Ikaskuntzaren eginkizunara.

Hasieran esan degun bezala matematika utsaren ikerkuntzak ez du inoiz *arrakastarik* izan Euskalerrian.

Ordea, matematika berria oso pragmatikoa bilakatu da. Alde honetik oso erazkoa omen da matematika berri hori euskal pragmatismora egokitzeko. Matematika utsak eta matematika pratikoak hurbildu egin omen dute.

Hori dela eta baliteke orain euskaldunek matematika aditasun handiagoz begiratzea.

Behar bada ordenadorea da urbiltze eta pragmatizatze horren eragilerik handiena. Ordenadoreak matematikaren aurpegia guztiz aldatu duen esango nuke nik.

Exemplo bat. Nere denboratan matematika doktoradutzan «Mecánica celeste» deitzen zen ikasalar bat ikasten zen.

Ikasalar honen gai nagusia *n gorputzetako* problema famatua izan ohi zen. Espazioan «n» astro botatzen badituzue nola mugituko dira astro horik Newton legeen arauaz.

Hau da, izan ere, «n» gorputzetako problemaren adierazburua.

Ekuazio diferentzaleen bidez erabiltzen genuen problema hori «Mecánica celeste» kurtsoan. Kalkulu ikaragarri bat zen eta guztiz korapilotsua eta luzea.

Baina txarrena zen problema horrek, bi gorputzen kaso kanpo, soluzio exaktorik ez izatea.

Gaurko egunean berriz «n» gorputzetako problema ordenadoreen bidez erabiltzen da eta behar diren kalkuluak errez eta laster egiten dira.

Bestela, nola izango zen posible satelite artifizialen birabideak kalkulatzeko?

Exemplo honetan, ordenadoreak nolako moduz zientziaren baloreak eta bi-deak aldatzen ditun ikusten da.

Matematika berri hau modeloen matematika egituren matematika, ordenadoreen matematika da. Eusko Ikaskuntzak bere urrengo etapaz begien aurrean izan behar duena.

Holako sailetan ikertzaile gazte eta trebe asko izan beharko du Euskalerrriak.

Badakigu ikertzaileen hezketa Unibertsitatearen eginkizun berezia den. Baina biharko egunean Eusko Ikaskuntza eta Eusko Unibertsitatea bat jokatu duten ustean nago.

Nere ustez Bilboko Matematika Fakultatearen laguntzakin kontatuz gero lan matematiko ederra egin liteke Eusko Ikaskuntzan, zientzia Fisiko matematikoen sailean.

Badugu Euskalerrrian talde matematiko merezidun batzuk. Elhuyar taldea, Uzei taldea eta Udako Euskal Unibertsitatearen taldea besteen artean aipatu behar ditugu hemen.

Uts bat ikusten dut nik, ordea, matematikazko arazoan.

Kasu askotan talde hoiien helburu nagusia ez da matematika bera, baizik euskara eta euskarazko pedagogia. Lan hau guztiz garrantzizkoa den inork uka dezake.

Euskara, Kultura eta irakaskuntzaren alor guztietan sartu behar da, bai eta matematikaren alorrean ere.

Matematika irakasteko euskara gauza den frogatzea nahi eta nahiezkoa dugu.

Aipatu ditudan taldeak bide honetik abiatu dira eta orain arte egin duten lana oso ona da.

Hala ere matematika bere erabiltzea eta alor honetan ikertzaile batzu hezitzea beste problema bat da luzamendurik onartzen ez duena. Bi eginkizun diferenteak dira eta bata ez du bestea kentzen.

Nere ustez, nahiz eta kasu askotan lan hau erderaz egin behar mintegi matematiko bat eratu beharko luke, gure herrian matematikazko ikerkuntza bultzatzeko.

Eusko Ikaskuntzak bi lanak batera eramango lituzke. Alde batetik euskara matematika sailean sartzeko lana eta bestaldetik matematika bera erabiltzeko lana.

Beraz, Matematika ikerkuntzari ekitea da bigarren eginkizunaren xedea.

Nola konponduko gara ikasle gazteak matematika ikerkuntza arlora ekartzeko?

Honetaz gauza bat kontuan izan behar dugu: alegia, ikaskuntzaren teknika ez den ikasten ikertze berari ekitean baizik.

Hau, «círculo vicioso» baten itxura omen du. Ikerkuntzak ikertzaileak behar ditu baina ikertzaileak ez dira hezten ikerkuntzan bertan baizik.

Korapilo hori desegiteko, Ramón y Cajal jaunak ikertzaile mutilei emandako kontseju batez oroitzen naiz: «*gauza ezagun bat ikasten ari zaretenean, gauza hori ezezagutuzat hartu, aurkitze berri bat egiten ariko zinatez bezala. Alegia, aurkituta izan dena berriz ere aurkitu*».

Modu honetaz, ikaskuntza ikerkuntza bihurtzen da, ikaslearen ikuspuntu-tik behintzat.

Hemen dago, egon ere, problemen garrantzia, problema hitza esanahi labur eta hestu batez ez hartzekotan. Problema ikerpen txiki bat da edo izan behar luke.

Eta hau izan liteke gaurko egunean problemen aldizkari baten helburua. Holako aldizkarian ikasleek gai ezagunak berriz ere aurkitu eta asmatzeko garaia izan lezake.

Hau, Mediterraneoak aurkitzea besterik ez denik ez dugu ukatuko, baina gaur Mediterraneoak aurkitzen dituen ikasle gaztea biharko egunean egiazko ozeano berriak aurkitzea posible izango litzake...

Proposamendu konkretu hau egiten diot nik Eusko Ikaskuntzari: *Matematika berrien koadroan, Matematikazko problema eta ikerpen txikien aldizkari bat berriz ere argitaratzea, aipatu dudan lehengo saioa berrabiatu*rik.

Euskera eta prentsa

Egin, 1979-09-29

Ez dezagun amets egin!

Beste kultur sail askotan gertatzen den bezela, euskal kazetaritzaren alorrean ere, ia guztia eginkizuna dago oraindik.

Berriro esango dugu, ez diezaiegun gure buruoi engaina egin, zeren une gorri honetan, gure hizkuntzaren tragediari aurrez aurre begiratu behar diogulako.

Alper da euskeraren aldeko «slogan» izugarriak botatzea, batez ere ez bagara gauza euskararen beharrei erantzun praktiko bat emateko.

Batzuk euskal prentsari buruz mintzatzen dira maiz, gauza inportante bat izango zen bezela.

Zoritxarrez, euskal prentsa, alegia, bakarrik euskeraz egindakoa, oso eskasa eta motza da. Euskal irratia eta telebista beste gauza da edo izan daiteke. Prentsa, ordea, hori baino zailagoa iduritzen zait.

Egia da guztiz euskeraz idatzitako astekari batzuk ditugula, «Zeruko Argia», «Herria», «Anaitasuna» eta abar, bezalako.

Baina astekaria eta egunkaria gauza diferenteak dira, dudarik gabe.

Egunkari bat herri baten eguneko azalpena izan behar da. Egunkariak, herriaren bizitza erakutsi behar du, egunez egun.

Egunkari batean euskerak toki egokirik ez badu, ez al da izango euskarak berak egunkariaren irakurleen bizitzean tokirik ez duelako?

Euskadiko egunkari askotan euskarari txoko txiki bat ematen zaio.

Euskara utsaz egindako egunkari batere ez daukagu ordea.

Are gehiago, ez dakigu holako egunkari noiz nolako aterako ahal den.

Hala ere, egiazko euskal egunkari batzuk lortu arte, desdiglosiaren bidean ezer ez dugula egin esan daiteke.

Egunkaria da, hain zuzen, gaurko euskara diglosiko eta flakatuarentzako demarik handiena eta beharrezkoena.

Badugu orain euskal kazetari argi eta trebe asko, bere prestakuntza sobera frogatuta duena. Egiazko problema ez dator horretik baizik irakurle faltagatik.

Bai eta diru faltagatik ere. Baina dirua berehala agertuko litzateke nahiko irakurle izanez gero.

Nere ustez euskal prentsaren egiazko problema gure herriaren kultura eskastasunean dago, besteak beste.

Lau euskaldunetik batek bakarrik dauka euskaraz irakurtzeko behar den erreztasuna.

Beraz prentsa eta eskolaren problemak guztiz loturik daude elkarrekin. Euskal prentsa eta euskal eskola batera hazi behar dira.

Ohar araz dezagun egiazko egunkaria artikulua eta entsaioak egitean ez dagon, baizik berri bizi biziak ematean.

Eta azkar eman gainera, zeren gaurkoaren berria bihar goizean kondaira zaharra bihurtzen bait da.

Bestaldetik euskal egunkarian erabiltzen den hizkuntza, guztiz arin, argi eta jator izan behar da. Adibidez, albisteen tituluak eta fotoen oinak jartzea, arte berezi bat da, egunkari honetan bertan maiz ikusten den bezela. Hitz laburrak, argiak, mamitsuak eta ongi aukeratuak...

Egunkariak literatur mota berezi bat eskatzen du berez.

Batzuek egunkarien kontra daude, egunkariak, berek diotenez, pakea kentzen dielako. Hau gauza berria ez da. Ehun eta berrogei urte dela honoko hau idazten zuen Baudelaire idazle frantsezak:

«Edozein egunkaria burutik burura higuigarri mordo bat da... Gudak, lapurketak, sarrasketak, torturak, erregeek egindako hilketak, nazioek egindako hilketak, partikularrek egindako hilketak... Mundu guzietako mozkor ikaragarri bat! Eta hau da goiz guzti oro gizon zibilizatuari laguntzen dion gosaria!».

Beste frantsez batek, Henry de Montherlant idazleak, erremedio bat proposatzen zuen gaitz honen kontrako: egunkariak sei asteko atzerapenez irakurtzea, alegia.


Baina burgeskeria utza da gizartearen kanpoan egon nahi izatea. Nahi eta nahiez dugu gure inguruko gertaerei arpegiz arpegi begiratzea.

Egiazko herri zibilizatu batean garen erakutsi nahi badugu, Euskal Gizartearen martxa bultzatu nahi badugu, euskal egunkariaren konbatea irabazi behar dugu euskaldunok. Bi konbate batera: euskal egunkaria eta euskal eskola.

Bi konbate hoik irabazteko kapableak garela frogatu arte, burua jasotzeko ere ez dugu deretxorik izango.



III. 1980tik aurrera



FELAPTON silogismoa dala eta

Elhuyar, 22 zk., 1980

Aldizkari honen 18. zenbakian, nere adiskide den J.M. Goñi jaunak argitaratutako artikulua, «Silogismo eta Logika Matematikoa» titulua duena, benetan interesgarritzat hartzen dut: eta ez Goñi adiskideak erabiltzen duen gaiarengatik, baizik eta artikulua berean koloka uzten duen problemagatik, FELAPTON silogismoaren «froga matematikoa» alegia.

Aipatutako artikuluan, silogismo-modu batzuren demostrazioak logika kuantifikatzailearen bidez egiten dira.

Horretarako, silogismo bakoitzaren premisak Logika Matematikoaren hizkuntzara bihurtu ondoren, horietatik hasi eta proposamendu-segida formalizatu baten bidez konklusiora heltzen da.

Bide horretik BARBARA, DARII, CAMESTRES eta DATISI silogismoen frogantza egiten du Goñi jaunak.

Haatik, FELAPTON silogismoa frogatzerakoan ezintasunean aurkitzen da, berak aitortzen duenez.

Zergatik? Non datza ezintasun horren gakoa?

Asmakizun hau da, hain zuzen, artikulua honetan garbitu nahi nukeen gaia. Bai eta, bidenabar, silogismoei buruzko kontzeptu batzuk argitzea ere, irakurle batzurentzat alferrikakoa izango ez delakoa.

Izan ere Goñi adiskidearen hutsa, FELAPTON silogismoa demostratzeko aurkitu duen ezintasuna alegia, ez bide da kasualitate bat izan, sail honetan korapilo bat bait dago, egon ere, hurrengo lerroetan ikusiko dugunez.

1. FELAPTON silogismoa

FELAPTON silogismoaren eskema honako hau da:

Baldin:	inongo A ez bada B
eta:	A guztia C bada
orduan:	zenbait C ez da B

Logika kuantifikatzailearen hizkuntza erabiltzen badugu, FELAPTON silogismoak honako itxua hau hartzen du:

$$\begin{array}{llll} \forall x. & Ax & \rightarrow & \neg Bx \\ \forall x. & Ax & \rightarrow & Cx \\ \exists x. & Cx & \wedge & \neg Bx \end{array}$$

Ikusten denez, bi proposamendu unibertsalak baldintza konektariaren bidez adierazten dira: baiezkoa, alegia, «A guztia C da», « $\forall x Ax \rightarrow Cx$ » formularen bidez, eta ezezkoa, «inongo A ez da B», « $\forall x. Ax \rightarrow \neg Bx$ » formularen bidez.

Bihurpen hori, ordea, ez da uste dugun bezain argia eta egokia izaten. FELAPTON eta beste silogismo batzuren frogapen-zailtasuna puntu honetik dator, etorri ere.

Silogismo horien baliogarritasuna nahiko eztabaidatua da logikarien artean. Gehienek baliodontzat hartzen dituzte; ez guztiek, ordea, orain esango ditugun arrazoiak gatik.

Pentsaera hau argitzeko, beharrezkoa dugu alde aurretik baldintza konektari egiten zaizkion kritika batzuk behar den bezala aztertzea.

2. Baldintzaren paradoxak

Guztiok dakigunez, « $p \rightarrow q$ » baldintza konektariaren taula honako hau da

p	q	$p \rightarrow q$
V	V	V
V	F	F
F	V	V
F	F	V

Taula hau eta konjuntzio konektariaren taula erkidetuz

$$(p \rightarrow q) = \text{def} (\bar{p} \vee q)$$

idazten da.

Hau dela eta, baldintza ez da egiazko inplikaziorik izaten, disjuntzio huts bat baizik.

Inplikazioak, berez, *dedukzio* ideia adierazten du, proposamenduren bate-tik beste proposamendu bat atera daitekeela alegia.

Baldintzak, ordea, ez du beti adierazpen hau betetzen. Adibidez,

$$\langle x + 4 = 5 \rangle \rightarrow \langle x = 5 - 4 \rangle$$

egiazko dedukzio bat da, bigarren formula kalkulu-erregelen arabera atera bait daiteke lehenengotik.

Ordea,

$$\langle 2 + 3 = 5 \rangle \rightarrow \langle \text{Lurra borobila da} \rangle$$

baldintza, egia izan arren, ez da egiazko inplikazio bat, lehenengo proposamen-dutik ez bait dago bigarrena ateratzerik.

Izan ere, bi proposamenduek ez dute elkarrekin zer ikusirik.

Beste paradoxa bat badugu halere, FELAPTON istilurako garrantzi handia-goia duena.

Eman dezagun $\langle p \rightarrow q \rangle$ baldintzaren lehenengo proposamendua faltsua dela.

Kasu honetan, bigarren proposamenduari begiratu gabe, baldintza hori egia dela baieztatu dezakegu. Izan ere, bigarren proposamendua egia nahiz faltsua izan, berdin du, taulan ikusten denez $\langle FV \rangle$ eta $\langle FF \rangle$ kasuak egia bait dira. Lasai esan daiteke, beraz, proposamendu faltsu batetik nolana hiko proposamendua atera daitekeela, nahiz hori hizkuntza arruntaren arabera absurdua izan.

Esate baterako, $\langle x \text{ zenbaki arrunta bere karratua baino handiagoa bada, } x \text{ zenbaki arruntaren seikoitza, } 6x \text{ zenbakia alegia, lehena da} \rangle$.

Bistan dagoenez, baldintza honen ondorea faltsua da. Hala eta guztiz baldintza bera egia da, lehenengo proposamendua ez bait da inola ere betetzen.

Beraz, delako $\langle x \text{ zenbaki arrunta bere karratua baino handiagoa da} \rangle$ propo-samendua $\langle Ax \rangle$ notazioaz aurkezten badugu, eta $\langle 6x \text{ lehena da} \rangle$ proposamen-dua $\langle Bx \rangle$ notazioaz aurkeztuz gero,

$$\forall x. \quad Ax \rightarrow Bx$$

baldintza unibertetsala *egia da*, nahiz eta $\langle Bx \rangle$ faltsua izan.

Paradoxa hau piska bat garbitzeko, inplikazioaren bi interpretazioak azter-tea komeni da.

Lehenengo interpretazioa, adin interpretazioa edo interpretazio «konprentsi-boa», klasikoa da, eta konzeptuen «nota» direlakoei begiratzan die. Bigarrenak, berriz, heda interpretazio edo interpretazio «extentsi-boa», elementu-klase edo multzoak erabiltzen ditu inplikazioaren interpretazioa argitzeko.

Logikarien artean bi jarrera aurkitzen dira. Joera filosofikoa duten logikariak lehenengo interpretaziora makurtzen dira. Modernoak berriz, zientzilari matematikari eta logika matematikoaren sailekoak alegia, bigarrena hobesten dute.

Heda-interpretazioak kontzeptuen notak kontuan izaten ditu, esan dugunez.

Adibidez,

$$\langle\langle x \text{ gizona da} \rangle\rangle \rightarrow \langle\langle x \text{ hilkorra da} \rangle\rangle$$

inplikazioa frogatzeko, «gizon» kontzeptua aztertzen du eta, kontzeptu honen «noten» artean hilkortasun kontzeptuarena badagoenez, beharrezkoa da gizon guztiak hilkorrak izatea. Alegia,

$$\text{NOT } \langle\langle \text{hilkor} \rangle\rangle \subset \text{NOT } \langle\langle \text{gizon} \rangle\rangle$$

erlaziotik dator, hain zuzen ere

$$\langle\langle \text{gizon guztiak hilkorrak dira} \rangle\rangle$$

proposamendua.

Ikuspuntu metafisiko hau, gaur eguneko pentsalarientzat ez omen da oso egokia.

Bertrand Russell-en heda-interpretazioaz, bestelako bideetatik gabilta orain. «Px» proposamendua betetzen duten «x» elementuen multzoa «klase» gisa hartzen du honek, eta

$$\forall x. \quad Ax \rightarrow Bx$$

egiaztatzeko


$$\text{KLASE } \langle\langle Ax \rangle\rangle \subset \text{KLASE } \langle\langle Bx \rangle\rangle$$

partekotasun-erlaziora jotzen du.

Beraz, «gizon guztiak hilkorrak dira» proposamendua

$$\langle\langle \text{GIZON KLASEA} \rangle\rangle \subset \langle\langle \text{HILKOR KLASEA} \rangle\rangle$$

erlazioan oinarritzen da. Bere Venn diagrama honako hau da:



Interpretazio honen arabera, gure lehengo paradoxa erraz erakusten da.

Izan ere, «Ax» proposamendua ezina bada

$$K L A S \quad \langle Ax \rangle = \emptyset$$

berdintza lortzeko dugu. Baina

$$\emptyset \subset K L A S \quad \langle Bx \rangle$$

partekotasuna nahi eta nahiezkoa denez gero,

$$\forall x. \quad Ax \rightarrow Bx$$

inplikazioa betetzen da edozein «Bx» proposamendutarako.

Are gehiago, bi proposamenduak, «Ax» eta «Bx» proposamenduak alegia, faltsuak baldin badira.

$$\emptyset \subset \emptyset$$

partekotasuna egia denez gero.

Paradoxa honek garrantzi handia du FELAPTON silogismoaren interpretazioarako, segidan erakutsiko dugunez.

3. Kontraexenplu bat

Logika koantifikatzailearen interpretazioaz FELAPTON silogismoa frogaezina da; arrazoi simple batengatik hain zuzen: bera faltsua delako —logika horren planteamenduaren arabera behintzat.

Faltsotasun hau frogatzeko nahikoa da, izan ere, kontraexenplu bat aurkeztea.

Hona hemen kontraexenplu hau:

BALDIN bere karratua baino handiagoa den inongo zenbaki arrunt bikoitza ez bada...

ETA bere karratua baino handiagoa den zenbaki guztiak 4-ren multiploak badira.

ORDUAN zenbait 4-ren multiplo ez da bikoitza.

Logika koantifikatzailearen notazioa erabiliz, eman ditzagun honako proposamendu hauek:

«Ax»: «x zenbaki arrunta bere karratua baino handiagoa da».

«Bx»: «x zenbakia bikoitza da».

«Cx»: «x zenbakia 4-ren multiploa da».

Notazio honetaz, lehengo silogismoa

$\forall x.$	Ax	\rightarrow	$\neg Bx$
$\forall x.$	Ax	\rightarrow	Cx
$\exists x.$	Cx	\wedge	$\neg Bx$

moduan idazten da. Dakigunez, «K L A S Ax» hutsa da. Beraz, bi premisak egia dira. Ondorea ordea faltsa, bistan dagoenez.

Beraz, derrigorrezkoa da FELAPTON silogismo hau faltsa dela onartzea.

Hala eta guztiz, logikari gehienek FELAPTON silogismoaren baliagarritasuna onartzen dute.

Non dago istilu honen gakoa? Gure iritzia segidan azalduko dugu.

4. FELAPTON silogismoaren gakoa

«Existenziari buruz ezer esaten ez duten proposamendu batzuetatik ezin daiteke inolako esistentziarik atera».

Erregela hau logikari guztiek onartzen dute.

Proposamendu unibertsalek, berez, ez digute existenzial baten esistentziaren segurantzarik ematen.

Exenplu bezala, Blanché logikariak honako proposamendua aipatzen du:

«A Crowland toutes les voitures ont des roues d'argent»

proposamendu honek zer esan nahi du benetan?

Har ditzagun honako proposamendu hauk:

«Ax»: «x Crowland-eko kotxe bat da».

«Bx»: «x kotxeak zilarrezkoak gurpilak ditu».

Blanché jaunaren proposamendua, Logika koantifikatzailearen notazioaz, honela idazten da:

$$\forall x. Ax \rightarrow Bx$$

Baina, inork ez du esan Crowland hirian inolako kotxerik existitzen denik. Alegia, inork ez du esan

$$\exists x. Ax \wedge Bx$$

proposamendua egia denik.

Beraz, Blanché-ren proposamenduak bi irtera ditu: batetik proposamendua egia izatea, eta beraz hiri horretan kotxeek zilarrezko gurpilak izatea; bestetik, hiri horretan batere kotxerik ez izatea. Logika matematikoaren aldetik, bi irterak balia garriak dira inolako dudarik gabe.

Lehenengo interpretazioa azaldu nahi badugu, bi proposamenduak erabili behar ditugu batera, lehenengoa unibertsala izanik ez bait da gauza Crowlandeko kotxeen existentzia baiezteko.

Baldin lehenengoa bakarrik ematen badigute,

$$\langle \forall x. Ax \rightarrow Bx \rangle$$

proposamendua egia da eta, ezabapen-legearen arabera, badugu «Aa → Ba» idazteko eskubidea, ez ordea «Aa» idazteko.

Aristoteles-en silogismoaren teorian ez da eragozpen hau agertzen, berak «A guztia B da» esaten duenean *zenbait A esistitzen denekoa jakintzat hartzen duelako, esan beharrik ere gabe*.

Beraz, gaurko « $\forall x. Ax \rightarrow Bx$ » ez da nahikoa Aristotelesen idea hura adierazteko. Gehigarri bat behar du, kasu batzutan behintzat. (BARBARA silogismoan,

adibidez, gehigarri hori ez da beharrezkoa silogismoa frogatzeko, hiru proposamenduak unibertsalak direlako).

Keen logikariak bi moduz egiten du gaineratze hau:

$$(\exists x. Ax) \rightarrow (\forall x. Ax \rightarrow Bx)$$

edo

$$(\exists x. Ax) \wedge (\forall x. Ax \rightarrow Bx)$$

(Bigarrena iruditzen zait errozena, gure kasuan behintzat.)

FELAPTON silogismoaren bi premisak unibertsalak dira. Ondorea, ordea, existentziala da. Eman dugun erregelaren arabera hau ezinezkoa da eta, antzinakoen idea adierazi ahal izateko, eranskin bat gaineratu behar diogu lehenengo premisari.

Antzinakoen ideei zuzen-zuzen jarraituz, FELAPTON silogismoaren planteamendua honako hau da:

$$\begin{array}{l} (\exists x. Ax) \wedge (\forall x. Ax \rightarrow \neg Bx) \\ \forall x. Ax \rightarrow Cx \\ \hline \exists x. \neg Bx \wedge Cx \end{array}$$

Planteamendu honekin guztiz erraza da silogismoaren froga. Hona hemen froga hau:

Lehenengo premisa osatua:	(1)	$\exists x. Ax \wedge \forall x. Ax \rightarrow \neg Bx$
(1) sinplifikazioa	(2)	$\exists x. Ax$
(1) sinplifikazioa	(3)	$\forall x. Ax \rightarrow \neg Bx$
Bigarren premisa:	(4)	$\forall x. Ax \rightarrow Cx$
(2) espezifikazioa	(5)	Aa
(5) (3) «modus ponens»	(6)	$\neg Ba$
(5) (4) «modus ponens»	(7)	Ca
(6) (7) konjuntzioa	(8)	$\neg Ba \wedge Ca$
(8) generalizazioa	(9)	$\exists x. \neg Bx \wedge Cx$

Esan dezagun, artikulua hau bukatzeko DARAPTI, FESPAMO eta BAMALIP silogismoak FELAPTON silogismoaren kasu berean aurkitzen direla, guzti horietan premisak unibertsalak bait dira eta ondorea partikularra. Arrazoi honegatik, hain zuzen ere, logikari batzuek ez dituzte lau horiek onartzen.

Ondoko DARAPTI esenplu hau Mill logikariak eman du, R. Blanché aipatuz:

- (a) Tout dragon souffle des flammes
- (a) Tout dragon es serpent
- (i) Donc quelque serpent souffle des flammes

Silogismoa ondo eratua dago eta, berez, egia da, nahiz bere konklusioa faltsua izan. Eta zergatik? Bat ere dragoirik ez dagoelako.

Hamar urte ANAITASUNarekin. Gazteak umetzat ez har!

Anaitasuna, 400 zk., 1980-04

Gazteak dira gure euskalduntasunerako arriskurik haundiena, «sorgin ihiztari» batzuen iritziz behintzat. Gure gaitzik haundiena eta periltsuena.

Nik ez dut uste, berriz, gaurko kinka «conflicto generacional» delako bat dakeenik. Gazte ta zaharren arteko burrukaz kanpo, ba daude, gaurko egoeran, beste istilu-kausa asko, zibilizazioaren salto edo mutazio batean garenez gero.

Gazte izatea bekatu izango ote da? Ba dirudi, astakeria hori ez duela inork esaten; baina jansenista batzuek baldintza bat jarri nahi omen diete «zintzo» dirako gazteei: alegia, gazteen pentsaera, izaera ta egiera, zaharren pentsaera, izaera ta egiera berbera izan daitezela.

Libiako esaera zahar batek honako hau dio: «Putzu-iturritik edan, eta zure tokia besteei utz».

Gazteak umetzat hartuko ditugu? Ez al dugu ikusten, gizaki helduak direla, eta beren xanda aspaldidanik ailegatu dela?

Matematikaren historian famatua den «Essai sur les coniques» liburua, hamazazpi urte zituela argitaratu zuen Pascal jakintsuak. Hamazazpi urte, laster esaten da gero!

Hogei ta bi urte zituen Alexandro Haundiak, Dario erregearen gaineko garaitzapen izugarria lortu zuenean. Bonaparte Jeneralak, Italiako gerran, 28 urte zituen, Rivoli, Arcole ta beste toki askotako bataila oroigarriak irabazi zituen.

Eta hain urrutira joan beharrik gabe, nahiz eta beste maila batekoa izan, hor dugu Sabinoren exenplua, hogei ta bi urteko zelarik idatzi baitzuen bere «Gramática elemental del euskera vizcaino» famatu hura. «Ume bat» zen eta gainera euskaldun berria, Lasa Kalonjearen terminologian bigarren mailako euskaldun zela esan nahi duena.

Ez gaitezen izan Cervantesen baratzainaren zakurra bezalako. Zakur hark ez zion beste inori jaten uzten berak jatenez zuena.

Erich Fromm pentsalari eklektiko bat

Argia, 892 zk., 1980-11-09

Gaur egun Erich Fromm pentsalariaren lanak nahiko arrakasta omen dute Euskalerrian.

Haren liburuak liburu-denda guztietan aurki ditzakezue, aspaldi honetan obra horien itzultze ugariak egin bait dira, ingelesetik espainolera alegia.

Mende honetako idazletan Erich Fromm sailkatu nahiez gero, kontuz ibili behar da, Fromm aurpegi askotariko pentsalari edo eklektiko antzeko bat delako.

Izan ere, bere eklektikotasuna zertan datzan jakiten saiatuko gara segidan.

Frommek hiru iturritik edan zuen bereziki, alegia, Marxen pentsaera humanistatik, Freuden psikoanalistatik eta bere familian ikasitako antzinako tradizio judutarretik.

Hala ere, gure pentsalariak hiru sustrai horietatik ez zuen bat ere onartu, edo behintzat osotoro onartu, hiru alorretan heterodoxotzat jokatu zuenez gero.

Bere liburu batzuetan bistan dago Frommek biblia oso sakonki ezagutzen zuela. Bestaldetik harreman asko izan zuen zenbait adiskide intelektual judutarrekin, Löwenthal, Martin Buber, Ernst Simon esate baterako. Alde hone-tatik mentalitate judutarrak eragipen handia izan zuen, duda gabe, Frommen pentsaeran.

Horretaz gainera, gizon heldua zela erlijio orientalak eta kristau mistikoen esperientziak ikuskatu zituen adiskide sinesdun batzuen laguntzaz.

Hala eta guztiz ere, Frommek ez zuen inolako erlijiorik onartu, hau da, bere bizitza guztian erlijio gabeko gizona izan zen dirudienez, nahiz eta gauza haue-tan barnekoa inork ez ezagutu. Dena den, hamazortzi urte zuela, Unibertsitate-ra joan eta, han, erlijio praktika guztiak utzita, marxismoari jarraitu zion. Berak esan ohi zuenez, berengan izan zuen eragipenik handiena, Marx izan zen.

Esan behar da, ordea, marxista bezela ez zela guztiz ortodoxo izan. Marxen humanismoa onartu zuen, ez ordea materialismo historikoa, klase borroka eta gauza asko, marxista batentzat beharrezkoak direnak.

Beraz, hamaika bider esan den bezela, Fromm, ez zen, marxista zuzena, marxiano edo marxtzale baizik. Urte asko pasatu gabe, marxista desbideratzaitzat salatu zuten marxismoaren nagusiek.

«ARGIA» etapa berri baten aurrean

Argia, 922 zk., 1982-01-31

ARGIA-ren berragerpena berri on bat izan da noski euskaltzale guztientzat. Orain problema bat aurkeztu dakieke ordea gure astekariaren idazle argiei, alegia, aurrerantzian nola jokatu euskal eginkizunaren gaurko egoera nahasiaz. Egokia izan dateke hain zuzen bitarte honetan ARGIA-ren helburu eta bidei ongi begiratzea, ondorengo arrakasta, nahiz ondapena, hortik etor daitekelako.

«Z. ARGIA» berrituaren lehenengo zenbakia 1963.urteko Martxoak hiru, agertu zen. Aldi hartan, sortzaileok izan ezik, ia inork ez zuen sinesten euskal astekari berriak luzaro iraungo zuenik. Fede handia behar zen benetan diktadurra gorrian holako erokeria egiteko.

«Z. ARGIA» hirurogei urtetako euskal berpizkundearen aitzindari antzeko bat izan zela esan daiteke egiari uts egin gabe.

Izan ere, gaurko idazle ezagun askok Zerukoaren horrialdetan egin zituen bere lehenengo urratsak. Joanak direnetan Rikardo Arregi zenaren izena aipatu beharra da. Eragile aspergabeko, gazetari erne eta pentsalari sakona izan zen adiskide ahantzezina hura. Bera izan zen ere alfabetatze kanpainen lehenengotako asmatzaile bat.

ARGIA-ren oraingo berragerpena euskal eginkizunaren une berezi batekin batera gertatzen da.

Nik ez dut esango, jakina, frankismoaren giro hartara atzeratuta izan garela. Azkeneko urte hauetan urrats izugarriak egin dira, egin ere. Lehengo egoerak egunekoarekin alderatzerik ez duela borondate oneko edonor pertsonak argi eta garbi ikus dezake.

Baina orain ofensiba berri bat hasi da euskararen etorkizuna kontrako frankismoarena baino makurragoa izan litekeena, azken finean euskara erabateko heriotzara eraman bait lezake.

Orain arte bi alderdi egon dira euskaltzaleen artean, aurrerakoiak eta tradiziozaleak dei genitzakenak alegia.

Lehenengoak euskara gaurkotu, normalizatu, bateratu eta eskolaratu nahi dute. Gaurko politika, zientzia eta pentsaeraren gai guztiak euskaraz erabiltzen saiatzen dira, nahiz eta hortarako euskal hiztegia oraindik eskasa izan.

Besteak berriz euskara batua eta modernizatua mundu hontako gauzarik txarrena bezela ikusten dutelako, euskalkien indartzeari ematen diote garrantzirik handiena. Esate baterako, eskola liburuak euskalki berezietan argitaratu egin dute, euskal eskola nazionala hiru bat lau eskoletan zatitzea absurdu bat dela ikusi gabe. Alde honetik zer nazio mota defendatzen duten honelakoak ez dut oraindik ulertu.

Orain beste irugarreneko talde bat agertzen hasi da dirudienez, perfekzio-zaleen alderdia alegia, ofendatzeko batere asmorik gabe esan dezadan.

Aipatu hauek gauza heldurik ez dagoela diote, orain arte egindako zenbait lanak oso gaizki eginak bait dira: borondate oneko jende ezjakinen lana besterik ez da diotenez. Beren okerkeriak jarraitzeko halako jendeari diru publikoak ematea astakeria izugarria izango litzateke nonbait.

Barkatu: esandako hauek gaizkitzat inork hartuko ez dituela espero dut, karrikatura itxura badute ere.

Ordea nere iritzi apalaz «gerotik gerora» ibiltze honek arrisku handi bat izan dezake une honetan, lanak erdizka egitea baino askoz gehiago.

Baldin eta «geroko benturaren bentura benturaturik» galtzen bagara, zer gertatuko da gaurko euskararen berpizteaz?

Euskalerrian etorkizun politiko-kulturalari buruz zer dakigu? Espainian gauzak aldatzen badira norik garantizatuko digu etorkizun horren euskaltasuna? Gerokoan euskara indartzeko egin beharra diren lan perfektu guzti hoiek egiteko posibilitaterik izango al da benetan?

Honetan ere «ez dugu segurantzarik». Luzamenduen bidea, nahiz eta perfekzionismoaren ikuspuntutik onena izan, ez bide da gaurko euskararen egoterrari gehienik dagokiona.

Prisa dugu egin behar dena egiteko.

«Egun bakoitzak bere eginkizuna dakar» dio Bibliak. Geuk ere gaurkoa gaur egin behar dugu, batzuek nahiko luketen bezain ongi ez egin arren.

Berriz ere «onena ongiaren etsaia» dela oroi arazi behar dugu. Euskal ikasle ezjakinen lema honoko esan ezagun hau izan liteke: «Besteak hobe egingo dute. Guk egiten dugu, egin ere».

Penagarria da hau esan beharra, baina Mitxelena jaunak irugarren fronte bat iriki du euskararen etsaien poza handiaz. Hauek, bai Mitxelenari berari, bai UZEI langileei, ekiten hasi dira denborarik galdu gabe, guztia hautsi lortuko duten esperantzarekin.

Gazteizko irakaslea ez da bakarrik guztiok errespetatzen eta maitatzen dugun jakintsu bat, Unibertsitatean eta Eusko Jaurlaritzaren inguruetan itzal handiko pertsona bat baizik.

Eztabaida eta istilua jarraitzen baldin bada egoera hau oso galgarri eta arriskutsua izan daiteke euskararen etorkizunerako.

Dena den, gauza bat eskatuko nieke nik ARGIA-ren idazleei, alegia, astekari honek bere etapa berri honetan euskara berrituaren defentsa bandera nagusi bezela har dezaten.

Beste borrokak alde batera utziaz, ARGIA euskaltzale aurrekoi guztien aldiskaria izan dadin guztiz komeni iduritzen zait une honetan.

Marx eta giza pertsonaren problematika

Jakin, 30 zk., 1984

1. Gizaki kolektiboa, gizaki banakoa

Emmanuel Mounier pentsalari pertsonalistak kritika esentzial bat egin zion marxismoari bere *Manifeste au service du personnalisme*-an (1936); hona haren hitzak:

la lacune essentielle du marxisme est d'avoir méconnu la réalité intime de l'homme, celle de la vie personnelle¹.

Alegia: «marxismoaren hutsune esentziala, gizakiaren barne-bizitza pertsonalaren errealitatea ez ezagutu izana da».

Ezagutu ere, gizaki kolektiboa ezagutzen du marxismoak, ez ordea gizabanakoa, gizaki banakoa, indibidua, pertsona —dio Mounier jaunak. Ez ezagutze honetatik ondorio bat dator, hain zuzen ere, Mounier-ek bere manifestuan esaten duenez: «Gizaki kolektiboarekiko marxismoaren baikortasunak, gizabanakoarekiko ezkortasun erradikal bat estaltzen du»:

L'optimisme que le marxisme professe sur l'avenir de l'homme, est un optimisme de l'homme collectif, recouvrant un pesimisme radical de la personne².

Hitz hauek nahiko ongi erakusten dute, pertsonalistek egiten duten kritika, gizakiarekiko Marxen pentsaerari buruz.

Beste pentsalari pertsonalista asko, Mounier-en gisara mintzatzen da puntu honetan. Jacques Maritain jaunak, adibidez, honela egiten du bere *La personne et le bien commun* izeneko liburutxoan³: Komunismoa, indibidualismoaren kontrako erreakzio bat da, eta gizakiaren liberazio absolutura jotzen du. Hau egia dela ezagutu beharra dago, dio Maritain jaunak. Baina, komunismoak gizakiaren barnekotasuna ezagutzen ez duenez, komunismotik etor litekeen liberazioa ez da gizabanakoaren liberaziorik izango, gizaki kolektiboaren liberazioa baizik.

Étienne Borne pertsonalista are urrutiago doa gai honen planteiamenduan. Honentzat, pertsonaren barnekotasuna ez ezagutzeak iraultzaren bidea ere hersten dio marxismoari, zeren Borne-ren eritziz, gizabanakoa helburutzat hartu gabe, ezina bait da egiazko iraultza egitea⁴.

Baldin marxismoak, prejuizio materialistagatik, gizabanakoaren kontzeptua ezeztatzen badu —dio Borne jaunak—, Historia fisika bihurtzen da, eta ez dago egon, marxismoaren sailean, iraultzaren ustea oinarritzeko modurik.

Esan dezagun, pertsonalistek kritikatzten duten dikotomia hau —gizaki kolektiboaren eta gizaki banakoaren arteko bereizketa, alegia— Marxen beraren perpaus batzuk bermatzen bide dutela. Hona hemen, esate baterako, Marxen *Plusbalioaren teoria* liburuaren perpaus bat, nahiko adierazkorra:

el desarrollo de las capacidades de la especie Hombre [majuskulekin], a pesar de realizarse por de pronto a costa de la mayoría de los individuos humanos y de ciertas clases de hombres, rompe al final ese antagonismo y coincide con el desarrollo del individuo mismo, o sea que el desarrollo superior de la individualidad tiene que comprarse mediante un proceso histórico en el cual son sacrificados los individuos⁵.

Marxen textu honen arabera, gizaki kolektiboaren hazkuntzak eta gizabanakoaren hazkuntzak, bat egingo dute azken finean. Baina, oraingoz behintzat, bizi garen gizarte alienatu honetan, bigarrena —gizabanakoa, indibiduo, alegia— sakrifikatu beharra dago gizaki kolektiboaren alde.

Mounier-ek esandakoa Marxek berak bermatzen duela dirudi: gizaki kolektiboarekiko baikortasuna, gizabanakoarekiko ezkortasuna.

Baina arazoa ez da horren erraza. Eritziok guztiz bestelakoak agertzen bait dira Marxen idazkien beste pasarteei begiratzen bazaie. Izan ere, Marxen beste textu asko aztertu behar da, Mounier jaunak planteiatutako gaiari erantzunen bat ematen saiatzeko.

Pentsalari pertsonalistek ez ezik, marxista ezagun batzuek ere kritika bera egiten diote marxismo ortodoxoari. Pertsonari buruzko teoria marxistarik eza kritikatzten dute, baita huts honetatik atera daitezkeen ondorio kaltegarriak azaltzen ere, argi eta garbi.

Marxisten artean kritika hau planteiatu duten lehenengoetako bat, Adam Schaff poloniarra izan da. Ez bakarrik lehenengoetako bat, sakonenetako bat ere baizik, nire ustez behinepehin. *Marxismoa eta giza indibiduo* izeneko haren liburua, 1966 urtean argitara zen. Eztabaida asko harrotu zuen liburu honek Poloniako inguru intelektual batzutan. Poloniako gobernuak, haatik, ez zuen gaizki ikusi, liburuan agertutako Schaff-en ideiak nahiko heterodoxoak baziren ere.

Schaff jaunaren eritziz, gaurko marxismoaren egoeran, nahitaezkoa da pertsonaren teoria marxista bat eraikitzea. Horren arrazonamendua, gerla ondoko egoeratik abiatzen da. Gerla ondoan —dio Schaff-ek— problematika berri bat agertu zen Estatu sozialistetan. Ordurarte, gizarte sozialista bat eraikitzen saiatu zen jendea, begiak etorkizunean bakarrik jarrita. Gerla bukaeran, berriz, sozialismoa jadanik eraikia zegoen, jendearen eritziz. Sozialismoaren lehen urteetan baino galde askoz haundiagoak agertzen ditu gaurko jende komunistak.

Bestalde, gerla bitartean hainbeste sarraski, suntsidura, bonbardaketa, zapalketa, zigor eta oinaze nozitu ondoren, atsegin- eta zorion-desio bat esnatu zen, Polonian eta sortaldeko beste estatu sozialistetan.

Hori dela eta, jende askok, gazteek batez ere, jarrera kritikoa hartu dute indibiduoaren problematikari buruz. Adibidez —dio Schaff jaunak—, jendea konturatu da, jabego pribatua ezeztatzea ez dela nahikoa gizakiaren gaitz guztiak saihesteko. Konturatu da, indibiduoaren heriotza eta bizitzaren zentzuaren problemak iraun dirauela, sozialismoa ezarri ondoan ere: erlijio-senaren problemak, zorionaren problemak, libertatearen problemak, etab. Schaff-ek problema antropologiko deitzen dituenak bizi-bizirik daude gizarte sozialistetan, Schaff berak dioenez. Hitz batean —dio Schaff-ek—, problema antropologikoak, gerla ondoko urteez gero joka ari dira sozialismoaren ateetan, gero eta indar haundiagoz⁶.

Batzuen eritziz, problema horiei erantzun marxista bat emateko, hor daude Marx gaztearen izkribuak, orain arte behar den bezala probetxatu gabeak. Baina Marx gaztearen idazkiak oso ilunak dira, eta, gainera, Hegelen idealismoak kutsatuak daude.

Marx usaba en su juventud —dio Schaff jaunak⁷— un estilo horriblemente ampuloso y prolijo. Las obras de esta época son —el mejor de los casos— difícilmente legibles para el lector contemporáneo no especializado en este período. Pero lo peor del caso es que el joven Marx es oscuro [...] es verdaderamente de una imprecisión 'a lo Hegel', lo que resultaría impensable en el Marx exacto, preciso, de la época siguiente.

Zer egin, bada, gaurko indibiduoaren problematikari marxismoaren arloan erantzun bat emateko? Erantzun honen zailtasuna, honako puntu hauetan azaltzen da, besteak beste.

Lehenengoa: Marxen pentsaeratik teoria antropologiko bat laster atera beharra dago gaurko bitartean.

Bigarrena: Horretarako iturririk onena Marx gaztearen izkribuak dirateke.

Baina —*hirugarren*— izkribu hauek agertzen zaizkigun gisan behintzat, ez dute marxismoaren hutsune antropologikoa betetzeko balio.

Konklusioa: oztopo hauek gainditzeko, honela jokatu behar da: Marx gaztearen eta Marx helduaren aztarna antropologikoak bildu, aztertu eta sakondu ondoan gizabanakoari buruzko teoria marxista guztiz errigoretsu bat eraiki behar da horien gainean. Zoritxarrez —dio Schaff-ek—, orain arte mundu sozialistan ez da ezer egin arlo honetan, eta hutsune honetatik gaitz asko etorri zaio marxismoari.

¿Puede uno extrañarse —dio Schaff-ek⁸— de que estos problemas haya hecho víctimas (en los medios comunistas) sobre todo entre la juventud, y de que se hayan realizado tentativas de existencializar a Marx e incluso de proclamar a Marx existencialista?

Hau da, izan ere, Schaff marxistaren salaketa, Mounier-en aipatutako kritikarekin nolabait ere bat datorrena. Schaff jaunak batez ere Poloniaren kasu berezia aipatzen duen arren, berehala ikusten da haren kritika guztiz orokorra dela.

Beste pentsalari marxista askok ere eskakizun bera egiten dute: antropologia marxista baten beharra, alegia.

Hor dugu, esate baterako, Lucien Sève marxista ortodoxo eta komunista leiala, bere *Marxisme et Théorie de la personnalité* izeneko liburuarekin. Aitor-tu beharra dago —dio Sève jaunak— guztiz beharrezkoa dela materialismo historikoaren sailean giza pertsonalitatearen teoria garbi eta eginkor bat. Gaurko marxismoaren hutsune esentziala, argi eta garbi kritikatzeko du Lucien Sève jaunak, eta, salaketa hau egiteko, Mounier-en *lacune* hitz bera erabiltzen du, hain zuzen:

Il semble y avoir, pour le moment encore, une lacune réelle à l'endroit de la théorie de la personnalité.

Izan ere, Sève⁹ jaunaren ustez, *lacune* hau, hutsune hau, objektiboki ukakortzat hartu behar da materialismo historikoaren eginkizunerako.

Le fait que le marxisme n'offre pas aujourd'hui de façon claire et cohérente une théorie de l'individu concret [...] alimente les tentatives perpétuellement infécondes, mais sans cesse renaissantes, de croiser le marxisme avec des théories de l'individualité [...] complètement étrangères au marxisme¹⁰.

Beharbada, gurutzamendu hau izan da, hain zuzen ere, Frankfurt-eko Eskolaren kasuan gertatua. Frankfurt-eko Eskolaren historilari den Martin Jay jaunak dioenez, Eskola horretako lagunak laster konturatu ziren materialismo historikoan hutsen bat zegoenez: «La lacune se trouvait —dio Martin Jay jaunak¹¹— dans le domaine de la psychologie».

Fromm eta Maruse-k, batez ere psikoanaliari eskatu zioten erantzuna. Korrante pseudo-marxista bat atera zen hemendik, Mark eta egiazko marxismoarekin zerikusirik gabea. Markusek, adibidez, explotazio ekonomikoaren lekuan, errepresio sexuala delakoa jarri omen zuen. Fromm-en teoriak, halaber, judeotasunaren, kristautasunaren, freudismoaren eta marxismoaren nahasketa dira.

Schaff, Sève eta beste pentsalari marxisten eritziz, ezaba liteke nahasketa eta desbiderapen hauen arriskua, antropologia marxista bat izanez gero. Eta eginkizun honen erroa Marxen pentsaeran aurkitzen da, dudarik gabe.

Baina nola berreskura sustrai horiek?

Sève jaunaren ustez, Marxen obra osoaren berrazterketa sakon bat eskatzen du lan honek.

Je pense en avoir assez dit —dio Sève jaunak¹²— pour faire apparaître la nécessité d'un réexamen systématique et rigoureux de ce que devient dans son ensemble la problématique de l'homme à l'intérieur du marxisme mûr, de l'*Idéologie Allemande* au *Capital*.

Gizabanakoaren gaia textuinguru marxiano batetan erabiltzeko, derrigorrezkoa da, izan ere, Althusser-en eten epistemologikoaren ideia gainditzea.

Marx helduaren planteiamenduak haren gaztaroko kezka antropologikoe-tatik zeharo aldendurik bazeuden ere, horrelako planteiamenduetan axola antropologikoe iraun dirautela, hamaika bider frogatua dago, Marx helduaren beraren textu ezagun askoren bitartez.

Jakina denez, Althusser-ek ez du onartzen teoria marxista delakoan gizaki kontzeptua sartzeko ustea ere. Alde honetatik, heterodoxotzat salatzen ditu Althusser jaunak Lukács eta Gramsci.

Althusser-en eritziz, gizaki kontzeptua defendatzen duten marxistak historizismo faltsu batean erori dira, non gizabanakoaren eginkizunari leku zentral bat ematen bait zaio Historiaren interpretazioan.

Althusser-en arabera, gizaki kontzeptua oztopo bat da Historiaren prozesua ulertzeko. Klase borrokan eta masa-mugimenduetan ez bestetan datza hau. gizakiak ez dira Historiaren subjektuak, ondorioak baizik. Materialismo historikoak ez du ezagutzen, ez gizakirik, ez Historiaren beste subjekturik. Jakina denez, subjekturik eta helbururik gabeko prozesu bat da Historia, Althusser-en ikuspuntutik¹³.

Marx gaztearen ideietatik antropologia marxista bat atera nahi izatea, guztiz zentzugabekoa da Althusser-en eritziz. Marx gaztearen pentsaera

antropologikoa, Feuerbach-en eraginaren ondorio da, besterik ez. Hortik egiazko marxismora igarotzerik ez dago egun ere, beti Althusser-en eritziz.

Baina gaurko munduaren desgizartetasun gero eta haundiagoa problema esentzial bat da marxista gehienentzat. Althusser-en subjekturik gabeko historiak ez omen du etorkizun haundirik.

Antonio Gramsci-ren ikuspuntu historikoa, Althusser-enaren guztiz bestelakoa da. Hau dio Gramsci-k:

Las fuerzas mecánicas no triunfarán en la historia sin los hombres, son las conciencias y el espíritu los que modelan la realidad y acaban siempre por triunfar... A la ley natural, al curso fatal de las cosas que afirman los pseudo-sabios se ha sustituido la voluntad tenaz del hombre.

Feuerbach-en ideien oihartzuna entzuten da Gramsci-ren hitz hauetan.

Gramsci-k erabilitako gizakia, kontzientzia, izpiritua hitzek, zein esanahi izango lukete antropologia marxista batean, esanahirik izatekotan?

Orain arte esandakoa piska bat laburtuz, zera esango dugu jarraitu baino lehen: komunismoak gaurko problematika antropologikoari —libertatearen gaiari, zorionaren gaiari, eta abarri— erantzun bat eman ahal izateko, gizakiaren teoria marxista batetik abiatu beharko litzateke. Baina teoria hau ez dagoelako, nahitaezkoa da berriz ere iturrira, Marxen pentsaerara, itzultzea. Ikus dezagun, beraz, zeintzuk izango lirartekeen Marxen idazkietan, antropologia marxiano baten aztarna eta hatz nagusiak.

Hor ditugu, esate baterako: Marxek erabilitako alienazio kontzeptua; Feuerbach-en gaineko Marxen seigarren tesia, gizakiaren esentziari buruz; gizakiaren eta animaliaaren arteko diferentziak, Marxek aurkeztu bezala; kontzientzia pertsonalaren eta gizartearen arteko erlazioa; gizakiak, gizakiaren kreaio edo autokreaioa, etab.

Oso ezagunak dira Marxen ideia guzti hauek. Horietako batzuek Feuerbach-i hartuak badira ere, ez du inork ukatuko Marxek orijinaltasun haundiz erabiltzen dituen. Marxek iraulketa bat egiten du kontzeptu guzti horiekin, idealismo hegelianotik materialismo historikora bihurtuz, segidan ikusiko dugunez.

Baina, aldeaz aurretik, zerbait esan beharra dago Marxen pentsaera antropologikoz, hots: Marxek, bere idazki guztietan eragotzi duela gizaki abstraktuaren ideia. Gizaki konkretuak, hezur eta mamizkoak ezagutu nahi ditu Marxek batere abstrakziorik onartu gabe.

Hegel eta Feuerbach kritikatzten ditu alde honetatik, batez ere *Ideologia alemana* liburuan. Hegelek, gizaki errearen lekuan, nor bere buruaren kontzientzia [*la conciencia de sí mismo*] jartzen du abstrakzio gisara. Feuerbach-ek gizaki teoriko bat ezagutzen du, Marxek dioenez, gizaki errearekin zerikusirik ez duena. Feuerbach-ek, genero nagusi gisa darabil gizakia, ezin konta ala gizon eta emakume dohakabe, miserable, goseti eta gangaildunen ikaragarritzko errealtatea alde batera utzita. Feuerbach-en gizakiaren faltseapen hau gogorki gaiztosten du Marxek *Ideologia alemana* obraren pasarte askotan.

Ohartaraz dezagun, pertsonalismo kristaua bat datorrela puntu honetan Marxekin. Izan ere, pertsonaren errealtatea nolana hiko abstrakzioren bidez mugatu nahi izatea, kontraesan bat da. Hori dela eta, pertsonalisten ikuspuntutik ez dago pertsonaren zientziarik, ez ideologiarik ere. Pertsonalismoa, hain zuzen, anti-ideologia bezala aurkezten du Jean Lacroix jaunak bere *Le personnalisme comme anti-idéologie* izeneko liburuan¹⁴.

Marx, ordea, materialista da, duda gabe, nahiz eta honen materialismoa aitzinako materialismoaren aldean guztiz diferentea izan. Beraz, gizakiari buruzko Marxen usteak materialista izan behar, ezinbestean. Biologismo eta fisiologismo arruntak, gizakia molekula eta zeluletatik explikatzen nahi duten teoriak baztertu egiten ditu Marxek, zalantzarik gabe. Baina, honekin batera, transzendentzia oro gaitzesten du.

Pertsonalista kristauak defendatzen duten pertsonaren ulerpena, berriz, transzendentea da. Sineste bat, fede bat eskatzen du pertsonalismoak, pertsonaren errealtatea ezagutzeko. Indibiduo biologikoa, fisikoa, guztiz ikusgarri eta ukigarria da. Haatik pertsonaren existentzia ezin frogatu dezake inork, errealtate transzendente bat delako.

Marxek, aldiz, pertsonaren transzendentzia fantasmagoriatzat hartzen du; hau dela eta, pertsonalistok ez dugu inolako deretxorik lilura faltsuak bizkortzeko puntu honetan. Nire ustez behintzat, ez dago inolako sinkretismorik pertsonalismo kristauaren eta marxismoaren artean.

2. Gizakia eta animalia

Hau esanda, esan beharra dago halaber, gizakiaren eta animalien artean erabateko diferentziak daudela Marxentzat. Ideia hau bazegoen, egon, Feuerbach-en idazki filosofikoetan, fraseologia ponposo batean. Baina Marxek giro berria ematen dio ideia berari. Feuerbach-ek, kontzientzia eta erlijioa direla

medio bereizten zituen gizakiak eta animaliak —dio Marxek—. Horien arteko lehen diferentzia, ordea, gizakiak bere bizitzaren medioak eta bideak eraikitzen ditueneko gertaeran datza.

Kapitala liburuaren hirugarren sailean puntu honi dagokion esanplu argia ematen du Marxek, armiarma eta erlearen esanplu ezaguna, alegia. Honela dio testu horrek:

Una araña realiza operaciones que se parecen a las del tejedor; la abeja confunde, por la estructura de sus celdillas de cera, la habilidad de más de un arquitecto. Pero lo que distingue desde un principio al peor arquitecto de la abeja más experta es que aquel ha construido la celdilla en su cabeza antes de construirla en la colmena. El resultado al que llega el trabajo (humano), pre-existe idealmente en la imaginación del trabajador. No es sólo que opere un cambio de forma en las materias naturales sino que realiza al mismo tiempo su propio objetivo, del cual tiene conciencia, el cual determina como ley su propio modo de acción y al cual debe subordinar su voluntad¹⁵.

Beraz, guztiz desberdinak dira gizakiaren eta animalia-aren lanak. Gizakiaren lana, bermadura kontziente eta borondatezko baten ondorioa da, ez animalia-aren lana bezala, instintu hutsaren ondorioa.

Marxen eritziz, gizakiek, beren lana dela medio, beren burua kreatzen dute. *Pariseko eskuizkribuak*-etan, ideia bera aurkezten du Marxek¹⁶:

El animal se identifica inmediatamente con su actividad vital. No se distingue de esta [...] El hombre [en cambio] hace de su propia actividad vital el objeto de su voluntad y de su conciencia.

Ohartaraz dezagun bidenabar, Marxek borondatea eta kontzientzia aipatzen dituela testu honetan. *Kapitala* liburuan bezala. Eta jarraitzen du:

[El hombre] tiene una actividad consciente [...] La actividad vital consciente distingue inmediatamente al hombre de la actividad vital del animal [...] [El hombre] es un ser consciente y su propia vida es para él un objeto precisamente porque es un ser genérico. Esta es la causa de que su actividad sea una actividad libre». «Es cierto que el animal también produce [dio Marxek pixka bat aurrerago]. Construye su nido, su habitación, como lo hacen la abeja, el castor, la hormiga, etc. Pero construye solamente lo que le es necesario para él y para su progenitura. Produce de un modo parcial mientras que el hombre produce de un modo universal. El animal sólo produce bajo el imperio de la necesidad física inmediata mientras que el hombre sigue produciendo incluso cuando se halla liberado de su necesidad física. Y, en realidad, sólo produce verdaderamente cuando está liberado de esta.

Esan guzti hauek, ilun eta nahasiak badira ere, zerbait adierazten digute Marxen pentsaera antropologikoari buruz. Ez bakarrik Marx gaztearen

pentsaera, baita Marx helduaren pentsaera ere, lehen aipaturiko textua *Kapitala* liburuan agertzen denez gero.

3. Giza kontzientzia

Baina zertan datza Marxentzat giza kontzientzia delako hori?

Puntu honetan guztiz urrun daude elkarrengandik pertsonalista kristauon ideiak eta Marxenak. Pertsonalista kristauen ustez, kontzientzia da pertsonalitatearen mamia eta muina. Gizakiaren barne-barnekoa, ezkutuen, sakonena, non beste inork ez bait du sartzeko deretxorik.

Marxen eritziz, ordea, gizakiaren kontzientzia gertaera sozial bat besterik ez da, berak *Ideologia Alemana* liburuan dionez.

La conscience est d'emblée un produit social et le demeure aussi longtemps qu'il existe des hommes¹⁷.

Mundu guztiak ezagutzen du 1859 urteko *Grundrisse* direlakoetako Marxen perpaus famatua:

Ez da gizakien kontzientzia gizakien existentzia determinatzen duena, aitzitik, existentzia soziala da gizakien kontzientzia determinatzen duena¹⁸.

Karl Marx eta Friedrich Engels-ek gauza bera esaten dute, besteak beste, *Ideologia alemana* liburuan:

Ez da kontzientzia bizitza determinatzen duena, bizitza da kontzientzia determinatzen duena¹⁹.

Merezi du puntu honetan Marxen pentsaera materialista ongi ulertzeko perpaus honen textuingurua ezagutzeak:

No se parte aquí de lo que los hombres dicen, se imaginan o representan sobre sí mismos. Se parte de su proceso de vida real. Incluso las fantasmagorías en el cerebro humano son sublimaciones que resultan necesariamente del proceso de su vida material, el cual puede ser constatado empíricamente y reposa sobre bases materiales. Por esta razón, la moral, la religión, la metafísica y todo el resto de la ideología, así como las formas de conciencia que les corresponden, pierden inmediatamente toda apariencia de autonomía. No tienen historia, no tienen desarrollo: son, al contrario, los hombres los que, desarrollando su producción material y sus relaciones materiales, transforman, al mismo tiempo que esta realidad que les pertenece, su propio pensamiento y los productos de su pensamiento. No es la conciencia lo que determina la vida sino la vida lo que determina la conciencia²⁰.

Maximiliano Rubel jaunak dionez, kontzientziaren autonomiaren ukazio hau da, hain zuzen, Marxen materialismoari zentzu guztia ematen diona.

Pertsonalista kristauontzat gizakiaren kontzientzia autonomia da, beregainekoa da. Marxentzat, berriz, kontzientzia guztiz mugatua eta lotua dago gizartearen errealitate materialarekin. Honen arabera —kontzientzia produktu sozial denez, alegia—, gizartea aldatu arte ez da gaurko gizakien «zoritarreko kontzientzia» aldatuko. Izan ere, gaurko gizartean gizakia alienaturik dagoelako, ez da agertzen haren egiazko izatea.

4. Alienazioa

Alienazio kontzeptua da antropologia marxianoaren aztarnarik ezagunenetako bat.

Esan dezagun, alienazio kontzeptua ez dela bakarrik Marxen gaztaroko uste bat. Aitzitik, Marxen obra osoa zehar ageri da. Gauza frogatua da, izan ere, alienazio kontzeptuak *Pariseko eskuizkribuak*-etatik *Kapitala* libururaino, Marxen obra osoan irauten duela.

Baina Marxentzat, alienazioa ez da gertaera abstraktu bat. Gaurko egoeran, dio Marxek *Pariseko eskuizkribuak*-etan, indibiduoak alienatuta daude, giza komunitatea ez da komunitate errearen karikatura bat besterik.

Marxek, *Familia Saindua* liburuan, gizakiaren eta honen errealitatearen arteko banaketa bezala definitzen du alienazioa. Alegia: «un estado de separación total entre el hombre y su realidad objetiva».

Arrazoi du, beraz, Adam Schaff jaunak, hau esatean: «Marxentzat, gizaki egiazkoaren eta gizaki errearen arteko gataska bat da alienazioa». Gizaki egiazkoa eta gizaki erreal; gizaki erreal, gaurko gizarte alienatuan bizi den gizakia da, noski.

5. Gizakia: «erlazio sozialen osotasuna»

Baina zein da Marxentzat gizaki egiazkoa delakoa? Galdera honek gizakiaren esentziaren gaira garamatza derrigorrez.

Marxek problematika antropologikoari ematen dion erantzuna ulertzeko, beharrezkoa da, Feuerbach-en aurkako Marxen seigarren tesia kontuan izatea. Aitortu behar dugu puntu horretan ezberdintasun handia dagoela Marxen eta

pertsonalista kristauen artean, segidan ikusiko dugunez. Guztiok ezagutzen dugu Marxen seigarren tesiaren testu famatua:

La esencia humana no es una abstracción inherente al individuo humano. En su realidad es el conjunto de las relaciones sociales.

Alegia, gizakiaren esentzia ez da abstrakzioaren bat, erlazio sozialen totaltasuna baizik.

Idea hauen interpretazioak makina bat eztabaida biztu du pentsalari marxisten eta ez marxisten inguruetan.

Ohar bat egin beharra daukagu aurretik, nahasketatik itzurtzeko. Marx jaunarentzat, edozein gauzaren esentzia ez da zerbait abstraktu izaten; ez da kontzeptu edo ideia abstraktu bat, zerbait konkretu eta erreala baizik. Idealisten-gandik iheska, edozein sailtako abstrakzioaren lekuan, abstrakzio konkretua jartzen du Marxek, «abstrakzio konkretu» esaera honi kontraesana baderitzogu ere.

Feuerbach-en gizaki abstraktutik gizaki errealerara igarotzerik ez dago, dio Marxek. Beraz, gizakiaren esentzia konkretua erabili behar da.

Non dago, baina, esentzia konkretu hau? Ez dago gizabanakoan: indibiduoak ez du esentziarik izaten. Gizakiaren esentzia gizaki kolektiboan dago. Giza kolektibitatearen erlazioetan ez bestetan dago, esan du Marxek bere seigarren tesian.

Guzti hau dela eta, Marxen eritziz, gizakia zertan datzan jakin nahi dezanak, ez indibiduoari, baizik begien aurrean duen gizarte konkretuari begiratu beharko dio.

Alde honetatik, hasieran aipatu dugun Emmanuel Mounier-en eritzia bermatu egiten dela dirudi. Marxen antropologian, egiazko gizakia ez da gizabanakoa, gizaki kolektiboa baino. Hona hemen, berriro, lehen aipatutako marxismoaren hutsunea.

Hau esatea gehiegizkoa da beharbada. Marxen gizakiazko planteiamenduetan bai bait dago hori baino baikorragorik.

Marxen jarrerak badu, noski, bere logika eta arrazoia. Marxentzat indibiduo isolatua gizatasunaren eredutzat hartu nahi izatea, indibiduoakeria da, guztiz onargaitza. Gizakia izaki soziala da, ez bakarrik azaletik, gertaera akzidental batzuegatik, bere esentzia eta mamiagatik baizik. Ez da bidezko Robinson Crusoearen gisako gizaki bakarti bat, bere intimitatean guztiz ezkutatua, eredutzat defendatzea.

Bada garaia, izan ere, errobinsada guzti horiek saihesteko.

Bat gatoz, beraz, Marxen perpaus batzurekin. Adibidez, hau esaten due-nean: «la verdadera riqueza intelectual del individuo depende enteramente de sus relaciones reales»²¹. Edo beste hau dioenean: «las circunstancias hacen a los hombres más que los hombres a las circunstancias». Inork ez du ukatuko esaldion arrazoizkotasuna.

Seigarren tesia bururaino eramateak, ordea, gizabanakoaren erabateko ukapenera eramán lezake. Exenplu bat, Marxek *Grundrisse* direlakoetan esandakoa: «La sociedad no se compone de individuos; representa solamente la suma de las relaciones y de las condiciones en las cuales se encuentran entre sí los unos respecto a los otros»²².

Aitortu beharra daukagu, nahiko gogorra dela textu hau, interpretazio estu bat egitekotan.

Hitzez hitz hartzen badugu, ez dago indibiduorik. Edo, behintzat, indibiduoak ez du batere garrantzi sozialik, batere eskurik gizartearen eraikuntzan. Ez da historiaren subjektu aktibo, subjektu pasiboa baizik.

Nik ez dut uste Marx gehiegikeria horiekin bat etor zitekeenik. Dena den, gure helburuari jarraitzeko, seigarren tesiaren beste ondorio garrantzizkoaz mintzatu behar dugu.

Marxen eritziz, gizakiaren esentzia erlazio sozialen totaltasuna delako, pentsatu ohi den baino askoz sakonagoak dira indibiduen arteko eraginak. Erlazio sozialak direla medio, indibiduoek bere buruak kreatzen dituzte. Ez dira kanpoko botere baten ondorio. «Los individuos se crean entre sí los unos a los otros tanto en lo físico como en lo moral» dio Marxek *Ideologia alemana* liburuan²³.

Hau da, baita, Marxen perpaus famatu batzuren esanahia: «nosotros somos nuestros propios forjadores», «los forjadores de nuestra vida, de nuestra mente».

Schaff jaunak oroitarazten duen bezala, Antonio Gramsci da ideia marxiano hauen profetarik handiena; Gramsci-rentzat, hau da gizakiaren definizioa: «El hombre es un proceso, el proceso de sus propios actos»²⁴. «Bai esan zabal eta baikorra!», dio Schaff jaunak perpaus hauek aipatuz. Baliteke puntu hone-tan egotea antropologia marxianoaren mamia:

El concepto del individuo como parcela de la naturaleza, como parcela de la sociedad y producto de la autocreación, es decir como resultado práctico de los hombres creadores de la historia, estos son los fundamentos esenciales de la concepción marxiana del individuo.

Jean Lacroix pertsonalistak honela kritikatzén du gizakia autokreazioaren ondorioztat agertzen duen kontzepzio hau:

Para el hombre socialista la historia universal no es nada más que la procreación del hombre por el trabajo humano.

Merezi du, ordea, Schaff-en ikuspuntua pixka bat aztertzeak, batez ere gizakiaren kontzeptua, gizakia gizartearen zati edo partzela bezala agertzen duena. Zer esan nahi du Schaff-ek, gizakia gizartearen «partzela» edo zatitxo bat dela esatean?

Schaff berak ohartarazten duen bezala, pentsaera pertsonalista kristaua eta pentsaera marxianoa zeharo desberdinak dira elkarrengandik.

6. Marx pertsonalista ote?

Pertsonalistek indibiduo eta pertsona kontzeptuen arteko bereizketa oinarritzko bat egiten dute. Indibiduo, gizartearen zati bat da eta, alde honetatik, gizartearen errealitateak zeharo kondizionatua dago. Pertsona, berriz, ez da gizartearen zati bat, zeharo haundiagoa den zerbait baizik: izaki librea, bere buruaren jabea, transzendentea; pentsamendu, zientzia, teknika, ekintza eta abarren kreatzailea. Nahiz eta gauzarik txikienetan izan, kreatzailea da pertsona; gauza askoren sustrai eta hasiera; beti miragarri eta harrigarria. Pertsonagandik abiatzen bait dira historiaren bide guztiak.

Personaren barnean dago existentziaren enigmarik haundiena.

Hitz batean: pertsonalisten ikuspuntutik, pertsona ez da gizartearen zati bat, osotasun eta totaltasun bat baizik.

Idea hauetatik dator, hain zuzen, pertsonalista batzuek maiz aipatzen duten *slogan* ezaguna: «el individuo para la sociedad, la sociedad para la persona».

Schaff-ek Marxen pentsaera antropologikoaz egiten duen interpretazioa, guztiz bestelakoa da. Interpretazio honen arabera, gizakia zati bat da beti eta alde guztietatik. Indibiduo biologiko bezala naturaren zati bat da. Pertsona bezala, gizarteko erlazioen totaltasunaren zati bat da halaber. Indibiduo biologiko baten gainean igarotzen diren erlazio sozialek haren pertsonalitatea eratzen dute.

Mapa batean gertatzen den bezala: mapa horretan erlazio-sistema bat agertzen da, totaltasun bezala. Hiri jakin batetik igarotzen diren bideek, berriz, sistema partzial bat eratzen dute. Besteak beste, hau da Marxen seigarren tesiaren interpretazioan, gizakiaren kontzeptu konkretua.

Hala eta guztiz ere, Schaff-ek ez du gizaki bakoitzaren originalitaterik ukatzen. «Todo individuo constituye un microcosmos particular y su muerte marca el fin de un mundo determinado».

Neri, pertsonalista kristaua naizen aldetik, Marxen pentsaera antropologi-koaren interpretazio honek ez dit gauza haundirik esaten. Baina aitortu behar dut —berriro esango dut— pertsonalismoa ez dela zientzia bat, sistema bat, teoria bat, ideologia bat, baizik sinesmen bat, fede bat pertsonaren existentziaren gainean.

Lan honen konklusio gisa, honako hau esan genezake: batzuek Marx pertsonalistatzat aurkeztu badute ere, nik ez dut uste hau egia denik. Nire eritzi apa-lean, horregatik, ez dago batere sinkretismorik bi antropologia hauen artean.

-
1. MOUNIER, Emmanuel: «Manifeste au service du personnalisme», in: *Oeuvres, I*, Edit. du Seuil 1961, 519 or.
 2. *Ibid.*
 3. MARITAIN, Jacques: *La personne et le bien commun*.
 4. BORNE, Étienne: «Mounier et le marxisme», in: *Esprit*, 1972, 217 or.
 5. MARX, Karl: *Le Capital*, IV, aip. in: SÈVE, Lucien: *Marxisme et Théorie de la personnalité*, Eds. Sociales 1969, 96 or.
 6. SCHAFF, Adam: *Le marxisme et l'individu*, Lib. Armand Colin 1968, 46 or.
 7. Idem, 57 or.
 8. Idem, 58 or.
 9. SÈVE, Lucien: aip. lib., 27 or.
 10. Idem, 28 or.
 11. JAY, Martin: *L'imagination dialectique: Histoire de l'École de Francfort*, Payot 1977, 197 or.
 12. Aip. lib., 97 or.
 13. Ik., adibidez, ALTHUSSER, Louis: *Réponse à John Lewis*, Maspero 1973.
 14. P.V.F. 1972.
 15. MARX, Karl: *Le Capital*, I, 3, in: *Oeuvres de Marx, I*, Pléiade, 63 or.
 16. ID.: *Les manuscrits de Paris (1844)*, in: *Oeuvres de Marx, II*, Pléiade, 63 or.
 17. MARX, Karl-ENGELS, Friedrich: *L'idéologie allemande*, Eds. Sociales 1968, 59 or.
 18. MARX, Karl: *Critique de l'Economie Politique*, in: *Oeuvres I*, Pléiade, 273 or.
 19. *L'idéologie allemande*, 51 or.
 20. *Ibid.*
 21. Idem, 67 or.
 22. MARX, Karl: *Grundrisse*, in: *Oeuvres de Marx, II*, Pléiade, 281 or.
 23. *L'idéologie allemande*, 67 or.
 24. SCHAFF, Adam: aip. lib., 85 or.

Marxismoaz mahaingurua

Jakin, 30 zk., 1984

1. Esan bait da, Marxek gizarte-egiturak aztertu zituela bereziki, nola ikusi zuen Marxek gizakia, nola ikusi zuen pertsona bera?

Marxek gizarte-egituren aldakuntzari bakarrik begiratu al zion eta gizakia ahaztu? Nire ustez, hori ez da egia: Marxek ez zuen gizakia sekula ahaztu. Nire ustez, Marxen helburua, bitzta guztiko helburu esentziala, gizakia salbatzea izan zen, besteak beste: jende langilea, behartsua, zapaldua alienaziotik ateratzea. Marxen abiapuntua ez zen izan ez zientzia, ez teoria, ez ekonomia, ez pentsaera logikoa; baizik, langileen miseriarekiko haserrea eta samindura. Marxen helburu esentziala, Hegelen *Zuzenbidearen Kritika* liburuan aipatzen den inperatibo kategorikoa izan zen: alegia, gizakia arbuiatzen, gutxiesten, mespretxatzen eta zapaltzen duten kondizio sozial guztiak ezeztatzea. Hori zen inperatibo kategorikoa, eta hori zen Marxen helburu nagusia ere.

Gizarte burgesaren miseria sozialak zeharo aztertu zituen, hamaika bidetik aztertu ere: langileen etxebizitzak bisitatuz, inspektore ofizialen txostenak irakurriz, estatistikak arakatuz, etab. Eta galdera hau egin zion bere buruari: nondik dator zabor guzti hau? Eta erantzun: gaitz guztion egiazko kausa ez da zenbait nagusi dominatzailearen gaitzakeria, baizik produkzio-moduak, lanaren zatiketa, klase-borroka, etab. Orduan Marxek zientzia berri bat asmatu zuen. Ez, ordea, nolana hiko zientzia neutrala, baizik zientzia suhar, lehiatsu, iraultzailea.

Nire ondorioa, hau da: Marxek ez du sekula ahaztu gizakia. Marxen egiazko asmoa, hori izan zen: gizartea aldatzea. Gizakia salbatzeko oker zebilen ala ez, hori beste gauza bat da; baina hori zuen helburu.

2. Marx bizi izan zen garai hartan, oso bizirik zeuden nazio-arazoak; gogoan dituzue Poloniako kasua, ekialdeko arazoa, Krimeakoa, Irlandakoa... Zer pentsatzen zuen Marxek nazio-arazoari buruz?

Gai nazionalari buruz, nire eritzia ez da hain optimista: argi eta garbi esango dut, Marxek nazio zapalduen berezko indarrak ez zuen ikusi. Ez zen konturatu nazio-borrokaren benetako garrantziaz, ez zen konturatu problema nazionalistez. Irlandako problema, Poloniako problema etab. klase-borrokari kontribuzio bezala ikusi zituen, besterik ez: laguntza bat, jakina, iraultza egiteko edo klase-borroka aurrera eramateko; ez zuten berezko garrantzirik.

Jakina, austro-marxistak aipatzea, Stalinen teoriak aipatzea, gaureguneko nazio txikien zapalkuntza ikuspuntu marxistatik interpretatzea... hori beste gauza bat da. Gauza bat bait da Marx eta beste bat marxismoa. Niretzat, Marx oso atzeratua gelditu zen estatu gabeko nazioen egoera aztertzerakoan, ez zuen konprenitu problema hau (badira horretarako arrazoiak, jakina: denbora hartan problema hau ez zen hain ageria, etab.).

Euskadin zein eragin izan du guzti honek? Marxen pentsaerak eragin handia izan du mundu guztian, eta Euskadin ere, dudarik gabe. Baina nire eritzi apalean, Marxen beraren egiazko pentsaera ez da oso ezaguna izan, ez da Marx bera ondo ezagutzen. Marxismoak, bai, joko handia egin du; baina ez edozein marxismok, ez marxismo ortodoxoak. Nire ustez, marxismo ortodoxoa ez da sartu hemen. Marxismoaren ezkerreko zenbait desbiderapen bai, sartu dira (akrazia etab.) Marxismo ortodoxoak garrantzi gutxi du herri honetan.

3. Marxek zer nahi zuen, zer bilatzen zuen? Agian, gizarte osoaren barruan, iraultza handi bat? Gizarteaz pentsatu bakarrik ez, baizik gizartea bera eraldatu errotik?

Gizarte-egitura aldatzea... Mundu kapitalistan guztiz murgildurik dagoen herri txiki batean, gurea bezalako herri txiki batean, mundu kapitalistaren gizarte-egiturak aldatu nahi izatea, utopia hutsa iruditzen zait; bitarte honetan, esan nahi dut. Nik ez dut ikusten nola egingo litzatekeen aldakuntza hori, mundu honetan, behar den bezala; ez dut ikusten. Hau da behinik behin nire eritzia.

[...]

Eten epistemologikoa aipatu da... Jakina, Marx gazteak eta helduak ez zuten berdin-berdin pentsatzen normala denez; baina eten hori ez dago. Adibidez, *Kapitala* liburuan zortzi aldiz edo gehiagotan aipatzen du Marxek alienazioa: Marx gaztearen kontzeptua da hori: nola aipatzen du *Kapitala*-n? Edo erlea eta armiarmaren enxeplua... Althusser-en eten epistemologikoa (hitza Bachelard-engandik hartu zuen) gaur ez du mundu guztiak onartzen. Kontuz ibiltzea

komeni da Marx gazte eta Marx helduaren arteko diferentzia horrekin. Beste aldetik, Marx zientifikoa aipatu da hemen: Marx zientifikoa al zen? Ez da batere argia: *sensu stricto*, ez zen zientifikoa, matematikalari bat den bezala. Zientzia haserretu bat da harena; ez neutrala, baizik borrokalaria. Eta ez da komeni bi gauzak nahastea, nik uste.

Beltzaren tesiaren parte batekin ados nago: badago, nire ustez, inkompatibilitateren bat marxista eta iraultzaile izatean. Eta, jakin, desbiderapenak sortzen dira. Zeinek du arrazoi, zeintzu dira egiazko marxista? Marxista ortodoxoak? Sobietarrak? Inork ez daki. Eta, bestalde, desbiderapenek ere badute beren arrazoiak; horregatik agertu dira 68ko maiatza eta.

[...]

Proletalgoaren problema, nik ez dut oso ondo ikusten. Adibidez, Marx berpiztuko balitz eta Euskal Herrira etorri, eta galdetuko bagenio non dagoen hemen proletalgoa, agian tutik esan gabe geldituko litzateke. Oso zaila da gizarte honetan proletalgoa non dagoen ikustea. Baina badago munduan beste proletalgo bat: adibidez, nazio atzeratuen proletalgoa, nazio atzeratuak. Horiek proletalgoa dira. Kontzeptuak oraindik balio du eta, adibidez, gure hizkuntza, proletarioa da; guztiz alienatuak gaude. Marxen proletario kontzeptua erabil daiteke; baina berak agian ez luke onartuko aplikazio hori. Proletalgo kontzeptuak oraindik balio duela uste dut. Baina haren lekua aldatu egin da eta beste gauzei aplikatu behar zaie.

Marx zientifikoa zen ala ez? Nik ez dut esan Marx ez zela zientifikoa: Marxen zientzia, beste mota bateko zientzia zela esan dut, ez zela zientzia klasikoa bezalakoa; eta, niretzat, Galileoren exenpluak ez du balio: Galileo matematiko eta zientifiko klasikoa zen; borrokalaria ere bai, baina hori beste problema da. Nik ez dut ukatuko Marxek kontzeptu zientifiko berri bat sartu duela: zientzia neutrala ez, baizik zientzia borrokalaria. Esan behar dut, halere, zientifikoek behintzat nahita esan behar dugu hori, Marxen zientzia beste mota bateko zientzia dela; balio du, dudarik gabe; materialismo historikoa kontzeptu zientifikoa da, baina ez beste zientzien modura.

[...]

Jokinek esan du, eta arrazoiz, klase-borroka ez dela motore bakarra. Hemen eta gaur, nik bi motore ikusten ditut: klase-borroka eta nazio-borroka. Zein da bietan inportanteena? Batzuentzat klase-borroka da lehenengoa eta besteentzat nazio-borroka; problema horrek ez du soluziorik, aterabiderik, eta bakoitzak

ikusiko du. Marxek ikusi ez zuena horixe da: klase-borroka ez dela motore bakarra, badirela besteak eta horietako bat, dudarik gabe, nazio-borroka da. Batzuek ez dute oraindik ikusi: hemengo jende asko, sozialista asko, ez da nazio-borrokaren inportantziaz oraindik konturatu.

Gerra nuklearraren mehatsua eta Europako egoera

Jaunaren deia, 86-87 zk., 1984-01

Sarrera

Donostiako elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltzarako Ikastetxeak ikastaro bat ematera gonbidatu ninduen. Gaia hau zen: munduak une honetan bere gainean daukan gerra nuklear baten mehatsuak aurrean jartzen dituen arazoak.

Hiroshima eta Nagasaki hirietan lehergailu atomikoak jaurtiki izan zirenetik ia berrogei urte joan dira eta Gizadiak ezin egosi izan du oraindik harma atomikoa. Ez da oraindik igaro ez eta igaroko ere historiaren orrialde hau, harma nuklearrak harmategietan eta jaurtiketa zelaietan jarraitzen duten bitartean.

Zalantzaldi beldurgarri hau, bi era hauetako batez amai daiteke bakarrik: gerra nuklearra bere ondorio izugarri guztiekin lehertzen da ala superpotentziak, harma atomikoak ekintza politiko eragingor batetarako alferrikakoa direla jabetzen direlarik, harmaok behin betirako apurtu eta berregiteko debeku eraginkor bat itzartzen dute.

Ulertezina da, izan ere, Europa guztia 222 aldiz suntsi lezakeen harmamentu guzti hori, biltegietan gorderik luzaroan eukitzea gerra nuklearra lehertu gabe. Posible al litzateke, adibidez, 50 urte barru misilak beren objetiboak destatuz hor jarraitzea deus gertatu gabe bienbitartean? Ez horixe! Ezinezko da. Urte asko baino lehenago bi superpotentziak gerra nuklear batetan burrutatuko dira edo, aitzitik harma nuklearrak zokoratzea erabakiko dute, harmaok gerra onuratsu batetarako tresna egokiak ez direlako.

«Gentza» Ikastetxeak eskainitako gaia arras interesgarria iduritu zitzaidan eta aipaturiko ikastaroa otsailean egin zen Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalaren Kultur Aretoan eta beronen laguntzarekin, «Harma nuklearrak eta kristau kontzientzia» izenburu pean.

Teologia eta Pastoraltzarako Ikastetxeak zera eskaini dit Jaunaren Deia aldizkariarentzat: Ikastaroan emaniko hitzaldietako zati batzu berregitea.

Eskaintza hau ohoregarri izan da niretzat eta pozik erantzun ere erantzuten diot hitzaldietako punturik interesgarrienak eskainiz.

Tamalez, nahi izanda ere ez daukat astirik neure erdarazko testuak euskaratzeko, premiatusun handiagoko beste burulanetan jo ta ke ari naiz eta.

Hori dela eta zera eskatu diot Aldizkariaren idazle taldeari: berak egin dezala textuen euskaratzea. Bihotz-bihotzez eskertu nahi diodan mesedea da niretzat alajaina!

Asmo-kentzearen krisialdia

Munduko egungo egoera politiko-militarra, zalantzarik gabe, asmo-kentze edo disuazio estratejia poliki-poliki etengabe okertzetik sortu da neurri batean.

Azken bi hamarrekotan zehar «izu-ikararen orekak» —nahiz eta arras eztabaidatua izan— superpotentzien artean segurtasun giro apur bat sortzen laguntzen zuen, gerra nuklear baten arriskua ahantzierazteraino ere iritxiz zenbait unetan.

Sasi-baketze edo izpirituen lozorro honen eta gaur eman den eritzi aldatetaren aztarnatzat zera aipatzen da, adibidez: gaur harmamentu nuklearren aurka mugitzen diren alemaniar eta eskandinabiar bakezale beraiek dela hamar urte doi-doi hau aipatzen zutela: Ekialde eta Mendebale arteko gerra nuklear baten ustezko arriskua, egiazko istilua estaltzeko era bat besterik ez dela, hots: Hego hustiatuaren burruka Ipar hustiatzailearen aurka.

Une honetan, asmo-kentzearen edo disuasioaren estratejian jarririko konfidantza galdurik dago. Asmo-kentzea finkatzen zeneko oreka bera ere badaezpadakoa zela nabari jarri da.

Azken bost urteotan argi eta garbi jarri da delako berdinketa estratejiko hori badaezpadako eta gezurrezko zela eta nazioarteko egoera arriskurik handienara heldu dela.

Superpotentziek, batak nahiz besteak, izugarritzko iduripena dute batak bestearentzat, ez iadanik hedatuak dauden harmamentuengatik, gaurkoak berak ere baino ahaltsuagoak izan daitezkeen harma berrien asmaketa eta gerra teknikengatik baizik.

Superpotentzi biok dakite besteko zientifikoek lanean ari direla etengabe beren harmamentuen bikaintzea lortzeko eta edozein unetan desberdindu

daitekeela bien arteko oreka, bakea bikutara bidaltzeko zorian. Egoera honetan oreka berez dator lurrera eta ez du balio beren arteko segurtasuna bermatzeko.

Honela, harmamentuen oreka ezarri lezaketen konponbide serioak, objektiboak eta egiaztagarriak aurkitzera heldu ez-ezen 63garren urtetik 79garren urteraino iraun zuen negoziaketa giroari, etengabeko porrot diplomatikoak jarraitu zaizkio azkenaldi honetan, sor-gorren elkarrizketa, harma mugaketarako ari zituzten hizketaldiak bat-batean moztu direlarik dela hilabete batzu.

Zalantza izpirik gabe zera baieztatu daiteke: nazioarteko egoera ez dela egon urte askotan orain dagoen bezain istilutsu eta nahasia. Guzti hau azaltzeko, kontuan eduki beharko litzateke asmo-kentze politika-aurreko prozesua, 1954an hasi zenetik.

On da gogoraztea bi aldi izan dituela asmo-kentzeak. Lehenengoa aldebatteko amerikarrek ezarria. Bonba atomikoaren jabetun bakarrak izanik amerikarrek sobietarrei buruan sartzen ahalegintzen dira: ez dezatela sobietarrek egin Estatu Batuek lehergailu atomiko erabiltzera behartu lezakeen inolako mugimenturik.

1962 urtea aldera, asmo kentzearen estratejia aldebitakoa dela esan daiteke. Nola amerikarrak hala sobietarrak hau adierazten ahalegintzen dira arerio izan daitekenari: harma nuklearra erabiltzeko asmoa bazter dezala, erabilketa horrek ekar lezakeen hondamendia kontutan hartuz.

Alde bateko asmo-kentzearen planteamendua 1954garren urtean egiten da lehenengo aldiz. Estatu Batuek, behar izanean lehergailu atomikoa erabiltzeko asmoa agertzen dute, munduaren gain duten nagusitasunari eusteko.

Estatu Batuak lehergailu atomikoaren jabe bakarrak izateak posible egiten zuen horrelako jarrera harro baina aldi berean isilpekoari eustea, beren buruzagiek ba zekiten-eta atomikaren erabilkera berri bat Gizadiak nekez barkatuko zien izugarrikeria zatekeela.

Foster Dulles izan zen aldebateko asmo-kentzearen dotrinaren asmatzailea, aipaturiko 1954garren urtean eta «errepresalia masiboa» edo «den-dena nuklearra» deitu zitzaion dotrina honi urte haietan.

Dulles-en estratejiak helburu politiko bat zuen, izen hori merezi duen estratejia orok nahitaez eduki behar duen legez. Izan ere, Clausewitz-en egunetarik gauza jakina baita soil-soilki militarra den estratejia batek, estratejia politiko jakin-jakin bati erantzuten ez dion estratejia militar batek alegia, ez duela zentzurik.

Dulles-en kasuan sozialismoak munduan zeraman aurrerakada gelaraztea zen helburu hori, hots, Errusia eta Txina herri komunisten aurkako burruka, Dulles-en ustez, hauek mehatsu bat bait ziren mendebalarentzat, une hartan.

Ikuspuntu honetan oinarrituta, Dulles-ek hau gogoematen zuen: gainerako gerra prolema guztiak bigarren mailan utzi behar zirela, berarentzat munduko bakearen zernahi aldaketa bloke komunistaren asmo iraultzailei egozgarri bait zen, funtsean. Sor zedizkeen istilu guztiak, beraz, hipotesi honetatik abiatuz erabili behar ziren.

Komunismoa zen burrukatu beharreko etsai bakarra eta harma nuklearra gudu hau burutzeko harmarik egokiena.

Gauzak hain soil eta bakun ikusteak Dulles-i bere pentsakera politiko-militarra bateratzea errezten zion: estratejia bakar bat, gerra bakar bat eta harma bakar bat nazioarteko ordena segurtatzeko.

Bake arazoaren bateratze eta orohartzeko honen arabera, Dulles-ek ondorengo arau estratejiko hauek jalkitzen ditu:

1) Bakearen aurkako eraso orok Estatu Batuen aldetik errepresalia masiboa ukango du. Erantzun hori URSS edo TXINA popularraren aurka izango da, herri biok jotzen bait dira istilu piztailetzat.

2) Munduko bakearen defentsarako Estatu Batuek harma nuklearra erabiliko dute beharrezkotzat jotzen duten aldioro, harma konbentzionalak bigarren tokian utziz, desegokitzen jotzen bait dira hauek nazioarteko ordena berriari eusteko.

3) Eta hala gertatuz gero komunistek eramango luketen jipoi eta hondamendi izugarriak tokiko gerlen bidez nahiz beste herrietan ekintza nahastaila eta iraultzaileak bultzatuz munduko bakea aldatzeko luketen asmo oro kendu behar lieke beroei.

Handik laster, Vietnamgo gerrak begibistan jarri zuen tesi hauen ahultasuna, gerra honetan, izan ere, ez eta Koreakoan ere, amerikarrak ez bait ziren auzartu harma nuklearra erabiltzera.

Vietnamitarren eta frantsezen arteko gerrak ez zion komunismoak herri kapitalisten aurka darabillan gerraren eskemari erantzuten. Funtsean —eta baitipat— askapen burruka zen zergati edo motibazio nazionalistetan oinarritua eta ez zitekeen baieztatu frogagarriekin txinarrek eta errusiarrek istilu hartan burruntzalia zuzenki sartu zutenik. Amerikarrek ezin, beraz, hauen aurka gerra hasi arrazoitasunik funtzezkoena bortxatu gabe.

Honela gauza bat geratzen zen argi eta garbi: ba direla munduan istilu mota batzu Dulles-en eskema bateratzailean sartzen ez direnak eta errepresalia masiboaz konpon ez daitezkeenaz.

Bestetik, Vietnam-ek gerrilla-gerra egin zuen eta bere basa-gerlari guztiak sakabanatuak zeudenez, egundoko oztopo teknikoa sortzen zien amerikarrei lehergailu atomikoa erabiltzeko.

Gainera, Estokolmo-ko Manifiesto-aren eta zientzilari askoren deklarazioen eraginez bizitua izan zen Mendebaleko munduaren sentiberatasuna, harma beldurgarri hori erabiltzearen aurka zegoen. Nahiz eta harma nuklearren hesparruan denen gainera egon, Estatu Batuek beren herri adiskideen eritzi publikoa aldeko izatea beharrezkoa zuten. Eta arrisku hau zegoen, gainera, tarte, hots: Asia guztian Estatu Batuen aurkako erreakzioa sortzea, eraso atomiko berri batek, arraza horiko herri bat zigortuko bait zuen beste behin.

Guzti honen ondorio bezala garbi agertzen ziren Dulles-en dotrinaren oke-rrak eta beroiek porrot eginerazi zioten haren estratejiari.

Baina amerikarrak jarreraz aldatzera behartu zituen benetako arrazoa, sobietarrek harma eta ibilgailu nuklearretan egindako aurrerapena izan zen.

Hirurogeigarren urterako iritxi zuen URSS-ek amerikarren parean egotea hesparru militarrean. Hau da, munduko estratejiaren zenbait frontetan hauekin lehiatzeko eran aurkitzen zen.

Estatu Batuek galdua zuten monopolioa ez-ezik baita lehentasuna ere, eta ez zitekeen asmo-kentzeaz alde batetik bakarrik hitzegiten jarrai.

Orduantxe agertu zen Ameriketako asmo-kentze malgu edo berezituaren dotrina, geroago bere bilakabidean planteamentu ezberdinak izango zituena, hala nola Kissinger-ena 1957an, McNamara 1962an eta Schlesinger-ena 1976an.

Une hartatik asmo-kentzea ez da gehiago aldebateko izango: aldebiko bihurtze da, arazoaren muina guztiz aldatua geratzen delarik. Hau da, ez dira amerikarrak bakarrik Mendebalearen aurkako eraso bat ez hasteko sobietarrek komentitzen ahalegintzen direnak, baizik eta sobietarrek ere asmo-kentzearen estratejia erabili nahi dute Estatu Batuen aurka.

Gutxi-gora-behera honela labur daiteke gaurdaino funtzionatzen egon den asmo-kentzearen dotrina:

1) Gerra totalaren ideia ordea edo osagarri bezala gerra mugatuena jarri behar da. Hartatik guztiz berezitu behar duten gerra hauetan ez da harma

nuklearrik erabiliko harma konbentzionalak baizik edo gehienez harma nuklear ttipituak.

2) Amerikarren «santutegia», hau da, Estatu Batuen lurraldea eta populazioa erasotuak badira eta orduan bakarrik, jarriko lukete jokuan harma nuklearra osokiro.

3) Gerra osoa eta gerra mugatuaren arteko berezketa delako «nuklearizapen gailurrak» garantizatuko luke. Hitz horrekin zera ulertu behar da: Bete behar liratekeen baldintzak kasu jakin batetan gerra batetik bestera igarotzeko.

4) Etsaiaren «santutegiari» begirune izatea behar-beharrezko da bi alderdien oinarritzko kontsigna edo ixilpeko ituna, gerra bete-betean leher ez dadin.

5) Nolanahi ere, egundoko hondamendi baten elkarri eginiko mehatsuak aski izan behar du gerrei «arrazoibidezko» mugen barruan eusteko.

6) Hala ere, Estatu Batuek indar batzu joak ez izateko moduan gorde beharko dituzte «bizi ez biziko» kasuan defentsa nuklear masiboa egiteko gauza izango direnak.

7) Gerra nuklearraren barruan maila batzu ezarriko dira, lehenengo, bigarren zartakoaren eta eskaladaren etabarren artean berezketa eginez. Mailaz-mailako estrategia deritzaio honi.

8) Hautabide estratejikoak, Dulles-en garaian ez bezala —orduan hondamenezkoa onartzen zen bakarrik— ugarituko dira gerta litekeen krisialdi mota bakoitzari erantzun egokia eman ahal izateko modukoak.

Gorago esan dugunez, denek bat datoz hontan: asmo-kentze edo disuasio estratejiak aski ongi funtzionatu duela azken hogeitun urte hauetan, potentziek segurtasun apur bat ukan dutelarik epe horretan.

Baina hasera-haseratik kritika zorrotzak jaso zituen estratejia horrek, zeren bakea segurtatu baino arrisku haundiagoan jartzen bait zuen. Asmokentzearen aurka gutxi edo asko toki guztitan adierazten diren arazoibideak edotarikoak dira eta ez indargabeak.

Lehendabizi asmo-kentzea arras garestia ageri da. Harmamentuak mantendu ez-ezen berritu eta etengabe bikaintzea eskaintzen bait du. Eta jakina, gauza garestia da hori eta munduan dagoen miseria eta azpiaurrerabidea burrukatzeko erabili behar liratekeen diru-pilo haundiak hortan xautzen dira. Munduko kontzientziarentzat egiazko gaizbide noski.

Bestalde asmo-kentzeak etengabeko tirabira eta gerra arriskua mantentzen du eta bertatik bizi dela esan daiteke. Gerra nuklear baten arriskua disuasioaren

funtsezko osagarria da. Baina, honela, segurtasuna elkarren aurka jarrita dauden ikuspuntu subjektiboen baitan geratzen da. Eta hara hor istiluen iturri agortuezina.

Oreka kontzeptua beti da mugikor eta segurtasunik gabea eta zentzu honetan aldaberatasun iraunkor bati eusten laguntzen du. Horregatik, bere ondorioa kaltegarri gertatzen da bakeari epe luzean eusteko.

Disuasioak gerraren ideia darama bere erraieran, etengabeko gerra mehasua, amaitzen ez den gerra hotza. Gerra finkatzen du eta etengabeko errealitate bihurtzen bertatik nola ihes egiteko biderik ez dakigula.

Azkenik, disuasioak egiazko prozesu politikoa izozten du, gizadiak une honetan konpondu behar lituzkeen prolemei buruz elkarriketa egitea eragozten duelarik. Ez du, beraz, balio historiaren geroari aurpegi emateko.

Mundu guztiak daki egoera honen irtenbidea ez daitekeela etengabe gerorako utzi. Disuasioaren politika iadanik ahitua dago eta ordezeko bat behar du. Baina inork ez daki argi eta garbi zer ledikeen hori...

Une honetan, bi blokeen gidariak, itxura denez, aidura eta zalantza batean daude, diplomaziaren indargabetasunak ederki frogatzen duenez.

Nahasmen honek mendebaleko herrialde gehienen eritzi publikoan sortzen dituen ondorioak negargarriak dira. Jendeak zera pentsatzen du: gobernuetinkotasuna galdu dutela eta guzti honen atzetik hondamendi haundi bat etor daitekeela alegia.

Baina jendetzen beldurra beti da arriskugarri.

Beren deskribapenak egitean eta gaur-gaurkoz lortuezinak diren eskakizun politikoetan gaizki gidatuak dabilzan bakezaleen mogimentuek ere, etsipenezko giro txar hori oraindik larriagotzen dute. Gezurra badirudi ere, gobernu berriek ere etsipena sortzeko ekintzak bultzatzen jakin dute, adibidez, Estatu Batuetan behin baino gehiagotan gertatu den bezala, defentsarako Idazkaritzak Parlamentuari eta Senatuari kreditoak eskatzea beharrezko zela uste izan duenean, harma berriak sortzeko eta gastu militar berrietarako.

Gerra mugatuaren balio bikoitza

Gai hauetan jakintsu direnek argi eta garbi jarri dute gaur gerra mugatuak duen alderdi bikoitza. Egoera jakin batean, gerra mugatuak duen alderdi bikoitza. Egoera jakin batean, gerra mugatuak balbula eginkizuna bete dezake eskala

handiko gerra nuklearra aldentzeko, baina aldi berean zera ere esan daiteke: gerra mugatuak direla lurrustelik hoberena gerra totalaren sorkuntzarako, alegia.

Lehenago aipatu dugunez, Korea eta Vietnam-go gerretan —zeinetan Estatu Batuek burua makurtu beharrean aurkitu baitziren nahiz eta hesparru nuklearrean gailentasuna eduki— «errepresalia masiboaren» dotrinak porrot egin ondoren, amerikarrek estratejiaren dotrina berri bat aurki behar izan zuten.

Honela, garrantzi gutxiagoko objektiboen aurrean gerra mugatua erdibide bezala ageri da «laissez faire» jokabidearen (zeinetara Estatu Batuek ez zituzkeen mugatu, eskuarki, munduan zeukaten gailentasuna ikusita) eta bi blokeentzat egundoko hondamendia litzatekeen gerra nuklear baten artean.

Kissinger-ek argi eta garbi azaltzen du ideia hau 1957an, bere liburu ospetsu honetan: «Gerra nuklearra eta nazioarteko politika». Honatx bere esaldietako batzu: Harma atomikoa harma indartsuegi bilakatu da... Inoiz baino indartsuagoak garen ordu honetan, zera ikasi behar dugu: potentzi harmatua helburu politikoei zehazki egokitua ez dagoenean, ez duela balio ekintzarako ondorio gelditzaileak sortzen ditu-eta. Ez da gauza premiazkogorik gure politikarentzat —gehitzen du— gure ahalmen militarra helburu estratejikoetara egokitzea baino».

Ez du deusetarako balio egundoko harma ahaltsoak edukitzea egiaz erabilgarriak ez badira. Bigarren mailako estatuek, militarki garrantzi gutxikoak direnak alegia, estu har gintzake —idazten du Kissinger-ek— gerra hedatuari dago-kion indarra ez bait da gerra mugatuetan erabilia izateko egina.

Urte haietan, iparramerikar estratejen artean ideia hau hedatzen da: gailentasunak ez duela deusetarako balio beste superpotentziarekin gerra batetan, zeren, nahiz eta gailentasun hori mantendu eta bermatuko balitz ere, sobietar arerioak kalte edo galera neurrigabeak eta ezinonartuak sorreraz lietzakieke Estatu Batuei.

Argi eta garbi dago hau estratejiaren aldetik, hemen Gallois generalak zionsana gertatzen bait da: atomoaren ondorio berdintzailea» alegia. Gerra klasiko batetan, 50 dibisio dituen herri bat, 100 dibisio dituen beste baten aurrean nahitaez porrokatua izango litzateke. Herri batek 5.000 megatoni eta beste batek 10.000 megatoni dituen kasuan, lehenengoak ez luke bigarrenaren aurrean burua makurtu beharrik izango, biak elkar hondatuko lukete, eta ez legoke beste garaien motarik ez batarentzat ez bestearentzat.

Gerra mugatuaren kontzeptuaz arrazionaltasun pixka bat sartu nahi da berez zorakeria hutsa den egoera batetan.

Kontzeptu hori, alabaina, arras urrun dago zentzu bakarreko izatetik. Gerra mugatuak askotarikoak dira; denak daude bata bestearekin lotuak eta zerrikusia dute gerra osoaren mehatsuarekin zuzenki edo zeharka.

Gerra bat izan daiteke mugatua lortu nahi dituen helburuengatik; geografia aldetiko hedadura haundiago edo ttipiagorengatik; jokuan jartzen dituen baliabideengatik.

Hala ere, amerikar estrategek gerra mugatuaren kontzeptua asmatzen dutenean, aurreko dotrinari kontrajarriz egiten dute. Honela, gerra mugatuak zera adieraziko luke funtsean: nuklearra ez eta osoa ez dena. Haientzat nahiz batetik nahiz bestetik, edo hobeto esateko, bietatik ihes egitea da, aipaturiko bi fenomenoak praxian bat bakarra bait dira... Gauzak gaurregun dauden bezala, gerra nuklear bat nahitaez gerra oso bihurtuko litzateke eta, alderantziz, gerra oso batek harma nuklearrak erabiltzea eskatuko luke bahitaez.

Bi superpotentzien arteko gerra baten kalteak sahiestea asmo bikaina dirudi, baina, gerra mugatuaren aldekoen planteamenduaren arabera, baztertu nahi dituenak baino desegokitasun gehiago eta arrisku handiagoak sortzen ditu.

Gerraren ideia hain beldurgarri ez izatea bilakatuz, bere ahalbidea errezten du. Eta hau da, hain zuzen, gerra mugatuaren lehenengo kontraesana, baina ez bakarra, noski.

Harma nuklear pilo haundia duten herrien artean gerra mugatua egiteko ahalbideak alde aurretik isilpeko hitzarmen hau suposatuko luke: harma nuklearrak alde batera utzi eta hain hondatzaileak ez diren harmekin burukatzea, alegia. Baina nork garantizatzen du neurribide hori? Nork eragotziko bietako bati bere esku dituen defentsarako harmak erabiltzea behin bere egoera estularri bilakatuz gero?

Kasu honetan, gerra mugatua gerra osoa hasteko sarrera edo plataforma bat litzateke.

Gerra mugatuak arau batzu suposatzen ditu, adibidez: arerioa aski informatu-rik edukitzea, une bakoitzean besteak dituen asmo taktikoei buruz, arerioaren interpretapen oker batek gerra behar baino lasterragotzea eragotzi dezan bederen.

Baina uste hau ameskeria hutsa da eta nolarebait inozua. Inork ez bait daki, izan ere, zertan legozkeen egiaz arau horiek eta arras arriskugarri dirudi hau bezalako joku beldurgarri batetan hastea, alde aurretik bere arauak ezagutu gabe.

Ez da aski gerra mugatuaren burrukaideek, nork bere aldetik, bere arauak erabakitzea. Honetzaz gainera beharrezko da arau horiei buruz akordio batetara

heltzea, eta Estatu Batuen eta Sobiet Batasunaren arteko gerra batetan gauza arras zaila dirudi horrelakorik gertatzea.

Nahi bada edo ez, gaur egun harma nuklearra istilu orotan dago presente, nahiz eta bera ez aipatu. Harrizko mahaikide edo dugu, bat-batean bere kontura mintzatzen hasten dena. Estrategiek kontuan ukan behar dute beren kalkuluetan. Harma horietara jotzeko ahalbideak edo tentaldiak gerra mugatuaren ideia oro iluntzen du.

Gaur egungo baldintzetan, bi superpotentzien edo hauetako baten eta bestearen aliatu edo kideen arteko gerra batek laster ihes egingo luke botere politikoaren kontroletik. Bietako bati eskalada ezinbesteko behar militarizat ezarriko liezaioke, bere lurjotzea eragozteko.

Gerra mugatu bat irabaz edo gal daiteke Gluksmann-ek diotsanez, baina, galtzekotan norik eragotziko dio galtzaileari mugak gaindituz gerla askoz zabalago batetara igarotzea, hau nazio independente bezala bere deuseztea eragozteko baldin bada?

Gerra mugatuari egiten zaion kritikarik garrantzitsuenetako batek haren ahultasuna erdiz-erdi jotzen du: gerra mugatuak ez du berekin gerra osoa, totala deusesten, honen eranskin bat da baizik.

Kissinger-ek guztiz garbi utzi zuen arazoa zera esatean: «gerra mugatua ez da errepresalia masiboaren aukerabide bat, beronen osagarria baizik».

Harmamentu nuklearrak beren indar neurri osoan gordeak izan behar dute amerikar «santutegiaren» «funtsezko interesak» eta segurtasuna arriskuan jar ledizkenerako.

Behin eta berriz Kissinger-ek azpimarratzen duen ideia da hau. «Gerra nuklearraren izugarrikeriak kontutan harturik, posible da honek tresna politiko onuratsuaren eginkizuna galdu izana, *nazioaren bizi iraunpenerako duen eginkizun bakarra salbu*».

Azkena jorik, gerra mugatuaren estratejiak bi egoera moeta bereiziko lituzke: Estatu Batuen «defentsa ingurutik» at gertatzen direnak eta santutegia benetan eta hurbil-hurbiletik arriskuan jarriko luketenak. Bigarren kasu honetan erantzunaren «arrazoibidezkotasuna» askoz zalantzarriagoa litzateke. Gauza aurrez ezin ikusia da guztiz eta —Lucien Poirier-ek dioen bezala— «zernahi gerra mota» gerta liteke.

Harma indartsuenen erabilkera zuritu nahiz amerikar herriaren «funtsezko interesen» defentsara eta «bizi-iraunpenerako» burrukara jotzea bada-ezpadako

irtenbidea da. Zeren, azken batean, inork ez bait du jakinen noiz dauden arriskuan amerikarren —edo sobietarren— funtsezko interesak, edo hobekiago esateko, noiz eritziko duten batzuek nahiz besteek hala daudela.

Gerra bat izan daiteke mugatua burrukaide batentzat eta osoa bestearentzat. Honela adibidez —ohartzen du Anibal Romerok— Vietnam-go gerra mugatua izan zen Estatu Batuentzat baina ez vietnamitarrentzat. Hauek hontaz komentzituta zeuden: jokuan zegoela beren bizi-izatea alegia, eta arrazoin honengatik gerrarako zeuzkaten indar eta medio guztiak erabili zituzten. Inork ez ziezaiekeen erabiltzea eragotzi, seguraski, harma nuklearrak eskura eduki izan balituzte.

Bi superpotentzien arteko gerra mugatu batetan aski litzateke bietako batek bere burua besteak seriooki mehatsatua ikustea eskaladari egiteko. Eskalada honek, jakitun askoren ustez, gerra osora jo lezake bakarrik.

Harma nuklearrak hor dirauten bitartean, gerra mugatu bakoitza hutsean jauzi egitea edo litzateke, aldatz behera abiatzea bezala, hondamendira amiltzeko.

Arrazoin honengatik egungo estrategia bakarrak, harma horiek desegitea izan beharko luke, beroiek bipilki gutxitzetik hasita behar izanez gero.

Honen ondoren mintza liteke bakarrik gerra mugatuez arrazoitasun piska batez.

Gerra mugatuari buruz egin ditugun gogoeten antzekoak egin litezke ere harma nuklear taktikoei buruz, zeren honen zati bat bait dira.

Berrogeitamargarren urtean hasi ziren amerikarrek harma nuklear ttipituak erabiltzen. Hasera batean ezinezko izan zitzairen, leherketa atomikoa sortzeko material nuklear edo gutxieneko masa kritiko bat behar bait zen. Hiroshimako lehergailua baino 40 aldiz indar gutxiagoko harmak, hots, ez kiloton bat baino gehiagokoak, egitea lortu zuten. Honekin, harma konbentzional eta harma nuklearren arteko diferentzia gutxitzen da. Ez dago eten haundirik batzuen eta besteen artean.

Lehen begiratuan bakezaleek ez tizan egon behar zuketena asmaketa hauek gerla nuklearraren ondorioak biguntzen zituzten-eta. Baina, ordurarte bi harma moeten arteko berezketa garbiari eutsi zitzaion bezala, harma nuklearren garrantzia gutxitzearekin beroiei isilpeko atetik sarbidea ematen zitzairen eta horrekin eskalada arriskua gertagarriago egiten zen.

Ez ziren, ez, harma nuklear ahaltsuenak kanporatzen edo zokoratzen, baizik hauek hor jarraitzen ziren TNW (Tactical Nuclear Weapons), gaztelaniaz ANT (armas nucleares tácticas) deiturikoak sortzen ziren une berean.

Era honetan gero eta errazago eta gertagarriago bilakatzen zen lehenengo harmak erabiltzea, hau da, harma atomiko estratejikoak bere ahalmen guztian erabiltzea.

Baldintza hauetan, nuklearizapen gailurra noiznahi izan zitekeen ohargabe-ki igaroa, zuhurtzurik gabeko inizatiba baten ondorioz. Sinboloa apurtua izan zen, hots, ordurarte harma nuklearra harma «klasiko» edo konbentzionaletatik berezten zuen hesi sikolojiko.

Bestalde, ANT-ren erabilketa bada-ezpadakoa gertatzen da izugarri. Hone- la, amerikarrek harma taktikoak deitzen dituzten euromisilak salatuak izan dira sobietarren aldetik eta arrazoinez, zere harma horien tiramena errusiar santu- tegiraino heltzen bait da eta edozein unetan arriskuan jar dezakete. Berdintsu gertatzen da «neutron bonba edo harma» deiturikoarekin. Harma honetan on- dorio erradiaktiboak indartu egiten dira, ondorio termiko eta mekanikoak gu- txitu egiten diren bitartean. Harma izugarria da, nahiz eta harma nuklear osoa- rekin ezin berdindua izan.

Laburtuz, harma nuklearren erabilkera arintzeko ahaleginek harma horiei beldurra galtzeko balio izan dute, eta zentzu honetan, arriksu bat sortu da lehe- nengo lehergailu atomikoak zutena baino are handiagoa.

Europako egoera

Aurreko lerroetan gainez-gain azaldu dugun munduko ikuspegi estrateji- koan, Europa egoera arras larrian aurkitzen da. Estratega askorentzat Europa da neurri handiko gerra-leku posibleen artean posibleena une honetan.

OTAN eta VARSOVIA-ko ITUMENAREN arteko etsaitasunak zera ekarri du: Europan egitea munduko indar militarren pilatze edo batzerik handiena. Argi eta garbi agertzen du honek, nolakoa den egoera. Ekialdean, nahiz eta Er- di-Amerikan edo lurberaren beste lekuetako giro eta tirabirak latzak izanik ere, politikoek eta militarren arreta handienak begiratzen dute gaur Europarantz, gerra handi bat errez lehertu litekeen puntura bezala.

Europa, une honetan, sinbolu bat da, eta pizgailu bat. Alde batetik nahiz bestetik Europa-ko statu-quo-ren zernahi bortxaketak gerra bat erakarriko luke berehala eta ezin neurtu noraino iritxiko litzatekeen.

Egoera hau oraindik arriskugarriago egiten duena hau da: amerikar estrate- gek gertagarri ikusten dutela Europan «antzes gerra» bat, hau da, Europa «an- zeslekura» mugatzen den gerra bat Amerika zuzenki ikutuko ez duena.

Europa izango litzateke, hain zuzen, gerra-lekurik egokiena bi superpotentzientzat, bietako batek gerra osora heldu gabe egoera haztatu nahi balu.

Amerikarrek beren lurraldetik urrun dagoen burrukalekua ikusten dute European. Errusiarrek, berriz, gerraleku hurbila, beren esku dagoena guztiz, zeinetan beren indar konbentzionalen ekintzek efikaziarik handiena lortuko bait luke.

Harma atomikoa agertu zenetik errusiar estrategek harma konbentzionalen alde egin zuten apostu. Harma nuklearreari garrantzia kendu eta beren harma konbentzionalak ahalik gehien berrindartzea erabaki zuten. Indar konbentzionalen soroan sobietarrek duten nagusitasuna, puntu ahula den Europa etengabe mehatsatuz, zen beraien harmarik garrantzitsuena amerikarrei asmoa kentzeko. Errusiarrek, harma nuklearrez hornitzeari uko egin gabe baizik soro honetan amerikarrekin parekatuz, hipotesi honetatik abiatu ziren: Errusiar indar konbentzionalen aurrekada European zehar ezin geratua litzatekeela harma nuklearren bidez, kontinentearen baldintza geopolitikoak eta demografikoak diren bezalakoak izanik.

Europa, bada, nazio erraldoi hauen interes estratejikoek «sail-point» edo bateratasun puntua da, bion arteko gerra mugatua beharrezko egingo balitz.

Abaguneari lotuak dauden arrazoin hauez kanpo ba dira beste batzu askoz sakonagoak eta herrien «estrategia iraunkorren» kontura zordundu behar direnak, gora-behera politikoen gainetik eta errejimenak aldatuarren, mendeetan zehar bizirik dirautenak.

Europar eraskina menpean hartzea Errusiaren betidaniko ametsa da, iraganaldian inoiz lortu ahal izan ez badu ere, gaur horretarako aski indar edukirik, lortzen ahaleginduko da politika bidez nahiz —egokiera emanaz gero— indar militarrez. Guzti honetan halabeharra edo Historiaren konstante bat ematen da, Errusiak Europa menpean hartzera bultzatzen duena, nahiz eta hau ez egon sozialismo/kapitalismo ideologiaren arteko burrukari zuzenki lotua.

Oharkizun hau garrantzitsua izan daiteke European egoera bere benetako errealitatean aztertzerakoan, gogoeta ideolojikoak bazter utzirik.

Orain-oraingoari begiratuz oharkizun hau egin behar da: delako egoera hori OTAN eta VARSOVIA-ko ITUMEN-eko buruzagi militarren etengabeko presentziak ukitua dagoela. Zentzu honetan zera esan daiteke: botere militarra dependentzi edo menpekotasun handi bat ezarriz jarraitzen dela Europako planteamendu politikoetan.

Argi eta garbi dago OTAN-ek Europan egin duen misil hedaketak egoera oraindik larriago bihurtu duela politikaren ikuspegitik behintzat. Arazo honi buruz zer jarrera hartu europarren artean, nahiz hauen eta amerikarren artean, dagoen eritzi banaketak gailurra jo du.

Galdetu behar litzatekena zera da: nola heldu diren Europara delako misil horiek eta aurreko saila eta zein den hauek betetzen duten eginkizuna bakearen defentsan.

Amerikarrek harma atomikoaren monopolioa eduki zuten denboran, Errusiaren harma konbentzionalak gainera zetozkion Europari eta honek nolarebait defenditu beharra zuen presio honetatik.

Hasera batetan, defentsarako europar elkartean pentsatu zen, baino asmo honek porrot egin zuen eta laister ikusi zen Europa ez zegokeela bere burua defenditzeko eran, sobietarren eraso konbentzional baten aurrean.

Europako gobernuek edo, behintzat, Europako gobernu batzuek, errusiar erraldoiaren mehatsua nabaritzean, era askotara bat eginda zegoen amerikar adiskidearengana jo beharra onartzen dute. Bestalde amerikarrentzat funtsezkoa zen Europa aldetiko leihoa babestea, bere sistema estratejikoak porrot egin zezakeen aldetik. Honela Europa OTAN-en eskutan geratzen da funtsean; baina honek buruhaustea sortuko ditu.

OTAN-en etengabeko eztabaidak sortzen dira Kontinentea defendatzeko moduez. Ideia honetatik abiatzen ziren: Errusia-ren eraso ematekotan konbentzional erakoa zatekeela alegia. Baina egiazko buruhaustea hau zen: nola jakin zer medioz defendatu behar litzatekeen Europa, harma konbentzionalen bidez ala harma nuklear taktikoen bidez?

Iparamerikar estrategek behin eta berriz zera azpimarratzen zuten: indar konbentzionalak Europa URSS baino gutxiago zela eta kontinentearen defentsa harma nuklearren bidez sendotu behar zela. Honela hasi ziren irixten misilak Europara. Bestalde, Estatu Batuek erabateko garantia eskaintzen zuten: sobietarrek Europari eginiko erasoak funtsezko arriskua ekarriko luke Amerikarentzat ere eta, beraz, sobietarren aurkako gerra osoa esan nahiko luke.

Eta honela ezarri zen «amerikar aterkia» delakoa eta bere babespean bizi izan da Europa hogeitamar urteotan, asmo-kentze edo disuasio quadro orokorraren barruan.

Hala ere gauzak ez daude hain argi eta garbi.

Asmo kentzearen estratejiak aski ongi funtziona dezake hor sarturiko alderdiak bi bakarrik direnean, baina ez hirugarren «partenaire» bat dagoenean.

«Asmo kentze zabalduan» (extended detenance) erlazio trianguluarra daukagu. Izan ere, hirugarren batek eskuhartzen du, Europak alegia. Honen mesedetan jokatu beharko luke disuasio amerikarrak sobietarren aurrean.

Komentzituta al daude europearrak sobietarren aldetik eraso emango baltiz amerikarrek gerra sobietarren lurraldera eramango luketela? Eta —oraindik garrantzitsuagoa dena— komentzituta al daude errusiar beroiek europearrak hala daudelakoaz?

Puntu honetan huts egiten du disuasio triangularraren jokuak eta Europako egungo egoeraren nahasmena azaltzen du hein batetan. URSS-erentzat, Europari eraso bat egitea erabakiko balitz, arazoa ez litzateke izango zer harma moetak in egin behar lukeen erasoaldia, bizik eta amerikarrek Europa defendatzeagatik den-dena jokatuko lukeen ala ez, Errusia lurraldera errepresalia nuklearra eramanez.

Baina OTAN-en atzean mailaz-mailazko defentsa bat besterik ez badago negozioa ustel atera lekieke europarrei, zeren Europa osoa edo honen zati handi bat hondatua izango bait litzateke.

Une honetan europearrek arrazoin serioak dituzte hontaz dudatzeko: amerikarren borondatea azken ondorioetaraino iritsiko ote litzatekeenaz arazo honetan eta, ondoriobidez, Errusiari buruzko amerikarren disuasioaren efikaziaz.

Nahiz eta hasera hartan errepresalia masiboaren dotrinak Errusiari kontraeraso nuklear bat egiteko segurtasuna eskaini Europari, gauzak aldatzen joan dira, amerikar estrategek amerikar beren jarrerak hobetu hala asmo-kentzearen estratejiari buruzko berezketak eginez.

Kissinger bera hasi zen ametsak desegiten. «Nor egon daiteke zihur —idazten zuen— gerra oso baten hondamendi posiblearen aurrean Estatu Batuek honelatsu eritziko dutela, alegia merezi duela arriskatzea baita Europarengatik ere, nahiz eta hau gure segurtasunaren giltza izan luzaroan?»... «aurkituko al genuke amerikar lehendakari bakar bat ere berrogeitamar amerikar hiri opaltzeko prest legokeena Mendebaleko Europaren segurtasunaren truk?». «Gure aliatuak hontaz jabetu behar dute: guk lurralde bateko orekari ez-ezik mundu guztikoari eusteko beharkizuna dugula» etab.

1959. urtean itzal handiko beste amerikar idazle batek, Bernard Brodiek alegia, ideia berak jalkitzen zituen: «Zihur egon gaitezke geure indar nuklearrak erantzungo dugula zuzenki erasotuak baldin bagara... Baina, berdin jokatuko al

dugu Britania Haundia bada erasotua edo soilki mehatsatua? (Bernard Brodie «Strategy in the Missile Age» Lucien Poirier-ek «Des Strategies nucléaires» liburuan aipatua).

Argi eta garbi geratzen zen gauza bat dela norberaren santutegiaren defentsa eta oso besterik aliatuaren lurraldearena.

Bestetik, zenbait disuasio estratejia (berezitua, malgua, mailaz-mailakoa, etab.) arras kaltegarriak liratekeela Europarentzat, bere lepotik eta bere larru gainean praktikatuko lirateke-eta. Europa ttipiegia da eta bizilagunez beteegia gerra nuklear baten ondorioz ezabatua ez izateko. Europa babesteko era hau, hondakin pilo bat bilakatzetik hasiko litzatekeena alegia, ez daiteke onargarri izan Europako ezin gobernurentzat.

Alemaniarrek arras sentiberatsu dira arrazoibide honen aurrean, beroiek izango lirateke-eta, noski, ekinaldi honen lehenengo biktimak. Eta proiektu estratejiko jakin batzu ikusita ba da arrazoinik franko baieztapen hori egin ahal izateko.

Estatu Batuen hiritarren ikuspuntutik munduko gerra berri bat beste behin ere Europako lur gainean eta beren lurraldetik urrun eta sobietarrekin harma nuklearrez burrukatzeari ihes egitea mesedegarri lekieke. Baina europarrok ez daukagu beste biderik zera esatea baino: ez gaudela batere ados.

OTAN-en itxura eta akordio militarren azpitik ba da kontraesanik europarren eta amerikarren interesen artean. Alemaniaren lurraldean gerra eginik amerikarrek ia deus ez dute arriskatzen; errusiarrek deus gutxi, baina europarrek den-dena arriskatzen dute.

Gerra konbentzional batek berak ere —teknologi goreneko harmez («adimendun harmak» batzuen deituraz) eginikoak— munduko azken gerrateak baino ahalmen hondatzaile erruz handiagoa ukango luke.

Lehenengo zartakoa emateari uko egitearen delako estratejiak, OTANgo jakintsuek noizbait aztertua izan denak antza denez, errusiarrei erasoaldi konbentzional bat egiteko bidea emanaz ondoren haien aurka harma nuklear ttipiez kontraerasotzeko, estratejia honek —diot— Europaren azkena esan nahiko luke.

Guzti honetatik batzuek ondorio hau ateratzen dute: Europak ez daukala defentsarik eta irteera bakarra OTAN alde batera utzita sobietarrekin neutraltasun egoera bat hitzartzea litzatekeela alegia. Honela bakarrik —diote— begira daiteke Europa hondamenditik.

Hau honela delarik, honek Mendebaleko Europako estatuek Ekialdekoen antzera Sobiet-aren «satelite» bihurtzea suposatuko balu —agian hala

suposatuko luke— eskainitako irtenbidea ez litzateke irtenbide, beste hondamendi moeta bat baizik, hondamendi materiala baino askoz okerragoa dena askorentzat. Nahiago hil gorri baino? Naiago gorri hil baino? Ez bat eta ez bestea. Hori litzateke erantzun posiblea kausa komunistaren eskuetan bere burua «a priori» eman ez duen europar batentzat.

Baina ez dirudi hau denik mendebaldar gehien azken jarrera. Laburtuz, gerra bat ematekotan zer gerta ledikeenaz hipotesi batzu jalki daitezke.

Lehendabizi, jakina, gerrate osoa. Elkarren aurkako errepresalia eskalada bat, bi potentziek beren lehergailu nuklear guztiak erabiliz. Kasu honetan, begibistakoa denez, ez legoke Europaren ezabatzeaz mintzatzerik, mundu zibilizatuaren suntsipenaz baizik. Mila urtetako atzera jauzia giza espeziaren prozesuan, agian betirako, gerora birreskuratzeko posibilitaterik gabe.

Bigarren hipotesia Europara mugaturiko gerra batena litzateke, honelako gerra bat eman litekeela uste izanik —eta asko uste izatea da hori, noski—. Europara mugaturiko eta harma konbentzional bikainduekin edo harma nuklear taktikoekin eginiko gerra batek gure kontinentearen zatirik handienaren suntsipena erakarriko luke —lehenago ere esan dugunez—.

Ba da hirugarren hipotesia bat ere: egin dezagun ez dela sortzen ez gerra osorik ez eta gerra mugaturik, baina Errusia baliatzen dela Mendebalean nagusitu den nahasmen eta batasun-eza egoera honetaz, diplomazia erabiliz Europaren gain abantaila politiko garrantzitsuak lortzeko. «Gerra hoberenak egin beharrik gabe irabazten direnak». URSS lehenengo bi hautabidei darion beldurrean oinarri daiteke hirugarren bat ezartzeko, hots: Finlandiarekin egin duena Europa guztiarekin egiteko.

Hiru hipotesiok ez dute agortzen gutxiagorik ere aztertzen ari garen egoera, baina hipotesia hauei buruz jarrera ezberdinak hartu dira, gogorrenetatik hasi, hots, disuasio totalari eustea exijitzen dutenena, eta aldebateko desarmea edo entregismoaren aldeko direnen era askotariko bakezaleeneraino. Garrantzi handiko arazoak dira hauek eta sakonki aztertu beharrekoak.

Euskadi Euskaldun bat

Euskaldunon Egunkaria, 1991-01-12

Bi joera ezberdin ikus daitezke gure herriaren mugimendu abertzalean, bata politikoa, bestea kulturala.

Lehenengoak, Euskal Herria errealtate politiko bat bezala ikusten du batez ere. Jakina, herri hau ez da oraindik nazio oso bat, eginkizun dagoen proiektu bat baizik, denboraren zehar osatu eta finkatu behar dena. Hau da, izan ere, nazionalismo politiko delakoaren oinarritzko xedea.

Kulturazko xedeak, ordea, beste aldetik ikusten du problema. Bere jomuga nagusia herri honen nortasun etnikoa zaindu eta bizkortzea da. Alde honetatik euskararen aurrerapidea da bere asmorik garrantzitsuena.

Zoritxarrez, batzuentzat kultur arazo honek ez du batere inportantzirik eta abertzaletasuna gauza politikoa da, besterik ez. Jarrera benetan kaltegarria Euskal-Herriaren egiazko aurrerapenerako. Nere ustez —eta espero dut irakurlerik gehiena ados izango dela nerekin puntu honetan— hobe izango litzateke Euskal Herri guztiz euskaldun bat, nahiz eta askatuta ez izan, euskara betirako galdutako Euskadi independente bat baino.

Onar dezagun gaurko egoeran Euskadi euskaldun bat eraiki nahi izatea gauza kasik ezinezkoa dela. Dena dela, hortarako bide egokiak jartzen baldin badira, ondore harrigarriak lor daitezke euskararentzat.

Baiezpen ausart hau egiaztatzeko nahikoa izango litzateke iraganaren gainean begiraldi bat botatzea. Euskaltzale gazte nintzen urrutiko urte haietan, nork sines-tuko zituzkeen ordutik euskal baratzean egin diren aparteko aurrerapenak?

Honi buruzko exenplu bat egunkari honetan bertan daukagu. XIX mendearren erdian agertu ziren lehenengo periodikoak, hitz honen esanahi modernuaz behintzat. Mende bat t'erdia behar izan da euskaraz ere gure lehenengo egunkaria izan dezagun. Mirari bat dirudi, baina hemen daukagu, euskal periodikoa, bizi bizirik, guztion eskuetan.

Beste pausu asko egin behar da oraindik, egin ere, euskara plazara ateratzeko, baina orain arte lortutako arrakastek itxaropen handia ematen digute etorkizunerako.

Bai, adiskideok, konfidantza eta adimenakin jokatuz gero, Euskadi euskaldun bat ez da amets zoro bat, errealitate posible eta zentzudun bat baino.

Urte berri bat munduko politikan

Euskaldunon Egunkaria, 1992-01-05

SESB zelakoaren hondorapena XX mendearen gertakaririk handienetako bat izan da batere dudarik gabe. Zentzu honetan 1991 urtea Historiara pasatuko dela segurta dezakegu.

Hala ere Ekialdeko aldakuntzak ez dira bukatu eta ez da oraindik jakiten zertan geldituko diren. Kritiko batzuek diotenez Estatu burujabe berrien arteko gatazka armatu bat sor daiteke edonoiz, munduko gerra baten hasiera izan litekeena.

Oraingoz behintzat, egoera internazionala oso nahasia agertzen zaigu. Kondizio hauetan 1992 urterako politikako etorkizuna nonbait auresan nahi izatea ia ezina iduritzen zait. Une honetan jende gehienak konfidantza handi bat jartzen du pakearen iraupenean. Pentsatzen dutenez gerra mundialen denbora gutziz gaindituta dago eta gainera gatazkak galerazteko nazioarteko erakundeak funtzionapen osoan ditugu.

Hala ere, arma nuklearrak aurrean dauzkagu eta Estatu nagusietako militarrek prest daude berak erabiltzeko, beharrezko izanez gero.

Dena dela oraingo pakearen etsairik handiena arma nuklearren proliferazioa omen da.

Gaur egun, SESBen porrotoaren ondoren, Amerikako Estatu Batuak (AEB) superpotentzi bakar bezela geratu dira. Ordea, Estatu nukleardun bezela ez da bakarra. SESBek zituen 27.000 buru atomikoak sakabanatuak izan dira eta Errepublika burujabeen eskuetara igaro dira. Nork kontrolatuko du aurrerantzean arma hoi erabilpena?

Estatu berri hauek, batzuek besteen kontra jartzen baldin badira, gerra nuklear baten leherdura oso posible da.

Ba daiteke halaber, horrelako Estatu nukleardun zenbaitek bere arma atomikoak salgai jarri ditzala, mundu guztiaren pakerako oso perilotsua izango zena. Proliferazio bi kasu hauekin batera, beste arrisku bat badago, egon ere, jende askok ezagutzen ez duena. SESBko azkeneko aldakuntzarengatik tekniko,

ikertzaile eta jakintsu nuklear asko libre gelditu da aurreko Estatu sobietikoaren lurraldean.

Gutziz normala da orain aditu hauek armamendu atomikoa ukan nahi dezaten Estatuei beren informazio eta zerbitzu teknikoak eskain dezaietela. Bide honetik mundu guztiak izango du azkenik arma famatua!

Problema honek politikoen ekintza garaitzen du. Oso luze izango da noski bere erabateko planteamendua iristea. Errealitate honetaz konturatu behar dugu, lilura faltsuetan ez erortzeko.

Aipatu dugun arazoaz gainera beste problema handi bat agertzen da, gero-rako utzi ezin dena, Europako batasunaren problema alegia. Orainarte eginkizun hau pixkanaka pixkanaka martxan omen zegoen, baina Ekialdeko gertae-rek konplikatu eta atzeratu egin dute.

Krisis honetatik atera diren Estatu berriak, Hungria, Rumania, Txekoslovakia etabar hor daude. Zer politika egingo du orain berekin Hamabien Komunitateak? Haiek ere europarrak dira eta mendebaldarrekin ukaezinezko erlazio bat dute. Mendebaleko Europan laster sartu beharko dira ala ez? Ezbai hau airean gelditzen da. Europako gobernuak ez dute oraindik politika irme bat izan puntu honi buruz. Maastrichten hartutako akordioak oso onak dirudite. Lehenengo pauso garrantzitsua izan dira Europako batasunerako baina orain praktikara eraman behar dira, dirudien bezain erreza ez dena.

Britainia Handia, Frantzia, Alemania eta beste Estatu handien populazioak nahiko nazionalistak omen dira. Bakoitzak bere independentzia ekonomiko eta kulturala gorde nahi du eta gauza bera gertatzen da hizkuntzen alorrean. Kondizio hauetan oso zaila izango da Europako Estatuen arteko egiazko batasun bat lortzea. Beraz, politiko europarrek ba dute puntu honetan 1992 hurrengo urtean nahiko lana egiteko.


Nazioarteko Ordenari begiratzen ba diogu horizontea ez da garbiagoa. SESBen desagertzeak Orden hau AEBen mandupean jarri du. Hauek dira orain-goan munduko politikaren gorengo arbitroa.

Amerikarren paper dominatzaile hau ez da ordea egokiena mundu politikoaren martxarako. Beste Estatuak parte handiago bat hartu beharko lukete pa-kearen mantentzean. Hortarako NBEren (Nazio Batuen Erakundea) organiza-zioa aldatu behar da. Berezilari guztiak ados daude uste honetan.

Bestaldetik Bushen ahulezia dugu. Beren posizioak ez dira sekula izan nahi-ko irmeak, adibidez juduen eta arabiarren arteko gatazkan. Amerikan bertan

jende askok Bushen politika oso koherente ez dela uste dute. Prestigio galera hau, mundu politiko guztia gidatu behar duen gizon batean, oso kaltegarria da nere iritziz.

Jakina, beste problema asko dago politika orokorrean. Espero dezagun hoietako batzuek behintzat ongi bilakatuko direla orain abiatzen den 1992 urte miragarri honetan.



KARLOS SANTAMARIARI
EGINDAKO ELKARRIZKETAK



Karlos Santamaria, Meteorologiaz mintzo

Elhuyar, 10 zk., 1977

M. Zalbide

Euskal kulturgintzan beste bidetatik ezagunago den Karlos Santamaria, Meteorologi sailean ere aski aritua da. 1940. urtean, Igeldoko Ohartokian buru jarri zenetik, ez du langintza hori utzi. 1950ean sorturiko Donostiako Meteorologi Zentruan ere bera dugu buru. Gai honetzaz zerbait argibide eskatuz, beregana jo dugu eta prestuki erantzun ere digu.

«Meteorologia», zientzia bezala, noiz eta non sortua da?

Meteorologia, hau da, *Atmosferaren Fisika*, egiazko zientzia denik inork ez du ukatzen gaurko egunean. Zientzia guztiak bezala, meteorologiak agerraldi asko ezagutu du bere historia luzean zehar, jakintzaren aurrerapen eta hazkuntza etengabearen arauera. Benetako zientzia izaten noiz hasi zen esatea ez da erraza. lehenaldi batetan, nahiz eta astrologia eta mitologiarekin oso nahasirik izan, herri-jakintza bat zen meteorologia. Ez uste, ordea, herri-jakintza hau fantasia hutsa zenik. Alde askotatik, herriko meteorologia hori egiazko ezagupen zela esan daiteke. Lehengo gizonek asko zekiten, dudarik gabe atmosferaren gertaera eta gora-beherei buruz, naturan guztiz murgildurik bizi bait ziren.

Arabeek, XII. mendean, Aristotelesen «Meteorologia» ekarri zuten Europara. Fisika, Astronomia eta Biologiaren ondoan «μετεωρολογία» delakoa sartzen zuen Aristotelesek.

Erdiharoko eskolastikak Stagiritaren teoriak jaso zituen eta, azkenik, itxurara dogmatiko bat eman zitzaion meteorologiari. Jakintza honen alde praktikoa, eguraldia iragartzea da. Aurrezikuste hau bi bidetatik egiten zen Erdiharoan. Alde batetik, eguraldiaren zeinu naturalen bidez, hodeien, giroaren eta haizearen gainean eginiko oharpenen bidez. Dirudienez, oharpen hauk Sumerioen denboratik datoz, Babilonia aurreko zibilizazio hau atmosferaren ezagutzaz nahiko aurreraturik baitzegoen. Bestaldetik, Erdiharoko meteorologoek Ptolomeoren

«astrometeorologia» oso kontutan zuten, eta bide fantastiko horretatik prestatu ohi zituzten orduko almanake famatuak, irudipen eta amets hutsezkoak.

Descartes jakintsuak, «Meteoroak» izeneko liburua idatzi zuen; eskolastika kutsukoa zen oraindik, eta almanakeen erregetzak luzaro iraun zuen egiazko zientzia bezala, XVIII. mendean, taxutu arte.

Halaz guztiz ere, meteorologia modernoa XVII. mendetik aurrerantzean agertzen dela esan dezakegu, fisikazko neurgailu berriak asmatzearekin batera: barometroa, termometroa, higrometroa, eurimetroa, haizemetroa etabar. Garai hartan hasten dira oharpen meteorologikoak egiten, oraindik guztiz eskas eta makets badira ere. Aldi hartan «amateur» eta jakintzale asko ageri zen nonnahi, ofizio guztietakoak: fisikari eta kimikariez gainera, abokatu, apaiz, itsasgizon, merkataria aberats etabar; beren jakingurak zirikatutik hasi ziren meteorologi ohartzapenak egiten, nor bere etxean edo bere lekuan, eta jakina, bakoitza bere erara eta gisara.

Erregela batzuk ere agertu ziren orduan eguraldia iragartzeko: haizearen norabidez, barometroaren aldaketen bidez nahiz tenperatura eta hezetasunaren gora-beheren bidez. Baina guzti hau ez zen, oraindik, egiazko zientzia bat.

1850. urtealdean, *meteorologia sinoptikoa* delakoa sortzen da. Meteorologia sinoptikoa eskualde zabal baten oharpenak bildu eta hauen bidez, karta meteorologikoak eratzen ditu. Isobaro delakoa marratuz, goipresio eta behepresio zentruak berehala agertu ziren. Presio-zentru hauen eta haizeen arteko erlazioa ere argi eta garbi agertu zen; hortatik eguraldia iragartzera, urrats bat besterik ez zegoela zirudien. Baina gauzak ez dira hain errazak. Lehenbizi, karta bat datu asko behar da, eta ohartzapenak batera egin behar dira, denak kondizio berdinetan etabar. Gainera datu horik oso laster helduarazi behar dira meteorologi bulego jakin batera, non kartak egiten bait dira. Arazoa ez zen beraz meteorologi zientziaren sailekoa soilik, komunikabideen, telegrafoaren etaberrera ere baizik.

Zientzia guztiek batera aurreratu behar dute. Batzuek besteekin loturik daukete eta ezin da zientzia edo teknika jakin bat aurrerazi, behar dituen elementuak besteek eskuratzen ez badizkiote.

1914.eko gudatean aurrerapen izugarriak egin ziren meteorologiaren saillean eta atmosferaren ezagupenean. Bjerknes anaiek eta beste meteorologo suediarrek aire masak eta hauen arteko fronteak aurkitu zituzten. Aurkikuntza horretatik atmosferaren Dinamika eta Termodinamika sortu zen, gerokoan

aurrerapen handiak egin dituen. Egun, atmosferaren fisika zientzia osatu bat dela esan daiteke, izugarri interesgarria.

Beste zein zientzi adarrez baliatzen da?

Esan dugunez meteorologiaren oinharria «Atmosferaren Fisika» edo «airearen Fisika» da. Fisika hau oso berezia da, atmosfera lapiko izugarri handi bat delako, non hamaika indar nahasten diren eta gertaera guztiz korapilotsu asko gertatzen.

Atmosferaren termodinamika da, nere ustez, zientzia horren atal nagusia. Atmosferaren estatika eta dinamika hezetasun eta tenperaturarekin guztiz loturik daude. Isurkinen dinamika erabiltzea nahi eta nahiezkoa dela esan beharrik ere ez dugu.

Klimatologia eta Meteorologia batera doaz, jakina, eta alde horretatik Estatistika matematikoak garrantzi handia izan dezake eguraldia iragartzean. Ditugun baino datu gehiago behar dira ordea horretarako.

Ez ditugu oraindik ohartzapen segida nahiko luzeak lortzen, datuok ordinarrean sartzeko eta bide horretatik egun jakin batetan egingo duen eguraldia jakiteko. Halere, etorkizunean estatistikak meteorologiari laguntza handia emango diola seguru naiz.

Elektra gertaerek garrantzi handia dute atmosferaren ikerketan. Elektrikak (ionen teoriak etabar) inportantzia galanta du zientzia meteorologikoan eta, nere ustez, gero eta handiago izango da sail horren eginkizuna. Airearen Fisikan, «atmosferaren Optika» ere nahiko hazia dela oharrarazi behar dugu.

Airearen konposizioa ez da gauza fixua: egun batetik bestera eta hementik hara etengabe aldatzen da, altuerarekin ere guztiz aldaturik aurkitzen dugu. Beheko aire garapetan, poluzio delakoa kontutan izan behar da, beraz «atmosferaren kimika» ere erabili beharrezkoa da meteorologia moderno batetan.

Meteorologoak fisikari ona izan behar du lehenik, eta gainera, naturako gertaerak susmatzeko usma berezia.

Gaur egun, nolako makineriaz baliatzen da meteorologi zentru bat beharrezko datuak biltzeko?

Galdera honi erantzuteko bereizketa bat egin behar da aurretik: meteorologi zentru eta ohartoki meteorologikoen artekoa. Ohartoki batean ohartzapenak

egiten dira: zuzenki, neurgailu egokien bidez nahiz begi hutsez. horretarako, ordu-arau fixu bat dago munduko ohartoki guztietan. Oharpideak gau eta egun egiten dira, sei ordutan behin gutxienez. Toki batzutan sondeoak ere egin ohi dira globo berezien bidez. Globo hauek, tenperatura, presioa, hezetasuna eta haizea neurtzen dute berrogei kilometroko altuera arte; eta neurri hauk beren irrati automatikoen bidez berehala jakin arazten dizkiete oharlariei. Beste sondeo mota bat abioi berezi batzuen bidez lortzen da. Ibilaldi luze bat egiten du abioi bakoitzak bide triangeluar bat jarraituz; eta, bidean, hodeien mota eta altuera, meteoro bereziak etabar ikuskatzen dituzte. Ibilaldi hauk fixuak dira, eta mundu guztiak ezagutzen duen programa bat jarraitzen dute.

Itsasontzi batzutan ere egiten dira oharpenok, eta datuak irrati zabaltzen dira, itsasontziaren posizioarekin batean. garrantzi handia dute, batez ere olatuak neurtzeko eta mota guztietako oharpenak egiteko, toki jakin batzutan ainguraturik dauden itsasontzi fixuak egindako oharpenok. OMM edo «Munduko Organizazio Meteorologikoa» delakoaren gidaritzapean egiten dira lan hauk, egunero eta toki askotan. (Holakoak dira «barco K», «barco H» etabar, telebis-tan maiz aipatu ohi direnak.)

Besteak beste, aipatutako horik ohartokiak deitzen ditugu. Zentruetan, berriz, beste lan bat egiten da. Zentruok mota askotakoak dira, jakina. Badaude zentru internazionalak, inportantzia handikoak, eta beste txikiagoak, nazio edo probintzia mailakoak.

Zentru handi batean hiru lan mota egiten da. Munduaren eskualde handi bateko oharpen guztiak jaso eta biltzea da lehenengoa. Adibidez, Londoneko zentruan mendabaleko Europa guztiko datuak jasotzen dira. Datu biltze hau, ezin sinestuzko lastertasunaz egiten da: orduerdi eskas batetan datu guztiak zentruan daude, ohartoki bakoitzetik teletipo, irrati edo telegrafoaren bidez zentru nazionalek bidalduta, eta gero, horik bertatik berriz ere atzera zabaltzen dira. Zentru handi baten bigarren lana, datu guzti horik aztertzea da. Azterketa honen ondorioz, kartak eta hamaika motatako informazioak prestatzen ditu zentruak. Lan izugarri bat da hau, baina bi edo hiru ordutan egitekoa.

Berehala, hirugarren urratsa ematen da. Zentru internazionalak, informazio guzti horik beste zentrueri jakinarazten dizkiete. jakinarazte hau «irrati-faksimil» delako tramankuluaz egiten da. Irrati-faksimilak, karta, diagrama eta abarren kopiak jaso eta marrazten ditu beraz.

Donostiako Zentruan, Bizkai-Gipuzkoaetarako zentru berezia denez, London eta Parisetiko diagrama eta kartak jasotzen dira etengabe, irrati-faksimilen

bidez. Idazki eta datu horik zentruan bertan aztertzen dira, eta gure eskualdeari ezartzen zaizkie, dagozkion ondorioak atereaz. Gran Sole eta Bizkai Golkoa dira eskualde hori osatzen duten bazterrak. Azkenik, informazioak zabaltzen dira, irрати eta egunkarien bidez.

Esan berri dudan guzti honetatik erraz ikusten da ohartoki edo zentru ba-koitzak behar duen makineria. Donostiako zentruaz gainera, Igeldoko ohartokia dago. Ohartoki arrunt eta apala da, baina nahiko ongi instalatua. Bere makineria betikoa da: barometro eta barografoak, termometro arrunt eta bereziak, termografoa, haizemetro eta haizegrafoa, eurimetro eta eurigrafoa, eguzkialdi-grafoa, etabar.

Noiz sortua da Igeldoko Meteorologi Ohartokia, eta zeintzuk dira bere eginkizunak? Eta Donostiako zentruarenak?

Igeldoko Ohartokia 1903 urte aldean sortu zen. Sortzailea, Juan Mikel Orkolaga apaiz jauna izan zen. Oso argia zen Orkolaga jakintsua, eta langile izugarria. 1902 eta 1906 urtetan berak emandako hitzaldien idazkiak hemen dauzkat. Lehengoak «Vórtices ciclónicos: sus trayectorias en Europa y en el Atlántico consideradas con relación a los temporales del Cantábrico» du izena. Bigarrenak, «Consideraciones acerca de la Meteorología Dinámica con algunas bases para la predicción del tiempo». Benetan interesgarriak dira eta merezi izango luke bi lan horik zehatz aztertzea. Orkolaga jaunaren iragarpenek entzute handia izan zuten eta arrantzale askoren bizia salbatzen lagundu zuten. Zer jokabide erabiltzen zuen esateko astirik ez dut orain; baina, nere ustez, zirus direlakoak oharrarazteari garrantzi handia ematen zion Orkolaga jaunak. Informazio eta datuak, oso eskas jaso ohi zituen. Galiziatik telegrama batzuek eta Frantziako «La Petite Gironde» kazetako datuak ezagutu ohi zituen noizean behin. Informabide hauk guztiz eskasak ziren ordea, eta Orkolaga jauna berak egindako oharpenez fidatzen zen batez ere, bere gaztigu famatu haik egiteko. Izan ere, ez zen posible finisterrek edo Parisek zer esango zain egotea. «La meteorología fundada exclusivamente en los avisos de las oficinas centrales, está expuesta a comprometer la vida de los mareantes, dejándolos, quizás, en las garras de un temporal formado bruscamente» zion, bere 1902 urteko hitzaldi aipaturikoan. Berak kontatzen du, 1902 urteko Maiatzaren 6. eguneko denboralaz gertatua. «Me determiné a esperar a que recibiera (sic) la ‘Petite Gironde’ (de que por no contar con otro medio me valgo para conocer la situación barométrica en Europa) para luego telefonar o no a los puertos. Pero, a decir verdad, los datos contenidos en la ‘Petite Gironde’ procedentes del Observatorio Central de

París me dejaron en la misma situación, y aún si se quiere peor». Egoera hone-tan irautea ez zen posible, gure arrantzaleen biziak beti arrisku izugarrian bait zeuden; orduko itsasontziak, gainera, ez ziren gaurkoak bezalakoak. Hori dela eta, Gipuzkoako Diputazioak Igeldoko Ohartokia sortu zuen, Orkolaga jauna-ren zuzendaritzapean.

Gaurko egunean iragarpenak eta itsas-gaztiguak Donostiako Zentruan egi-ten dira, lehen esan dudan bezala, eta Igeldoko ohartokian oharpenak besterik ez. Hortarako lau ohartzaile daude, gau eta egun, oharpenak txandaka egiten.

Beste zenbat Zentru daude, hau bezalakoak, Euskal-Herrian?

Hau da bakarra. Sondika, Hondarribi eta Igeldoko ohartokiak Zentru ho-nen menpekoak dira. Beste ohartoki txikiagoak ere badaude, Bizkaian eta Gi-puzkoan, Igeldo bidez loturik. Gazteiz eta Iruineko ohartokiak, Zarakozako zentruaren mende daude beren ur gehiena Ebro hibai alderuntz dihoa eta. Haa-tik Baztan, Bortziri, Leitza, Aramaio etabar gurekin daude, beren urak Bizkai Golkora datozelako.

Karlos Santamaria. Intelektual bat politikan

Zeruko Argia, 835 zk., 1979-06-24

Elixabete Garmendia

Jende asko jubilatzen den garaiean, Karlos Santamaria, Don Karlos askorentzat, politikan sartu zen. Bizpahiru urteren ondoren hor jarraitzen da, hezkuntzako Kontseilari-tzaren buru, lan hori noiz uzteko modua izango duenaren zain —«politika ez da nere-tzat egiten»— berriro ere matematiketara eta lan intelektualera bete betean dedikatze-ko asmotan. Izan ere, hori izan da eta hori da bere mundua. Hala ere, Karlos Santamaria inguru honetan izan diren mugimendu soziopolitiko-erligioso eta kulturaletatik ez da inoiz batere urruti ibili. Alderantziz, horietako askoren bultzatzaile izan da sarritan.

Bera katoliko progresista bezala definitzen da, bai orain eta baita bere gaz-taroan ere. horrezaz gain, euskaltzale. Filosofia aldetik, esistentzialista kutsu haundi samarra duela dudarik ez. Behin baino gehiagotan marxistatzat salatu izan dute eta berak «ez naiz marxista eta ezta antimarxista ere» dio. Bere bu-rua tolerantetzat jotzen du eta hau da agian berarekin hitzegiterakoan gehien ikusten zaion karakteristika. Besteekiko tolerantzia eta berekiko kritikoa: «*orain erreakzionario samar bihurtu naiz*».

Agian familiatik datorkio don Karlos zabaltasun hori. «*Nere aitona, ama-ren aldetik, liberala zen; Aranokoa berez, Altsasura joan zen ez dakit zertara eta karlisten gerra iristean Donostiara etorri behar izan zuen; hemen, plaza de Gi-puzkoan, izkina batetan, taberna bat jarri zuen. Ez zen aberatsa baina bere hi-ru alabak —badakizu, orduan ez zuen inork estudiorik egiten— maistrak egin zituen. Horrela nere ama Balmasedara joan zen maistra bezala*». Han aurkitu ziren don Karlosen ama eta aita. «*Aita burgalesa, kastellanoa, zen. Nik uste dut seminarioan zegoela eta handik eskapatu zela gerra karlista egitera, badakizu, jainkoaren eskubideak defendatzeko eta guzti hori; gerra egin zuen eta ez dakit zer konponketarengatik Frantziara aldegin behar izan zuen; handik, nahiko li-beral bihurturik, Balmasedara etorri zen prokuradore bezala eta hor ezagutu eta ezkondu zen amarekin*».

Gero Bilbon eta azkenik Donostian jarri ziren bizitzen Santamariatarrak. Senide askoren artean gazteena, etxeko giroan hezi zen don Karlos. «*Txikitan ez nintzen eskolara joan; etxean egin nituen ikasketak batxilerreko bigarren urtera arte. Orduan Institutora joan nintzen eta gero berriz marianistetara, kolegio klasista, badakizu, oraingo asko bezala*». Gero, zer karrera ikasiko eta «Ciencias Matemáticas» aukeratu zuen. Baina hau ere kanpora atera gabe egin zuen, etxetik, bere kontura. Eta bukatzean lana hemendik kanpora, unibertsitateren bateko katedratiko bezala egin ahal izan bazuen ere, Donostian geratzea nahiago izan zuen. Txikitandik hartutako heziketa horrengatik edo, etxeko bakean lan egiteko ohiturarekin jarraitzen da orain ere don Karlos.

«*Zergatik matematikak? Bueno, gustatzen zaizkidalako. Beste gauzaren bat ere aukera nezakeen, baina horik hartu nituen. Orain ere gustatzen zaizkit, eta Udako Euskal Unibertsitaterako zerbait prestatzen ari naiz. Matematika oso ederra da; jendeari ez zaio gustatzen, baina gertatzen dena da ez dutela ondo ikasi*».

Baina don Karlos ez zen matematikaren munduan bakarri geratu. «*Badago horren arriskua; matematika oso abstraktoa da eta giza aldearekin zerikusi haundirik ez du; baina jakina, ni beste gauza askotan sartu nintzen; humanidade sailean hitzaldiak ematen, artikuloak egiten eta hasi nintzen*».

Eta euskal kulturaren barruan ere berehala sartu zen. Errepublikara garaiean, Eusko Ikaskuntzaren barrenean, «Centro de Estudios Científicos» zeritzana sortu zuen beste batzurekin batera. «*Aldizkari zientifiko bat ere ateratzen genuen, ez oso ona, baina bueno, orduan zegoenerako... Estatu guztira zabalitzen zen, eta behin Toledotik irakasle batek ez zuela gehiago hartu nahi adierazi zigun, anuntzio batzu euskaraz jartzen zituelakoa. Orduan euskal kultura ez zegoen gaur bezala e? Euskaltzaindikoek ere —Azkue, Urkijo, Kanpion eta horiek— erdaraz egiten zituzten bilerak*». Eta don Karlosek berehala gogoratzen du anekdota bat. «*Primo de Riveraren Diktaduran espia bat jarri zuten Euskaltzaindiko bileretarako. Espia bat zen, baina nahiko jatorra, eta horrela, lehenengo bileran, esan omen zien: por mí pueden ustedes hablar en dialecto. Baina haiek erdaraz hitzegiten zuten*».

Don Karlos bera euskaldunberria da. «*Aitonak nahi zuen guk euskara ikastea eta gramatika bat ere erosi zigun, baina ezer ez. Gero, gerra aurretik Toribio Alzagaren klaseetara joaten nintzen. Gerra ondoren berriz M^a Dolores Agirrerekin klase batzu eman nituen, isilean, baina gero ez dakit nola ikasi dudán, pixkanaka...*». Bere euskara traketsaz behin eta berriz

kejatzen da. Antz ematen zaio gaztelaniaz errazago egiten duela, eta batzutan, gaiaren arabera, hizkuntza horretara jotzen du, baina hala ere, gehienbat euskaraz hitzegiten du.

Pazifista, baina ez hainbeste

Beti, bizitza erdibanatuz, 36ko gerra. Eta don Karlos pazifista. *«Beti harmaden kontra egon naiz ni. Soldaduskara ez nintzen joan, bistaren aitzakian, eta nere anaietatik ere ez zen inor joan. gure familia pazifista zen. Gandhiano ere izan naiz. Gero konprenditu dut herri batek askatzeko harmak behar baditu, ba hartu egin behar dituela».*

Dena dela, gerran ibiltzetik eta errepresio latzenetik ere aldegin izan zuen arren don Karlosek, ez zen erabat libratu gerra horren ondorioetatik. *«Ni, zientifiko bezala eta beti, ez nintzen oso ezaguna eta ez nuen aldegin beharrik izan. Baina Mugimendurekin mundu guztiak kolaboratu behar zuela eta —bestela nabarmen gelditzen zinen— zer egingo dut? pentsatu nuen. Institutora joan nintzen eta «profesor interino gratuito» izendatu ninduten. Denbora gutxira espediente bat ireki zidaten: *simpatizante del nacionalismo y cuando habla del Movimiento lo hace con bastante tibieza... Urte hoiek zer ziren... periodikorik irakurtzerik ere ez zegoen; nik ez nituen irakurtzen. Behin Aizarnan denboraldi bat pasata Donostiara etorri nintzenean, kalean jende guztiak solapan Espainiako bandera zeramala ikusi nuen; berehala esan zidan lagun batek: zuk ere par eza-zu, bestela harrapatuko zaituzte eta. Gauero berriz afusilatzeak. Egun batean, institutoan ikasle bat etorri zitzaidan eta belarrira: hoy trátame bien, porque esta mañana he estado fusilando».**

Lehen hilabete haietako gogorkeria pasata gero ere beste problematxoren bat izan zuen don Karlosek. *«Parisen liburu bat atera zen: ‘Cuarenta hombres de la España democrática’ eta horien artean, Rekalde eta beste batzurekin batera neroni ere azaltzen nintzen. Igeldoko obserbatorioan lan egiten nuen garai horretan eta nola hark Ministerio del Airetik dependitzen zuen, espediente bat ireki zidaten».*

Faxistek ere bazekiten don Karlosen berri. *«Europa guztian azaldu ziren garai batean faxisten sinboloak eta. Neri etxeko eskaileretan jarri zidaten: ‘Santamaria judio judiazo’ eta gurutze gamatua. Diotenez judu askok hartu ziztuzten Santamaria eta horrelako apeliduak eta bai, beharbada judu jatorrikoa izango naiz».*

Juan Carlos-en irakasle

Administrazioak eta faxistek bazuten don Karlosengan fijatzeko arrazoirik. Izan ere, legalitatearen barruan, erlazio onekin etabar, baina etengabe Franco-ren aurkako erresistentzian ihardun zuen. Hala ere, Juan Carlosen irakasle izateko deitua izan zen. *«Hemen, Miramargo palazioan, kolegio txiki bat montatu zuten Juan Carlosentzat; bere anaia gero eskopetaz hil zuena ere hemen zegoen eta beste hamarren bat mutil familiarik ilustreenetakoak. Hoiei matematikak irakasteko kontratatu ninduten, eta batxiler guztian nik irakatsi nizkien. Juan Carlos oso mutil sinpatikoa zen, oso ironikoa eta oso alferra»*. Irrifar batez gogorazten ditu don Karlosek garai haik. Juan Carlosek ere berriz ez du ahaztu bere irakaslea. Eusko Kontseilu Nagusiari audientzi bat eskaini zionean, Rubialen diskursoaren ondoren, eta tartean isilaldi tenso samar bat izanda gero, bere lehenengo hitzak don Karlosi zuzendu zizkion: «he crecido un poco, ¿no?».

Integristak atzetik

Baina problemak ez zituen Gobernuarekin bakarrik izan don Karlosek. Eliza ofizialarekin ere bai. Behin Erromara deitua izan zen, Santo Oficiora, erligio askatasunari buruzko bere eritziengatik. *«Ottaviani oso haserre zegoen, Cicognani berriz nere alde eta Elizako eztabaidetan hori behar izaten da, padrinoren bat»*. Horrela libratu zen don Karlos.

Izan ere ordurako don Karlos katoliko progresisten artean Donostian ospatzen ziren «Conversaciones Internacionales» zirelakoan antolatzaile zen. 35ean izan ziren lehen aldiz eta hurrengo urtean ia ez zen berriro egiterik izan. Baina gerra osteko lehen urteak pasata gero, berriro jarraipena eman ahal izan zitzaaien. *«1947an oraindik mugak itxita zeuden, Espainiako Estatua erabat isolaturik zegoen. Ordurako katoliko batzu sartuak ziren gobernuan —Martín Artajo, Ruiz Jiménez...— eta ikusi zuten horrelako bilkura batek mesede egingo ziela mugak irekitzeko eta. Nik berriz intelektual hoiek hemen zer gertatzen zen erakusteko ekarri nahi nituen hona. Baldintza bi jarri nuen ospakizun hoiek egiteko: guk nahi nituen hona. Baldintza bi jarri nuen ospakizun hoiek egiteko: guk nahi genituen pertsonak inbitatu eta bilerako tokian askatasun osoa izango genuela nahi genuena azaltzeko. Gobernuak onartu zuen eta horrela egin ahal izan genituen ‘Conversaciones’ hoiek lehen aldiz 47an. Hamabi aldiz ospatu ziren, 62a arte.*

Bilera horietan beti gai bat eztabaidatzen zen batez ere: erlijio askatasuna. Gu horren alde geunden, eta gero Kontzilioak onartu egin zuen, baina garai hartan... Integrista guztiak —batez ere frantsesak, horik dira okerrenak— opustarrak eta denak gure kontra jarri ziren. Horregatik deitu ninduten Erromara. Eta gero ia ‘Conversaciones’ haik utzi egin behar izan genituen». Pax Christi mugimenduan ere —komunista kutsa zuen «Movimiento por la Paz»en aurrean sortutakoan— ibili zen don Karlos. Hala ere baten batzuek marxistatzat salatu zuen. «Baina ni ez naiz marxista eta ezta antimarxista ere. Marx guztia irakurri dut eta beste autore batzu ere bai. Bere teoria ezin dugu absolutoa bezala onartu fededunok, transzendentzia batetan sinisten baitugu, baina klase borroka eta horrelako puntu batzu nik garbi ikusten ditut. Nik, egia esateko, marxismoa oso berandu deskubritu nuen; badakizu nola ibiltzen ginen Rikardo Arregi eta horiekin eta konturatu nintzen ez nenkiela ezer marxismoari buruz. Nik uste dut marxismo dogmatikoak ez duela batere etorkizunik, baina marxismoa hor dago, bere ondorioak hor daude... Gero nik pixka bat atzera egin dut, pixka bat erreazionario bihurtu naiz, badakizu, zahartzaroa, ez dut umorerik borroka egiteko eta... Badira zahar txoroak; horiek nahi dute gazteak bezala pentsatu eta hori ez da posible; zaharrok konturatu behar gara bizitza pasa zaigula, bukatu dela... Interesantea da bizitza, oso interesantea...».

Espiritu gaztea

Eta don Karlosgen halako kontradikzio bat somatzen da. Alde batetik etsi nahiko lukeen bezala, laster beteko dituen 70 urte horien zama haundiegia baltz bezala. Baina bestetik ez da etsitzeko gizona, ez da inoiz izan. alderantziz, galdutzat jo zitezkeen kausen bultzatzaile eta borrokalari izan da. Berak ongi ezagutu zuen ZERUKO ARGIAren 63ko berpizteaz ere hau dio: «*Jendeak ez zuen uste aurrera aterako zenik, baina hor zaudete, ezta?*».

Eta gauza hauetaz hitzegiterakoan pasatako urteez nostalgia pixka bat ere adierazten du. «*Bai, ni beti gazteekin ibili izan naiz, nola irakaslea nintzen... orain gutxiago. Lehengo garaia hobea ote zen? Ba franquismoaren garaiean denok elkarrekin ginen, etsaia aurrean zegoen eta hori nahikoa zen denak batzeko.*».

Hala ere don Karlosek ez du erabateko batasunaren mito hori konpartitzen: «*Il faut de tout pour faire un peuple* dio errefrau frantsesak; herri batean ez da posible eritzi bat bakarra izatea, eritzi guztiak izan behar dira; eta Euskal Herrian ere eritzi eta postura guztiak beharrezkoak dira, beren artean egiten da historia, ez bakarrik batzuk edo besteak; horregatik, *que cada cual haga su juego*».

Alderdikeririk ez

Eta don Karlos bere oraingo jokuaz, joku politikoaz hasten da hitzegiten galderarik egin gabe. Eta buruan duen lehen gauza, bere Kontseilaritzak aurrera eraman duen eta nahiko polemikoa den elebitasunari buruzko dekretoa: *«Dekretoa nik badakit oso eskasa dela. Eta gero, jakina, nola sartu nintzen ni Alderdian, zergatik? Hori beste problema bat da. Ni beti independientea izan naiz eta esaten zidaten: zu behin ere ez zara sartzen inon eta nik erantzuten nien: ni kanpotik utilagoa izango naiz. Diktadura bukatu zenean ikusi nuen, bueno, orain posible da politika egitea; eskaini zidaten senadore izatea, baina ez nintzen animatu Madrila biaje asko egin beharra eta... Gero sartu nintzen, baina politika ez da neretzat. Ni intelektual bat naiz, pentsatzeko, irakasle bat, irakasle apal bat...»*. Politikaren joku politikoaren hikamikak ez dira don Karlosentzat egiten: *«Ni guztiz zabala naiz eta ez dut konprenditzen nola alderdi bakoitzak bere alderdikeriak egin behar dituen»*.

Zabaltasun horrek erakarri dizkio problemak Hezkuntza Kontseilaritzan eraman duen politikarengatik. PNVko sektore batzuek gogor kritikatu dute bere ekipoa Alderditik kanporako jendez osatzeagatik. Baina don Karlosek ez dirudi horretan amore eman nahi duenik. Ez du eman eta aurrera jarraitzen da alde batetik eta bestetik hainbeste burukomin sortu dion elebitasunaren dekretorekin; aurrera ikastolentzat diru gehiago iristeko borrokan. Aurrera lan hori beste norbaiten eskutan uzteko posibilitadea izan arte. Hori da bere oraina eta lematzat hauxe du: *«beti presentean bizi»*. Horregatik bere bizitza, bere esperientziak, berak ezagutu eta bizi izan duen mundu guzti hori libururen batetan jasotzeko posibilitadea ez du onartzen: *«Igaroa igaroa da... Hori egitea inmortalitate zaletasuna da. Querere ser immortal conservando el pasado. Nik pertsonaje asko ezagutu dut bai, Aita Santuak, politikoak... baina hori dena jasotzea soberbia litzateke»*. Ala ere, *«bizitza luzea da eta gauza asko dago kontatzeko»*.

Karlos Santamariarekin gerraz eta pazifismoaz. «Arriskua amerikarren defentsa planean dago»

Argia, 1.051 zk., 1985-03-10

Iñaki Zubiondo

Bi urte darama Karlos Santamariak armamentismoari buruzko informazio guztia bildu eta sistematizatzen, intelektual eskrupulosoaren perfezionismoa gaingitu eta daukan materiale piloa behar hainbat sintetizatzea lortzen duenean liburu gisa argitaratuko duelarik. amerikarrek beren izarretako gerraren publizitatearekin bonbartzatzen gaituztenean, eta aldi berean etxean «Pakea-pakea» errepikatzen denean. Preautonomia garaian kontseilari izandako abertzale zahar eta «bitxi»ak zenbait argi pizten digu.

Berehalako ikusten al duzu gerra arriskua?

Ni ustez ez dago halako inminentziarik une honetan, hori da egia. Agian momentu hau da seguruen, gaurkoa baino une askoz arriskugarriagoak pasatu dira. 1962an adibidez. Cubako misilen garai haietan; gudu nuklear bat izateko zori-zorian izan ginen.

Koreako gerran ere bai, badakizu amerikanoak eta beren aliatuak Txinaino heldu zirela eta une hartan MacArthur-ek Txinaren aurkako gerra bat egin nahi zuen arma atomikoekin, Txinoek eutsi ezingo ziotelarik arazoa behin eta betirako likidatzeko. Baina beste gauza asko ere kontutan izan zen eta MacArthur dimititzera bortxatu zuten.

1962tik aurrera ez da izan une haietan bezalako arrisku berehalakorik. Orain arte gatazka izugarriak izan dira, eta une honetan ere badira inportante askoak, Afganistan, Ekialde Hurbila, Latinoameriketa... Baina arrisku hauek ez dute orduko egoera haiekin gonbaraziorik.

Hala ere, armamentuek aurrerapen haundiak egin dituzte, eta hor dauden bitartean arriskuak jarraituko du. Egoera absurdo bat da, begira.

Gaur egun kalkulatzen da alde banatatik 6.000 megatoitako indarra dagoela: batzuen ustez gehiago dira, baina kopuru horrekin geratzen naiz, hori baita da tratuetan hitzegin dena. Hyroshimako bonba 20 kilotoitakoa zen. 6.000 megatoi 20 megatoiez zatikatuz ateratzen zaizkigu 300.000 bonba Hyroshimakoa bezalakoak, alde banatatik.

Horiek ez dira noski jolaserako, erabiltzeko dira, eta ezin esango dugu arrisurik ez dagoenik. Hori da errealitatea, eta kentzen ez diren bitartean gerrara goaz. Baina nik ikusten ez dudana berehalakotasun hori da. Alderantziz, distentsioa berriro hasiko da.

Gaur egungo martxa ikusita, Karlos, niri bezala irakurleari ere zail samar egingen zaio hori sinestea.

Begira, historia egitea da hori frogatzeko onena. 1945etik 55era, gutxi gora behera, amerikarren monopolioa izan zen. Hamar urte horietan errusiarrek ezin ziren mugitu, baina beren jokua bazuten. Arma konbentzionalak batetik, asko gehiagotu zituzten, eta beste aldetik arma subertsiboak erabili zituzten.

Nuklearra baino indartsuagoa da arma subertsiboa, eta zer egin zuten errusiarrek? Jazarkundeak, mugimendu nazionalistak, askapen mugimenduak, lagundu. Kasu horietan arma nuklearrak ez du ezertarako balio. Nola egin borroka arma nuklearrarekin Viet-Namen kasuan? Nicaraguan, El Salvadorren... Ezin dute, politika oso zaila daukate amerikarrek.

1955etik, eta bonba atomikoa lortu dutenez, errusoak ere indartu egiten dira. Oso garai txarra izan zen hori, eta negoziaketa bakar batek ere ez zuen arrakastarik izan, elkarrekin parekatzen ari zirelako.

Orduan, 1962an, Cubako misilen gorabehera hura antolatzen da. Arrisku egitazkoa ez zen hura amerikarrentzako, ikuspegi militar batetik ez bait zen garrantzizkoa. Hori bazekien Estatu Batuetako lehendakariak.

Ez dirudi zabaldu zena hori zenik, sekulako alarmismoa izan bait zen mende baldean Cubako misilen afera harekin...

300 ziren 2.000ren kontra, eta zer eginik ez zeukaten. Baina azkenean sobietarrek erretiratu zituzten beren misilak eta pasatu zen beroaldia. Une hartan hasten da distentsio garaia.

1962tik 79a arte luzatzen da distentsioa, eta gauza asko egin zen urte horietan, hitzarmen asko eta abar, harremanak nahiko onak ziren. Jakina, gerra subertsiboak eta guzti horrek jarraitu zuen, baina distentsioa dena dela ere.

1979an ematen da «Erabaki bikoitza» deitzen dena, frantsesez «rattrapage». Zera esan nahi du hitz horrek, besteak armatu diren ondoren norbera ere armatzea. Errusiarrak Europan armatuak zeudela esaten zuten OTANekoek eta beraz bi aldeetako indarrak ekilibratzea zen arazoa.

«Erabaki bikoitz» horrek alde militar bat zuen, mehatxua: '1983rako gauza hauek konpontzen ez baditugu guk misilak eta Cruisingak-eta eramango ditugu'. Baina beste aldetik negoziaketa eskaintza bat egiten zuten. Orduan, 79tik 83ra negoziaketa asko izan da baina alferrik, guztiok dakigun bezala.

Eta zergatik ez dira ongi bururatu negoziaketak? Indar posizio batetik erreza-goa dirudi, bada.

Hutsegite haundi bat izan da, eta Kissinger berak ere esan du, bi zati horiek kontraesanean daudela, alde batetik mehatxu militar bat, beste aldetik negoziaketaren eskaintza. Eta «erabaki bikoitz» horrek tentsioa gehitzea besterik ez du lortzen.

1983an bukatu zen epean, negoziaketak hautsi ziren eta 84a ezer egin gabe pasatu da. Orain beste distentsioaldi bat hasten da. Frogatua da aldi horiek tirabira haundien ondoren hasten direla. Eta orain hasiko da. Nire ustez gaurko arriskua sekula baino txikiagoa da.

Orain, zer emango du negoziaketa berri honek? Defentsaren afera azaltzen da orain, eta hori beste historia bat da. Hor dituzu, beraz, arma nuklearraren periodoak: monopolioa, parekatzearen bilaketa garaia, misilen krisia, 79a arte distentsioa, eta gero Afganistanen asuntua aitzaki bat izan zen SALT-2 tratua ez sinatzeko (Estatu Batuetako senatuak ez zuen tratua onartu), horrez gero erabaki bikoitzaren garaia, eta orain distentsioa.

«El peligro soviético» askotan aipatu zaigun arrazoia da, eta agian bi blokeetan indartsuena zein den argitu beharko genuke. Zerorrek definitzen zenuen elkarrizketa formalki hasi aurretik hemen duopolio bat dagoela.

Duopolio hori errealitate bat da: bata bezala besteak ez dute nahi beren gorabeheretan beste inork sudurrak sartzerik. Hori da biak ados dauden puntu bakarra, asuntua bien artean bakarrik tratatzea.

Baina duopolioa mantentzea oso zaila da, estatu subiranoek ez dute nolana hiri onartzen holako inposaketa. Horregatik esaten dizut Belgika, New Zeland, Rumania, Eki Alemania eta abar errebelde bihurtzen direla.

Hemengo kasua duzu esate baterako, Amerikarrek esan berria dute 76.000 milioi pezeta emango dizkiotela Espainiari, onartzen badu base nuklearrak edukitzea. Zer egingo du Felipe Gonzálezek? Zaila dago, eritzi publiko mundiala hor dago. Bonba atomikoak ez du utzi egiazko politika agertzen. Baina gaur egun distentsio pittin bat dagoenez, egiazko arazo politiko horiek berriro azalera ateratzen dira. Alde horretatik ez naiz pesimista. Joku haundia daukate «hirugarren herri» deitzen diren horiek.

Panorama guzti honetan badirudi garai batean baino askoz ere gutxiago aipatzen direla estatu neutralistak, bloke batean bezala bestean kokatu nahi ez dutenak.

Mugimendu horiek garrantzia haundia dute, amerikarrek gero eta eragozpen haundiagoak dituzte. Espainiako kasuan bezala. Beljikan bezala. Pershing-2 misilak kokatzeko konpromezua hartua zuen Beljikan, baina hango eritzi publikoa pazifista da gehienbat, Holandan beste hainbeste, eta orduan gobernuak ezin ditu arma horiek ipini, gero hauteskundeak etorriko bait dira.

Beljika zalantzan dago, beraz, New Zelandek ere arma nuklearrik ez duela nahi esan du. Estatu Batuak indartsuak dira, egia da, baina ez dute oso erreza izango. Eta errusiarrek berdin. Hau ez da utopia bat.

Baina itxuraz hain absurdoak diren arma horiek jo ta ke produzitzen ari badira, esan liteke eraso baten prestatzen ari direla.

Ez da posible, katastrofe izugarri bat izango litzateke, eta ongi dakite. Eta berdin da berdinak izatea edo ez. Badakizu, atomoaren ahalmen berdintzailea. Atomo armetan ez da gertatzen beste armetan bezala; erresuma batek 100 dibi-sio baditu eta beste batek 200, zer eginik ez dauka gerra klasikoan. Baina estatu batek 10.000 megatoni baditu eta beste batek 5.000, ez diote deusetarako balio 10.000 horiek, besteen 5.000 horiek errauts bihurtzen dutelako.

Adibidez, amerikanoak hasten dira. Ez da gerra nuklear oso bat izango, arma nuklear teknikoetatik hasiko dira, arma erdi-konbentzional miniaturizatuetatik eta abar. Baina gerra laster gora joango da, eta orduan zer? Besteek arma nuklear bat erabiliko dute eta katastrofe izugarri bat izango da.

Inork ez du nahi hori suertatzerik. Badira armamentismoa iraun erazten duten beste faktoreak, beste argumentuak, exterminismoa, indar ekonomikoak, fatalismoa, militarismo itsua eta beste, funtzionatzen ari dira. Baina ez dut ikusten gerra nuklear bat nola piztuko litzatekeen, haundiegia litzateke. Zer gertatuko da? Ez dakit. Baina arrisku handi bat badago: defentsa.

Horrek bai dirudiela gezurra. Beste erresumei erasotzeko ahaleginak izan beharko luke kezagarriena eta ez batek bere burua defenditzeko antolatzen duenak.

Amerikarren defentsa plana oso peligrosoa da, gaur egungo arriskurik haundiena da. Lehen esan dizut, 10.000 megatoni dituen batek ezin duela ezar 5.000 dituen baten kontra. Baina eman dezagun defentsa sistema egoki bat edukitzea. Orain arte ez da eduki defentsa onik arma nuklearren aurka. Orain satelite artifizialak beste arma batzuekin konbinatzen dira, eta arma berri hauek ez dira lehengoak bezalakoak, gidatutako energiadun armak dira, «armas de energía dirigida».

Esplikatu dut: bonba nuklearrak eta bonba klasikoak antza haundia dute, bien oinarria leherketa bat produzitzea delako. Arma klasikoetan, leherketa hori medio molekularren bidez egiten zen: polbora, trilita eta abar, erreazio kimikoak.

Gero arma nuklearra etorri zen, eta leherketa bat eman dadin behar den temperatura eta presio haunditzea medio nuklearren bidez egiten zen, ondorio berdina lortzen zen erreazio atomikoen bidez, eztanda.

Baina gidatutako energiadun arma beste gauza bat da: materiaren sustantziari egiten diote eraso, etsaia desintegratu egiten dute. Laser eta beste armak, esplosiorik behar ez dutenak.

Aldaketa horrek erabat aldatzen ditu orain arteko gerra-eskemak.

Jakina. Eman dezagun satelite batzuetan zuzendutako energiadun armak jartzen dituzula, satelite horiekin dena kontrolatu eta etsaiaren misil guztiak desegiten dituzula. Misil horiek orduan erabat alferrikakoak dira. Orbitan dagokeen baloi baten neurriko edozer kontrolatu daiteke.

Kasu horretan amerikarrak seguru daude beren gazteluan, eta ez dute arriskurik jarraitzeko. Hori da txarrena: orain arte oreka bat bazegoen, eta orain ekilibrio hori deuseztu egiten da, besteen arma nuklearrek ez bait dute ezertarako balio eta amerikarrek beren gaztelutik nahi dutena egin dezakete.

Errusiarrek holako arma defentsiborik lortzen ez badute galduta daude. Frantsesak ere oso haserre daude horrekin, konturatzen direlako beren «Force de Frappe» edo eraso indar famatuak ez duela ezertarako balio. Errusiarrek ere egin dezakete defentsa arma hori, baina oso garestia da.

Urte luzeetan komunisten erasoaren arriskua aipatu izan da OTANeko estatuetan armamentismoa justifikatzeko, baina gaur egun amerikanoen nagusitasunaz harrokeriz mintzatzen zaio bere herriari Reagan. Benetakoa al da hau ala publizitate hutsa?

Mehatxu errusiarra ez da esistitzen, militar aldetik esan nahi dut. Sobiet Batasuna inguratua dago. Non daude misilak? Errusiaren ateetan: Turkian, Alemanian... eta sobietarren bihotza josi dezakete bonbaz.

Amerika aldiz oso urruti dago. Badago arma estrategikoen posibilitatea, baina Errusia «encerclée» dago. Mehatxu amerikarra askoz ere indartsuagoa da sobietarra baino. Sobietarren benetako mehatxua ideologian dago, gerra subertsiboan, baina hori gero eta gutxiago, gaurko komunismoa Leninen garaietakoa bera ez da eta.

Errusia beti erresuma paketsu bat izan dela esan behar da, hori da egia. Argi esan dezadan, ez tronpatzeko: bere politika da «de contiguidad», aldameneko herrietatik espantsionatzea. Siberia, Alaska, eta beste aldetik Erteuropakoak.

Estrategikoki Eurasia haundiaren ia penintsula baino ez da Europa, eta normala izango litzateke geostrategiaren aldetik mutur hau okupatzea. Baina errealitateaz ohartzeko dira eta errespeto haundia dute. Ez dut beraz arrisku sobietarra ikusten.

Azken denboretan amerikarren ez dute bada errespeto haundirik agertzen europarrontzako.

Arrisku amerikano bat badago, eta hori beste mota batekoa da. Reaganismoa, berak aurrera atera daitezen beste guztiak hondoratu beharra, haundinahia. Reagan loriatsua bere gorenean dago. Errusiarrek ez diete harrokeria hori agoantatzen, eta negoziaketa askoren frakasoan harrokeria amerikano hori dago.

Eta bi horien erdian zer pintatzen dugu guk, europarrok?

Oso gutxi. Galdetu beharra dago: egon al daiteke europarrok osatutako defentsa bat? Errusiarren kontrako defentsa, suposatzen da. Baina bakoitza bere aldetik dabil. Europa ez dago eratua, ez da esistitzen.

Herrien Europa. Polita da, eta hasieran asmoa hori zen. Baina noiz helduko da? Airean dago. Eta gure egoera trajikoa da.

Baina Europa bakarra dago, ez dago beste Europarik. Europak dauka nagusitasun intelektuala, zibilizazioaren primazia. Piska bat greko dekadenteak bezala. Inperio Erromatarrek ez zuen kategoria intelektualik, juristak bai, baina juristak erdi militarrek dira. Hori zen Erromaren izpiritua... Grekoak hor bukatu ziren, egia da.

Bukatzen ari zaren liburu horren azken kapitulua arazo hauen aurreko jarrera moralari buruz omen da. Hor dago Estatu Espainolak OTANean jarraitu ala ez eztabaida, erreferendumaren proposamena...

Nere jarrera pittin bat aldatu dut azken denboretan. «El Ciervo» aldizkarian artikulu bat argitaratu dut 6 kasu aztertuz, hiru barruan geratzekotan eta beste hiru ateratzekotan. Ondorioak oso konplikatuak dira.

Aukera bat da OTANen geratzea baina egitura militarretik berezirik gertuz. OTAN osoa da militarra, baina erakunde militarretik aparte geratuz ahalik eta buruhausterik haundiena sortu jarrera neutralistetatik. Jokabide makiabelikoa.

Eskuinak erabat integratzea proposatzen du, baita mando atzerritarrak ere onartuz. Horretatik aldea dago behin barruan gaudenez gero geratu eta «enfant terrible»arena egitera, Greziak egiten duen moduan. Hirugarren bat ere posible da, arazoa ongi aztertu eta neutralismo aktibo bat.

Baina irtenbide pazifista oso erreza da «bagoaz eta kito». Ez, ez, egin ezazu politika bat duopolioa hausteko, hori da eta garrantzizkoa. Nola hautsi daiteke hobeki duopolioa? Hori aztertu nuen, baina ez dut gogoratzen jarrera erabateko bat azaldu nuenik.

Pazifismora iritsi gara, eta horretaz makina bat pentsatzeko aukera izan duzu, kristautasunetik, jokabide politikotik...

Pakeari lehenengo lekua ematea da pazifismoa. Pakea balio supremoa. Baina San Agustinek esaten zuen gerra kenduz gero galtzen ahulenak aterako lirartekeela. Bortxa ez da egiten nor bere burua zaintzeko bakarrik, auzokoa inbaitzailearen esku ez uzteko ere egiten da.

Hitlerren aurrean taktika pazifista erabili balitz munduaren jabe egingen zen. Pakea edozein prezioztara ez, bere gainetik justizia dagoelako. Ez dut pakea

onartzen Euskal Herrian: kuzkurtzen gara guztiok eta «no queremos guerra, no queremos ETA...», eta justizia non jartzen dugu? Pakearen gainetik dago justizia. Eta guk dakigula, inbasoreagandik defenditu egin behar da.

Badakit bide horretatik jarrera belizista ikaragarrietara iritsi naitekeela, konforme, baina esaten dudana da pakea ezin dela beste edozeren gainetik jarri. Antimilitaristak, kontzientzi objezioa... tontakeriak dira. Hitlerrek farre egiten zien holako gauzei, berak masak elektrizatu egiten zituen gerra ikaragarri batean murgilduz. Orduan Hitlerren kontrako erresistentzia egin zutenak zer ziren, astakirten batzuk?

Gandhizalea izan naiz oso, eta zinez Gandhi ere ez zegoen Gandhirekin horretan: lagun biolento asko zituen eta ongi egiten zutela zioen, ez zela bere bidea baina ongi ari zirela. Horregatik, jarrera negatibo eta utopikoetan dabilen pazifismoarekin ez nator ados.

Ejertzitoak kendu behar direla... bai, baina hemen defentsarik gabe geratzen bagara. Europan, azkenean mundu guztiak egingen du borroka gure gainean.

Zein da orduan zuk maite duzun pazifismoa?

Badira pakearen alde errealitatetik lan egin nahi dutenak, eta jarrera hori biablea da. Thomson bezalako jendearen bidea dut gogoko. Alor normalean pakearen alde egiten den lanak askoz gehiago lortu dezake pakezaletasun utopiko batek baino.

Errezena da pazifistarena egitea, baina haundi-maundiek farre egiten dute. Baina Alemaniako berdeen pazifismoa, parlamentuan gobernuari misilak onartzeagatik istiluak sortuz eta... hori burutsuagoa da. Gauza zehatzei heltzen diete.

Orain datorkigu OTANen gorabehera. Zer egin behar du egiazko pakezale batek, ezetz esan, OTAN armaturik dagoelako? Varsoviako Tratukoak ere armaturik daude. Neutralak deklaratu behar al dugu? Baina horregatik ez da desagertuko Frantziako Force de Frappe, misilak ez dira suntsituko... Hemen taktikarik onena makiabelismoa da, Mendebaldean egon, hor bait gaude, eta amerikarrak izorratzea ahal den neurrian.

Karlos Santamaria, pazifista aktibo bat bakea arrazionalki aurkitu nahian. «Bakearen gaian, batez ere arazoa zientifikoki eta sakonki aztertuko duen pertsona multzoa behar dugu»

Egin, 1985-11-25

Karlos Santamaria donostiarra da, eta bizitzan zehar matematikoa izan ohi da ofizioz eta afizioz. Era berean, frankismoaren garaian ere bakearen aldeko borrokalari porrokatua izan zen. Euskaldunberria, euskararen aldeko hainbat izerdi eta kemen eskaini ditu —bere belaunaldiko hainbatek bezala— musu truk. Geroztik, erreforma politikoa-rekin sortutako Eusko Kontseilu Nagusia Hezkuntza Kontseilaria ere izan zen, gerora politika utzi eta erretiroko azken urteok armamentismoari buruz eta blokeen arteko orekari buruz ikerketak egiten eman ditu. Urte horien emaitza gisa «La amenaza de guerra nuclear» liburua argitaratu berri du. «El futuro del pacifismo» izenburuz beste bat ere prestatzen ari omen da. Gai horixe aukeratu dugu gure oraingo elkarrizketa honetarako. Azalpen eta datu ugari geratu dira bazterrean, agian argitaratutakoari arazoibiderik kenduko diola jakinda ere. Halere, azalpen gehiago eta sakonago bila dabilenak liburura jotzea duela jakiteak apur bat lasaitu digu kontzientzia txarra.

Karlos, azken urteotan batik bat bakearen eta arma nuklearren gaiarekin sensibilizaturik ibili zara. Nola ikusten duzu ikuspegi pertsonal batetatik pasa den astean amaitu berria den Ginebrako kumbrea?

Reagan eta Gorbacheven arteko historia luzeago baten azken episodio bezala ulertu behar da, jakina, eta nire ustez oso positiboa izan da, orain artekoen artean behintzat onena izan delako. Orain arte egon diren kumbreak zazpi-zortzi bat izan dira, eta pasa den aste honetako hori dudarik gabe egon den positiboa izan da, beste edozein baino askoz hobea. Areago, kontutan hartuta lana ez zela alde zuzenetik batera prestatua eraman. Esan nahi dut aurreko kumbreetan (adibidez, Nixon-Brezhnev eta Carter-Brezhnev izan ziren famatuenak) lana aurretik prestatu zegoen eta kumbreak akordioak sinatzeko besterik ez ziren egiten. Horrela sortu ziren SALT-I eta SALT-II akordioak.

Oraingoan ez, oraingoan lasai ikusi dira gaiak eta lasai diskutitu da, nahiz eta aurretik ezer prestaturik ez eduki. Zaila da jakitea zehazki zertaz hitzegin da baina susmatu daitekeenez arazoari askoz sakonagotik heldu zaio.

Guzti hori zergatik esaten dudan ulertzeko detaile bat hartu behar genuke kontutan: irteerarik gabeko egoera batetan gaudela. Alde batetik, armamentu aldetik orekatuak daude bi blokeak, alde batetara nahiz bestera alboratzea nahiko zaila dute bai batak eta bai besteak eta hori mundu guztiak daki. Baina bestetik oso inportantea da ere gaur egun ez dela posible disuasio politikoarekin aurrera jarraitzea. Bi gobernu horiek inork baino hobeto dakite hori eta derri-gorrezkoa da arazoari irtenbide bat bilatzea, modu efektibo eta errealista batez.

Kontraesanezko hitzak badira ere, nondik etor daiteke irtenbidea irtenbiderik gabeko egoera honetan?

Irtenbidea zein den jakin ahal izateko parte bakoitzak zer bilatzen duen argitu behar genuke hasteko. Reagan-ek, bere aldetik bere IDS edo «Galaxietako Gerra»ren projektua defendatu eta aurrera atera nahi du, noski. «Galaxietako Gerra» izena astakeria da eta ez da komeni erabiltzea, baina tira, izenen katastrofismoa ere disuasio-jokuaren parte da (gogoan dut nola Kissinger-ek berak esaten duen Reagan-ek izen tremendistak jarri behar dituela Kongresutik diru atera ahal izateko), baina tira. IDS plan hori, beraz, defentsa estrategikorako plan bat da, oraindik muntatu gabe dagoena eta auskalo inoiz muntatuko den ere, baina errealtatea da amerikarrek lau biloitako kreditoa botatu dutela lau urtetan hori egin ahal izateko.

Zer da errusoei nahi dutena? Gorvachev-ek esanda, gaur egungo helburu nagusia Errusiako egoera ekonomikoa aldatzea da. PCUSen azkeneko kongresuan ere helburu nagusi bera agertzen. Gertatzen da amerikarrek beren IDS plan horrekin aurrera joez gero (posible da, zergatik ez?) etorkizunean Ameriketako Estatu Batuak inbulnerableak bilakatuko lirateke, eta inbulnerableak bilakatu gero, berriz ere desekilibrio izugarria sortuko litzateke. Modu horretan kontrarioa ere defentsa inbulnerable horren kontra ere beste zerbait antolatzea behartua dago, bestela bere egoera katastrofiko izango litzateke eta. Ildo horretatik, aro nuklearreko garai txarretara bueltatzearekin batera, errusoei inbertsio ikaragarriagoak egin behar lituzke eta ezingo lukete beharrezkoa duten aldaketa ekonomikoa haundi hori burutu. Azken finean honekin argi ikusten da amerikarrentzat arma-lasterketen helburua ez dela militarra, ekonomikoa baizik. Washington-en inork ez du sinesten Sobietar Batasuna militarki zapaltzea

posiblea denik. Ekonomikoki bai, eta horretara doaz. Irtenbidea ere klabe ekonomikotan edota haiei erreferentzia eginez etor daitekeela uste du.

Lehenago esan duzu aro nuklearreko garai txarrenetara hurbiltzeko moduan gaudela. Laburki esanda, zein mementutan aurkituko ginateke gaur aro nuklearraren historiari kasu eginda?

Aro nuklearrak hiru aldi edo garai izan ditu. Lehenengoa amerikar monopolioarena izan zen, distentsioarena geroago, eta azkenik konfusioarena. Azken sei-zazpi urteotan egon den konfusioaren aro honek, azkenik, irtenbiderik gabeko egoera batetara eramán gaitu eta horrek esplikatzén du, nire ustez, oraingoan bi gobernante haundi horiek benetan hitzegitera eseriak izatea. Bi potentzien artean orain arte eramán den dinamika disuasioaren bidezkoa izan da, eta astakeria bada ere disuasioaren taktika segituz gero oraingo ondorioak beste erremediorik ez dago. Esan nahi dut disuasioaren taktikan edozein desberdintasun edo bentaja arrisku haundia dela, eta beraz bakea bolkanaren puntan eraikitzen da.

Nahiz eta batzutan esperantza-izpiak egon, orokorrean hain dramatikoak den egoera horretan, zein da kaleko jendeak izan dezakeen eragina?

Hortxe dago errubera: Reagan-ek mehatxua motatzen du, eta Gorbachev oso mementu larrian aurkitzen da, ikusten duela bere herria ekonomikoki atzean gelditzen ari dela. Eritzi mundiala ere hortxe tartean dago, harrizko gonbidatu bezala, eta bi agintari nagusiek ere badakite hor dagoela.

Optimista al zara eritzi publiko horren balorazioaz?

Piskanaka piskanaka eritzi publiko desberdin bat pizten ari da, jendea konturatzen ari bait da gerra gauza katastrofikoak dela, eta ez dela onartu behar. Noski, badira belizista eta militaristak, bere herri batzu menderatu nahi dituztenak, baina bestelakoak gero eta ugariagoak dira. Pazifismoaren marea goraka joango dela espero dut, eta areago, gero eta gauza sendoagoa izango dela uste dut. Ez ez-biolentziaren aldetik, edo gisa horretako pazifismoengatik, beste era batetako pazifismo baten aldetik baino. Ez-biolentzia eta gauza horiek ondo daude baina ez dute ezertarako balio, ez da orain arte ikusi metodo horren bidez inbasorerik geldierazi denik. Orduan, beste gisa batetako pazifismoa agertzen hasi da Europan eta Amerikan ere eta horrekin optimista naiz.

Esan al daiteke aro nuklearrak gisa berri batetako pazifismoa sortu duela?

Pazifismoa gauza zaharra da. XIX. mendetik datorren fenomeno da, gerraren kontra eta soldaduskaren kontrako mugimendu bezala. Mugimendu horrek barruan ere militarismoaren kontrako jarrera eraman izan du. Dena dela, arma nuklearra etorri denean erabat aldatu ditu bai pazifismoa eta bai militarismoa. Militarismoa —*pazifismoa ez bezela*— antzinako joera da eta beren ametsa arma totala da, beste herrien gainetik inposatzeko ahalmena edukitzea; Hitler izango litzateke horren eredu garbi, eta nire ustez arma nuklearren arrisku haundiena egunen batetan beste Hitler bat sortzea da. Arma nuklearrak, beraz, militarismoa ere aldatu du, baina batik bat pazifismoa aldatu zuen. Zergatik? Bazuelako etsai konkretu bat horren kontra joan ahal izateko. Gerraren kontra abstraktuki ezer egiteak ez du inora eramaten. Zuk egin dezakezu manifestapen bat eta kaleak bete gerraren kontra eta hori politikoei berdin zaie, ez die axola. Azken urteotako pazifismoa, beraz, gerra nuklearren kontrako pazifismoa da eta horrek eman dio ezaugarri nagusia.

Zeintzu dira zure ustez pazifismoak bete behar lituzkeen ezaugarriak, gaur egun eta hemen, positiboa izan dadin?

Esan beharra dago pazifismo klase asko daudela. Hasteko pazifismo magikoa dago, beldurraren pazifismoa, garrasi egiteagatik soilik gauzak aldatuko direla pentsatzen duten pazifismoa. Jende guztia da pazifista beldurraren ondorioz. Inork ez ditu gerrak maite, eta sarraskiak edonor ikaratzen du. Horren kontra garrasi egiteak ere soil-soilik ez du ezer aldatuko. «No basta el terror de la situación para salir de la situación de terror» esan zuen ikerle batek. Ezinezkoa da buru sinplista batzurekin gerraren kontra borroka egitea, arazoak bere muinean eta bere osotasunean ezagutu behar dira, eta horien ezagupenetik egin behar dira proposamenak. Noski edonork eska dezakeela desarme unilaterala, baina hori ezinezkoa da guztiz, teknikoki eta politikoki, eta beraz hori eskatzea alferrikakoa da.

Badago beste pazifismoa, nik tekniko edo zientifikoa (baita arrazionala ere deitu nezakeen) deituko nukeena, eta nire ustez bakearen alde askoz gehiago egin dezakeena. Nire ustez mementu honetan batik bat gerraren eta nuklearraren arazoa arrazionalki, zientifikoki eta sakonki aztertuko duen pertsona multzoa behar dugu, horixe bait da proposamen posibleak egiteko eta benetan politikoki inziditzeko modu bakarra. Minbiziaren kontrako borroka eta gaisotasunen kontrako borroka laborategietan irabazten ari dira, eta ez kalean. Kaleko

ekintzak beharrezkoak dira, baina une honetan utziena daukaguna eta beharrezkoena dena bestea da nire ustez.

Eta ikuspegi konkretu batetara jaitsiz, zein da Euskadik eta Estatu espainolak alderdi horretan jokatu dezaketen papera?

Euskadik jokatu dezakeen papera, zoritzarrez, hutsa da, Euskadi arlo horretan ez bait da ezer. Ez dugu ahortzi behar Euskadi ez dagoela eginda, eginkizun dagoela. Alde horretatik errealistak izan behar dugu eta argi eta garbi esan behar dugu: Euskadik Euskadi bezala ez dauka ezer esaterik gai horretan.

Estatu espainolari begiratzuz gero, arazoa konplikatuz doakigu: OTANen gaia dago, erreferenduma, etab. Nik erreferendumaren gaiarekin ez dakit zer gertatuko den —izugarritzko kuriositatea daukat ea Felipek zer egiten duen ikusteko— baina egiten bada seguru nago fartsa bat izango dela. Fartsa bat planteiamendu aldetik, zein botoa emango dutenen aldetik. Ezin da pentsatu OTAN-en gaiari buruz erantzun erraz bat eman daitekeenik eta are gutxiago gaiari buruz minimoki sakondu eta ikertu ondoren.

Horregatik diot erreferendum horretako galderari modu batetan nahiz bes-tetan erantzungo diotenak fartsa batetan arituko direla, arazoaren benetako di-mentsioa ulertu gabe sinplekeria batetan eroriko dira eta. Gobernuaren aldetik ere fartsa bat izango da, Felipe Gonzálezek ongi aski bait daki horretan ezin duela atzera egin. Ez dugu ahortzi behar hain tradizio pazifista duten Holandak eta Belgikak azkenean euromisilak irentsi behar izan dituztela. Maila horretan, ez dago nazioarteko konpromezuei muzin egiterik, hain erraz eskapo egiterik. Felipek honez gero eskuak loturik dauzka maila horretan, eta horregatik diot horretan ere fartsa haundia izango dela.

Zure jarrera pertsonala zein den jakitea gustatuko litzaiguke.

Nik neutralismo aktibo baten aldeko apostua egiten dut, baina oinak non ditugun ongi jakinda. Izan ere, argi dago Estatu espainola etorkizunean inguruko herri europarrekin batera eman beharko dituela urratsak, eta dagoeneko urte gehiegi pasa dituela ebidentzia horri bizkar emanaz. Horren froga gisa konturatu besterik ez daukagu, joan den mendetik hona Estatu espainiarra ez dela nazioarteko gerra bakar batetan sartu. Horrek, beste gauza batzuren artean, konpromezu europar horri bizkar emanda bizi izan garela esan nahi du. Jakina, OTANen aparato militarrean sartzea astakeria galanta izango litzateke,

militarki amerikarren menpe geratzea bait litzateke, baina nire ustez posible da neutralismo aktibo horren joera indartuz OTANen aparato politikoan paper inportate bat jokatzea, dagoeneko OTANen baitan dagoen eritzi korrante nagusi horri (neutralismo aktiboari) indar haundi bat emanaz.

Baina, gauza guztien gainetik, gorago esan dudana: arazoak aztertu eta gaiak sakondu, pazifismo zientifiko baten ildotik eta neutralismo aktiboa helburu bezala hartuta.

Carlos Santamaria: «Gure herriak gaitasun politiko falta darakusa»

Argia, 1.240 zk., 1989-04-16

Loren Aristi

Carlos Santamaria duela 80 urte jaio zen Donostian. Algebrako katedradun, «Pax Chrusti»ko zuzendari orokorra izana, Euskaltzaindiako partaide, «Jakin», «Zeruko Argia», «Anaitasuna» aldizkarietan buru belarri aritua... luze joko genuke motxean hainbat urte laburbildu nahi izanez gero. Hainbat liburu argitaratua bestalde, «Jacques Maritain y la polemica del bien comun», «Espiritualidad y politica», asko eta asko izan dira gizon honek jorratu dituen esparruak. Juan Carlos erregearen irakasle izana, Heziketako Kontseilari transizio garaian... itzal haundiko gizona ez bairik gabe. Elkarrizketan zehar erakutsi digun bezala gaur egun pil-pilean dauden gaiak barru-barrutik erantzunez.

Liburu bat idatzia duzu armamentuen karreraz eta galaxietako gerraz. Orain distentsioaz mintzo da jendea, perestroikaz...

Begira, Gorbaxov-ekin egin den akordioa izan da lehena bonba atomikoak ezabatzeko erabaki bezala. Lortu da ja Europakoak desegitea. Erabaki honek egundoko aldaketa suposatu du, eta beste egoera batetara eraman gaitu, zeina erabat diferentea den lehengoekiko, eta bestalde, inportanteagoa. Zuzen-zuzenean arma nuklearren ezabatzera jo bait da.

Zer dela-ta defendatzen du Gorbaxov-ek honelakorik? Arma nuklearrak, armak orokorrean, oso garestiak dira, eta Sobietar Batasuna arazo ekonomiko latz batetan jausirik dago, eta ongitasuna du desio bestalde, horretarako armetan gastatzen dituenak uztea baino ez zaiolarik geratzen. Arrazoiketa hau izan da hain zuzen ere distentsioa eragin duen arrazoirik nagusienetakoa.

Baina gainera, nik hasieratik ikusi nuen perestroika benetan serio zihola; hemen jende asko dagoen arren oraindik «beste mundu horretako komunismoa», edo Reagan-en zioen bezala «gaizkiaren inperioa» besterik ikusten ez dutenak... eta oso serio doa perestroikak dakarren berrestrukturaketa. Honek ez

du esan nahi estatu kapitalista batetan bilakatuko denik, baina ezbairik gabe demokrazia modu batera ireki daiteke orain bertan argiro antzeman daitekeenez.

Hau honela, egundoko eragina izango du aldaketa honek gure gizartearen pentsatzeko eran. Munduaren norabidea aldatzeraino. Esan daiteke lasai asko beraz mehatxu nuklearraren arriskurik ez daukagula gaur eta orain, pasa dela, urrutiko gauza bezala ikus daitekeela.

Zerk bultzatzen zaitu gai hauen ikutzera?

Beno, ni ikerlari bat naiz, eta pakearen arazoa betidanik interesatu zati: «Pax Christi»ko ordezkari nagusia izan nintzen adibidez, tratu haundia izan dut Europako pakezaleekin...

Zuen belaunaldia ez da konturatzen, baina guretzat bonba nuklearraren jaurtiketa egundoko kolpea izan zen, kasik orain artean barru-barruan eraman duguna.

Gainbegirada bat emanez, nolatan ikusten duzu aldatu direla gauzak bigarren gerrate mundialaren ostean?

Begira, bigarren gerrate mundialaren ostean filosofia mailako korronte haundiak krisi batean jausi dira; marxismoa bera ahaztu eta posmodernitatea sortu da ondorioz. 50. urtetik aurrerantzean fase berri batean gaude murgildurik beraz, baina beno, hor asko legoke esateko... distentsioaren sasoia genuke oraingoa, gatazka txikiak ere konpontzeko bidean jarri dira, Iran-Irak-en artekoa dela, hor dago Gorbatxov Kuban Fidel Castrori lasai egoteko esanez... ordea, nork hitzegiten du egun benetazko sozialismoaz? Benetazko ezkerrez? Esistitzen al da benetako ezkerrik? Esistitu daiteke egungo gizarte pragmatikoan? zeinak ongitasuna besterik ez duen desio... Munduko bigarren gudua- ren ostean sortu den gizarte honek benetazko axolagabekeria adierazten du gai hauekiko, egun ez da komunismo gogorraz mintzatzen, ez eta ere komunismo armatuaz, gauza erabat aldatu da.

Posmodernitatea ez da moda bat, sakonagoa da, batipat kultura eta filosofia mailan antzematen dena; egun ez dago filosofo haundirik, ez da posible gainera egon daitezen, ze filosofia, metafisika ez bait dira interesatzen gutxi bat sikiera, gaurko gizon-emakumeak ezin zaio garrantzizko galderarik egin, ez du deusik jakin nahi denbora batean gizartea nahastu zuten gaietaz, ez du sikiera planteia diezaioten onartzen... ateismoa adibide: XIX. mendearen amaieran halako borroka gogorak eragin zituenak, ba egun axolagabekeria besterik ez du eragiten, jendea ez da eztabaidan sartzen. Zentzu honetan ere, zenbat marxista

benetako dago orain? Zenbatek letzen du Marx? Nik letua eta azpimarratua dauzkat bere lanak aizu, lehen genuen interes hori... akabo! Gorbatxov eta horiek ez dira marxistak.

Sozialismoa bestalde, sozialdemokrazia aldatu nahi digute; hemen denak dira sozialdemokrazia... eta non dago iraultza? Klase borroka? gauza asko dago posmodernitateaz hitzegiteko, baina beno, begibistakoa da gaurko hau ez dena geratuko, teknologia modernoaren desarroiloak egundoko indarra eman dio gizarte honi, eta hori da hain zuzen interesatzen zaiona.

Gaiaz aldatu dezagun: zer uste duzu gertatu dela azken asteotan Euskadin?

Batak besteari botatzen dio errua... beno, ni abertzalea naiz, eta honetarik landa askoz ere gutxiago interesatzen zaizkit partidu politikoak, neri ez zait batiere gustoko partiduen demokrazia hau, oso jende gutxi dago afiliaturik edo partidu batean buru belarri sarturik batetik, eta bestetik, badakit nere larrutan ezagutu dudalako, partiduetan erabakiak hartzen dituztenak bakar batzuk direla.

Hau honela, abertzaletasuna sentimendu bat da, zeinak Euskadi maitatzera bultzatzen nauen. Independentista naizen? Zaila da oso galdera honi erantzutea, baina beno, nik Euskal Herriak nahi duena egin dezan nahi dut, euskal herriak bere borondatea bete dezan, bere geroa erabaki dezan nahi dut, independizatu dadin loturik mantentzen duen zama politiko honetarik. Gaurko egoerari atxekiz, alde batetik nahiko ezkor dakusat gertatzen ari dena, ze beste behin ere gure herriak gaitasun falta politiko nabarmena erakusten bait du jasaten duenaren aurrean, hemen bakoitza bere aldetik doa, ez dezala inork ilusio faltsurik mamitu... bestalde, oso ikuspegi baikorra da nerea, inoiz baino abertzale gehiago dago egun, euskara, oraindik ere konpontzeko asko falta ba du ere, egundoko urratsak eman ditu, hor dago unibertsitatea...

Lehengora bueltatuz, eta kanpotik begiratzen duen baten ikuspegiaz ari naitzaizu, ETA nekatuta egon daitekeela uste dut, oso zaila da ez nekatzea, hainbat eta hainbat preso, eta gero frantziar, espainiar eta beste poliziak aurka dituela aldi berean... eta hau honela, negoziatzera esertzen da, hitzarmen duin baten atzetik, eta hor sortzen da arazoa, ze espainiar Gobernuak, Felipe González buru, esku loturik dago ere...

Zergatik puskatu dira akordioak?

Zergatik puskatu diren akordioak? Nork egin duen gaizki? Hori ikusiko da, inefikazia... lehen esan dizudan bezala esku loturik dago Madrilgo Gobernuak.

Reinserzioa onartuko balu kasu, Espainia guztia izango luke gainean, eta hor dabil «piruetak» eginez, zerbait egiten ari dela adierazi asmoz. Borroka honetan bakoitzak bere papera betetzen du, baina zera utzi nahi dut argi eta garbi: pakea ez da berehala etorriko, luzea da bidea eta fase askotarik pasa beharko du. Estraineko hauek, nere ustetan, oparoak izan direla esan beharra dago, ETA espainiar Estatuko ordezkari zenbaitekin eseri da, eztabaidatu du, negoziatu du, begibistakoa denez gauza politikoak, tontakeria bat litzateke aurkakoa esatea. Beraz, pozten naiz hasera hau eman delako eta espero dut aurrera jarrai dezaten.

Ze paper beteko luke HBk egunen batean ETA esistituko ez balitz? Ez al litzateke bere funtzioa askoz ere garrantzitsuago izanen, demagun abertzaleen inguruan dagoen korrante zabal horren biltzen? Ba bai, garrantzi haundiko papera bete beharrean dago HB, eta orduan gauza asko aldatuko da, politika mailan diot, ze posible litzateke HB bezalako korrante batek beste egoera bat inposatzea Madrilgo Gobernuari. Pentsa, egunen batean populuaaren %80a independentziaren alde azalduko balitz Madrilek ezingo luke berau ukatu. Hau ere begibistakoa da.

Zu bi urtez edo Juan Carlos erregearen irakasle izan zinen. Nola uste duzu ikus dezakeela egungo giroa?

Nere iduriz nahiko ondo egiten ari da egin beharrekoa. Nik badakit jende askok ezin duela ikusi baina neri bost axola, demokrazia honen barruan nahiko ondo ari da, gizon arrunta bera, jende askorekin hartu emana daukana, oso atsegina... oso egoera berezian dagoena ezin ahaztu, militarrek alde batetik, kasta guztietako politikoak bestetik, sozialistak boterean... hala ere ez du oso eskuinteko ikuspegia azaldu, eta aldiz ondo moldatu da guztiekin. HB berak ere hitzegiterik izango luke erregearekin nahiez gero, eta honek ez litzateke ateak itxiko. Independentziaren arazoa, planteatuko balitz adibidez, gizon honek ez luke negatiboki erantzungo.

Demokrazia hau aurrera doa. Guretzat, zaharrontzat, harrigarri da oso demokrazia honek hainbat urte irauten ikustea... egia esan, gizon honi utziz gero, oso baliogarria litzateke.

Joseba Arregik duela gutxi egunkari batetan esaten zuen apaizak gehiegi sarzzen zirela politika kontuetan beren egin beharra alde batera utziaz. Zer diozu hitz hauetaz?

Neri esan didate zuzenean Setieni botatako hitzak direla... berdin dio; nik badaukat liburu bat gai honen inguruan duela urte asko argitaratu nuena. Erlijioa ez daiteke politikatik aldendu, alferrikakoa da. Erlijio indibidualista, gizartearengandik aldentzen dena, ez da ezer; hain zuzen ere, elizaren aurka egin izan da, ez zuelako bere garaian deusik esaten, ze eliza ez bait da inoiz argi eta zehatz mintzatu. Beste gauza bat da partiduen politikan sartzea, baina politika bere zentzu zabalean ulertuta, gizartearen ongitasunaren bila jarduten dena, ezin du alde batera utzi, apaizak eta gotzaiek hitzegin behar dute politikaz. Zer gertatzen zen lehenago Francok hainbat apaiz beste mundura bidali zituenean? Bere larrutan ordaindu zuten... ez dakit nola esan dezakeen honelakorik Joseba Arregik.

Duela gutxi karta bat publikatzen zuten «El País»en: «El problema no es ETA, son los curas vascos». «Eso de que ninguno de los tres obispos vascos haya aparecido a la manifestacion del 18 de noviembre...» ez zeukala zentzurik zioen; manifestapen hartan ez egotea egundoko derrebesea zen editoriala idatzi zuenarentzat: ez al zen politika manifestaziora joatea? Dena da politika, gizon-ema-kumeak ezin du horretarik aldendu.

Eta oinarriko elizari buruz zer eritzi daukazu?

Hor dago, jendea joaten da elizara, elizara joaten garenok asko eta asko gozaten dugu bizitza espiritualaz, eta mundu honetako penuriak halaxe estaltzen ditugu guk.

KORRIKA gainean dugula, aurkako zenbait botza altxatu da. Nola ikusten duzu zuk?

Gauza ona izan da KORRIKA, baina zera, euskaltzaleen arteko borroka dela-ta, instituzio zenbait besteren aurka jarri dela-ta, KORRIKAK guzti honen zuzperten laguntzen badu ez duela bere funtzioa betetzen uste dut, ze euskaltzalearen papera guztiz positiboa izan beharko luke, euskararen alde borrokatu beharko luke...

KORRIKAK euskararen alde asko egiten duela esan beharra dago bestalde, euskara ikus dadila, entzun dadila sikiera egun batean, euskararen aldeko manifestu ikusgarri bat, zoragarria da... aizu, etorriko dira garai hobeak, ez bada gauza okerrik gertatzen bederen, ze ondorengo belaunaldiei adibidez, igoal okurrituko zaie «euskara zertarako?» galdetzea; guretzat euskara ororen gain

dago, baina beldur naiz, posmodernitatearen sasoi honetan hurrengoek dena auzitan jartzea!

Hasieran zenionez, zientifikotzat jotzen duzu zure burua. Nolatan antzematen duzu alor hau gaur egun?

Unibertsitateak inbestigatzaileak sortu behar ditu, euskal industriak behar duen modernizazioaren zuzpertzaila ezinbestekoak bilakatuko direnak. Unibertsitatea espekulazioaren baitan geratzen bada, metafisikarekin bueltaka, ez du deusik egingo. Nik halere, asko espero dut, hori bai, heldu beharrean dago, baina beno, hor dago Euskadin daukan apusturik haundienetakoa... egun esan daiteke gainera, garai batetik hona unibertsitate mailan eman diren aldaketak medio, gizartearen aldaketarako elementu garrantzitsu bat bilakatu daitekeela.

K. Santamaria: «Gerrak ezabatzearen aldeko burrukak denbora asko hartu dezake, baina ezin dugu etsi»

Deia, 1991-01-20

Joseba Etxarri

Intelektual donostiarrari gertagarria iruditzen zaio herrialde islamiarrak elkartzea eta fronte bat osatzea mendebaldearen aurka.

«Humanitateen atzerakada» *salatu eta bizi garen gizarte postmodernistan* «moralak eta etikak beren lekua berreskuratu behar dutela» *aldarrikatzen du Karlos Santamariak. Kristau pertsonalista, bakearen aztertzaile eta pazifista komentzitua, Eusko Ikaskuntzak* «euskal kulturaren alde emaniko bizitza osoko bere lanagatik» *eman berri dio* «Manuel Lekuona 1991» *saria. «Jakin»ek ere, bere aldetik, omenaldi modukoa eskaini dio bere azken alean. Pasa den abenduan 81 urte eginak dituen intelektual donostiar honekin mintzatu gara egun-egungo gaiez.*

Kurrikulum luze bezain trinkoa darama bizkar gainean Karlos Santamariak. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiko kide, doktore da Zientzia Exaktutan. Estatistika eta algebra lineal irakasle ohia Donostiako EUTGn, makina bat lan egin izan du euskarearen eta Unibertsitatearen alde. Donostiako Ikasketa Zientifikotarako Erakundeko bultzatzaile, Petrokimika Fakultateko kontseilukide, Santo Tomas Lizeoko sortzaileetako, Donostiako Nazioarteko Solasaldi Katolikoetako zuzendaria, Pax Christi-ko nazioarteko idazkaria eta Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza sailburua ere izan da.

Ikerketa anitz egin du, bestalde, gizarteaz eta bakea eta armei buruz. Argitaratu dituen liburuen artean «Jacques Maritain y la polémica del bien común», «Espiritualidad y política», «L'état idéal», «El desarme nuclear», «La Iglesia hace política» eta «Research of a Concept of Peace» aipa daitezke. «Zeruko Argia»n, «Jakin»en eta «Anaitasuna»n ere idatzi zuen, besteak beste.

Pazifistatzat definitzen duzu zeure burua. Jende mota elkarrengandik arrunt desberdinak entzuten ditugu pazifistak direla esanez. Zer da zuretzat pazifista izatea?

Nire ustez, pazifista izatea erizpide bat, kriterio bat izatea da historiaren aurrean; jarrera bat hartzea gizakien arteko gatazka guztien aurka eta arrazoiaren alde. Izan ere, gauzak arrazoiaren bidez konpontzen dira egiazki eta ez bestela; burrukak, ahal delarik, uxatu eta baztertu egin behar dira. Jakina gizakia gauza txikia dela, eta pertsona bakoitzaren iritziak ez duela oihartzun handirik, baina

kontzientziazteak eta denek batera jokatzek ekarriko digu oihartzuna. Pazifismoak, beraz, aktiboa behar du izan. Helburuak, urrun ikusten badira ere, ezin dira alboratu. Ezin da «Gerrarik ez» oihukatu eta gero, uzkurtuz, «egin dezatela nahi dutena»rekin jokatu.

Badirudi insumisioaz ari zarela.

Nik sinpatiaz ikusten ditut insumiso eta eragozleak. Ez da eurena jarrera erraza. Bide bat da, jarrera aktiboa armada guztien aurka, pentsamolde eta joera militaristak baztertzen joan gaitezen.

Posible al da hori? Gaia aipatutakoan, utopia hitza atera ohi da sarritan.

Nik uste dut posible dela. Ez da bapatean egingo, jakina, baina egingo da. Arazoa da indar handiak daudela gerraren alde: armagileak, indar ekonomikoak... Indar horiek, isilka, gerraren alde ari dira. utopia aipatu duzu. Errealitatea ukatzea da utopia. Nik, ordea, ez dut errealitaterik ukatzen. Errealitatetik abiatuz, bakearen ideiak defendatzen ditut.

Bazirudien mugimendu pazifistak eta bakearen baloreak aurrerakada nabariak egin zituela, baina berriz ere erori da gizakia gerlaren amildegian.

Hala da tamalez. Baina kontuan hartu errealitate historikoa konplexua dela oso. Historia gauza ximplea bailitzen hartzen du askok, eta ez da honela. Esate baterako, zenbat jende egon da historian zehar esklabutzaren kontra? Eta noiz lortu da ezabatzea? Duela oso gutxi. Orain inork ez du pentsatzen esklabutza berriz ere etorriko denik. Beste esklabutza formak izango dira, baina aldaketa, nabaria izan da, nahiz eta horrek denbora asko hartu duen. Gerrak ezabatzearen aldeko burrukak ere, denbora asko hartu dezake, baina ezin dugu etsi.

Beldur ginen Golkoan hasi zitekeen gerlaz. Orain, hasia delarik, nola begiratzen dio egoerari bakea eta armen arazoa ikertu duen zu bezalako pertsona batek?

Egia esan, ez dakigu zer gertatuko den. Orohar, izugarri tristea da berriz ere ikustea gerrak bukatu ez direla. Bestetik, arma nuklearrak ere egon hor daude eta gizakiak gizaki izaten jarraitzen duenez arma hor duelarik inoiz erabili

dezake. Momentu hori orain izango al da? Orain ez bada gertatzen, aurrerago gerta daiteke. Eta inoiz arma nuklearrak erabiliz gero, txikizioa ikaragarria litzateke.

Nire ustez gerra laburra izango da honakoa. Baina amaitu arren, beste gatazka bat geratzen da: islamismoarena, integrismo islamiarrarena. Nire ustez, gerra honekin esnatu egin da islamismoa. Masa handia dira, 800 milioi pertsona. Oraindik banatu samarrak daude, baina abiatzen direnean, indar handia egingo dute munduan eta alboratu dezakete piska bat mendebaldeko kultura. Gertagarria iruditzen zait herrialde islamikoak elkartzea eta fronte bat osatzea mendebaldearen kontra. Historiaren norabide berri bat litzateke.

Ez daude, ordea, herrialde islamiar guztiak Saddam Hussein-ekin. Azken finean, beste nazio islamiar bat eraso du. Bere burua islamiarren buru legez aurkezten du eta aurre egin dion Fahd errege saudiarrari «traidore» deitu dio.

Bai, «traidore kausa islamiarrari». Hori esan du hain zuzen. Eta baliteke zilegi izatea hori esatea. Ez dut esaten hala denik, Estatu Batuekin elkartzea hola kotzat hartzea posible dela baizik.

Gerla, orduan, islamiarren eta mendebaldarren arteko burruka litzateke.

Holako zer bait. Milenioaren amaieran, esnatzen ari da islamismoa. Hori ari da ikusten gerra honetan. Orduan, gerra hau amaitzen bada ere, Islama esnatzea —beste gerra hori— ez da geldituko. Eta ez diot txarra denik. Hori ikusteke dago.

Gerla desberdinak ari dira, beraz, suertatzen golkoan. Gerla militarra galduko balu ere, Saddam-ek bestelako etekinik atera dezakeela ari zara esaten.

Nik uste potentzia bakoitzak jarrerak aldatu beharko dituela, Jordaniak, Egyptok, etab. Herri islamiar batzutako buruzagiek jarrera bat hartu dute, baina piskaka aldatu beharko dute, herriak, bertako biztanlegoak, hala eskatzen dielako.

Gerraren «alde positiboak»

Zer erantsi edo aldatuko zenioke egungo gizarte modernoari?

Nire ustez edozein gizartetan beharrezkoa da moral bat izatea eta gure gizartean, momentu honetan, morala baztertua dago. Gaurko kultura,

postmodernismoa delakoa, moralarik eta etikarik gabe dabil eta horrek bide txarra dirudi. Nabaria da humanitateen atzerakada. Izan ere, gaurko zibilizazioa teknika da. Eta neroni, argi eta garbi, morala eta etikaren alde nago. Baina ez naiz pesimista. Historia beti izan da hola. Berritasunak oraindik ikusten ez baditugu ere, ziur naiz gauzak aurrera egingo dutela.

Zuzpertzte morala ezinbestekotzat aldarrikatzen duzu. Baina, nola egin?

Postmodernismoarekin ideologiarik ez da eta filosofia, guzti hori, baztertu egin da. Lehen bestela zen. Ortega, Unamuno eta holako pertsonak ez dira gaur esistitzen. Gaur ideia filosofikoez ez dute interesik. Ongitasunaren gizarte honetan, ongi bizitzea, ongi jatea dira helmuga. Alde horretatik, gerra bat ez litzateke hain txarra izango, gauzak bere tokian jartzeko. Izan ere, gerra guztiek gauza positibo bat izaten dute: jendeak asko ikasten du.

Jaurlaritzak burutu beharreko batailak

Euskal Autonomi Elkartearen gobernu berria osatu nahian dabilta. Azkenean, badirudi sozialistak oposizioa doazela eta EA gobernura.

Ni, argi eta garbi, gobernu abertzalearen alde nago. Beste biderik ez dagoela uste dut. Ez diot fronte politika egin behar denik, baina bai politika irmo eta errealista. Sozialistak, oraindik, nazionalismo espainiarraren menpe jokatzeko dute, konturatu gabe batzutan. Eurak ez dute uste, baina beren jarrera Espainiaren defentsa, espainiar batasunaren defentsa da. Eta Espainiak ez dauka eurak eman nahi dioten izaera dogmatiko hori. Espainia kendu daiteke, aldatu daiteke. Ez dira Euskal Herria konprenitzera heltzen. Gauza bakarra eskatzen diot gobernu berriari: joka dezala adimenez eta ez pasioz. Harreman ahalik eta onenak bilatu ditzala estatu espainiarrarekin.

Zein ekarpena eskaintzen dio EAK gobernuari PSE-PSOEek eskaintzen ez ziona?

Jarrera gardenagoa, Gizarte Segurantzaren eta beste zenbait gauzaren aurrean. Igoal ez da ezer lortuko, baina jarrerak irmoagoak izan behar dute. Madrilen ezetz badiote, ikusiko dugu. Azken finean, batailak irabazi edo galdu egiten dira, baina egin egin behar dira. Ez badugu sekula batailarik planteatzen, normala da gauza batzuek sekula ez lortzea.

Zein iritzi duzu autobideaz?

Gai politikoa da, trixtea, izan ere. Nire ustez, gauza ekologikoak garrantzi gutxi du hor. Aitzekia izan da istilu politikoa sortzeko. Egon litezke arrazoi ekologikoak, baina ez dira pisurik gehien dutenak. Uste dut Gipuzkoako Aldundiak ondo aztertu duela arazoa eta ekologiak bost axola diela, behar bada ez guztiei, baina bai autobiarene kontra ari den jende askori.

Karlos Santamaria. Zahartu ez den pentsalaria

Jai Egin, 11. zk., 1991-03-30

Nekane Iturregi

Zaharra adinez eta gaztea pentsamenduz, Karlos Santamaria solaskide ona da, esateko asko duena eta entzuten dakien horietakoa. Matematikoa, pentsalaria, euskal kultur arloan lan askoren egile dugu Santamaria. Berarekin hitz egin dugu Francoren garaian zuzendu zituen nazioarteko elkarrizketa katoliko sonatuez eta baita bukatu berria den Golkoko gerraz ere. Kristaia, pazifista, erizpide zabalekoa eta oso atsegina, bat dator intsumisoein. Intelektual kritikoa ez da inoiz apuntatu biolentzia guztien kontra doan moda berri horretara.

Frankistak Donostiara iritsi ziren uda hartan Karlos Santamaria familiarekin zegoen Aizarnan. Donostiatik gerrari iheska zihoan adiskide eta ezagun andana ikusi zuen herriska horretatik pasatzen. Uda bukatu eta Santamaria bere familiarekin hirira itzuli zenean kaleak erdi hutsik, basamortu zirudien Donostiak, izan ere, kaletik paseatzea ez zen posible solapatik zintzilik bandera espainola eraman gabe. Santamaria Burdinazko Zubiaren ondoan bizi zen garai hartan eta etxetik entzuten zuen gauero afusilamenduen zarata. «Jendea gauero nola hiltzen zuten entzuten genuen. Edozein huskeriagatik hiltzen zuten jendea. Ikaragarria zen».

Gerra ondoko giroa aipatu behar da Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián delakoen garrantzia ondo ulertzeko.

Kanpotik Francoren kontra zerbait egingo zela espero zen hemen, Hitler eta Mussolini desagertu ondoren, frankismoa baitzen zutik zirauen faszismoaren azken hondarra. Baina ez zen horrela gertatu. Garai hartan Espainia isolaturik zegoen, beste herriekiko harremanik gabe. Eliza ere oso frankista zen, eta ematen zuen denak ados zirela gauzak zeuden bezala mantentzeko. Egoera hau, zer esanik ez, oso kaltegarria zen kultura, politika zein erlijioarentzat. Gauzak horrela bururatu zitzaigun kanpoko mundu katolikoarekin harremanetan jartzea, eta horretarako antolatu genituen bilera berezi horiek Donostian, ez kongresu bat egiteko asmotan, hitz egiteko gunea izateko baizik. Jakina, horrelakorik pentsaezina zen egoera hartan. Nik Martín Artajo, Kanpo Arazoetako ministroa ezagutzen nuen, eta gure asmoa azaldu nion. Berari ideia gustatu zitzaion jasaten ari ziren blokeoa apurtu nahi zuelako, eta guri ere interesatzen zitzaigun zirriztu bat ireki eta ideia berriak ezagutzeko. Bi parteek genuen interesa eta

akordio batetara iritsi ginen. Nik ezinbesteko baldintza jarri nuen, hots, zentsurarik ez zela izango solasaldi horietan. Konforme zegoela esan zidan eta aurrera egin genuen. Esan behar da baldintza hori beti errespetatu zutela.

Horrela hasi ginen atzerritarrak gonbidatzen geure bileretara. Hasieran ez ziren fidatzen eta ez zuten etorri nahi, baina pizkanaka-pizkanaka ikusi zuten joko garbia zela eta gero eta jende gehiago hasi zen etortzen. Katolizismoan betidanik izan dira jarrera integristak, baina garai hartan jarrera aurrerakoiak hasiak ziren jaiotzen eta guk bide horretatik ideia berri horien zabalkuntzeari egin genion. Elkarrizketek zazpi urte iraun zuten, baina iritsi zen nuntzio berria trabak jartzen hasi zen eta bukatutzat eman genuen ekintza. Ordurako gauzak aldatuak ziren piska bat, beste giro bat zegoen.

Francoren aldeko jarrera hartzeak ez dio gero Elizari mesederik egin, ezta?

Ez dio batere mesederik egin. Garai hartan Eskubia eta Ezkerra ziren. Eskubia katolikoa zen eta Ezkerra berriz, antiklerikala. Gaur egun ez da horrela, baina garai hartan hala zen. Elizak Francoren aldeko jarrera hartu zuen eta horren ondorioz jende askok pentsatu izan du katoliko eta frankista izatea gauza bera zela, eta hori faltsua da. Erljioa ez da, askok uste duen bezala, gauza itxia, hori baino sakonago eta irekiagoa da. Gainera, aldatuz joan da, Aita Santu batzuren eraginez, batez ere. Gaur egun beste egoera baten gaude, postmodernismoan. Jendeak ez du interesik ez Elizan ez erlijioan, ez Ezkerrean ez Eskubian, gaurko kontua ondo bizitzea da, besterik gabe.

Ongizatearen gizarte honek gizakiaren kritika-ahalmenarekin bukatu al du?

Asko murriztu du, bai. Gaur egun jendeak ez du kritikarik egiten, ondo bizitzea da interesatzen zaiona. Jakina, ez dago jadanik ezker aldeko jarrerarik. Esate baterako, Felipe Gonzálezena zer sozialismo mota da? Hori ez da garai hartako sozialismoa. Egunkarietan azaltzen diren artikulak irakurtzen dituzu eta segituan konturatzen zara garai hartako erresistentzi ideologikoa falta dela. Baina nik espero dut hori aldatuko dela, pertsonok kritika horren beharra baitugu.

Gizarte honetan intelektualen zeregina kritika egitea al da?

Intelektualek, nolabait bokazioz, izan behar zuten kritikaren bultzagile. Ez da horrela gertatzen, ordea. Dударik gabe, badira kritikatzten dutenak eta oso

ondo gainera, baina ez daude modan. Egunkariak begiratu besterik ez da behar horretaz ohartzeko. Hura beste garai bat zen, gerra bukatu berri zen...

Oraintsu ere gerra izan da...

Bai, oraingoan izan da jarrera pazifistarik, baina pitin bat fiktizioak dira zeren eta, noski, kalera ateratzea pankarta batekin eta «Gerrari ez» aldarrikatzea oso erraza baita, baina ikus dezagun zer egin gerrarik ez izateko... Hau konplikatuagoa da. Neu ere pazifista naiz, noski. Baina gerrak nahi gabe datozkigu eta ez dira bukatzen pankarta batekin kalera atera arren... Hor dago problema. Okerrena izan da gerra honek demostratu duela oraindik ere gerra izatea posible dela. Askok gerrarik ezin zela izan pentsatzen genuen arma nuklearrak direla eta, ikaragarri suntzitzaile bihurtu zelako. Haatik ez da horrela izan eta gainera Golkoko gerra horri gutxi falta izan zaio gerra mundiala izateko. Arma nuklearrak esistitzen diren heinean beti gaude gatazka nuklear bat izateko arriskuan. Hori badakigu, baina zer egin horrelakorik ez gertatzeko? Hor dago koxka. Egia da, neurri handian, azken gerra honen errudunak Estatu Batuak izan direla, irtenbide militarra inposatu zutelako... Desastre bat izan da gerra hau, desastre bat.

Karlosen lana ez zen bukatu Nazioarteko Elkarrizketa Katoliko horiekin. Bere ikasleei matematika erakustez aparte, proiektu askoren kudeatzailea izan da Santamaria. Besteak beste, Pax Christi erakundean, Loistarainen (gero ikastolen sortzailea izan zena), «Jakin» aldizkarian, eta Unibertsitatean izan dute bere lanaren berri. Geroago, EAJn zegoela, Euskal Kontseilu Orokorrean Hezkuntza Kontseilari izan zen. Partidua banatu zenean EAn sartu zen. Aipatzekoa da beti izan duen argitasuna eta sentsibilitatea «euskal arazoa» ulertzeko. Gizon fededuna izaki Elizaren jarrera aurrerakoiekin bat dator.

Pertsona bakoitzarengan erlijioa diferente bihurtzen da —dio— pertsona guztiak diferenteak bait gara, eta erlijioa subjektiboa da, inoiz ez da gauza geometrikorik izan. Integristek esaldi eta artikulua konkretu batzuetara mugatu nahi dituzte ideak... Hori ez da niretzat. Nik Askapen Teologia oso ondo konprenitzen dut, ez dakit, ordea, zergatik deitzen dioten teologia, askatasuna justizi arazoa baita. Beti gustokoak izan ditut. Injustizia bada, kristauak horren aurrean jarrera aktiboa hartu behar du, ezin du bakarrik kritikatu, gizartea aldatzeko lana egin behar du. Gaur egun justiziaren zentzua bada, eta horrexegatik Askapen Teologiak aurrera egiten du. Beste batzuk horri herejia deitzen diote. Nik ez dut herejariak inondik ere ikusten.

Zer deritzozu intsumisoen jarrerari, gerran parte hartu nahi ez dutenen jarrerari?

Asko kostako zaie horrelakorik onartua izatea, baina oso ondo egiten dute. Boterearen kontra egin behar da, dudarik gabe, ejerzitoen kontra joan behar da. Niri ondo iruditzen zait, oso sinpatikoak direla pentsatzen dut. Atsegin ditut. Baina oso jarrera zaila da, zeren Estatuak haien kontra egingo bait dute. Ordea, jarrera konstzientea da, logikoa erabat. Pazifista naiz, beraz, ez dut soldaduskaririk egingo.

Kristau batentzat ez al da jarrera hori egokiena?

Kristau asko da Biolentziaren Kontrako mugimenduetan sartuta dena. Kristau batek ezin du gerra defenditu, ezin du bere anaia hil. Baina gatazkak hortxe ditugu, orduan saiatzen dira jarrera pazifistak arma bezala erabiltzen, burruka egiten dute bakearen alde. Oso zaila da. Horrek, praktikan jartzeko, batez ere, sendotasun handia eskatzen du. Piskanaka-piskanaka ideia horiek, ordea, bidea irekitzen ari dira.

Gaur egungo gazteek ez dute gerra gogoko, beste garai haietan bezala. Lehen tropak ondo ikusiak ziren, txalo jotzen zieten kalean barrena, bihotzez jo ere, txikitatik jendea hezkuntza militarra edoski zuelako.

Baina kasuak eta kasuak dira, adibidez, Hitlerrek Frantzia okupatu zuenean, zer egin behar zen? Besoak gurutzatu, aurrera pasatzeko esan? Hori ezinezkoa da. Gerra kondenatu behar da, baina gizakiak bere burua defenditzeko esku-bidea du. Erasotzen dutenean ez du beste erremediorik, eta frantsesek ere hala egin zuten.

Intelektualen artean biolentzia guztiak salatzea modan dago. Zu ez zara inoiz horrelako zerrendetan azaldu, ez duzu inoiz biolentzia guztien kontra aldarrikatuz agiririk sinatu.

Ez, nik ez dut horrelakorik egin eta bakezalea naiz oso, bakea maite dut. Baina gerrarekin segituz, ezin da gerra hipotetiko baten kontra jo, kasu konketuak aztertu behar dira eta gero jarrerak erabaki. Kuwaiten kasu horretan ONUk erridikuloa egin du, bakebidez istiluak konpontzeko gai ez dela demostratu du. Oso egoera nahasian gaude EEBBak munduaren gendarme bihurtu baitira. Eta hori oso arriskutsua da. Hiru partaideko erakunde bat eratu beharko litzateke, Japonia EEBBak eta Europako estatuak barruan direla ONU funtzionarazteko,

bestela ez du ezertarako balio. Amerikanoak egiten ari diren politika katastrofi-koa da, nik espero dut konturatuko direla.

Euskaldun berria dugu Karlos Santamaria. Bera txikia zenean ez zitzaion batere inportantziarik ematen euskara jakiteari, eta beranduago ikasi behar izan zuen liburuen laguntzaz. Oso harro azaltzen du bere 10 seme-alabek eta 26 bilobek, guztiek euskara badakitela. «Askotan galdetzen zidaten ea zergatik galtzen nuen denbora euskara ikasten, ez baitzuen ezertarako balio. Horrexegatik, horrexegatik erantzuten nien nik. Kulturak ez du utilidadea bilatzen gizakiaren beste dimentsio batzuk baizik. Guk bi irtenbide genituen. Posible zen, askok eta askok egin duten bezelaxe, euskara pikutara bidali eta erderaz bizi, baina gehienok ez dugu hori onartu. Euskara gai da edozein ideia adierazteko».

Larogei urte baino gehiago dituen pentsalari honek gazteak ditu gogoko. Bere ustez, gaurko gazte gehienek askatasunez eta lasaitasunez hartzen dituzte erabakiak, inguruan gertatzen denarekin ohartzen dira eta ideiak dituzte. Ez dituzte onartzen oraingo bizimoduaz zaharrek egiten dituzten kritikak. Hori historia geldieraztea dela iruditzen zaio eta gazteak zaharrak bezala pentsatuko balute lelo batzuk lirakeela dio. Harro dago oso, bere bilobekin. «Baditut horien artean objetoreak direnak —adierazten du— eta oso ondo iruditzen zait. Zahar batek ikasi behar duen lehendabiziko gauza da zaharra dela, eta garaiak aldatu direla».

«Herrien Europa sortu beharra dago». Karlos Santamariari Urrezko Domina ezarri zion atzo Gipuzkoako Foru Aldundiak

Euskaldunon Egunkaria, 1991-04-28

Juan Luis Zabala

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Domina eman zion atzo eguerdian Karlos Santamaria, matematiko, pentsalari eta idazle donostiarrari, eta Gipuzkoako Seme Kuttun izendatu zuen. Era honetan «gure herriko pentsamenduaren eta kulturaren alde egindako lana» eskertu nahi izan zaio.

Aurtengo martxoaren 26an hartu zuen Karlos Santamariari ohore hauek eskaintzeko erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiak. Legegintzaldi honetan eman den Urrezko Domina bakarra da Karlos Santamariak atzo jaso zuena. 1983an Joxemiel Barandiaran eta Manuel Lekuonak jaso zuten ohorezko sari hau.

Gabidunek Gipuzkoako ereserkia jo zuten, gonbidatuak Aldundiko Jauregira sartzeko bitartean. Ondoren, Imanol Murua diputadu nagusiak Gipuzkoako Urrezko Domina ezarri zion Karlos Santamariari. Pedro Miguel Etxenike, Jesus Maria Larrazabal, Inaxio Oliveri eta Imanol Murua omenduari eta bere lanari buruz mintzatu ziren gero, eta Santamariaren esker oneko hitzekin amaitu zen omenezko ekitaldia.

Ez da hau Karlos Santamariak aurten jasotzen duen lehen omenaldia. Urtarrilaren 11n, 'Jakin' aldizkariak omendu zuen Santamaria, aldizkari horretarako idazten hasi zela hogeitabost urte betetzen zirela eta. Aldizkariaren 61. zenbakian Santamariaren pentsaera aztertzen zuen artikulu luze bat argitaratu zen, Joxe Azurmendik idatzia.

Eusko Ikaskuntzak ere Manuel Lekuona Saria eman zion Santamariari, hil honen 13an. Omenaldiko ekitaldian, Iñaki Barriola, Joxe Azurmendi eta Jose Luis Orellak Santamariari buruzko hitzaldi bana eman zuten.

Azken aldi honetan omenaldi ugari egin dizute. Nola hartu dituzu?

Zer esango duk nik bada? Ohore handi bat dira niretzat omenaldi hauek, eta poza ematen didate, dudarik gabe. Oso jende ona da niretzat, eta oso ondo portatu dira omenaldiak eskaini dizkidatenak.

Abertzale eta euskaltzale agertu izan zara zu beti. Noiztik dator kizu joera hori?

Txikia nintzela erdaraz bakarrik egiten ziguten. Eskolara joan arte, euskaraz egiten zidaten etxean, baina eskolan hasi nintzenean, nekien euskara gutia ahaztu zitzaidan. Gero, hogeituro urte nituela hasi nintzen berriz ere euskaraz ikasten. Don Toribio Alzagarekin hasi nintzen horretan. Gerra ondoren, Maria Dolores Agirrerekin jarraitu nuen. Eta gero bakarrik aritu izan naiz, neure kasa ikasten. Baina ez da erraza euskaraz ikastea. Beste gauza bat da, ez da gauza bera, eta euskaldunberriari beti antzeman egiten zaio. Badira oso ondo mintzatzaren diren euskaldunberriak, baina hori ez da nire kasua. Baina, hala ere, asko irakurri dut euskaraz, eta idatzi ere bai. Niretzat, errazagoa da euskaraz idaztea mintzatzea baino. Dena dela, niretzat euskara gauza handia da. Nik espero dut biziko dela. Une batean zalantzan izan zen, baina gero ikastolak agertu ziren eta horrek oso laguntza handia eman zion. Nire ilobak euskaldunak dira guztiak. Nik uste dut euskara biziko dela.

Nola ikusten duzu gaur egun euskararen alde egiten den lana?

Nik uste dut ondo dagoela egiten dena. Batzuk protestatu egiten dute. «Zergatik ikasi behar dugu euskara?», esaten dute. Euskal Herriak euskara gorde eta garatu nahi du, eta mugimendu hori ez du inork geraraziko. Ezin da esan kontu politikoa denik erabat, arazo kulturala da. Ez dakiguna da noraino iritsi gaitzkeen. Baina nik uste dut urte batzuk barru jenderik gehienak euskaraz jakingo duela hemen. Eskolan erabiltzen baldin bada, jendeak ikasiko du. Gero mintzatu den ala ez beste kontu bat da hala ere.

Nola ikusten duzu Euskal Herria Europa barruan?

Aurreko egun batean Mitterrand lehendakari frantziarrak esan zuen herri guztiek dutela beren nortasuna gordetzeko eskubidea. Eta gainera etnien mapak eta estatuen mapa ez datozela bat esan zuen baita ere. Gauza handia da politiko frantziar batek hori esatea. Horrek balio handia du. Frantziarrak oso zentralistak izan bait dira beti. Denbora baldin badut, beharbada artikulu bat egingo dut gai honetaz. Alde horretatik ikusten da Europa osoan gutxiengo asko daudela, eta ezinezkoa da gutxiengo bakoitzak estatu bat antolatzea. Horregatik, Herrien Europa sortu beharra dago, eta ez Estatuen Europa, frantziarrek nahi izaten duten bezala. Eta Herrien Europa horretan, Euskal Herriak toki on bat izango du. Hori da irtenbidea nire eritziz. Euskal Herriaren tokia European

dago, baina ez nolana hiko Europan, Herrien Europan baizik. Nire ustez, Europa egiteko beste biderik ez dago gainera.

Nola ikusten duzu Euskal Herrian sortu den unibertsitatea?

Ni gaztea nintzenean, Bilboko Ingeniaritza Eskola eta Deustuko Unibertsitatea zeuden bakarrik hemen, eta Deustukoak Valladolidera joaten ziren azterketak egitera. Orduan hasi ginen gu zentru gehiago eskatzen. Gaur egun, ez dago Euskal Herriko Unibertsitaterik. Euskadiko Unibertsitatea dago bakarrik, baina Euskal Unibertsitatea beste gauza bat da. Etorriko da hori ere, baina oraindik ez dago. Dena dela, gaurko unibertsitatea ere ondo dago. Ikasle asko dago, eta fakultate onak. Jendeak protesta egiten du tarteka, baina nahiko ona dela uste dut hala ere.

Erljioa ere zure kezka nagusietako bat izan da beti. Nola ikusten duzu erlijioa gaurko munduan?

Erljioa krisian dago, baina ez bakarrik erlijioa. Filosofia, pentsaera, bizitzaren esanahia... denak daude krisian. Gaur egun ez dago filosoforik. Postmodernismoa delako hori nagusitu da, bizitza eroso, ugaritasunaren eta teknikaren gizartea... Hori ez da batere interesgarria. Baina nik uste dut aldatu egingo dela. Gizateria era askotan bizi izan da, eta bere historia ez da lineala.

Carlos Santamaria: «Teknika ez da txarra; bai, ordea, teknikak agintzea»

HABE, 198 zk., 1991-06-01

Aurten hiru sari garrantzizko eman dizkiote Carlos Santamariari: Donostiako Seme Kuttun izendatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako urrezko domina eman bait zion apirilean. Aurtengo Manuel Lekuona saria ere berak jaso du. Eta Euskal Herriko Unibertsitateko Doctor Honoris Causa ere izendatuko dute. Ondo merezitako sariak hauek guztiak euskal kulturaren alde hainbeste lan egin duen pentsalari, matematikari eta idazle honentzat.

Carlos Santamariak bere etxean hartu gaitu, baina ez dugu sariez hitz egin, pakeaz baizik. Euskal Herria ere izan dugu aitagai, euskara, oraina, geroa, teknika, morala... Edozertaz hitz egin daiteke gizon jakintsu honekin.

Zutaz hitz egiten denean, pertsonalismoa aitatzen da. Zer da pertsonalismo hori?

Badakizu garai batean Franco, Mussolini eta Hitler zeudela agintean, eta gu, demokratok, pertsonalistak ginen. Pertsona defendatzen genuen, pertsonaren eskubideak. Gizakiaren eskubideak baino areago, pertsonaren eskubideak: pertsona bakoitza mundu bat da, gizakia baino gehiago da, badela badaki, eta inork ez dauka hor tartean indarrez sartzeko eskubiderik. Hori zen gure ideia nagusia diktaduraren kontra, Franco, Mussolini eta Hitlerrek ez bait zuten pertsona errespetatzen... Maritain-ek beti defendatzen zituen ideia horiek, baina Maritain oso gaizki ikusia zegoen Espainian, ez bait zuen sekula Espainiako diktadura onartu, eta herese bat bezala aurkezten zuten, eta izugarria zen garai hartan maritainista izatea.

Eta gaur egun nola ikusten duzu pertsonalismoa?

Egoera oso desberdina da. Orduan ideologiaren artean gerla zegoen. Gaurko egunean ez dago gerla ideologikorik, postmodernismoan gaude, milurte honetako azken hamarkadan: ugaritasunaren gizartea da oraingoa, nahikeriaren gizartea; xedea ondo bizitzea da. Ez dago elkarrekin erkatze moduko

ideologiarik, hemen bertan, Europan, garai batekin alderatuta, ze ideologia desberdin daude ba? Ia ez dago. Eta egoera hau zer da, hobea ala okerragoa? Gauza batzuk lortu dira: hemen demokrazian bizi gara, baina ideologiak desagertzea ez da ona. Jenderik gehienak gaur egun ez du arazo ideologikorik, erlijioarekin ere gauza bera gertatzen da. Postmodernismoa: borroka ideologikorik ez, ideia-rik ez, filosoforik ez, historiaren une aspergarri bat. Hau aldatuko da? Uste dugu baietz, baina nola? Aitzinakoa ez da berriz etorriko, badago era tradizionalan pentsatzen duen jendea, baina historia ez da gelditzen, ez da ezer itzultzen...

Gaztedi hedonista

Eta gaur egun ikusten al duzu geroko aldaketa hori nolakoa izango den aditzera ematen duen arrastorik?

Oso arrasto gutxi ikusten dira une honetan. Nere ikuspuntua zahar batena da, eta zaharrok atzera begiratzeko joera izaten dugu. Hori ez da ona. Gaztedi berriak nola jokatuko duen? Ez dakit, baina orain arte nahiko hedonista izan da: lan egin, bidaiatu, ondo jan, opor asko izan, hedonismoak dituen mila alderdiak... Hori da gure mundua, zati bat behintzat... Europa aurrera doa, Golkoko gerratea gertatu ez balitz hobe... Gaitzei aurre egiten zaie, zaharrok geroz eta hobeto bizi gara, denbora gehiagoan. Latinoamerikako zenbait diktadura ez dago jadanik. Oraingo sozialismoa ez da sozialismoa, noski, ez da garai batekoa, baina jendeak ez du protestarik egiten... Baina guzti hori dela eta oles egiten hasi behar al dugu?

Kanpoan esaten dute gure herri hau nahiko intolerantea dela. Hori horrela al da?

Piska bat egia da. Herri honek daukanean eta egiten duenean sinisten du. Herri honek ez ditu gauzak txantxetan hartzen, eta, alde horretatik, baliteke nahikoa intoleranteak izatea. Baina intolerantzia, neurri batean behintzat, ez da txarra. Hala ere, tolerantzia beharrezkoa da eta horretara jo behar dugu. Baina ez da hori gure ohitura. Zer egingo dugu ba: alde onak eta txarrak ditu herri batek.

Eta, intolerantziarekin jarraituz, zer iritzi duzu gerrei buruz?

Ez da nahikoa esatea «gerrari ez». Hori oso erraza da. Badaude pazifista oso muturrekoak eta hain muturrekoak ez garenak. Herri bati armaz erasotzen bazaio, bere burua defendatzeko eskubidea du herri horrek, zilegi du hori egitea. Muturreko pazifistek, ordea, zera diote: «gerrarik inoiz ez». Eta hauentzat gu ez

ginen benetako pazifistak defentsarako gerra onartzen genuelako. Hitler Frantzia sartu zenean, zer egin behar zuten frantziarrek, besoak uztartu eta halaxe gelditu?... Pakea egunero lortzen den zer bait da, bizilagunekin eta ondo konponduz, eta hori ez da hain erraza.

Erlijioaren sakontasuna

Hirurogeigarren hamarkadaren hasieran «Pax Christi» nazioarteko mugimenduaren idazkari nagusi izana zara.

Erljioa gauza sakona da: bizitzaren zentzua. Jendeak ez du bizitzaren zentzuan pentsatu ere egin nahi: «Zer da hau guztia, unibertso hau, hain handia?». Eta unibertso txiki hau, infinitesimala; partikula txikiak handiak bezain garrantzizkoak dira... Hori guztia misterioa da. Gizaki interesatuak bere buruari galde egiten dio: «Zer egiten dut nik hemen, zertara etorri naiz?». Hori da erlijio-sentimendua izatea. Gero, norberak nahi duen bidetik jotzen du. Baina jendea «auskalo» esanda konformatzen da... Familiaren esanahia ere aldatu egin da. Egun familia porru eginda dago. Hori aldatuko al da? Ez dakigu.

Orain famili unitate berriak sortzen ari dira, bi emakume eta haur batekin osatutakoak eta. Zer derizkiozu horri?

Bi lesbiana horiez ari zara? Hori astakeria bat da. Lesbianak direla? Beno, lehen ere izan dira. Banku batean dagoen hazia sartzen diote bati; aita nor den ez dakite... Zer gertatuko da hamar urte barru ume gaxo horrekin? Horietako emakume batek aitarena egingo duela; aita hazi hori da. Hori da itxuragabea! Ez du zerikusirik familiarekin. Kultura-faltaren erakusgarri nabarmena da. Eta ez naiz moralaren aldetik ari, bizitzaren aldetik baizik. Homosexualez osatutako gizarte bat egin behar al dugu? Nik umea dut gogoan, azken boladan asko pentsatzen dut ume errugabeetan. Tristetu egiten naute horrelako berriek.

Teknika eta morala

Eta nola elkartzen dira teknika eta morala?

Hori arazo latza da. Teknikak ez du bihotzik, ez du sentimendurik. Hau egin daiteke, eta kito! Eragin handia du teknikak egun. Asmatzaileek asmatu asmatzen dute, baina ez dakite zein ondorio izango duen asmakizun horrek, eta hori oso arriskugarria da, batez ere asmatutakoa nolana erabiltzen bada. Baina teknika ez da txarra; bai, ordea, teknokrazia, teknikak agintzea. Nik gizaldi honen erdi-aldera uste nuen, teknika bukatu egingo zela. Oso oker nengoen. Teknika ez

da gelditzen, eta ez da geldituko. Baina kontzientzia izan behar dugu: zerbait teknikaren aldetik egin ahal izateak ez du esan nahi egiten den hori ona denik.

Eta gure herri honek ba al du herri-kontzientziarik?

Euskal Herrian kontzientzia piskanaka-piskanaka ari da agertzen. Ni txikia nintzenean, ez zegoen euskal kontzientziarik. Franco oso ona izan zen guretzat alde horretatik, bere jazarpenarekin kontzientzia esnatu egin zuen. Gaur egun, kontzientzia handiagoa da: euskara, ikastolak... Orain jende askok daki euskara, hori gauza ona da.

«Kontzientzia geratzen zitzaidan»

Zuk ere badakizu euskaraz.

Eskolan galdu nuen euskara, eta gero, handitutakoan ez nuen hitz egiten. Baina kontzientzia geratzen zitzaidan, oraindik hemen ditut euskaraz ikaste-ko nere liburu zaharrak, On Toribio Alzaga eta Maria Dolores Agirrearekin ikasi nuen. Euskaldunberria naiz. Nire bilobek nik baino askoz ere hobeto daki- te euskara. Hizkuntza bat ondo mintzatzeko sakondu sakondu egin behar da, jaiotzetik. Nire garaian ez zitzaion garrantzirik ematen euskarari. Hitz egiten genuen... neskameekin.

Zuk euskaraz idatzi duzu.

Euskara galduko balitz, eta ez dut uste hori gertatuko denik, euskal gizonaren ikuspuntua galduko litzateke. Hizkuntza bakoitzak mundua bere era- ra ikusten du. Ez daude bi hizkuntza berdin. Batzuetan ez da posible itzultzea, «traduttore traditore». Nik batzuetan euskaraz idazten dudanean, pentsatzen dut: «Hau idatziko nuke, baina hau gaztelera da, eta alderantziz».

Orain gutxi idazten dut, ez dut astirik. Lehen bai astero-astero DVn «As- pectos» izeneko artikuluak idazten nituen abiada handian. Orain asko lantzen ditut, batez ere euskaraz idazten badut. Lasai lan egin nahi dut, lasaitasuna, ho- ri eskatzen diot zahartzaroari. Baina batzuetan hori aspergarria ere bada, oreka bilatu behar da.

Karlos Santamaria: zientzia eta kontzientzia bat eginik

Elhuyar, 60 zk., 1992-06

Joxerra Aizpurua Sarasola

1909.eko abenduaren 25ean Donostian jaiotako gizon honek bere ateak zabaldu ondoren, lan-gelara sartzeko gonbitea luzatu zigun. Gela ez zen handia eta bertan ez zen kolore distiratsurik ikusten. Argia bera ere, ez zen intentsitate handikoa eta apalategian zituen libururik gehienak ez ziren azkenaldikoak. Besaulkian eseri ginenean, kaseta prestatu eta ondoko solasaldia izan genuen.

Gipuzkoako unibertsitatearen aldeko batzordean parte hartu zenuen. Zer gogoratzen duzu garai hartakorik?

Diktadura-garaia zen hura eta «euskal» kutsua zuen edozer gauza debekaturik zegoen. Horrelako langintzetan sarturik genbiltzanoi «separatista» izen-goitia berehala jartzen ziguten. Hortaz, orduan boterean zeudenengandik ez genuen ezer asko espero. Gestio ugari burutu genuen, eta batez ere Aingeru Irigarai gogoratzen dut: biok ibili bait ginen batera eta bestera. Orduko agintariak Zuzenbide-Fakultatea irekitzeko baimena eman baziguten ere, laster porrot egingo genuen esperantza zuten. Ikusten denez, gauzak ez dira horrela gertatu.

Katolikoa zarela ez da sekretua, baina guk badakigu katoliko berezia zarela.

Betidanik parte hartu dut mugimendu katolikoetan. Hala ere, ez naiz inoiz ere «ofizialista» izan. Erlijio-ordezkariek, oro har, tradizionalistak eta inmoilistak izaten dira eta ni hortik kanpo ibili naiz. Ondorioz, eliza ofizialarekin ez-ulertze ugari izan dut.

Katoliko aurrerakoia izan naizenez konpromezuarena izan da gehienetan hartutako bidea. Hala ere, pentsamolde desberdineko jendearekin harreman ugari izan dut.

Ildo honi segituz, zer deritzozu askapen-teologiari?

Paralelismoak egitea zaila izaten da. Are eta zailago hain giro desberdinetan bizi izan garenez. Hala ere, askapen-teologia erakargarri iruditzen zaidanez nere burua hortik hurbil ikusten dut.

Ni «Pax Christi» mugimenduko idazkari nagusi eta partaide izan naiz. Era-kunde honek Parisen zuen egoitza eta iharduera ugari izan zuen. Gu bakezale ez-absolutu ginen. Hala ere, gerra berez ez dela kondenagarria baieztatu nahi dut. Injustiziak indarkeria dakar aldi berean eta, beraz, gerrak zentzuren bat izan dezake. Hala ere, istilu guztietan bake-bideak jorratzen saiatzen ginen. Diktadura-garaian ideologia desberdinetako pertsoneri laguntza eskaini genien.

Alderdi honetatik ere, askapen-teologiakoekin antzekotasunen bat badugu, baina egoera eta garai desberdinetakoak gara.

Energia nuklearra eta gerra nuklearra oso modan egon dira azken hamarkade-tan. Zuk kanpaina antinuklear ugaritan parte hartu duzu, ezta?

Urte askotan arrisku nuklearraren eraginpean egon gara. Orain, zorionez, gerra nuklearraren arriskua igaro da eta asko pozten naiz horretaz. Gerra nuklearra izugarria izan daiteke guztiontzat eta horregatik parte hartu izan dut kanpaina antinuklearretan.

Hala ere, ni ez naiz antinuklearra, hau da, energia nuklearrari ez diot uko egiten, baina alor honetan baldintza asko jarriko nituzke.

Zientzia Zehatzak ikasi zenituen. Arlo horretan zein izan da gehien interesatu zaizun atala?

Matematikak ikasi nituen eta matematikaren inguruan lan desberdinak egin ditu. «Centro de estudios científicos»ek Donostian «Revista de matemáticas» argitaratzen zuen eta bertan parte hartu izan nuen.

Jose Oñate matematikariaren lagun izan nintzen. Honek axiometria landu zuen eta axiomatika matematikan sartzea izan zen bere helburua.

Matematika zientzia zabala denez, matematikari guztiok alor batzuk bes-teak baino gustokoago ditugu. Neri oinarrizko matematika, logika eta geometriaren postulatuak gustatu zaizkit eta horregatik matematikaren alorrean egin-dako ikerketa aipatu ataletara bideratu dut.

Hala ere, matematikak egin didan ekarpenik handiena, gauzak aztertzeko metodoan datza. Metodo zientifikoak ez dira zientzian bakarrik aplikatzekoak. Arazo edo proiektu arruntetan ere aplikatuz gero, oso emaitza aberatsak lor daitezke.

Infinitu matematikoa existitzen al da?

Matematiketan ere aska ezinezko korapiloak badaude eta horretarako balio duen zerbait asmatu behar da. Infinitua hor kokatu behar da. Infinitu matematikoa ez da matematika, baina matematikak zenbait arazo ezin ditu gainditu hori gabe.

Eta denborari buruz zer esango zenuke?

Denbora-mota asko dago. Besteak beste, denbora fisikoa, metafisikoa eta psikologikoa ditugu. Guretzat ezagunena denbora fisikoa da, baina denbora-mota hau ere ez dugu erabat ezagutzen.

Einstein-ek denbora absolutua ez dela esan zigun erlatibitatearen teoria idatzi zuenean. Nahiz eta gaur egun teoria honen zuzentasuna duda-mudatan egon, enbidoa hor dago eta orain arteko pentsamolde eta teoria asko hankaz gora jarriko dira.

Bai, denbora ere erlatiboa da.

«Eusko Kontseilu Nagusia» zelakoan hezkuntz kontseilari izan zinen. Beraz politikan ere urrats batzuk eman dituzu.

Bai, izakeraz eta pentsamenduz gizon eraginkorra eta aurrerakoia izan naiz eta horrela ulertzen da nire iharduera politikoa.

1978tik 1980ra bitartean Eusko Kontseilu Nagusiko hezkuntz kontseilari izan nintzen. Garai hartan EAJ-koa nintzen, baina gero zatiketa egon zenean EA-ra pasa nintzen. Aldaketa honen azpian progresoaren eta aurrerapausoen aldeko nere joera zegoen eta ez besterik. Hala ere, ni ez naiz alderdi gizona. Alderdiek gehiegi lotzen dute, bai ideologikoki eta bai praktikoki, eta nere bizitza osoan librepentsalari izan naizela esan daitekeenez, ni ez naiz interesgarria alderdientzat eta alderdiak ere ez neretzat.

Pentsalari ere izan zarenez, pertsona interesgarriak ezagutuko zenituen, ezta?

Jende prestatua leku askotan dago. jende asko ezagutu dut Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo eta guztiak gogoratzea ezinezkoa da.

Jose Miguel Zumalabe eta Rikardo Arregi biziki gogoratzen ditut. Makina bat lan eta eztabaida izan genuen elkarrekin!

Zubiri eta Zaraguetaren lagun izan nintzen. Hauek, nere iritziz, Ortega baino filosofo sakonagoak ziren. Ortega dotorea zen idazten eta hizkuntza ongi menperatzen zuen, baina pentsamendu aldetik ez zen sakona.

Badakit izen asko ahazten zaizkidala, baina urteak ez dira alferrik igarotzen eta...

Hezkuntzan ere urrats batzuk eman dituzu.

Beti ikasten aritu banaiz ere, irakaskuntzan urrats batzuk eman ditut.

Santo Tomas Lizeoa sortu genuenean irakasle izan nintzen.

Injineruentzako prestakuntz akademia izan nuen. Bertan matematikak irakasten genituen eta gerora ospetsu izatera heldu den injinero asko pasa zen. Besteak beste Txillardegi gogoratzen dut.

Zer deritzozu demokraziari eta gaur egun bizi dugun uneari?

Demokrazia, garai batean sakon sentitzen zen hitza zen. Eta gaur egun zer gertatzen da? Demokrazia badugu, baina ez gara ezertaz enteratzen; boterea ia lehen bezain urrun dago. Alderdiek erabakitzen dute eta informaziorik ez dago.

Bestalde, gizarteko balioak asko aldatu dira. Gaur egun garrantzitsuena pragmatismoa eta utilitarismoa dira. Dirua irabaztea da askoren helburu bakarretakoa. Gatazka handirik ez dago eta aldi berean, ilusio eza gero eta nabariagoa da. Ideologiak gero eta leku gutxiago du...

Ekologia azken hamarkadan indartu den kontzeptua izan da. Zuretzat zer da ekologia?

Neretzat ekologia oinarrizko jakinduria da. Historian zehar mentalitate teknikoa dutenak eta mentalitate ekologikoa dutenak aurkitu izan ditugu eta oraindik ere aurkitzen ditugu. Lehenengoek natura erabili egiten duten bitartean, bigarrenek natura errespetatu egiten dute.

Nik soluzio harmonikoen beharra ikusten dut. Natura erabili behar da, baina errespetatuz; izugarria bait da industriak irizpide ekologikorik gabe egitea.

Beraz, ekologia bizitza ikusteko modu bat da, eta gainera, bizitzako ekintza guztietara zabaltzeko behar den kontzeptua. Gizatasuna beste era batera ulertzen da, eta lehen esan dudana bezala, jakinduri mota bat da.

Nere iritziz, ikasleei ikastetxetan irakatsi beharko litzaieken gauza da.

Igeldoko meteorologi zentruan aritu zinen garai batean, ezta?

Aspaldiko gauza da, baina egia da. Aritu nintzen bai.

Soldadutzara joateko garaia zen eta libratzeko posibilitateak aztertu nituen. Posibilitate horien arteko bat meteorologi oposizioak gainditzea zen. Salaman-can burutu nuen meteorologi ikastaroa eta promozioko lehen postua atera nuen.

Oposizio horri esker Igeldoko meteorologi zentruan lanean aritu nintzen, eta bertan Felisa Martin Bravo-rekin aritu nintzela gogoratzen dut.

Azken galderak euskarari buruzkoa izan behar du. Hitz egingo al diguzu euskararak eta Karlos Santamariak izan dituzten loturez?

Nere etxean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten zen. Ikasketak gaztelaniaz burutu nituen eta gerora alfabetatu nintzen.

Euskal Herrian bizi naizela kontziente naizenez geroztik euskararen herrian bizi naizela sinetsi nahi izan dut. Pentsamendu honi jarraituz, euskarak eta nik etengabeko lotura izan dugu. Euskaraz argitaratutako aldizkaririk gehienetan partaide eta bultzatzaile izan naiz; Jakinen, Argian, etab.etan.

Euskaltzaindian ere batzorde eta talde askotan parte hartu izan dut; batez ere euskara batuaren hasierako garaian.

Egia da euskara batuari euskalkien goxotasuna falta zaiola, baina aldi berean egia da euskara batua errealismoak sortutako euskara dela ere.

Bide luzea geratzen zaio euskarari, baina iritziak iritzi euskaldun izaten segitu nahi badugu, euskaradun izan behar dugu.


Ordu t'erdiz izan ginen Karlos Santamaria jaunarekin eta jaso dituen eta jasotzen ari den sari eta aipamenez ez zigun tutik ere esan. Aldiz, Elhuyar aldizkari-ko «Zientzilarien ildotik» gustokoa zuela, «Euskaldunon Egunkaria»rako artikulua bat idazten ari zela eta liburu-pare bat irakurtzen ari zela esan zigun, hau da, pentsatzeari ekiten ziola esan zigun.

Agur Santamaria jauna, eta mila esker.

ARGAZKIAK



Karlos Santamaria eta familia



Karlos Santamaria (erdian, uztaia eskutan) guraso eta anai-arrebekin.



Karlos Santamaria, bere ama Petra Ansa eta bere emazte Blanca Ibarburu, Donibane Lohizunen (1933).



Karlos Santamaria eta Blanca Ibarburu (1989ko abuztua).

Lagunak eta lankideak



Jose Migel Zumalabe eta Karlos Santamaria.



Leireko monasterioan (1961eko uztaila). Eskuinean, Karlos Santamaria.



Gaspar Montes, Antonio Valverde *Ayalde*, Jose Artetxe, Luis Vallet, Juan Miguel Sansinenea, Alvaro del Valle Lersundi, Luis Rodriguez Gal *Luis de Uranzu* eta Karlos Santamaria (1966-01-06).



El Ciervo aldizkariaren Kontseilu Editoriala. Erdian, Karlos Santamaria.



Antonio Beristain, Manuel Lekuona, Xabier Aizarna, Jose Migel Barandiaran, Karlos Santamaria eta Gregorio Monreal.

Hainbat ekimen



Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián (1935-1959).





«Pax Christi» erakundearen kongresua Madrilén (1956-01-08). Ezkerrean, Karlos Santamaria.




«Pax Christi». Topaketak.



Karlos Santamariaren hitzaldia Escuela Superior de Técnica Empresarial (ESTE) unibertsitate zentroaren inaugurazio ekitaldian (1958-10-04). Eserita, eskuinean, Aita Ignacio Errandonea.







Eusko Kontseilu Nagusia (1978). Goian, ezkerretik: Juan Maria Bandres, Jesus Viana, Jose Antonio Maturana, Pedro Morales, Juan Maria Ollora, Jose Maria Benegas, Jose Manuel Lopez de Juan Abad eta Andoni Monforte. Behean, ezkerretik: Juan Iglesias, Jose Antonio Agiriano, Ramon Rubial, Juan Ajuriagerra, Juan Echevarria, Karlos Santamaria eta Mikel Isasi.



Egunkaria Sortzen elkartearen prentsaurrekoa (1990). Mahaian, Joxemi Zumalabe, Iñaki Uria, Karlos Santamaria eta Joan Mari Torrealdai.



Egunkaria Sortzen elkartearen bilera. Karlos Santamariaren ondoan, Martin Ugalde.

Aitorpenak eta sariak

Ohorezko Legioaren Frantziako Ordenako Ofiziala (1957)



1957an, Ohorezko Legioaren Frantziako Ordenako Ofizial izendatu zuten. Karlos Santamariaren ezkerrean, Maurice Feltin kardinala.



Ohorezko Legioaren Frantziako Ordenako Ofizial izendapen-ekitaldia. Erdian, Maurice Feltin kardinala.

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria (1991)



Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jasotzen, Jose Luis Orella Eusko Ikaskuntzako lehendakariordearen eskutik (1991-04-13).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Urrezko Domina eta Seme Kuttuna (1991)



1991n, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Urrezko Domina eman zion eta Gipuzkoako Seme Kuttun izendatu zuen (1991-04-27).



Karlos Santamaria Gipuzkoako Urrezko Domina emate-ekitaldian (1991-04-27). Eskuinean, Imanol Murua, Gipuzkoako Ahdun Nagusia.



Karlos Santamaria Gipuzkoako Urrezko Domina emate-ekitaldian (1991-04-27).



Karlos Santamaria, Imanol Murua eta Pedro Miguel Etxenikerekin, Gipuzkoako Urrezko Domina emate-ekitaldian (1991-04-27).

UPV/EHUren Honoris Causa Doktorea (1992)



1992an, Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktore izendatu zuen (1992-02-05). Karlos Santamariaren ezkerrean, Juan Jose Goiriena EHUko errektorea.



Karlos Santamaria EHUren Honoris Causa Doktore izendapen-ekitaldian (1992-02-05). Eskuinean, Jesus Maria Larrazabal.



Karlos Santamariaren hitzaldia EHUren Honoris Causa Doktore izendapen-ekitaldian (1992-02-05).